

Gustave FLAUBERT

Maitasunaren ikasten
Gizon gazte baten ixtorioa

Traduction basque (navarro-labourdin littéraire)
de *L'Éducation Sentimentale*
suivie d'une *Postface* en français du traducteur
par
Jean-Baptiste ORPUSTAN

Jean-Baptiste ORPUSTAN-ek euskaraz itzulia

ZATI LEHENA

I

1840-ko buruilaren hamabortzean, goizeko seiak hirian, *Ville-de-Montereau* untzia abiatzera zoan, khe lano gotor batzuetan ufaka, San-Bernateko ur-hegiaren aitzinean.

Jende batzu bazetorzen hatsa galdua; barrika, burdin-soka, oihalzare hor zauden ibiltzea trabatuz; untzilariek etzuten ehorri ihardesten; elgar joiten zen; zama meta goiti ari zen bi damborren artean, eta harramantza ithotzen khearen xixtuetan, hunek, burdin-zuriaren arte batzuetarik jalgiz, guzia lano zurail batez inguratzen zuela, zilintza, aitzinean, joiten ari zelarik gelditu gabe.

Untzia azkenean abiatu zen; eta bi ur bazterrak, saldegiz, eraikuntza lanez eta landegiz hartuak, lasterrez joan ziren hedatzen diren bi xingola luze bezala.

Hemezortzi urteko mutiko gazte bat, ileak luze eta bilduma zabal bat besapean, bazagon lemaren ondoan, higitu gabe. Lanbroaren artetik, ezkiladorre, izenez ezagutzen etzituen eraikuntza batzuer beha zagon; gero, azken behakoan, batean ikusi zituen San-Luis irla, Zibitatea, Andredona-Maria; eta berehala, Paris gordetzera baitzoan, hasperen handi bat eman zuen.

Federik Moreau Jauna, berriki baxeler onhartua, Zekuanako Nogent-era itzultzen ari zen, han bi ilabetez enhoatuko baitzatekeen, *dretxoaren egitera* joan baino lehen. Amak, behar zen diruarekin, Havre-ra igorria zuen osabaren ikustera, hunen ganik ondoriotasuna ukanen zuelako ustean; etzen handik bezperan baizik itzulia; eta hiri nagusian ez egon ahal izana ordaintzen zuen bere herrialdera bide luzenetik joanez.

Harramantza eztitzen ari zen; guziek hartua zuten bere lekua; zenbait, zutik, mekanikaren inguruan berotzen ari ziren, eta khebideak botatzen zuen, khorroka baten neurkada eztian, bere khe beltzezko hedoia; ihitz xorta batzuek bazarioten burdin-horietan; untziaren bizkarra ikaratzen zuen barneko daldara ttipi batek, eta bi errotek, lasterrez itzulika, ura joiten zuten.

Ur-bazterretan ondartzak hedatzen ziren. Zur-lerro batzu gurutzatzen ziren uhainen zirimolak goititzen eta beheititzen zituenak, edo, oihalik gabeko untzi batean gizon bat, zutik, ari zen arraintzan; gero lanbro higikorrak ezeztatu ziren, iguzkia agertu zen, Zekuanaren bideari

eskunetik bazarraikan mendixka aphaudu, eta bigarren bat goititu zen, hurbilago, bertze aldeko ur-bazterrean.

Zuhatz batzuek inguruan hartzen zuten molde italiarreko hegaztegiez estaliak ziren etxe aphauden artea. Baratze batzu bazituzten maldan harresi berri batzuez berexiak, burdin sareak, soropilak, landeretegi beroak, eta lore zango-gorri untziak, arte berdinetan lerroka ukondokaturik beha egon zaitekeen zabaltzetan. Bat baino gehiagok, egoitza aphauden horiek ikusiz, hain gozoan, haien jabe nahiko zuen, azken egunetarako hor bizitzeko, billar bat, xalupa bat, emazte bat edo bertze amets bat lagun. Urez bidaiatzeko atsegin berri-berriak errexten zuen elhe emaita. Jadanik jostakin batzu irri-solasetan hasten ari ziren, ainitz kantuz, oro alegrantzian. Baso ttipi batzu betetzen ziren.

Federikek gogoan zerabiltzan han hartuko zuen gamera, antzerti baten egitura, margazki batzuen gaiak, geroko sendimendu bortitzak. Bazidurikon bere arima guziz onak merezi zuen zorionak berantzen zuela. Neurtitz trixte batzu bere baitan ahozkatu zituen; untzi-bizkarrean bazabilan, urratsa zalu; bururano aitzinatu zen, ezkilaren aldera; - eta, bidaiant eta itsasturi inguru baten erdian jaun bat ikusi zuen laborarisa bati galankeria erraiten, eskuztatzen zaukola aldi berean papoan zuen urrezko gurutzea. Berrogei bat urteko putikoa zen, ileak kixkur. Soinara azkarrak betetzen zaukon balusa beltzezko jaketa; bi esmeraldek dirdiratzen zuten haren lihozko athorran, eta galtza zuri zabala jausten zizakon bota gorri bitxi batzuerarano, Errusiako larruzkoak, marrazki urdinez aphainduak.

Federiken han iziateak etzuen batere nahasi. Aldi bat baino gehiago haren ganat itzuli zen, begi kheinu batzuek deitzen zuela; gero inguruan zituen guzier zigarro batzu eskaini zezteen. Baina, lagundia hortaz aspertua, behar bada, urrunago egoitera joan zen. Federik jarraiki zizakon.

Solasa tabako motetan ibili zen hastapenean, gero, nolaz ez bada, emaztetan. Bota gorriekilako jaunak aholkuak eman zauzkon mutiko gazteari; teoria batzu zabaltzen zituen, gertaldi batzu erraiten, bere burua behazunetako hartzen, hori guzia bazerasala halako itxura gezazte batean, jostagarri zen lizunkeriazko lañotasun batekin.

Alderdez errepublikarra zen; bidaietan ibilia, antzokien barneak, ostatuenak, berrikarienak ezagutzen zituen, eta artixta aipatu guziak, etxekoki bere izen ttipitik deitzen zituela; berehala gero Federikek bere lan xedeak erran zauzkon; egitera sustatu zuen.

Baina gelditu zen khebideko tutari beha, gero karkula luze bat murmurikatu zuen, jakin beharrez “piztonaren ukaldi bakoitzak, minutan hainbertze alditan, zenbat behar zuen, eta bertze”. - Eta, gostatzen zena hatzemanik, luzaz egon zen eskualdeari beha. Egitekoer ihes eginik zoridun zela zion.

Federikek sendi zuen haren aldera errespetu bat bezala, eta etzuen ihardoki ahal ukan zer izen zuen jakiteko gutiziari. Gizon ez ezagunak ihardetsi zuen hatsaldi batez:

- “Jacques Arnoux, *Edergintza industrialala*-ren jabea, Montmartre karrika handian.”

Mutil bat kaxketan urrezko galoin batekin ethorri zizakon erraitera:

“Jaunak jautsi nahi balu? Andereñoa nigarrez ari da.”

Joan zen.

Edergintza industrialala biarteko etxe bat zen, margolaritzako berrikari bat eta margazki saldegi bat bazituena. Federikek izen hori ikusia zuen, aldi bat baino gehiago, bere sortherriko liburu saltzalearen zabaldegian, neurrigabeko iragarki batzuetan, han Jacques Arnoux-ren izena nagusiki hedatua baitzagon.

Iguzkiak zuzen joiten zuen, hagako eta khutxeriako burdinak eta uraren azala dirdira-araziz; brankak bi ildotan mozten zuen, phentzen bazterrerano luzatzen zirenak. Ibaiaren bihurtune bakoitzean, berriz ere aurkitzen zen zuhar zurailen erridau berdina. Bazterra orai huts-hutsa zen. Zeruan baziren hedoi xuri ttipi batzu geldirik, - eta iduri zuen enhoadurasak, ixilean hedatuz, untziaren urratsa eztitzen zuela eta bidaiarien itxura oraino ezteusago bilakatzen.

Burjes batzu salbu, Lehenetan, langile batzu ziren, saldegietako jendeak bere emazte ‘ta hurrekin. Aro hartan bidaiatzeko zikinki janzteia ohi baitzen, abantzu orok bazituzten xano zahar ara grekako edo xapel histu batzu, jantzi hertsi beltz batzu, bulego thorratzeak higatuak, edo maripulis batzu botoin xiloak saldegian erabiliegiaz zabalduak; han hemenka barneko motx oihaldun zenbaitek agertzera uzten zuen gotoinezko athorra bat kafez zikindua; zimilorrezko izkilima batzuek sistatzen zituzten lephoko zintzilikatu batzu: oinazpiko josiek bazaduzkaten oihal arruntezko galtzerdi batzu; bizpahirur gizagaitz khanabera larruzko hededun batzu eskuan azpiz behaka ari ziren, eta aita familiako batzu begiak handituz, galde eta galde. Mintzo ziren zutik, edo bere phusketan kokorikaturik; betze batzu zokoetan lo; andana bat jaten.

Zubia intzaur azalez zikindua zen, zigarro muturrez, madari azalez, paperean ekharriak ziren urdaki ondarez; hirur zurbelzkin bazauden, xamarran, jandegi aitzinean; harpalari bat philtzarrez jantzia atsedean hartzen, ukondo bere soinuaren gainera; noiztenka entzuten zen labean ikhartzaren harrabotsa, mintzo gora bat, irri bat; - eta kapitaina, zubixkan, bazabilan dambor batetik bertzera, gelditu gabe. Federikek, bere lekura joateko, bultzatu zuen Lehenetako burdin-sarea, eta bi ihiztari bere ihiztorrekin higi-arazi.

Agerraldi bat iduritu zizakon:

Anderea jarria zen, bankaren erdian, bakar-bakarrik; edo bederen bertze nehorri etzen ohartu haren begiek igorri zaukoten lilluran. Iragaiten zen aldi berean, burua goititu zuen; Federikek soin-gainak ukurtu zituen nahigabetarik; eta, urrunago emana izan zenean, alde beretik, andereari so egin zaukon.

Bazuen lastozko xapel zabal bat, airean, gibelera, ikharatzen ziren xingola arrosa-kolore batzuekin. Buruko oihal-xerrenda beltzak, bekhain handien hegia inguratuz, biziki behera jausten zizazkon, begitartearen arraultzara amoroski hertsatzen zaukotela iduri. Musulina argizko zaia, xeheki tittatua, jausten zizakon ixur ainitz eginez. Zerbaiten brodatzen ari zen; eta haren sudur zuzena, bidarra, soin guzia marrazkituak zauden zeruko urdinean.

Egonara berdina baitzadukan, Federikek egin zituen itzuli batzuek eskun eta ezker bere jokoaren gordetzeko estakuru; gero eman zen alkiari kontra ezarria zen haren iguzkitakoari hurbil-hurbila, alegia eta urean zen xalupa bati beha.

Nehoz etzituen ikusiak haren larru beltzaranaren mirazko ederra, soin-araren atsegingarria, ez eta argia hartzen zuten erhien mehe hura. Josteko lanen zareari beha zagon balditurik, ohigabeko gauza bati bezala. Zein zituen izena, egoitza, bizia, iragan-bizia? Nahi zituen haren gambarako mubleak ezagutu, erabiliak zituen zaia guziak, ikusten zituen jendeak; eta haren gorputzaz jabetzeko gutizia bera ezeztatzen zen barnagoko nahikaria baten azpian, mugarik etzuen jakin-nahi mingarri batean.

Emazte beltz bat, oihal bat buruan, jin zen, nexka ttipi bat, ja handitua, eskutik atxikiz. Haurra, begietan nigarra zariola, atzarri berria zen; altzoan hartu zuen. “Andereñoa etzen pherestua, nahiz laster zazpi urte ukanen zituen; amak etzuen gehiago maitatuko; parrak sobera

barkatzen zizazkon.” Eta Federik loriatzen zen gauza horien entzutean, aurkintza bat egina ukan balu bezala, jabetze bat.

Ethorkiz andaluziarra zadukan, behar bada irletakoa; handik ekharria zuena berekin emazte beltz hori?

Artean, bizkarreko oihal xerrenda ubekilako bat emana zen haren gibelean, burdin-horizko untzi-bazterraren gainean. Aldi ainitzez soina hartaz ingurutua ahal zukeen, itsasoaren erdian, arrats hezetan, oinak hartaz estaliak, barnean lo egina! Baina, litsek eremanik, emeki lerratzen ari zen, urerat erortzera zoan, Federikek jauzi bat egin zuen eta hatzeman. Erran zaukon:

- “Eskerrak zuri, jauna.”

Begiek elgar jo zuten.

- “Bahiza, emaztea?” oihukatu zuen Arnoux jaunak, mailaldeko atherbe buruan agertuz.

Martha andereñoak laster egin zuen haren gana, eta lepotik lothurik, muxtatxak thiratzen zauzkon. Harpa baten soinuek jo zuten, musika ikusi nahi ukan zuen; eta berehala, musika joilea, emazte beltzak ekharririk, Lehenetan sartu zen. Arnoux-ek ezagutu zuen lehenago moldetako erbailia zuen bat; hika mintzatu zizakon, horrek han zirenak ustegabetu baitzituen. Azkenean, harpalariak bere ile luzeak gibelerat eman zituen, besoak luzatu eta joiten hasi zen.

Ekhialdetako eresia bat zen, puñalez, lorez eta izarrez ari zena. Gizon philtzarrez jantziak kantatzen zuen mintzo zorrotz batekin; mekanikaren ukaldiek airea kontrako neurkadaz hausten zuten; zimikatzen zuen azkarkiago: zurdak dardaratzen ziren; eta haien burdina-soinuek hasperenak ixurtzen zituztela baziduriten eta maitasun burkoi eta garhaitu baten halako auhen bat. Ibaiaren bi aldetan, oihanak gurtzen ziren ur bazterrerano; aire hotx bat bazoan; Arnoux Anderea norapait urrunera so zagon. Musika gelditu zenean, betespalak aldi bat baino gehiago higitu zituen, amets batetik atheratzen baliz bezala.

Harpalaria hurbildu zizaien, xume-xumea. Arnoux xehe bila ari zenean, Federikek kaxketara luzatu zuen bere esku hetsia, eta, eztiki idekiz, urrezko luis bat han ezarri. Etzen handieria anderearen aitzinean limosna horren egitera zeramana, baina harekin batean ezartzen zuen benedizionezko gogamen bat, bihotzetik jalgia, abantzu erlisionekoa.

Arnoux-ek, bidea erakutsiz, gogotik jaustera gomitatu zuen. Federikek erran zaukon bazkaldu berria zela; gosez hila zen, ordea; eta sos bat etzuen moltsaren zolan.

Gero uste ukan zuen bazuela dretxoan, bertze batek bezala, barne hartan egoiteko.

Mahi biribilen inguruan, burjes batzu jaten ari ziren, ostatu mutil bat bazabilan: Arnoux Jaun-Andereak zolan ziren, eskunetik; balusazko alki luzean jarri zen, hor zen egunkari bat hartu eta.

Behar zuten, Montereau-n, Châlons-ko karrosa handia hartu. Suizako bidaiak ilabete bat iraunen zuen. Arnoux Andereak senarra erasiatu zuen haurrendako zuen ahuleziaz. Beharrira murmurikatu zaukokeen ikustatezko hitz bat, ezen andereak irriño bat egin zuen. Gero gizona higitu zen haren lepho giblean leihoko erridauaren hestera.

Tronadurak, apha eta zuri-zuria, argi gordin bat aurdikitzen zuen. Federikek, aitzinetik, ikusten zaukon betilen itzala. Hark ezpainak basoan bustitzen zituen, ogi axial apur bat erhien artean phorrokatzen; harri-urdinezko medailunak, urrezko gatinaxka batez ukondoan estekaturik, azieta joiten zaukon noiztenka. Hor zirenek, alta, etzuten iduri ohartzan zitzazkola.

Batzuetan, untzi-leihoetarik, barku zenbaiten sahetsa lerratzen ikusten zen, untziaren hunkitzera jiten zena bidaiari batzuen hartzeko edo uzteko. Mahietako jendeak leihoetara makurtzen ziren eta bazterreko herriak izendatzen zituzten.

Arnoux kozinaz khexu zen: azkarki erasian hasi zen konduaren aitzinean, eta apha-arazi zuen. Gero ereman zuen mutiko gaztea untziaren aitzinaldera edari bero batzuen hartzera. Baina Federik laster oihal-etxearen azpira itzuli zen, Arnoux Anderea hara jina baitzen berriz. Estali hautsaranarekilako liburu mehe bat irakurtzen zuen. Ahoko bi ixkinak goititzen zitzazkon artetan, eta atseginezko phindar batek argitzen zaukon bidarra. Jelos izan zen hetaz hartua iduri zuen gauza horiek asmatuak zituenaz. Gehiago hari beha zagon, are gehiago sendi zituen haren eta beraren artean lezeak idekitzen ari. Gogatzan zuen sarri utzi beharko zuela, baitezpada, hari hitz bat athera-arazi ahal gabe, orhoitzapen bat ere ez utzirik!

Ibar bat zabaltzen zen alde batetik; ezkerrean belhartze bat bazoan eztiki muño baten batzera, hartan ikusten baitziren mahasti batzu, itzaurrondo batzu, ostapean eihera bat, eta haratago bidexka batzu, bihurtzatuz zeru bazterra hunkitzen zuen harrialde zurian. Zer zoriona haier goiti joitea elgarren ondoan, besoa gerri inguruan, zaiaz orsto horiak haizatzen zituela, haren mintzoa entzunez, haren begietako

argiaren dirdiran! Untzia geldi zaitekeen, aski zuten jaustea; eta gauza hain xoil hori etzen, bizkitartean, iguzkiaren higitzea baino errexago!

Urrunxago, jauregi bat aurkitu zen, hegaztegia xorrotx, laur izkinetako dorrexka batzuekin. Lore-taloin bat hedatzen zizakon aitzinaldean; eta ibilbide batzu sartzen ziren, uztaipe ilun batzu iduri, ezki handien azpian. Ikusten zuen anderea hegigar hesien ondoan. Orduan, andere gazte bat eta gizon gazte bat agertu ziren athe-aitzinean, iranja khutxen artean. Gero guzia joan zen.

Nexka ttipia jostetan ari zizakon inguruan. Federikek musu eman nahi ukan zaukon. Sehiaren gibelean gorde zen; amak erasiatu zuen lephoko oihala begiratu zaukon jaunarendako ez maitagarri izaitez. Aitzin urrats zehar bat zena?

- “Mintzatuko ote zata azkenean?” ari zen bere buruari.

Lehia zen. Arnoux-ren etxerat gomita nola ukan? Eta hoberik jeus etzuen asmatu larrazkeneko margoer oharr-araztea baizik, gehituz:

- “Horra laster negua, dantzaldi eta auharien aroa!”

Baina Arnoux bere phuskez osoki hartua zen. Surville-ko malda agertu zen, bi zubiak hurbiltzen ari ziren, sokategi baten ondotik joan ziren, gero etxe aphas zerrenda batenetik; baziren, azpialdean, mundrun dupina batzu, zur ezpal batzu; eta haur andana bat bazabilan ondartzan, buruxkinka. Federikek ezagutu zuen soineko motx besodunekilako gizon bat, oiuhu egin:

- “Egik laster.”

Heltzen ari ziren. Arnoux nekez bilatu zuen bidarien multzoan, eta hark ihardetsi zaukon eskua tinkatuz:

- “Ikus arteo, jaun maitea!”

Ur-bazterreratua izan zenean, Federik itzuli zen. Anderea lemaren ondoan zagon, xutik. Hartan arima osoaren ezartzera entseatua zen behako bat igorri zaukon; jeus egina ezpalu bezala, etzen higitu. Gero, mutilaren agurrez axolatu gabe:

- “Zergatik eztuk karrosa hunarano ekharri?”

Gizagaizoa desenkusetan ari zen;

- “Zer malestruka! Emadak dirua!”

Eta joan zen ostatu batean jatera.

Oren laurden bat berantago, ukan zuen ustegabe bezala karrosa handien korralean sartzeko gutizia. Ikusiko zuen oraino, behar bada?

- “Zer balio du?” egin zuen bere baitan.

Eta karrosak ereman zuen. Etziren bi zaldiak amarenak. Chambrion jaun zergalariarena hartua zuen berearen ondoan uztartzeko. Izidorek, berperan abiatu, Bray-n atsedean hartua zuen arratserano eta Montereau-n etzana zen, hala nola nun zamariak, bizkorrik, trosta zalu baitzuten.

Landa batzu uztak eginik ethengage hedatzen ziren. Bi zuhatz lerro baziren bide bazterrean, harri metak bat bertzearen ondotik; eta emeki emeki, Villeneuve-Saint-Georges, Ablon, Châtillon, Corbeil eta bertze herriak, bidaia guzia gogorat ethorri zizakon, hain argi nun xehetasun berri batzu ikusten batzituen orai, berezitasun barnagoko batzu; zaiaren azken hegal-pean, oina zetazko botina mehe, gaztain-koloreko batean sartzen zizakon; gotoinezko oihal-peak pabellun zabal bat egiten zaukon buru gainean, eta bazterreko ezkurño gorriak airera daldaratzen ziren, gelditu gabe.

Iduri zuen liburu erromantikoetan diren emazte hetarik. Jeus etzukeen haren itxurari gehitu, ez ekhendu nahiko. Mundua bapatez zabaldua zen. Hura zen gauzak oro beregana biltzen zituen argigunea: - eta, karrosaren ibiltzeak leriaturik, betespalak erdi hetsiak, hedoier beha, bere burua uzten zuen bozkario ametsetako eta mugagabe batera joaiten.

Bray-en, etzuen zaldarea eman izan zadin igurikatu, aitzina joan zen, bidean, bakar-bakarrik. Arnoux-ek deitua zuen “Maria!” Gora-gora oihu egin zuen: “Maria!” Mintzoa airean urtu zen.

Margo gorri-beltz zabal batek zerua sutan emaiten zuen sartaldara. Gari meta gotor batzuek, kizkien erdian zutituz, gaitzeko itzal batzu igortzen zituzten. Zakur bat ehausiaka hasi zen laboretxe batean, urrun. Hotz-ikara bat ukan zuen, arrazoinik gabeko lotsa batek harturik.

Izidor ethorri zizakonean, Federikek bidatzeko alxia hartu zuen. Hixtura hura iragana zen. Arnoux-tarren etxean sartzera, edozein molde, ontsa deliberatua zen, eta haiekin harremetan jartzera. Etxea jostagarria zuketen. Arnoux gustatzen zizakon bertzalde; eta gero, nork daki? Orduan, odol-aldi bat igan zizakon aurpegira: pholtsuak burumban, azotea zarta-arazi zuen, uhalak inharrosi, eta zaldiak halako lasterrez bazeramatzan nun karrosazain zaharra ari baitzen errepikatuz:

- “Emeki! Emeki! hats-bahi-araziko dituzu.”

Apurka apurka Federik eztitu zen, eta mutilak zer zion entzun zuen.

Jaunaren beha zaudela ezin-egon handitan. Andereño Luixa nigarrez ari izana zela karrosan joan nahiz.

- “Nor da bada, Andereño Luixa?”
- “Roque Jaunaren alabattoa, badakizu?”
- “Ha! Ahatzia nuen!” ihardetsi zuen Federikek, axolagabea.

Bizkitartean, bi zaldia ezinduak ziren; bata eta bertzea mainguka; eta bederatziak joiten ari San-Laurenzen Harmetako plazara heldu zenean, amaren etxe aitzinera. Etxe horrek, zabala, baserrira bazeman baratze batekin, handitzen zuen Moreau Anderearen aipamena, herrialdean zen jende errespetatuena baitzen.

Aitorensese familia zahar batetik zetorren, orai agortua zena. Senarra, aitamek ezkont-arazia zaukoten jende xoil bat, ezpata ukaldi batez hila zizakon, haur beharretan zenean, fortuna gaizkitu bat utziz. Etxera asteen hiruretan gomitatzen zuen et noiztenka auhari eder bat emaiten. Baina ezkoargiak aitzinetik kondatuak ziren, eta berantetsirik igurikatzen zituen laboretxetako arrandak. Xuhurtasun horrek, gaitz bat bezala gorderik, serio bilakatzen zuen. Bizkitartean, bertutea erakusten zuen sintsineriarik eta samintasunik gabe. Haren emaitza ttipienek bazuten elemosina handienen iduria. Aholku galdegiten zizakon sehien hautatzeko, nextato gazten erakaskuntzako, erreximetak nola egin, eta Enejauna haren etxean jausten bere apezpikugoako itzulietan.

Moreau Andereak handi-nahi gora bat hazten zuen semearendako. Gobernamentuaz gaizki erraiten entzutea etzuen maite, aitzinera ikusten zuen halako zuhurtzia batekin. Gerizapenak beharko zituen hastapenean; gero, bere ahalek lagunduz, Estatuko konseilari bilakatuko zen, embaxadore, minixtro. Sens-ko ikastetxean ukanak zituen garhaipenek urgulu hori baieztatzen zuten: irabazia zuen ohorezko saria.

Saloinen sartu zenean, oro jeiki ziren harrabots handitan, besarkatu zuten; eta jargia eta kaderekin inguru-erdi zabal bat egin zen khebidearen aitzinean. Gamblin Jaunak galdegin zaukon berehala Lafarge Anderearen berri. Horren auziak, aro hartako buruak berotzen baitzuten, etzuen eztabada bortitz baten ekhartzea huts egin; Moreau Andereak geldi-arazi zuen, Gamblin Jaunaren dolutan alta; mutiko gaztearendako baliagarri zela uste zuen, geroko lege-gizon bezala, eta saloinetik jalgi zen, xixtatua.

Etzuen jeusek ustegabetu behar aita Roque-ren adixkide baten ganik! Aita Roque-ren estakuru, Dambreuse Jaunaz mintzatu zen, Fortelle-ko etxaldea erosi berria baitzuen. Baina zergalariak eremana zuen Federik bazterrera, Guizot Jaunaren azken liburuaz zer uste zuen

jakiteko. Orok jakin nahi zuten egitekoetan zertan zen; eta Benoît Andereak trebeki egin zuen osabaren berri galdeginez. Nola zoan ahaide on hura? Etzuen ba hirugarren gusi bat Ameriketara?

Kozinersak jakin-arazi zuen Jaunaren salda mahian zela. Athera ziren, jendetasunez. Gero, bakarrik izan ziren orduko, salan, amak erran zaukon, ahapetik:

- “Eta beraz?”

Gizon zaharrak biziki bihotz onez hartua zuen, baina xedeak erakutsi gabe.

Moreau Andereak hasperen bat egin zuen.

- “Nun da, orai?” zuen gogoan Federikek.

Karrosa handia bazoan, eta, oihal luzeaz estalia behar bada, karrosa-barneko mihiseari kontra emana zukeen bere buru eder lokartua.

Gambaretara igaiten ari ziren *Cygne de la Croix*-ko mutil batek paper bat ekharri zuenean.

- “Zer da bada?”

- “Deslauriers da ene beharretan,” erran zuen.

- “Ha! hire laguna!” egin zuen Moreau Andereak gaitzesteko murrika batekin. “Orena ongi hautatua da, zinez!”

Federik zalantzan zagon. Baina adixkidetasuna izan zen azkarrenik. Xapela hartu zuen.

- “Bederen, ez egon luzaz!” erran zaukon amak.

II

Charles Deslauriers-ren aita, armadako kapitain izana, 1818-an kargua utzirik, Nogent-era itzulia zen ezkontzeko, eta doteko diruarekin, uxer kargu bat erosia zuen, doi-doia emaiten baitzaukon biziarena. Gogoan bidegabe luze batzuez sumindua, zauri zaharrez oinazetan, et beti Emperadorearen urrikitan, ingurukoetara ixurtzen zituen ithoa zadukaten haserreak. Haur guti zen haren semea bezenbat joa izanik. Ukaldiak ukan arren, mutikoxkak etzuen amor emaiten. Ama, ararterko izaitera entseatzen zenean, hura bezain bortizki erabilia zen. Kapitainak bere bulegoan ezarri zuen azkenean, eta egunak bazirauno, bere mahixkan atxikitzen zuen konkortua paper ofizial izkiriartzen, soingain eskuna bilakatu baitzaukon bertzea baino agerian azkarrago.

1833-an, Jaun buruzagiaren galdez, Kapitainak saldu zuen bere bulegoa. Emaztea min-bizitik hil zizakon. Bizitzera joan zen Dijon-era;

gero xorteko gizon emaile bilakatu zen Troyes-en; eta Charles-endako laguntza-erdi bat ukanik, Sens-ko ikastetxean ezarri zuen, Federikek han ezagutu baitzuen. Baina batek hamabi urte zituen, bertzeak hamabortz; bertzalde, jitez eta ethorkizko mila ezberdintasunek berexen zituzten.

Federikek bazituen bere komotan janari mota guzietarik, gauza arraroak, hala nola ikuzgai untxi bat. Goizetan berant lo egitea maite zuen, ainharer beha egoitea, antzerti irakurtzea, eta, etxeko goxoa gogoan, idor zizakon ikastetxeko bizia.

Ona iduritzen zizakon uxerraren semeari. Hain ongi lan egiten zuen nun bigarren urtean Hirurgarrenekoetara iragan baitzen. Bizkitartean, pobretasunaren gatik, edo zuen jite aharrariaren, ageri etzen gogo gaixto bati aiher zen. Baina mutil batek, aldi bat, “erromes haurra” izendaturik, Artekoen korrale erdi-erdian, zintzurrera jauzi zizakon eta hilen zuen, hiruzpalaur ikasketetako jaun artean ezpalire jarri. Federikek, miresmenez xoratua, besoetan tinkatu zuen. Egun hortarik hara, adixkidetasun min osoa izan zen. *Handi* baten atxikimenduak, iduriz, lausengatu zuen ttipiaren urgulua, eta bertzeak zorion bat bezala hartu zuen eskaintzen zizakon sendimendu hori.

Aitak, hutsegunetan, ikastetxean uzten zuen. Platon-en itzulpen batek, ustegabez idekirik, gogoberotu zuen. Metafisikako ikasketek hartu zuten orduan; eta laster egin zituen aitzinatzeak, ezen indar berri batzuekin lotzen zitzairen eta liberatzera doan gogamen baten urguluarekin: Jouffroy, Cousin, Laromiguière, Malebranche, Eskoziarrak, liburutegiak zadukan guzia joan zen. Giltza ebatsirik ukan beharra zuen, liburuen ukaiteko.

Federiken libertimenduak etziren hoin serioak. Hirur-Erregen karrikan ezarri zuen Krixtoen ethorkia, zutabe batean zizelkaturik, gero katedraleko atharian. Erdi Aroko antzertien ondotik, Orhoitzapenetan hasi zen: Froissart, Comines, Pierre de l’Estoile, Brantôme.

Irakurtzek gogora ekhartzen zauzkoten iduriek hain azkarki hartua zadukaten nun berriz sendi baitzuen haien emaiteko beharra. Bazuen egun batez Frantziako Walter Scott bilakatzeko nahikaria. Deslauriers ari zen filosofiako sistima zabal baten gogatzen, gauza urrunduenen argitzekoa izanen zena.

Gauza horiek oro bazerabiltzaten, jostaldietan, korralean, erloi azpian margazkitua zen moralezko idazkiaren aitzinean; ahapetik ari ziren oraino kaperan, San Luisen bizarrera; hetaz amets egiten zuten

etzandegian, ilharriak azpialdean baititu. Ibilaldi egunetan, bertzen gibelean emaiten ziren, eta mintzo ziren gelditu gabe.

Mintzo ziren gero eginen zutenaz, ikastetxetik jalgiak izanen zirenean. Lehenik, bidaia handi bat hasiko zuten Federikek bere fortunatik hartuko zuen diruarekin, adinera heldu eta. Gero Parisera itzuliko ziren, elgarrekin lan eginen, gehiago ez elgarretarik berexiko; - eta, bere lanetarik arintzeko, ukanen zituzten printzesekilako amoreak satinezko saloin ttipietan, edo phindarrezko atseginkeriak emazte arin aipatuenekin. Dudak jarraikitzen zitezteen esperanzazko olde horier. Elhasturiazko alaitasunaren ondotik, erortzen ziren ixil handi batzuetara.

Uda arratsaldetan, luzaz ibiliak zirelarik ardantze bazterretako bide harritsueta, edo baserri betean errepidez, eta gariek uhain bazegitenean iguzkitara, aigeru-belar usainak bazoazila airean, halako hats neke batek hartzen zituen, eta bizkarraz lurrera etzaten ziren, burxoratuak, mozkorturik bezala. Bertzeak, athorra has, marra jostetan ari ziren, edo haizeko adarrekin. Zaintzaleak deitzen zituen. Itzultzen ziren, ur-xirrixtak zeharkatzen zituzten baratze bazterrer jarraikiz, gero harresi zaharrek itzal egiten zauen karrika handietan gaindi; karrika hutsek joiten zuten haien urratsen azpian; burdin-sarezko athea idekitzen zen, mailaldeari goiti igaiten; eta atseginaldi handi batzuen ondotik bezain trixte ziren.

Jaun Begiraleak zion elgarri gogo berotuz ari zirela. Bizkitartean, Federikek lan egin bazuen gaineko mailetan, adixkideak sustatuari esker izan zen; eta 1817-ko hutsegunetan, amaren etxerat ereman zuen.

Mutiko gaztea etzizakon Moreau Andereari gustatu. Ainitz jan zuen, igandeko ofizioetara ez joan nahi ukan, errepublikaren aldeko hitzaldietan ari zen: azkenik, amak ustez jakin zuen semea eremana zuela leku desohoragarri batzuetara. Haien harremaner barrandan egon ziren. Etzuten gehiago baizik elgar maitatu; eta goraintziak mingarri izan ziren, Deslauriers, ondoko urtean, ikastetxetik joan zenean Parisen zuzenbidearen ikastera.

Federikek han laster batu gogo zuen. Bazen bi urte etzutela elgar ikusia; eta, besarkatzeak eginik, zubietara joan ziren han gostuanago solastatzekotan.

Kapitaina, orai billart bat baitadukan Villenauxe-en, gorri-gorria khexatua zen semeak kuradorgoko khonduak galdatuak ukan zituelarik, eta bizipideak moztuak zauzkon ere, garbi-garbia. Baina nahi baitzuen berantago Dretxo-Eskolako ikasle kadera baterako konkursora joan et

dirurik ezpaitzuen, Deslauriers-ek onhartzen zuen Troyes-en aitzineko lege-gizon baten bulegoan nagusi-lagun kargua. Gabezia bizitzearen bortxaz, laur mila libera baztertuko zituen; eta, amaren ondoriotasunetik ezpalu jeus hunki behar, nahitara bizitzekoa ukanen zuen bederen, hirur urtez, ofizio bat ukan artean. Utzi behar zen beraz Hiri nagusian elgarrekin bizitzeko xede aspaldikoa, oraikoan hasteko.

Federikek burua behehitu zuen. Ametsetan lehenbizikoa zizakon erortzen ari.

- “Konsola hadi” erran zuen kapitainaren semeak, “bizia luze duk; gazte gituk. Jinen nuk hire gana! Ez gehiago gogoeta!”

Eskuetarik inharrosten zuen, eta, gogoaren aldatzeko, bere bidaiaz galdekatu zuen.

Federikek etzuen gauza handirik ukan erraiteko. Baina, Arnoux Andereaz orhoitzean, bihotz-mina ezeztatu zizakon. Etzuen aipatu, jendetasunez. Hedatu zen, aldiz, Arnoux-ren gainean, haren solasak, arak, harremanetan norekin zen erranez; eta Deslauriers-ek azkarki sustatu zuen ezagutza horrekin atxikitzen.

Federikek, azken dembora horietan, ezer etzuen izkiriaturik; literaturako aburuak aldatuak zizazkon: oroz gainetik sendimendu azkarra zuen maite; Werther, René, Franck, Lara, Lelio eta bertze artekoago batzuek abantzu berdin gogo-berotzen zuten. Zenbait aldiz musika bakarrik zizakon bere barneko nahasmenen erraiteko gai iduritzen; orduan, sinfoniak amesten zituen; edo gauzen azalak zuen hartzen, eta margolaritzan ari nahi zuen. Neurtitz batzu eginak zituen, alta; Delauriers-ek biziki ederrak aurkitu zituen, baina bertze bertsurik galdegin gabe.

Hau, etzen gehiago metafisikari emana. Ekonomia zozialak eta Frantziako iraultzak zuten goganbehartzen. Hogeita-bi urteko putil handi bat zen orai, mehar, aho handi batekin, itxuraz deliberatua. Bazuen, arrats hartan, ile motzezko maripulis gaixto bat; eta oinetakoak errautsez zurituak, Villenauxe-ko bidea oinez egina zuelakotz, bereziki Federiken ikusteko.

Izidor hurbildu zizaien. Andereak Jauna itzul zadin othoizten zuen, eta hotz ukan zezan beldurrez, bizkarrekua igortzen zaukon.

- “Ago, bada!” egin zuen Deslauriers-ek.

Eta jarraiki zuten bi zubien buru batetik bertzera ibiliz, ixtunak eta ibaiak badagiten irla hertsian oinarritzen baitira.

Nogent-eko aldera zoazinean, bazuten, aitzinean, etxe multzo bat apurka beheitzen zena; eskunetik, ur-atheak hetsiak zituzten zurezko eiheren gibelean, eliza; eta, ezkerretik, landarezko hesiek, ur-bazterraren luzera, mugatzen zituzten baratzeak, doi-doia ikusten zirenak. Baina, Parisko aldera, errepidea zuzen jausten zen, eta phentze batzu ezeztatzen ziren urrunean, gauaren alfoetan. Ixila zen eta argi xurail batekilakoa. Ostail heze usain batzu goiti heldu ziren hetarano; eta ithurriaren xurrutak, ehun urrats urrunago, zurrumurru egiten zuen urek ilunbetan badagiten soinu gotor ezti harekin.

Deslauriers gelditu zen, eta erran zuen:

- “Jende on horiek gostuan lo, bitxi duk! Ago! 89 berri bat moldatzen ari baita! Jendea konstituzioenez, xartez, hauste-maustez, gezurrez akitua duk! Ha! berrikari edo mintza-leku bat banu, nola inharros nezakekan hori guzia! Baina, zernahitara abiatzeko, dirua behar! Zer madarizionea ostalari baten seme izaitea eta gaztaroaren galtzea ogi eske!”

Burua beheitu zuen, ezpaina ausiki, eta ikaratzen zen bere soineko mehearen azpian.

Federikek soingainetara igorri zaukon bizkarrekoaren erdia. Biak hartan inguratu ziren; eta, gerritik atxikiz, haren azpian zabilzan, elgarren ondoan.

- “Nola nahi duk han bizi ahal nadin, hi gabe?” zion Federikek. Adixkidearen samindurak berriz ere gogo-ilhundua zuen. “Zerbait eginen nian maitatuko ninduen emazte batekin... Zergatik egiten duk irri? Maitasuna duk jeinuaren alhagia eta ingurumena. Ohi gabeko sedimenduek ditie lan ezin hobeak emaiten. Behar nikekena zein den bilatzea aldiz, hori uzten diat! Bertzalde, noizpait aurkitzen baldin badiat, enik nahiko. Zorigabeko arrazatik nuk, eta ztrazez edo diamantezkoa zian aberastasun batekin itzaliko, eztakiat batere.”

Norbaiten itzala luzatu zen lauzadan, hitz hauk entzuten zituzten aldi berean:

- “Zuen zerbitzari, jaunak!”

Erraiten zituena gizon ttipi bat zen, maripulis zabal beltzaran bat soinean, eta kaxketa bat buruan aitzinekoaren azpian sudur mehe bat agertzera uzten zuena.

- “Roque Jauna?” erran zuen Federikek.

- “Hura bera!” ihardetsi zuen mintzoak.

Nogentarrak han izaitea baieztatu zuen erranez otso-zepoak ikusirik itzultzen ari zela, bere baratzean, ur-bazterrean.

- “Eta horra zu gure herrialderat itzulia? Biziki ontsa! ene nexkatoaren ganik ikasia dut hori. Beti osagarri onean, agian? Etzira oraino abiatzen?”

Eta joan zen, gaitzitua, iduriz, Federikek hartu zuen moldeaz.

Moreau Anderea, alabaina, etzen harekin guruzatzen; Roque aita bere sehiarekin ohaidetasunean bizi zen, eta arras guti estimatua, bozkatzetan Dambreuse Jaunaren laguntzale eta haren etxe-gizona izanik ere.

- “Anjou-ko karrikan bizi den diruzaina?” egin zuen Deslauriers-ek. “Badakika zer egin behar hukeen, gaizoa?”

Izidorek moztu zituen berriz ere. Bazuen Federiken itzul-arazteko manua, baitezpada. Anderea haren han ez izaiteaz khexu zen.

- “Onts! onts! bagoaz,” erran zuen Deslauriers-ek; “ezta etzan gabe egonen.”

Eta, mutila joan ondoan:

- “Behar huke zahar horri eskatu Dambreuse-ren etxera sarr-araz hakidian; jeus eztuk etxe aberats batean ibiltzea baino baliagarriago! Soineko beltza eta esku-larru zuriak baditukanaz geroz, baliatzik! Jende mota hortara joan behar duk! Ni eremanen nuk berantago. Miliunak baditukan gizon bat, gogo emak! Egik behar dena hari gustatzeko, eta emazteari ere. Haren maitale bilaka hadi!”

Federik khexatzera zoan.

- “Baina eztauzkiat hor gauza klasikoak baizik erraiten, ustez? Orhoit hadi Rastiñak-ez *Giz̃a-komedian!* Helduko hiz, segur nuk!”

Hanbateko konfiencia zuen Federikek Delauriers-en baitan nun kordokatua zela senditu baitzuen, eta Arnoux Anderea ahazten zuela, edo bederen bertzearen aitzin-erranaren barnean sartzen, etzen egon ahal izan irriño bat egin gabe.

- “Azken aholkua: etsaminak egizkik! Aipamen bat beti on duk; eta osoki bazterrera uzkik hire poeta katoliko eta satandarrak, XII-garren mendean zitian bezain aitzinatuak dituk filosofian. Zozo duk hire etsipena. Jende biziki handiek hastapen gaixtoagoak ukanak ditie, Mirabeau-tik hasiz. Eta bertzela, gure berextea eztuk hain luze izanen. Ene aita gaixtaginari zor dautana eman-araziko dakeat. Itzul nadin ordu duk, goraintzi! Batuka ehun sos auharia ordain dezatan?”

Federikek eman zauzkon hamar libera, goizean Izidori hartu diruaren gaineratekoa.

Bizkitartean, zubitik berrehun urratsetan, ezkerreko ur-hegian, argi batek distiratzten zuen etxe aphaltu bateko leihoxkan.

Deslauriers ohartu zizakon. Orduan egin zuen ospatsuki, burukoa ekhertzen zuen batean:

- “Benuz, zeruetako erregina, zerbitzari! Baina Beharra Zuhurtziaten ama. Eztituka hortako gutaz aski gaizki mintzatu, urrikitzekoa baduk!”

Elgarrekin egin zuten atheraldi horren aipatzeak bozkariatu zituen. Biziki gora irriz zoazin, karriketan hara.

Gero, ostatuan gastua ordaindurik, Deslauriers-ek Federik lagundu zuen Ospitaleko bide gurutzerano: - eta, besarkatze luze baten ondotik, bi adixkideak berexi ziren.

III

Bi ilabete berantago Federikek, Coq-Héron-go karrikara jinik goiz batez, berehala gogoan hartu zuen bere ikustaldi handiaren egitea.

Halabeharrak zerbitzatu zuen. Roque aita paper biribilkatu baten ekhartzera jina zizakon, berak Dambreuse Jaunari eman zezon othoiztuz; eta igorpena idekia zen hitz batez laguntzen zuen, gizon gaztea nor zen erakusten zaukona.

Moreau Andereak urrats hortaz ustegabetua iduritu zuen. Federikek gorde zuen horrek emaiten zaukon atsegina.

Dambreuse Jaunak bere egiazko izena Ambreuse-ko kondea zuen; baina, 1825-a orduko, apurka apurka bere noblezia eta alderdia utziz, industriara itzulia zen; eta, beharria bulego guzietan, eskua lan-etxe guzietan, gertaldi on guzietan beha, Greziarr bat bezain xotila eta Auverñar bat bezain lanera emana, gaitzekoa zioten fortuna bat bildua zuen; gainera, Ohorezko Legioneko zaldun zen, Aube-ko konseilu handian barne, deputatu, egun hautarik batez Frantziako pare izanen; zerbitzu emaitera ekharria ere, minixtroak aspertzen zituen bere galde ezin geldituz laguntza, gurutze, tabako bulego emaiteko; eta, gobernuari muttur eginez, erdi-ezker aldera aiher zen. Haren emaztea, Dambreuse Andere pollita, modako egunkariak aipatzen zutena, garitateko bilzarren

buru zen. Dukesak lausengatuz, herribazter nobleko arrangurak ematen zituen eta sinestera uzten zuen Dambreuse Jauna oraino dolu zaitekeela eta zerbitzuak eman zezazkeela.

Mutiko gaztea durduzatua zen haien etxerakoan.

- “Hobeki eginen nuen jantzi handia hartu banu. Gomitatuko nute agian dantzaldira heldu den astean? Zer erranen dautate?”

Bere baitaratu zen Dambreuse Jauna burjes bat baizik etzela gogora eman ez et bere kabrioletara alaiki jauzi egin zuen Anjou-ko karrika bazterrean.

Bi athe handietarik bat idekia ukan zuenean, korralea iragan zuen, harri-mailak igan eta harbizi koloredunez lauzatua zen ezkaratz batean sartu zen.

Mailalde bikun zuzen bat, burdin-horizko ziri batzuekilako tapiza gorri batekin, estukazko harresi goren artean atxikia zen. Bazen, mailen behean, banana-ondo bat bere orsto zabalak eskupeko balusara erortzen zizazkola. Burdin-horizko bi gandalerrek bazaduzkaten porzelanazko bi borobil gatinatto batzuetarik dilindan; berogailuetako leihoxkek idekirik aire phizu bat ufatzen zuten; eta etzen erloi handi baten tiki-taka baizik entzuten, ezkaratzaren bertze buruan zutik, harmalero baten azpian.

Xilintxa batek jo zuen; morroin bat agertu zen, eta Federik sarrarazi zuen barne ttipi batera, han ageri baitziren bi burdin-kutxa, kartoinez beteak ziren ezarleku batzuekin. Dambreuse Jauna erdian izkiriartzen ari zen, bulego biribildun baten gainean.

Roque aitaren eskutzitza irakurri zuen, ganibetaz ideki paperak hetsiak zaduzkan oihala, eta hek ikertu.

Urrundik, zuen soinara mehearen gatik, oraino gazte iduritzen ahal zuen. Baina ile bekan zuriek, zango-beso meharrek eta oroz gainetik begitarteko hits ohigabekoak, salatzen zuten osagarri andeatu bat. Indar ezin urrikaldu bat bazatzen haren begi urdinabar, berinazko begi batzu baino hotzagoetan. Matel-hezurak zorrotz zituen, eta erhi-bizkarrak korropilodun.

Azkenean, xutiturik, galde zenbait egin zauzkon mutiko gazteari elgarren ezagutzako jende batzuez, Nogent-ez, ikaskuntzez; gero igorri zuen gurtuz. Federik bertze alde batetik athera zen eta korrale behean gertatu, karrosategien ondoan.

Karrosa-motz urdin bat, zaldi beltz bati uztartua, bazagon harri-mailen behean. Athexka ideki zen, andere bat igan eta karrosa, harrabots makets batekin, ondartzan abiatu zen.

Federik, harekin batean, heldu zen bertze aldera, athe handiaren azpira. Lekua etzen aski zabal, igurikatzen bortxatua izan zen. Andere gaztea, leihotik kampa gurtua, etxezainari mintzo zizakon aphal-aphala. Etxaukon bizkarra baizik ikusten, soineko ubel batez estalia. Anartean, karrosaren barnera beha zagon, oihal urdinez hedatua baitzen, zetazko aphaindura et litsekin. Emaztearen jantziek betetzen zuten; barne ttipi gosnatu hortarik bazarion ezpata-belar usain batek, eta halako emazte aphaindura batenak bezala. Karrosazainak uhalak utzi zituen, bapatez zaldiak zedarria hunkituz zuen, eta guzia gorde zen.

Federik oinez itzuli zen, karrika handier jarraikiz.

Dambreuse Anderea ez ontsa ikusirik dolu zuen.

Montmartre karrika baino goraxago, karrosa nahasmen batek burua itzul-arazi zaukon; eta, bertze aldean, aitzinean, irakurri zuen harbizizko iragarki batean:

JACQUES ARNOUX

Nola etzuen andere hura lehenago gogoan ukana? Hutsa Deslauriers-en ganik heldu zen, eta saldegari buruz aitzinatu zen, etzen, alta, sartu; igurikatu zuen Hura ager zakidion.

Berina gora argiek ikustera uzten zituzten, trebeki ezarriak, zizelkadura ttipi, marrazki, iduri, bilduma, *Edergintza industrialaren* aldiko; eta urte-sariak athean errepikatuak ziren, erditan aphaintzen zutela argitalzalearen izen hastapeneko hizkiek. Ageri ziren, harresier kontra, margazki handi batzu berniza dirdiran, gero, zolan, bi khutxa, porzelanaz, burdin-horiz, bitxikeria gustagarri estaliak; mailalde ttipi batek berexen zituen, gainaldean oihalkizko athexka batez hetsia; eta dilindako argi porzelana zaharrezko batek, lurrean tapiza musker batek, zur titakatuzko mahi batekin, bazemoten barne horri guziari saldegi baten baino gehiago saloin baten itxura.

Federik ari zen alegia marrazkien ikertzen. Ethengabeko zalantzetan egonik, sartu zen.

Saltzale batek athexka goititu zuen, eta Jauna etzela “magasinan” bortz orenak baino lehenago izanen ihardetsi. Baina mezua eman ahal baldin bazaitekeen ...

- “Ez! berriz jinen niz,” ihardetsi zuen eztiki Federikek.

Ondoko egunak bizitegi baten bila erabiliak izan ziren; bigarren estaiako gambara bateko deliberatu zen, ostatu mubledun batean, Saint-Hyacinthe karrikan.

Paper-edale berri-berri bat ekhartzen zuela besapean, ikastaldien idekitzera joan zen. Hirur ehun mutiko gaztek, buru has, betetzen zuten antzoki moldeko sala, han arropa gorritan gizon zahar bat erasten ari baitzen beti doinu bereko mintzo batean; lumek paperrean kirrixkatzen zuten. Sala hortan berraurkitzen zituen ikastetxetako errauts usaina, molde bereko kadera handi bat, enhoatze bera! Hamabortz egunez, hara itzuli zen. Baina oraino heren artikulura heldu gabe baztertua zuen “Code civil” delako lege bilduma, eta “Institutes” delakoak *Summa divisio personarum*-etan utzi zituen.

Bere buruari hitzemanak zauzkon bozkarioak etziren heldu; eta irakurtzeko gabinet bat agortua ukan zuenean, Louvre-ko bildumak ikusiak ukan, eta aldi jarraiki batzuez ikusgarrietan izan, ondagabeko auhertasun batera erori zen.

Mila gauza berriek handitzen zaukoten bihotz-mina. Behar zuen oihaleriari behatu eta athezaina jasan, erizain itxurako oies bat, goizetan ohearen antolatza jiten zizakona, alkohola usainduz eta marmarikan. Bizitegia, harzurizko erloi batekin, etzuen laket. Sahetsak mehe zituen; ikasleak entzuten ziren edari berotzen, irriz, kantuz.

Bakartasun hortaz akitua, Baptiste Martinon izeneko lagun aspaldiko baten bila ibili zen; Jondoni-Jakobe karrikako burjes-ostatu batean aurkitu zuen, lege-jakintzan ari, ikatzezko su baten aitzinean.

Haren aitzinean, emazte bat indianazko zaia batekin ari zen galtzerdi betatxatzen.

Martinon gizon biziki ederra diotenetarik zen: handi, matelak biribil, begitarte ontsa moldatua eta begi urdinaran aitzineratu batzu; aitak, laborari gotor bat, legegizongoarako nahi zuen, - eta, jadanik itxura serios bat hartu nahiz, bizarra lephoko moldean mozturik zerabilan.

Federiken enhoadurek ezpaitzuten arrazoinezko gairik eta ezpaitzezazkeen behargabe baten ere estakuru eman, Martinon-ek jeus etzuen entzun biziaz egiten zituen deitoratzetan. Hura, goiz oroz bazoan Eskolara, gero bazabilan Luxembourg-ean, kikera erdi bat kafe hartzen zuen arratsean, eta, urtean hamabortz libera eta langilesa horren maitasunarekin, zorion osoan aurkitzen zen.

- “Zer zoriona!” egin zuen bere baitan Federikek.

Bertze ezagutza bat egin zuen Eskolan, Cizy-ko Jauna, familia handi bateko haurra, eta andereño bat iduri zuena, bere egiteko molden goxoaz.

Cisy-ko Jauna marrazkian ari zen, gotikoa maite zuen. Aldi batzuez izan ziren elgarrekin Kapera-Sainduaren eta Andredona-Mariaren miresten. Baina aitorenseme gaztearen ikustateak adimendu ahulenarik bat gordetzen zuen. Orok ustegabetzen zuen; irri ainitz egiten zuen den gutieneko athermalian, eta xintxotasun hain osoa erakusten nun Federik jostakin batendako hartu baitzuen lehenik, eta azkenean lele bat bezala ikusi.

Gogo-bihotzen ixurtzea nehorekin etzaitkeen beraz egin; eta bazagon beti Dambreuse-tarren gomitaren aiduru.

Urtatsez, ikustaldizko kartak igorri zezteen, baina bat etzuen ukan.

Izana zen berriz *Edergintza industrial*-era.

Berriz izan zen heren aldi batez, eta ikusi zuen azkenean Arnoux borzpasei jendekin aharran eta agurtu zuenean doi-doia ihardetsi zaukon; Federik hortaz gaitzitua izan zen. Etzuen hala ere Hura nola ikusiko zuen gutiago bilatu.

Usu jitea gogoratu zizakon lehenik, margazkiez tratu egiteko. Gero asmatu zuen artikulu “azkar-azkar” zenbaiten ezartzea berrikariko eskutitz-untzian, horrek harremanetan sarr-arazi baitzuen. Helburura zuzen joatea hobe zatekeen behar bada, maitasunaren aithortzea? Orduan egin zuen hamabi orrialdetako eskutitz bat, sendimendu oldez eta hel-egitez betea; baina urratu zuen, eta ezer ez egin, ezer entseatu, -ondoriogabearen beldurrak gelditua.

Arnoux-en saldegiairen gainean, hirur leiho baziren lehen estaian, arrats guziez argitan. Itzal batzu bazabiltzan gibelean, bat bereziki; harena zen; - eta biziki urrundik baztertzen zen leiho horien ikusteko eta itzal horri beha egoiteko.

Emazte beltz batek, egun batez Teilerietan gurutzatu zuena nexka ttipi bat eskutik bazatxikala, orhoit-arazi zaukon Arnoux Anderearen emazte beltza. Hara jiten zatekeen bertzeak bezala; Teileriak zeharkatzen zituen aldi oroz, bihotzak joiten zaukon, aurkituko zuelako ustean. Iguzki zen egunetan, ibilaldia Champs-Elysées-tarano jarraitzen zuen.

Emazte batzu, kalea batzuetan axolagabea jarririk, eta buruko oihalak airera utziak, bazoazin haren aitzinean, bere zaldien urrats

bermuan, larru bernizatuak kraska-arazten zituen harat-hunat ezin senditu batean. Karrosak baziren gero eta gehiago, eta, Itzulgunetik hara emekiago joanez, karrika osoa hartzen zuten. Zaldi khimak khimen ondoan zoazin, karros-argiak argien ondoan; alzeiruzko estriboek, zilharrezko gatinek, burdin-gorritzko erhaztunek argi tita batzu emaiten zituzten han-hemenka, galtza laburren, eskularru xurien eta athexketako harma-irudien gainera erortzen ziren horraduren artetik. Bere burua galdua bezala aurkitzen zuen urrun zizakon mundu hortan. Begiak emazten buruen gainean zerabiltzan; eta halako egite batzuek gogoratzen zukoten Arnoux Anderea. Asmatzen zuen, bertzen erdian, Dambreuse Andearena bezalako karrosa-motz horietarik batean. - Baina iguzkia etzatera zoan, eta haize hotzak errauts zirimola batzu airatzen zituen. Karrosazainek bidarra lephokoen barnera behekitzen zuten, errotak lasterrago itzulikatzen hasten ziren, makadamak kirrinkatzen zuen; eta zaldi-karrosa guziak heldu ziren trosta handiz ibilbide luzeari beheiti, elgar abantzu hunkiz, aitzinatuz, batzu bertzetarik baztertuz, eta gero, Konkordiako plazan, berexten ziren. Teilerietako aitzinean, zeruak hartzen zuen arbelaren margoa. Baratzeko zuhainek bi gaitzeko meta egiten zituzten, gainaldera ubelaran. Gaza mokoak phizten ari ziren; eta Zekuana, hedadura osoan berdarats, zilhar leinhurutan urratzen zen zubien harroinetan.

Auhaltzera bazoan, berrogei-ta-hirur sos ordainduz aldiko, ostatu batera, La Harpe karrikan.

Erdainuz behatzen zauen zur-gorritzko sal-mahi zaharrari, jateko oiha zikinduer, zilharrerria zoldatuer eta murruari kontra dilindan zauden burukoer. Inguruan zituenak hura bezala ikasleak ziren. Bere erakaslez, bere maitez ari ziren. Ontsa axola zuen erakaslez! Bazuena maiterik! Haien bozkarioer alde egiteko, ahal bezain berant jiten zen. Janari ondar batzuek estaltzen zituzten mahi guziak. Bi mutilak, akituak, zokoetan lo zauden, eta barne hutsa betea zen kozina, olio-argi eta tabako usainaz.

Gero bazoan emeki karriker goiti. Gauargiak leriitzen ziren, iztilean leinuru luze horail batzu daldara-araziz. Itzal batzu lerratuz bezala zoazin oin-bidetan, euritakoekin. Lauzada gizen zen, lanhoa erortzen ari, eta iduri zizakon ilunbe hezeak, inguratzen zutela, ari zizazkola ethengabe bihotzera jausten.

Dolutze batek hartu zuen. Ikastaldietara itzuli zen. Baina argituak ziren gaietan jeus espaitzuen ezagutzen, gauza xoilenek trabatu zuten.

Elhaberri baten idazten hasi zen, izenburuturik *Silbio, arraintzariaren semea*. Gauza Venezian iragaiten zen. Gizona, bera zen; emaztea, Arnoux Anderea. Izena Antonia zuen: - eta, haren ukaiteko, aitoren seme andana bat erahiltzen zuen, hiriaren zati bat erretzen et haren galeria-pean kantu egiten, han ikharatzen baitziren Montmartre karrika handiko erridau oihal gorrizkoak. Ohartu zizeen orhoitzapen gehiegiek etsi-arazi zuten: etzen urrunago joan, eta auhertasuna bikundu zizakon.

Orduan, Deslauriers othoi-othoiztu zuen haren gambaran egoitera ethor zadin. Zituen bi mila libera arrandekin bizitzeko akomeatuko ziren; bizi-molde ezin jasan hori baino hobe zen zer nahi. Troyes etzezakeen oraino utz Deslauriers-ek. Libertitzeko aholkua emaiten zaukon, eta Senecal-ekin ibiltzekoa.

Senecal matematiketako erakas-lagun bat zen, buru azkarreko gizona eta sinestez errepublikarra, geroko Saint-just bat, zion bulego-mutilak. Federikek hirur aldiz iganak zituen haren bortz estaiak, ordainez ikustaldirik batere ukan gabe. Etzen gehiago harat itzuli.

Jostatu nahi ukan zuen. Operako dantzaldietan izan zen. Alaikeria harrabostun horiek athean berean hormatzen zuten. Bertzela ere, diru ahalge batek gibelera zadukan, ustez eta maskadun batekilako auhari batek gaitzeko gastuak ekhartzen zituela, gertaldi gotor bat zela.

Bazidurikon, alta, maite zuketela. Batzuetan, bihotza esperanzaz beterik atzartzen zen, artharekin janzten hitzeman leku batera joaiteko bezala, eta Parisen egiten zituen ethengabeko itzuliak. Aitzinean zaokon emazte bakoitzan, edo hari buruz heldu zenean, bere baitan egiten zuen: “Hura da!” Nahigabe berri bat zen, aldi oroz. Arnoux Andereaz gogatzek azkartzen zauzkon gutiziak. Bidean aurkituko zuen behar bada; eta asmatzen zituen, hari mintzatzeko, ustegabeko gertaldiak, hetarik salbatuko zuen lanjer ohigabekoak.

Horrela bazoazin egunak, aspertze berdinen eta hartu ohiduren errepikatzean. Liburuxka batzuer behatzen zauen Odéon-go arkupean, *Bi munduetako agerkaria*-ren irakurtzera bazoan ostatu batera, Frantziako Kolegio-ko sala batera sartzen zen, han oren batez entzuten zuen ikastaldi bat Xinako hizkuntzaz edo ekonomia politikaz. Aste oroz, luzaz izkiriitzen zaukon Deslauriers-ri, noiztenka Martinon-ekin auhaltzen zen, Cizy-ko Jauna ikusten zuen zenbait aldiz.

Piano bat alokatu zuen, eta balza aleman batzu egin.

Arrats batez, Erret-Palazioko antzokian, ohartu zizakon, taulada aitzineko egongia batean, Arnoux-ri emazte baten ondoan. Hura zena? Zeta berdezko arte-oihalak, egongiaren bazterrera goitituak, begitartea gordetzen zaukon. Erridaua azkenean goititu zen; arte-oihala jautsi. Emazte luze bat zen, hogeita-hamar urtekoa nunbait han, zimeldua, ezpain lodiek agertzen zauzkotela, irri egitean, hortz batzu miragarriak. Etxekoki mintzo zen Arnoux-ekin eta erhietan ukaldi ttipi batzu emaiten zauzkon aireztatzekoaz. Gero nexkato gazte ile hori bat, betespalak apur bat gorrituak berriki nigar egina balu bezala, jarri zen haien artean. Ordutik Arnoux haren soin-gainera erdi gurturik egon zen, erraiten zauzkola ihardetsi gabe entzuten zituen solas batzu. Federik entseatzen zen emazte horien gizarte-mailaren asmatzera, bere zaia ilunekin, lephokoak beheiti zabal, lañoki jantziak.

Ikusgarria bururatu zenean, barne-bidetara laster egin zuen. Jendez beteak ziren. Arnoux, haren aitzinean, beheiti zoan mailez mail, bi emazter besoa emanaz.

Bapatean gaz-moko batek argitu zuen. Burukoan bazuen doluzko xingola bat. Hura hila zen, behar bada? Gogoeta horrek hain azkarki oinhazkatu zuen Federik nun biharamunean *Edergintza industrial*-era laster egin baitzuen, eta, berehala erakustokiko aitzinean hedatuak ziren marrazkietarik bat ordainduz, galdegin baitzaukon saldegi mutilari hea nola zen Arnoux Jauna.

Mutilak ihardetsi zuen:

- “Baina biziki ontsa!”

Federikek gaineratu zuen, zurutuz:

- “Eta Anderea?”

- “Anderea ere!”

Federikek ahatzi zuen bere marrazkiaren eremaitea.

Negua bururatu zen. Primaderan etzen hain trixte izan, etsaminari buruz lanean hasi zen, eta hura jasanik biarteko moldez, gero Nogent-era abiatu.

Troyes-ra bere adixkidearen ikustera etzen izan, amaren erasier alde egitekotan. Ondoko sartzean, bere bizitegia utzi zuen eta hartu zituen, Napoleon kaian, bi barne, mubleztatu zituenak. Dambreuse-tarren etxerako gomit baten esperanzak utzia zuen; Arnoux Anderearen alderako maitasun azkarra iraungitzen hasten ari zizakon.

IV

Negileko goiz batez, lege ikastaldira zoalarik, ustez iduritu zizakon Jondoni-Jakobe karrikan bazela ohian baino bizi gehiago. Ikasleak ostatuetarik lasterrrez jalgitzen ziren, edo, leiho idekietarik, etxe batetik bertzera elgarri hel egiten zuten; salerosleak, oin-biden erdian, beha zauden khexu iduri; leihoak hesten ari ziren; eta, Soufflot karrikara heldu zenean, jendalde handi bat ikusi zuen Pantheon-go inguruan bildua.

Mutiko gazte batzu, bortzetarik hamabirako multzo ezberdinetan, bazabiltzan elgarri besoa emanaz eta han hemenka zauden andana gotorrago batzuen gana joanez; plazaren zolan, burdin-hesien ondoan, gizon batzu laneko jantzietan gora mintzo ziren, aldi berean, hirur adarretako burukoa beharriaren gainera eta eskuak bizkar gibelean, hiruzain batzu bazabiltzalarik harresien luzaran, bere bota azkarrekin lauzak jo-araziz. Guziek bazuten mixteriozko itxura bat, ustegabetua; zerbaiten beha zela ageri zen; bakoitzak bazadukan galde bat ezpain bazterrean.

Federik mutiko gazte ile horidun baten ondoan gertatzen zen, begitartez goxoa, Luis XIII-garrenaren aroko muxtatx eta bixarñoarekin. Nahasmenaren arrazoina galdegin zaukon.

- “Batere eztaikit,” egin zuen bertzeak “eta horiek ere ez! Oraiko moda dute! Zer jokaldi ona!”

Eta irri karkailetan hasi zen.

“Erreformaren” aldeko galdekatzeak, zaintzale nazionaler izenpe-arazten zirenak, Humann-en (zerga batzuen goititzeko) izen-hartzeari loturik, bertze gertakari batzuek oraino, emaiten zituzten, Parisen, ezin argituzko jende biltze batzu; eta hain usu berritzen ziren ere nun egunkariak ezpaitzizuten gehiago aipatzen.

- “Itzuli eta kolorez eskas da hor,” jarriki zuen Federiken auzoak. “Badut uste, Enejauna, behera badadigula! Luis hamekagarrenaren aro onean, jazarmen gehiago bazen ikastunetan. Atzarrak bezain ezti iduri zazkit, luzokerrak bezain ergel, eta epizari izaiteko heinean, Goikoaren Bazko! Eta horra “eskoletako Gazteria” deritzotena!”

Besoak zabaldu zituen, handizki, Federik Lemaître-ek *Robert Macaire*-etan bezala.

- “Eskoletako Gazteria, benedikatzen haut!”

Gero, arno saltzale baten zedarriari kontra ostre azal nahasten ari zen philzarkari bati hel eginez:

- “Barne hiza hi, eskoletako Gazterian?”

Gizon zaharrak goititu zuen aurpegi higungarri bat hartan ageri baitziren bizar hautsaran baten erdian, sudur gorri bat, eta bi begi mozkor, zozo.

- “Ez! iduri zatak izaitekotz *ezku betez, multzo batzuetara, urre barreatzen ari diren gizon aurpegi urkagei betarik hizala ...* Oi! barrea ezak, aitaso, barrea! Ustel nezak Albion-go diruekin! *Are you English?* Eztitiat hastio Artaxerxes-en emaitzak! Mintza gaiten apur bat aduanako batasunaz.”

Federikek senditu zuen norbait soin-gainaren hunkitzen: itzuli zen. Martinon zen, izigarri hits.

- “Ha ba!” egin zuen hasperen gotor batekin, “berriz ere jazarraldia!”

Irriskutan ezarria izaitiaz beldurrean, deitoratzen zen. Gizon batzuek laneko jantzietan, bereziki, griñatzen zuten, segetuzko batasun batzuetan barne zirelakoan.

- “Segetuzko batasunik badea!” erran zuen mutiko gazte muxtaxtunak. “Gobernamenduaren joko zahar bat, burjesen izitzeko!”

Martinon-ek ahalago mintzatzera gomitatu zuen, polizaren beldurrez.

- “Polizan sinestea baduzu oraino? Baina, badikizua, jauna, nihaur ez ote nizanez salatari bat?”

Eta halako moldez so egin zaukon nun Martinonek, azkarki hunkia, ezpaitzuen lehenik trufakeria batere entzun. Jendaldeak bultzatzen zituen, eta behar ukana zuten, hirurek, barne-bide batetik antzoki moldeko sala berrira zeraman mailalde ttipian jarri.

Laster, jende multzoa berainik urratu zen: buru batzu hastu ziren; Samuel Rondelet erakasle aipatua agurtzen zen, hau, maripulis zabal batez inguraturik, zilharrezko begitakoak airera goitituz eta bere hatsnekean ufaka, heldu zen urratsa gozoan, bere ikastaldiaren emaitera. Gizon hori zuzenbidean XIX-garren mendeko aipatuenetarik bat zen, Zachariae, Ruhdorff-en heinekoa. Frantziako paregoako lerro berriak etzauzkon arak jeusetan aldatuak. Bazakiten etzela diruduna, eta errespetu handi batek inguratzen zuen.

Bitartean, plazaren zolatik, zenbait ari ziren oihuz:

- “Bihoa Guizot!”

- “Bihoa Pritchard!”

- “Bihoaz salduak!”

- “Bihoa Luis-Filipe!”

Jendaldeak harat-hunat bat egin zuen, eta, hetsia zen korraleko athean metatuz, erakasleari urrunago joaitea debekatzen zaukon. Mailaldearen aitzinean gelditu zen. Laster hirur mailetarik azkenean ikusi zen. Mintzatu zen; mintzoa burrumba batek estali zaukon. Nahiz arestian maite zen, hastiatzen zen orai, ezen Larderia zuen itxuratzen. Bere buruaren entzun-araztera indar egiten zuen aldi oroz, oihuak berriz hasten ziren. Jestu handi bat egin zuen hari jarraikitza ikaslen sustatzeko. Orotako orro batek ihardetsi zaukon. Erdainuz soin-gainak goititu zituen eta barne-bidean harat sartu zen. Martinon zen lekuaz baliatua zen ihes egiteko.

- “Zer beldurtia!” erran zuen Federikek.

- “Zuhurra da!” egin zuen bertzeak.

Jendea esku zartaka hasi zen. Erakaslearen joaitea garhaipen bilakatzen zen harendako. Leiho guzietan, ikusi-nahiak beha zauden. Batzuek *la Marseillaise* hasten zuten; bertze batzuek Béranger-en baitara joaitea aitzineratzen.

- “Laffitte-ren baitara!”

- “Chateaubriand-en baitara!”

- “Voltaire-ren baitara!” oihukatu zuen muxtatx horiekilako mutiko gazteak.

Hirizainak ibiltzera entseatzen ziren, ahal zuten bezain eztiki erranez:

- “Zoazte, jaunak, zoazte, sar zaitezte!”

Norbaitek oihu egin zuen:

- “Bihoaz hiltzaleak!”

Laido handi ohikotu bat zen buruileko nahasmenez geroz. Orok errepikatu zuten. Ordenu publikoaren zaintzaleak oihukatzen ziren, xixtukatzen: histen ari ziren; batek etzuen ihardoki ahal ukan, eta sobera hurbiltzen zizakon mutikoxka gazte bati ohartzuz, sudurrera irriz ari zizakona, hain gibelera hain gogorki igorri zuen nun eror-arazi baitzuen bortz urrats urrunago, bizkarraz lurrera, arno saltzale baten saldegiaren aitzinean. Oro baztertu ziren: baina abantzu berehala, berak buruxkin egin zuen, halako Herkules batek aurdikirik, hunen adatsa, ixtupa bildakin bat bezala, oihal ziratzuzko kasketa baten azpitik jalgitzen baitzen.

Zenbait minuta hetan Jondoni-Jakobe karrikako izkinan gelditua izanik, lasterrez utzia zuen bazekarren kartoin zabal bat hirizainaren

aldera jauzi egiteko, eta azpian aurdikia bazadukala, begitarte ukabil ukaldi handiz iraultzen ari zaukon. Bertze hirizainak lasterrez ethorri ziren. Mutiko izigarria hain azkarra zen nun laur bederen behar izan baitziren haren hezteko. Biek lephokotik inharrosten zuten, bertze biek besoetarik thiratzten, bortzgarren batek joiten zuen belhaunaz errainetan, eta guziak ari zizazkon “mandil, erahiltzale, jazarle” erranez. Bulharra hasik eta soinekoak xehakatuak, bere ogengabeaz oihu bazegien; etzuen, odol hotzez, haur baten joiten ikusi ahal ukana.

- “Izena Dussardier dut! Valinçart Jaun anaien etxean, dentela eta jantzi berri, Cléry-ko karrikan. Nun da ene kartoina? Kartoina nahi dut!” Errepikatzen zuen: “Dussardier!... Cléry-ko karrikan. Ene kartoina!”

Eztitu zen alta, eta, itxura pairakor batekin, bere burua utzi zuen Descartes karrikako polizategira eremaitera. Jende uhain bat jarraiki zizakon. Federik eta mutiko gazte muxtaxtuna bazoazkon berehala gibeletik, miresmenez beteak komisaren aldera et Botherearen bortizkeriaz suminduak.

Aitzinera zoazin arau, jendaldea ttipitzen ari zen.

Hirizainek, noiztenka, gibelerat so egiten zuten itxura ezin gaixtoago batekin; eta harrabots egilek gehiago zer egin ez ukanez, eta ikusi-nahiek zer ikus, guziak bazoazin apurka apueka. Ibiltzale batzuek, gurutzatzen zirenak, Dussardier-i behatzen zaukoten eta solas laidagarri batzuetan ari ziren gora-gora. Atso batek, bere athetik, oihukatu zuen ere ogi bat ebatsia zuela; bidegabe horrek gehitu zuen bi adixkiden haserrea. Azkenean zaindegira heldu ziren. Etzen hogeit bat jende baino gehiago gelditzen. Soldadoen ikustea aski izan zizeen ihes egin-arazteko.

Federikek eta hunen lagunak galdegin zuten, biphilki, preso ezarri berria zena. Zaintzaleak mehatxatu zituen, hisitzen baziren, haien ere han sartzeaz. Zaindegiko buruzagia galdegin zuten, eta bere izenak eman dretxoko ikaslegoarekin, presunerra haien ikaslaguna zela erranez.

Barne osoki murriz batera sarr-arazi zituzten, laur alki baitzauden luzaran igelsuzko murru kheztatuer kontra. Zolan athe ttipi bat ideki zen. Orduan agertu zen Dussardier-en begitarte azkarra, hunek, iletzearen nahasmenean, begi ttipi zintzo eta sudur punta zapalarekin, zerbait moldez zakur on baten itxura gogora-arazten baitzuen.

- “Ezkautuk ezagutzen?” erran zuen Hussonnet-ek.

Mutiko gazte muxtaxtunaren izena zen.

- “Baina...” ahopiatu zuen Dussardier-ek.

- “Etzakala zozoarena gehiago egin bada,” egin zuen bertzeak; “nor hizan jakina duk, gu bezala, dretxoan ikasle.”

Heiek betespalez kheinu eginik ere, Dussardier-ek etzuen jeus asmatzen. Bere baitan sartu bezala zen, gero bapatez:

- “Hatzeman dea ene kartoina?”

Federikek begiak goititu zituen, etsitua. Hussonnet-ek ihardetsi:

- “Ha! hire kartoina, hartan kursoko oharrak ezartzen ditukana? Bai, bai! segurta hadi!”

Bere sinoa berrhetzen zuten. Dussardier-ek entzun zuen azkenean laguntzera heldu zizazkola; eta ixildu zen, hek sala zitzan beldurrez. Bertzela ere, halako ahalge bat sendi zuen ikusiz bere burua ikaslen giza-lerrora goititua eta esku hoin xuriak zituzten mutiko gazte horien berdinera.

- “Nahi duka norbaiti zerbait erran-arazi?” galdegin zuen Federikek.

- “Ez, eskerrak, nehor!”

- “Baina hire familia?”

Ihardetsi gabe burua behehitu zuen: mutiko gaizoa baxtarta zen. Bi adixkideak haren ixilaz ustegabetuak zauden.

- “Pipatzekoa baduka?”

Mihatu zuen, gero sakela zolatik pipa baten porroskak athera, - itsas-ondarkinezko pipa eder bat, zur beltzezko moko batekin, estalia zilharrez eta punta ambarez.

Hirur urte hetan, ari zen hartaz lan-nagusi baten egiten. Hartua zuen beti labearen atxikitzeke artha orkatz larru batez eztairik, ahal zuen bezain emeki pipatzekoa, behin ere harbiziaren gainean ezarri gabe, eta, arrats oroz, ohe-buruan dilindan ezartzekoa. Orai, phorroskak erhiaz inharrosten zituen, azkazalak odoletan; eta, bidarra bulharrera, begi-ñiñiak geldirik eta zabalik, bere bozkarioaren ondar horier beha zagon bihotzmin ezin erran batekilako soarekin.

- “Zigarro batzu emaiten baginauzko, he?” erran zuen apha-aphala Hussonnet-ek, hartzen balitu bezalako jestu bat eginez.

Federikek ezarria zuen jadanik, athe ttipiaren ondoan, zigarro untzi bat betea.

- “Harrak bada! Goraintzi, euk kuraia on!”

Dussardier jauzi zen aitzineratzen ziren bi eskuetara. Inharrosiz tinkatzen zituen, mintzoa nigar hipaka moztua.

- “Nola?... eni!... eni!...”

Bi adixkideak haren esker onetik urrundu ziren, jalgi, eta elgarrekin bazkaltzera joan “Café Tabourey”-ra, Luxembourg-aren aitzinean.

Biztekaren mozten ari zen aldi berean, Hussonnet-ek ikasi zaukon bere lagunari modako berrikari batzuetan ari zela eta erreklamak egiten zituela *Edergintza Industrial*-arendako.

- “Jacques Arnoux-ren etxean,” erran zuen Federikek.

- “Ezagutzen duzu?”

- “Ba! ez! Zuri erraiteko, ikusia dut, aurkitua.”

Hussonnet-i galdegin zaukon axola gabean ikusten zuenez batzuetan haren emaztea.

- “Noizten,” egin zuen gazte arinak.

Federik etzen galdetan jarraikitzen menturatu; gizon horrek hartua zuen haren bizian leku bat neurrigabekoa; bazkariaren saria ordaindu zuen, bertzeak hortaz jeusik errana ukan gabe.

Elgarri gustatzea berdina izan zen; helbideak batek bertzeari eman zituzten, eta Hussonnet-ek gomitatu zuen gogotik Fleurus-ko karrikara bere laguntzera.

Baratzearen erditan ziren, Arnoux-ren langileak, hatsa atxikiz, aurpegia makurtu zuenean ihakin ezin itsusiago batean eta oilarra egin. Orduan auzoetan ziren oilar guziek ihardetsi zaukoten kukurruku luzatu batzuetan.

- “Seinale bat da,” erran zuen Hussonnet-ek.

Bobino antzokiaren ondoan gelditu ziren, bidexka batetik sartzen zen etxe baten aitzinean. Solairu bateko leihoxkan, amatxi-lore eta ilharlatz batzuen artetik, andere gazte bat agertu zen, buru-has, soingaineko tinkian, eta bi besoak zithoitzaren gainera emanik.

- “Egun on, maitea, egun on, *bibiche*”, erran zuen Hussonnet-ek, hari musuak igorritz.

Hexila ostiko batez ideki zuen, eta itzali zen.

Federikek aste osoa igurikatu zuen. Etzizakon etxera joaitera menturatzen, bazkariaren ordain-arazteaz ezin egonean zela ez iduri ukaiteko; baina haren bila ibili zen “auzo latin” guzian gaindi. Aurkitu zuen arrats batez, eta bere Napoleon kaiako gambarara ereman.

Solasaldia luze izan zen; gogoak elgarri ixuri zituzten. Hussonnet-ek bazuen antzokietako aipamenaren eta diru abantailen nahikaria. Onhartuak etziren komedia arin batzuetan barne zen, “egiteko xede metak” bazituen, bertsu moldatzen jakinki; kantatu zituen zenbait.

Gero, taula baten gainean ohartuz Hugo-ren liburu bati eta bertze bati Lamartine-rena, “eskola erromantikoaz” trufa bizitan hedatu zen. Poeta horiek etzuten ez zentzu onik ez zuzenik, eta etziren “Frantzesak”, oroz gainetik! Hizkuntzaren jakiteaz hoilatzen zen eta erranaldi ederrenak ikertzen zituen, omore eroxka batean diren jenden bipiltasun mokhor, gogo akademiari harekin, egiazko edergintzara hurbiltzen direnean.

Federik bere gostuetan laidoztatua senditu zen; bazuen hortan hausteko nahikaria. Baina nolaz ez mentura, berehala, zoriona haren menean zuen hitz hura? Letretako mutikoari eskatu zaukon Arnoux-tarren etxera sarr-arazten ahal zuenez.

Gauza errex zen, eta ondoko eguneko hitz-hartu ziren.

Hussonnet-ek hitzharmena huts egin zuen; bertze hirur ere. Ebiakoitz batez, laur orenak hirian, agertu zen. Baina, karrosaz baliatuz, Antzoki-Frantzesean gelditu zen lehenik, egongietako billet baten ukaiteko; bere burua jauts-arazi zuen josle baten etxean, gero dendari batenean; etxezainen baitan paperño batzu izkiriartzen zituen. Montmartre karrika handira heldu ziren azkenean. Federikek saldegia iragan zuen, mailaldea igan. Arnoux-ek ezagutu zuen bulego aitzinean ezarria zen mirailan; eta, izkiriartzen jarraitzen zuela, soin-gainetik eskua eman zaukon.

Borzpasei jendek, zutik, betetzen zuten barne hertsia, korralera bazeman leiho bakar batez argitua; ile beltzaranezko oihalez estalia zen kanape batek hartzen zuen ohetegi barne baten zola, oihal berezko bi erridauen artean. Paperreriez estalia zen khebide gainean, bazen burdin-horizko Benuz bat; bi gandelar bazituen, ezko-argi arrosa-kolore batzuekin, bi aldetarik hein berean. Eskun, kartoindegiaren ondoan, gizon bat jargia batean ari zen egunkari baten irakurtzen, xapela buruan zadukala; harresiak estaliak zauden marrazki eta margazkiez, orduko margolari nagusien lan balios ala ekhaiez, ezkaintzez aphainduak, Jacques Arnoux-ren-ganako atxikimendu zintzoenaren lekuko.

- “Beti ontsa zira?” egin zuen Federiken aldera itzuliz.

Eta ihardestea igurikatu gabe, galdegin zaukon ahapetik Hussonnet-i:

- “Nola izendatzen duzu, zure adixkidea?”

Gero gora gora:

- “Harrazu bada zigarro bat, kartoindegiaren gainean, untzian.”

*Edergintza industrial*a, Parisko erdi-gunean jarria, elgar ikusteko leku errexa zen, etsaikeriak etxekotasunean elgarren ondoratzen ziren

leku ez alde ez kontrako bat. Han ikusten ziren egun hartan: Anténor Braive, erregen potret-egilea; Jules Burrieu, bere marrazkiez jendeari Aljeriako gerlen ezagun-arazten hasten ari zena; Sombaz trufazko marrazkilaria, Vourdat zizelkatzalea, bertze batzu ere, eta bat etzoakon ikaslearen aitzin-gogoari. Arak lañoak zituzten, solasak libroak. Lovarias mixtizismoari emanak erran zuen ixtorio gordin bat; eta orienteko eskualdearen asmatzaleak, Dittmer aipatuak, bazuen ilezko athorragaineko bat barneko-motxaren azpian, eta karrosa publikoa hartu zuen itzultzeko.

Lehenik Apollonie izeneko andere bat aipatu zen, aitzineko “modela” bat, Burrieu-k karrika handian ezagutua zuela ziona, karrosa « daumont » batean. Hussonnet-ek aldakuntza hori argitu zuen hartaz artha hartzen zutenen zerrendatik.

- “Putil hunek Parisko neskak nola ezagutzen dituen!” erran zuen Arnoux-ek.

- “Zure ondotik, gelditzen bada, jaun handia,” ihardetsi zaukon mutiko arinak, soldado agur batekin, grenadariak bere xahakoaren Napoleoni eskaintzean bezala egiteko.

Gero margazki batzuez eztabadatu ziren, hetan Apollonie-ren burua erabilirik izana baitzen. Han etziren lankideak kitzikatuak izan ziren. Haien lanen prezioaz ustebagetzen zen; eta guziek deitoratzen zuten ez aski irabaztea, gorputzaraz bienarteko gizon bat sartu zenean, soinekoa botoin bakar batez hetsia, begiak bizi-bizia, itxura apur bat eroa.

- “Zer burjes andana zirezten!” erran zuen. “Urrikalmenduz ere, zer balio du bada horrek! Nagusi-lan moldatzen ari ziren lehenagokoak etzauden miliunak gogoan, Corrège, Murillo...”

- “Gainera ezazu Pellerin,” erran zuen Sombaz-ek.

Baina athermaldi horri behatu gabe, hain suharki jarraikitzen zuen bere hitzaldian nun Arnoux-ek bietan erran behar ukan baitzaukon:

- “Ene emaztea zure beharretan izanen da, ortzegunean. Ez ahatz!”

Hitz horrek Federiken gogoia berriz Arnoux Anderearen gana ereman zuen. Iduriz, ohexkaren ondoko gabinetetik sartzen zatekeen haren bizitegira? Arnoux-ek, mokanes baten hartzeko, ideki berria zuen; Federik ohartua zizakon, zokoan, ikuztoki bati. Baina halako marmarika bat jeiki zen khebidearen izkinatik; egunkariaren irakurtzen ari zen jende hura zen, bere jargian; bortz oin eta zenbait zehe gora bazituen,

betespalak apur bat eroriak, ilea hautsaran, itxura maiestatedun bat - et izena Regimbart zuen.

- “Zer da bada, herritarra?” erran zuen Arnoux-ek.

- “Berriz ere Gobernamentuaren zirtzilkeria bat!”

Errient baten kargutik ekhentzeaz ari ziren; Pellerin berriz hasi zen Michel-Ange eta Shakespeare-ren gomparatzean. Dittmer bazoan. Arnoux-ek gibeletik hatzeman zuen eskuan bi bankoko paperren ezartzeko. Orduan, Hussonnet-ek, ustez eta ordua baliagarri zen:

- “Etzinautana zerbait aitzinera emaiten ahal, ene nagusi maitea?...”

Baina Arnoux berriz jarria zen eta gizon zahar itxuraz higungarri, begietako urdin batzuekilako bati erasian ari zizakon:

- “Ha! pollita zira, Isaac aita! Horra hirur lan gaitzetsiak, galduak! Jende guzia nitaz trufan! Ezagunak dira orai! Horietaz zer nahi duzu egin dezatan! Beharko ditut Kaliforniara igorri!... Bihoaz! Ixil zaitte!”

Gizagaizo horren egiteko berezia margazki horien azpian lehenagoko margolari nagusien izenen ezartzea zen. Arnoux-ek etzuen ordaindu nahi; etxetik igorri zuen bortizki. Gero, araz aldatuz, jaun bat agurtu zuen, xingoladuna, itxuraz biphila, matelako bizar eta lephoko flokarekin.

Ukondoa leihoko heskailuaren gainean, luzaz mintzatu zizakon, itxura milikari batekin. Azkenean jauzi zen:

“He! artekari ukaiteko nekerik eztut, jaun kondea!”

Aitorensemeak amor emanik, Arnoux-ek ordaindu zauzkon hogeitau luis, eta, jalgia izan zen orduko:

- “Eztirenetz nardagarriak, jaun handi horiek!”

- “Oro ezteus batzu!” murmurikatu zuen Regimbart-ek.

Ordua aitzinera zoan arau, Arnoux-en egitekoak bikuntzen ari ziren: artikulu batzu berexten zituen, eskutitzak idekitzen, kondu batzu lerrokatzen; saldegian marteiluaren azantzean, paketzaler guardiemaiteko atheratzen zen, gero bere lanari berriz lotzen; eta burdinazko luma paperrean ibil-arazten zuen aldi berean, irri solaser ihardesten zauen. Arratsean bere abokatarekin auhaldu behar zuen, eta bazoan biharamunean Belgikara.

Bertzeak mintzo ziren eguneko gauzez: Cherubiniren potretaz, Edergintzetako inguru-erdiaz, hurbildua zen Esposicioneaz. Pellerin ari zen Institutoaren khitzikan. Erran-merranak, eztabadak gurutzatzen ziren. Bizitegia, gainez aphala, hain betea zen nun ezpaitzatekeen higi;

eta ezko arrosa-koloren argiak zigarroen khea zilatzen zuen iguzki phindarrek lanhoa bezala.

Athea, ohexkaren ondoan, ideki zen, andere lerden handi bat sartu, - jestu bizi batzuekin bere zeta beltzezko zaian ordulariaren girgil guziak jo-araziz.

Aitzineko udan, Erret-Palazioan erdi-ikusi emazte hura zen. Zenbaitek, bere izenetik deitzen zutela, esku hunkitzeak egin zituzten harekin. Hussonnet-ek azkenean berrogei-ta-hamar bat libera ekenduak zituen; erloiak jo zituen zazpiak; guziak joan ziren.

Arnoux-ek erran zaukon Pellerin-i egon zadin, eta Vatnaz Andereñoa gabinetera ereman zuen.

Federikek haien elheak etzituen entzun; ahapetik ari ziren. Bizkitartean emazte mintzoa goititu zen:

- “Sei ilabete gauza egina dela, beti beha nago!”

Ixil luze bat izan zen, Vatnaz Andereñoa berriz agertu zen. Arnoux-ek berriz ere zerbait hitzemana zaukon.

- “Ho!Ho! gero, ikusiko dugu!”

- “Goraintzi, gizon zoriduna!” erran zuen, bazoala.

Arnoux sartu zen bizi-bizia gabinetean, kozmetikatik ezarri zuen muxtatxetan, galtza-uhalak goititu oin-pekoeen tinkatzeko; eta, eskuen ikuzten ari zen aldi berean:

- “Bi athegaineiko behar nituzke, bakoitza berrehun eta berrogei-ta-hamarretan, Boucher-en moldetan, hitzemana dea?”

- “Biz,” erran zuen edergileak, gorri-gorria bilakaturik.

- “Ongi! eta ene emaztea etzazula ahatz!”

Federikek lagundu zuen Pellerin Poissonière hiri-bazterreko gainerano, eta galdegin zaukon artetan haren ikustera jiteko baimena, garaziarekin emana izan zen fagorea.

Pellerin-ek ezthetikako lan guziak irakurtzen zituen Ederraren teoria egiazkoa jakin nahiz, aurkitua ukanen zuenean, nagusi-lanak eginen zituela sinetsirik. Asma daitezkeen lagungarri guziez inguratzen zen, marrazki, igelsu, molde, grabaki; eta bila zabilan; barnez khexu zen; emaiten zuen aroaren hogen, bere zainen, landegiaren, karrikara atheratzen zen asmuaren aurkitzeko, hatzemanik ikharatzen, gero lana uzten zuen eta bertze batez amets egiten ederragoa izan behar zuena. Horrela aipamenaren gutzietz oinazkatua, mila haurkerietan sinetsiz, kitzikalarietan, edergintzako gaian erregela edo erreformaren balio handian, etzuen oraino, berrogei-ta-hamar urtetan, lan hastapen batzu

baizik eginik. Zuen urgulu azkarrak baztertzen zuen edozein etsipenetara erortzetik, baina beti haserre zen, eta komedialariak egiten dituen gogo berotzealdi berean huts eta egiazko hartan.

Haren etxean sartzean, bi margazki handieri ohartzen zen, lehenbiziko margoek, han hemenka ezarriak, egiten baitzituzten oihal xuriaren gainean une beltzaran, gorri, urdin batzu. Kledaz egin marra multzo bat bazoakon gainetik, sare baten mila aldiz berregin hariak bezala; ezin zizakon ere jeusik entzun. Pellerin-ek argitu zituen bi lan horien gaiak behatzaz erakutsiz huts egiten zuten zatiak. Batek erakutsi behar zuen *Nabuchodonosoren erokeria*, bertzeak *Erroma sutan Neronek ezarria*. Federikek miretsi zituen.

Miretsi zituen margo lan batzuetan emazte buluziak ile nahasiak airera, ekaitzek bihurtu zuhatz ondo anitzekilako eskualde batzu, eta oroz gainetik lumazko marrazki arin batzu, Callot-en, Rembrandt-en edo Goya-ren orhoitzapen, berak gai hauk ezagutu gabe. Pellerin-ek etzituen gehiago gaztaroko lan horiek estimatzen; orai estilo handiaren alde zen; Phidias-en eta Winckelmann-en theoriez mintzatu zen, suharki. Inguruan zituen gauzek elhearen indarra azkartzen zaukoten: ikusten zen buruhezur bat othoitz-leku baten gainean, fraide arropa bat; Federikek bizkarrean ezarri zuen.

Goizik hara ethortzen zenean, bere uhalezko ohe gaixtoan aurkitzen zuen, tapizeriazko hegal batek gordetzen zuena; ezen Pellerin berant etzaten zen, antzokietan ibiltzen jarraikia baitzen. Zerbitzua emazte zahar phildaz jantzi batek egiten zaukon, ostatu txar batean jaten zuen, ohaidetik gabe bizi zen. Jende xoilaren eta burjesiaren aldera zuen herra gainditzen zizakon sendimendu olde miragarri bateko athermaldi trufarrietan, eta halako erlisionearen zuten edergile nagusiendako, nun abantzu heien heinera goititzen baitzuen.

Baina zergatik etzuen ehoiz Arnoux Anderearen aipatzen? Senarra aldiz, noiz mutiko on bat zela zion, noiz gezur-untzi bat. Federik hark xehetasun gehiago eman beha zagon.

Egun batez, haren kartoinetarik baten mihatzean, bohamu baten potretean aurkitu zuen Vatnaz Andereñoaren egitetik zerbait, eta andere hortaz axolatzen baitzen, zertan zen jakin nahi ukan zuen.

Probintzia batean errientsa izana zen, zuen uste Pellerin-ek; orai, ikastaldi emaiten ari zen eta berrikari ttipietan izkiriartzen zuen.

Arnoux-ekin zituen aretarik, Federiken ustez, haren ohaide zelako aierua ukan zaitekeen.

- “Ha! baina! baditu bertzeak!”

Orduan, mutiko gazteak, gogoan zuen itsuskeriaren ahalgean gorrituz, gaineratu zuen itxura axolagabeko batekin:

- “Emazteak ordaintzen daukoke?”

- “Ez batere! ohorekoa da!”

Federikek bihotzmin bat senditu zuen, eta berrikarian jarraikiago agertu zen.

Harbiziko lauzan Arnoux-en izena egiten zuten hizki handiak, saldegiaren gainean, berezi-bereziak iduritzen zizazkon eta erran-nahiz phizu, idazki sakratu bat bezala. Oin-bide zabalak, jautsiz, urratsa errexten zaukon, athea abantzu bera itzulikatzen zen; eta ideki-gailuak, hunkitzean leuna, bazuen haren eskuan bertze esku baten ezta eta adimena. Ohartu gabe, Regimbart bezain jarraikia bilakatu zen.

Egun oroz, Regimbart supazter zokoan jartzen zen, bere jargian, *National*-a hartzen zuen, ez gehiago uzten, eta gogoan zuena oihu batzuez erraiten edo soingainak xoilki goitituz. Noiztenka, kopeta xukatzen zuen sakelako mokanes bihurtikatuaz, papoan ezartzen zuena, maripulis muskerraren bi botoinen artean. Galtza ixurkatuak zerabiltzan, bota batzu, lephoko luze bat; eta bere burukoak bazterrak goititutik ezagun-arazten zuen, urrundik, jenden erdian.

Goizeko zortzietan, Montmartre-ko gainetarik jausten zen, arno xuriaren hartzeko Notre-Dame-des-Victoires karrikan. Bazkariak, ondotik billart jokaldi andana batekin, bazeraman hirur orenetarano. Orduan Panorama-etako iragan-bidera buruz abiatzen zen, belaminaren edateko. Arnoux-en etxeko agerraldia eginik, Ostatu bordeles-ean sartzen zen “vermouth”-aren hartzera; gero, emaztearen gana biltzeko orde, nahiago zuen usu bakarrik auhaldu, Gaillon plazako “kafe” ttipi batean, han nahi baitzuen zerbitza zezazkoten “etxeko janari batzu, gauza natural batzu”! Azkenik bertze billart batera bazoan, eta han bazagon gauerdirano, goizeko oren baterano, orduan, gaza iraungi eta leihoak hetsi ondoan, etxeko nagusiak, ezindua, athera zadin othoi-othoizten baitzuen.

Eta etzen edarien maitatzea leku horietara Regimbart herritarra ekharr-arazten zuena, baina politikaz mintzatzeko ohidura zaharra; adinarekin, elhasturia eroria zen, etzuen gehiago gogo-ilhundura ixil bat baizik. Erranen zen, haren begitarteko seriosa ikusiz, mundu osoa buruan zerabilala. Jeus etzen handik jalgitzen; eta nehork, adixkidetan

ere, etzaukon lanik ezagutzen, nahiz egitekoetako gabinet bat bazadukala bazion.

Arnoux-ek ezin gehiago estimatzen zuela iduri zuen. Federiki erran zaukon egun batez:

- “Horrek ainitz badaki, zoaz! Gizon buru azkarra da!”

Bertze aldi batez, Regimbart-ek hedatu zituen bere mahixkan Britainiako lurruri mina batzuek ari ziren paper batzuek; Arnoux haren ezagutzan fidatzen zen.

Federikek adei gehiago erakutsi zuen Regimbart-en aldera, -noiztenka belaminaren eskaintzerano; eta nahiz zozo batendako zadukan, usu oren luze bat emaiten zuen haren ondoan, bakar-bakarrik Jacques Arnoux-en adixkidea zelakotz.

Aro hartako egile nagusiak hatsarretan lagundurik, margazki saltzalea, aitzinatzearen alderako gizona, entseatua zen, bere ara edergintzakoak atxikiz, diruzko abantailen hedatzera. Edergintzen beregaintasun osoa bilatzen zuen, orotako ederrena merkerik. Aberaskeria paristarreko industria guziek jasan zuten haren eragina, ona izan zena gauza ttipietako, eta handietako gaizkorra. Jenden aburuaren lausengatzeko zuen errabiak, bere bidetik baztertu zituen edergile trebeak, azkarrak usteldu, ahulak ezindu eta bien artekoak aipamenetan ezarri; hortarako ahala bazuen bere ezagutzetarik eta agerkaritik. Ikasle xoilek bazuten bere lanen ikusteko handi-nahia haren berinapean eta tapizatzailek haren etxean hartzen zituzten mublerietako moldeak. Federikek bazadukan aldi berean miliunen jabe, gogo arin, eta egintzako gizon bezala. Gauza ainitzek, bizkitartean, ustegabetzen zuten, ezen Arnoux jauna maltzurra zen bere sal-erostetan.

Alemaniko edo Italiako zokotik ukaiten zuen Parisen hamabortz ehun liberetan erosi margazki bat, eta, laur miletera bazeraman kondu bat guzier erakutsiz, hirur mila ‘ta bortz ehunetan saltzen zuen, oneziaz. Ohiko jokoetarik bat margolariekin, hauer margazkien behehitze baten baitezpada eskatzea zen eskupeko; beti molde ttipitua saltzen zuen eta marrazkia bera etzen ehoiz agertzen. Zuzengaizki baliatuak izaitzez deitoratzen zirener, sabela eskuaz joz ihardesten zauen. Bihotz hoberena bertzela, zigarroak emaiten zituen nasaiki, ezezaguner hi-ka mintzo zizeen, lan bat edo gizon bat buruan hartzen zuen suharki, eta orduan, hisituz, jeusi behatu gabe, orotara laster egiten zuen, izkiriartzen, erreklamak igortzen. Gizon biziki zuzena zela uste zuen, eta, bere gogo ixurtzeko beharrean, egin jukutriak lañoki erraiten zituen.

Aldi batez, margolaritzako bertze berrikari bat aphairu handi batekin hasten zuen lankide bati gaizki egiteko, Federik othoiztu zuen haren aitzinean izkiria zitzan, hitzartua zen ordua baino apur bat aitzinean, gomitatuak gibelera igortzen ziren paper batzu;

- “Eztu horrek ohorea hunkitzen, ikusten duzu?”

Eta mutiko gaztea etzen zerbitzu horri ez erraitera menturatu.

Biharamunean, Hussonnet-ekin haren bulegora sartzean, Federikek ikusi zuen atletik, mailaldera idekitzen zenetik, zaia baten azpia itzaltzen.

- “Mila barkamendu!” erran zuen Hussonnet-ek. “Emazteak bazirela uste ukan banu...”

- “Ho! hori bada, enea da,” egin zuen Arnoux-ek. “Goiti ikustaldi ttipi baten egitera heldu zizatan, iragaitean.”

- “Nola?” erran zuen Federikek.

- “Baina ba! etxera badoa, bere etxera.”

Inguruko gauzen lillura erori zen bapatez. Hor nolazpait hedatua sendi zuenak ezeztatzera egina zuen, edo izaitekotz etzen ehoiz hor izana. Mugagabeko ustegabetze batek hartu zuen eta saldua izanaren bihotzmin batek bezala.

Arnoux-ek, bere tiraderaren mihatzean, bazuen irriño bat. Trufaz ari zizakona? Mutilak ezarri zuen mahi gainean paper heze multzo bat.

- “Ha! iragarkiak!” egin zuen saltzaleak. “Eniz gaur berehala auhaltzekotan!”

Regimbart-ek xapela hartzen ari zuen.

- “Nola, uzten nauzu?”

- “Zazpiak!” erran zuen Regimbart-ek.

Federik jarraiki zizakon.

Montmartre karrikako izkinan, itzuli zen; lehen estaiako leihoetara so egin zuen; eta barnez bere buruaren urrikiz irri egin, gogoratzuz nolako amodioarekin hain usu haier beha egona zen! Nun bizi zen bada? Orai nola aurki? Bakartasuna haren gutziaren inguruan idekitzera zoan, ehoiz bezain neurrigabe!

- “Hartzera heldu zirea?” egin zuen Regimbart-ek.

- “Noren hartzera?”

- “Belharminaren!”

Eta, gogoan alha zuenari amor emanetz, Federikek utzi zuen bere burua Bordeles ostatura eremaitera. Laguna, ukondoa mahian, pitxerrari beha zagon bitartean, begiak bazabiltzan eskun eta ezker. Baina oin-

bidean ikusi zuen Pellerin-en itxura; berina jo zuen bizi-bizia, eta margolaria etzen oraino jarria Regimbart-ek galdegin zaukonean zergatik etzen gehiago ikusten *Edergintza industrial*-ean.

- “Leher nadila, hara itzultzen baniz! Abre bat da, burjes bat, ezteus bat, frikun bat!”

Laido horiek lausengatzen zuten Federiken haserrea. Zuritua zen alta, iduri baitzizakon Arnoux Anderea ere apur bat hunkitzen zutela.

- “Zer dautzu bada egina!” erran zuen Regimbart-ek.

Pellerin-ek lurra oinaz jo zuen, eta hatsa azkarki hartu, ihardesteko orde.

Gordekako lan batzuetan ari zen, hala nola bi kraiunekilako potret edo egile handien imitazioe ezagutza gutiko afizionatuendako; eta lan horiek aphaltzen baitzuten, nahiago zituen ez aipatu, gehienetan. Baina “Arnoux-en zikinkeriak” sumintzen zuen. Arindu zen.

Egina zaukon galde batendako, Federik horren lekuko izana baitzen, bi margazki ekharriak zauzkon. Saltzaleak orduan ukana zuen kitzikatzeko ausartzia! Gaitzerrana zuen egituraz, margoaz eta marrazkiaz, oroz gainetik marrazkiaz, hots, etzituen edozein preziotan hartu nahi ukanak. Baina, paper baten mugaratzeak bortxaturik, Pellerin-ek utziak zauzkon Isaac judioari; eta hamabortz egun berantago, Arnoux-ek berak saltzen zituen Español bati, bi mila liberetan.

- “Sos bat ez gutiago! Zer frikunkeria! eta badagitza horrelako ainitz, alajinkua! Ikusiko dugu, goiz hautarik batez, auzitegian.”

- “Nola ari ziren, sobera!” erran zuen Federikek mintzo herabe batekin.

- “Hea! ontsa! sobera!” egin zuen edergileak, mahian ukabilaldi handi bat emanaz.

Bortiztasun horrek mutiko gaztea osoki bere baitara ekharri zuen. Jentilkiago egiten ahal zela, badateke; baina, Arnoux-i bi margazki horiek iduri baldin bazitzazkon...

- “Gaizki eginak! hitza emazu! Ezagutzen dituzua? Zure ofizioa dea? Dakizula, bada, nik, haurra, eztut hori onhartzen, jakite gabekoak!”

- “He! eztira ene egitekoak!” erran zuen Federikek.

- “Zer abantail duzu beraz haren zaintzeko!” egin zuen hotz-hotza Pellerin-ek.

Mutiko gazteak ahopiatu zuen:

- “Baina... haren adixkide bainiz.”

- “Ene izenean besarka ezazu! gau on!”

Eta margazkilea jalgi zen erotua, aipatu gabe, erran gabe doa, edana zuena.

Federiki Arnoux-en alderdia hartu behar zuelako aburua burura jina zizakon. Elhasturiaren berotzean, sendimendu samur batek hartu zuen gizon adimenduko eta on haren aldera, adixkidek gaitzerraiten zaukotelarik, eta hura orai lanean bakarrik ari, guziez utzia. Etzuen ihardoki ahal ukan haren berehala ikusteko behar bitxiari. Hamar minuta berantago, saldegiko athea idekitzen zuen.

Arnoux-ek moldatzen ari zituen, mutilarekin, margazki erakustaldi bateko, gaitzeko iragarki batzu.

- “Ori! Zerk zerabiltza berriz hunara?”

Galde ontsa laño horrek Federik eragozpenean ezarri zuen; eta, zer ihardets ez jakinean, galdegin zuen hea etzenez haren karneta zoriz aurkitu, larru urdinezko karnet ttipi bat.

- “Emazten eskutzitzak hartan ezartzen dituzuna?” erran zuen Arnoux-ek.

Federikek, birjina bat bezala gorrituz, aieru hortaz bere burua zaindu nahi ukan zuen.

- “Zure olerkiak, beraz?” egin zuen saltzaleak.

Hedatuak ziren erakusgaiak eskuztatuz ari zen, zuten moldea eztabadatuz, margoa, bazterra; eta Federikek sendi zuen bere burua gero eta suminduagoa hartzen zuen gogamenezko itxuraz, eta oroz gainetik iragarkien gainean zerabiltzan eskuez, - esku lodi batzu, apur bat guriak, azkazalak zabal. Arnoux azkenean jeiki zen; eta, “Egina da!” ziola eskuaz bidarraren azpia hunki zaukon, etxekoki. Ausartasun hori etzizakon Federiki gustatu, gibelerat egin zuen; gero bulegoaren alharzea iragan zuen, bere biziko azken aldikotz, uste zuenaz. Arnoux Anderea bera ttipitua bezala gertatzen zen senarraren arruntasunaz.

Ukan zuen, aste berean, Deslauriers-ek Parisera ondoko ortzegunean ethorriko zela iragartzen zaukon eskutitz bat. Orduan, bortizki egotzi zen azkarragoa eta goragoa zen atxikimendu hortara. Horrelako gizon batek balio zituen emazte guziak. Gehiago etzuen Regimbart-en, Pellerin-en, Hussonnet-en, nehoren beharrik ukanen! Bere adixkidearen hobeki ezartzeko, burdinazko ohatze bat erosi zuen, bigarren jargia bat, ohe mihiseria bikundu; eta, ortzegun goizean, janzten ari zen Deslauriers-en atzinera joateko athean xilintxa ukaldi batek jo zuenean. Arnoux sartu zen.

- “Hitz bat bakarrik! Atzo, amarrain eder bat igorri zata Genebatik; zure beha gaude, sarri, zazpi orenetan xuxen... Choiseul-en karrikan da, 24 *bi*. Etzazula ahatz!”

Federikek berriz jarri behar ukan zuen. Belhaunek huts egiten zaukoten. “Azkenean! azkenean” errepikatuz ari zen. Gero izkiriatu zauen soineko egileari, xapel egileari, bota egileari; eta hirur paperrak hirur komisari bereziez hel-arazi zituen. Gakoa zerrapoan itzulikatu zen eta etxezaina agertu, soin-gainean mala batekin.

Federik, Deslauriers-en ikustean, ikaratzen hasi zen, ezkontza urratua zuen emazte bat senarraren behakoaren azpian bezala.

- “Zerk hartzen hau bada?” erran zuen Deslauriers-ek, “ukana dukek alta eskutiz ene bat?”

Federikek etzuen ukan gezur baten erraiteko indarra.

Besoak zabaldu zituen eta haren bulharrera egotzi zen.

Gero bulego-mutilak erran zuen bere ixtorioa. Aitak etzauzkon kuratorgoako khonduak itzuli nahi ukanak, ustez eta khondu mota horiek hamar urteren buruan iraungitzen ziren. Baina legetan azkarra baitzen, Deslauriers-ek bildua zuen azkenean amaren ondoriotasuna, zazpi mila libera garbi, berekin zaduzkanak hor, paper untzi zahar batean.

- “Erresalbu bat duk, zer gerta ere. Ezartzeaz behar diat axolatu, eta nihauren jartzeaz ere, bihar goizean berean. Egungo, hutsaldi oso, eta oro hire, gixon!”

- “Oi! Egik nahi bezala!” erran zuen Federikek. “Gaur zerbait egiteko gotor bahu...”

- “Goazen bada! Enindatekek ezteus txarra...”

Hitz horrek, airera igorria izanik ere, bihotzaren erdian hunki zuen Federik, aieru laidagarri batek bezala.

Etxezainak mahian ezarriak zituen, sutondoan, saheski batzu, galantinatik, otharrain bat, eta bi Bordeleko arno botoila. Hoin ongi-ethorri onak hunki zuen Deslauriers.

- “Errege bati bezala egiten dautak, zin-zinez!”

Iragana zuten aroaz mintzatu ziren, ethorkizunaz; eta, artetan, eskuak hartzen zituzten mahiaren gainetik, minuta batez elgarri behatuz hunkituak. Baina komisari batek ekharri zuen xapel berri bat. Deslauriers ohartu zen, gora-gora, gainaldea nolako dirdiran zuen.

Gero joslea jin zen, bera, lisa aldi bat emanik ukana zaukon jantziaren ekhartzera.

- “Iduri lukek ezkontzera hoala,” erran zuen Deslauriers-ek.

Oren bat berantago, hirugarren gizon bat ethorri zen eta zaku beltz handi batetik athera zuen miragarriko bota bernizatu pare bat. Federikek entseatzen ari zituelarik, zapagina bega zagon maltzurki probinziarraren oinetakoer.

- “Jaunak eztu deusen beharrik?”

- “Eskerrak”, egin zuen bulego-mutilak, bere oinetako zahar sokadunak kadera azpira sartuz.

Humiliatze horrek Federik eragozpenean ezarri zuen. Aithormenaren egitea gibelera uzten zuen. Azkenean, egin zuen, bapateko gogoeta batean bezala:

- “Ha! bisaiaren bisaia, ahazten nian!”

- “Zer bada?”

- “Gaur, hirian auhaltzen nuk!”

- “Dambreuse-tarren etxean? Zergatik eztauztak behin ere aipatzen hire eskutitzetan?”

Etzen Dambreuse-tarren, baina Arnoux-tarren etxean.

- “Jakin-arazi behar hautan!” erran zuen Deslauriers-ek. “Egun bat berantago ethorriko nindian.”

- “Ezin diat egin!” ihardetsi zuen bepetan Federikek. “Enie goizean baizik gomitatu, arestian.”

Eta, bere hutsaren ordaintzeko eta adixkideari gogoaren aldatzeko, haren malako estekagailu nasasiak idekirik, nahi zaukon bere ohea eman, berak egurren gabinetean etzan. Gero, laur orenetako, aphaintzeko egitekoetan hasi zen.

- “Baduk behar den astia!” erran zuen bertzeak.

Azkenean, jantzi zen, abiatu.

- “Horra aberatsak!” egin zuen bere baitan Deslauriers-ek.

Eta auhaltzera Jondoni-Jakobe karrikara joan zen, ezagutzen zuen ostatu ttipi batera.

Federik mailaldean aldi bat baino gehiagotan gelditu zen, hain zaukon bihotzak azkarki joiten. Eskularruetarik bat, hertsiegiz, urratu zizakon; eta, urradura athorraren mahunga-pean sartzen ari zuen batean, Arnoux-ek, gibeletik igaiten ari, besotik hartu zuen eta sarr-arazi.

Aitzin-gambarak, Xinako moldean aphaindua, bazuen lanterna-argi margoztatu bat gaineko tronaduran, eta itsas-kana batzu izkinetan. Saloinaren zeharkatzean, tigre larru batean behaztopatu zuen. Argi

handiak etziren phiztuak, baina bi girisailu erretzen ari ziren saloin ttipiko xoko-xokoan.

Marta Andereñoa jin zen ama janzten ari zela erraitera. Arnoux-ek goititu zuen ahoaren heinerano musu emaitako; gero, arno botoila zenbait sotoan berak hautatu nahiz, Federik utzi zuen haurrarekin.

Biziki handitua zen Montereau-ko bidaiaz geroztik. Ile beltxaranak jausten zizazkon erhaztun luze kuxkulatuetan beso buluzien gainera. Zaiak, jantzari batena baino harroago, ikustera uzten zauzkon zango-sagar arrosa-kolore batzu, eta haren presuna maitagarri guziak bazeman lili-buketa batek bezalako usain frexkoa. Jaunaren komplimenduak hartu zituen kriketa baten airekin, begi barnatu batzu haren gainean itzatu, eta gatu bat bezala itzali zen.

Nahasmenik batere etzuen gehiago sendi. Girisailuen borobilek, paperrezko dentela batez estalirik, bazematen esnekarako argi bat malbakoloreko satinez estali harresietako margoa ezitzen zuena. Sutaitzinekoaren lamena artetik, aireztatzale handi bat iduri zuela, ageri ziren supazterreko itxindiak; erloiaren ondoan bazen zilharrezko heskailuekilako khutxatto bat. Han edo hemen, baziren etxekoen gauza batzu hor utziak: solastatzeko jargiaren erdian pampina bat, kadera baten bizkarrean lephoko bat, eta, josteko mahiaren gainean, ilezko trikota bat hartarik bolizko bi galtzorratz dilindan, puntta beheiti. Leku bakezko bat zen, aldi berean zintzoa eta etxekoa bezala.

Arnoux sartu zen; eta, bertze athe-oihaletik, Arnoux Anderea agertu. Itzalez inguratua baitzen, etzaukon lehenik begitartea baizik ezagutu. Bazuen balusa beltzezko zaia bat eta, iletan, zeta gorrizko hariz aljeriar modako sare bat, orrazean bihurdukatuz ezkerreko soin-gainera erortzen zizakona.

Arnoux-ek erran zuen Federik nor zen.

- "Oi! Jauna biziki ontsa ezagutzen dut," ihardetsi zuen.

Gero gomitak ethorri ziren, abantzu guziak aldi berean: Dittmer, Lovarias, Burrieu, Rosenwald musika egilea, Théophile Lorrin olerkaria, bi edergintzako kitzikalari Hussonnet-en lankideak, paper egile bat, eta azkenik Pierre-Paul Meinsius ospatua, margolaritza handiaren azken ordezkaria, zuen aipamenarekin lorian baitzerabiltzan bere lauretan hogeitau urteak eta zorro handia.

Jateko salara joan zirenean, Arnoux Andereak besoa hartu zaukon. Kadera bat hutsik gelditua zen Pellerin-endako. Arnoux-ek maite zuen, hartaz baliatzen zen batean. Bertzela ere, haren mihi ezin

gaixtoagoaren beldur zen - hala nola nun, ematu nahiz, haren potreta agerr-arazia baitzuen *Edergintza industrial*-ean, laudorio espantagarrienez lagundurik; eta Pellerin, aipamenari diruari baino sendikorrago, zortziak hirian agertu zen, dena hats-hantua. Federikek uste ukan zuen aspaldidanik baketuak zirela.

Kompainia, janariak, oro laket zizakon. Sala, erdi-aroko elhategi baten moldean, larru mailukatuz hedatua zen; taula holandes bat bazen Turkiako pipa lerro baten aitzinean; eta, mahiaren inguruan, Bohemiako basoek, margo ezberdinetan, bazegiten lore ‘ta fruituen artean baratze bateko argitaldi bat bezala.

Hamar mustarda motaren artean hautatu behar ukan zuen. Jan zuen gazpatxotik, Indietako biperretik, jinjembratik, Korzikako xoxoetarik, Erromako lazañetarik; ohigabeko arnoak edan zituen, lip-fraoli, tokai. Arnoux ontsa errezebitzen zuelako omenari atxikia zen. Posta-karrosazain guziak lausengatzen zituen jan-gaien ukaiteko xedetan, eta etxe handietako kozinerrekin harremanetan zen saltsa moldeak emaiten zauzkotelakotz.

Baina solasak zuen oroz gaineratik Federik jostatzen. Bidaietako zuen gostua Dittmer-ek pherakaturik zaukon, Orienteaz mintzatu baitzen; antzokietako gauzez zuen jakin-nahia ase zuen Rosenwald Operaz mintzatzeko entzunez; eta “bohemia”-ren bizi ezin gaitzagoa jostagarri iduritu zizakon, Hussonnet-en alaitasuna ikusiz, erran baitzuen, ara ohargarri batean, negu oso bat nola iragana zuen, janari guziko Holandako gasnatik baizik ez ukanez. Gero, Lovarias eta Burrieu-ren arteko eztabada batek, Firenzako margolaritzaz, nagusi-lan batzu ezagun-arazi zauzkon, eremu batzu ideki, eta miresentzaren atxikitzea gaitz izan zizakon Pellerin-ek egin zuenean:

- “Bakean utz nezazue, gauzen egia higungarri horrekin! Zer erran nahi du, gauzen egiak? Batzuek badakusate beltz, bertzek urdin, jende gehienak zozo! Ezer ez Michel-Ange baino gutiago naturalik, ezer azkarragorik! Gauzetako egiaren axolak agertzera emaiten du oraiko aphalkeria; edergintza, horrela jarraikiz, erlisionearen beherekoa bilakatuko baita, poesiari doakonaz, eta izpirituko balioaz politikarenekoa. Duen helburura etzirezte helduko - bai, helburura! - gure baitan bakoitza baino goragoko gogo-berotze baten egin-araztea baita, lan ttipi batzuen bidez ere, zuen egin moldeko zimardika guziak izanik ere. Horra Bassolier baten margazkiak, nahi bada: gauza pollita, aphaina, garbixka, ez phizu! Sakelan sar daiteke, bidaietara ereman!

Notariak hogei mila liberetan erosten dute; gogamenez bada hirur sosena; baina, gogamenik gabe, handirik jeus ez! handitasunik gabe, ederrik ez! Olympia mendi bat da! Eraikuntza burgainekoena, Piramidak izanen dira beti. Gostua baino hobeto orotarako nasaitasuna, oinbidea baino desertua, eta ile mozlea baino salbaia!”

Federik, gauza horien entzutean, Arnoux Andereari beha zagon. Gogora erortzen zizazkon burdinkiak sutegira bezala, zuen sendimendu bortitza handitzen zuten, eta maitasun bilakatzen.

Hirur jar-leku hura baino beherago jarria zen, alderdi berean. Noiztenka, apur bat beheitzen zen, burua itzuliz bere nexka ttipiari hitz zenbaiten erraiteko; eta, orduan irriño bat egiten baitzuen, matelan xilo ttipi bat egiten zizakon, begitarteari emaiten zaukola oneziazko itxura arinago bat.

Auhal-ondoko edari orduan, itzali zen. Solasa biziki libroa bilakatu zen; hartan Arnoux Jaunak phindarrak eman zituen, eta Federik ustegabetua izan zen gizon horien guzien ahaltze gabeaz. Baina emazteaz zuten axolak haien eta haren artean halako berdintasun bat egiten zuten, bere ganako estimuan goititzen zuena.

Saloinera itzulirik, hartu zuen, egonaraz, mahiaren gainean barreatuak ziren marrazki bildumetarik bat. Orduko edergile handiek marrazkiz edertua zuten, hitz laxoak, neutitzak edo bere izenak bakarrik ezarriz; izen aipatuen artean, ainitz bazen ez ezagunik, eta gogoeta ohargarriak etziren zozokeriazko uholde baten azpian baizik agertzen. Guziek bazadukaten Arnoux Anderearendako gizamen guti edo aski zuzen bat, ondoan lerro baten izkiriatzeko Federik beldur izanen baitzen.

Anderea bere saloin ttipira joan zen khebide izkinan ohartua zizakon zilharrezko heskailuekilako khutxattoaren bila. Senarraren eskaintza bat zen, Berphizteko lan bat. Arnoux-en adixkidek laudorioak egin zauzkoten, emazteak ezkertzen zuten; bihotz beratasun batek hartu zuen, eta musu bat eman zaukon emazteari jendearen aitzinean.

Gero, guziak elheztatu ziren han edo hemen, multxoka; Mensius zaharra Arnoux Anderearekin zen, jargia handi batean, sutondoan; eta beharrira beheitzen zizakon, buruek elgar hunkitzen zautan; - eta Federikek onhartuko zuen gor, hebain eta itsusi izaitea izen aipatu baten eta ile zurien ukaiteko, horrelako etxekotasunera ereman lezan zerbaiten jabe izaiteko. Bihotza zimikotan zuen, bere gaztetetasunaren haserrez.

Baina hura zagon saloin izkinara ethorri zen, eta galdegin zaukon gomitetarik zenbait etzagutzen zuenez, margazkia maite, zenbat dembora zuen Parisen ikasten ari zela. Ahotik jalgitzen zizakon hitz bakoitza bazidurikon Federiki gauza berri bat zela, haren men bakarreko gauza berezi bat. Oharpenekin beha zagon haren ile-antzeko puntta meher, soingain hasa pherekatzen zaukotela; begiak etzituen hortik baztertzen, bere arima sartzen zuen emazte haragi horren xurian; bizkitartean, betespalen goitizera etzen menturatzen, gorago behatzeko, bekoz beko.

Rosenwald-ek moztu zituen, Arnoux Andereari galdeginez zerbait kanta zezan. Bera musikan hasi zen, hura aiduru zagola; ezpainak erdi ideki zituen, eta soinu garbi, luze, hedatu bat airatu zen.

Federikek jeus etzuen entzun italianozko hitzetan.

Neurkada larri batekin hasten zen, elizako kantu bat bezala, gero, phiztuz eta azkartuz, zinka andana batean joiten zuen, bapatean eztitzen zen; eta airea berriz itzultzen amultsuki, goti-beheititze zabal eta nagi batean.

Xutik zagon, eskuz joitekoaren ondoan, besoak beheiti, soa nunbait galdua. Batzuetan, musikaren irakurtzeko, betespalak klixkatzen zituen burua aitzinatuz, ephe labur batez. Zuen “kontralto” mintzo lodiak hartzen zuen nota aphaletan hormatzen zuen doinu ilun bat, eta orduan buru eder hura, bekain handiekin, soin-gainera gurtzen zizakon, bulharra hantzen, besoak baztertzen, handik notak firrindaka zoazin lephoa ezteki makurtzen zizakon aireko musu batzuen azpian bezala; hirur nota mehe igorri zituen, berriz jautsi zen, bertze bat goragoa oraino igorri zuen, eta, ixilaldi baten ondotik, organo phondu batekin bururatu.

Rosenwald-ek etzuen pianoa utzi. Joiten jarraiki zuen, berarendako. Noiztenka gomitetarik bat itzaltzen zen. Hameka orenetan, azkenak bazoazilarik, Arnoux Pellerin-ekin athera zen, hunen laguntzeko estakuru. Auhaldandoan *bere itzuliñoa* egina ezpadute eri direla dioten jende hetarik zen.

Arnoux Anderea aitzin-gambararano jina zen; Dittmer eta Hussonnet-ek agurtzen ari zuten, eskua luzatu zauen; egin zaukon ere Federiki; eta halako barneratze bat bezala senditu zuen larruko gune guzietan.

Adixkideak utzi zituen; bakarrik egoiteko beharrean zen. Bihotza gainditzen zizakon. Zergatik esku horren eskaintzea? Gogoetatu gabeko jestua zena, ala aitzina joaitera gomita? “Goazen bada! eroa niz!” Zer

balio zuen bertzela ere, orai nahitara ikus zezakeenaz geroz, haren ingurunean bizi bazatekeen.

Karrikak hutsak ziren. Zenbait aldiz orga phizu bat baziragan, lauzada inharrosiz. Etxeak etxer jarraikitzen ziren bere aitzin hautsaranekin, leiho hetsiekin; eta gutietsiz gogoratzen zizazkon gizaki horiek oro harresi horien gibelean etzanak, “hura” ikusi gabe zaudenak, hetan bakar batek ere bizi zela uste ukan gabe! Jeus etzuen sendi ez ingurumena, ez gunea; eta, aztalarekin lurra joz, saldegien leihoak makilarekin, bazoan beti aitzina, nora nahi, galdua, eremana. Aire heze batek inguratu zuen; kaien bazterrean zela ezagutu zuen.

Gauargiek bi lerro zuzenetan argitzen zuten, ethengabe, eta gar gorri luze batzu ikharatzen ziren uraren barnean. Arbel margoa zuen, zeruak aldiz, argiago, baitzidurien ibaiaren bi aldetarik goiti zauden itzal meta handiek bazatxikatela. Eraikuntza batzuek, ikusten etzirenak, itzalak bikuntzen zituzten. Lano argi bat bazagon airean urrunago, hegaztegien gainetik; harrabotsak oro burrumba ezti bakar batean urtzen ziren; haize arin batek ufatzen zuen.

Gelditua zen Zubiberriaren erdian, eta, buru has, bulharra zabal, airea iresten zuen. Bizkitartean, ezin agortuzko zerbait sendi zuen golkoaren zolatik igaiten ari, zainetara bazemon samurtasunezko uhain bat, uren harat hunata begietan ukan balu bezala. Eliza bateko erloian, oren batak jo zuen, hel egiten zaukon mintzo bat iduri.

Orduan, arimako hotz-ikhara batek hartu zuen, goragoko mundu batera eremana dela iduritzen baitzauzu. Ohigabeko ahal bat, bazuela etzakielarik, jina zizakon. Bere baitan egin zuen, seriocki, hea margolari handi bat ala olerkari handi bat izanen ote zen; - eta margolaritzara jo zuen, ofizio hortako egin-beharrek Arnoux Anderearen gana hurbilduko baitzuten. Hatzemana zuen beraz zertara zen deitua! Biziko helburua argi zizakon orai, eta geroa ezin huts egina.

Athea hetsia ukan zuenean, norbait entzun zuen korrokan, gabinet ilunean, gambararen ondoan. Bertzea zen. Etzuen batere gogoan.

Mirailak begitartea eskaintzen zaukon. Ederra iduritu zizakon; - eta minuta bat egon zen bere buruari beha.

V

Biharamunean, eguerdi aitzin, erosiak zituen margo untzi bat, pinzelak, xibaleta. Pellerin-ek ikasketen emaita onhartu zaukon, eta Federikek ereman zuen bere bizitegira thindatzeko tresnerian jeusek huts egiten etzaukonez ikusteko.

Deslauriers sartua zen. Mutiko gazte batek hartua zuen bigarren jargia. Bulego-mutilak erran zuen hura erakutsiz:

- “Hori da! Horra! Senecal!”

Mutiko hori etzizakon Federiki gustatu. Ile “brozan” moztuek kopeta agerian emaiten zaukoten. Zerbait gogor eta hotz jalgitzen zizakon begi hautsaranetarik; eta maripulis beltz luze batek, jantzi guziak, bazemoten erakaslegoako eta aphezeriako norbaiten itxura.

Hastetik, eguneko berriez mintzatu ziren, bertzen artean Rossini-ren *Stabat-az*; Senecal-ek, eskaturik, erran zuen ehoiz etzela antzokira joaiten. Pellerin-ek ideki zuen margoen untzia.

- “Hiretako dea, hori guzia?” erran zuen bulego-mutilak.

- “Segurki ba!”

- “Ori! Zer ideia!”

Eta mahira gurtu zen, han matematika erkasle-ordea ari zelarik Louis Blanc-en liburu baten orstoztatzen. Berak ekharria zuen, eta zati batzuen irakurtzen ari zen ahapetik, Pellerin eta Federik ari zirelarik elgarrekin esku-taularen, ganibetaren, phixaxturuen mihatzen; gero Arnoux-en etxeko auhariaz solastatzera jin ziren.

- “Margazki saltzalea?” galdegin zuen Senecal-ek. “Jaun pollita, zinez!”

- “Zertako bada ?” erran zuen Pellerin-ek.

Senecal-ek ihardetsi zuen:

- “Politikako ezteuskeria batzuez diru egiten duen gizon bat!”

Eta har-marrazki aipatu batez mintzatzen hasi zen, erret-familia guzia erakusten baitzuen behar bezalako egiteko batzuetara emana: Luis-Filipe lege bilduma bat eskuan, erregina elizako liburu batekin, printzesak brodatzen, Nemours-ko dukea gerrian sabre baten ezartzen, Joinville-ko Jauna anaia gazter geografiako karta baten erakusten; ageri zen, zolan, bi leku aldekilako ohe bat. Iduri horrek, *Familia on bat* izenburu-pean, egina zuen burjesen atsegina, baina aberritarren bihotz-mina. Pellerin-ek, egilea izana baliz bezalako itxura gaitzitu batekin, ihardetsi zuen aburu guziek balio bera zutela; Senecal-ek ezetz,

Edergintzak etzuela moralera jendalden eremaiteko xedea baizik ukan behar! Etziren ezarri behar bertutezko egintzetara zeramaten gaiak baizik; bertzeak gaizkor ziren.

- “Baina egitea nolakoa den arau?” oihukatu zuen Pellerin-ek. “Nagusi-lanak egin nahi ditut!”

- “Zuretako hanbat gaixto, beraz! ezta dretxorik...”

- “Nola?”

- “Ez! jauna, eztuzu gaitzesten ditutan gauza batzuetara eni beharazteko dretxorik! Ezteuskeria akigarri batzuen beharretan girea, hetarik abantailik batere ezpada ukaiten ahal, Benuz horietarik, adibidez, zuen eskualde margazkitze guziekin? Eztakusat hor jendearendako erakaspenik! Erakuts ezazkiguzue haren miseriak, izaitekotz! suharr-araz gitzazue haren sakrifizioez! He! Jainko ona, eztira gaiak eskas: laboretxea, landegia...”

Pellerin-ek, sumindua, zer erran etzakien, eta, ustez eta arrazoin bat hatzemana zuen:

- “Molière, onhartzen duzua?”

- “Izan bedi!” erran zuen Senecal-ek. “Miresten dut Iraultza frantzesaren aitzineko bezala.”

- “Ha! Iraultza! Zer edergintza orduan! Egundano ezta hura baino aro urrikgarriagorik izan!”

- “Handiagorik ez, jauna!”

Pellerin-ek besoak gurutzatu zituen, eta, hari bekoz beko behatuz:

- “*Zaintzale nazional* ez ttipi baten itxura badematazu!”

Kontrarioak, eztabadatzeari jarria, ihardetsi zaukon:

- “Eniz *betarik!* eta zuk bezain hastio ditut. Baina, horrelako gogamenekin, jendearen gogoa usteltzen da. Abantaila Gobernamentuari emaiten da, eta bertzela, elizateke den bezain azkar Arnoux hori bezalako jukutrilarri andana batek azpiz lagundu gabe.”

Margolariak saltzalearen aldea hartu zuen, ezen Senecal-en aburuek sumintzen zuten. Ukan zuen ere Jacques Arnoux zinez bihotz hoberena zela erraiteko ausartzia, adixkider emana, emaztea minki maite zuena.

- “Ho! Ho! diru on bat eskaintzen balizako, modeletako baliatzeari elezoke eza eman.”

Federik zuri bilakatu zen.

- “Gaizki ainitz egina dautzu beraz, jauna?”

- “Eni? Ez! Ikusia dut, aldi batez, ostatuan, adixkide batekin. Horra dena.”

Senecal-ek egia zion. Baina nardatua gertatzen zen, egun oroz, *Edergintza industrial*-eko erreklamez. Hari, Arnoux demokraziarendako hilgarri zadukan mundu batekoa zizakon. Errepublikar garratza, aphaindura guziak ustelkeriara aihar iduritzen zitzazkon, bertzela bera beharrik batere gabe, eta zuzentasun ezin aurdikikoa izanez.

Solasaldiaren berriz abiatzea neke izan zen. Margolaria laster orhoitu zen hitzartu ordiaz, erakaslea bere ikaslez; eta atheraiak izan zirenean, ixil luze baten ondotik, Delauriers-ek galde batzu egin zituen Arnoux-ez.

- “Hara eremanen nauk berantago, eztea hala, gizon?”

- “Segurki,” erran zuen Federikek.

Gero bizitzeko moldeaz axolatu ziren. Deslauriers-ek ukana zuen, nekerik gabe, bigarren bulego-mutil leku bat abokat baten etxean, dretxoko Eskolan bere izena emana, beharrezkoak ziren liburuak erosiak, - eta hainbertze amestua zuten bizia hasi zen.

Loriagarria izan zen, gaztaroko edertasunari esker. Deslauriers ezpaitzen diruko antolamenduz batere mintzatua, Federikek etzuen aipatu. Gastu guziak bere gain hartzen zituen, harmairua behar den bezala ezartzen, menaiako axola hartzen; baina, merkaturatekoa etxezainari eman behar baldin bazen, bulego-mutilak egiten zuen, bazarraikala, kolegioan bezala, bere gerizatzale eta gehiengoa.

Egun osoan berexiak izanik, arratsetan elgarretaratzen ziren. Bakoitzak bere lekua hartzen zuen supazterrean eta lanari emaiten zen. Etziren moztu gabe luzaz egoiten. Ethengabeko segetu emaitak elgarri, arrazoin gabeko alegeratasunak, eta batzuetan kalapitak, ixurtzen zuen argi-untziaz edo liburu galdu batez, minuta bateko haserreak, irriek eztatzen zituztenak.

Zuraren gabineteko etxola idekia gelditurik, urrundik elhekatzen ziren, ohean.

Goizean, athorra has ibiltzen ziren galerian; iguzkia jeikitzen ari zen, lanho arin batzu bazoazin ibaiaren gainetik, kurrinka bat entzuten zen ondoan, lore merkatutik; - eta pipen kheak itzulika zoazin goizeko aire garbian, hoxten zezteela begi oraino loz hantuak; sendi zuten, hats hartzean, ooren gainean ezperanza zabal bat.

Euria ari etzelarik, igandetan, elgarrekin atheratzen ziren; eta, besoz beso, bazoazin karriketari harat. Abantzu beti gogoeta bera

bapatean heldu zizeen, edo solasean ari ziren, inguruan jeusi ohartu gabe. Deslauriers-ek bazuen aberastasunaren gutizia, gizonen gainean bothere ukaiteko bide bezala. Nahiko zuen jende ainitz inharrosi, ainitz harrabots egin, hirur segetari ukan bere menean, eta politikako auhari handi bat astean behin. Federik ari zen mairu moldeko palazio baten mubleztatzen, kaxamirazko ohexka batzuetan etzanik bizitzeko, ur xirrixta baten xurrumuruan, nerabe beltz batzuek zerbitzatua; - eta ametsetako gauza horiek hain argi bilakatzen ziren azkenean, nun lastimatzen baitzuten galduak ukan balitu bezala.

- “Zer balio du hortaz guziaz mintzatzeak,” zion, “ehoiz ukanen eztitugunaz geroz!”

- “Nork daki?” egiten zuen berriz Deslauriers-ek.

Zituen demokraziako aburuak ukanik ere, Dambreuse-tarren etxean sartzera sustatzen zuen. Bertzeak horren kontra emaiten zauzkon eginak zituen entseguak.

- “Bah! habil berriz! Gomitatuko haute!”

Ukan zituzten, ephailaren erditsutara, bertze khondu aski phizu batzuen artean, auhaltzera ekhartzen zauen ostalerrarenak. Federikek, behar zen dirua ez ukanez, hartu zauzkon Deslauriers-i ehun eskudo; hamabortz egun berantago, galde bera berriz egin zuen, eta bulego-mutilak erasitu Arnoux-tarren etxean egiten zituen gastuendako.

Egia erran, etzen batere neurtuz ari. Baziren Veneziako ikuspen bat, Neapolizko bertze bat eta oraino bat Konzatinopolizkoa hirur harresien erdia hartzen zutena, han edo hemen Alfred de Dreux-en zaldizko gai batzu, Pradier-en multzo bat khebidean, *Edergintza industrial*-eko aldiko zenbait pianoaren gainean, eta kartoineria batzu lurrean izkinetan bizitegia hainbertze trabatzen zutenak nun liburu baten ezartzea, ukondoan higitzea neke baitzen. Federikek zion hori guzia behar zuela omen bere margolaritzako.

Lanean Pellerin-en etxean ari zen. Baina usu Pellerin egitekoetara joana baitzen - egunkariak aipatu behar zituzten ehorzketa eta gertakari guzietan han izaitera ohitua izanez; - eta Federikek oren osoak iragaiten zituen landegian bakarrik. Barne handi hartako bakeak, ezpaitzen saguen lasterra baizik entzuten, gaintik erortzen zen argiak, eta labexkaren gorrongarano, orok murgiltzen zuen hastetik gogoko gozatasuna bezalako batean. Gero begiak, lana utziz, harresiko ezkatatzetara bazoazkon, taulako puxkilerietara, errautsak bildurik balusa zatiak bezalako batzu egiten zauzteen giza-irudien soingainetara; eta, oihan

batean galdu eta bide guziek leku berera deramaten bidaiaria iduri, beti eta beti, gogamen bakoitzaren zolan berraurkitzen zuen Arnoux Anderearen orhoitzapena.

Egun batzu hautatzen zituen haren etxera joateko; bigarren estaiara heldu eta, haren athe aitzinean, joiteko zalantzan egoiten zen. Urrats batzu hurbiltzen ziren; idekitzen zen, eta, hitz hautan: “Anderea atheraia da,” liberatze bat zen, eta bihotzaren gainean zama bat gutiago bezala.

Aurkitu zuen alta. Lehen aldian, baziren harekin hirur andere; bertze arratsalde batez, Martha Andereñoaren izkirio erakaslea ethorri zen. Bertzela ere, Arnoux Andereak etxean ukaiten zituen gizonak etzaukoten ikustaldirik egiten. Etzen gehiago hara itzuli, jendetasunez.

Baina etzuen huts egiten, ortzegunetako auharietara gomitatua izateko, *Edergintza industrial*-era joatea asteazken oroz, beti; eta han egoiten zen bertze guzien ondotik, Regimbart baino luzazago, azken minutarano, alegia eta margazki zenbaiti beha, egunkari baten irakurtzen. Azkenean Arnoux-ek erraiten zaukon: - “Libro zirea, bihar arratsean?” Errananaldia bururatua izan gabe onhartzen zuen. Bazidurien Arnoux-ek maitatzen ari zuela. Erakutsi zaukon arnoen ezagutzeko moldea, pekada saltsa egitea; Federik haren aholkuer xuxen jarrikitzen zizeen, - Arnoux Anderea hunkitzen zuen guzia maite baitzuen, haren mubleak, sehiak, etxea, karrika.

Etzen auhari horietan biziki mintzatzen; hari beha zagon. Bazuen eskunetik, pholsuaren ondoan, sor-seinale bat; aurpegi inguruko ile xerrendak gainerateko adatsa baino beltxago zituen eta beti bazterretan apur bat heze bezala; pherekatzen zituen artetan, bakarrik bi erchiez. Bazakien haren azkazal bakotxaren moldea, atsegin handi zuen haren zetazko zaiaren huxtua entzunez athe ondoetarik zoanean, gordeka hats hartzen zuen haren mokanesaren usainaz; haren orrazea, esku-larriak, erhaztunak gauza berezi batzu zizazkon, edergintzako lan batzuen baliokoak, jende batzu bezala abantzu bizi; guziek hartzen zaukoten bihotza eta zuen sendimendu azkarra handitzen.

Deslauriers-i etzaukon hori gorde ahal ukana. Arnoux Anderearen baitarik itzultzen zenean, iratzartzen zuen ohartu gabe bezala, hartaz mintzatu ahal ukaiteko.

Deslauriers-ek, egurren gabinetean etzatzen baitzen, ithurriaren ondoan, aharrausi luze bat egiten zuen. Federik ohe sahetsean jartzen zizakon. Lehenik auhariaz mintzatzen zen, gero mila xehekeria ezteusez,

hetan ikusten baitzituen gaitzesmenezko hatz batzu edo maitasunezkoak. Aldi batez, erraiteko, besoa etzaukon eman nahi ukana, Dittmer-enaren hartzeko, eta Federik lastiman zen.

- “Ha! zer xoxokeria!”

Edo “adixkidea” deitua zuen.

- “Hoa alaiki, orduan!”

- “Eduk ordea menturatzen,” zion Federikek.

- “Ha beraz, gogotik utzak! Gau on.”

Deslauriers ohe zokora itzultzen zen eta berriz lokhartzen. Ezer etzuen maitasun hortan entzuten, gaztaro hastapeneko ahulezia bat bezala ikusten baitzuen; eta, harekilako etxekotasuna ez aski ukanez, agian, asteen behin elgarren adixkiden biltzea asmatu zuen.

Ebiakoitzarekin jiten ziren, bederatziak hirian. Oihal aljeriarrezko hirur erridauak artharekin baztertuak ziren; girisailua eta hirur ezko argi erretzen ari; mahi erdian, tabako untzia, pipaz bete-betea, ezarria zen garagarno botoilen, duthe unziaren, errhuma botoila baten eta bixkotxeriaren artean. Arimaren hilezinaz eztabatzen zen, erakaslen artean erkidatzeak egiten ziren.

Hussonnet-ek, arrats batez, sarr-arrazi zuen mutiko gazte handi bat ukondoetan laburregi zen maripulis bat soinean, eta itxuraz eragozpenean. Jandarmerian galdegiten izanak ziren mutikoa zen, aitzineko urtean.

Bere nagusiari ezin itzulia ahal ukanik aharran galdua zuen dentela untzia, hark ohointzaz salatua zuen, auzitegiez mehatxatua; orai, garraiatzeko etxe batean komis zen. Hussonnet-ek, goizean, batua zuen karrika izkina batean; eta bazekharren, ezen Dussardier-ek, esker onez, nahi zuen “bertze hura” ikusi.

Federiki aitzineratu zaukon zigarr-untzia oraino betea, zintzoki begiratu zuena itzuliko zuelako ustean. Gizon gaztek berriz jitera gomiatu zuten. Etzuen huts egin.

Oro elgarri atxikiak ziren. Lehenik, Gobernamentuaz zuten hastioak bazuen ezin eztabadatuzko egia baten goratasuna. Martinon zen bakarrik Luis-Filipe-ren zaintzera entseatzen. Egunkarietan ihaurtuak zauden leku arrunten azpian lehertzen zuten: Pariseren bastillaratzea, buruileko legeak, Pritchard, “lord” Guizot, - hala nola nun Martinon ixiltzen baitzen, norbaiten laidotzatzeako beldurrez. Ikastetxeko zazpi urtez, gaztigurik etzuen merezituri, eta, dretxoko Eskolan, bazakien erakasler gustatzen. Bazuen ohian maripulis lodi horail bat kautxuzko

oin gaineko batzuekin; baina arrats batez agertu zen esposeko jantzi batekin: balusazko barneko motxa, lephoko xuria, urrezko gatina.

Ustegabetzea bikundu zen Dambreuse Jaunaren etxetik atheratzen zela jakin zenean. Alabaina, Dambreuse diruzainak erosi berria zaukon Martinon aitari oihan zati gotor bat; gizon zaharrak semea aitzineratua zaukon, biak auhaltzera gomiatuak zituen.

- “Boil-onddo ainitz bazena,” galdegin zuen Deslauriers-ek, “eta emaztea hartu daukoka gerritik, athe bien artean, *sicut decet?*”

Orduan, solasa emaztetan hasi zen. Pellerin-ek emazte ederrik bazela etzuen onhartzen (nahiago zituen tigreak); bertzela ere, gizonaren emea izaitze azpiko bat zen ezthetikaren mailetan:

- “Zu beregana biltzen zituena da bereziki gogoaren aldetik behehitzen duen hura; erran nahi dut bulharrak, ileak...”

- “Bizkitartean,” iharduki zuen Federikek, “ile beltz luze batzu, begi beltz handi batzuekin...”

- “Oi! ezaguna!” egin zuen Hussonnet-ek. “Andaluziarrak sorotxan, aski! zaharraroko gauzak! zerbitzari! Ezen oro har, dakusagun, irrik ez! lilitxo bat Milo-ko Benez-a baino jostagarriago baita! Izan gaiten Gales, debrientxoa! eta Erreienziako ahal badugu! Beltxaranetik ile horira joan behar da! - Zure aburua dea, Dussardier jauna?”

Dussardier-ek etzuen ihardetsi. Guziek hertsatu zuten zituen gostuen ezagutzeko.

- “Ori,” egin zuen gorrituz, “nik, ber bat maitatu nahi nuke, beti!”

Halako moldez errana izan zen, nun ephe ixil bat izan baitzen, batzu xintxotasun hortaz ustegabetuak, eta bertzek aurkituz, behar bada, bere arimako gutizia segetuzkoa.

Senecal-ek ezarri zuen biera basoa leiho-uztarrian, eta serioски erran, emakeria tirania bat izanez eta ezkontza moralaren etsaia, begiratzea hobe zela. Deslauriers-ek emazteak libertimendutzat hartzen zituen, jeus ez gehiago. Cisy-ko Jaunak bazuen haien aldera mota orotako lotsa bat.

Amabitxi elizatiar baten begien azpian hazia izanik, gizon gazte horien kompainia leku gaitza bezain gustagarria zizakon eta Sorbona bezain erakasgarri. Etzizazkon ikastaldiak neurtzen; nahikariaz betea agertzen zen, pipatu nahi ukaiterano, aldi oroz, erregularri, jauzten zizakon bihoztarrek barnea nahasirik ere. Federikek hartaz artha handia hartzen zuen. Miresten zauzkon lephokoen margo bereziak,

bizkarrekoaren horradura eta oroz gainetik botak, eskularriak bezain mehe, garbiz eta beraztasunez ausartak iduri baitzuten; eta karrosa haren aiduru zagon behean, karrikan.

Abiatu berria zelarik arrats batez, eta elhurra ari, Senecal haren karrosazainaz urrikitzen hasi zen. Gero goraki gaizki mintzatu zen eskularri horiez, “Jockey-Club” delakoaz. Jaun horietaz baino axola gehiago zuen langile batez.

- “Ni, lanean ari niz, bederen! pobrea niz!”

- “Ageri da,” erran zuen azkenean Federikek, ezin egonean.

Erakasle-ordeak aiherkundera atxiki zaukon hitz horren gatik.

Baina, Regimbart-ek erranik Senecal apur bat ezagutzen zuela, Federikek, ikustate bat egin nahiz Arnoux-en adixkideari, othoiztu zuen ebiakoitzetako bilkuretara ethor zadin, eta elgar ikustea bi herrikoier gozagarri izan zizeen.

Etziren alta berdinak.

Senecal-ek - buru hezurra goiti puntan zuena - etzauen sistimer baizik behatzen. Regimbart-ek, aldiz, etzakusan egintzetan egintza baizik. Berezikienik khexatzen zuena, Rhin-go muga zen. Bazion artillerian ezagutzen zela, eta Eskola politeknikako jostunari egin-arazten zauzkon soinekoak.

Lehenbiziko egunean, bixkotxa batzu eskaini zizazkolarik, soingainak gutiestez goititu zituen, hori emaztendako ontsa zela erranez; eta etzen ondoko aldietan gozagarriago agertu. Gogoetak goratasun zenbaitetara heltzen zirenetik, murmurikatzen zuen: “Ho! ez *utopiarik*, ez ametsik!” Edergintzari doakonaz (nahiz landegietan ibiltzen zen, han batzuetan, gustagarritasunez, ezpata guduko ikastaldi bat emanaz), aburuak etzituen goienetarik. Marrast Jaunaren estiloa Voltaire-renari erkidatzen zuen, eta Vatnaz Andereñoa Staël-go Andereari, Poloniaz egina zuen olerki baten gatik, “bihotza baitzen hartan”. Azkenean, Regimbart-ek jende guzia aspertzen zuen et bereziki Deslauriers, ezen Herritarra Arnoux-en etxekotuetarik zen. Bulego-mutilak, bada, bazuen etxe hortan ibiltzeko nahikaria eta han ezagutza baliagarri batzuen egitekoa. “Hara noiz eremanen nauk bada?” zion. Arnoux lanez lehertua zen, edo bidaiara zoan; gero, etzuen balio, auhariak gelditzera zoazin.

Bizia irriskutan ezarri behar ukan balu adixkidearendako, Federikek eginen zuen. Baina ahal bezenbat bere abantail handienean agertzeari atxikia baitzen, bere mintza-moldeari behatzen baitzaukon, ara eta jantziari *Edergintza industrial*-era beti erraitekorik etzuten

eskularruekin jiteranokoan, beldur zen Deslauriers, bere soineko beltz higatuarekin, imperkadore itxurarekin eta hitzaldi ausartekin, etzakidion gusta Arnoux Andereari, horrek gaizki ezar baitzezakeen, eta bera haren gogoan apha-araz. Onhartzen zituen ba bertzeak, baina, horrek, bereziki, mila aldiz gehiago trabatuko zuen. Bulego-mutila ohartzen zen etzuela eman hitza atxiki nahi, eta Federiken ixila laidoaren azkartzea zela bazidurikon.

Nahiko zuen bidatu osoki, handitzen ikusi, bere gaztaroko idealaren araura; eta haren nagikeriak sumintzen zuen, desobeditze batek eta saltze batek bezala. Bertzela ere Federik, gogoan Arnoux Andereaz betea, usu mintzo zen hunen senarraz; eta Deslauriers-ek hasi zuen ezin jasanezko *terrenta* bat, egunean ehun aldiz haren izenaren errepikatzea zena, erranaldi guzien buruan, zozo baten kheinua bezala. Athean joiten zenean, ihardesten zuen: “Aitzina, Arnoux!” Ostatuan Brie-ko gasna bat galdegiten zuen “Arnoux-ek bezala egiteko”; eta, gauaz, alegia eta amets gaixto bat ukanik, laguna iratzartzen zuen oihuka: “Arnoux! Arnoux!” Azkenean, egun batez, Federikek, ezindua, erran zaukon mintzo lastimagarri batekin:

- “Baina utz nezak geldirik Arnoux-ekin!”
- “Behin ere!” ihardetsi zuen bulego-mutilak.

*Hura beti! oro hura! hotz ala beroa,
Arnoux-en itxura...*

- “Ixil hadi bada!” egin zuen Federikek ukabila gotitituz.

Gero berriz eztiki:

- “Penagarri zatan gaia duk, ontsa badakik.”
- “Oi! barkatu, gaizoa,” ihardetsi zuen Deslauriers-ek biziki beheiti gurtuz, “errespetatuko dira hemendik goiti Andereñoaren zainak! Barkatu berriz ere. Mila desenkusa!”

Jostagaia horrela gelditu zen.

Baina, hirur aste berantago, arrats batez, erran zaukon:

- “Ori, arestian ikusia diat, Arnoux Andereak!”
- “Nun bada?”
- “Palazioan, Balandard abokatarekin; emazte beltzaran bat, eztea hala, soinaraz artekoa?”

Federikek baiezko kheinu bat egin zuen. Deslauriers mintza zadin beha zagon. Miresmeneko hitz den ttipienez, bihotza nasaiki zabalduko

zuen, minki maite zuela erraitera zoan; bertzea beti ixilik; azkenean, gehiago ezin egonez, galdegin zaukon aire axolagabeko batekin zer uste zuen hartaz.

Deslauriers-ri “etzela gaizki, ohigabeko ezer ukan gabe alta” iduritzen zizakon.

- “Ha! uste duk,” erran zuen Federikek.

Ethorri zen agorrila, bigarren etxaminako aroa. Ohian uste zenaz, gaien lantzeko hamabortz egun aski ziren. Federikek, bere indarrez dudatu gabe, aldi bakar iretzi zituen Auzilegetako lehenbiziko laur zatiak, Zigorlegetako lehenbiziko hirurak, Erakaskuntza kriminaleko zati batzu eta Lege-bilduma zibileko bat, Poncelet Jaunaren oharpenekin. Bezperan, Deslauriers-ek egin-arazi zaukon goizalderano luzatu zen errepikapen bat; eta, azken oren laurdenaren baliatzeko, galdezkatuz jarraiki zizakon oin-bidean, urrats egitean batean.

Etsamina andana bat aldi berean egiten baitzen, jende ainitz bazen korralean, bertzen artean Hussonnet eta Cisy; ariketa horietara jitea etzen huts egiten lagunez ari zenean. Federikek ezarri zuen bizkarrean ohiko arropa beltza; eta gero sartu zen, jendetzea haren gibeletik, bertze hirur ikaslekin, barne handi batera, erridaurik gabeko leiho batzuek argitua eta banka luze batzuek hornitua, murruean luzean. Erdian, larruzko kadera batzuek inguratzen zuten mahi bat, oihal musker batez aphaindua. Horrek ikasleak berexten zituen arropa gorritan ziren Jaun etsaminatzaletarik, guziek bazituztelarik soin-gainean marta-xurizko galtza, eta buruan galoin urrekilako xano batzu.

Federik azkenaren aitzinekoa zen bere lerroan, leku gaixtoa. Lehen galdean antolamentdu eta kontratu baten artean den ezberdintasunaz, bata bertzearen bidez mugatu zuen; eta erakasleak, gizon on bat, erran zaukon: “Etzaitela nahas, jauna, zeure baitara zaitel!” gero, bi galde errex eginik, ihardespen ilun batzuek jarraikiak, laugarrenara joan zen azkenean. Federik hastapen txar hortaz khordokatua izan zen. Deslauriers-ek, aitzinean, ikuslarietan, kheinu egiten zaukon etzela oraino guzia galdua; eta bigarren galdekatzean zuzenbide kriminelaz, bien arteko agertu zen Federik. Baina, herenaren ondotik, segeretuan ezarri testamenduari zoakona, etsaminaria dembora guzia sorgor egonik, antsia bikundu zizakon; ezen Hussonnet-ek eskuak elgarretaratzen zituen zartatzeko bezala, Deslauriers ari zelarik soingainak goiti eta goiti. Azkenean, ordua jin zen Prozeduraz ihardetsi behar izan zena! Heren gogorr-egintzaz zen. Erakasleak, bereak zituen

aburuen kontrakoak entzunik gaitzitua, galdegin zaukon doinu bortitz batekin:

- “Eta hori, jauna, zure aburua dea? Nola batzen duzu Legebilduma zibileko artikulua 1351-ak diona ohigabeko jauki-molde horrekin?”

Federikek buruko min handi bat sendi zuen, gaua lorik gabe iraganik. Iguzki arrai batek, leiho arteka batetik sartuz, aurpegian joiten zuen. Kaderaren gibelean zutik, zalantzaka zagon muxtatxari thiraka.

- “Zure ihardespeneren beha nago beti!” egin zuen gizon xano urreduak.

Eta, Federiken jestuak aspertzen baitzukeen:

- “Aurkituko duzun lekua ezta zure bizarra!”

Atheraldi horrek entzuletan irri bat egin-arazi zuen. Erakaslea, lausengatua, eztitu zen. Bi galde egin auzitegira deitzeko egunaz eta auzi laburraz, gero burua behehitu baimeneko seinalez; egintza publikoa bururatua zen. Federik aitzin-barnera sartu zen.

Athezainak arropa ekhentzen ari zaukolarik, berehala bertze bati emaiteko, adixkidek inguratu zuten, azkena burxoratzen zutela etsaminaren ondorioaz zituzten kontrako aburuez. Izena mintzo ozen batez gero laster emana izan zen salako sargian: “Hirurgarrena... ondoko aldira utzia zen!”

- “Hortaz egina da!” erran zuen Hussonnet-ek, “goazen!”

Etxezainaren athe aitzinean, Martinon aurkitu zuten, gorritua, hunkia, begietan irriño batekin eta irabazi osoaren loria bekokian. Azken etxamina eragozpenik gabe jasan berria zuen. Bakarrik gelditzen zizakon thesia. Hamabortz egun gabe, lizenziatua izanen zen. Etxekoek minixtro bat ezagutzen zuten, “bizipide eder bat” idekitzen zizakon aitzinean.

- “Horrek garhaitzen hau, hala ere,” erran zuen Deslauriers-ek.

Ezta jeus aphaltarri huts egiten den egintzetan zozoek irabazten dutela ikustea bezenbat. Federik-ek, gaitzitua, ihardetsi zuen hortaz axolarik etzuela. Nahikariak gorago zituen; eta Hussonnet-ek joaitera egiten baitzuen, bazterrera ereman zuen erraiteko:

- “Hortaz guziaz hitzik ez, haien etxean, erran gabe doa!”

Segetua atxik errexa zen, Arnoux biharamunean bidaiatz Alemaniarara zoanaz geroz.

Arratsean, sartzean, bulego-mutilak aurkitu zuen adixkidea bereziki bertzelakatua: itzulikatuz zabilan, xixtuz; eta, bertzea omore

hortaz ustegabetzen baitzen, erran zuen amaren etxera etzela joanen; bakantzak laneko baliatuko zituen.

Arnoux-en abiatzeko berrian, bozkario batek hartua zuen. Hara joan zaitekeen, bere nahitara, ikuslariez moztua izaiteko beldurrik gabe. Segurtasun osoaren gogoak bihotz emanen zaukon. Azkenik etzen urrundua izanen, ez Haren ganik berexia! Burdinazko gatina baino azkarragoko zerbaitek estekan zadukan Pariseri, barneko mintzo batek egon zadin oihu eginez.

Baziren trabatzen zuten gauzak. Iragan zituen amari eskutitz batekin: etxaminetan huts eginga aithortzen zuen lehenik, ikas-gaietan egin aldaketa batzuen gain emanez, - halabehar bat, bidegabe bat; - bertzela ere, abokat handi guziek (izenak emaiten zituen) etsaminetako eza ukana zuten. Alta berriz joan gogo zuen hazaroan. Baina, astirik galtzeko ez ukanez, etzen aurten etxera joanen; eta galdegiten zituen, hirur ilabeteko diruaren gainera, berrehun eta berrogei-ta-hamar libera zuzenbideko ikas-lan batzuendako, biziki baliagarriak; - guzia urriki, dolumin, pherekaldi eta seme baten maitasuna goraki aitortzen zuten hitzez aphaindurik.

Moreau Anderea, biharamunean haren aiduru baitzagon, bietan penatua izan zen. Semearen nahigabea gorde zuen eta ihardetsi zaukon “hala ere ethor zadin”. Federikek etzuen amor eman. Ondotik makurraldi bat ukan zuten. Asteburuan, hala ere, hirur ilabeteko dirua ukan zuen ikas-lanetako behar zenarekin, baliatu baitzen galtza pare hautsaran arin baten, feldra xurizko xapel baten eta borobil urrearekilako zaharo baten ordaintzen.

Horren guziaren jabe izan zenean:

- “Ile mozte baten ideia ukana dut menturaz?”

Eta duda-muda handi batek hartu zuen.

Arnoux Anderearen etxera joanen zenez jakiteko, sos batzu airera bota zituen, hirur aldiz. Aldi oroz, zorionera eman zuten. Beraz, halabeharrak manatzen zuen. Bere burua zaldi karrosaz ereman-arazi zuen Choiseul karrigarano.

Mailaldea bizi-bizia igan zuen, xilintxa-soka thiratu; etzuen jo; aldixartzeko heinean gertatzen zen.

Gero inharrosi zuen, ukaldi ero batez, zeta gorrizko pumpula phizua. Xilintxeria bat joiten entzun zen, mailka eztituz, eta gero jeus etzen entzun. Federik izitu zen.

Beharria atheari lotu zuen; hatsik ez! Begia gako zilhorat eman zuen, eta etzituen ikusten aitzin-gambaran bi ihi puntta baizik, murruan, paperrezko loren artean. Azkenean, itzultzera zoan, berriz deliberatu zenean. Aldi huntan, ukaldi ttipi arin bat eman zuen. Athea ideki zen; eta, alhazean, ileak nahasiak, aurpegia gorribelztua eta itxura mokor, Arnoux bera agertu zen.

- “Ori! Zerk debru zabilta? Sar zaite!”

Sarr-arazi zuen, ez saloin ttipian edo gambaran, baina jateko salan, han ageri baitzen mahiaren gainean Xampanña botoila bat bi besoekin; eta, doinu bizi batez:

- “Zerbait baduzu eni galdatzeko, adixkidea?”

- “Ez! jeus! jeus!” ahopiatu zuen mutiko gazteak, bere ikustaldiarendako estakuru bat bilatuz.

Azkenean erran zuen haren berrien jakitera jina zela, uste baitzuen Alemanian zela, Hussonnet-ek erranaz.

- “Baterel!” egin zuen Arnoux-ek. “Zer xoriburua mutiko hori, guziaren hoin gaizki entzuteko!”

Zuen nahasmenaren gordetzeko, Federik bazabilan eskun eta ezker, salan. Kadera baten zangoa joz, gainean ezarria zen iguzkitako bat eror-arazi zuen; bolizko atxikigailua hautsi zizakon.

- “Jainkoal!” egin zuen, “zenbat dolu dutan Arnoux Anderearen iguzkitakoa hautsirik.”

Hitz hortan sal-erosleak burua goititu zuen eta irriño bitxi bat ukan. Federikek, hartaz mintzatzeko gertatzen zen aldiaz baliatuz, gaineratu zuen herabeki:

“Ez ote dut ikusi ahalko?”

Bere herrian zen, ama eriaren ondoan.

Etzen han izaite horren iraupenaz galde baten egitera menturatu. Galdegin zuen bakarrik Arnoux Anderearen herria zein zen.

- “Chartres! Ustegabetzen zitu?”

- “Ni? ez! zergatik? Ez den gutienik!”

Jeus-jeus etzuten, gero, erraiteko aurkitu. Arnoux, zigarreta bat eginik, mahi inguruan zabilan, ufaka. Federik, berotzekoaren ondoan zutik, murrer beha zagon, taulari, zolari: eta iduri loriagarri batzu bazabilzkion gogoan, begien aitzinean izaitekotz. Abiatu zen azkenean.

Berrikari zati bat, biribilean bildua, lurrean utzia zen, aitzin-gambaran. Arnoux-ek hartu zuen; eta, oinen punttan xutituz, xilintxan

sartu zuen, bere etzanaldiari, zionaz, jarraikitzeke. Gero, esku tinkatze bat emanez:

- "Etxezainari errozu, othoi, enizala etxean."

Eta athea bizkarrean hetsi zaukon, bortizki.

Federik berriz jautsi zen mailez mail. Lehen entsegu horren ondorio gabeak etsitzen zuen bertzetan gerta zaitekeenaz. Orduan hasi zen hirur ilabetetako enhoatze bat. Lanik batere ezpaitzuen, egintza gabeak bihotzmina azkartzen zaukon.

Orenak iragaiten zituen beha, bere galeria gainetik, ur-hegi hautsaran, lekuka ixurkinen hodiekin belztuen artean zoan ibaiari, latsarien zubixka bat bazterrari lotua, haur batzu han batzuetan jostatzen baitziren, lohian, uxakur baten main-arazten. Begiak, bazterrera utziz ezkerretik Andredona-Mariako harzuria eta hirur aireko zubi, bazoazkion beti Zubeletako kaiara, zuhatz zahar multzo batetara, Montereau-ko portuko ezkiak iduri. Jondoni-Jakobe dorrea, Hiriko Etxea, San-Gervais, San-Luis, Jondoni-Paulo elizak aitzinean goititzen ziren, hegaztegi elgarrekin nahasien erdian, - eta Uztaileko zutabeko Jainua distiran zagon sortaldean urrezko izar zabal bat bezala, bertze buruan Teilerietako gopoilak biribiltzen zuelarik, zerura, bere zama phizu urdina. Alderdi hortan, gibelera, zukeen izan behar Arnoux Anderearen etxeak.

Gambaran sartzen zen; gero, ohexkan etzanik, bere burua gogamen nahasi batera joaitera uzten zuen: liburu molde, eginara xede, gerorako olde. Azkenean, bere buruaz arintzeko, jalgitzen zen.

Igaiten zen, ustegabeen bezala, auzo latinari goiti, ohian hain harrabostuna, baina aro hartan hutsa, ikasleak bere familietara joanak baitziren. Ikastetxeren harresi handiek, ixilak luzaturik bezala, itxura oraino hitsagoa zuten; mota orotako azantz bakezko batzu entzuten ziren, hegal joiteak karioletan, mekanika baten gorronga, zapatagin baten mailua; eta jantzi saltzaleak, karriken erdian, begiaz leiho bakoitzari galdeka ari ziren, debaldetan. Ostatu hustuen zokoan, khondu-mahiko anderea aharrausika zagon pitxer beten artetik; egunkariak lerrokatuak zauden irakurtokietako mahian; lisatzalen landegian, oihal batzu ikaratzten ziren aire ephelaren ufetan. Noizean behin, gelditzen zen liburu saltzale baten hedagian; karrosa publiko batek, oin-bidea abantzu hunkiz jaustean, itzul-arazten zuen; eta, Luxembourg-aren aitzinera heldurik, etzoan urrunago.

Batzuetan, libertimendu baten aurkitzeko usteak erakhartzen zuen bazter-karriketara. Hoxtura heze batzuek usaintzen zituzten, arteka ilun batzuen ondotik, plaza handi huts batzuetara heltzen zen, argiaz lilluragarriak, hango eraikuntzek marrazkitzen zituztela lauzaden bazterrean itzal beltzeko dentelaki batzu. Baina orgak, saldegiak berriz hasten ziren, jendaldeak burxoratzen zuen, - oroz gainetik igandetan - , Bastillatik Madalenara, bazenean neurrigabeko uhain bat mundrunan goiti eta beheiti, errautsaren erdian, ethengabeko zurru-murruan; dena higundua gertatzen zen aurpegien arruntaz, solasen ezteusaz, askieste zozoaz bekoki izertuetan zariola! Bizkitartean, gizon horiek baino hobeki balio zuela jakiteak ezitzen zaukon haren ikusteak bazemon akidura.

Egun oroz bazoan *Edergintza industrial*-era; - eta Arnoux Anderea noiz itzuliko zen jakiteko, haren amaren berriak luze-luzeki galdegiten zituen. Arnoux-en ihardespena etzen aldatzen; “hobetzeak jarraitzen zuen,” emaztea ttipiarekin ondoko astean hor izanen zen. Gehiago zuen itzultzea berantzen, are gehiago zuen Federikek khexua erakusten, - hala nola nun Arnoux-ek, hoinbertze sendimenduz hunkia, ostatuan auhaltzera ereman baitzuen borzpasei aldiz.

Federikek, buruz-buruko luze horietan, ezagutu zuen margazki saltzaleak etzuela izpiritu handirik. Arnoux hozte hortaz ohar zaitekeen; eta aldi ona zen ere, hein batean, hark eginak zauzkon ikustaten ordaintzeko.

Gauzak biziki ontsa egin nahiz bada, jantzi berri guziak saldu zauzkon zaharki biltzale bati, lauretan hogei liberako dirutan; eta hau gelditzen zizazkon bertze ehunekin handiturik, Arnoux-en etxera ethorri zen auhaltzera eremaiteko. Regimbart han zen. “Trois-Frères-Provençaux”-etara joan ziren.

Herritarrak lehenik maripulisa ekhendu zuen, eta, bertze bien adeiaz segurrean, jan nahi zuena izkiriatu. Baina joan zaitekeen kozinara bera koziner nagusiari mintzatzera, satora jauts hango zoko guziak ezagutzen baitzituen, etxeko nagusia goiti jin-araz, “perrexilaldi bat” emaiten zaukola, etzen halere askietsia izan ez jatekoez, ez arnoez, ez zerbitzuaz! Jateko berri bakoitzan, botoila bertzelako bakoitzan, lehen ahamenean berean, lehen hurrupan, xardexka erortzera uzten zuen, edo basoa urrun igortzen; gero besoaren luzean ukhondoa mahiko oihalean ezarriz, bazion gehiago etzaitekeela auhal Parisen. Gero ukan zuen, mahi mutilarekin, solasaldi bat, “Provençaux”-etako mutil ohiez: “Zer bilakatu zen Anton? Eta Uxen izeneko bat? Eta Theodor, ttipia, beti beherean

zerbitzatzen zuena? Bazen ordu hartan orai ez bezalako janari ona, eta Burgoñako botoila batzu gehiago ikusiko eztiren bezalakoak!”

Ondotik, hiri bazterreko lurren balioa aipatu zen, Arnoux-en jukutria bat, ezin huts egin beharra. Anartean, intresen galtzen ari zen. Edozein preziotan saldu nahi etzuenaz geroz, Regimbart-ek zerbait aurkituko zaukon; eta bi jaun horiek hasi ziren, izkiriatzeko batekin, karkula egiten deserta bururatu arteo.

Kafearen hartzera joan ziren, Izokinaren arteka-estaliko ostatuxka batera, arte-barnean. Federik egon zen, zutik, ezin bururatuzko billartaldi batzuetan, ezin khondatuzko dragoak artetik edanez; - eta hor gelditu zen, gauerdirano, zergatik jakin gabe, lazakeriaz, zozokeriaz, bere maitasunaren aldeko edozein gertakariren esperanza nahasian.

Berriz noiz ikusiko zuen bada? Federik etsitzen ari zen. Baina arrats batez, hazaro azkenera, Arnoux-ek erran zaukon;

- “Emaztea atzo itzulia zata, badakizu!”

Biharamunean, bortz orenetan, haren etxean sartzen zen.

Goresmenetarik hasi zen, haren amaz, eritasuna hain larria ukana baitzuen.

- “Baina ez! Nork errana dautzu?”

- “Arnoux-ek!”

“Ha!” arin bat egin zuen, eta gaineratu hastapenean beldur serioesak ukanak zituela, orai ezeztatuak.

Sutondoan zagon, tapizeriazko jargia zabalean. Federik kanapean, xapela belhaunetan; eta solasaldia nekea izan zen, hark minuta oroz uzten zuen; berak etzuen arterik hatzemaiten han bere sendimenduen sartzeko. Baina, auzigintzaren ikasteaz deitoratzen ari zelarik, ihardetsi zuen: “Ba..., asmatzen dut..., egitekoak...!” aurpegia behehituz, bapatez gogoeta batzuek hartua.

Horien ezagutzeaz egarri zen, etzuen ere bertzerik gogoan. Ilunabarreko itzala inguruan iluntzen ari zizeen.

Jeiki zen, itzuli baten egitera joan behar baitzuen, eta berriz agertu balusazko buruko batekin, eta bizkarreko beltz bat, urtxinx larru hautsarana bazterretan. Lagunduko zuela eskaintzera menturatu zen.

Ilunean jeus etzen gehiago ageri; aroa hotza, eta lanho phizu batek, etxen aitzina gordez, airea urrintzen zuen. Federikek atsegin biziz iresten zuen; ezen sendi zuen soinekoaren uataren azpian haren besoaren beroa; eta bi botoinekilako esku-larru orkatzezkoan hartua zen eskuak, musuz estali nahiko zaukon esku ttipiak, haren mahunga zapatzen zuen.

Lauzada lerrakorraren gatik, apur bat zalantzatzen ziren; iduri zizakon bi-biak haizeaz leriatsuak bezala zirela, hedoi baten erdian.

Argien dirdirak, bazter-karrikan, lurrera jauts-arazi zuen. Aldia ona zen, lehiatzeko ordua. Richelieu karrikanoko ephea utzi zaukon bere buruari maitasunaren aithortzeko. Baina, abantzu berehala, porzelanazko saldegi baten aitzinean, anderea bapatez gelditu zen, erraiten zaukola:

- “Bagira, eskertzen zitut! Ortzegun arteo, eztea hala, ohian bezala?”

Auhariak berriz hasi ziren; eta gehiago zuen Arnoux Anderea ikusten, are gehiago zizazkon ahuldurak handitzen.

Emazte horri behatzeak zainetara emaiten zaukon, usain azkarregi baten erabiltzeak bezala. Hori jautsi zizakon gogoaren barnerano, eta ororen senditzeko ara bat abantzu bilakatu, izaiteko molde berri bat.

Gazaren argietan aurkitzen zituen ema-galduek, kantariak bere firurikak igorritz, zaldizkoek lauhazka zoazin zaldien gainean, burjesek oinez, neska arinek bere leihoetan, emazte guziek hura zaukoten gogoratzen, egite batzuetarik ala ezberdintasun azkar batzuetarik. So egiten zuen, saldegien aitzinean, kaxamiretara, denteletara eta harrieriazko zirdinetara, asmatzen zituela haren gerriaren inguruan ezarriak, papoan josiak, phindarrak eginez haren ile beltzetan. Emazte saltzalen hedatokian, loreak idekitzen ziren hark iragaitean hauta zitzen; zapataginen erakuslekuan, satinezko xapina ttipi bazterretan zisne itxurekilakoek baziduriten haren oinaren aiduru zaudela; karrika guziek haren etxera zeramaten: karrosak etzauden plazetan hara lasterrago joaiteko baizik; Paris hari arautzen zen, eta hiri handiak bere mintzo guziekin, joiten zuen, orkestra neurrigabeko batek bezala, haren inguruan.

Landaretegira zoalarik, palma-ondo baten ikusteak bazeraman urrungo herri batzuetara. Elgarrekin zoazin, gameluen bizkarrean, elefanten gaineko oihal etxolaren azpian, untzi bateko salan irla bildu urdinen artean, edo elgarren ondoan bi mando xilintxadunen gainean, belharrean zutabe hautsi batzuetan behaztopatzen zutela. Batzuetan, Louvre-an gelditzen zen margazki zahar batzuen aitzinean; eta maitasunean besarkatzen zuela iragan mendetarano, margazkietako jenden orde han ezartzen zuen., motto luze bat buruan, belhauriko othoitzean ari zen berunekilako berinalde baten gibelean. Gazteletako edo Flandresetako Herrandere, jarririk zagon, lephoko ixurkatu gogor

bat eta soinekoan balena gotor harro batzuekin. Gero jausten ari zen hargorritzko mailalde handi zenbaitetan, zenaturen erdian, auztruca lumazko pabellun baten azpian, zeta urredunezko zaia batean. Bertze aldi batzuez, amesten zuen zeta horizko galtza batzuekin, emategi bateko kuxinetan; - eta eder zen orok, izarren dirdiratzeak, musikako aire batzuek, erranaldi baten arak, itzuliak gogora ekhartzen baitzaukon bapatez bera ohartu gabe.

Hartaz bere maitalearen egiteko, entsegu oro debaldekoa izanen zela segur zen.

Arrats batez, Dittmer-ek, ethortzean, bekokian musu eman zaukon:

- “Onhartzten duzu, eztea hala, adixkiden eskubideaz?”

Federikek ahopiatu zuen:

- “Bazidurit guziak adixkideak girela?”

- “Ez guziak zaharrak!” ihardetsi zuen andereak.

Aitzinetik haren urruntzea zen, zeharka.

Zer egin, bertzela ere? Maite zuela erran? Gaizki hartuko zukeen; ala, suminduz, etxetik haizatuko! Oinaze guziak hautetsiko zauzkon, bada, haren ez ikusteko zori laztagarriari.

Pianixten antzeak gutiziatzen zituen, soldadoen zauriak. Eritasun lanjeros bat nahiko zuen, ustez eta horrela hunkiko zuen.

Gauza batek ustegabetzen zuen, Arnoux-ez bekaizti ez izaitea baitzen; eta etzezakeen anderea asma soinekoekin baizik, - hain zuen haren onestasanak jitezkoa iduri, eta setsua mixteriozko itzal batera baztertzen zuela.

Bizkitartean, harekin bizitzeko zoriona gogoan zagon, hari hi-ka mintzatzekoa, ile bazterreko xerrendetan luzaz eskuaren erabiltzekoa, edo lurrean egoitekoa, belhauriko, bi besoak haren gerri iguruan, haren begietan arima edanez! Behar izanen zen, hortako, halabeharra itzulikatu; eta, egintza ezinean, Jainkoa madarikatzen zuela eta bere burua beldurti izaiteaz salatzen, bere gutizian itzulika zabilan, presonerra bere zilo ilunean bezala. Betiereko herstura batek ithotzen zuen. Orenak eta orenak egoiten zen higitu gabe, edo, bapatez nigarrez hasten; eta, bere buruaren jabe egoiteko indarra ukana etzuen egun batez, Deslauriers-ek erran zaukon:

- “Baina, debrientxoa! zer duk?”

Federik zainetarik eri zen. Deslauriers-ek etzuen batere sinetsi. Horrelako oinazearen aitzinean, samurtasuna iratzartzen senditua zuen,

eta lagundu zuen. Hura bezalako gizon batek bere burua aurdikitzen utzi, zer zozokeria! Gaztaroan oraino ontsa, baina gero, dembora galtzea baita.

- “ Ene Federik andeatzen ari dautak! Nahi diat berriz lehengoa. Mutil, beti beretik! Laket nian! Hea, pipa bat erre ezak, ihizia! Apur bat inharros hadi, lastimatzen nauk!”

- “Egia,” erran zuen Federikek, “eroa nuk!”

Bulego mutila berriz hasi zen:

- “Ha! trobari zaharra, badakiat ba zerk hauen atsekabetzen! Bihotzñoak? Aithorrak! Bah! bat galdua, laur hatzemanak! Emazte bertutedunez bertzekilan konsolatzen duk! Nahuka ezagun-araz dezazkian, emazteak? Alhambrara jitea aski duk.” (Berrikitan ideki dantzoki bat zen, Champs-Élysées-etako gainean, eta bigarren sasoin aldiko errekaratu zena, horrelako etxetan goizegikoa zen aberaskeria batez.) “Jostatzen duk han diotenaz. Goazen! Hire adixkideak hartuko dituk, nahi baduk; Regimbart bera ere uzten deat!”

Federikek etzuen Herritarra gomiatu. Deslauriers egon zen Senecal gabe. Ereman zituzten bakarrik Hussonnet eta Cisy Dussardier-ekin; eta zaldi karrosa berak utzi zituen bortzak Alhambra-ko atean.

Mairu moldeko bi galeria bazoazin eskun eta ezker, bi aldetara berdin. Etxe baten harresiak, aitzinean, zola guzia hartzen zuen, eta laugarren alderdiak (ostatuarenak) berina margodun batzuekilako kalostra gotiko baten itxura zuen. Halako estali xinatar moldeko batek gerizatzen zuen musikariak ari ziren taulada; lurra inguruan mundrunaz estalia zen, eta Veneziako lanterna zutabetan lotu batzuek bazegiten, urrundik, kadrillalarien gainean, margo orotako korona bat. Zango batek bazadukan, han hemenka, harrizko aska bat, handik goiti jalgitzen baitzen ur xirripa mehe bat. Orstailetan ikusten ziren igelsuzko gizairudi batzu, Hebe ala Cupidonak, olio thinduaz dena liskan; eta bidexka ainitzek, ondartz biziki hori arthoski garbitu batez aphainduak, baratzea iduri-arazten zuten zen baino biziki zabalago.

Ikasle batzu bazabiltzan bere maitalekin; berrikeria erakusle batzu bazoazin handi eginez makila bat erhien artean, ikasle gazte batzu ari ziren “erregalia” zigarro pipatzen; donado zahar batzu orraze batez bizar thindatuari pherekan; baziren Angelesak, Errusoak, Hego-Amerikarrak, hirur Orientar “tarbuxak” buruan. Nexkato gazte arin andana horrara jina zen, gerizatzale baten aurkitzeko esperanza, maitale baten, urre baten, edo xoilki jantzako atsegineko; eta barneko urdin, gerezi-kolore,

edo ubekilako haien zaiak iragaiten eta higitzen ari ziren zurbeltz eta lila-ondoan artean. Abantzu gizon guziek laur-kantoin marratu oihalez jantziak ziren, batzu galtza zuriekin, arratsa hotxa izanik ere. Gaz mokoak phizten ari ziren.

Hussonnet-ek, modako berrikarrietan eta antzoki ttipietan zituen harremanen gatik, ainitz emazte ezagutzen zuen; musuak igortzen zezteen erhien punttaz, eta noiztenka, adixkideak utziz, bazoan haiekin mintzatzeraz.

Deslauriers ibilara horietaz bekaiztu zen. Hurbildu zizakon ozarki ile horidun handi bati, nankinez jantzia. Itxura mutiri batekin hari behatu ondoan, andereak erran zaukon: - “Ez! konfienxiarik ez, gizagaizo!” eta aztalak itzuli zituen.

Berriz hasi zen beltzaran lodi baten ondoan, eroa zaitekeena, ezen jauzi bat egin zuen lehenbiziko hitzean, mehatxatuz, jarraikitzen bazuen, hiriko zaintzaleak deituko zituela. Deslauriers irri egitera entseatu zen; gero, ikusiz emazte ttipi bat bazterrean jarria gauargi baten azpian, kontrajantza bat eskaini zaukon.

Musikariak, tauladan gora, zimino batzuen itxurekin, ari ziren kharraka eta ufa, oldarrean. Orkestraren buruzagiak, zutik, neurkada emaiten zuen beti jestu berdinean. Jendea metatua zen, jostatzen ari; xapelen xingola laxatuek hunkitzen zituzten gizonen lephokoak, botak sartzen ziren zaien azpira; guzia neurkadan jauzika ari zen; Deslauriers-ek bazadukan emazte ttipia berari tinkatuz, eta, kankanaren eroak hartua, bazabilan kadrillen artean jauzika mariuneta handi bat bezala. Cizy eta Dussardier ibilaldian jarraikitzen ziren; aitorenseme gaztea ari zen neskatoer behaka, baina, komisak sustaturik ere, etzizauen mintzatzeraz menturatzen, ustez eta bazen beti emazte horien etxean “gizon bat harmairuan gordea pixtolet batekin, jalgitzen dena banko paper batzuen izenpetzera bortxatzeko”.

Federiken ondora itzuli ziren. Deslauriers-ek jantza utzia zuen; eta guziak bazauden arratsaldea nola bururatuko zuten, Hussonnet-ek egin zuenean:

- “Ori! Amaegiko markesta!”

Emazte hits bat zen, sudurra goiti bihurtua, esku-larru mutur motz batzu ukondoeterano eta mateletan beihiti dilindan zauden ile kuxkula beltz batzuekin, bi zakur beharri bezala. Hussonnet-ek erran zaukon:

- “Behar ginukenan besta ttipi bat hire etxean egin, orienteko modako aphaixka bat? Entsea hadi hire adiskidetak zenbaitez floka baten biltzera zaldun frantzes hauendako! Baina, zerk hau trabatzen? Hire “hidalgoaren” beha hindagokea?”

Andaluztarra burua beheiti zagon; jakinez bere adixkiden aberaskeria gabeko ara ohikoak, edariak bere gain geldi zazkidion beldur zen. Azkenean, ahotik utzi zuen diru hitzean, Cizy-k eskaini zituen bortz “napoleon”, molsan zuen guzia; gauza deliberatua izan zen. Baina Federik jadanik etzen han.

Arnoux-en mintzoa entzuten zuela usta ukana zuen, emazte xapel bat ikusia, eta ondoko zuhazti ttipian barna laster joana zen.

Vatnaz Andereñoa bakarrik zen Arnoux-ekin.

- “Barkatu! trabatzen zituztet?”

- “Ez den gutienik!” egin zuen saltzaleak.

Federikek, haien solasaldiko azken hitzetarik, hartu zuen Alhambra-ra lasterrez jina zela Vatnaz Andereñoari egiteko lehiatu batez mintzatzera; eta Arnoux etzatekeen osoki segurtatua, ezen erran zaukon doinu urduritu batekin:

- “Ontsa segur zira?”

- “Biziki segur! maitatua zira! Ha! zer gizona!”

Muttur egin zaukon, bere ezpain lodiak aitzinatuz, gorriaren bortxaz abantzu odoletan. Baina begi batzu bazituen miragarriak, ñiñikan urrezko ttitta batzuekin ñabar, izpirituz, amodioz eta atseginkotasunez bete-beteak. Argitzen zaukoten, girisailu batzuek bezala, begitarte meheko kolore apur bat horia. Arnoux-ek iduri zuen haren eskergaitzak gozo zizazkola. Haren aldera ukurtu zen erranez:

- “Gixakoa zira, besarka nezazu!”

Andereak hartu zuen bi beharrietarik, eta bekokian musu eman zaukon.

Ordu hortan, jantzak gelditu ziren; eta, orkestrako buruzagiaren lekuan, agertu zen mutiko gazte eder bat, gizenegia eta gisua bezain zuri. Bazituen ile luze beltz batzu Krixtoaren moldean ezarriak, barneko motx bat balusa urdinez urrezko palma handi batzuekin, itxuraz hegazterren bat bezain urguluntzia eta indoilo bat bezain zozoa; eta jendea agurtua ukan zuenean, kantu ttipi bat hasi zuen. Baserritar bat zen hiri-nagusiko bidaia berak khondatzen zuena; kantariak hizkuntza normandiar beherekoa zerabilan, gizon mozkortuarena eginez; errepikak

(Ha! nik zenbat irri, zenbat irri,

Paris xirtxil huntan, hilbi!

loriazko putinka has-arazten zituen. Delmas, “kantari sendimendukoia”, trebegia zen hoztera uzteko. Gitarra bat eman-arazi zizakon, eta intziraz kantatu zuen *Albaniarsaren Anaia* izenburuko eresia bat.

Hitzek gogora-arazi zauzkoten Federiki philtzarrez jantzia zen gizonak kantatzen zituenak, untziaren damborren artean. Begiak lotzen zizazkon bera ohartu gabe aitzinean hedatua zen zaiaren behean. Bertsu bakoitzaren ondotik, bazen gelditze luze bat, - eta zuhazzetan haizearen hatsak bazuen uren harrabotsaren egite.

Vatnaz Andereñoa, esku batez baztertuz tauladaren ikustea gordetzen zauzkon zuhaxka baten adarrak, kantariari beha zagon, geldigeldia, sudur ziloak zabalduak, betileak hurbilduak, eta bozkario serio batean galdua bezala.

- “Ontsa ontsa!” erran zuen Arnoux-ek. “Badakusat zergatik ziren gaur Alhambran! Delmas laket duzu, maitea.”

Jeus etzuen aithortu nahi ukan.

- “Ha! zer herabea!”

Eta, Federik erakutsiz:

- “Hunen gatik dea? Hutsean zinitazke. Ezta mutiko ixilagorik!”

Bertzeak, adixkidearen bila, sartu ziren orstailezko salan. Hussonnet-ek aitzineratu zituen. Arnoux-ek egin zuen zigarro banakatze bat eta kompaniari hormakiak eskaini.

Vatnaz Andereñoa gorritua zen Dussardieri ohartuz. Berehala jeiki zen, eta hari eskua eskainiz:

- “Enauzu ezagutzen, Auguste jauna?”

- “Anderea nolaz ezagutzen duzu?” galdegin zuen Federikek.

- “Etxe berean egonak gira!” egin zuen.

Cizy-k mahungatik thirutzen zuen, athera ziren; eta joan orduko, Vatnaz Anderea hasi zen haren jitearen laudorioan. Gaineratu zuen ere bazuela *bihotzeko jeinua*.

Gero Delmas-ez mintzatu ziren, arrakasta ukan baitzezakeen, ihakinlari bezala, antzokian; eta eztabada bat jarraiki zen, hartan nahasi baitziren Shakespeare, (idazkien) Debekatzea, Estiloa, Dona-Martel-Atheko (antzokiko) irabaziak, Alexandre Dumas, Victor Hugo eta Dumersan. Arnoux-ek ezagutua zuen andere antzerlari aipatu andana bat; gizon gazteak ukurtzen ziren haren entzuteko. Baina elheak musikaren harramantzak estaltzen zauzkon; eta, kadrilla edo polka

bururatu orduko, guziak mahietara erortzen ziren, zerbitzaria deituz, irriz; garagarnoa eta limonada gazadunek joiten zuten orstailetan, emazte batzu ari ziren oiloak bezala garrasiaka; batzuetan, bi jaunek joka hasi nahi zuten; ohoin bat hartua izan zen.

Galupan, jantzariak bidexketara hedatu ziren.

Hatshantuak, erdi-irriz, begitartea gorritua, bazoazin zaiak eta soinekoen hegalak goititzen zituen zirimola batean; trombonen orroa azkarrago ari zen, neurkada lastertzen; erdi-aro moldeko kalostraren gibelean, zirtako batzu entzun ziren, leherkari batzu jauzi; iguzki batzu itzulika hasi ziren; Bengalako suek, harrori kolore, argitu zuten minuta batez baratze guzia; - eta, azken zirritan, jendetze guziak eman zuen hasperen handi bat.

Joan zen emeki. Kanoi bolbora lanho bat bazabilan airean. Federik eta Deslauriers urratsean zoazin, jendearen erdian, ikusgarri batek gelditu zituelarik: Martinon ari zen diru xehe itzul-arazten iguzkitakoen uzteko lekuan; eta bazuen lagun berrogei-ta-hamar bat urteko emazte bat, itsusia, handizki jantzia, eta giza-lerro dudako batekoa.

- “Putiko hori,” erran zuen Deslauriers-ek, “uste den baino gutiago lañoa da. Baina nun da bada Cisy?”

Dussardier-ek erakutsi zauen edandegia, han ikusi baitzuten aitoren semea, “puntxa” gatilu baten aitzinean, sahetsean xapel arrosa-kolore batekin.

Ordu berean Hussonnet, bortz minutaz ez han izanik, berriz agertu zen.

Nexkato gazte batek besoa atxikitzen zaukon, gora-gora deitzen zuela “ene gattu ttipia”.

- “Baina ez!” zion hark. “Ez! Ez jendearen aitzinean! Erradan “bizkondea”, izaitekotz! Horrek emaiten baitin zaldunaren itxura, Luis XIII-garren aroko eta bota guriekilako, hori laket baitzatan! Bai, lagun onak, lehenagoko bat! Eztea bada gixakoa?” Bidarra hartzen zaukon, - “Agurzkin jaun hau! Frantziako paren seme batzu ditun! hauekin banabilan embaxadore izendatua izaiteko!”

- “Zein eroa ziren!” egin zuen Vatnaz Andereñoak hasperen batean.

Deslauriers othoiztu zuen atherano ereman zezan.

Arnoux-ek ikusi zituen urruntzen, eta gero, Federiken aldera itzuliz:

“Zure gostuko lizatekea, Vatnaz hori? Bertzela ere, etzira argi gauza horietan? Uste dut zure maitasunak gordetzen dituzula?”

Federikek, zuzi-zuria bilakaturik, zin egin zuen etzuela jeus gordetzen.

- “Maitalerik ezpaizazu ezagutzen,” egin zuen Arnoux-ek.

Federikek ukan zuen, ephe batez, izen baten erraiteko gutizia, edozein. Baina ixtorioa *hari* kondatua izan zaitekeen. Ihardetsi zuen hala zela, maitalerik etzuela.

Saltzaleak hortan erasiatu zuen.

- “Gaur, aldia ona zen! Zergatik eztuzu bertzek bezala egin, guziak emazte batekin baitoatzi?”

- “Ontsa, eta zuk?” erran zuen Federikek, holako hisitzeaz khexatua.

- “Ha! ni! haurra! ezta berdin! Banoa neurearen ondora!”

Bere karrosa arinari hel egin zaukon, eta itzali zen.

Bi adixkideak joan ziren oinez. Iguzki haize batek ufatzen zuen. Etziren bat ez bertzea mintzo. Deslauriers-ek dolu zuen ez *distiraturik* egunkari baten buruzagiaren aitzinean, eta Federik bere bihotz-minean murgiltzen ari zen. Azkenean, jauzikeria hori zozoa iduritua zizakola erran zuen.

- “Hutsa nori? Hire Arnoux-endako utzi ezpaginituk!”

- “Bah! Egin ahal nukeen guzia osoki debaldekoa izanen zian!”

Baina bulego-mutilak bazituen bere teoriak. Gauzen ukaiteko, azkarki nahi ukaitea aski zen.

- “Bizkitartean, hihaurek, arestian...”

- “Ontsa irri egiten nian!” egin zuen Deslauriers-ek, aierua hortan geldi-araziz. “Joanen nuka emazte batzuekin eragozpenetan jartzera!”

Eta goraki hasi zen haien minttulinkekiez, xoxokeriez; hots, etzizazkon gustatzen.

- “Etzakala bada alegia egin!”

Deslauriers ixildu zen. Gero, bapatez:

- “Nahituka ehun libera jokatu iragaiten den lehenbizikoa *egiten* diatala?”

- “Bai! hartua!”

Iragan zen lehenbizikoa eskelari ezin itsusiago bat zen; eta halabeharraz etsitzen ari ziren, ikusi zutenean, Rivoli-ko karrikaren erdian, neskato handi bat, kartoin ttipi bat eskuan.

Deslauriers ondora joan zizakon arkuen azpian. Bapatean Teilerietako aldera bihurtu zuen, eta berehala Carrousel-go plaza hartu; so emaiten zuen eskun eta ezker. Zaldi-karrosa baten gibeletik laster egin zuen; Deslauriers-ek berriz hatzeman zuen. Bazoan haren ondoan, jestu errankor batzuekin hari mintzatuz. Azkenean besoa onhartu zaukon, eta jarraiki zuten kaien bazterrean. Gero, Gazteluttoaren heinean, hoge minutaz bederen, oin-bidean ibili ziren, aldiko laurdenaren egiten ari ziren bi itsasturi bezala. Baina, bapatez, Aldameneko zubia iragan zuten, Lore merkatua, Napoleon kaia. Federik sartu zen haien gibeletik. Deslauriers-ek entzun-arazi zaukon trabatuko zituela, eta hark bezala egitea aski zuela.

- “Zenbat gelditzen zaik oraino?”

- “Ehun soseko bi!”

- “Aski! Gau on!”

Federik hatzemana izan zen jukutria bat ondorio oneratzen ikusiz senditzen den ustegabeaz: “Nitaz trufatzen da,” egin zuen bere baitan. “Berriz igaiten baninz?” Deslauriers-ek uste ukanen zuen, behar bada, maitasun horren gatik hartaz jelos zela? “Bat ezpanu bezala, eta ehun aldiz arraroagoa, nobleagoa, azkarragoa!” Halako haserre batek bazeraman. Arnoux Anderearen athe aitzinera heldu zen.

Ageri ziren leihoetarik batek etzuen haren bizitegira emaiten. Bizkitartean, bazagon begiak etxe aitzinari lotuak, - uste ukana balu bezala, behatze hortaz, murrak zila zezazkeela. Orai, araez, atsedenean zatekeen, lore lokartu bat bezala geldirik, bere ile beltz ederrak buhurdiko denteletan, ezpainak erdi-hetsiak, burua beso baten gainean.

Arnoux-rena agertu zizakon. Urrundu zen, ikuspen hortarik ihes egiteko.

Deslauriers-en aholkua gogora jin zizakon; laztu zuen. Orduan, karriketan hara ibili zen.

Oinezko bat heldu zenean, haren begitartearen ikustera entseatzen zen. Noiztenka, argi arrai bat zangoen artetik bazoakon, lauzadan berean inguru laurden neurrigabeko bat eginez; eta gizon bat bapatez agertzen zen, itzalean, gauargi batekin saskia bizkarrean. Haizeak, gune batzuetan, inharrosten zuen khebide bateko tolakia; soinu batzu jeikitzen ziren urrundik, buruko burrumbari nahasten zizazkola, eta uste zuen entzuten zuela, haizean, kontrajantzen aire baten errepika bezalako bat. Urratsaren mugidak hazten zaukon xoramen hori; Konkordiako plazan gertatu zen.

Orduan, berriz orhoitu zen aitzineko neguko arrats hartaz, - haren etxetik jalgitzean, lehen aldikotz, gelditu behar ukan baitzuen, hanbateko lasterrean zaukon bihotzak joiten, esperanzen azpian hertsaturik. Guziak hilak ziren, orai!

Lanho ilun batzu bazoazin ilargiaren aitzinetik. Beha egon zizakon, eremuen handitasunaz ametsetan, biziaren miseriaz, ororen ezteusaz. Goiza agertu zen; hortzak klaskaka ari zizazkon; eta, erdi lokartua, lambroak bustia eta nigarrez ithoa, bazion bere baitan zergatik etzuen bereaz eginen. Hortako higitzea bera aski! Bekokiaren phizuak bazeraman, bazakusan bere gorputza uraren gainean joaiten; Federik behehitu zen. Bazterreko harresia zabalxko zen, eta akiduraz izan zen ezpazen gainetik jauztera entseatu.

Izaldura batek hartu zuen. Berriz joan zen bazter-karriketara eta alki baten gainera erori. Polizako gizon batzuek iratzarri zuten, “besta egina zuela” segurrean.

Urratsean abiatu zen. Baina, gose handi bat sendi baitzuen, eta ostatu guziak hetsiak, askaltzera joan zen Merkatu-Estalieta edandegi batera. Eta gero, oraino goizegi zela gogaturik, Hiriko-Etxearen inguruetan ibili zen, zortziak eta laurden arteo.

Deslauriers-ek aspaldi danik igorria zuen bere nexkatxa; eta bere mahian izkiriartzen ari zen, gambararen erdian. Laurak hirian, Cizy-ko Jauna ethorri zen.

Deslauriers-i esker, bezpera arratsean, andere batekin elhe egina zuen; eta karrosan eremana zuen ere, haren senarrarekin, etxeko alhazerano, han andereak aurki-leku bat emana baitzaukon. Hortik heldu zen. Haren izena etzen ezagutzen!

- “Zer nahi duzu egin ahal dezatan!” erran zuen Federikek.

Orduan aitoren-semea hasi zen hortaz eta hartaz; mintzatu zen Vatnaz Andereñoaz, Andaluziarraz, eta bertze guziez. Azkenean, itzulikatze ainitzekin, eman zuen bere ikustaldiaren helburua; bere adixkidearen zuhurtzian fidatuz, urrats batean lagun zezan galdegitera heldu zen, horren ondotik bere burua betikotz gizontzat baitzadukan; eta Federikek etzaukon eza eman. Ixtorioa erran zaukon Deslauriers-i, hari beriziki zoakonaz egia aipatu gabe.

Bulego-mutilak “orai biziki ontsa zoala” hatzeman zuen. Haren aholkuen errespetu horrek omore ona handitu zaukon.

Huni esker zuen bildua, lehenbiziko egunean berean, Clémence Daviou Andereñoa, urre brodaria soldadoeriaren hornimenduko, izan

zaitekeen jende eztiene, eta ihi bat bezain lerdene, begi urdin handi batzuekin, beti baldituak. Bulego-mutila haren xintxoaz baliatzen zen, “xingola” ukana zuela hari sinets-arazterano; maripulis gorri batez aphaintzen zuen, buruz-buru zirenetan, baina gabe zen jendearen aitzinean, bere nagusiaren ez ttipitzeko, zionaz. Bertzela, hein batean atxikitzen zuen, bere burua “paxa” bat bezala pherekatzera uzten, eta “populuko neska” zeritzon, irri solasez bezala. Hark ekhartzen zauzkon aldi oroz briolet floka batzu. Federikek horrelako maitasunik etzuen nahiko.

Bizkitartean, bi adixkideak atheratzen zirenean, besoz beso, Pinson-en edo Barillot-en gabinetera joiteko, bihotzmin bitxi bat sendi zuen. Federikek etzakien, urte batez, ortzegun oroz, zenbat oinazkatua zuen Deslauriers, azkazalen ikuzten ari zelarik, Choiseul karrikara auhariz joan baino lehen!

Arrats batez, bere galeriatik, biak joaiten ikusi berriak zituelarik, ohartu zizakon urrundik Hussonnet-i Arcole-ko zubian. Ibiltaria hasi zizakon kheinuka dei egiten, eta, Federikek bere bortz estaiak jautsirik:

- “Huna gauza: heldu den ebiakoitzean da, 24-an, Arnoux Anderearen besta.”

- “Nola, izena Maria duenaz geroz?”

- “Anjela ere, bego! Besta haien baserriko etxean eginen da, Saint-Cloud-en; zuri horren jakin-arazteko egitekoa dut. Karrosa bat aurkituko duzu hirur orenetan, Berrikarian! Horrela beraz! Barkatu zu makurturik. Baina hanbat egiteko badut!”

Federikek etzituen aztalak itzuliak athezainak eskutitz bat eman zaukolarik:

“Dambreuse Jaun-Anderek othoizten dute F. Moreau Jauna auhaltzera ethor dakidien etxera heldu den ebiakoitz 24-an. - Ihardespena othoi.”

- “Berantegi,” egin zuen bere baitan.

Hala ere, eskutitza erakutsi zaukon Deslauriers-i, hunek egin baitzuen:

- “Ha! azkenean! Baina eztuk askietsia iduri. Zergatik?”

Federikek, apur bat zalantzan egonik, erran zuen bazuela egun bereko bertze gomit bat.

- “Egidak Choiseul karrikaren haratago igortzeko atsegina. Zozokeriarik ez! Hire izenean ihardetsiko diat, trabatua bahiz.”

Eta bulego mutilak onhartzen zela izkiriatu zuen, hirugarren personan.

Mundua nehoiz ez ikusia ukanez bere gutzieren sukarraren gibeletik baizik, berezitasunez egina bezala asmatzen zuen, matematikazko arau batzuetan bizi zena. Hiriko auhari batek, leku onean den gizon baten aurkitzeak, emazte pollit baten irriñoak, batzuek bertzeak emaiten zituzten egintza batzuen bidez, ondorio ezin handiagoak ukan zezazketen. Saloin paristar batzu gauza den bezala hartzen eta balioz ehun aldiz handitua itzultzen duten mekanika hek bezalakoak ziren. Uste zuen emazte arinak embaxadorer aholku emaile zirela, ezkontza aberatsak jukutrien bidez ukaiten, galerianoek jeinua bazutela, indardunen eskupean halabeharra hezten zela. Azkenik Dambreuse-tarrekin ibiltzea hain baliagarria zadukan, eta hain ontsa mintzatu zen, nun Federikek ezpaitzakien gehiago zer egin.

Etzuen hala ere gutiago, Arnoux Anderearen besta zenaz geroz, hari eskaintza bat egin behar; gogoratu zizakon, nolaz ez, iguzkitako bat, bere malestrukeriaren ordaintzeko. Hala, bat aurkitu zuen “*marquise*” delakoetarik zeta urtxo-papo kolorezkoa, boli zizelkatuzko atxikigailu ttipi batekilakoa, eta Xinatik bazetorrena. Baina hiruretan hogeita-hamabortz libera balio zuen eta berak sos bat ez, heldu zen hirur ilabetekoaren gainera biziz aitzina. Bizkitartean, nahi zuen, baitezpada, eta, hori higin bazizakon ere, Deslauriers-en gana jo zuen.

Deslauriers-ek ihardetsi zaukon dirurik etzuela.

- “Behar diat,” erran zuen Federikek, “behar handi!”

Eta, bertzeak desenkusa bera errepikaturik, haserretu zen.

- “Egiten ahal hukek, batzuetan...”

- “Zer bada?”

- “Jeus ez!”

Bulego mutilak entzuna zuen. Delako dirua hartu zuen bere erresalbutik, eta, sosez sos emana ukan zuenean:

- “Ezteat paper-orderik eskatzen, hire bizkar bizi nukanaz geroz!”

Federik lephora jauzi zizakon, mila sendimenduzko aithormenekin. Deslauriers hotzik gelditu zen. Gero, biharamunean, iguzkitakoa pianoaren gainean ikusiz:

- “Ha! hortako zian!”

- “Igorriko diat behar bada,” erran zuen kuraiarik gabe Federikek.

Halabeharrak lagundu zuen, ezen ukan zuen, arrastirian, hitz bat beltzez inguratua, hartan Dambreuse Anderea, jakin-araziz osaba bat

galdu berria zuela, desenkusutzen baitzen haren ezagutzeko atseginaren berantagora uzteaz.

Bi orenetako Berrikarira ethorri zen. Hura igurikatu orde bere karrosan eremaiteko, Arnoux bezperan joana zen, aire handiaz zuen beharrari ezin gehiago ihardokiz.

Urte oroz, lehenbiziko orstatzean, egun andana batez, goizetik lekuak husten zituen, ibilaldi luze batzu elgetan zehar egiten, esnea laboretxetan edaten, uztez galdeak egiten, laborarisekin jostatzen, eta ensalada ondo batzu bere oihalean ekhartzen. Azkenik, amets zahar bat gauzatuz, baserriko etxe bat eresia zuen.

Federik mutilari mintzo zizakon bitartean, Vatnaz Andereñoa ethorri zen, eta Arnoux ez ikusiz nahigabetua izan. Bi egunez han egonen zen, behar bada. Mutilak aholku eman zaukon “joan zadin”; ezin zuen; eskutitz bat izkiria zezan; eskutitza galdua izan zadin beldur zen. Federikek eskaini zuen berak eremanen zuela. Bat egin zuen lasterrez, eta Federik othoi-othoiztu lekukorik gabe eman zezon.

Berrogei minuta berantago, Saint-Cloud-en lurreratzen zen.

Etxea, zubitik ehun urratsez urrunago, mendixkaren goratasun erditan zen. Baratzeko harresiak bi ezki lerroez gordeak ziren, eta soropil zabal bat jausten zen ibaiaren ondorano. Burdinazko sareko athea idekia, Federik sartu zen.

Arnoux, belarrean hedatua, gatu ttipi sabeltara batekin jostatzen ari zen. Libertimendu horrek ezin gehiago hartzen zuela iduri zuen. Vatnaz Andereñoaren eskutitzak bere baitarik athera zuen.

- “Debrua, debrua! nardagarri da! arrazoin du; joan behar dut.”

Gero, mezua sakelan barna sarturik, atsegin ukan zuen bere etxaldearen erakusten. Guzia egin zuen, zaltegia, heia, sukaldea. Saloina eskun zen, eta, Paris aldera, bazeman ziri-sarezko atherbe batera, aihenlore batez estalia. Baina, haien buruen gainean, charamela bat hasi zen; Arnoux Anderea, ustez eta bakarrik, kantatzen jostatzen ari zen, notak zurubika, xaramelaka, harpaldika eginez. Baziren batzu luzeak dilindan zaudela iduri zutenak; batzu uharka erortzen zirenak, turrusta bateko xortañoak bezala; eta haren mintzoak, leiho-saretik jalgiz, ixil betea mozten zuen, eta zero urdinera baziragan.

Gelditu zen bapatez, Oudry Jaun-Andereak, bi auzo, ethorri zirenean.

Gero bera agertu zen athe-harri gainean; eta, mailer beheiti heldu zelarik, ikusi zuen haren oina. Oski ttipi gainean ideki batzu bazituen,

larru hori-ilunezkoak, trebesean hirur mihiekin, horrek urrezko sare bat baitzegion galtzerdien gainean.

Gomitak ethorri ziren. Jn. Lefaucheur abokata salbu, ortzegunetakoak ziren. Bakoitzak emaitza bat ekharria zuen: Dittmer-ek lephoko siriari bat, Rosenwald-ek aire bilduma bat, Burrieu-k margazki bat, Sombaz-ek bere buruaren marrazki trufaria, eta Pellerin-ek zurikatzezko marrazki bat, halako hil-dantza bat erakusten zuena, ameskeria laztagarri bat, eginaraz artekoa. Hussonnet edozein emaitza egitetik begiratua zen.

Federik bertzen ondotik egon zen berearen eskaintzeko.

Andereak ainitz eskertu zuen. Orduan, erran zuen:

- “Baina... abantzu zorra da! Hain niz gaitzitua izana?”

- “Zertaz bada?” egin zuen. “Eztut ikusten!”

- “Mahira!” egin zuen Arnoux-ek, Federik besotik hartuz; gero, beharria: “Etzira biziki trebea, zu!”

Jeus etzen jateko sala bezain gozagarri, musker arin batez margoztaturik. Buru batean, harrizko jainkosa batek oin-erhia bustitzen zuen maxkor batean. Leiho idekietarik, baratze osoa ikusten zen, sorotxa luzearekin Eskoziako leher zahartu hirur laurdenetan murriztu bat sahetsean; lore multzo batzuek biribiltzen zuten guneka; eta, ibaiaren haraindian, hedatzen ziren, inguru-erdi zabal batean, Boulogne-ko oihana, Neuilly, Sèvres, Meudon. Burdin-sarearen aitzinean, untzixka beladun bat bazabilan luetan.

Lehenik begietan zen ikuspen hortaz mintzatu ziren, gero orotako eskualdeaz; eta eztabadak hasten ari ziren, Arnoux-ek eman zaukonean mutilari karrosa amerikanoaren uztartzeko manua laurak eta erdi hirian. Diruzainaren eskutitz batek deitzen zuen.

- “Nahi duzua zurekin itzul nadin?” erran zuen Arnoux Andereak.

- “Baina segurki!” eta, gur eder bat eginez: “Ontsa badakizu, Anderea, zu gabe ezin daitekeela bizi!”

Guziek goretsi zuten hoin senar onaren ukaiteaz.

- “Ha! ezpainiz bakarrik!” ihardetsi zuen eztiki, bere nexka ttipia erakutsiz.

Gero, solasaldia berriz margolaritzaz hasirik, Ruysdael batez mintzatu zen, Arnoux-ek baitzuen hartarik gaitzeko diruaren ukaiteko ustea, eta Pellerin-ek galdegin zaukon Londres-ko Saul Mathias aipatua jina zizakola, aitzineko ilabetean, hogeita hirur mila liberaren eskaintzera egia zenez.

- “Jeus ez egiagorik!” eta, Federiken gana itzuliz: “Joan den egunean Alhambra-n banabilan jaun hura bera da, ontsa nik nahi gabeen segur izan zaite, ezpaitira Angeles horiek jostagarriak!”

Federikek, Vatnaz Andereñoaren eskutitzean emazte ixtorio zenbait bazatekeelako aieruan, miretsia zuen Arnoux jaunak zuen errextasuna ihes egiteko bide oneskarri baten hatzemaiteko; baina gezur berri horrek, osoki debaldekoak, begiak handi-handia idek-arazi zauzkon.

Saltzaleak gaineratu zuen, itxura laño batekin:

- “Nola deritzozu bada, mutiko gazte handi horri, zure adixkidea?”

- “Deslauriers,” egin zuen bizi-bizia Federikek.

- “Ha! zinez? Baina eztu bertzeak, garraioetako komisak, bezain mutiko gixako baten itxura.”

Federikek madarikatu zuen Deslauriers. Andereak usteko zuen jende arruntekin bazabilala.

Ondotik, hiri nagusiaren edertzeko lanez ari izan ziren, karrika handi berriez, eta Oudry zaharra jin zen, diru abantaileko jokari handienetan, Dambreuse Jaunaren aipatzera.

Federikek, bere buruaren aitzinatzeko aldiari lotuz, erran zuen ezagutzen zuela. Baina Pellerin abiatu zen saltzalen kontrako “katilinari” batean: ezko-argi saltze ala diru saltze, etzuen ezberdintasunik ikusten. Gero, Rosenwald eta Burrieu porzellanaz solastatu ziren; Arnoux baratze lanez mintzo zen Oudry Anderearekin; Sombaz, molde zaharreko puttikoa, haren senarrari trufan jostatzen zen; Oudry deitzen zuen, komedialaria bezala, bazion Oudry zakurren margotzale hartarik jausten zatekeela, ihizien ttonttorra ageri baitzizakon bekokian. Nahi ukan zaukon ere burhezurra hunkitu, bertzeak etzuen nahi bere perrukaren gatik; eta deserta bururatu zen irri karkailetan.

Kafea hartua izan zenean, ezkien azpian, pipatuz, eta baratzean itzuli batzu eginak, joan ziren ibai bazterrean ibiltzera.

Kompainia gelditu zen arraintzari baten aitzinean, aingira garbitzen ari baitzen, arrain saldegi batean. Martha Andereñoak ikusi nahi ukan zituen. Bere untzia belarrean hustu zuen; eta nexka ttipia belhauniko emaiten zen haien hatzemaiteko, atseginez irri eginez, eta izituz oihuka. Guziak galduak izan ziren, Arnoux-ek ordaindu zituen.

Ukan zuen, gero, untzixkan ibilaldi baten egiteko gogoia.

Zeru alderdi bat histen ari zen, bertze aldetik, margo gorri zabal bat zeruan hedatzen ari zelarik eta gorri-ilunduagoa mendixken bizkarrean, osoki beltz bilakatuak. Arnoux Anderea harri gotor baten gainean jarririk zagon, sutea bezalako argi hori bat gibelean. Bertze jendeak bazabiltzan, han edo hemen; Hussonnet, ur-bazter behean, harri batzu ur gainean jauz-araziz ari zen.

Arnoux berriz ethorri zen, xalupa zahar bat gibeletik, han oharpen zuhurrenak eginik ere, gomitak metatu baitzituen. Hondatzera zoan; lurreratu behar izan zen.

Ezko-argiak jadanik phiztuak ziren saloian, guzia oihal persiarrez estalia, kixtalezko girisailu batzuekin murruean ondoan. Oudrysa eztiki lokartzen ari zen jargia batean, eta bertzeak Lefaucheur Jaunari beha zauden, abokatgoan aipatuenez hitzaldi egiten ari. Arnoux Anderea bakarrik zen leihoaren ondoan, Federik haren gana joan zen.

Erraiten ari zenaz mintzatu ziren. Andereak hitzaldilariak miresten zituen; hark, idazlen aipamena hautesten. Baina jendaldea nork berak zuzen-zuzena hunkituz, egin zuen berriz, atsegin azkarragoa senditzen zatekeen, ikusiz haien arimara iragan-arazten direla berean dituen sendimendu guziak. Irabazaldi horiek guti zuten Federik gutiziatzen, handi-nahirik ezpaitzuen.

- “Ha! zergatik?” erran zuen. “Apur bat behar da!”

Bat bertzearen ondoan ziren, xutik, leiho-artean. Gaua, haien aitzinean, hedatua zen neurrigabeko oihal bat bezala, zilharrez titaturik. Lehenbiziko aldia zen etzirela balio gabeko gauzez mintzo. Heldu zen ere haren hastioen eta gostuen jakitera: usain on batzuek gaizki uzten zuten, ixtorioko liburueta ixuria zen, ametsetan bazuen sinestea.

Sendimenduzko gertaldien gaia hasi zuen. Andereak urriki zituen maitasun azkarregiaren ondorio gaixtoak, baina elhe-zurizko itsuskeriez sumindua zen; eta gogo zuzentasun hori hain ontsa zoakon begitartearen eder arautuarekin non hunen menean zela iduri baitzuen.

Erdi-irri bat egiten zuen batzuetan, begiak Federiken gainean utziz, minuta batez. Orduan, haren soek arima zilatzen zaukotela senditzen zuen, uraren zolarano jausten diren iguzki arrai handiek bezala. Maite zuen gibel-asmurik gabe, ordaindua izaiteko usterik gabe, osotasunean; eta, olde ixil horietan, esker onezko sendimendu batzuen idurikoak, nahi ukanen zaukon musu eli batez bekokia estali. Bizkitartean, barneko hats batek bazeraman bere baitarik kampa

bezala; bere buruaren sakrifikatzeko nahikaria bat zen, han berean hari emana izaiteko behar bat, eta are azkarragoa nun ezin ase baitzezakeen.

Etzen bertzeekin batean joan, Hussonnet ere ez. Karrosan itzuli behar zuten; eta karrosa amerikanoa aiduru zagon athe-harriaren behean, Arnoux baratzerara jautsi zelarik, arrosa batzuen biltzeko. Gero, floka hari batez estekaturik, ziriak ezpaitziren berdin, sakelan mihatu zuen, paperrez betea, bat hautatu gabe hartu, hek hartaz inguratu, bere lana ixkilima handi batez azkartu eta emazteari eskaini, halako sendimendu batekin.

- “Oizu, maitea, ahatzirik desenkusa nezazu!”

Baina oihu ttipi bat egin zuen; ixkilimak, gaizki ezarririk, zauritua zuen, eta berriz bere gambarara igan zen. Oren laurden bat hurbil igurikatu zen. Agertu zen azkenean, Martha hartu zuen, eta bere burua karrosaren barnera bota.

- “Eta zure floka?” erran zuen Arnoux-ek.

- “Ez! Ez! eztu balio!”

Federikek laster egin zuen bila joaiteko; oihu egin zaukon:

- “Eztut nahi!”

Baina berehala ekharri zuen, erranez bere estalgiarekin ezarria zuela, loreak lurtean aurkituak baitzituen. Andereak sartu zituen larruzko taulierrean barna, jar-lekuaren ondoan, eta abiatu ziren.

Federik, haren ondoan jarria, ohartu zen lazteko ikharan zela. Gero, zubia iragana izan zelarik, Arnoux ezker itzultzen ari zen:

- “Baina ez! huts egiten duzu! horrat, eskun!”

Haserretua iduri zuen; orok trabatzen zuen. Azkenean, Marthak begiak hetsiak ukanik, floka hartu zuen, eta athexkatik egotzi, gero Federiken besoa hartu, kheinu bat eginez, bertze eskuaz, etzezan behin ere aipa.

Ondotik, mokanesa ezpainetan ezarri zuen, eta etzen gehiago higitu.

Bertze biak, jar-lekuan, imprimeriaz mintzo ziren, abonatuez. Arnoux, oharpenik gabe bidatzen baitzuen, galdu zen Boulogne-ko oihanaren erdian. Orduan, bidexka batzuetan barna sartu ziren. Zaldia urratsean zoan; zuhatzen adarrek estalgiaren hunkitzera egiten zuten. Federikek etzauzkon Arnoux Andereari begiak baizik ikusten, ilunean; Martha haren gainera luzera etzana zen, eta Federikek bazadukon burua.

- “Akitzen zitu!” erran zuen amak.

Ihardetsi zuen:

- “Ez! oi! ez!”

Errauts zirimola batzu emeki airatzen ziren; Auteuil-en gaindi zoazin; etxe guziak hetsiak ziren; gauargi batek, han hemenka, argitzen zuen harresi baten izkina, gero ilunbetan sartzen zen; aldi batez, nigarrez ari zela ohartu zen.

Urrikia zena? gutizia bat? zer bada? Bihotzmin hori, ezagutzen etzuen, bere baitako gauza bat bezala sendi zuen; orai, bazen bien artean lotura berri bat, halako idetasun bat; erran zaukon, ahal ukan zuen mintzo balakarienarekin:

- “Bihotzmina baduzu?”

- “Bai, apur bat,” egin zuen.

Karrosa bazoan, eta ahuntzorsto eta ziringek gaintitzen zituzten baratzetako hesiak, gauan usain gurigarriak ufaka igortzen. Zaiaren izur andanak estaltzen zauzkon oinak. Bazidurikon haren nortasun osoarekin harremanetan zela bien artean hedatua zen haur gorputz horren bidez. Nexka ttipiaren gana behehitu zen, eta, haren ile beltxaran pollitak baztertuz, musu eman zaukon bekokian, eztiki.

- “Bihotz ona duzu!” erran zuen Arnoux Andereak.

- “Zergatik?”

- “Haurrak maite baitituzu.”

- “Ez oro!”

Jeus etzuen gaineratu, baina esku ezkerre haren aldera hedatu zuen eta zabal-zabaldurik utzi, ustez eta hark bezala eginen zuen, behar bada, eta harena aurkituko. Gero ahalgetu zen, eta bildu zuen.

Laster lauzadara heldu ziren. Karrosa bazoan lasterrago, gaza mokoak gehitu ziren, Paris zen. Hussonnet-ek, Muble-Zaindegiaren aitzinean, alkitik jauzi egin zuen. Federikek igurikatu zuen, jausteko, korralera helduak izan zaiten; gero goaitan eman zen Choiseul-go karrikaren izkinan, eta ikusi zuen Arnoux bazoala emeki karrika handien aldera.

Biharamunean berean, lanean hasi zen bere indar guziez.

Bere burua bazakusan asisetako auzitegi batean, neguko arrats batez, auzi-mintzaldiak bururatu eta, zinegotziak hitsik daudelarik eta jende hats-hantuak auzi-salako sahetsak krask-arazten dituelarik, bere phorogantza guzien biltzen, berri batzuen aurkitzen eta erranaldi bakoitzean, hitz bakoitzean, jestu bakoitzean sendi zuela gillotinaren marraza, gibeletik dilindan, goititzen ari; gero, Gambarako mintzalekuan, jendalde oso baten salbamendua ezpainetan dakarren hitzlari, estilo

itxuraz mintza-arazten zituenek ziotenen azpian etsaiak ithoz, ihardespen batekin lehertuz, mintzoan ortzantz eta musikazko doinu batzuekin, trufan, hunkigarri, haserre, loriagarri. Hura hor izanen zen, nunbait, bertzen artean, zorion bizizko nigarrak gordez betaitzineko oihalaren gibelean; gero elgarretaratuko ziren: - eta etsipenek, gaitzerranek eta laidoek etzuten hunkiko, hark erraiten baldin bazaukon: - “Ha! hori eder da!” bere esku arinez bekokia pherekatuz.

Iduri horiek ximixtak egiten zauzkoten, itsas-argi batzuek bezala, bere biziko itsas-hertzean. Gogoia, sustatua, zalutu zizakon eta azkartu. Agorrilerano, hetsirik egon zen, eta azken etsaminan onhartua izan.

Deslauriers, hanbat neke ukana zuelarik berriz ere hari bigarrenaren errepikatzen negil ondarrerano eta otsailean hirugarrenaren, suhartze hortaz ustegabetzen zen. Orduan, lehengo esperanzak berriz itzuli ziren. Hamar urteren buruko, Federikek behar zuen deputatu izan; hamabortz minutetako, zergatik ez? Laster hunkiko zuen ondorekoarekin, egin zezakeen, lehenik, berrikari bat; hastapena zatekeen; gerokoa gero. Deslauriers-ek bere aldetik, bazuen beti zuzenbideko Eskolan katedera baten ukaiteko nahikaria; eta doktoragoko thesisa egin zuen molde hain ohargarrian nun ukan-arazi baitzauzkoten erakaslen goresmenak.

Federikek berea egin zuen hirur egun berantago. Lanartetara abiatu baino lehen, gogoratu zizakon aphairuxka baten egitea, ebiakoitzetako bilkuren hesteko.

Han alai agertu zen. Arnoux Anderea orai bere amaren ondoan zen, Chartres-en. Baina laster berriz ikusiko zuen, eta haren maitale izaitera helduko zen.

Deslauriers-ek, egun hartan berean Orsay-ko mintzategian onhartua, hitzaldi bat egina zuen esku zarta ainitzekin. Nahiz jan-edale urria, mozkortu zen, eta desertean erran zaukon Dussardier-i:

- “Zuzena hiz, hi! Aberats izanen nizanean, ene etxe-gizon ezarriko haut.”

Guziak zorionean ziren; Cisy-k etzuen Dretxoa bururatuko; Martinon bere iragan-aldiari jarraikiko zizakon probinzian, han ordezkari izendatua izanen baitzen; Pellerin margazki handi baten egiteari ari zen *Iraultzako Jainua* itxuratuko zuena; Hussonnet-ek, ondoko astean, irakurri behar zaukon Atsedendietako buruzagiari antzerti baten laburpena, eta ondorio onaz etzen dudan:

- “Ezen dramaren egitura, eni emaiten zata! Sendimenduetan ezaguna izaiteko, aski ibilia dut neure burua; izpiritu jokoetako aldiz, ofizioa hori dut!”

Jauzi bat egin zuen, bi eskuen gainera erori zen, eta zenbait demboraz mahiaren inguruan ibili, zangoak airean.

Haurkeria horrek etzuen Senecal alegeratu. Bere ikastetxetik haizatu berria zen, aitoren- seme baten semea jorik. Beharra handitzen ari eta, gizarte ordenuari jazartzen zen, aberatsak madarikatuz; eta Regimbart-en golkora ixuri zen, hau gero eta gehiago lilluraz gabetua, bihotz mindua, nardatua. Herritarra itzultzen ari zen, orai, dirutzeko gaietara, eta gobernuko “Camarilla” salatzen zuen Aljerian miliunen galtzeaz.

Ezpaitzaitekeen Alexandre edandegian ephe bat egon gabe lokhar, hameketako itzali zen. Bertzeak joan ziren berantago; eta Federik-ek, Hussonnet-i goraintzien egitean, ikasi zuen Arnoux Anderea hirira itzulia zatekeela.

Hedoi arrosa-kolore batzu, oihal baten moldean, luzatzen ziren hegaztegien haraindian; saldegietako aitzin-oihalen goititzen hasten ari ziren; ureztatzeko orgaxka batzuek euri bat ixurtzen zuten errautsaren gainera, eta ustegabeko hoxtura bat nahasten zen ostatuetako usainekin, athe idekietarik ikustera uzten zituztela, zilharrerria eta urrierien artean, lore azauak miraila gora batzuetan errepikatzen. Jendea bazabilan emeki. Gizon multzo batzu baziren oinbidearen erdian elheka; eta emazte batzu bazoazin, begietan guri batekin eta larruan kameliaren iduriko zerbaitekin bero handietako akidurak emazten haragier emaiten dauena. Ezin handiagoko zerbaitek bazarion, etxeak inguratuz. Ehoiz etzizakon Paris hoin ederra iduritua. Etzakusan, ethorkizunean, ethengabeko urte lerro bat baizik guziak maitasunez beteak.

Dona-Marte-Atheko antzokiaren aitzinean gelditu zen iragarkiari beha; eta, lan gabez, sartze bat hartu zuen.

Ameskeria zahar bat jokutzen ari zen. Ikusleak bekan ziren; gain-gaineko leihoxketan, egunaren argia laur kantoineko urdin batzuetan hausten zen, barandako argiek lerro hori bakar bat bazegitelarik. Tauladak erakusten zuen esklabo merkatu bat Pekinen, xilintxa, atabal, sultana, bonet xut eta hitz-jokoekin. Gero, oihala jautsirik, biltokian ibili zen, bakarrik, eta karrika handian, miretsi zuen karrosa estalgidun handi musker bat, bi zaldi zuri aitzinean, galtza laburrekilako karrosazain batek bazaduzkanak.

Bere lekura zoan, galerian, taulada aitzineko lehen egongian, andere bat eta jaun bat sartu zirenean. Senarrak bazuen begitarte hits bat, inguruan bizar lerro hautsarana, aitzindari arroxattoa, embaxadetakoer emaiten zeen itxura hotz-hormatu harekin.

Emazteak, hogeitaz bederen gazteagoa, ez handi ez ttipia, ez itsusi ez ederra, ile horiak angeles aran bihurtuak zituen, papo zabalduarekilako zaia bat, eta aireztatzeko handi bat dentela beltzekoa. Lerro hortako jende batzu urtaro hortan ikusgarri batera ethorriak izaiteko, halabehar zenbait asmatu behar zen, edo arratsaldearen buruz buru eremaitiaz aspertzea. Andereak aireztatzekoa hortzkatzen zuen, eta jauna aharrausika ari zen. Federikek etzezakeen gogora begitarte hori nun ikusia zuen.

Ondoko geldi-artean, barnebidetatean hara zoalarik, biak aurkitu zituen; egin zuen agurra bezalakoa, Dambreuse Jauna, ezagutzen zuela, ethorri zizakon eta desenkusatu, berehala, axolagabe ezin barkatu batzuen gatik. Bulego mutilaren aholkuz igorri ikustaldiko karta ainitzen aipu bat zen. Baina urteak nahasten zituen, ustez Federik Zuzenbidetateko bigarrenen zela. Gero baserrira joaitiaz gutiziatu zuen. Atsedentzako beharra ukanen zuen, baina egitekoek basadukaten Parisen.

Dambreuse Andereak, haren besoari lotua, burua behekitzen zuen, arinki; eta begitarteko goxo izpiritudunak kontra egiten zaukon arestian zuen itxura trixtatuari.

- “Alta libertimendu ederrak aurkitzen dira!” erran zuen, senarraren azken hitzetan. “Ikusgarri hori zoin zozoa den! eztea hala, jauna?” Eta hirurak egon ziren, xutik, antzoki eta antzerti berriez solasean. Federikek, probinziako emazte burjesen sinoer jarria, ehoiz etzuen ikusia emazte baten baitan ibilaretako errextasun hori, ikustatezkoa dena, gogo xoilek bapateko onezia baten erakustea baizik ezutularik hor ikusten.

Federiken beha zauden, itzuliko zen orduko; Dambreuse Jaunak Roque aitari haren orhoitzapenen emaitiaz kargatu zuen.

Federikek etzuen, sartzean, Deslauriers-i ongi-ethorri horren erraitea huts egin.

- “Aipagarri!” egin zuen bulego mutilak, “eta ehadila utz amak biribilkatua izaitera! Itzul hadi berehala!”

Ethorri zen biharamunean, bazkaldu eta, Moreau Andereak semea baratzerara ereman zuen.

Zerbaitetara heldua zela ikusiz zorion zuela erran zuen, ezpaitziren uste zen bezain aberatsak; lurrak guti emaiten zuen; etxetiarrek gaizki ordaintzen zuten; bere karrosaren saltzerano bortxatua izana zen. Azkenean, zuten izanara zabaldu zaukon.

Alharguntasuneko lehenbiziko eragozpenetan beretan, gizon trebe batek, Roque Jaunak diru prestatze batzu eginak zauzkon, berrituak, eta andereak berak luzatuak. Horien galdegitera jina zen bapatean; eta hark nahi zuena onhartu behar ukana zuen, uzten zaukola balio ezteus batean Presles-ko laboretxea. Hamar urte berantago, kapitala galtzen zuen diruzain baten hondamenean, Melun-en. Hipotheken hastioz eta semearen ethorkizunari itxura baliagarri batzu begiratu nahiz, Roque aita berriz aitzineratzen baitzizakon, beharria emana zaukon, aldi bat gehiago. Baina kitto zen, orai. Hots, hamar mila libera arranda nunbait han gelditzen zizeen, hetan bi mila hirur ehun semearendako, zuen ondore guzia!

- “Ezin da!” egin zuen Federikek.

Buru kheinu bat egin zuen osoki hala izan zaitekeela erran nahi zuena.

Baina osebak zerbait utziko zaukon?

Jeus etzen gutiago segur!

Eta baratze itzuli bat egin zuten, mintzatu gabe. Azkenean bere bihotzaren gainera hartu zuen, eta, nigarrek ithotzen zuten mintzo batekin:

- “Ai! mutiko gaixoa! Amets ainitz utzi behar ukan diat!”

Federik alki batean jarri zen, akazia handi baten itzalean.

Emaiten zaukon aholkua, bulego mutil jartzea zen Prouharam Jaunaren etxean, abokat ordaina, hunek utziko baitzaukon gero bere bulegoa; ontsa balia-arazten bazuen, saltzen ahalko zuen, eta ezkontza on bat egingen.

Federikek etzuen gehiago entzuten. Beha zagon, bera ohartu gabe, hesiaren gainetik, aitzinean, bertze baratzerara.

Hamabi urte inguruko nextato ttipi bat, ileak gorriak zituena, hor zen, bakar-bakarrik. Beharrietakoak eginak zituen udalatz batzuekin; oihal hautsaranezko soineko motxak uzten zauzkon soin-gainak agerian, iguzkiaz apur bat urrezatuak; erreximeta orbain batzuek zikintzen zaukoten zaia xuria; - eta bazen basandere gazte baten garazia bat bezala haren itxura guzian, aldi berean zaintsua eta malgua. Arrotz baten han

izaiteak ustegabetzen zuen, iduriz, ezen bapatez gelditua zen, ureztatzekoa eskuan, begi ñabar argien ñiñika haren gainean itzatuz.

- "Roque Jaunaren alaba da," erran zuen Moreau Andereak. "Bere sehia esposatu berria du eta haurra legezkatua."

V

Hondatua, murriztua, galdua!

Alkian gelditua zen, inharroste batek burxoratua bezala. Zoria madarikatzen zuen, norbait jo nahiko zuen; eta, bere etsipenaren azkargarri, sendi zuen gainean halako laido bat, desohore bat bezala; - ezen Federikek asmatua zuen aitaren ondorea hamabortz mila libera arrandatarara iganen zela, eta Arnoux-tarrer jakin-arazia zauen. Elhekari, maltzur, frikun ilun batendako hartuko zen beraz, abantail zerbaiten ustez haien etxera sartua zena! Eta hura, Arnoux Anderea, berriz nola ikus, orai?

Hori, bertzela ere, osoki ezin egina zen, hirur mila libera arranda baizik ez ukanez! Etzatekeen beti bizi laurgarrenean, mutiletako athezaina ukanez, eta eskularru behartu muturretik urdindu batzuekin agertu, xapel urindu batekin, urte guzian maripulis berarekin. Ez! ez! ehoiz! Bizia, bizkitartean, ezin jasana zen hura gabe. Ainitz bizi ziren aberastasunik gabe, bertzen artean Deslauriers; - eta bere burua beldurtia aurkitu zuen bien arteko gauza horier horrelako balioa emanez. Miseriak, behar bada, ahalak ehunkatuko zauzkon. Buruberotu zen, hegaztegiptan lanean ari diren gizon handiak gogoratuz. Arnoux Anderearena bezalako arima batek ikusgarri hortaz hunkia izan behar zuen, eta beraztuko zen. Horrela, hondamen hori zorion bat zen, oro har; thesorak agertzen dituzten lur-ikharek bezala, ikus-araziak zauzkon jitez zituen aberastasun gordeak. Baina etzen munduan balia-araz zezazkeen gune bakar bat baizik: Paris! ezen, haren gogamenetan, edergintza, jakintza eta maitasuna (Jainkoaren hirur aurpegi horiek, Pellerin-ek erranen zuen bezala) hiri-nagusiaren menean zauden bakar-bakarrik.

Amari aithortu zaukon, arratsean, berriz hara itzuliko zela. Moreau Anderea ustegabetua izan zen eta sumindua. Erokeria bat zen, arrazoingabe bat. Haren aholkuer jarraikiz hobeki eginen zuen, erran

nahi baita haren ondoan egonez, abokat-orde bulego batean. Federikek soin-gainak goititu zituen: - “Hea bada!” - eskaintza hortaz bere burua laidoztatua aurkituz.

Orduan andere ona bertze molde batez baliatu zen. Hipa ttipi batzuekilako mintzo samur batekin, hasi zizakon bere bakartasunaz mintzatzen, zahartasunaz, eginak zituen sakrifizioez. Orai zorigaiztuagoa zenean, uzten zuen! Eta gero bere joaite hurbilari aieruz:

- “Pairamen apur bat, Jainkoa! laster liberatua izanen hiz!”

Auhen horiek errepikatu ziren egunean hogeit hamar aldiz, hirur ilabetetan; eta, aldi berean, etxeko goxatasunek berazten ari zuten; atsegin zuen ohe guriago baten ukaiteaz, urradurarik gabeko oihalenaz; hala nola nun, unhatua, zaingabetua, eztitasunaren indar izigarriaz garhaitua, Federikek utzi baitzuen bere burua jaun Prouharam-en etxera eremaitera.

Etzuen han erakutsi ez jakitaterik ez gaitasunik. Ordurano ahal handiak zituen mutiko gazte batentzat hartua izana zen, departamenduko omena egin behar zuena. Orok uste baino gaizkiago izan zen.

Lehenik egina zuen bere baitan: - “Arnoux Andereari jakin-arazi behar da,” eta, aste batez, gogoan erabiliak zituen eskutitz laudorio mirazkoekilako batzu, eta hitz labur batzu, estilo motz ederrenean. Bere izanararen aithortzeak bazatxikan. Gero uste ukan zuen hobe zela senarrari izkiriitzea. Arnoux-ek bazakien biziaren berri eta entzuten jakinen zuen. Azkenean, hamabortz egun zalantzan egonik:

- “Bah! eztitut berriz ikusi behar; ahatz nezatela! Bederen, eniz haren orhoitzapenean eroria izanen! Hila usteko nau, eta urrikituko... behar bada.”

Delibero soberakinak guti gostatzen baitzizazkon, zin egina zuen ehoiz etzela Parisera itzuliko, etzuela ere Arnoux Anderearen berririk galdeginen.

Bizkitartean, dolutan zen gazaren usainaz beraz eta karrosa publikoen harrabotsaz. Erranak zauzkon elhe guziez amets egiten zuen, haren mintzoaren doinuaz, begien argiaz, - eta, bere burua gizon hil bat bezala ikusiz, etzen gehiago jeus-jeusetan ari.

Biziki berant jeikitzen zen, eta leihotik iragaiten ari ziren garraiarier beha zagon. Lehenbiziko sei ilabeteak, bereziki, hastiagarriak izan ziren.

Egun batzuez, bizkitartean, bere buruaz sumindura batek hartzen zuen. Orduan, atheratzen zen. Bazoan soroetan hara, neguan Zekuanaren gainditzez erdi estaliak. Zuhar lerro batzuek banakatzen zituzten. Han edo hemen, zubi ttipi bat goititzen da. Arrats arteo bazabilan nunbait, orsto horiak urratsen azpian lehertuz, lanbroa iretsiz, phezoinak jauziz; odolak zainetan azkarkiago joiten zaukon arau, egintza erotu baten gutzietan bazeramaten; nahi zuen bilakatu Ameriketara trampalari, Orientean paxa baten zerbitzari, itsasturi bezala abiatu; eta gogo-ilundura jalgitzera uzten zuen Delauriers-i eskutiz batzuetan.

Hau argira jalgitzeko egin ahaletan ari zen. Adixkidearen egin-ara bihozgabeak eta betiereko zinkurinak arrazoin gabeak iduri zizazkon. Gutitan, haien eskutizak abantzu deusetaratu ziren. Federikek emanak zauzkon bere muble guziak Deslauriers-i, bizitegia atxikitzen baitzaukon. Ama hortaz mintzo zizakon noizean behin; egun batez azkenean, egina zuen emaitza aithortu zaukon, eta amak erasiatzen ari zuen, eskutiz bat ukan zuelarik.

- “Zer da bada?” erran zuen, “ikharan hiz?”

- “Jeus eztut!” egin zuen Federikek.

Deslauriers-ek ikasten zaukon Senecal berekin hartua zuela; eta bazuen hamabortz egun elgarrekin bizi zirela. Beraz, Senecal errexean zagon, orai, Arnoux-en etxetik heldu ziren gauzen artean! Sal zezazkeen, hetaz oharrak egin, irri-solasak. Federik senditu zen arimaren zolarano zauritua. Gambarara igan zen. Bazuen hiltzeko nahikaria.

Amak hel egin zaukon. Aholku baten eskatzeko zen, baratzean landatze batez.

Baratzea, parke angeles moldetan, erditik hesolaz moztua zen, eta erdia Roque aitarena, bertze bat ere bazuelarik, baratzekariendako, ibaiaren bazterrean. Bi auzoak, elgarrekin gaizki, oren beretan han agertzetik begiratzen ziren. Baina, Federik itzulia zenetik, gizon zaharra han usu bazabilan eta etzen ikustatez xuhur Moreau Anderearen aldera. Federikez urriki zuen hiri ttipi batean bizi zelakotz. Egun batez, erran zuen Dambreuse Jaunak haren berriak galdeginak zituela. Bertze aldi batez, Xampañako ohiduran hedatu zen, han sabelak aitorensemetasuna emaiten baitzuen.

- “Noizpait hartan, jaun bat izanen zinen, zure amak izena “de Fouvens” duenaz geroz. Eta nahi dena erran dadila, zoaz, zerbait baita, izena! Orogen buruan, gehitu zuen, hari itxura maltzur batekin behatuz, “hori zigiluzainaren menean da.”

Aitorensesmetasuneko nahikaria hori etzoakon batere haren itxura guziari. Tipia baitzen, marpulis luze gaztain-kolorekoak handiegitzen zaukon soin-gaina. Kaxketa ekhentzen zuenean, ikusten zizakon abantzu emaztekarako begitarte bat sudur punta ezin zorrotzago batekin; haren ile horiek perruka baten itxura zuten; jendea biziki aphalt agurtzen zuen, murruek ondo-ondotik ibiliz.

Berrogei-ta-hamabortz urtetarano, Katalinaren zerbitzuak aski ukanak zituen, haren adin bereko Lorrenatar bat, eta pikotaz azkarki titatua. Baina, 1834-a inguruan, Paristik ekharri zuen neska ile hori ederdun bat begitartez ardikarakoa eta “erregina baten ibilarakoa”. Berehala ikusi zen hegazterren bat bezala ibilki beharrietako handi batzuekin, eta guzia argitua izan zen nexkato baten sortzeaz, “Elisabeth-Olympe-Louise Roque” izenetan aithortu zena.

Katalina, bekaitzez, haur horren hastiatzeari beha zagon. Aldiz, maitatu zuen. Arthaz, begirantzaz eta pherekaz inguratu zuen, amaren ordain jartzeko eta hunen hasti-arazteko, egingai errexu, ezen Eleonora Anderea etzen ttipiaz batere axolatzen, nahiago baitzuen saldegietan elhekatu. Ezkontzako biharamuneko, prefet-ordaindegian ikustaldi baten egitera joan zen, etzen gehiago sehier hi-ka mintzatu, eta uste ukan zuen, ontsa egitez, bere haurrendako biphil agertu behar zuela. Hunen ikastaldietan egoiten zen; erakasleak, herriko-etxeko bulegolari zahar bat, etzakien nola egin. Ikaslea jazartzen zen, mazelako batzu ukaiten zituen, eta bazoan Katalinaren altzoan nigar egitera, beti berdin arrazoin emaiten zaukola. Orduan bi emazteak aharratzen ziren; Roque Jaunak ixil-arazten zituen. Alabarenganako samurtasunez ezkondua zen, eta oinazka zezaten etzuen nahi.

Bazerabilan usu zaia xuri zintzilikatu bat dentelekilako galtza batzuekin; eta besta-buruetan, printzesa bat bezala jantzia atheratzen zen, emazte burjesen apur bat gaitzitzeko, bere haurreriari harekin ibiltzea debekatzeko baitzaukoten, legezkoa etzuen jaiotzearen gatik.

Bakarrik bizi zen, bere baratzean, leiretan junpatuz, pinpirinen gibeletik lasterka, eta bapatez gelditzen zela arrosoendoen gainera erortzen ziren mamutxer beha. Ohidura horiek zaukoketen emaiten, haren begitarteari, errankortasun aldi berean ausartasunez eta ametseriazko bat. Martharen heinekoa zen, bertzela, hala nola nun Federikek erran baitzaukon, elgar ikusi zuten bigarren aldiko:

- “Besarka zaitzadan onhartuko duzua, andereñoa?”

Jende ttipiak burua goititu zuen, eta ihardetsi:

- “Nahi dut ba!”

Baina hesola lerroak berezten zituen bat bertzearen ganik.

- “Gainera igan behar da,” erran zuen Federikek.

- “Ez, ereman nezak!”

Hesiaren gainetik behebitu zen eta besoetan hartu zuen, bi mateletan musu emanez; gero bere aldean ezarri zuen berriz, molde berean, hori ondoko aldietan errepikatu baitzen.

Laur urteko haur batek baino herabe gehiagokorik gabe, bere adixkidea jiten entzuten zuen orduko, haren gana laster egiten zuen, edo, zuhatz baten gibelean gordez, xakur erausia bat egiten haren izitzeko.

Moreau Anderea jalgia zen egun batez, hunen gambarara iganarazi zuen. Usain on untxi guziak ideki zituen eta ileak nasaiki gantzutu; gero, den gutieneko ahalgerik gabe, ohe gainean etzan zen eta han egon luze-luzea, atzarririk.

- “Asmatzen diat hire emaztea nizala,” zion.

Biharamunean, dena nigarretan aurkitu zuen. Aithortu zuen “bere bekatuez nigar egiten zuela”, eta, Federik horien ezagutzera entseatzen baitzen, ihardetsi zuen begiak behebituz:

- “Ez egin galderik gehiago!”

Lehen komunioea hurbiltzen ari zen; goizean kofesatzera eremana zuten.

Sakramenduak etzuen pherestuagotu. Batzuetan egiazki haserretzen zen; haren eztitzeko Federik Jaunari hel egiten zen.

Usu bazeraman berekin ibilaldietara. Urrats eginez ameskeriara emana zen aldi berean, hura gari bazterretan lorexka gorri biltzen ari zen, eta, ohian baino trixteago zela bazakusanean, balakatzera entseatzen zizakon hitz goxo batzuekin. Federiken bihotza, maitasunez gabetua, haur adixkidetasun hortara itzuli zen; gizon ttipi batzu marrazkitzen zauzkon, ixtorio batzu erraiten eta hasi zizakon irakurraldi batzuen emaiten.

Urtekari erromantiko-etarik hasi zen, neurtitz eta hitz laxo bilduma bat, orduan aipamenekoa. Gero, haren adina ahatziz, hain zuen haren adimenduak loriatzen, irakurri zauzkon bat bertzearen ondotik *Atala*, *Cinq-Mars*, *Les feuilles d'automne*. Baina, gau batez (arrats berean *Macbeth* entzuna zuen, Letourneur-en itzulpen lañoan), atzarri zen oihuka: “Orbaina! orbaina!” Hortzak klaskaka ari zizazkon, ikharan zen, eta, izialdurak hartu begi batzu esku eskunaren gainean itzatuz, thorratzen

zuen erranez: “Beti orbain bat!” Medikua ethorri zen azkenean, gauza hunkigarriegen baztertzea manatu baitzuen.

Burjesez etzuten hortan ikusi haren bizi moldez gaizki iragartzen zutena baizik. Bazioten “Moreau semeak” berantago hartaz komedialari bat egin nahi zuela.

Ephe gutitan bertze gertakari batez mintzatu zen, jakiteko Barthelemy osabaren ethortzeaz. Moreau Andereak eman zaukon etzateko bere gambara, eta ikustatea ereman mehe egunetan gizen emaiterano.

Agurea etzen biziki maitagarria izan. Betiereko gomparaketak ziren Le Havre eta Nogent-en artean, hemen airea phizuegi baitzizakon, janaria bien artekoa eta jendeak auher batzu. - “Zer salerospen ahula zuen herrian!” Gaitzetsi zituen bere anaia zenaren egintza bitxiak, berak aldiz hogeita zazpi mila libera arranda bilduak zituelarik! Azkenean, astearen buruan joan zen, eta karrosako oinpekoan, utzi zituen hitz guti segurtagarri hauk:

- “Beti ontsa gozagarri zata izanara onean zireztela jakitea.”

- “Jeus eztuk ukanen!” erran zuen Moreau Andereak salara sartzean.

Etzen hunen galdez baizik jina; eta, zortzi egunetan, haren aldetik idekitze bat eskatua zuen, argikiegi behar bada. Hori eginik dolu zuen, bazagon bere jargian, burua aphasal, ezpainak tinki. Federik, aitzinean, hari beha zagon; eta biak ixilik, duela bortz urte bezala, Montereau-tik itzultzean. Gertaldi horrek, bera gogora jinez, orhoit-arazi zaukon Arnoux Anderea.

Ordu hortan, azote ukaldi batzuek jo zuten leihoaren azpitik, eta aldi berean mintzo batek deitzen zuen.

Roque aita zen, bere karrosa bazterretara idekian bakarrik. Bazoan egunaren iragaitera “La Fortelle” Dambreuse Jaunaren etxera, eta Federiki gogotik eskaini zaukon hara eremaita.

- “Enekin eztuzu gomit beharrik; etzaitela beldur izan!”

Federikek ukan zuen onhartzeko gutizia. Baina nola argi Nogent-en egoite behin betikoa? Etzuen udako jantzi behar bezalakorik; azkenik zer erranen zuen amak? Eza eman zuen.

Ordutik, auzoak adixkidantza gutiago erakutsi zuen. Luixa handitzen ari zen. Eleonora Anderea lanjeroski eritu zen; eta lotura hautsi zen Moreau Anderearen atsegin handitan, horrelako jendekin ibiltzearen beldur baitzen bere semearen ontsa jartzeko.

Auzitegiko grefiergo baten erostea amesten zuen; Federikek etzuen ideia hori sobera baztertzen. Orai, harekin mezara joaiten zen, arratsean egiten zuen kartetako jokoaldi bat, probinziari jartzen ari zen, hartan barna sartzen: - eta bere maitasunak ere ez-titasun ilun bat hartzen ari zuen, gozatasun lokharle bat. Bihotzmina eskutitzetara ixuria ukanaren bortxaz, irakurgaiekin nahasiarenaz, baserrian ibil-arazia eta orotara hedatuarenaz, abantzu agortua zuen, hala nola nun Arnoux Anderea hil bat bezala baitzizakon, haren hil-hobiaren ez ezagutzeaz ustegabetzen zela, hanbat zen sendimendu hori ez-titua eta bera hortara jarria.

1845-eko negilaren 12-an, goizeko bederatziak hirian, kozinersak eskutitz bat igan zaukon gambarara. Helbidea, hizki larriz, ezagutzen etzuen izkirio batekoa zen; eta Federik, erdi-lotan, etzen idekitzera lehiatu. Azkenean irakurri zuen:

"Havre-ko bakezko justizia, III-garren auzoaldea.

"Jauna,

Moreau Jauna, zure osaba *ab intestat* hilik..."

Ondoretua zen!

Sute bat harresi gibelean jeiki izan baliz bezala, ohetik jauzi egin zuen, onthuts, athorra has: eskua begitartera eman zuen, bere begiez dudan, oraino amets bazegiela ustez, eta, egia zelakoan azkartzeko, leihoa ideki zuen zabal-zabala.

Elhurra eroria zen; hegaztegiak zuri ziren; - eta ezagutu zuen ere korralean xuriketako untzi bat bezpera arratsean behaztopa-arazia zuena.

Eskutitza jarraikian hirur aldiz berrirakurri zuen; ezer ez beraz egiagorik? osabaren fortunaren ondore zen! Hogeita zazpi mila libera arranda! - eta bozkario erotu batek guzia nahasi zuen, Arnoux Anderea berriz ikusiko zuela gogoratuz. Lilluramendu ero batean bezain argi, bere burua ikusi zuen haren ondoan, haren etxean, emaitza baten hari ekhartzen zetazko paper batean, athean zagokolarik karrosa, karrosa motza izaitekotz! karrosa motz beltz bat, mutil batekin sehi-jantzi beltzaranean; entzuten zuen zaldia putinka eta kokotsazpikoaren azantza haien musuen murmurikarekin nahasten. Hori egun oroz berrituko zen, beti. Bere etxera gomitatuko zituen; jateko sala larru gorritz izanen zen, saloin ttipia zeta horiz, orotan ohexkak! eta zer

tauladak! zer Xinako untziak! zer tapizak! Iduri horiek hain bapateko nahasian heldu zizazkon, nun burua itzulika sendi baitzuen. Orduan amaz orhoitu zen; eta jautsi zen, eskutitza beti eskuan atxikiz.

Moreau Anderea bere hunkimenaren neurrian atxikitzen entseatu zen eta hixtura bat ukan zuen. Federikek besoetan hartu zuen eta bekokian musu eman zaukon.

- “Ama ona, orai berriz eros dezakezu zure karrosa; irri egizu bada, ez nigar, zorionean izan zaite!”

Hamar minuta berantago, berria bazabilan hiri bazterretarano. Orduan Jaun Benoist, Gambelin Jauna, Chambon Jauna, adixkide guziak lasterrez ethorri ziren. Federikek minuta batez ihes egin zuen Deslauriers-i izkiriatzeko. Bertze ikuslari batzu jin ziren. Arratsaldea goresmenetan iragan zen. Roque-ren emaztea ahazten zen, “biziki apha!” zelarik alta.

Arratsean, bi-biak bakarrik izan zirenean, Moreau Andereak erran zaukon semeari Troyes-en jartzeko aholkua emaiten zaukola, abokat. Haren herrian bertze batean baino ezagunago izanez, errexago aurkituko zituen han ezkongai abantailgarriak.

- “Ha! Sobera da!” egin zuen Federikek.

Zoriona doi-doia eskuetan zueneko ekhendu nahi zaukoten! Jakin-arazi zuen Parisen bizitzeko delibero baitezpadakoa;

- “Han zer egiteko?”

- “Jeus ez!”

Moreau Andereak, eginara horietaz ustegabetua, galdegin zaukon zer bilakatu nahi zuen.

- “Minixtro!” ihardetsi zuen Federikek.

Eta erran zuen etzela batere irriz ari, bazuela embaxadetan sartzeko gogo, ikasketek eta gostuek hortara zeramatala. Lehenik sartuko zen Estatuko Konseiluan, Dambreuse Jaunaren geriza-pean.

- “Ezagutzen duk beraz?”

- “Baina ba! Roque Jaunaren bitartez!”

- “Hori bitxi da,” erran zuen Moreau Andereak.

Bihotzean atzarriak zauzkon amari handi-nahizko amets zahar hek. Hetara joaitera utzi zen bere baitan, eta bertzeak etzitzen gehiago aipatu.

Bere ezin-egonari behatua ukan balu, Federik orduan berean abiatua izanen zen. Biharamunean karrosa handietako leku guziak

hartuak ziren; ondoko egunerano gogoia alhan egon zen, zazpiak eta erditarano.

Auhaltzeko jartzen ari ziren, hirur ezquila ukaldiek elizan jo zutelarik; eta sehia sartu zen, Eleonora Anderea hil berria zela erranez.

Herio hori, oro har, etzen nehorendako zorigaitz bat, ez eta haren haurrendako ere! Nexkato gaztea etzen hobeki baizik izanen, berantago.

Bi etxek elgar hunkitzen baitzuten, harat-hunat handi bat entzuten zen, elhe harrabots bat; eta gorputz hori ondoan zutela gogoratzeak zerbait ilun egozten zuen haien elgarretarik berextean. Moreau Andreak, bizpahirur aldiz, begiak idortu zituen. Federikek bihotza hertsatua zuen.

Aphairua bururaturik, Katalinak geldi-arazi zuen bi athen artean. Andereñoak ikusi nahi zuen, baitezpada. Haren aiduru zagon baratzean. Jalgi zen, hesia ixtapekatu, eta, zuhatzetan apur bat joz, Roque Jaunaren etxera buruz abiatu. Argi batzuek dirdiratzen zuten bigarren estaiako leiho batean; gero itzal bat agertu zen ilunbean, eta mintzo bat ahapetik:

- “Ni niz.”

Ohian baino handiago iduritu zizakon, zuen zaia beltzaren gatik, agian. Zer erranez has ez jakinez, eskua hartu zaukon bakarrik, hasperen batekin:

- “Ai! Luixa gaixoa!”

Etzuen ihardetsi. Nexkatoak so bat egin zaukon, barnatuki, luzaz. Federik karrosa huts egin beldur zen; burrumba bat urrunean entzuten zuela uste zuen, eta bururatzeko:

- “Katalinak jakin-arazi dautan bahuela zerbait...”

- “Bai, egia! erran nahi nautzun...”

Zu horrek ustegabetu zuen; eta, berriz ere ixiltzen baitzen:

- “Baina, zer?”

- “Gehiago eztakit! Ahatzi dut! Joaiten zirela egia dea?”

- “Ba, sarri beran.”

Errepikatu zuen:

- “Ha! sarri?... zinez?... berriz eztugu elgar ikusiko?”

Hipek ithotzen zuten.

- “Goraintzi! Goraintzi! besarka nezak bada!”

Eta nexkak besoetan suharki tinkatu zuen.

ZATI BIGARRENA

I

Bere lekuan izan zenean, karrosaren aitzinaldean, eta karrosa handia higitu, bortz zaldiek lasterra aldi berean abiatuz eremanik, xoratasun batek gainditzen zuela senditu zuen. Eraikuntzalari batek palazio baten arau-moldea egiten duen bezala, antolatzen zuen, aitzinetik, bere bizia. Goxatasunez eta edertasun mirazkoenez bete zuen; zerurano baziragan; gauzen emaitza nasai bat ageri zizakon han eta behatze hori hain zuen barnatua nun inguruan zituen gauzak ezeztatuak baitziren.

Sourdun-go maldaren behean, zein lekutan ziren ohartu zen. Bortz kilometra baizik etzuten eginik, gehien gehienik! Sumindu zen. Berina beheitu zuen bidearen ikusteko. Bidariari galdegin zaukon aldi bat baino gehiagotan zenbat demboraren buruan, xuxen, helduko ziren. Eztitu zen alta, eta bazagon bere zokoan, begiak idekirik.

Gauargiak, karrosazainaren jargiari lotua, argitzen zituen zaldi uztartuen gibelaldeak. Haratago etzitzen bertze zaldien khimak baizik ikusten uhain zuri batzu bezala goiti eta beheiti; haien hatsek bazegiten bi aldetarik lanho bat; burdinazko gatinattoek joiten zuten, berinak ikharatzen ziren bere jargunetan; eta karrosa phizua, urrats berdinez, bazoan lauzadan harat. Han hemenka, agertzen zen belartegi baten harresia, edo ere ostatu bat, bakar-bakarrik. Batzuetan herrixka batetik iragaitean, okin baten labeak argitzen zuen sute baten idurian, eta zaldien gaitzeko itzala bazoan lasterrez aitzineko bertze etxearen gainean. Alda-lekutan, zaldiak utziak zirenean, ixil handi bat egiten zen, minuta batez. Norbait bazabilan, gainean, estalgiaren azpian, athe baten alhazean emazte batek, xutik, ezko-argia eskuaz gerizatzen zuelarik. Gero bidariak oinazpikora jauzi eginez, karrosa handia berriz abiatzen zen.

Mormons-en, oren bat eta erdia joiten entzun zen;

- “Egun da beraz,” egin zuen bere baitan, “egun berean, sarri!”

Baina, emeki emeki esperanzak eta orhoitzapenak, Nogent, Choiseul karrika, Arnoux Anderea, ama, guzia nahasi zen.

Taula harrabots ilun batek iratzarri zuen, Charenton-go zubia iragaiten zen, Paris zen. Orduan, haren bi lagunak, ekhenduz batek bere kaxketa bertzeak lephokoa, xapelaz estali ziren eta solastatu. Lehena, gizon gorri lodi bat, balusazko maripulisan, negozialaria zen; bigarrena hiri nagusira heldu zen mediku baten ikusteko: - eta, hura gauan

poxelatua ukanik beldurrez, Federikek berainik desenkusak egin zauzkon, haina zuen arima zorionak beraztua.

Geltokiko kaia urak hartua izanez, iduriz, zuzen-zuzena jarraiki zen, eta baserria berriz hasi. Urrunean, lantegietako khebide gora batzu khetan ziren. Gero Ivry-n itzuli zen, karrika bati gora igan: bapatez ikusi zuen Pantheon-aren gopoila.

Ibarra, iraulia, hondamendu batzuen itxuran zen; eta, bide bazterra hartzen zuten lurrezko oinbidetan, adarrik gabeko zuhatz ttipi batzu itzez harmatu olhaxka batzuek zaintzen zituzten. Ximiako ekhai etxe batzu aldizkatzen ziren zur saltzalen landegiekin. Athe gora batzuek, laboretxetan diren bezalakoak, ikustera uzten zituzten, atherdi idekietarik, korrale batzu ondarkin zikinez beteak, ur uhertu putzu batzu erdian. Edandegi luze batzuek, idi odol kolore, bazaduzkaten lehen estaian bi billarteko buztan gurutzatuak lore thindatuzko korona batean; han hemenka, igelsuzko etxola bat utzia zen erdi eraikirik. Gero, etxen lerro bikuna etzen gelditu; eta, aitzinalden murriztean, agerian zen, urrundik urrunera, gaitzeko zigarro burdinzurizko bat, tabako salgune baten erakusteko. Emagin iragarki batzuek erakusten zuten emazteki bat bonetarekin, dentelaz aphaindu golxoin batean ñiñi bat gulunkatuz. Paper iragarki batzuek estaltzen zituzten harresi izkinak, eta, hirur laurdenetan urraturik, haizera ikharatzen ziren philda batzu iduri. Langile batzu bazoazin taulierrak soinean, zerbezalari batzuen orga meheak ere, xuriketarien orga estali batzu, harakinen orgaxka batzu; euri mehe bat ari zen, hotz, zerua hits, baina harendako iguzkia balio zuten bi begi dirdiran zauden lambroaren gibeletik.

Hiri-mugan luzaz gelditu ziren, arraultze saltzale, garraiatzale batzuek et' artalde batek trabatzen baitzuten han. Mugazaina, estalia beheiturik, bazabilan bere etxolaren aitzinean harat eta hunarat berotzeko. Mugazergako komisa karrosa gainera igan zen, eta pixtun baten soinua joiten hasi zen. Karrika handietan behera jautsi zen trosta betean, galandagak joka, uhalak airera. Azote luzearen zainak joiten zuen aire hezean. Karrosazainak egozten zuen bere oihu ozena: "Jeiki! Jeiki! Uha!" eta ekhortzaleak baztertzen, oinezkoek gibelera jauzi egiten, iztila berinetara jalgitzen; gurutzatzen ziren orgaxka, kabriolet, onibuz. Azkenean Landaretegiko burdin-sarea luzean agertu zen.

Zequanak, horail, abantzu hunkitzen zuen zubien taulada. Handik hoxtura bat jalgitzen zen. Federikek bere indar guziez iretsi zuen, goxatuz maitasunezko usainak eta endelgamenduzkoak badaduzkala

iduri duen Parisko aire on hartaz; bihotz beratasun bat senditu zuen lehenbiziko fiakra ikusiz. Eta guzia maitagarri zizakon, arno saltzalen alharzeko lastorano, oinetako ikuzletarano bere untxiekin, jangai saldegietako mutiletarano kafe erretzekoaren inharrosten. Emazte batzu bazabiltzan ttaka-ttaka euritakoen azpian; gurtu zen haien aurpegiaren ikusteko; halabehar batek Arnoux Anderea jalgi-arazia ukan zezakeen.

Saldegiak bazoazin lerro-lerro, jendea gotortzen ari zen, harrabotsa azkarragotzen. San-Bernat kaiatik, Dorrexipikotik eta Montebello-kotik hara, Napoleon kaia hartu zen; bere leihoak ikusi nahi ukan zituen, urrun ziren. Gero Zekuana berriz iragan zen Zubiberrian, Louvre-rano jautsi; eta, Saint-Honoré, Croix-des-Petits-Champs eta Bouloi karriketarik, Coq-Héron karrikara heldu ziren, eta hoteleko korralean sartu.

Atseginari iraun-arazteko, Federik jantzi zen ahal bezain emeki, eta oinez joan zen ere Montmartre karrika handira; erdi-irriz ari zen, sarri, harbizizko laurkian, izen maitea ikusiko zuela gogoan; - begiak goititu zituen. Berinalderik ez gehiago, ez margazkirik, ez jeus!

Choiseul karrikara laster egin zuen. Arnoux Jaun-Andereak etziren gehiago han bizi, eta auzoko emazte batek zadukan athezainaren egongia; Federikek igurikatu zuen; azkenean, athezaina agertu zen, etzen lehengo hura. Etzuen haien helbidea ezagutzen.

Federik ostatu batean sartu zen, eta, askaltzen ari zelarik, Salerospeneko Almanaka ikertu zuen. Baziren hirur ehun Arnoux, baina Jacques Arnoux-ik ez! Nun bizi ziren bada? Pellerin-ek bazakikeen.

Poissonniere hiribazterrenao ereman zuen bere burua, haren landegira. Atheak etzuen ez xilintxarik ez jokairik, ukabilaldi handi batzu eman zituen, hel egin zuen, oihu. Hutsak bakarrik ihardetsi zaukon.

Hussonnet gogoratu zizakon. Baina horrelako gizon bat nun aurki? Aldi batez, ohaidearen etxerano lagundua zuen, Fleurus-ko karrikan. Karrika hortara heldurik, Federik ohartu zen andereñoaren izena etzakiela.

Poliziako Prefeturara jo zuen. Mailaldez mailalde ibili zen, bulegoz bulego. Berri emaitekoa hesten ari zen. Biharamunean berriz jin zadin erran zaukoten.

Gero sartu zen aurkitu ahal zituen margazki saltzale guzien baitan, hea Arnoux ezagutzen etzenez jakiteko. Arnoux etzen gehiago salerospenean ari.

Azkenean, etsitua, ezindua, eritua, bere hotelera itzuli zen eta etzan. Mihisen artean luzatzen ari zelarik, ideia batek bozkarioz jauzarazi zuen :

- “Regimbart! zer zozoa, gogoaz ez hari emanik!”

Biharamunean, zapi orenetako, Notre-Dame-des-Victoires karrikara ethorri zen, edari saltzale baten saldegi aitzinera, Regimbart-ek baitzuen han arno xuriaren hartzeko ohidura. Oraino etzen idekia; ibilaldi bat egin zuen ingurunetan, eta, oren erdi baten buruan, berriz hara agertu zen. Regimbart etzen jalgia baizik. Federikek karrikara laster egin zuen. Uste ukan zuen ere urrunera haren xapela ikusten zuela; hil-orga bat eta doluzko karrosa batzuekin artean jarri ziren. Traba hori joan eta, ikuspena itzalia zen.

Zorionez, orhoitu zen Herritarra egun oroz hameketan xuxen Gaillon plazako ostatzale baten etxean bazkaltzen zela. Igurikatu behar zen; eta, Molsatik Madalenarano, eta Madalenaetik Gimnaziarianoko ibilaldi ezin bururatu baten ondotik, Federik, hameketan xuxen, Gaillon plazako ostatuan sartu zen, han Regimbarten aurkitzeaz segur.

- “Ez ezagutzen!” egin zuen ostalari txarrak doinu mokor batekin.

Federik aitzina ari zen; berriz egin zuen:

- “Eztut gehiago ezagutzen, jauna!” bekainen goititze maiestatedun eta buru inharroste batzuekin, mixterio zenbait erakustera emanaz.

Baina, azkenik elgar ikustean, Herritarrak aipatua zuen Alexandre edandegia. Federikek iretzi zuen opiltto bat, eta karrosa arin batera jauziz, karrosazainaren ganik jakin nahi ukan zuen etzenez nunbait, Santa-Jenobebako gainaldetan, Alexandre edandegi zenbait. Karrosazainak erremantzen zuen San-Migelgo Burjes-Frankoen karrikara izen hortako ostatu batera, eta haren galdean: “Regimbart Jauna, othoi?” ostalariak ihardetsi zaukon, erdi-irri garaziadun baino gehiagoko batekin:

- “Oraino eztugu ikusia jauna,” emazteari, khondu-mahian jarria, behako aditu bat igortzen zaukon batean.

Eta berehala erloira itzuliz:

- “Baina ukanen dugu, uste dut, hemendik hamar minutaren buruan, gehienik oren laurden bat. - Celestin, laster kartak! - Jaunak zer hartu nahi du?”

Nahiz etzen deusen hartzeko beharretan, Federikek iretzi zuen baso bat rhum, gero baso bat kirsch, gero baso bat curaçao, gero “grog” andana bat, hotz eta bero. Egun hartako *Siècle* osoa irakurri zuen, eta

berrirakurri; mihatu zuen, paperraren itxurarano, *Charivari*-ko marrazki trufaria; azkenean, erraklamak bazazkien gogoz. Noizean behin, bota batzuek joiten zuten oinbidean, hura zen! eta norbaiten soinara itxuratzen zen berinetan; baina beti iragaiten!

Ez aspertzeko, Federik lekuz aldatzen zen; zolan jartzera joan zen, gero eskun, gero ezker; eta alkiaren erdian egoiten zen, besoak luzaturik. Baina gatu batek, alki-bizkarreko balusa doi-doia hunkiz, izitzen zuen bapatean jauzi eginez, mahi gainean ziropa xorten milikatzeko; eta etxeko semea, laur urteko haurxka ezin jasan bat, kalaka batekin josteta ari zen khondu-mahiko mailetan. Ama, emazte ttipi hits bat, hortzak andeatuak, erdi irriz ari zen itxura zozotu batekin. Zer ari zatekeen bada Regimbart? Federik haren aiduru zagon, herstura ezin mugatu batean.

Euriak egiten zuen mahazuzaren harrabotsa karrosa arinaren estalgian. Musulinazko erridauaren bazterretik, bazakusan zaldi gaizoa karrikan, zurezko zaldi bat baino geldiago. Erreka, gaitzekoa bilakatua, bazoan bi errota-zirien artetik, eta karrosaina erdi-lo zagon estalgiaren atherbean; baina, beldurrez eta burjesak ihes egin zezon, athea noiztenka idekitzen zuen, ibai bat iduri ura zariola; - eta behakoek gauzak higa balezazkete, Federikek erloia urtuko zuen begiak gainean atxiki bortxaz. Ari zen, bizkitartean. Alexandre jauna bazabilan alde batetik bertzera, errepikatuz: “Jinen da, zoaz! jinen da!” eta, libertitzeko, elheka ari zizakon, politika solas. Ikustatea ereman zuen ere dominotan jokaldi baten eskaintzerano.

Azkenean, laurak eta erditan, Federik, eguerdiz geroz hor baitzen, jeiki zen jauzi batez, gehiago etzuela igurikatuko erranez.

- “Jeus eztut nihaurek hor komprenitzen,” ihardetsi zuen ostalerrak aire zuri batekin, “lehen aldia da Ledoux Jaunak huts egiten duela!”

- “Nola, Ledoux Jaunak?”

- “Baina ba, jauna!”

- “Regimbart errana dut!” egin zuen Federikek sumindua.

- “Ai! mila desenkusa! hutsean zira! - Eztea hala, Alexandre anderea, jaunak erran duela: Ledoux Jauna?”

Eta mutilari hel heginez:

- “Entzuna duzu, zuhaurek, nik bezala?”

Nagusiaz mendekatzeko, iduriz, mutikoak erdi-irri bat egin zuen bakarrik.

Federikek bere burua ereman-arazi zuen karrika handietara, asti galduaz khexu, Herritarren aldera erotua, haren han izaitea jainko batena bezala othoiztuz, eta soto urrunduenetarik haren jalgi-araztera ontsa deliberatua. Karrosak aspertzen zuen, igorri zuen: gogoia nahasten ari zizakon, gero gizon zozo hari erraiten entzunak zituen ostatu guzien izenez orhoitu zen bapatean, su-ikusgarri bateko mila phindarrak bezala: kafe Gascard, kafe Grimbert, kafe Halbout, edangia Bordelesa, Habanesa, Havresa, Idi-modakoa, garagarnotegi Alemana, Ama Morel, eta etxe horietan guzietan ibili zen bat bertzearen ondotik. Baina, batean Regimbart athera berria zen; bertze batean jinen zen, behar bada; heren batean, bazen sei ilabete etzela ikusia; bertze nunbait manatua zuen, atzo, azpiki bat ebiakoitzeko. Azkenean, Vautier limonadariaren baitan, Federikek, athearen idekitzean, mutilarekin jo zuen.

- “Ezagutzen duzua Regimbart Jauna?”

- “Nola, jauna, ezagutzen dutanez? Nik dut haren zerbitzatzeko ohorea. Gainean duzu, bazkariaren bururatzen!”

Eta, oihala besapean, etxeko nagusia bera ethorri zizakon:

- “Regimbart Jauna galdegiten duzu, jauna? Orai berean hemen zen.”

Federikek sakre bat egin zuen, baina limodariak erran zaukon Bouttevilain-en etxean aurkituko zuela, hutz egin gabe.

- “Ohorez hitzemaiten dautzut! ohian baino lehenxago joana da, egiteko batzuetako hitzhartua baita jaun batzuekin. Baina aurkituko duzu, badiotzut berriz, Bouttevilain baitan, Dona-Marte karrikan, 92-an, bigarren athe-harrian, ezker, korrale zolan, arte-barnean, athea eskun!”

Azkenean, ikusi zuen pipen khearen artetik, bakarrik, billartaren ondoko gibel-barnearen zolan, baso handi bat aitzinean, bidarra beheiti eta gogoetatzeko itxura batean.

- “Ha! bazen azpaldi zure bila nindabilala!”

Hunkia izan gabe, Regimbart-ek eskaini zauzkon bi erhi bakarrik, eta bezperan ikusia ukan balu bezala, erranaldi balio gabeko batzu ixuri zituen gambarako aldiaren idekitzeaz.

Federikek moztu zuen, erranez, ahal ukan zuen molde lañoenean:

- “Arnoux ontsa da?”

Ihardestea jiteko luzea izan zen, Regimbart bere edariarekin xafarrikatuz ari zen;

- “Bai, ezta gaizki!”

- “Nun bizi da bada orai?”

- “Baina... Paradis-Poissonière karrikan,” ihardetsi zuen Herritarrak ustegabetua.

- “Zenbata?”

- “Hogei-ta hamazazpia, alajinkoa, bitxia zira!”

Federik jeiki zen.

- “Nola, bazoaz?”

- “Baietz, laster bat egin behar du, ahatzia nuen egiteko bat! Goraintzi!”

Federik joan zen edandegitik Arnoux-en etxera, haize ephel batek eremana bezala eta ametsetan aurkitzen den ohigabeko errextasunarekin.

Berehala bigarren estaia batean aurkitu zen, xilintxak joiten zuen athe baten aitzinean; sehi bat agertu zen; bigarren athe bat ideki; Arnoux Anderea sutondoan jarria zen. Arnoux-ek egin zuen jauzi bat eta hura besarkatu. Andereak bazadukan belhaunen gainean mutiko ttipi bat, hirur urtekoa nunbait han; alaba, orai hura bezain handi, xutik zagon, khebidearen bertze aldean.

- “Onhar ezazu jauntto hori aitzinera dezazutan,” erran zuen Arnoux-ek, semea besoen azpitik hartuz.

Eta minuta zenbaitez airean haren jauz-arazten jostatu zen, biziki gora, besoen puntan hatzemanetz.

- “Hilen duzu! ai! Jainkoa! geldi bada!”

Baina Arnoux-ek, lanjerrik etzela zin eginez, bazarraikan, eta goxakeriak murdukatzen zauzkon ere Marzellako erdarán, bere sorherriko hizkuntza. - “*Ah! brave pichoûn, mon poulit rossignolet!*” Gero galdegin zaukon Federiki hoin luzaz zergatik egona zen haier izkiriatu gabe, han zer egin ahal zuen, zerk itzul-arazten zuen.

- “Baina orai, adixkide maitea, baxeraki saltzale niz. Baina zutaz mintza gaiten!”

Federikek aipatu zituen auzi luze baten estakurua, amaren osagarria; hortan ainitz egon zen, ohargarri izaitekotan. Hots, Parisen jartzen zen, aldi huntan behin betikotz; eta etzuen ondoreaz ezer erran, - iragana zuen biziari kalte eman beldurrez.

Erridauak, mubleak bezala, ileki damastar gaztena kolorez ziren; bi burupekoek elgar hunkitzen zuten buhurdikoari kontra; berotzeko untzi bat bazagon ikhatzetan; eta komodaren hegian ezarria zen argiaren gainekoak bizitegia iluntzen zuen. Arnoux Andereak bazuen ileki lodi urdin ilunezko gambarako arropa bat. Soa hautsetara itzulirik eta esku bat muttikoaren soingainean, desegiten zuen, bertzeaz, besapetakoaren

estekagailua, haurxka athorra has nigarrez ari zen buruan hatz eginez, Alexandre Jaunaren semea bezala.

Federik bozkariozko hertsaldi batzuen beha zagon; - baina sendimendu azkarrak ahultzen dira lekuz aldatzen direnean, eta, Arnoux Anderea ez berriz aurkituz ezaguna zuen ingurumenean, zerbait galdua zuela iduritzen zizakon, bazadukala halako andeatze bat bezala, azkenean etzela lehengo hura bera. Bere bihotzaren jabaldurak balditzen zuen. Lehengo adixkiden berriak galdegin zituen, Pellerin-enak, bertzen artean.

- “Eztut usu ikusten,” erran zuen Arnoux-ek.

Andereak gaineratu zuen:

- “Eztugu jenderik ukaiten, lehen bezala!”

Etzela gehiago gomitatua izanen jakin-arazteko ote zen? Baina Arnoux-ek, bere ikustatetan jarraikiz, erasiatu zuen haiekin bazkaltzera ez jinik, hitzhartu gabe; eta argitu zuen zergatik zen industriaz aldatua.

- “Zer nahi duzu egin erorpenean den aro batean, gurea den bezala! Margazkitze handien moda joana da! Bertzela ere, edergintza orotan ezar daiteke. Badakizu, nik, Ederra maite dut! egun hautarik batez ene lantegira ereman beharko zitut.”

Eta erakutsi nahi ukan zauzkon, eskuharki, bere salgaietarik zenbait estaiartean zuen saldegian.

Azpilek, eltzek, azietek eta ikuztekoek taulada betetzen zuten. Harresier kontra xutik bazauden mainutegi eta ikuztegien lauzatzeko laurki zabal batzu, mitologiako gai batzuekin Berpizteko moldean, erdian aldiz taulada bikun batek, tronadurarano iganez, bazaduzkalarik hormaki atxikitzeke untzi, lili untzi, gandelabre, baratzetegi ttipi eta jende beltz bat itxuratzen zuten margo orotako gizaiduri batzu edo Pompadour moldeko jargia zabal bat. Arnoux-en erakustaldiek aspertzen zuten Federik, hoztua baitzen eta gose.

Kafe Angelesera laster egin zuen, han miragarriki auhaldu, eta, jaten ari zen batean, bazion bere baitan:

- “Ontsa ona nintzan han ene bihotzminekin! Ezagutu baldin banu, doi-doia! zer emazte burjesa!”

Eta osagarri zabaltze bapatekoan, berekoitasunezko deliberoak hartu zituen. Bihotza sendi zuen ukondoak hartan ezarriak zituen mahia bezain gogor. Beraz, bere burua egotz zezakeen beldurrik gabe, orai, munduaren erdira. Dambreuse-tarrak gogoratu zizazkon; hetaz baliatuko zen; gero Deslauriers-ez orhoitu zen. “Ai! alafe, hanbat gaixto!” Igorri

zaukon bizkitartean, mezulari baten bidez, biharamuneko Erret-Palaziora hitzhartze bat, elgarrekin bazkaltzeko.

Zoria etzen hoin ezta horrendako.

Agregazioneko konkursora joana zen thesis batekin *testamendu egiteko zuzenbidea*, hor baitzion behar zela ahal bezenbat hertsitu; - eta, kontra zuenak zozokeria batzuen erraitera sustatzen baitzuen, ainitz errana zuen, etsaminatzaleak kantitu gabe. Gero halabeharrak nahi ukan zuen xorteak eman zaukola, ikastaldiaren gaiko, Iraupen-legea. Orduan, Deslauriers hedatua zen teoria lastimagarri batzuetan; eztabadagai zaharrak auziratu behar ziren berriak bezala; zergatik izanen zen jabea bera ontasunaz gabetua eztezazkeelakotz phoroguak hogeita hameka urte iragan ondoan baizik eman? Ohoin aberastuari gizon zuzenaren segurtasunaren emaita zen. Zuzenbide horren hedatzeaz bidegabe guziak legeztatuak ziren, tirania bat baitzen, indarraz sobera baliatzea! Errana zuen ere:

- “Ekhen dezagun; eta Frankoek eztituzte gehiago Galesak lehertuko, Angelesek Irlandesak, Iankiek Larru-Gorriak, Turkoek Arabak, zuriak beltzak, Polonia...”

Buruzagiak moztua zuen:

- “Ongi! Ongi! jauna! zure aburu politikakoen beharrik eztugu, berriz jinen zira berantago!”

Deslauriers-ek etzuen berriz joan nahi ukana. Baina Lege zibilaren III-garren liburuko izenburu XX zorigaitzeko hori behaztopatzeko mendi bat bilakatua zizakon. Lan handi batean ari zen *Iraupen-legea, zuzenbide zibilaren eta jendalden zuzenbide naturalaren oinbarria*-z: eta galdua zen Dunod, Rogerius, Balbus, Merlin, Vazeille, Savigny, Troplong, eta bertze irakurketa gotor batzuen erdian. Horietara gozokiago emaiteko, bulego-mutil nagusi kargua utzia zuen. Ikastaldi batzu emanek bizi zen, thesisa batzu moldatuz; eta, Elhategiko bilkuretan, bere saminaz izitzen zuen alderdi konserbadorea, Guizot Jaunaren ganik heldu ziren dotrinalari gazte guziak; - hala nola nun, mundu berezi batean, halako aipamen bat baitzuen, apur bat haren ganako mesfidanza batez nahasia zena.

Hitzhartu lekura ethorri zen, ileki gorriz horratu soineko lodi batekin, lehenago Senecal-ena bezalakoa.

Giza-errespetuak, baziragan jendearen gatik, etzituen utzi luzaz besarkatzera, eta Vefour ostatura joan ziren, besoz beso, atseginez

karkailaka, begien zolan nigar batekin. Gero, bakarrik izan zireneko, Deslauriers-ek egin zuen:

- “Ha! debrioentxoa, eztiki eremanen diaguk, orai!”

Federikek etzuen maitatu haren fortunari, berehala, sartzeko molde hori. Adixkideak bozkario sobera bazerakusan haien biendako, eta Federikendako bakarrik ez aski.

Gero, Deslauriers-ek khondatu zuen etsaminaren hutsegitea, eta apurka lanak, bizia, bere buruaz gogorrean mintzatuz eta bertzez saminki. Orok nardatzen zuen. Etzen karguko gizon bat zozoa etzenik edo zirtzila. Gaizki xahutu baso batendako, mutil baten kontra haserretu zen, eta Federiken erasia guti axolatuan:

- “Horrelako putiko horiendako eragozpenean jarriko baninduk bezala, urtean sei eta zortzi mila liberaren irabazle ditukalarik, boz emaile, behar bada hautagai! Ha! ez, ez!”

Eta gero, doinu jostakin batekin:

- “Baina ahazten diat kapitalixta bati mintzo nukala, Mondor bati, ezen Mondor bat hiz, orai!”

Eta, ondoretara itzuliz, aburu hau eman zuen: semalabez haratagoko ondoriotasunak (berenez gauza bidegabekoa, nahiz harenaz bozkariatzen zen) ekhenduak izanen zirela, egun hautarik batez, lehenbiziko iraultzan;

- “Uste duk?” erran zuen Federikek.

- “Ago hortan!” ihardetsi zuen. “Eztezakek iraun! Jendea gaizkiegi duk! Senecal bezalako jende batzu miserian ikusten ditiatarik!...”

“Beti Senecal hori!” egin zuen bere baitan Federikek.

- “Zer berri, bertzela? Maite duka oraino Arnoux Anderea! Iragana, ez?”

Federikek, zer ihardets ez jakinez, begiak hetsi zituen burua behehituz.

Arnoux-ez, Deslauriers-ek ikasi zaukon haren berrikaria Hussonnet-ena zela orai, hunek bermoldatua zuela. Izendatzen zen “*Edergintza*, literaturako agerkaria, bakoitza ehun liberako diru sartzetako lagunartea; kapital zoziala: berrogei mila libera”, sartzale bakoitzak hor bere idazkien ager-arrazteko ahalarekin; ezen “lagunartearen helburua hastera zoazinen lanen agertzea zen, thalenduaren ganik baztertuz, jeinuarenetik behar bada, bihotzminez gaintitzen duten nekezko aldiatarik, eta bertze..., ikusten duk irri-aldia!” Bazen alta zerbait egin beharra, delako orstoaren doinuaren goititza zen, eta gero bapatez,

idazle berak atxikiz eta elhaberri zatiak jarraikiz, abonatuere politikazko berrikari baten emaitza; aitzinera ezarri behar zen dirua etzen izigarria izanen.

- “Zer diok hortaz, hea! jarri nahi duka?”

Federikek etzaukon eskaintzari eza eman. Baina behar zen gauzak eginak izan zaiten igurikatu.

- “Orduan, zerbaiten beharretan bahiz...”

- “Eskerrak, haurra!” erran zuen Deslauriers-ek.

Gero “puro” batzu pipatu zituzten, ukondoak balusazko taulan, leihoaren bazterrean. Iguzkia dirdiran zen, airea ezti, xori multzo batzu jausten ziren airean baratzerara; burdin-horizko eta harbizizko gizairudiek, euriaz ikuziak, mirail egiten zuten; sehi batzu taulieretan elheketa ari ziren kadera batzuetan jarririk; eta haurren irriak entzuten ziren, ur xirrixtak erortzean egiten zuen zurrumurru ethengabearekin.

Federik Delauriers-en gogo samintasunaz hunkia senditua zen; baina, zainetan zabilkion arnoaren eraginaz, erdi lokhartua, zurrundua, eta argia begitarte bete-betean hartuz, etzuen gehiago gozo neurrigabe bat baizik sendi, atseginez zozotua, beroaz eta hezeaz asebeta den landare bat iduri. Deslauriers, betespalak erdi hetsiak, urrunera so bezala zagon. Bularrak hantzen zizazkon, eta hasi zen erranez:

- “Ha! ederrago zian, Camille Desmoulins-ek, han mahi baten gainean zutik, jendea Bastillara bultzatzen zianean! Bazian bizia aro hartan, nork bere burua erakuts zezakeen, bere indarra phoroga! Abokat xoil batzuek jeneraler manatzen zaueten, orthuts batzuek erregeak joiten, orai aldiz...”

Ixildu zen, eta gero, bapatez:

- “Bha! ethorkizuna lodi duk!”

Eta, berinetan urratsen neurkada joiten zuela, Barthelemy-ren neurtitz hauk goraki erran zituen:

Berriz agertuko da, Bilzarre lazkarría,

Berrogei urt' ondoan buruan duzuená,

Aitzina beldur gabe urrats handiz doana.

- “Ahatzi diat gaineratekoa! Baina beranta duk, joaiten bagine?”

Eta jarraiki zuen, karrikan, bere theorietan.

Federik, hura entzun gabe, saltzalen aitzindegietara beha zagon bere bizitegiaren antolatzeako ontsa zizazkon oihal eta mubler; eta Arnoux Andereaz gogatzek zuen behar bada geldi-arazi zaharki saltzale baten hedalekuan, faianzazko hirur azieta aitzinean. Xingoleria hori

batzuez aphainduak ziren, burdina dirdira batzuekilakoak, eta balio zuten bakoitzak ehun eskudoz goiti. Bazterrera ezarr-arazi zituen.

- “Nik, hire orde,” erran zuen Deslauriers-ek, “zilharrerria eros nezakek izaitekotz,” agertuz, joritasunaren maitasun hortaz, ethorki meheko gizona.

Bakarrik izan zeneko, Federik Pomadere aipatuaren baitara joan zen, han manatu baitzituen hirur galtza, horradurarekilako bizkarreko bat eta bortz barneko motx; gero botagile baten baitan, athorragile batenean eta xapelgile batenean, manua guzier emanaz ahal bezenbat lehia zaiten.

Hirur egun berantago, arratsean, Havre-tik itzultzean, etxean aurkitu zuen jantzieria osoa; eta, erabiltzeaz ezin egonean, deliberatu zuen ordu berean Dambreuse-tarrer ikustaldi baten egitea. Baina goizegi zen, zortziak doi-doi.

- “Bertzen etxera joaiten banintz?” egin zuen bere baitan.

Arnoux, bakarrik, mirailaren aitzinean, bizarraren egiten ari zen. Jostatuko zen leku batera eremaita eskaini zaukon, eta, Dambreuse Jaunaren izenean:

- “Ha! ontsa gertatzen da! Hor ikusiko dituzu haren adixkide batzu; zaugi bada! jostagarri izanen da!”

Federik desenkusutzen zen, Arnoux Andereak ezagutu zuen haren mintzoa arte-murruaren gibeletik eta egun-ona erran, ezen alaba ez ontsan baitzuen, eta bera ere ez hobeki; eta entzuten zen kullera baten harrabotsa baso baten kontra, eta eri baten gambaran egiten den gauza eztiki higituen daldaratze hura guzia. Gero Arnoux itzali zen emazteari goraintziaren erraiteko. Arrazoin metatzen ari zen:

- “Serios dela ontsa badakizu! Joan behar dut, baitezpada, ene beha daude.”

- “Hoa, hoa, gizona. Josta hadi!”

Arnoux-ek hel egin zaukon fiakra bati.

- “Erret-Palaziora! Montpensier galeriara, 7-an.”

Eta, bere burua kuxinen gainera erortzera utzi zuen:

- “Ha! zenbat akitua nizan, adixkidea! leher eginen dut. Bertzela ere, erran dezakezut bada, zuri.”

- “Xinatarren burdin-gorri kolore haren berraurkitzea bilatzen dut.”

Eta argitu zuen zer zen faianza-azala, zer su eztia.

Chevet-en etxera heldurik, zare handi bat eman zaukoten, karrosara ereman-arazi zuena. Gero hautatu zituen “emazte gaixoarendako” mahats, ananas, jateko gauza berezi batzu, eta gomendatu biharamunean goizik eremanak izan zaiten.

Gero jantzi egile baten etxera joan ziren; dantzaldi bateko zen. Arnoux-ek hartu zituen balusa urdinezko galtzak, soineko berdin bat, perruka gorri bat; Federikek domino bat; eta Laval karrikara jautsi ziren, bigarren estaian lanterna margodun batzuek argitzen zuten etxe baten aitzinean.

Mailaldearen beherera heldu orduko, arrabiten soinua entzun zen.

- “Norat debru neramazu?” erran zuen Federikek.

- “Neskato on baten etxera! ez izan beldur!”

Athe-mutil batek ideki zauen, eta aitzin-gambaran sartu ziren, han maripulis, soineko eta lephoko utziak baitziren metan kadera batzuen gainean. Emazte gazte batek Luis XV-garrenaren dragonetako jantzian, zeharkatzen ari zuen ordu hartan. Rose-Annette Bron Andereñoa zen, lekuko jabea.

- “Eta beraz?” erran zuen Arnoux-ek.

- “Egina da!” ihardetsi zuen.

- “Ha! eskerrak, aingeruñoa.”

Eta besarkatu nahi ukan zuen.

- “Guardimak bada, zozoa! aurpegi aphaindura andeatuko dautak!”

Arnoux-ek aitzineratu zaukon Federik;

- “Jo hor, jauna, ongi-ethorria zira!”

Oihal-athea baztertu zuen gibelean, eta doinu handiz oihu egin:

- “Arnoux jauna, sukalde mutila, bere adixkidetako printze batekin.”

Federik argiez itsutua izan zen lehenik; etzuen ikusi zetarik, balusarik, soingain hasik baizik, margo meta bat orstailek gordetzen zuten orkestra baten soinuan higitzen, zeta horiz estaliak ziren murruean artean, margo arinezko potret batzuekin han eta hemen, eta krixtalezko argizut batzu Luis XVI-garrenaren moldekoak. Argitzeko gora batzu bazauden, borobil leunduak elhur pilota batzuen idurikoak zituztenak, lore zare batzuen gainetik, hauk bazter mahixka batzuetan ezarriak, izkinetan; - eta, aitzinean, bertze barne ttipiago baten ondotik, ageri zen, hirugarren barne batean, zutabe bihurtikatu batzuekilako ohe bat, buruan Veneziako miraila batekin.

Jantzak gelditu ziren, eta esku-zartatze bat izan zen, bozkariozko harramantza bat, ikusiz Arnoux aitzinatzen bere zarea buruan; janariak erdian konkorr egiten zuten. - “Beha gaineko argiari!” Federikek begiak goititu zituen: *Edergintza industrial*-eko saldegia aphaiztzen zuen “saxe” zaharrezkoa zen; lehengo egunen orhoitzapena gogoan iragan zizakon; baina lehen lerroko oinezko bat jantzi ttipitan, soldadogaier ohian emaiten zauen itxura xoxo harekin, jarri zizakon aitzinean, bi besoak baztertuz ustegabearen erakusteko; eta ezagutu zuen, muxtatx beltz punta mehe-mehe ezin itsusiagoekin izanik ere, Hussonnet lehengo adixkidea. Erdalki erdi alzaziar erdi afrikatar batean, mutiko arinak goresmenen azpian lehertzen ari zuen, bere koronela izendatuz. Federikek, jende horiez guziez nahasia, etzakien zer ihardets. Zirika batek musika atxikitzeke batean jorik, jantzariek, gizon eta emazte, bere lekuak hartu zituzten.

Hiruretan hogeit baten inguruan ziren, emazteak gehienak baserritar edo markesa moldean, eta gizonak, abantzu guziak adinekoak, garraiari, zamalari edo itsasturi jantziatan.

Federik, murru sahetsera bazterturik, aitzinean zuen kadrillari beha egon zen.

Zahar aphaiztu bat, zeta gorri-ilunezko zaia luze batekin jantziak, Veneziako dogak bat bezala, Rosanette Anderearekin jantzan ari zen, hau soineko musker, ilezko galtza eta bota guri esproin urrekilako batzuekin. Aitzinean zuten biekua egiten zuten Albaniar batek ezpata makurrez zamatua eta Suizasa begi urdin batek, esnea bezain zuri, galepherra bezain gixen, athorra has eta bulharreko gorri batekin. Zango sagarretarano jausten zizakon iletzearen hobeki ager-arazteko, neska ile hori handi bat, Operan urrats egilea, basandere moldean emana zen; eta, larru-haseko beltzaranaren gainetik, etzuen larruzko gerripeko bat baizik, berineriazko ukaraiko batzu, girgileriazko koronerdi bat, hartan xutik zagokola hegazterren lumazko azau gora bat. Haren aitzinean, “Pritchard” angeles konsularen iduriko bat, jantzi beltz irrigarriki zabalegi bat soinean, neurkadaren joiten ari zen ukhondoaz bere tabako untziaren gainean. Watteau-ren moldeko artzain ttipi batek, ilhargi xuri batean bezala zeru eta zilhar kolore, joiten zuen bere makila Bakhanta baten aldaxkari, hau mahatsez koronatu, ezkerrean lehoinabar baten larruarekin eta xingola urrekilako oski handi batzuekin. Bertze aldean Poloniarsa batek, balusa gorri-argizko soineko labur batekin, zalantzatzen zuen bere gazazko zaia galtzerdi hautsaran arinezkoen

gainean, botaxka arrosa-kolore horradura xuriz inguratu batzuetan hartuak. Erdi-irriz zagon berrogei urteko gizon zorrodun bati, beretter moldean jantzia eta biziki gora jauzika, esku batez elizathorra goititzen zuela eta bertzeaz bere xano gorria atxikitzen. Baina erregina, izarra, Lulu andereñoa zen, dantzaldi publikoetako jantzari aipatua. Aberastua baitzen orai, balusa beltz hutsezko soinekoaren gainetik bazuen dentelazko lepho inguruko zabal bat; eta haren zeta gorri-bizizko galtza zabalak, gibelaldean lotua eta gerrian kaxamirazko oihal batez tinkan, bazituen josturaren luze guzian, egiazko kamelia xuri batzu. Zuen begitarte hitsak, apur bat hantua eta sudurra goiti itzulia, oraino ozarrago iduri zuen perrukaren harroaz, gainean gizon xapel batekin, ileki tinkatu hautsaranezkoa, ukabilaldi batez eskuneko beharriaren gainera ixurkaturik; eta, egiten zituen jauzietan, oinetako arin diamantekilako begidunez abantzu hunkitzen zaukon sudurra auzoari, erdi-aro moldeko Baroin handi bat burdinazko harmadura batean dena tratatua. Bazen ere Aingeru bat, ezpata urre bat eskuan, bi beltzarga hegal bizkarrean, eta, joanez, jinez, bere zalduna noiz nahi galdua, Luis XIV-garren bat, urrats-moldetan jeus etzakiena eta kontrajantza tratatzen zuena.

Federikek, jende horier behatuz, bazuen utzia zelako sendimendu bat, ez ontsa bat. Arnoux Anderea gogoan zuen oraino eta bazidurikon haren kontra moldatzen ari zen zerbaitetan barne zela.

Kadrilla bururatua izan zenean, Rosanette Anderea ethorri zizakon. Apur bat hats-hantua zen, eta lepho azpikoa, miraila bat bezain leun, bidar-pean eztiki goititzen zizakola.

- “Eta zu, jauna, etzira jantzan ari?”

Federik desenkusatu zen, jantzan etzakien.

- “Zinez! baina enekin? segur ez?”

Eta, hanka bakar baten gainera emana, bertzaldeko belauna apur bat gibelerat, esku ezkeraz pherekatzen zuela bere ezpataren nakarazko burua, minuta batez beha egon zizakon, itxuraz erdi othoizka, erdi murrikan. Azkenean “Gauon!” egin zuen, aztalak itzuli, eta itzali zen.

Federik, bere buruaz khexu, eta zer egin ez jakinez, dantzokian ibiltzen hasi zen.

Saloin ttipian sartu zen, zeta urdin arinez gosnatua phentzetako lili floka batzuekin, gainaldean, zur urreztatuzko inguru batean, Amore batzu, zeru urdin batetik jalgiz, jostatzen ari ziren golxoin moldeko lanho batzuetan. Edergailu horiek, gaur-egun miseriazkoak lizatezkeenak Rosanette-ren berdinandako, lilluratu zuten; guzia miretsi zuen:

mirailaren ingurua aphaintzen zuten ezkarre lore artifizialak, khebideko erridauak, ohexka turkoa, eta, harresiaren gibelatze batean hartua, halako oihal-etxe bat barnea zeta gorraxtaz estalia, musulina xuria gainetik. Muble beltz batzu burdin-gorritzko aphaindurekin ezarriak ziren etzateko gambaran, han ageri baitzen, zisne larru batez estali taulada baten gainean, zutabe 'ta auztruca lumekilako ohe handia. Harrieriazko buruekilako ixkilima batzu harilgoetan sartuak, erhaztunak platera batzuetan utziak, urrez inguratu medailategi eta zilharrezko untxi ageri ziren erdi-ilunean, Bohemiako gophor batek, hirur gatinaxketan dilindan, ixurtzen zuen argiaren azpian. Athe ttipi erdi-ideki batetik, landereteegi bero bat ikusten zen zabaltza osoan hartzen zuena, hegaztindegia batek hesten zuela bertze burua.

Hori zen zinez ingurumen bat gustatzeko egina. Bere gaztetasunaren jazartze bapateko batean, hortaz gozatuko zela zin egin zuen, ozartu zen; gero, saloineko sargiara itzuliz, ezpaitzen han orai jenderik (guzia bazabilan halako errautseria dirdiratu batean), xutik gelditu zen kadriller beha, begiez klixkatuz hobeki ikusteko, - eta emazten usain goxoetan hats hartuz, baitzabilzan hedatua zen neurrigabeko musu bat bezala.

Baina ondoan zuen, athearen bertze aldetik, Pellerin; - Pellerin jantzi handitan, beso ezkerre golkoan eta eskunaz bazadukala, xapelarekin, eskularru xuri bat, urratua.

- "Oizu, aspaldi bada etzirela ikusia izana! Nun debru zinen bada? bidaian joana, Italian? Hingatua, ala ez, Italia? ez dioten bezain gogor? Hala ere! Ekharzkidazu zure marrazki gaiak, egun hautarik batez?"

Eta ihardespena igurikatu gabe, erdergilea bere buruaz mintzatzen hasi zen.

Aitzinatze ainitz egina zuen, behin betikotz ezagaturik Marraren zozotasuna. Etzen hainbertze axolatu behar Ederraz eta Batasunaz, lan batean, nola gauzen jite bereziaz eta ezberdintasunaz.

- "Guzia baita naturalezan, beraz guzia legezko, guzia molda-errex. Nota da bakarrik hatzeman behar, horra. Segeretua aurkitua dut!" Eta ukondo ukaldi bat emanez, aldi bat baino gehiagotan errepikatu zuen: - "Segeretua aurkitua dut, ikusten duzu! Horrela so egizu giza-lehoin ileantzearekilako emazte ttipi horri posta-karrosazain erruso batekin jantzan, argi da, zorrotz, hortan berean, oro leundu eta margo bizi-bizi: begi azpietan urdin-ilun, matelan gorri xafla bat, pholsuetan khedarraran; plif eta plaf!" Eta igortzen zituen, behatzaz, pinzel ukaldi

batzu bezala airera. - “Emazte lodi hura aldiz, hantxetan,” jarraiki zuen Arrainketari bat erakutsiz, gerezi-koloreko zaia batean, lephoan gurutze urre batekin eta lihokizko oihal bat bizkarrean korropilaturik, - “biribiltasunik baizik ez, sudur-hegalak bonetarenak bezala zabalik, aho izkinak goiti, bidarra erortzera, oro gizen, urtu, nasai, gozoan eta iguzkitan, egiazko Rubens bat! Beteginak dira bizkitartean! Molde gaia nun da orduan?” Buru-berotzen ari zen. “Emazte eder bat zer da? Ederra zer? Ha! ederra! erranen dautazu...” Federikek moztu zuen jakiteko nor zen akerraren itxurako Betirizuri bat, artzain-aire baten erdian jantzari guzien benedikatzen ari.

- “Jeus ez! alhargun bat, hirur semen aita. Soinekorik gabe uzten ditu, bizia “glub”-ean derama, eta sehiarekin etzaten.”

- “Eta hura han, baile baten jantzitan, leiho-arte batean elheka Pompadour-markesta batekin?”

- “Markesta, Vandael Anderea da, Gymnase-ko dantzari ohia, Palazot-eko konde Doga moldekoaren ohaidea. Horra hogeitau urte elgarrekin direla; nehork eztaki zergatik. Begi ederrak bazituenez, lehenago, emazte horrek! Ondoan duen herritarra, Herbigny-ko kapitaina izendatzen da, noizpaiteko zahar bat, ontasun orotako ohorezko gurutzea eta erretreta saria baizik eztuena, osabatzat baliatzen dena nexkato arinendako bestaburuetan, buruz-buruko guduak antolatuz eta hirian bazkalduz.”

- “Frikun bat?” erran zuen Federikek.

- “Ez! Gizon zuzen bat.”

- “Ha!”

Edergileak izendatu zauzkon bertze batzu ere, jaun bat ikusiz Moliere-ren medikuek bezala zetaki beltzezko zaia handi batekin, baina gain behera ontsa idekia, bere girgileria guzien erakusteko:

- “Des Rogis medikua itxuratzen du hunek, aipamenik eztuelakotz errabian, pornografia medikuntzako liburu bat izkiriata du, jende handien oinetako dirdiratzen ari da gogotik, ixila da; andere horiek biziki maite dute. Bera eta ezkontidea (jauregiko andere mehar hori bat zaia hautsaranetan) badabiltza elgarrekin leku publiko guzietan, eta bertzetan. Etxea beharrean izanik ere, badute *bere eguna*, - neurtitzak irakurtzen diren the “artixtika” batzu. - Behazu!”

Alabainan, Medikua jin zizeen; eta berehala egin zuten hirurek, saloinaren sartzean, elhekari multzo bat, hetaratu baitziren Hussonnet, gero Basanderearen maitalea, olerkari gazte bat, erakusten zuela,

François Lehenaren arako bizkarreko motzaren azpian, anatomia ezteusenetarik bat, eta azkenik mutiko izpiritudun bat, Turko gudukaritan emana. Baina zuen maripulis galoin horiekilakoak hainbertze bide egina zuen hortz-atheratzale ibilkarien bizkarrean, galtza zabal gorria hain histua zen, tartaro modan aingira bat bezala bihurdikatu buru-oihala hain itxura gaixokoa, jantzi guzia azkenik hain lastimagarria eta ontsa egina, nun emaztek ezpaitzuten bere higundura gordetzen. Medikiak hortaz konsolatu zuen laudorio handiekin haren ohaide Garrailarisaz. Turko hori bankolari baten semea zen.

Bi kadrillen artean, Rosanette khebideari buruz abiatu zen, han baitzagon, jargia handi batean gizon zahar ttipi biribil bat, gaztena koloreko jantzitan, botoin urrekilakoa. Lephoko xuriaren gainera erortzen zizazkon matelak zimelduak izanik ere, ile oraino horiek, eta jitez uxakur batenak bezala kuxkulatuek, bazemoten eroxkarenetik zerbait.

Entzun zuen, haren begitartera gurturik. Gero, ziropa baso bat moldatu; eta jeus etzen haren eskuak baino pollitagorik, jantzi muskerraren besoburu itzulietarik atheratzen zizazkon dentelazko mahungen azpian. Agureak edana ukan zuenean, aphanu zituen.

- "Baina Oudry Jauna da, Arnoux-en auzoa!"

- "Galdua du!" erran zuen irriz Pellerin-ek.

- "Nola?"

Longjumeau-ko posta-karrosazain batek anderea gerritik hartu zuen, balza bat hasten ari zen. Orduan, saloin inguruan alki batzuetan jarriak zauden emazte guziak jeiki ziren lerroan, zalurik; eta haien zaiak, lephoko oihalak, burukoak itzulika hasi ziren.

Hain hurbil itzultzen zizazkon nun Federikek ikusten baitzezteen bekokian izerdi xortak; - eta itzulikatze horrek gero eta biziago eta berdinago, burxoragarri, bazemon gogoan halako mozkortze bat, bertze iduri batzu hartan phizten zauzkon, guziak bazoazilarik lilluragarritasun berean, eta bakoitza bereziki sustagarri zuen eder motaren araura. Poloniarsak, bere burua malguki joaitera uzten baitzuen, emaiten zaukon bihotzaren ondoan atxikitze gutizia, biak lasterrez zoazila lera batean elhurrez estalia zen ibar batean harat. Atsegin eztieta eskualde batzu, aintzira baten ondoan, etxola batean, zabaltzen ziren Suizasaren urratsen azpian, balzan ari zelarik soingaina xut eta betespalak beheiti. Gero, bapatez, Bakhantak, bere buru beltzarana gibelerat emanez, amets egin-arazten zaukon pherekatze iresle batzuez, ereñotz-arrosadi batzuetan,

ekaitz aro batez, damborren soinu nahasi batean. Arrainketarisak, neurkada zaluegiak hats-hantzen zuena, irri aldi batzu egiten zituen; eta Federikek nahiko zaukon, harekin “Porcherons”-etan edatean, esku betez buruko oihala marruskatu, aspaldi gozo hartan bezala. Baina Garrailarisak, oin-erhiez zola doi-doia hunkitzen zuela, iduri zuen zango-besoetako malguan eta begitarteko seriosean bazaduzkala oraiko maitasunaren xotiltasun guziak, baititu jakitate baten zorrozatasuna eta xori baten higikortasuna. Rosanette itzulika zabilan, ukondoa hankan; perruka mailudunak, lephokoan jauxika, igortzen zaukon inguruan ezpata-belar errautsa; eta, itzuli bakoitzean, esproin urren puntaz, Federik abantzu hatzemaiten zuen.

Balzaren azken notaldean, Vatnaz Andereñoa agertu zen. Bazuen mokanes aljeriar bat buruan, bekokian piastra ainitz, antimoniotik begi bazterretan, halako maripulis kaxamirazko batekin zaia labur argi baten gainera erortzen zizakona, zilharrez hariztatua, eta bazadukan gatambor bat eskuan.

Haren gibeletik bazoan mutiko handi bat, Dante-ren jantzi klasikoan, Alhambrako kantari ohia zena (eta etzen orai anderea hortaz gordetzen), - horrek, bere izenaz Auguste Delamare, bere burua izendarazia baitzuen lehenik Antenor Dellamarre, gero Delmas, gero Belmar, eta azkenik Delmar, bere izena horrela aldatuz eta hobetuz, aipemena handitzen zizakon arau; ezen bastinga utzia zuen antzokian sartzeko, eta Ambigu-an hots handirekin hasia zen ere *Gaspardo Arraintzaria*-n.

Hussonnet, ohartu zizakonean, mokortu zen. Egina zuen antzertiari eza emana izanez geroz, komedialariak hastio zituen. Ezin asma zaitekeen Jaun horien handikeria, horrena, oroz gainetik! “Zer urguluntzia, ikusazu bada!”

Rosanette-ri agur arin baten ondotik, Delmar bizkarrez khebideari jarria zen; eta bazagon higitu gabe, esku bat bihotzean, oin ezkerra aitzinera, begiak zerura, erramu urreztatuzko korona burukoaren gainetik, behakoan poesia ainitzen ezartzera entseatuz aldi berean, anderen lilluratzeko. Inguratzen zen, urrundik, itzuli handi batean.

Baina Vatnaz-sa, Rosanette luzeki besarkatua ukan zuenean, ethorri zen Hussonnet-en othoiztera berrikus zezan, estiloaren aldetik, argitaratu nahi zuen erakaskuntzako liburu bat: *Jende gazten Loretegia*, literatura eta moraleko bilduma bat. Letralariak bere laguntza hitzeman zuen. Orduan, galdegin zaukon etzezakeenez, hetan sartze bazuen agerkarietarik batean, apur bat aipa-araz Delmar haren adixkidea, eta ere

gero antzerki joko aldi bat eman. Hortan Hussonnet-ek ahatzi zuen “punch” baso baten hartzea.

Arnoux-ek zuen egina; eta, Kondearen athe-mutila gibeletik platera huts bat eskuan, jender eskaintzen zauen atseginekin.

Oudry Jaunaren aitzinetik iragaitera jin zenean, Rosanette-rek gelditu zuen.

- “Eta beraz, egiteko hori?”

Apur bat gorritu zen; azkenean, agureari mintzatuz:

- “Gure andere adixkideak errana dauta onezia ukanen zinuela...”

- “Nola bada, auzoa! oro zurea!”

Eta Dambreuse Jaunaren izena ahozkatua izan zen: erdi ahapetik mintzo baitziren, Federikek nahasiki entzuten zituen; khebidearen bertze izkinara eman zen, han Rosanette eta Delmar elgarrekin solasean baitziren.

Teatrolariak bazuen begitarte arrunt bat, antzokiko edergailuak bezala urrundik ikusia izaiteko egina, eskuak lodi, oinak handi, matelhezurra phizu; eta jokari handienez gaitzerraiten ari zen, poetez goratik mintzatuz, baziola: “ene zintzurra, ene soin-ara, ene ahalak”, solasean ezarriz hitz batzu berarendako guti entzungarriak, hala nola “*morbidezera*, analogotasun, homogenetasun”.

Rosanette-rek entzuten zuen baieztatzezko buru higitze ttipi batzuekin. Miresmena zabaltzen ikusten zizakon mateletako thinduaren azpian, eta zerbait heze baziragan oihal bat bezala haren begi argietan, margo muga-ezinekoak. Nola zezakeen lillura horrelako gizon batek? Federik bere baitan ari zen haren gaitzestera sustatzen, haizatu nahiz, behar bada, harendako sendi zuen jelosia zerbait.

Vatnaz Andereñoa Arnoux-ekin zen orai; eta biziki gora irri egiten zuen batean, begi ukaldi bat bazigorran, noiztenka, Rosanette adixkideari, Oudry Jaunak ezpaitzuen begietarik uzten.

Gero Arnoux eta Vatnazsa itzali ziren; agurea Rosanette-ri ahapetik mintzatzera jin zen.

- “Baina bai, hitzemana da! Geldirik utz nezazu.”

Eta Federik othoiztu zuen sukaldera joan zadin Arnoux etzenez han ikustera.

Baso erdikala bete elementia batek estaltzen zuen zola; eta kaxak, eltzeak, arrain-erretzekoa, zartaina jauzika ari ziren. Arnoux-ek mutilak manatzen zituen hika mintzatuz, mustardakia joiten, salsak jastatzen, sehiarekin irri egiten.

- “Ongi,” erran zuen, “abisa ezazu! Zerbitzatuko dut.”

Etzen gehiago jantzatzen, emazteak jartzera joan berriak ziren, gizonak bazabiltzan. Saloinaren erdian, leihoan hedatuak ziren erridauetarik bat hantzen zen haizera; eta Giza-Lehoinak, guziek oharrak eginik ere, besoak izerditan airera uzten zituen. Nun zen bada Rosanette? Federik bila joan zen urrunago, saloin ttipi eta gambararano. Batzu, bakarrik izaiteko, ala biraka, hara sartuak ziren. Itzala eta ahapeka elhekatzeak nahasten ziren. Baziren irri ttipi batzu mokanesetan, eta doi-doia ikusten ziren papokoetan aireztatzekoan daldaratze batzu, xori zaurituen hegala ukaldiak bezain baratz eta ezti.

Landaretegi beroan sartzean, ikusi zuen, “caladium” baten orsto zabalen azpian, ur xirripa baten ondoan, Delmar oihalezko ohexkan ahuspez zabal-zabala etzana; Rosanette-ek, haren ondoan jarria, eskua ilean ezarria zaukon; elgarri zo zauden. Ordu berean, Arnoux sartu zen bertze aldetik, hegaztindegikotik. Delmar jauzian jeiki zen, eta gero jalgi urratsa baratz, gibelera itzuli gabe; eta ere, gelditu zen athe ondoan, “hibiscus” lore baten hartzeko hartaz botoin-xiloa aphaintzen zuela. Rosanette-ek aurpegia behehitu zuen; Federik, bazterrez ikusten baitzuen, ohartu zen nigarrez ari zela.

- “Ori! Zer dun bada?”

Soingainak goititu zituen ihardetsi gabe.

- “Harengatik dea?” egin zuen.

Besoak lepho ingurura hedatu zauzkon, eta, bekokian musu emanaz, emeki erran:

- “Badakik ontsa beti maitatuko hautala, gaizoa. Utz dezagun hori. Auhaltzera goazen!”

Burdin-gorritzko eta berrogei xirioekilako dilindari batek argitzen zuen sala, murrak gordetzen zizazkola lotuak ziren faianzeria zahar batzuen azpian; eta argi gordin horrek, zuzen-zuzena jautsiz, zuriago egiten zuen oraino, aitzin-janari eta fruituen artean, mahi-estalgiaeren erdia hartzen zuen gaitzeko itsas-arrain bat, bizkarekilako saldaz bete azietez inguratua. Oihaleria farraxta batean, zaiak, mahungak eta lephokoak tinkatuz, emazteak jarri ziren batzu bertzen ondoan; gizonak, zutik, izkinetan eman ziren. Pellerin eta Oudry Jauna Rosanette-ren ondoan ezarriak izan ziren, Arnoux bekoz-beko. Palazot eta haren andere adixkidea joan berriak ziren:

- “Bide on!” erran zuen Rosanette-ek, “has gaiten!”

Eta Beretterrak, gizon maltzurra, gurutzearen seinale handi bat eginez, hasi zuen *Benedicite*-a.

Andereak gaitzituak izan ziren, eta gehienik Arrainketarisa, hartaz emazte onest bat egin nahi zuen alaba baten ama. Arnoux-ek ere, “etzuen hori maite”, baitzidurikon erlisionea behar zela errespetatu.

Erloi aleman batek, oilar batez hornitua, bi orenak joz, kukuaz sorr-arazi zuen irri-solas ainitz. Mota orotako solasak jarraiki ziren: hitz-joko, ixtorio labur, espantueria, ixpixu, egiazat hartu gezur, phoroga ezinezko erranaldi, elhe harramantza bat laster solasaldi berezietan barreatu zena. Arnoak bazabiltzan, janariak elgarri jarraitzen, medikua ari zen mozten. Urrundik elgarri botatzen zen iranja bat, buxun bat; bere lekua uzten norbaitekin mintzatzeko. Rosanette usu itzultzen zen Delmar-en gana, hau higitu gabe haren gibelean; Pellerin elheketa ari, Oudry Jauna erdi irriz. Vatnaz Andereñoak karamarro meta jan zuen abantzu bakarrik, eta maskorrek joiten entzuten ziren haren hortz luzen artean. Aingerua, pianoaren alketxean emanik (hegalek jartzera utz zezaketen leku bakarra), bakean mastakatzen ari zen, gelditu gabe.

- “Zer jalea!” errepikatzen zuen Beretterrak balditua, “zer jalea!”

Eta Giza-lehoina aguardientetik edaten ari zen, zintzur guziaz oihuka, debru bat bezenbat higituz. Bapatean matelak hantu zizazkon, eta, gehiago ezin ihardokiz ithotzen zuen odolari, oihala ezpainetara eman zuen, eta gero mahi azpira egotzi.

Federikek ikusia zuen.

- “Jeus ezta!”

Eta, joaiteko eta bere buruaz artha hartzeko haren othoitzetan, ihardetsi zuen emeki:

- “Bah! zer balio du? hori ala bertze zerbait! bizia ezta hain jostagarri!”

Orduan, Federik hotz-ikaratu zen, tristezia hormagarri batek harturik, miseria eta etsipenezko mundu osoak ikusiak ukan balitu bezala, ikatz berogia bat uhalezko ohe baten ondoan, eta Hildegiko gorputzak larruzko taulierretan, ur hotz errobinetak ilen gainera darioela.

Bitartean, Hussonnet, Basanderearen oinetan kokorikatua, garrasiaz ari zen mintzo erlastu batekin, Grassot jokariaren ihakinez:

- “Ez hadila gaixto izan, oi *Celuta!* etxekoen arteko besta hau pollita dun! Atseginez mozkor nezazue, ene maiteak! Josta gaiten! Josta!”

Eta hasi zen emazter soingainean musu emaiten. Jauzikaratzen ziren, haren muxtatxez xixtatuak; gero asmatu zuen bere buruan azieta

baten haustea, ukaldi ttipi batez joz. Bertze batzuek berdin egin zuten; faianza zatiak airean zabiltzan hegaztegietao arbelak haize handi batez bezala, eta Garrailarisak egin zuen:

- “Ez jena! jeus ezta gostatzen! Egiten dituen burjesak emaitzatzen gitu!”

Begi guziak Arnoux-en gainean gelditu ziren. Ihardetsi zuen:

- “Ha! khonduarekin, barkatu!” ez nahiz hartua izan, iduriz, edo ez gehiago, Rosanette-ren maitalearendako.

Baina bi mintzo haserre erotu entzun ziren:

- “Zozoa!”

- “Frikuna!”

- “Zure manuetan!”

- “Zuretan!”

Erdi-Aroko Zalduna eta Posta-karrosazain errusoa ziren aharran; hunek erranik harmetan zenak etzuela bihoztun izaitte beharrik, bertzeak hori laidotzat harturik. Guduka hasi nahi zuen, guziak bien artean jarriak, eta Kapitaina, harramantzaren erdian, bere buruaren entzun-araztera entseatzen zen.

- “Jaunak, entzun nezazue! hitz bat! Jakina niz hortan, jaunak!”

Rosanette, ganibeta baso batean jorik, ixilaren ukaitera heldu zen; eta, kaska buruan zadukan Zaldunari mintzatuz, gero Posta-karrosazainari ile luzekilako boneta buruan:

- “Ekhen ezazu lehenik zure kaxa! irekitzen nau! - eta zuk, han, zure otsaburua, debrienxoa! Behazue bada ene soingainekoetara ! Zuen marexalsa niz!”

Hala egin zuten, eta guziek eskuzartatu zuten oihuka:

- “Biba Marexalsa! Biba Marexalsa!”

Orduan, hartu zuen berogiaren gainetik Xampañako arno botoila bat, eta goratik ixuri, eskaintzen zizazkon bekokietara. Mahia zabalegi baitzen, gomitak, emazteak oroz gainetik, haren aldera eman ziren, oinen punttara jeikiz, kaderen zirietan, horrek egin baitzuen minuta batez ileantzez, soingain hasez, beso luzatuz, soin gurtuzko multzo piramida moldeko bat; - eta arno zirrizta luze batzuek marratzen zuten hortan guzian, ezen Betirizuria eta Arnoux, salaren bi izkinetan, bakoitzak botoila bat ixuriz, ari ziren begitarten ziliportatzen. Hegaztindegiko xori ttipiak, athea idekirik utzia baitzen, barnean barreatu ziren, osoki ohilduak, berinetan joiten zutela, mubletan; eta batzuek, buruen gainean gelditurik, bazuten adatsen erdian halako lore zabal batzuen iduria.

Musikariak joanak ziren. Pianoa ekharri zen aitzin-gambaratik saloinera. Vatnaz-sa hartan jarri zen, eta, Beretterrak lagundurik gathamborrarekin, kontrajantza batean hasi zen eroki, hunkigaietan joz zaldi batek putinka bezala, eta gerria ibiliz neurkadaren hobeki emaiteko. Marexalsak ereman zuen Federik, Hussonnet itzulika ari zen, Garrailarisa klun bat bezala hausten zen, Betirizuriak bazituen zimino gorri baten moldeak, Basandereak, besoak zabalduarik, xalupa baten harat-hunata itzurutzen zuen. Azkenean oro, ezinduak, gelditu ziren; eta leiho bat ideki zen.

Egunargia sartu zen, goizeko hoxturarekin. Ustegabetzezko oihu bat izan zen, gero ixil bat. Gar horiak zalantzatzen ziren, artetan ezko-bilgiak jauz-araziz; xingola, lore ‘ta perla zolan ihaurtuak ziren; puntx eta ziropakiek bazter-mahixkak lekatzen zituzten; erridauak zikinduak ziren, jantziak zimurtuak, erraustuak; adats bihurdikak soingainetan dilindan; eta thindadurak, izerdiarekin bazariola, agertzen zituen aurpegi histu batzu, betespal gorrituak klixkaka.

Marexalsak, mainu batetik atheratzean bezain frexko, matelak arrosa-kolore zituen, begiak dirdiran. Perruka urrunera egotzi zuen; eta iletzea inguruan erori zizakon, jantzi guzitik galtzak baizik ikustera ez utziz, horrek ondorio irrigarri eta aldi berean goxagarri bat ukan baitzuen.

Gizalehoinsak, hortzak sukarez klaskaka, ukan zuen lephoko baten ezartzeko beharra. Rosanette-ek gambarara laster egin zuen horren bila, eta bertzea jarraitzen baitzizakon, athea sudurrera hetsi zaukon, bizi-bizia.

Turkoak oharr-arazi zuen, gora-gora, Oudry Jauna etzela atheratzen ikusia. Bat etzen maltzurkeria hortaz mintzatu, hain ziren akituak.

Gero, karrosak igurikatuz, xartex eta bizkarrekoez inguratu ziren. Zazpi orenek jo zuten. Aingerua beti salan zen, gurin eta xardina kompota baten aitzinean mahian gelditua; eta Arrainketarisa, haren ondoan, zigarreta pipatzen, bizi-aholku galdez ari zizakon batean.

Azkenean, fiakrak jinik, gomitak joan ziren. Hussonnet-ek, probinziarako eskutitz egiten erabilia izanez, irakurri behar zituen bazkal aitzin berrogei-ta hamar egunkari; Basandereak bazuen errepikatze bat bere antzokian, Pellerin-ek “modela” bat ikusteko, Beretterrak hirur hitzhartze. Baina Aingerua, barne nahaste baten lehen seinalek hartua, etzen zutitu ahal izan. Erdi-Aroko Baroinak ereman zuen karrosarano.

- “Beha ezak hegaler!” oihukatu zuen leihotik Garrailarisak.

Mailartean ziren, Vatnaz-sak erran zaukolarik Rosanette-ri:

- “Ikus arteo, maitea! biziki ontsa zunan, hire arratsa.”

Gero, haren beharrira gurtuz:

- “Atxikan!”

- “Ordu hobe batzu arteo,” egin zuen Marexalsak bizkarra itzuliz, emeki.

Arnoux eta Federik elgarrekin itzuli ziren, jinak ziren bezala. Faianza saltzaleak bazuen itxura bat hain iluna nun lagunak ez ontsan zela uste ukan baitzuen.

- “Ni? Ez batere!”

Muxtatxari ausikika ari zen, bekainak izurtuz, eta Federikek galdegin zaukon etzirenez egitekoak oinazkatzen zutenak.

- “Batere!”

Gero, bapatez:

- “Ezagutzen zinuen, eztea hala, Oudry aita?”

Eta, gorromiozko doinu batekin:

- “Aberatsa da, frikun zaharra!”

Gero, Arnoux mintzatu zen egun berean egin behar zen balio handiko labealdi batez, haren landegian. Treina oren baten buruan zoan. “Behar dut alta emaztearen besarkatzera joan.”

- “Ha! emaztea!” egin zuen bere baitan Federikek.

Gero etzan zen, ezin jasaneko oinaze batekin garondoan; eta baso bat ur edan zuen egarriaren eztitzeko.

Bertze egarri bat jina zizakon, emaztena, aberaskeriarena eta bizitze paristarrak badadukan guziarena. Apur bat burxoratua sendi zen, untzitik jausten den gizon bat bezala; eta, lehenbiziko loaren lilluramenean, ikusten zituen iragaiten eta berriragaiten Arrinketarisaren soingainak, Garrailarisaren gerria, Poloniarsaren zango sagarrak, Basanderearen adatsa. Gero bi begi beltz handi, jantzaldian etzirenak, agertu ziren; eta, pinpirinak bezain arin, zuzi batzu bezain gartsu, joaiten ziren, jiten, daldaratzen, gaineko izkinarano igaiten, haren ahorano jausten. Federik errabiatzen zen begi horien ezagutzeko, hortara heldu gabe. Baina ametsak jadanik hartua zuen; bazirudikon Arnoux-en ondoan uztartua zela, fiakra baten lardaian, eta Marexalsak, gainean ixtakoloka, bere esproin urrez sabela urratzen zaukola.

II

Federikek aurkitu zuen, Rumfort karrikaren izkinan, hotel ttipi bat eta erosi zituen, aldi bakar, karrosa motza, zaldia, mubleak eta bi landare untzi, Arnoux-en etxean hartuak, saloinaren atheko bi aldetan ezartzeko. Barne horren gibelean, baziren gambara bat eta gabinet bat. Ukan zuen Deslauriers-en han ezartzeko gogoia. Baina nola hartuko zuen, *hura*, Federiken geroko ohaidea? Adixkide baten han izaitea eragozpen izanen ote zen? Arte-murrua aurdiki zuen saloinaren handitzeko, eta gabinetetik egin pipagune bat.

Erosi zituen maite zituen poetak, Bidaia, Atlas, Hiztegi batzu, ezen bazituen ezin zenbatuzko lan xedeak; langileak hertsatzen zituen, bazabilan saldegietan, eta, gozatzeko ezin egonean, guzia bazeraman merkatatzen ari izan gabe.

Saltzalen khonduen araura, Federik ohartu zen beharko zuela gutitan berrogei mila liberako bat ordaindu, ondoriotasuneko gastuak barne hartu gabe, hauk hogeita hamar milakoa gaindituko baitzuten; fortuna lurreko ontasunetan baitzuen, Havre-ko notariari izkiriatu zaukon zati bat sal zezan, zituen zorrez arintzeko eta eskupean diru zenbaiten ukaiteko. Gero, *mundua* deritzoten gauza bitxi, dirdirant eta muga ezin hura ezagun nahiz, Dambreuse-tarrer eskatu zauen hitz batez onhar zezaketenez. Andereak ihardetsi zaukon haren ikustaldiaren itxaropenean zagola biharamuneko.

Ikuslarien ukaiteko eguna zen. Karrosa batzu bazauden korralean. Bi morroin lasterrez jin ziren berinapera, eta heren bat, mailaldearen gainean, aitzinean abiatu zizakon.

Iragan zituen aitzin-gambara bat, bigarren barne bat, gero leiho gora batzuekilako saloin handi bat, haren khebideak baitzadukan borobil moldeko erloi bat, porzelanazko bi untzi gaitzekoekin hetan zaudela multzoan bi urrezko berro bezala, bi ezko-bilgi azau. *Espagnolet*-aren arako bi marrazki dilindan zauden harresian; tapizeriazko athe-oihal phizu batzu erortzen ziren maiestaterekin; eta jargiak, bazter-mahiak, mahiak, mubleria guziak, Imperio moldekoa zena, bazuen zerbait handi eta embaxada itxurako. Federik erdi-irriz ari zen atseginarekin, berak nahi ukan gabe.

Heldu zen azkenean arraultzekarako barne batera, arrosa zureztatua, muble pollitenez bete-betea eta baratzeraz bazeman mirail bakar batek argitzen zuena. Dambreuse Anderea sutondoan jarria,

hamabi bat jendek itzulian inguratzen zuten. Hitz goxo batekin, jar zadin kheinu egin zaukon, baina aspaldidanik ez ikusia ukanik ustegabetua iduritu gabe.

Goraipatzen zen, sartu zenean, Cœur aphezaren elheko doinua. Gero sehien gaiztakeriaz lastimatu zen, gambara mutil batek egina zuen ohointzaren gatik; eta erran-merranak ibili ziren. Sommery-ko andere zaharrak bazuen marranta bat, Turvisot-eko Anderaurena ezkontzen zen, Montcharron-darrak etziren itzuliko urtarrila bururatu baino lehen, Bretancourt-tarrak ere ez, orai baserrian berant egoiten zen; eta solasen ezteusa azkartua bezala bilakatzen zen inguruko gauzen aberatsaz; baina erraiten zena etzen elhekatzeko moldea bezain zozoa, helbururik gabe, jarraipenik eta bizitasunik gabe. Baziren hor, bizkitartean, bizian jakinak ziren gizonak, minixtro ohi bat, parropia handi bateko erretora, bizpahirur gobernuko ofiziar. Zenbaitek bazuten aitorenseme alharguntsa batzuen itxura akitua, bertze batzuek abere tratulari batzuen ibilera; eta agure batzu bazauden bere emazten ondoan, bere burua hauen aitabitxiendako harr-arazia ukan zezaketelarik.

Dambreuse Andereak guziak garaziarekin hartzen zituen. Eri bat aipatzen zeneko, bekainak bihotzminekin zimurtzen zituen, eta itxura alai bat hartzen solasa jantzaldiz eta arratseko atheraldiz baldin bazen. Laster utzi beharko zituen, ezen ikastetxetik athera-araziko baitzuen senarraren iloba bat, nexkato emazurtza. Artha hartze hori goretsi zen, egiazko ama familiako batenaren egitea zen.

Federik hari beha zagon. Haren begitarteko larru dirdira gabeak thiran iduri zuen, eta frexko baina ez argi, begiratua zen fruitu batena bezala. Baina ileak, angeles aran bihurdukatuak, zeta baino meheago ziren, begiak urdin argi, jestu guziak pollit. Xokoan jarria, kanape ttipi batean, sutaitzineko oihal xaponex baten punpula gorriak pherekatzen zituen, eskuen erakusteko, iduriz, esku luze hertsu batzu, apur bat meheak, erhi punttak goiti itzuliak. Bazuen zaia hautsaran leinurudun bat, soingaina tinki goiti, higanaut zintzo batena bezala.

Federikek galdegin zaukon aurten etzenez La Fortelle-ra jinen. Dambreuse Andereak etzakien batere. Hori Federikek onhar zezakeen, bertzela: Nogent-ek hura aspertzen zukeen? Ikuslariak gehituz zoazin. Zaien azantza tapizan etzen gelditzen; anderek, kaderen hegian emanik, irri-karkara ttipi batzu igortzen zituzten, bizpahirur hitz ahozkatzen, eta, bortz minuten buruan, abiatzen ziren bere nexkato gaztekin. Berehala,

solastatzea ezin jarraikia bilakatu zen, eta Federik bazoan Dambreuse Andereak erran zaukolarik:

- “Aztezken oroz, eztea hala, Moreau Jauna?” erranaldi bakar hortaz ordaintzen zuela erakutsia zuen axolagabea.

Askietsia zen Federik. Hala ere, aire ufa handi batez hats-hartu zuen karrikan; eta ingurune gutiago izun baten beharretan, orhoitu zen berriz ikustaldi bat zor zaukola Marexalsari.

Aitzin-gambarako athea idekia zen. Bi barneko xakur habanatar jin ziren lazterrez. Mintzo batek oihu egin zuen:

- “Delfina! Delfina! - Zu zirea Felitz?”

Han zagon aitzina joan gabe; bi xakur ttipiak saingaka ari ziren beti. Rosanette agertu zen azkenean, dentelaz aphaindu musulina xurizko gambara-jantzi mota batean, oinak hasik xapata batzuetan.

- “Ha! barkatu, jauna! ilemozkinarentzat hartzen zinitutan! Minuta bat! Heldu niz!”

Eta jateko salan bakarrik gelditu zen.

Leiho saretak hetsiak ziren. Federik begiak bazabiltzan barnean gaindi, aitzineko gauko harramantzaz orhoituz, ohartu zenean, erdian, mahiaren gainean, gizon xapel bati, feldro zahar bat korkatua, urindua, higungarria. Norena xapel hori? Bere gain urratua erakutsiz ahalgerik gabe, iduri zuen baziola: “Hortaz ontsa irri egiten dut! Nagusia niz!”

Marexalsa ethorri zen. Federik hartu zuen, landaretegia ideki, hara egotzi, athea berriz hetsi (bertze athe batzu, aldi berean, idekitzen eta hesten ziren), eta, Federik sukaldetik iragan-arazirik, ikhuztegira sarr-arazi zuen.

Ageri zen, berehala, etxeko leku erabiliena zela, eta hango erdigune moral egiazkoa. Oihal persiar orstail handidun batek estaltzen zituen murrak, jargiak eta etzangia guri zabal bat; harzurizko mahi baten bi aldetan baziren faianza urdinezko bi askaño; gainean taulada moldeko krixtal batzu bete-beteak ziren bottoilaz, eskuilez, orrazez, kozmetika ziriz, errauts untziz; suak mirail xut batean argitzen zuen; mihise bat dilindan zagon mainuntzi batetik, eta sendi ziren amandaki eta benzoki usainak airean.

- “Desordenua barkatuko duzu! Gaur, hirian auhaltzen niz.”

Eta, aztaletan itzultzen ari zelarik, xakur ttipietarik bat lehertzer zuen. Federik loriagarri zirela erran zuen. Biak hartu zituen, eta haien muttur beltza hartarano goitituz:

- “Hea, irriño bat, jaunari musu.”

Gizon bat, lepho horradurarekilako maripulis zikin bat soinean, sartu zen bapatez.

- “Felitz, gaizoa,” erran zuen, “behar duzuna heldu den igandean ukanen duzu, hutsik gabe.”

Gizona orraztatzen hasi zizakon. Adixkiden berriak erraiten zauzkon: Rochegune-ko Anderea, Saint-Florentin-go Anderea, Lombard Anderea, guziak nobleak baitziren, Dambreuse-ko hotolean bezala. Gero antzokiez mintzatu zen; ohigabeko ikusgarri bat emaiten zen gaur Ambigu-an.

- “Joanen zirea?”

- “Alafe, ez! Etxean egoiten niz.”

Delfina agertu zen. Erasiatu zuen haren baimenik gabe atherarik. Bertzeak uko egin zuen “merkatutik heldu zela”.

- “Ongi beraz, liburua ekharrazu!- Onhartzen duzu, eztea hala?”

Eta, liburua erdi ahapetik irakurriz, Rosanette-ek oharrak egiten zituen artikulu bakoitzean. Khondua gaizki zen;

- “Itzul ezaztazu laur sos!”

Delfinak itzuli zituen, eta, igorria ukan zuenean:

- “Ha! Ama Birjina! ezkirenez aski zorigaitzeko jende horiekin!”

Federik erasia hortaz gaitzitu izan zen. Bertzeak sobera gogoratzen zauzkon, eta bi etxen artean bazeman halako berdintasun nardagarri bat.

Delfina, itzulirik, Marexalsaren gana hurbildu zen ahapetik beharrira hitz baten erraiteko.

- “He ez! eztut nahi!”

Delfina berriz ethorri zen.

- “Anderea, hisitzen da.”

- “Ha! zer nahigabea! Igorran kampora!”

Ordu berean, andere zahar beltzez jantzi batek athea ideki zuen. Federikek jeus etzuen etzun, jeus ez ikusi; Rosanette jauziz joana zen gambarara, haren aitzinera.

Berriz agertu zenean, matel-hezurak gorrituak zituen eta jargietarik batean jarri zen, mintzatu gabe. Nigar bat erori zizakon matelara; gero mutiko gaztearen gana itzuliz, eztiki:

- “Izena zer duzu?”

- “Federik”.

- “Ha! Federiko! Eztuzu gaizki hartzen horrela deitzen bazitut?”

Eta so pherekari bat egiten zaukon, abantzu maitasunezkoa. Bapatez, bozkariozko oihu bat egin zuen Vatnaz Andereñoa ikusiz.

Emazte artixtak etzuen astirik galtzeko, behar baitzuen, sei orienetan zuzen, bere gomiten mahi buruan izan; hats-hantua zen ere, ezindua. Lehenik, bere zaretik athera zuen ukharaiko oren bat paper batean, gero bertze gauza batzu, erospen batzu.

- “Jakinen dun badirela, Joubert karrikan, Zuedako eskularri batzu hogeita hamar sosetan, miragarriak! Thindatzaleak eskatzen dauzkin oraino zortzi egun. Gipurarendako, erran dinat berriz joanen girela. Bugneaux-ek aitzin-ordaintzea ukana din. Horra guzia, ene ustez? Ehun eta lauretan hogeita bortz libera dautan zor!”

Rosanette joan zen tiradera batetik hamar nopoleonen hartzera. Bietarik batek etzuen xeherik. Federikek eskaini zuen.

- “Itzuliko dauzkitzut,” erran zuen Vatnaz-sak, hamabortz liberak zarearen zolan sartuz. “ Baina itsusi bat zira. Etzitut gehiago maite, enauzu aldi bakar batez jantza-arazi, joan den egunean! - Ha! maitea, aurkitu dinat, Voltaire kaian, saldegi batean, uli-xori lastoztatuekilako kadre bat, maitatzekoak direnak. Hire ordeaz, nihauri eskain nezazkenan. No! Nola zaun hau?”

Eta erakutsi zuen zeta gorri zati zahar bat Temploan errosia zuena Delmar-i erdi-aroko moldean soineko motz baten egiteko.

- “Izan dun egun, eztea hala?”

- “Ez!”

- “Bitxi dun!”

Eta, minuta bat berantago:

- “Gaur norat hoa?”

- “Alfonsinaren etxera,” erran zuen Rosanette-ek; arratsa iragan behar zuen araz heren moldea baitzen hori.

Vatnaz Andereñoak egin zuen berriz:

- “Eta Mendiko zaharraz, zer berri?”

Baina Marexalsak, bapateko begi kheinu batez, ixil zadin manatu zaukon; eta Federik lagundu zuen aitzin-gambararano, Arnoux laster ikusiko zuenez jakiteko.

- “Othoitzazu bada jin dadin; ez emaztearen aitzinean, erran gabe doa!”

Mailen gainaldean, euritako bat utzia zen harresiaren kontra, kloska pare baten ondoan.

- “Vatnazsaren kautxuak,” erran zuen Rosanette-ek. “Zer oina, he? Azkarra da ene adixkideñoa!”

Eta melodramako doinu batekin, azken hizkia luzatuz:

- “Fidatu ez beharrrr!”

Federikek, azken segetu hortaz ausarturik, nahi ukan zaukon lephoan musu egin. Erran zuen hotz-hotza:

- “Oi! Egizu! Kittorik da!”

Arin zen hortik jalgitzean, ezpaitzuen dudatzen Marexalsa laster ohaide bilakatuko zizakola. Gutizia horrek bertze bat iratzarri zuen; eta, harendako bazatxikan halako gorromio bat ukanik ere, Arnoux Anderearen ikusteko gura bat ukan zuen.

Bertzela ere joan behar zuen Rosanette-ek galdeginarendako.

- “Baina, orai,” gogatu zuen (seiak joiten ari ziren), “Arnoux etxean dateke.”

Ikustaldia biharamunera gibelatu zuen.

Han zagon lehen eguneko egonara berean, haur athorra baten josten ari; mutiko ttipia, haren oinetan, zurezko ihizitegi batekin jostatzen; Martha, urrunxago, izkiriartzen ari zen.

Haurrez komplimendu eginez hasi zizakon. Ama xoxokerietan batere soberakinik gabe ihardetsi zuen.

Gambarak bazuen bakezko itxura bat. Iguzki eder bat sartzen zen berinetarik, muble izkinek dirdiratzten zuten, eta, Arnoux Anderea leihoaren ondoan jarria baitzen, arrai handi batek, garondoko ile kuxkulak joz, urreztatzen zaukon larru ambaratua. Orduan, Federikek erran zuen:

- “Huna nexkato gazte bat ontsa handitua dena hirur urtez geroz!
- Orhoit zirea, Andereñoa, ene belaunetan lo zinaudelarik? “ Martha etzen orhoitzen. “Arras batez, Saint-Cloud-etik itzultzean?”

Arnoux Anderea so bat ukan zuen bereziki trixtea. Elgarren orhoitzapenez aieru ororen debekatzeko zena?

Begi beltz ederrak, zuringoa dirdiran, bazabiltzan emeki betespal apur bat phizuen azpian, eta bazen haren ñiñiken barnatasunean onezia bat mugagabekoa. Ehoiz baino azkarragoko maitasun batez, neurrigabekoaz, hartua izan zen berriz: hari beha egoiteak kukultzen zuen, inharrosi zen alta. Nola balia-araz bere burua? zeren bidez? Eta, bila ontsa ibilirik, Federikek etzuen dirua baino deus hoberik aurkitu. Eta aroaz mintzaten hasi zen, Havre-en baino gutiago hotza zela.

- “Izana zira?”

- “Bai, egiteko bat... familiakoa... ondoriotasunaz.”

- “Ha! ontsa askietsia niz,” egin zuen berriz atseginezko itxura hain egiatiarekin nun Federik hunkia izan baitzen zerbitzu handi batez bezala.

Gero zer egin nahi zuen galdegin zaukon, gizon batek zerbaitetan ari behar zuelakotz. Bere gezurraz orhoitu zen eta erran zuen Estatuko Konseiluan sartzera heltzeko ustea bazuela, Dambreuse Jaunari, deputatuari esker.

- “Ezagutzen duzu, behar bada?”

- “Izenez, bakarrik.”

Gero, mintzo aphanatu batekin:

- “Jantzaldirat ereman zitu *bark*, joan den egunean, eztea hala?”

Federik ixilik zagon.

- “Hori nuen jakin nahi, eskerrak.”

Ondotik, bizpahirur galde ttipi egin zauzkon familiaz eta probinziak. Ontsa ona zen hain luzaz han egonik, hek ahatzi gabe.

- “Baina..., egin nezakeena?” erran zuen berriz. “Dudatzen duzua?”

Arnoux Anderea zutitu zen.

- “Uste dut baduzula guretako amodio bat ona eta azkarra. - Goraintzi... ikus arteo!”

Eta eskua luzatu zuen molde zintzo eta gizonarako batean. Etzena urrats bat, agintza bat? Federik bizitzeaz osoki alai sendi zen; indar egiten zuen ez kantuz hasteko, bazuen beretik zerbaiten emaiteko behar bat, bihotz-zabaltasunezko emaitza eta elemosin egiteko bat. Laguntzeko norbait etzenez inguruan behatu zuen. Miserian zen nehor etzen iragaiten ari; eta zerbitzu emaiteko nahikaria hori ezeztatu zen, ezpaitzen gertaldi bila urrun ibiltzeko gizona.

Gero bere adixkidez orhoitu zen berriz. Gogoan ukan zuen lehena Hussonnet izan zen, bigarrena Pellerin. Dussardier-en ofizio ezin ttipiangoak ikustatez artzea manatzen zuen alabainan; Cisy-ri aldiz, loriatzen zen bere fortunaren ikus-arazteaz. Izkiriatu zauen beraz lauer “laratzaren ezartzera” jin zaitezten ondoko igandean, hameketan zuzen, eta Deslauriers-i manatu zaukon ekhar zezan Senecal.

Erakasle ordaina hirugarren ikastetxetik igorria izana zen sari emaiterik ez nahi ukanik, berdintasunarendako hilgarri baitzaudukan ohitza hori. Orai mekanika egile baten etxean zen, eta sei ilabete bazen etzela Deslauriers-ekin bizi.

Haien berexreak etzuen penagarririk deus ukana. Senecal-ek, lehenbiziko demboretan, ukaiten zituen laneko jantzitan ziren gizon batzu, guziak abertzale, guziak langile, guziak jende onak, baina haien lagundia aspergarri zizakon abokatari. Bertzela ere, adixkidearen ideia batzu, hautak gerlako harmatzat, etzizazkon laket. Ixilik zagon handinahiz, hura eztiki erabili nahiz bere nahitara eremaiteko, ezen iraultza handi baten aiduru ezin egonean zen, ontsa uste baitzuen hartan bere ziloa eginen zuela, kargu bat ukanen.

Senecal-en gogamenak abantail nahi gabeagoak ziren. Arrats oroz, lana bururatua zuenean, bere hegaztegi-pera igaiten zen, eta liburuetan ari zen bere ametsen egiaztatzeakoaren bila. Oharrak ezarriak zituen *Contrat social*-ean. Betetzen zen *Revue indépendante* delakoaz. Bazazkien Mably, Morelly, Fourier, Saint-Simon, Comte, Cabet, Louis Blanc, idazle zozialixten orgatara phizua, gizaldearendako soldadotegietako heina galdegiten dutenak, atsegindegi batean libertitu nahi dutenak edo khondu-mahi batera bortxatu; eta, hortaz guziaz, demokrazia bertutedun bateko gogamen ametsezko bat moldatua zuen, baitzuen irundegi baten eta laboretxe baten itxura bikuna, halako Lakedemonia amerikar bat jendea ezpaitzen han Gizaldearen zerbitzuko baizik izanen, Gizalde bat Lama Handiak eta Nabukodonozorak baino bothereguzizkoagoa, osoagoa, ezin hutseginkorragoa eta jainkoagoa. Duda bat etzuen gogamen horren ethorkizun hurbilaz; eta horren etsai zela uste zuen guziari, gaizki egiten zaukon amorratuki, lur-neurle baten arrazoinamenduekin eta inkisidore baten gogo onarekin. Nobleziako tituluek, gurutzek, buru-gandorrek, sehi-jantziek oroz gainetik, eta ere aipamen ozenegiek, sumintzen zuten, - egun oroz ikasketek nahigabek bezala berpizten zaukotela berezitasun edo gehientasun ororen hastio baitezpadakoa.

- “Zer daukot zor jaun horri ikustate egiteko? Ene nahitan baldin bazen, ethor zaitekeen!”

Deslauriers-ek ereman zuen.

Adixkidea etzateko gambaran aurkitu zuten. Itzalkari eta erridau handi, Veneziako mirail, ezerek etzuen han huts egiten; Federik soineko balusazkoan, jargia handi batean hedatua zen, tabako turkozko zigarreta erretzen.

Senecal ilundu zen, atseginezko bilkuretara ereman debotizunak bezala. Deslauriers-ek guzia begi ukaldian hartu zuen; gero biziki behera gurtuz:

- “Enejauna! errespetuak eskaintzen dauzkitzut!”

Dussardier lephora jauzi zizakon.

- “Aberats zira beraz orai? Ha! hobe, alajinkoa, hobe!”

Cizy agertu zen, dolu oihal bat xapelean. Amabitxi hilez geroz, gaitzeko fortuna batez gozaten zen, eta gutiago zuen jostatu nahi nola bertzetarik berexi, jende guzia bezala ez izan, “itxura bat ukan”. Haren hitza zen.

Eguerdi zen bizkitartean, guziak aharrausika; Federik norbaiten aiduru zagon. Arnoux-en izenean, Pellerin-ek ihakin bat egin zuen. Edergintzak utziak zituenaz geroztik ukoegile batentzat zadukan.

- “Hura gabe baginaude? zer diozue?”

Orok baieztatu zuten.

Poloin luzekilako mutil batek athea ideki zuen, eta jateko sala ikusi zen urrez inguratu haritzeko zur bazter gorarekin eta baxeraz kargatu bi alasekin. Botoila arnoak epheltzen ari ziren berogiaren gainean; ganibet berrien burdinek dirdiratzten zuten ostren ondoan; baso mehe-mehen esnekarako margoan bazen eztitasun erakargarri bat, eta mahia gordetzen zen basa-ihizi, fruitu, ohigabeko gauza batzuen azpian. Artha horiek debaldekoak izan ziren Senecal-endako.

Etxe ogitik galdeginez hasi zen (ahal zen bezain idorra), eta, gai hortan, Buzançais-ko erahiltzez mintzatu zen eta jangaien eskasaz.

Horrelakorik ezer etzen gertatuko laborantza hobeki gerizatzen bazen, guzia ezpaliz burkidetzara utzia, anarkiara, “utz egitera, utz iragaitera” erregela lastimagarrira! Horra nola badarraikan diruaren feodalitateak, bertzea baino gaitzagoa! Baina guardi eman bedi! jendea, azkenean, akituko da, eta bere oinazeak ordain-araz lezazke kapitalaren jabe direneri, ala bahitze odol ixurgarri batzuez, ala haien hotelen ebasteaz.

Federikek ikusi zuen, ximixta batean, gizon beso hasekilako uhain bat Dambreuse Anderearen saloin handira sartzen, mirailak hautsiz zikai ukaldika.

Senecal-ek bazarraikan: langilea, irabazien eskasa ikusiz, ilota, beltza eta paria baino zorigaitzekoago zen, haurrak baldin baditu oroz gainetik.

- “Behar dua hetaz arindu ithotzearen bidez, nik dakita zein mediku angeles, Malthus-en ganik jalgi batek aholku emaiten daukon bezala?”

Eta Cizy-ren gana itzuliz:

- “Malthus hastiagarriaren aholkuetara hertsatuak izanen girea?”

Cizy-k, hastiagarritasuna ezagutzen ezpaitzuen eta Malthus bazela ere, ihardetsi zuen ainitz miseria arintzen zela bizkitartean, eta giza-lerro gorenek...

- “Ha! giza-lerro gorenak!” erran zuen, irri erkats batekin, zozialixtak. Lehenik, ezta gora izaiterik bihotzaz baizik! Eztugu elemosinarik nahi, badantzuzu! baina berdintasuna, emaitzen banakatze zuzena.”

Eskatzen zuena, langilea kapitalixta bilaka ahal zadin zen, soldadoa koronel bezala. Ofizialen bilzarrek, bederen, apendizzen zenbata mugatuz, etzuten langilen metatzera uzten, eta anaiatasunaren sendimendua bestek, ikurrinek bazatxikaten bizirik.

Hussonnet, poeta bezala, ikurrinez urrikitan zen; Pellerin ere, gustu hori ostatuan jina baitzizakon “phalanstère”-tarrak mintzatzen entzunez. Fourier gizon handi bat zela erran zuen.

- “Goazen bada!” erran zuen Deslauriers-ek. “Thizi zahar bat! Imperioen iraultzetan Jainkoaren mendekioak ikusten dituen! Saint-Simon jaunaren eta haren elizarendako bezala da, Iraultza frantzesarendako duen herrarekin: katolikotasunaren ukaldia berregin nahiko luketen trufari andana bat!”

Cizy-ko Jauna, argitasun ukaiteko, iduriz, edo bere buruaz gogamen on baten emaitako, hasi zen eztiki erranez:

- “Bi jakintsun horiek eztira beraz Voltaire-ren aburuko?”

- “Hori, uzten dautzut!” egin zuen berriz Senecal-ek.

- “Nola? Uste nuen, nik...”

- “He! ez! etzuen jende xoila maite!”

Gero solasaldia orduko gertakarietara jautsi zen: ezkontza espagnolak, Rochefort-eko gastu zuzengabeak, Saint-Denis-ko kapito berria, horrek zergen bikuntzea ekharriko baitzuen. Senecal-ek zionaz, aski ordaintzen zen, alta!

- “Eta zergatik, ene Jainkoa? Museum-ko ziminoer palazio batzuen eraikitzeke, plazetan ospez armado buruzagi argituen ibil-arazteko, edo, Jauregiko mutilerian, “etiketa” erdi-arotar batzuen atxikitzeke!”

- “*Moda*-n irakurri dut,” erran zuen Cizy-k, “San-Fernandotan, Teilerietako dantzaldian, jende guzia “chicard”-etan jantzia zela.

- “Eztenez urrikgarri!” egin zuen zozialixtak, higuntasunez soingainak goitituz.

- “Eta Versailles-ko musea!” erran zuen Pellerin-ek. “Aipa dezagun! Zozo horiek Delacroix bat laburtua dute eta Gros bat luzatua! Louvre-an, hain ontsa dira margazki guziak berritu, thorratu eta phurtzikatu nun, hamar urteren buruan, bat ezpaita behar bada geldituko. Katalogako hutsak aldiz, Aleman batek liburu oso bat egin du hetaz. Atzerritarrek, egia, irri egiten daukute!”

- “Bai, Espainiaren irria gira,” erran zuen Senecal-ek.

- “Eta hori Edergintza Koronaren menean ezarria delakotz.”

- “Ororen boz emaita ukanen eztuzueno!...”

- “Barka ezazu!” ezen edergilea, hogeitaz geroz saloin guziek baztertuta baitzuten, Botherearen kontra erotuta zen. “He! geldirik utz gitzaztela. Nik, jeus eztut eskatzen! bakarrik Gambarek behar lukete Edergintzaren beharrez deliberatu. Ezarri behar lizateke ezthetikazko katedra bat, hartako erakaslea, gizon aldi berean ofiziokoa eta filosofoa, hel bailaiteke, badut uste, guzien elgarretara biltzera. - Ontsa balegikezu, Hussonnet, hortaz hitz bat zure egunkarian ezarriz!”

- “Egunkariak libro direa? hala girea gu?” erran zuen Deslauriers-ek haserretuz. “Gogoari emaiten bada hogeitaz zortzi gauzetarano egin behar direla urean untzixka baten ezartzeko, gizajalen artean bizitzera joaiteko gutuziak hartuta niz! Gobernamentuak iresten gitu! Oro harena da, filosofia, zuzenbidea, edergintzak, zeruko airea; eta Frantzia auhentza ari da, zaingabetua, jandarmaren bota et’ apheztiarraren sotana-pean!”

Geroko Mirabeau-ak horrela ixurtzen zuen bere mingarra, nasaiki. Azkenean, baso bat hartu zuen, eta, besoa hankan, begia sutan:

- “Edaten dut oraiko ordenuaren suntsitze osoari, erran nahi da Legeberezi, Saltzebakartu, Buruzagigo, Hierarkia, Larderia, Estatu izena duen orori!” eta, mintzo gorago batez: “hau bezala hautsi nahi baintuzke!” baso eder zangoduna mahiaren gainera botaz, hausten zela mila phorrosketan.

Guziek eskuzartatu zuten, eta Dussadier-ek bereziki.

Bidegabek ikusteak bihotza jauz-arazten zaukon. Barbès-ek khexu zen; zaldi erorier lagunta ekhartzeko karrosen azpira egozten direnetarik zen. Jakitatea bi liburuetan mugatzen zizakon, bata *Erregen gaitzaintzak* izenburuarekin, bertzea *Vatican-go mixterioak*. Abokata ahoa zabalik entzuna zuen, atseginekin. Azkenean, gehiago ezin egonez:

- “Nik, Luis-Filiperi badagikotan erasia, Polonesen uztea da!”

- “Zaude!” erran zuen Hussonnet-ek. “Lehenik, Poloniak izaiterik ezto; Lafayette-ren asmu bat da! Polonesak, orotako erregela, Saint-

Marceau hiribazterrekoak dira guziak, egiazkoak Poniatowskirekin itho baitira.” Hots, “etzuen gehiago hortara emaiten, hori guzia bazterrera utzia zuen!” Itsasoko sugea bezala, Nantes-ko erabakiaren haustea bezala, eta “Saint-Barthelemy-ko atheraldi zahar hura bezala zen!”

Senecal-ek, Polonesen alderdia hartu gabe, letretako gizonaren azken hitzak atxiki zituen. Aitasainduz gaitzerrana zen, ooren buruan, jendea zaintzen zuten, eta Ligari bazeritzon “Demokraziaren goizaldea, berdintasuneko mogimendu handi bat protestanten berezigoaren etsaia”.

Federik apur bat ustegabetua zen gogamen horietaz. Cizy aspertzen zuketan, ezen solasaldia ezarri zuen Gymnase-ko ikusgarri bizidunetan, orduan jende ainitz ekharr-arazten baitzuten.

Senecal hortaz lastimatu zen. Horrelako ikusgarriek langilearen alabak usteltzen zituzten; gero ikusten ziren aberaskeria ozar baten erakusten. Baieztatzen zituen beraz Lola Montes laidoztatua zuten Baviera-ko ikasleak. Rousseau-k bezala, errege baten ohaidea baino estimu gehiagotan zadukan ikazkin baten emaztea.

- “Onddoez irri egitea da!” ihardetsi zuen maiestaterekin Hussonnet-ek. Eta hartu zuen andere horien alderdia, Rosanette-ren fagoretan. Gero, bere dantzaldiaz mintzatu zen eta Arnoux-en jantziaz:

- “Badiote khordokatua dela?” erran zuen Pellerin-ek.

Margazki saltzaleak auzi bat ukan berria zuen Belleville-en zituen lurrez, eta orai Britainia behereko lur-zuri konpainia batean zen bere motako bertze joko-egile batzuekin.

Dussardier-ek bazakien gehiago; ezen haren nagusia, Moussinot Jauna, Arnoux-en berri bila izanik Oscar Lefebvre bankolariaren baitan, hunek ihardetsia zaukon guti segurra bezala zadukala, haren diru berritzetarik batzu ezagunez.

Deserta bururatua zen; saloinera iragan ziren, damas horiz estalia Marexalsarena bezala, eta Luis XVI-garrenaren estilokoa.

Pellerin-ek erasiatu zuen Federik ez hautaturik, izaitekotz, estilo greka berria; Senecal-ek supiztekoak thorratu zituen erridau handietan; Deslauriers-ek etzuen oharrak batere egin. Liburutegian egin zituen, “naxkato ttipi baten liburutegia” izendatu baitzuen. Orduko idazle gehienak han ziren. Haien lanez mintzatzeari ezin egina izan zen, Hussonnet-ek, berehala, hetaz gertaldi batzu khondatzen baitzituen, haien itxurak kitzikatzen, bizi-moldeak, jantzia, hamaborzkarren lerroko izpiritu batzu goretsiz, lehenbizikoak belztuz, eta deitoratuz, erran gabe doa, aro berriko beherapena. Baserritar baten kantuxka batek bazadukan,

bakar-bakarrik, XIX-garren mendeko liriko guziek baino poesia gehiago; Balzac handiegia zen, Byron hondatua, Hugo-k jeus etzakien antzertian, eta bertze.

- “Zergatik eztituzu bada,” erran zuen Senecal-ek, “gure langile-olerkarien liburuak?”

Eta Cizy-ko Jauna, literaturaz axolatzen baitzen, ustegabetu zen ez ikusiz Federiken mahiaren gainean, “fisiologia berri hetarik batzu, pipatzalearen fisiologia, amu-arraintzariarena, hiri-mugako mutilarena”.

Hainbertzetarano heldu ziren haren nardatzera nun ukan baitzuen soingainetarik kampa guzien igortzeko gutizia. “Baina zozotzen ari niz!” Eta, Dussardier bazterrera hartuz, galdegin zaukon zerbaitetan zerbitzu emaiten ahal zaukonez.

Mutiko ona hunkia izan zen. Bere khutzazain lekuarekin, etzuen jeusen beharrik.

Gero, Federikek ereman zuen Deslauriers gambarara, eta, segetukotik bi mila libera hartuz:

- “Harrak, gaizoa, sakelan ezar! Ene zor zaharren ondarra duk.”

- “Baina... eta Egunkaria?” erran zuen abokatak. “Hussonnet-i aipatua dakeat, ontsa badakik.”

Eta, Federikek ihardetsirik “apur bat xuxenean zela, orai”, bertzeak ukan zuen erdi-irri gaixto bat.

Edarien ondotik, garagarnotik edan zen; garagarnoaren ondotik, grogak; pipak berriz erre ziren. Azkenean, arratsaldeko bortz orenetan, guziak joan ziren; eta bazoazin batzu bertzen ondotik, mintzatu gabe, Dussardier hasi zelarik erraiten Federikek ezin hobeki errezibituak zituela. Guziak hortan bat izan ziren.

Hussonnet-ek bazkaria phizuxko aurkitu zuen. Senecal-ek kitzikatu zuen bizitegiaren ezteuskeria. Cizy-k berdin gogutzen zuen. “Itxura” eskas zen, osoki.

- “Nik hatzemaiten dut,” erran zuen Pellerin-ek, “margazki bat manatu ahalko zautala bada.”

Deslauriers ixilik zagon, bere bankoko billetak galtzetako sakelan atxikiz.

Federik bakarrik gelditua zen. Adixkideak gogoan zagon, eta sendi zuen haien eta bere artean berexten zituen hobi handi itzalez bete bat bezala. Eskua emana zauen alta, eta etzuten ihardetsia haren bihotzeko zintzotasunari.

Pellerin eta Dussardier-ek Arnoux-ez erranak zituzten hitzak gogoratu zitzazkon. Gezur bat zatekeen, gaitzerran bat? Eta ikusi zuen Arnoux Anderea, hondatua, nigarretan, bere mublen saltzen. Gogoeta horrek gau osoan oinazkatu zuen; biharamunean, haren etxera joan zen.

Bazakienaren erraiteko nola egin ez jakinez, galdegin zaukon solastatzeko estakuru Arnoux-ek bazituenez beti Belleville-ko lur hek.

- “Ba, beti.”

- “Orai Britainiako lur-zuri kompainia batean da, uste dut?”

- “Egia da.”

- “Landegia biziki ontsa doa, eztea hala?”

- “Baina... ustez ba.”

Eta, Federik zalantzan baitzagon:

- “Zer duzu bada? Izitzen nauzu!”

Diru berritzen ixtorioa erran zaukon. Burua behehitu zuen, eta erran:

- “Banuen duda bat!”

Alabainan, Arnoux-ek, diru-joko on baten egiteko, lurrak etzituen saldu nahi ukanak, haien gainean nasaiki mailegu egina zuen, landegi bat jarriz uste ukana zuen berriz heineratuko zela. Gastuek aitzin-khonduak gaindituak zituzten. Andereak etzakien gehiagokorik; senarrak galde guziak baztertzen zituen eta beti erraiten “gauza biziki ongi zoala”.

Federik segurtatzera entseatu zen. Ordu bateko eragozpenak ziren behar bada. Bertzela ere, zerbait ikasten baldin bazuen, jakin-araziko zaukon.

- “Oi! ba, eztea hala?” erran zuen, bi eskuak elgarri emanaz, othoizteko itxura loriagarri batekin.

Baliagarri izan zizakokeen beraz. Horra haren bizian sartzen zela, haren bihotzean!

Arnoux agertu zen.

- “Ha! zenbat maitagarri den zuri auhaltzeko ene bila jitea!”

Federik mutu gelditu zen.

Arnoux gauza ezpaiko batzuez mintzatu zen, gero emazteari erran zaukon biziki berant sartuko zela, Oudry Jaunarekin hitzartua baitzen.

- “Haren etxean?”

- “Baina segurki, haren etxean.”

Aithortu zuen, mailaldea jausten zuen batean, Marexalsa libro izanez, bazoazila elgarrekin Eihera-Gorrian jokaldiño baten egitera; eta,

norbait behar baitzen beti haren gogo-ixurtzen hartzeko, bere burua Federiki ereman-arazi zaukon hango atherano.

Sartzeko orde, oinbidean ibili zen, bigarren estaiako leihoer behatuz. Bapatez erridauak baztertu ziren.

- “Ha! biba! Oudry zaharra ezta gehiago han. Gauon!”

Egun hortarik hara, Arnoux aitzinean baino ere gozoago izan zen; auhariz ohaidearen etxera gomitatzen zuen, eta laster Federik etxe batean eta bertzean ibili zen.

Rosanette-renak jostatzen zuen. Horrara arratsean jiten zen “glub”-etik edo ikusgarritik landa; duthe kikera bat hartzen, loto jokaldi bat egiten; igandetan, asmaketetan jostatzen; Rosanette, bertzeak baino jostalariago, berexten zen asmatzen zituen bitxikerietarik, hala nola lauhazka ibiltzea edo gotoinezko bonet batekin jartzea. Leihotik ibilkariet beha egoiteko bazuen larru egosizko xapel bat; pipa luzeak erretzen zituen, kantu tioliarrak kantatzen. Eguerdi ondotan, zer egin ez jakinez, lili batzu mozten zituen oihal persiar batean, berak berinetan lotzen, bi xakurrak larru-thinduz maskaratzen, pastilla batzu erre-arazten, edo kartekin bere gertakizuna atheratzen. Gutizia bati ihardokitzeko ahalik gabea, ikusia zuen phuxkila bat buruan hartzen zuen, lorik ez egiten, eroatera lasterrez joaiten, bertze batekin trukatzeko, eta oihalak andeatzen, joiak galtzen, dirua xahutzen, athorra salduko zuen antzoki-aitzineko egongia batendako. Ainitzetan, galdegiten zaukon Federiki irakurria zuen hitz baten argitzea, baina etzuen ihardespina entzuten, gogamen batetik bertzera jauzi egiten baitzuen, galdeak galdeari metatuz. Alaitasunezko inharrosaldi batzuekin, bazituen haur baten haserreak, edo ametsetan zagon, lurrean jarririk, sutaitzinean, burua beheara eta belhaun bat bi eskuetan, suge zurrundu bat bezala. Ohartu gabea, haren aitzinean janzten zen, zetazko galtzerdiak emeki thiratuz, gero begitartea ikuzten zuen ura xafarratuz, gerria itzuliz hotzikaritzen den ur-andere batek bezala; eta haren hortz xurien irriak, begietako phindarrek, zuen ederrak, alaitasunak Federik lilluratzen zuten, zainak azotatuz.

Abantzu beti, Arnoux Anderea aurkitzen zuen haurrari irakurtzen erakasten ari, edo Martharen kadera gibelean, hau pianoan gama egiten; josteko lan batean ari zenean, zorion handi bat zizakon Federiki, zenbait aldiz, haren haixturren biltzea. Haren mogimendu guziak maiestate bakezko batekoak ziren; esku ttipiek baziduriten elemosina barreatzeko eginak, nigarren xahutzeko; eta mintzoak, jitez aphur bat iluna, bazituen doinu pherekari batzu eta haize xuriaren arintasun batzu bezala.

Etzen batere literaturaz gogo-berotzen, baina haren izpirituak lilluratzen zuen hitz laño eta sarkor batzuekin. Maite zituen bidaiak, oihanetan haizearen azantza, eta euri-pean buru has ibiltzea. Federikek atseginekin entzuten zituen horiek, ustez eta bere buruaren uztera zoalako hastapen bat zen.

Bi emazte horiekin ibiltzeak bi musika bezala egiten zauzkon buruan: bat eroxka, bizia, jostagarria, bertzea larria, abantzu erlisionekoa; eta, biek batean joz, beti azkartzen ari ziren, et' apurka elgarrekin nahasten; - ezen, Arnoux Andereak erhiaz bakarrik hunkitzer baldin bazuen, bertzearen itxura, berehala, bazethorren haren gutziara, baitzuen, alde hortarik, gutiago urrundua zen zoria; - eta, Rosanette-rekin zenean, bihotza hunkia ukaitea gertatzen zizakonean, gogora heldu zizakon berehala maitasun handi hura.

Nahasmen hori egiten zuten bi bizitegien arteko itxura berdinek. Lehenago Montmartre karrika handian ikusten zen khutxak aphaintzen zuen orai Rosanette-ren jateko sala, bertzeak Arnoux Anderearen saloina. Bi etxetan, mahiko gauzak berdinak ziren, eta balusazko xano bera ere jargien gainean utzia; eta emaitza ttipi elementia bat, bantail, untxi, aireztatzeko jiten ziren eta joaiten ohaidearen etxetik ezkontidearenera, ezen, den gutieneko ahalgerik gabe, Arnoux-ek, usu, emana zaukona hartzen baitzaukon bati bertzeari emaiteko.

Marexalsak Federikekin irri egiten zuen haren ara gaixtoez. Igande batez, auhal-ondoan, ereman-arazi zuen athe gibelera, eta ikus-arazi zaukon haren maripulisean zaku bat bixkotxa, mahian ebatsiak baizik etzituena, bere familia ttipiari emaiteko, dudarik gabe. Arnoux Jauna ari zen xoxokeriara hurbiltzen ziren bere jukutria ttipietan. Eginbide bat zizakon hiri-mugako zergan baira egitea; ehoiz etzoan ikusgarrira ordainduz, bigarrenetako sartze batekin nahi zuen beti lehenetarano aitzinatu, eta khondatzen zuen hauteko irri-joko bat nola, mainu hotzetan, mutilaren arkilean ezartzen zuen galtza botoin bat hamar soseko baten orde, ezpaitzuen horrek Marexalsa haren maitatzetik trabatzen.

Egun batez, bizkitartean, erran zuen hartaz mintzatzean:

- "Ha! nardatzen nau, azkenean! Badut aski! Alafe, hanbat gaixto, bertze bat hatzemanen dut!"

Federikek uste zuen "bertzea" jadanik hatzeman zela eta izena Oudry Jauna zuela.

- "Ongi bada," erran zuen Rosanette-rek, "zer egiten du horrek?"

Gero mintzoan nigar batzuekin:

- “Biziki gauza guti eskatzen daukot, alta, eta eztu nahi, ihiziak! Eztu nahi! Hitzemaiteak aldiz, oi! ezta berdin.”

Hitzemana zaukon ere irabazien erdia delako lur-zuri mina aipatuetan; etzen irabazirik batere ageri, ez eta sei ilabetez geroz hartaz enganatzen zuen kaxamira.

Federikek gogatu zuen, berehala, eskainiko zaukola. Arnoux-ek hori ikastaldi batentzat har zezakeen eta gaitzi zaitekeen.

Ona zen bizkitartean, hala zion haren emazteak berak. Baina hain eroa! Jendea egun oroz auhaltzera etxera ereman orde, ezagunak bazeramatzan orai ostatura. Gauza osoki debaldekoak erosten zituen, hala nola urrezko gatinattoak, erloiak, etxeko gauza batzu. Arnoux Andereak erakutsi zaukon ere Federiki, barne batean, ohe, zango eta ur berotzeko hornimendu bat gaitzekoa. Azkenean, egun batez, bere khexuak aithortu zituen: Arnoux-ek izenpe-arazia zaukon banko paper bat, Dambreuse Jaunaren izenean egina.

Bitartean, Federikek atxikitzen zituen literaturako lan-xedeak, berari buruz halako ohorezko atxikimendu batez. Ezthetikaren ixtorio bat izkiriatu nahi zuen, Pellerin-ekilako solasaldien ondorioa, gero drama batzuetan ezarri Iraultza frantzeseko aro ezberdin batzu eta komedia handi bat egin, Deslauriers eta Hussonnet-en eragin urrunekoaz. Lanaren erdian, emazte baten edo bertzearen begitartea iragaiten zizakon aitzinetik; ikustera joaiteko gutziaren kontra gudukatzen zuen, gero laster amor emaiten; eta bihotzminduago zen Arnoux Anderearen etxetik itzultzean.

Sutondoan gogo iluna alhan zuen goiz batez, Deslauriers sartu zen. Senecal-en elhe su emailek khexatua zaukoten nagusia, eta, aldi bat gehiago, bizipiderik gabe gertatzen zen.

- “Zer nahi duk egin dezatan?”

- “Deus ez! dirurik eztuk, badakiat. Baina leku baten hari aurkitzeak ehuke jenatuko, ala Dambreuse Jaunaren ala Arnoux-en bidez?”

Hunek bazukeen jeinulari baten beharra bere landegian. Federiki gauza bat gogoratu zizakon: Senecal-ek bera abisa zezakeen senarraren han ez izaitzez, eskutitz batzu ereman zezazkeen, mila gertalditan lagun zezakeen. Gizonak gizonari, horrelako eskukaldi batzu emaiten dira beti. Bertzela ere, haren erabiltzera helduko zen hortaz bera ohartu gabe. Halabeharrak laguntzale bat eskaintzen zaukon, zorionekoa zen geroko;

eta, alegia ezpaian, ihardetsi zuen gauza egingarria zatekeela eta hortara ariko zela.

Berehala ari izan zen. Arnoux-ek ainitz neke jasaiten zuen bere landegian. Xinatarren burdin-gorri margoaren bila zabilan; baina erretzean margoak airatzen zizazkon. Faianzetan arraildurarik ez ukaiteko, buztinarekin gisua nahasten zuen; baina baxeraki gehienak hausten ziren, lur gordinaren gaineko thinduen esmaila irakitzen zen, zabalgunek handiak hantzen; eta, behargabe horiek landegiko tresneria gaixtoaren gain emanez, egin-arazi nahi zituen bertze xehagailu batzu, bertze idortegi batzu. Federik gauza horietarik batzuek orhoitu zen; eta joan zizakon erranez gizon bat aurkitua zuela biziki jakina, delako gorri aipatu haren hatzemaiteko gai zena. Arnoux-ek hortan jauzi bat egin zuen, eta gero, hura entzunik, nehoren beharrik etzuela ihardetsi.

Federikek goraiatu zituen Senecal-en jakintza miragarriak, aldi berean jeinulari, ximialari eta khondulari, matematikan lehen lerrokoa izanez.

Faianzalariak haren ikustea onhartu zuen.

Biak aharratu ziren irabaziez. Federik ararteko jarri zizeen eta heldu, aste baten buruan, antolamendu baten egin-araztera.

Baina, landegia Creil-en izanez, Senecal-ek ezin lagun zezakeen deusetako. Gogoeta horrek, ezin errexagoa, kuraia aurdiki zaukon nahigabe batek bezenbat.

Uste ukan zuen Arnoux gehiago emaztearen ganik berexia izanez are gehiago zori ukanen zuela hunen ondoan. Orduan, Rosanette-ren goresmenetan hasi zen, ethengabe; Arnoux-i erakutsi zauzkon hari buruz zituen ogen guziak, erran aitzineko egunean entzunak zituen mehatxu iduriak, kaxamira ere aipatu, zikoizkeriaz salatzen zuela gorde gabe.

Arnoux-ek, hitz hortaz sistatua (eta, bertzela ere, goganbeharretan baitzen), kaxamira ekharri zaukon Rosanette-ri, baina Federik-i zinkurina eginik erasiatu; hitzemana ehun aldiz orhoit-arazia zaukola baitzion, erran nahi ukan zaukon ahatzia zuela, egiteko sobera ukanez.

Biharamunean, Federik Rosanette-ren etxera jin zen. Nahiz bi orenak ziren, Marexalsa oraino etzana zen; eta, ohe buruan, Delmar, mahixka baten aitzinean jarria, gibelki gizen zerra baten jaten ari. Urrundik oihera egin zuen: “Hemen dut, hemen dut;” gero, bi beharrietarik hartuz, bekokian musu eman zaukon, esker ainitz, hi-ka mintzatu zizakon, nahi ukan zuen ere ohearen gainean jarr-arazi. Begi pollit xamurrak pindarka ari zizazkon, aho bustia irriñotan, bi beso

biribilak mahungarik gabea zen athorratik agerian; eta, noiztenka, Federikek senditzen zauzkon, lihozko oihal mehearen azpian, soinaren inguru bermuak. Delmar, bitartean, begi ñiñikak itzulikatuz ari zen.

- “Ba zinez, maitea, maite-maitea!...”

Berdin izan zen ondoko aldietan. Federik sartu orduko, kuxina baten gainean xutik emaiten zen, hark hobeki besarka zezan, erraiten zaukon “pollita”, “maitea”, lore bat botoin xiloan ezarriz, lephokoa antolatuz; goxakeria horiek bikuntzen ziren beti Delmar han zenean.

Aitzin urrats batzu zirena? Federikek uste ukan zuen. Adixkide bati huts egiteaz, Arnoux etzen, haren orde, hortaz biziki trabatuko zena! eta bazuen haren ohaidearekin bertutedun ez izaiteko eskubidea, emaztearekin beti hala izana zenaz geroz; ezen hala izana zela uste zuen, edo izaitekotz hori nahiko zuen bere buruari sinets-arazi, bere gaitzeko beldurreriaren garbigarri bezala. Zozo aurkitzen zen bizkitartean, eta deliberatu zuen Marexalsarekin deblauki ariko zela.

Beraz arratsalde batez, komodaren aitzinean gurtzen ari zelarik, hurbildu zizakon eta jestu bat egin zuen errankortasun hain guti dudazkoa nun zutitu baitzen gorri-gorritua. Berriz hasi zen berehala; orduan nigarretan urtu zen, erranez ontsa zorigaitzekoa zela eta etzela hori gaitzets zezaten arrazoin bat.

Federikek entseguak berritu zituen. Hark bertze molde batera jo zuen, beti irri egitea izan zena. Doinu berean ihardestea xotil iduritu zizakon Federiki, eta hori azkartuz. Baina bere burua horrela alaiegi erakusten zuen hark egiaz ari zela sinesteko; eta bien arteko laguntasun horrek traba egiten zaukon edozein sendimendu egiazkoren erraiteari. Azkenean, egun batez, ihardetsi zuen bertze baten ondarkinak etzituela onhartuko.

- “Zein bertze?”

- “Baietz! Hoa berriz Arnoux Anderearen ondora!”

Ezen Federikek usu aipatzen zuen; Arnoux, bere aldetik, berdin ari zen; Rosanette ezin zagon, azkenean, beti emazte horren laudatzen entzunez; eta ezin egon hori halako mendekio bat zizakon.

Federikek hortaz gorromio atxiki zaukon.

Hasia zuen ere azkarki aspertzen. Batzuetan, hortan jakina zelakoan omen, maitasunaz gaitzerraiten zuen, zartatzeko hazteria bat emaiten zaukon irri hotz batekin. Oren laurden bat berantago, munduan zen gauza bakarra zuen, eta, besoak bularrean gurutzatuz, norbaiten besarkatzeko bezala, bazion ahapetik “Oi! ba, goxo da, hain goxo!”

betespalak erdi hetsirik eta burxoratzez erdi aldixartua. Haren ezagutzea gauza ezina zen, jakitea, behazunez, Arnoux maite zuenez, hartaz trufatzen baitzen eta bekaizti iduri baitzuen. Vatnazsarendako berdin, ezteus bat zeritzona, bertze aldi batzuez zuen adixkide hoberena. Bazuen, azkenik, zen guzian eta mottoaren itzultzeko molderano, ezin erranezko zerbait desafio bat iduri zuena; - eta Federikek nahi zuen, oroz gainetik garhaitzeko eta menperatzeko atseginaren gatik.

Nola egin? ezen usu gibelerat igortzen zuen fazoinik batere gabe, minuta batez agertzen zela bi athen artean ahapetik erraiteko: “Egitekoa badut; arrats arteo!” edo hamabi jenden artean aurkitzen zuen; eta biak bakarrik zirenean, ixpixo bat zela zin eginen zen, hain ziren trabak trabari jarrikitzen. Auhaltzera gomitatzen zuena, beti eza; aldi bat onhartu zuen, baina ez ethorri.

Zimardikazko gogoeta sortu zizakon Federiki munetan.

Dussardier-en bidez ezagutzen baitzituen Pellerin-ek hartaz zituen erraitekoak, asmatu zuen Marexalsaren potreta manatuko zaukola, jendearen heinekoa, egonaldi ainitz beharko baitzuen; Federikek etzuen bakar bat huts eginen; edergilearen ordugabekeria ohikoak buruz buru egoitea errextuko zuen. Rosanette erakarri zuen beraz bere potretaren egin-araztera, begitartearen eskaintzeko bere Arnoux maiteari. Onhartu zuen, ezen bere burua bazakusan Saloin Handiaren erdian, ohorezko lekuan, aitzinean jende ainitzekin, eta berrikariak aipatuko zuten, horrek “bultzatuko” baitzuen bapatez.

Pellerin-ek bere aldetik, eskaintza amikatuki hartu zuen. Potret horrek gizon handi handitzat jarri behar zuen, nagusi lan bat izanen zen.

Gogoan erabili zituen bat bertzearen ondotik nagusien potret ezagutu guziak, eta azkenean Titien baten egitera deliberatu zen, Veronese-ren moldeko aphaindurez edertua izanen baitzen. Bere lana eginen zuen beraz itzal falsurik gabe, haragier margo bakar bat emanen zauen argi azkar batean, gaineratekoak dirdira-araziz.

- “Ezartzen banauko,” gogatu zuen, “zeta gorraxtazko zaia bat, orienteko burnuxa batekin? oi! ez! zirtzil, burnuxa! edo izaitekotz balusa urdinez janzten banu, margo ainitzekilako zola hautsaran baten gainean? Eman ahal lakio ere lepho inguruko bat gipura xuriz, aireztatzeko beltz batekin eta gibeletik erridau bat gorri biziz?”

Eta, horrela bilatuz, bere asmamena egun oroz hedatzen ari zuen eta hortaz miresten zen.

Bihotz pilpira bat ukan zuen Rosanette, Federik lagun, etxera ethorri zizakonean lehenbiziko lanaldiko. Zutik ezarri zuen, tauladura moldeko batean, bizitegiaren erdian; eta, argiaz deitoratuz eta lehenago zuen landegiaz, ezarr-arazi zuen lehenik ukondoaz oinazpiko bati, gero jargia batean ezarri, eta aldizka haren ganik urrunduz eta hartara hurbilduz erhi ukaldi batez zaiaren izurren zuzentzeko, so egiten zaukon betespalak erdi hetsirik, eta hitz batez Federiki aholku galdatzen: - “Ongi, baina ez!” egin zuen. “Gogatua nuenean nago! Veneziarrez uzten zitut!”

Gorri arinezko zaia bat ukanen zuen urreriako gerriko batekin, eta mahunga zabal martaxuriz horratuak agerian utziko zaukon beso hasa, gibelean goiti zoan mailalde baten bazterra hunkiko baitzuen. Ezkerretik, zutabe handi bat joanen zen oihalaren gainerano arku bat egiten zuten eraikuntza batzuetara. Azpian ikusiko ziren, xehetasunik gabe, iranondo multzo batzuek abantzu beltzak, gainetik zeru urdin batekin, hedoi zuriz marratua. Zango-mahi tapizaz estali baten gainean, izanen ziren zilharrezko platera bat, lore floka bat, ambarazko arrosario bat, puñal bat eta boli zaharrezko khutxaxka bat apur bat horitua urre xehez gainditzen; batzuek ere, lurrerat eroriak, xorta dirdiratu lerro bat egiten zuten, begiaren eremaiteko moldez oinaren punttarano, ezen anderea azkenaren aitzineko mailean gelditua izanen baitzen, egonara jitezko batean eta argi betean.

Margazki untzi baten bila joan zen, tauladaren gainean ezarri zuena mailaren itxuratzeko; gero ezarri zituen gaineratekoak, alketx batean zango-mahiaren orde, bere maripulisa, erredola bat, xardina untzi bat, luma andana bat, ganibet bat, eta, Rosanette-ren aitzinera egotzia ukan zuenean hamabi bat sos gotor, egon molde harr-arazi zaukon.

- “Emazu gogoari gauza horiek aberastasun batzuek direla, eskaintza lilluragarri batzuek. Burua apur bat eskun! Ezin hobeki! eta etzaitela higi! Egonara maistatedun hori ongi doa zure eder motarekin!”

Bazuen zaia eskoziar bat mahungerdi lodi batekin eta indar egiten zuen irriz ez hasteko.

- “Ileantzeari doakonaz, perla lerro bihurtikatu batekin nahasiko dugu: beti ontsa emaiten du ile gorrietan.”

Marexalsa erasiaz hasi zen, ileak etzituela gorriak.

- “Utzazu bada! Margolarien Gorria ezta burjesen hura!”

Bere lekuan multzo gotorrenak larriki ezarriz hasi zen; eta hain zen goganbehartua Berpizteko edergile handiez nun hetaz mintzo

baitzen. Oren batez, gora-gora amets egin zuen izaite handizki egin hetaz, jeinuz beteak, loriaz eta handitasunez, hirietan garhaipenezko sartze batzuekin, eta bestaldi batzu zuzien argietan, emazte erdi buluzien artean, jainkosa batzu bezain ederrak.

- “Aro hartan bizitzeko egina zinen. Zure heineko jende batek “Enejaun” bat mereziko zuen!”

Komplimendu horiek biziki goxo zizazkon Rosanette-ri. Ondoko egonaldiaren eguna hautatu zen; behar zirenen ekhartzea Federikek bere gain hartzen zuen.

Suaren beroak anderea apur bat burxoratua baitzuen, oinez itzuli ziren Bac-eko karrikatik eta Erretzubirano heldu.

Aroa ederra zen, samin eta garbi, iguzkia jausten ari; etxetako berina batzu, Zibitateko irlan, dirdiran zauden urrunean urre zati batzu bezala, gibeletik, aldiz, Andredona-Mariako ezkiladorreak beltzez marrazkitzen zirelarik zeru urdinean, hedoiertzean lanho hautsaran batzuetan guriki sartzen zenean. Haizeak ufatu zuen; eta Rosanette-ek gose zela erranik, Biskotxeria angelesean sartu ziren.

Andere gazte batzu, bere hurrekin, jaten ari ziren harbizizko alhasaren ondoan zutik, han zaudela tinki, berinazko untzi batzuen azpian, bixkotxa ttipiekilako azietak. Rosanette-ek iretsi zituen bi kremarekilako tarta. Azukar errautsak muxtatxak egiten zauzkon aho izkinan. Noiztenka, xahutzeko, mokanesa mahungerditik hartzen zuen; eta haren begitarteak baziduriaren, zeta muskerrezko burukoaren azpian, arrosa bat orstoen artean zabaldua.

Berriz abiatu ziren; Bakearen karrikan, gelditu zen, urregin baten saldegiaren aitzinean, ukaraiko bati beha; Federikek eskaini nahi ukan zaukon.

- “Ez,” erran zuen, “atxikak hire dirua.”

Hitz hortaz gaitzitu izan zen.

- “Zer du bada maite-minak? Trixte da?”

Eta, solasaldia berriz loturik, Federik jin zen, ohian bezala, maitasunezko aithormenetara.

- “Ezin dela ontsa badakik!”

- “Zergatik?”

- “Ha! zeren...”

Elgarren ondoan zoazin, hura Federiken besoa atxikiz, eta zaiaren hegalek zangoetan jaiten zaukoten. Orduan, negu ilunabar batez orhoitu zen, oinbide berean, Arnoux Anderea sahetsean horrela baitzoakon; eta

orhoitzapen horrek hainbertze hartu zuen nun ezpaitzen gehiago Rosanette-ri ohartzen, ezpaitzuen ere gogoan.

Hark bere aitzinera so egiten zuen, nora nahi, bere burua apur bat herrestatzera uzten zuen batean, haur nagi batek bezala. Jendea ibilalditik sartzen ari den ordua zen, eta karroseriak bazoazin trosta handiz lauzada idorrean. Pellerin-en lausenguak gogora heldu zizazkokeen, hasperen bat egin zuen.

- “Ha! Zorionean direnak badira! Gizon aberats batendako egina niz, ba segurki.”

Federikek ihardetsi zuen doinu bortitz batean:

- “Bat baduzu, bizkitartean!” ezen Oudry Jauna hirur aldiz miliunduna zadukaten.

Etzuen hartarik liberatua izaita baino hoberik galdegiten.

- “Nork debekutzen dautzu?”

Eta Federikek irri-solas kharats batzu athera zituen burjes zahar perrukadun hartaz, horrelako lotura bat desohoreko zela, eta hautsi behar zuela.

- “Bai,” ihardetsi zuen Marexalsak, bere buruari mintzatuz bezala. “Hori da azkenean eginen duketana.”

Federik abantail nahi gabe hortaz loriatua izan zen. Emekiago zoan, akitua zela uste ukan zuen. Karrosarik ez nahi ukaitean hisitu zen eta athe aitzinean utzi zuen, musu bat erhi punttetan igorritz.

- “Ai! zer damua! eta zozo batzuek aberats nadukatela uste ukaitea!”

Gogoa ilun zuen etxera heltzean.

Hussonnet eta Deslauriers haren beha zauden.

Mutiko arina, mahi aitzinean jarria, ari zen Turko buru batzuen marrazkitzen, eta abokata, bota iztildu batzuekin, ohexkan erdi-lo zagon.

- “Ha! azkenean,” egin zuen. “Baina zer itxura latza! Entzuten ahal nauka?”

Erakasle bezala arrakasta ttipitzen ari zizakon, ikasleak asebetetzen baitzituen etsaminetako langungarri etziren theoriez. Auzi egina zuen bizpahirur aldiz, galdua, eta atsekabe berri bakoitzak bazterrarazten zuen bere amets hautatuenera: hartan heda zaitekeen, bere barneko samina, gogoetak egotz zezazkeen, mendeka zaitekeen egunkari bat. Uste hortan zuen mutiko arina bildua, hunek berrikari orsto bat baitzuen.

Orai, paper arrosa-kolorean argiratzen zuen; alegiazko berri batzu sortzen zituen, asmaketa batzu egiten, eztabada phiztera entseatzen zen, eta nahi zituen ere (lekua zena izanik ere) musikaldi batzu antolatu! Urteko abonamenduak emaiten zuen “orkeztrako leku bat Parisko antzoki nagusietarik batean; gainera, adminixtratzalek bere gain hartzen zuten Jaun atzerritarrer nahi den xehetasun guzieren emaita, edergintzako ala bertze.” Baina moldizkitzaleak mehatxuak egiten zituen, jabeari zor zizazkon hirur alokaldi, mota orotako behaztopak sortzen ziren; eta Hussonnet-ek *Edergintza* erortzera utziko zuen, abokataren sustatzeak izan ezpalire, egun oroz moralaren berotzen ari baitzizakon. Berekin ekharria zuen, urratsari indar gehiagoren emaiteko.

- “Egunkariarendako heldu gituk,” erran zuen.

- “To, oraino gogoan duk beraz!” ihardetsi zuen Federikek, doinu axolagabetu batez.

- “Segurki, gogoan diat!”

Eta bere lan-xedea berriz zabaldu zuen. Parisko Molsaren agerbidetarik, dirulari batzuekin solasetan sartuko ziren, eta ukanen zituzten bermegoko baitezpadakoak ziren ehun mila liberak. Baina, orstoa politikako egunkari bilakatua izan ahal zadin, behar zen lehenik irakurtzale andana zabal bat, eta, hortara heltzeko, gastu batzu onhartu paperreriako, imprimeriako, bulegoko bezenbat, hots hamabortz mila liberako bat.

- “Eskuan dirurik eztut,” erran zuen Federikek.

- “Eta guk beraz!” egin zuen Deslauriers-ek bi besoak gurutzatuz.

Federikek, jestuaz gaitzitua, ihardetsi zuen:

- “Hutsa nik duta?...”

- “Ha! Biziki ontsa! Badituzte egurra suan, onddo arraroak mahian, ohe on bat, liburutegi bat, karrosa, eztikeriak oro! Baina bertze bat badagola hegaztegi-pean ikharan, hogei sosekin bazkal dadila, galeriano batek bezala lan eginez, eta miserian balsa! haien hutsa dea?”

Eta errepikatzen zuen: “Haien hutsa dea?” Auzi-Palazioa sendi zuen Kikero-ren arako irkaitz batekin. Federikek nahi zuen mintzatu.

- “Bertzela ere, badantzut, badira behar batzu... aitorensemetarrak; ezen iduriz... emazte zenbait...”

- “Eta bada, horrela baliz ere? Eniza libro?...”

- “Oi! biziki libro!”

Eta, ixil ephe baten ondotik:

- “Haina da errex, hitzemaitea!”

- “Jainkoa! eztitut ukatzen!” erran zuen Federikek.

Bertzeak aitzina:

- “Ikastetxean, zin egiten da, bilkura hertsu bat moldatuko da, Balzac-en *Hamahirur*-etan bezala egiten! Gero, berriz elgarretaratzen denean: “Gauon, gaizoa, habil horrat! Bertzea lagun lezakeenak guzia beretako baitatxika balioski, bere buru bakarrarendako.”

- “Nola?”

- “Bai, ezkituk Dambreuse-tarren etxera aitzineratu ere!”

Federikek behatu zaukon; zuen maripulis behartuarekin, begitako higatuekin, aurpegi zurpailarekin, abokata hain itxura gutikoa iduritu zizakon nun ezpaitzen egon ahal izan ezpainetan gaitzesmenezko irri bat ukan gabe. Deslauriers hortaz ohartu zen eta gorritu.

Burukoa jadanik hartua zuen abiatzeko. Hussonnet, khexu-khexua, eztizera entseatzen zizakon behako othoizlari batzuekin, eta, Federikek bizkarra itzutzen ari zaukonean:

- “Dakusagun, haurra! Ene Mækenas bat izan zaitel! Edergintzak gerizazkitzu!”

Federikek, bapatez etsitzerako jestu batean, paper orsto bat hartu zuen, eta, lerro zenbait gainean zirrimarraturik, eskaini zaukon. Mutiko arinaren aurpegia argi-argia jarri zen. Gero, eskutitza Deslauriers-i emanaz:

- “Egizkizu desenkusak, Jauna!”

Adixkideak notaria othoizten zuen hamabortz mila libera igor zezon lehen bai lehen.

- “Ha! Hortan ezagutzen haut!” erran zuen Deslauriers-ek.

- “Aitorensene baten zinaz!” gaineratu zuen mutiko arinak, “bihoztuna zira, gizon abantailgarrien erakustokian ezarriko zira!”

Abokatak erran zuen berriz:

- “Jeus eztuk galduko, dirujokoa hautekoa duk.”

- “Alajinkoa!” egin zuen Hussonnet-ek, “burua urkabeen saka nezake.”

Eta hanbat zozokeria athera zuen eta hanbat mira hitzeman (hetan sinesten baitzuen behar bada) nun Federikek ezpaitzakien hartaz trufatzeko zenez ala bere buruaz.

Arrats hartan, amaren eskutitz bat ukan zuen.

Ustegabetzen zen oraino minixtro ez ikusiz, apur bat trufatuz aldi berean. Gero osagarria aipatzen zuen, eta ikasten zaukon Roque Jauna etxera jiten zizakola orai. “Alhargun denaz geroztik, uste ukan dut

behargaberik eztela haren onhartzean. Luixa biziki bertzelakatur da, bere abantailetan.” Eta, azpi-hitzean: “Deus eztautak hire ezagutza ederraz erraiten, Dambreuse Jaunaz; hire orde, balia nezake.”

Zergatik ez? Idazkerako handi-nahiek utzia zuten, eta fortuna (ohartzen baitzen) etzuen aski; zorrak ordaindurik eta hitzeman dirua bertzer emanik, jiteak gutienetik laur mila liberaz ttipitua izanen ziren! Bertzela ere, bere bizi moldetik jalgitzeko beharra sendi zuen, zerbaiti eratzikitzeakoa. Hortakotz, biharamunean, Arnoux Anderearen etxean auhaltzean, erran zuen amak ofizio baten hartzeaz nardatzen zuela.

- “Baina uste nuen” egin zuen berriz hark, “Dambreuse Jaunak Estatuko Konseiluan sarr-arazi behar zinituela? Biziki ontsa loazuke.”

Nahi zuen beraz. Obeditu zuen.

Bankolaria, lehen aldian bezala, bere bulegoan jarria zen, eta kheinu batez othoiztu zuen zenbait minuta igurika zezan, ezen jaun bat, bizkarrez atheari, egiteko larriez mintzo zizakon. Lur ikatzez ari ziren eta bi kompanien artean egin behar zen batzeaz.

Foy jeneralaren eta Luis-Filiperen margazkiek mirailaren bi aldetan elgarri ihardesten zuten; kartoin untzi batzu igaiten ziren murruko zuretan goiti tronadurarano, eta baziren sei lastozko kadera, Dambreuse Jaunak ezpaitzuen, bere egitekoendako, bizitegi ederrago baten beharrik: aphairu handiak moldatzen diren sukalde ilun hek bezala zen. Federik ohartu zen bereziki izigarriko khutxa batzuer, izkinetan ezarriak. Bazagon hea zenbat miliun eduk zezaketan. Bankolariak bat ideki zuen eta burdin taula itzulikatu zen, barnean paper urdinezko kahier batzu baizik ikustera ez utziz.

Azkenean delako gizona Federiken aitzinetik iragan zen. Oudry zaharra zen. Biek elgar agurtu zuten, gorrituz, horrek Dambreuse Jauna ustegabetzen zuela iduritu baitzuen. Bertzela, biziki maitagarri agertu zen. Ezer etzen zigiluzainari adixkide gaztearen gomendatzea baino errexago. Hura han ukanez zorion sobera baizik etzen izanen; eta jendetasun horiek bururatu zituen zenbait egunen buruan emaiten zuen arrastiriko besta batera gomitatuz.

Federik karrosa motzera igaiten ari zen hartara joiteko Marexalsaren hitz bat ethorri zenean. Gauargietara, irakurri zuen:

“Maitea, zure aholkuer jarraiki niz. Ene Osage-a haizatu berria dut. Bihar arratsetik hara libertatea! Kuraiagabea nizala errazu.”

Gehiagokorik jeus! Baina leku hustura gomitatzea zen. Oihu bat egin zuen, hitza sakelan ezarri eta abiatu.

Bi hiriko zaintzale bazauden karrikan. Argi ttipi lerro bat erretzen ari zen bi athe handien gainean; eta mutil batzuek, korralean, karrosak aitzin-arazten zituzten oihuka athe-harriaren zolarano, berinapera. Gero ezkaratzean, bapatez, harrabotsa gelditzen zen.

Zuhatz handi batzuek betetzen zuten maildegia; porzelanazko borobilek bazarioten argi bat satin xuriaren leinuru batzu bezala harresietan izurkatzen zena. Federikek mailak igan zituen alaiki. Athezain batek oihukatu zuen haren izena; Dambreuse Jaunak eskua eskaini zaukon; abantzu berehala, agertu zen Dambreuse Anderea.

Bazuen zaia malba koloreko bat dentelaz aphaindua, adatseko kuxkulak ohian baino ere nasaiago, eta joia bakar bat gabe.

Deitoratu zen haren ikustaldi bekanez, zerbaiten erraitera heldu ere. Gomitak ethortzen ari ziren; agur egiteko, soingaina bazterrera emaiten zuten, hek edo ukurtzen ziren, edo aurpegia behehitzen zuten bakarrik; gero iragaiten ziren senar-emazte batzu, familia bat, eta guziak barreitzen ziren jadanik betea zen saloinean.

Dilindako argiaren azpian, erdian, gaitzeko kuxina batek bazadukan loretegi bat, haren liliak, gandor batzu bezala gurtuz, inguruan jarriak ziren emazten buruen gainera baitzauden; bertze batzuek jargia handi batzu hartuak zituzten bi lerro zuzen eginez balusa gorri-argizko erridauek bi aldetan berdin mozten zituztela, eta gain erreztatuekilako athe handiek.

Tauladan zutik zauden gizonen multzoak, xapela eskuan, meta beltz bakar bat egiten zuen urrundik, botoin-xiloetako xingolek eginez han hemenka tita gorri batzu, ilunagotua oraino lephokoen zuri berdinez. Mutiko gazte ttipi bizarra sortzen ari zizeen batzu ezpada, guziek aspertzen zirela baziduriten; “dandy” batzu, itxura mokor batekin, aztalen gainean zalantzatuz zauden. Bazen buru hautsaran, perruka ainitz; lekuka burhezur garsoil batek dirdirutzen zuen; eta aurpegiek, edo gorri-belztuak edo biziki zurpail, ikustera uzten zuten bere zimelean akidura neurrigabeko batzuen hatza, - hor ziren jendeak politikakoak baitziren edo dirutze ‘ta salerospenetakoak. Dambreuse Jaunak gomitatuak zituen ere jakintsun, legegizon, bizpahirur omeneko mediku, eta etzituen onhartu nahi, egonara laño batzuekin, bere arrastiriaz egiten zitzazkon laudorioak eta aberastasunaren aipatzeak.

Orotan, bazabilan galoin urre zabal batzuekilako mutileria. Zuzi handiak, sutegi batzu bezala, argitan zauden erridauen aitzinean; mirailtan errepikatzen ziren; eta jateko salaren zolan, jazmin saretze

batek hartzen zuena, alhasak iduri zuen katedraletako aldare nagusia edo urregin baten erakusketa, - hainbertze bazen platera, untzi estali, mahiko eta kullera zilhar eta urreztatu, janarien gainetik bere argi hortzadarkatuak elgarrekin nahasten zituzten krixtalki aldexkatu. Bertze hirur saloinak gauza ederrez mukurru beteak ziren: margolari nagusien eskualdeak murruetan, boli eta porzelanak mahi izkinetan, xinakeriak bazter mahietan; lakazko haizolbe batzu hedatuak ziren leiho aitzinetan, kamelia flokak joanki khebidetan goiti; eta musika arin batek joiten zuen, urrunean, erle burrumba batek bezala.

Kadrillak etziren ainitz, eta jantzariak, oinetakoak bazerabiltzaten ara axolagabetik, eginbide bat betetzen zutela iduri zuten. Federikek entzuten zituen hauk bezalako erranaldi batzu:

- “Izana zirea Lambert hoteleko azken garitatezko bestan, Andereñoa?”

- “Ez, Jauna!”

- “Eginen du, sarri, bero bat!”

- “Oi! egia, ithotzekoa!”

- “Nork egina bada polka hori?”

- “Jainkoa! eztakit, Anderea!”

Eta, haren gibelean, hirur zahar okhituek, leiho-arte batean jarriak, ohar lizun batzu egiten zituzten ahapetik; bertze batzu ari ziren burdinbidez, salerospen libroaz; indarkako gizon batek khondatzen zuen ihiziko ixorio bat; legitimixta bat eta orleanixta bat eztabadan ari ziren.

Multzoz multzo ibiliz, jokolarien saloinera heldu zen, han, jende itxura larri batzuen artean, ezagutu baitzuen Martinon, “hiri-nagusiko auzitegiari atxikia orai”.

Aurpegi gizen ezko iduriak hein onean betetzen zaukon bizar motza, hau mira baitzen, hain ziren ile beltzak ontsa berdinduak; eta, erdigune zuzena atxikiz adinak manatzen zaukon aphaintasunaren eta zuen ofizioak nahi zuen larriaren artean, behatza galtzarpean lotzen zuen gizon aphainen aran, gero besoa barneko motxean dotrinalarien moldean. Nahiz bazituen bota azkarki bernizatu batzu, pholsuetako ilea moztua zuen gogoetalari baten bekokiaren ukaiteko.

Hitz batzu hotz-hotza erranik, bere solastatzera itzuli zen. Jabe batek bazion:

- “Gizartearen itzulipurdikatzeaz amets egiten duen gizon alde bat da!”

- “Lanaren moldamena eskatzen dute!” erran zuen berriz bertze batek. “Hori asma daitekea?”

- “Zer nahi duzu!” egin zuen heren batek “Genoude-ko Jauna ikusten denean *Mendea*-ri esku emaiten!”

- “Eta konserbadore batzu, berak bere buruen “aitzinzale” izendatzen! Zer ekharriko daukute? Errepublika! Frantzian Errepublika izaiten ahal baliz bezala!”

Guziek erran zuten Errepublika ezina zela Frantzian.

- “Hala ere”, egin zuen artetik gora-gora jaun batek. “Sobera ari dira Errepublikaz; argiratzen da hortaz ixtorio, liburu meta bat!...”

- “Gogoan hartu gabe”, erran zuen Martinon-ek, “badirela, behar bada, ikertzeko gai serioagoak!”

Ministerioetako bat jaukitu zen antzokietako eskandalen kontra:

- “Horrela, behazenez, *La Reine Margot* drama berri horrek zinez mugak iragaiten ditu! Valois-tarrez mintza zaizkiguten beharra nun zen? Horrek guziak erretatea argi kaltegarri baten azpian erakusten du. Zure Berrikariekin bezala da! Buruileko legeak, derratela nahi dutena, ezin gehiago eztegiak dira! Nik nahi nituzke gerlako auzitegi batzu berrilarier ahoaren hesteko! Den gutieneko ozarrerian, gerlako konseilu baten aitzinera ereman! eta jo aitzina!”

- “Oi! guardi emazu, Jauna, guardi eman!” erran zuen erakasle batek, “etzaitela oldar gure 1830-eko irabazte balioser! errespetatuz gure libertateak.”

Behar zen izaitekotz botherea herrialdetara barreatu, hirietako soberakina baserrietara banakatu.

- “Baina usteldura barnean dute!” oihukatu zuen katokiko batek. “Egizue Erlisioneaz azkar dadin!”

Martinon lehiatu zen erraitera:

- “Egiazki, esteka bat da!”

Gaitz guzia bakoitzak bere lerrotik goititzeko zuen gutizia berri hortan zatzen, aberaskeriaren ukaitekoan

- “Bizkitartean,” ihardoki zuen industrialari batek, “aberaskeriak salerospena laguntzen du. Horrela Nemours-ko dukeari arrazoin emaiten daukot bere bestaldietan galtza laburrak nahi dituelarik.”

- “Thiers Jauna luzekin izana da. Haren hitza badakizu?”

- “Bai, loriagarria. Baina demagogara itzultzen ari da, eta ezin elgarretaratzez egina duen hitzaldia ezta eraginik gabe izana ostaroaren 12-ko bortizkerian.

- “Ha! bah!”

- “He! He!”

Ingurua idekitzera behartua izan zen platera bat zeraman mutil baten iragaitera uzteko, jokolarien saloinera sartzeko indar egiten baitzuen.

Xirioen itzal-egiteko muskerren azpian, mahiak karta lerro eta urrez estaliak ziren. Federik hetarik baten aitzinean gelditu zen, sakelan zituen hamabortz napoleonak galdu, itzul-inguru bat egin, eta Dambreuse Anderea han zagon saloin ttipiaren alharzean gertatu zen.

Emaztek betetzen zuten, batzu bertzen ondoan, bizkarrik gabeko jar-leku batzuetan. Haien zaia luzek, inguruan harrotuz gerria hetarik jalgitzen zizeen uhain batzu iduri zuten, eta bulharrak begira eskaintzen zizezteen soinekoen ozkan. Abantzu guziek bazadukaten briolet floka bat eskuan. Eskularruen margo hitsak ager-arazten zeen besoen xuri biziduna; bazituzten litsak, perlak soingainetarik dilindan, eta uste zen zenbait aldiz, ikharatze batzuetan, zaia erortzera zoala. Baina begitarten onestasanak ezitzen zuen jantzien sustagarria; zenbaitek bazuten ere abantzu aberen arako itxura baketsu bat, eta emazte erdi-buluzien bilzarre horrek gogoratzen zuen emategi baten barnea; mutiko gazteari izpiritura jin zizakon gomparaketa gordinago bat. Alabaina, bazen hor ederza mota orotarik: “keepsake”-etako itxura batzuekilako Angeles, Italiar bat bere begi beltzak Vesuvio bat bezala zimiztaka, hirur ahizpa urdinez jantziak, hirurak Normandiar, jorraileko sagarrondoak bezain frexko, ile gorri handi bat harrubelezko aphaindura batekin; - eta diamanten izarniadura xuriak kukurusta moldean ikharatuz adatsetan, papoetan hedatu harrierien tita argiak, eta begitarte inguruetakoko perlen dirdira ezta, nahasten ziren erhaztun urren phindarrekin, dentelekin, errauts zuriarekin, lumekin, aho ttipietako gorri biziarekin, hortzen nakararekin. Gainak, gopoil aran biribildua, bazemon saloin ttipiari zare baten moldea; eta aire arin usainondu bat bazabilan haizeztatzekoen joaldien azpian.

Federikek, haien gibelean zutik, betaurreko bakuna begian, etzaduzkan soingain guziak hutsik gabeak; Marexalsa zuen gogoan, horrek gutziak gibeleratzen baitzauzkon, edo horietaz konsolatzen baitzuen.

So zagon alta Dambreuse Andereari, eta loriagarri aurkitzen zuen, ahoa luzexko ukanik ere eta sudur ziloak idekiegiak. Baina bazuen garazia berezi bat. Ileantzeko kuxkulen nagia maitasun bizizkoa zuen, eta

bekoki agata kolorekoak iduri zuen gauza ainitz bazaduzkala eta nagusi bat salatzen zuen.

Bere ondoan ezarria zuen senarraren iloba, nexkato gazte aski itsusia. Noizean behin xutitzen zen sartzen zirener ongi-ethorri egiteko; eta emazte mintzoen zurrumurruak, gehituz, egiten zuen xori kakaraka bat bezala.

Tuniziako embaxadorez ari ziren eta haien jantziez. Andere bat izana zen Akademiako azken sartzean; bertze bat mintzatu zen Molièreren *Don Juan*-ez, Antzoki Frantzesean berriki emana. Baina, kheinu batez iloba erakutsiz, Dambreuse Andereak erhi bat ezarri zuen ezpainetan, eta utzi zuen irriño batek garraztasun hori gezurtatzen zuen.

Bapatez, Martinon agertu zen, aitzinean, bertze athean. Anderea zutitu zen. Hark besoa eskaini zaukon. Federik, haren ikusteko galankerietan jarraitzen, joan zen joko mahietan hara eta hetara saloin handian heldu; berehala Dambreuse Andereak utzi zuen bere zalduna, eta harekin solasean hasi etxeko etxeko bezala.

Jokoan etzela ari, hori onhartzen zuen, ez eta jantzan.

- "Gaztaroan trixte izaiten da!" Gero, dantzaldia behako bakar batean hartuz:

- "Bertzela ere, ezta hori guzia jostagarri! jite batzuendako bederen!"

Eta jargia lerroen aitzinean gelditzen zen, han edo hemen hitz goxo batzu erranez, bi adarrekilako begitakoak zituzten zahar batzu gorte egitera heldu zizazkolarik. Federik aitzineratu zauen zenbaiti. Dambreuse Jaunak arinki hunki zuen ukondoan, eta kampa ere eman zabaltzara.

Ikusia zuen Minixtroa. Gauza etzen errexa. Estatuko Konseilura entzule bezala erakarria izan aitzin, etsamina bat jasan behar zen. Federikek, konfienxia ezin argigarri batek harturik, ihardetsi zuen gaiak bazazkiela.

Dirularia etzen hortaz ustegabetua, Roque Jaunak egiten zauzkon laudorioen araura.

Izen hortan, Federikek berrikusi zituen Luixa, etxea, gambara; eta gau berdin batzuez orhoitu zen, leihoan egoiten baitzen, iragaiten ari ziren garrailarien entzuten. Gogo ilunduren orhoitzapen horrek ekharri zuen Arnoux Anderearena; eta bazagon ixilik, zabaltzan ibiltzen jarraitzen zuen batean. Leihoek eraikitzen zituzten gauaren erdian gune

gorri luze batzu; dantzaldiaren harrabotsa ahultzen ari zen; karrosak abiatzen hasiak ziren.

- “Zergatik bada”, egin zuen berriz Dambreuse Jaunak, “atxikia zira Estatuko Konseiluari?”

Eta erran zuen, doinu “liberal” batekin, kargu publikoek nehorat etzeramatela, horren berri baitzakien; “aferak” hobe ziren. Federikek aitzineratu zuen haien ikasteko nekea.

- “Ha! bah! ephe gutiz hetara emanen zitut.”

Nahi zuena bere langaietan barne sartu?

Mutiko gazteak ikusi zuen, zimizta batean bezala, jinen zizakon fortuna neurrigabeko bat.

- “Sar gaiten”, erran zuen dirulariak. “Gurekin auhaltzen zira, eztea hala?”

Hirur orenak ziren, jendea bazoan. Jateko salan, mahi bat ezarria zen adixkide minen aiduru.

Dambreuse Jauna Martinon-i ohartu zen, eta emazteari hurbilduz, ahapetik:

- “Zuk duzu gomitatua?”

- “Baina ba!”, ihardetsi zuen idorki.

Iloba etzen han. Biziki ontsa edan zen, biziki gora irri egin; eta atheraldi hala-holako batzuek etzuten ehor ofensatu, guziek senditu baitzuten hertsatua izaite luzexkoer jarraikitzen zauen arintze hura. Bakarrik Martinon zen seriozik egon; Xampañako arnorik etzuen edan nahi ukan, beharbezalakotasunez, bertzela malgu et’ azkarki ikustatezko, ezen Dambreuse Jauna, bulharrak tinki zituelakotz, hersturaz deitoratzen baitzen, osagarriaren berri galdegin zaukon aldi bat baino gehiagotan; gero bere begi urdinkarakoak itzultzen zituen Dambreuse Anderearen aldera.

Hunek hel egin zaukon Federiki andere gaztetan zein gustatu zizazkon jakiteko. Bati etzizakon bereziki ohartu, eta hautesten zituen, bertzela ere, hogeita hamar urteko emazteak.

- “Behar bada ezta hori zozo!” ihardetsi zuen andereak.

Gero, bizkarreko eta maripulisen janzen ari zirelarik, Dambreuse Jaunak erran zaukon:

- “Zaugi ene ikustera goiz hautarik batez, solastatuko gira!”

Martinon-ek, mailaldearen behean, zigarro bat phiztu zuen; eta bazerakusan, hura murtzatuz, begitarte bat hain phizutua nun lagunak utzi baitzaukon erranaldi hau:

- “Baduk buru on bat, zinez!”

- “Andana bat burxoratu dik!” egin zuen legegizon gazteak, aire aldi berean segur eta gaitzitu batekin.

Federikek, etzatean, egin zuen arratsaren laburpena. Lehenik, jantziak (bere buruari behatua zuen mirailetan aldi bat baino gehiago), soinekoaren aratik oinetakoen xildrerano, erraitekorik jeus etzuen; gizon gotor batzuekin elhekatua zen, emazte aberats batzu ikusiak zituen hurbildik, Dambreuse Jauna ezin hobea izana zen eta Anderea abantzu erakargarri. Phizatuak zituen haren hitz ttipienak, behakoak, mila gauza ezin aztertu eta bizkitartean errankor. Gogorki eder lizateke horrelako ohaide baten ukaitea! Zergatik ez, ororen buruan? Berak bertze bat balio zuen bada! Etzen menturaz hain ukan gaitza? Gero Martinon gogoratu zizakon berriz; eta, lokartzean, mutiko gaizo hortaz erdi irriz ari zen.

Marexalsaz orhoitzeak iratzarri zuen; haren paperreko hitz hauk: “Bihar arratsetik goiti”, hitzartze bat ziren zinez egun hartako bereko. Bederatzi orenetarano igurikatu zuen, eta haren etxera laster egin.

Norbaitek, aitzinean, mailaldeari goiti zoanak, athea hetsi zuen. Xilintxa thiratu zuen; Delfina idekitzera jin zen, eta erran zuen Anderea etzela han.

Federik hisitu zen. Bazuen zerbait biziki larri hari jakin-arazteko, hitz xoil bat. Azkenean ehun sosekoaren arrazoinak ondorio ona ukan zuen, eta sehiak utzi zuen aitzin-gambaran bakarrik.

Rosanette agertu zen. Athorra has zen, ileak laxo; eta, burua higituz, urrundik egin zuen bi besoekilako jestu handi bat ezin har zezakeela erran nahi zuena.

Federikek mailaldea jautsi zuen, emeki. Burukeria horrek bertze guziak gainditzen zituen. Etzuen jeus komprenitzen.

Athezainaren egongia aitzinean, Vatnaz Andereñoak geldi-arazi zuen.

- “Hartu zitu?”

- “Ez!”

- “Haizatu zituzte?”

- “Nola dakizu?”

- “Ageri da! Baina zaugi! athera gaiten, itho nahi du hemen!”

Eta karrikara ereman zuen. Hats-hantua zen. Sendi zuen haren beso meharra berearen gainean ikaratzen. Bapatez jauzi zen.

- “Ha! ezteusa!”

- “Nor bada?”

- “Baina hura! hura! Delmar!”

Berri horrek Federik ahaltze-arazi zuen; egin zuen berriz:

- “Segur zirea?”

- “Baina jarraiki nizakola baderratzutalarik!” oihukatu zuen Vatnaz-sak: “sartzen ikusia dut! Badakusazu orai? Horren beha egon behar nuen, bertzela ere; nik daukot, ene zozokerian, nik etxera ereman. Eta bazinaki, Jainkoa! Hartu dut, jatera eman, jantzi; eta egunkarietan egin ditutan urrats guziak! Ama batek bezala maite nuen!” Gero irri erkats batekin: “Ha! Jaunak behar baititu balusazko arropak! haren aldetik joko-aldi bat, untsa goga dezakezu! Eta bertzea! Oihaleria egile ezagutu dutala erraitea! Ni gabe, hogeitaz goiti, iztilera eroriko zen. Baina hartan murgilduko dut! oi! baietz! Nahi dut ospitalean leher egin dezan! Guzia jakinen baita!”

Eta, zikinkeriak garraiatzen dituen ehe uhaitz batek bezala, anderearen haserreak iragan-arazi zituen uhain baten aran Federiken aitzinetik etsai haren ahaltzeizunak.

“Etzana da Jumillac-ekin, Flacourt-ekin, Allard tipiarekin, Bertinaux-ekin, Saint-Valéry-rekin, pikotatua. Ez! bertzea! Bi anaia dira, berdin da! Eta eragozpenetan zenean, guzia antolatzen nuen. Zer nuen irabazten? Hain da zikoitza! Eta gero, onhartuko duzu, lanõtasun pollita zen haren ikustea, ezen azkenean, ezkirea mundu berekoak! Neska arrunt bat niza, ni! Neure burua saltzen duta! Gaineratu gabe aza bat bezain zozoa dela! “Kategoria” *th* batekin izkiriitzen du. Bertzela, elgarri emanak dira; pareta egiten dute, nahiz “artixta” dela dion eta jeinua baduela uste! Baina, ene Jainkoa! adimendua balu bederen, etzuen holako itsuskeria eginen! Ezta emazte goien bat uzten frikuntsa batendako! Eniz axolatzen, oro har. Itsusten ari da. Hastio dut! Aurkitzen banu, oizu, begitartera thu egin nezoke.” Thu egin zuen. “Bai, horra zer axola dutan orai hartaz! Eta Arnoux, he? Eztea hastiagarri? Hainbertzetan barkatua dauko! Pairatu duena ezta asmatzen! Oinak besarkatu behar lauzko! Hain da ezkuzabala, hain ona!”

Federik atseginetan zen Delmar-ez gaitzerraiten entzutean. Arnoux onhartua zuen. Rosanette-ren gaixtakeria hori gauza makurra iduritzen zizakon, zuzengabea; eta, mutxurdinaren bihotzminaz hartua, hortaz hunkia bezala izaitera emana zen. Bapatez, Arnoux-en athe aitzinean gertatu zen; Vatnaz Andereñoak, hura ohartu gabe, Poissonnière hiri-bazter guzia jauts-arazia zaukon.

- “Hor gira”, erran zuen. “Ni, ezin igan naite. Baina zu, eztautzu jeusek debekatzen?”

- “Zeren egiteko?”

- “Hari guziaren erraiteko, oizu!”

Federikek, jauzian atzarriz bezala, hartara bultzatua zen itsuskeria senditu zuen.

- “Beraz?” egin zuen berriz andereak.

Begiak bigarren estaiara goititu zituen Federikek. Arnoux Anderearen argia phiztua zen. Jeusek, egiazki, etzaukon igaitea debekatzen.

- “Hemen igurikatzen zitut. Zoaz bada!”

Manu horrek azkena hoztu zuen, eta erran zuen:

- “Gainean luzaz egonen niz. Itzultzea hobe zinuke. Bihar etxera jinen nitzazu.”

- “Ez, ez!” ihardetsi zuen Vatnaz-sak, oinaz lurra joz. “Harrazu! eremazu! egizu hatzeman ditzan!”

- “Baina Delmar ezta orduko han izanen!”

Burua behehitu zuen:

- “Ba, behar bada egia duzu?”

Eta mintzatu gabe gelditu zen, karrikaren erdian, karrosen artean; gero, basagatu baten begiak haren gainean itzatuz.

- “Zutan fida naiteke, eztea hala? Gu bien artean orai, zinezkoa da! Zoaz! Bihar arteo!”

Federikek, barnebiderearen iragaitean, bi mintzo entzun zituen elgarri ihardesten. Arnoux Anderearenak zion:

- “Gezurrik etzakala erran! gezurrik ez erran bada!”

Sartu zen. Ixildu ziren.

Arnoux bazabilan harat-hunatean, eta Anderea jarria zen sutondoko kadera ttipian, ezin gehiago hits, begia geldirik. Federikek gibelera joaitera egin zuen. Arnoux-ek eskua hartu zaukon, heldu zizakon laguntzaz zorionean.

- “Baina beldur niz...,” erran zuen Federikek.

- “Zauda bada!” ufatu zaukon Arnoux-ek beharrira. Anderea berriz hasi zen:

- “Barkatu behar da, Moreau jauna! Etxetan zenbait aldiz gertatzen diren gauzak dira.”

- “Ezartzen baitira”, erran zuen goraki Arnoux-ek. “Emaztek badituzte burutaldi batzu! Horra, hau, behazunez, ezta gaixtoa. Ez,

batere! Oizu, bada oren bat ene kitzikan jostatzen ari dela mila ixtorioekin.”

- “Egiak dira!” ihardetsi zuen Arnoux Andereak khexatua. “Ezen, azkenean, erosi duk.”

- “Nik?”

- “Ba, hik berak! Persiarrari!”

- “Kaxamira!” gogatu zuen Federikek.

Ogendun sendi zen eta beldur.

Andereak gehitu zuen, berehala:

- “Aitzineko ilabetean zian, ebiakoitz batez, 14-a.”

- “Ha! egun hartan, preseski, Creil-en nintzan! Horrela, badakusan.”

- “Ez batere. Ezen Bertin-darren etxean auhaldu gituk, 14-an.”

- “14-an...?” egin zuen Arnoux-ek, begiak goitituz egun baten bila bezala.

- “Eta ere saldu daukan komisa ile hori bat zian!”

- “Komisaz orhoit naitekea!”

- “Izkiriatu dik alta, hik erranez, helbidea: 18 Laval karrika.”

- “Nola dakin?” egin zuen Arnoux-ek balditua.

Andereak soingainak goititu zituen;

- “Oi! biziki errex da: ene kaxamiraren antola-araztera izan niz, eta saldegiko sailburu batek ikasi dauta bertze berdin bat igorri berria zela Arnoux Anderearen etxera.”

- “Ene hutsa dea, bertze andere Arnoux bat baldin bada karrika berean?”

- “Bai! baina ez Jacques Arnoux”, egin zuen berriz.

Orduan, nahasten hasi zen, etzela ogendun goraki erranez. Huts egite bat zen, halabehar bat, gertatzen diren bezalako gauza ezin argitu hetarik bat. Jendeak etziren aieru huts baten gainean kondenatu behar, argiak etziren seinale batzuen gainean; eta Lesurques zorigaitzekoaren behazuna aipatu zuen.

- “Azkenean, badionat hutsean hizala! Nahi duna hitzaz zin egin dezatanan?”

- “Eztik balio!”

- “Zergatik?”

Begietara so egin zaukon, deusik erran gabe; gero besoa luzatu, zilharrezko khutxattoa hartu khebide gainean, eta khondu bat zabaldurik eskaini zaukon.

Arnoux beharrietarano gorritu zen eta begitarte nahasia hantu zizakon.

- “Eta zer?”

- “Baina...” ihardetsi zuen, emeki, “zer phorogatzen du?”

- “Ha!” egin zuen emazteak, mintzoan doinu berezi batekin, hartan baitziren bihotzmina eta irkaitza. “Ha!”

Arnoux-ek paperra bazadukan eskuetan, eta itzultzen zuen, begiak hartarik ezin ekhenduz egiteko handi bateko atherabidea hartan aurkitu behar ukana balu bezala.

- “Oi! ba, ba, orhoitzen niz,” erran zuen azkenean. “Komisione bat da. - Badakikezu hori, zuk, Federik?” Federik ixilik zagon. “Komisione bat, galdegina zautana... ori... Oudry aitak.”

- “Eta norendako?”

- “Bere ohaidearendako!”

- “Zurearendako!” oihukatu zuen Arnoux Andereak, zut-zuta jeikiz.

- “Uko egiten daunat...”

- “Etzaitela berriz has! dena badakit!”

- “Ha! Biziki ontsa! Beraz, zelatua niz!”

Ihardetsi zuen, hotzik:

- “Zure minberatsuna zimurtzen dautzu, behar bada?”

- “Sumintzen denaz geroz,” egin zuen berriz Arnoux-ek, bere xapela bilatuz, “eta ezin arrazoinka daitekeenaz!”

Gero, hasperen handi batekin:

- “Etzaitela bada ezkon, adixkide maitea, ez, sinets nezazu!”

Eta ihes egin zuen, aire hartze beharrez.

Orduan, ixil handi bat egin zen; eta guziak, bizitegian, geldiago iduritu zuen. Inguru argi batek, olio lamparen gainean, zuritzen zuen tronadura, zokoetan aldiz, itzala hedatzen ari zelarik oihal beltz metatu batzu bezala; erloiaren tiki-taka entzuten zen suko zirtekin batean.

Arnoux Anderea berriz jarria zen, khebidearen bertze izkinan, bere jargian; ezpainer ausikika ari zen ikharatuz; bi eskuak goititu zituen, hipa bat egin, nigarretan zen.

Federik kadera ttipian jarri zen; eta mintzo pherekari batekin, jende eri batekin egiten den bezala:

- “Eztuzu dudatzen zurekin sendi dutala...?”

Deus etzuen ihardetsi. Baina bere gogoetetan gora-gora jarraikiz:

- “Ontsa librorik uzten dut! Etzuen gezur erraiteko beharrik!”

- “Segurki”, erran zuen Federikek.

Arnoux-en ohiduren ondorioa zatekeen, etzuen gogoari emana, eta behar bada gauza larriago batzuetan...

- “Zer dakusazu bada larriagorik?”

- “Oi! jeus ez!”

Federik ukurtu zen obediantzazko irriño batekin. Arnoux-ek hala ere bazituen gaitasun batzu; bere haurrak maite zituen.

- “Ha! egiten du haien hondatzeko behar den guzia!”

Hori omore errexegitik heldu zizakon; ezen, azkenean, mutiko on bat zen.

Egin zuen:

- “Baina zer erran nahi du horrek, mutiko on bat!”

Horrela zaintzen zuen, aurki zezakeen molde arinenean, eta, hartaz urriki zuen batean, bozkariatzen zen, atsegin zuen arimaren zolan. Mendekioz edo sendimendu beharrez, anderea haren ondora gerizatuko zen. Esperanzak, neurririk gabe handitua, azkartzen zaukon maitasuna.

Etzizakon ehoiz hoin maitagarria iduritua, hoin zinez ederra. Noiztenka, hats hartze batek bulharra goititzen zaukon; bi begi geldiek baziduriten barneko ikuspen batek zabalduak, eta ahoa erdi hetsirik zagokon arimaren emaiteko bezala. Batzuetan, mokanesa ezpainetan azkarki zapatzen zuen; Federikek nahiko zuen liho oihal zati ttipi, guzia nigarrez busti hori izan. Bera ohartu gabe, ohatzeari so zagon, ohetegi zokoan, haren burua asmatuz buhurdiakoaren gainean; eta hori hain ontsa bazakusan nun indar egiten baitzuen haren ez besoetan hartzeko. Betespalak hetsi zituen, baketua, geldi-geldia. Orduan, hurbilago joan zizakon, eta, haren gainera gurturik, begitarte ikertzen zaukon, amikatuki. Bota harrabots batek jo zuen barnebidean, bertzea zen. Gambarako athearen hesten entzun zuten. Federikek eskatu zaukon Arnoux Andereari, jestu batez, hara joan behar zuenez.

“Ba” ihardetsi zuen molde berean; eta elgarren gogoeten aldizkatze ixil hori onhartze bat bezala zen, ezkontza-hauste hastapen bat.

Arnoux, etzatera abian, maripulisaren ekhentzen ari zen.

- “Beraz, nola da?”

- “Oi! hobeki!” erran zuen Federikek. “Hori joanen da!”

Baina Arnoux penatua zen.

- “Eztuzu ezagutzen! Baditu zain batzu orai...! Komis zozoa! Horra zer den onegi izaitea! Lephoko madarikatu hura ezpanauko eman Rosanette-ri!”

- “Eztuzula dolurik! Ezin gehiago esker emaiten dautzu!”

- “Uste duzu?”

Federikek etzuen dudatzen. Phorogua, Oudry aita igorri berria zuela zen.

- “Ha! gaixo urxoa!”

Eta, hunkimenaren soberakinean, Arnoux-ek nahi zuen haren etxera laster egin.

- “Eztu balio! handik heldu niz. Eri da!”

- “Arrazoin bat gehiago!”

Maripulisa berriz jantzi zuen bizi-bizia eta gandela hartua zuen. Federikek bere burua erran zozokeriaz madarikatu zuen eta erakutsi zaukon behar zuela, ikustatez, gaur bere emaztearen ondoan egon. Etzezakeen utz, gaizki izanen zen.

- “Zinez, ogen zinuke! Jeusen lehiarik ezta han! Bihar joanen zira! Othoi! egizu hori enetako.”

Arnoux-ek gandela utzi zuen, eta erran zaukon, besarkatuz:

- “Ona zira, zu!”

III

Orduan hasi zen Federikendako bizi ezteus bat. Etxeko bizkarkina bilakatu zen.

Norbait ez ontsan baldin bazen, egunean hiruretan heldu zen haren berri bila, bazoan piano zuzentzalearen etxera, mila ikustate asmatzen zituen; eta itxura askietsi batekin jasaiten Martha Andereñoaren phetseskeriak eta Uxen gaztearen pherekuak, esku zikin batzu begitartean ezartzen baitzauzkon beti. Han zen auharetan Jaun-Anderek, bat bertzearen aitzinean, ezpaitzuten hitz bat elgarri emaiten; edo ere, Arnoux-ek emaztea nardatzen zuen ohar bitxi batzuekin. Aphairua bururatu eta, gambaran semearekin jostatzen zen, mublen gibelean gordetzen, edo bizkarrean eremaiten zuen, aphoka ibiliz, delako

Biarnesak bezala. Bazoan azkenean; eta andereak berehala hasten zuen betiereko zinkurina gaia: Arnoux.

Sumintzen zuena etzen haren bizi molde gaixtoa. Baina bazidurien bere urguluan min zuela, agertzera utziz beraztasunik, bihotz goratasunik, ohorerik gabeko gizon horrendako sendi zuen higundura.

- “Edo izaitekotz eroa da!” erran zuen.

Federik ari zen trebeki haren segetuak jakin nahiz. Laster, bizi guzia ezagutu zaukon.

Gurasoak Chartres-ko burjes ttipi batzu zituen. Egun batez, Arnoux-ek, ibaiaren hegian marrazkitzen ari zelarik (ordu hetan margolari zela uste zuen), ikusia zuen elizatik atheratzen ari eta ezkontzaz galdegina; zuen fortunaren gatik, etziren zalantzan egonak. Bertzela ere, hark eroki maite zuen. Gaineratu zuen:

- “Jainkoa, maite nau oraino! bere moldean!”

Lehenbiziko ilabetetan, Italiako bidaiaria egin zuten.

Arnoux, eskualdez eta nagusi lanez loriatua izanik ere, etzen hango arnoaz deitoratzen gelditua, eta Angeles batzuekin janaldi batzu antolatzen zituen, libertitzeko. Ontsa bersalduak zituen marrazki batzuek edergintzetako salerospenera bultzatua zuten. Gero faianza landegi bat buruan hartua zuen. Orain, bertze dirujoko batzuen gutizia zuen; eta, gero eta gehiago ezazolduz, ohidura arrunt eta gastukor batzu hartzen ari zituen. Gutiago zuen erraiteko haren bizioez nola egintza guziez. Etzaitkeen edozein aldatzerik gerta, eta zorigaitza ezin baztertua zuen.

Federikek zion hark ere bizia, berdin, hutsegina zuela.

Ontsa gazte zen oraino. Zergatik etsi? Eta aholku onak emaiten zaukon: “Lanean has zaite! Ezkon zaite!” Erdi-irri samin batzuekin ihardesten zuen; ezen, bere bihotz-minaren arrazoin egiazkoa aithortu orde, alegia bertze bat zuela egiten zuen, ezin goragokoa, “Antony” berri bat eginez apur bat, madarikatua, - hitz horrek, bertzela ere, ezpaitzuen osoki zuen gogamena itxuraldatzen.

Egintza, gizon batzuentzat, hanbat gehiago ezina da nun gutizia azkarragoa baita. Bere buruaz duten mesfidantzak tratatzen ditu, laket izanen ez tirelako beldurrak izitzen; bertzela ere, sendimendu barnatuak emazte onesten idurikoak dira: agertuak izan beldur dira, eta bizia baderamate begiak behe titurik.

Nahiz gehiago ezagutzen zuen Arnoux Anderea (behar bada hortako bereko), lehen baino ere beldur tiagoa zen. Goiz oroz, ausartago izanen zela zin egiten zuen. Ahalge ezin garhaitu batek tratatzen zuen;

ezin zaitekeen ere bida zezakeen behazun edozeini jarraik, hau bertze orotarik ezberdina zenaz geroz. Ametsen indarraren gatik, baldintza gizatar orotarik baztertua zuen. Bere burua sendi zuen, haren ondoan, haixturren artetik zoazkon zetazko phiruxkak baino gutiago lurrean baliagarria.

Gero gauza izigarri, zentzu gabeko batzu gogoratzen zizazkon, hala nola hatzemaitea, gauaz, loeragingarri eta gako falsu batzuekin, - oro haren erdeinuaren jasaitea baino errexago baitzidurikon.

Bertzela ere, haurrak, bi sehiak, barnen moldea eragozpen ezin garhaitu batzu ziren. Beraz, bakarrik ukanen zuela deliberatu zuen, eta elgarrekin bizitzera ontsa urrun joaitea, bakartasuneko leku batera; bilatzen zuen ere zein aintzira aski urdinaren gainean, zein ondartz aski goxoaren hegian, Espainia izanen zenez, Suiza ala Orientea; eta, haserretuagoa iduri zuen egunak bereziki hautatuz, erraiten zaukon hortik jalgi beharko zela, atherabide bat aurkitu, eta etzuela senarraren ganik berexitez bertzerik ikusten. Baina, haurren amodioaren gatik, ehoiz etzen horrelako ezinbertzera jinen. Hoinbertze bertutek handitu zuen Federiken errespetua.

Arratsaldeak bezperako ikustaldiaz orhoitzen iragaiten zizazkon, arratsekoaren gutiziatzen. Etxelarik haien etxean auhaltzen, bederatziak hirian, karrikaren izkinan emaiten zen; eta, Arnoux-ek athe handia hetsia zueneko, bi estaiak igaiten zituen bizi-bizia eta sehiari galdegiten itxura laño batekin:

- “Jauna hor da?”

Gero hura ez hatzemanik ustegabetuarena egiten.

Arnoux, usu, bapatez sartzen zen. Orduan, jarraiki behar zizakon Santa-Ana karrikako kafe ttipi baterano, orai Regimbart han ibiltzen zena.

Herritarra hasten zen Koronaren kontra arrangura berri zenbait erranez. Gero solastatzen ziren, elgarri adixkidetasunezko laido batzu igorritz; ezen faianzalariak Regimbart gogoetatzale goien lerroko batendako zakukan, eta, hainbertze ahal galduak ikusiz griñatua, auherkeriaz kitzikatzen zuen. Herritarrak Arnoux bihotzez eta asmamenez betea zela uste zuen, baina zinez sobera moralgabea; hortakotz etzaukon den gutieneko urrikirik erakusten eta etzuen ere haren etxean auhaldu nahi, “zeremoniak aspertzen” zuelako estakuru.

Batzuetan, goraintzietako orduan, Arnoux gose amikatua gertatzen zen. Jan “behar zuen” arraultze-moleta bat edo sagar erre

batzu; eta, janaririk ehoiz ez izanez etxe hartan, bila igortzen zuen. Igurikatzen zen. Regimbart etzen abiatzen, eta azkenean, murmurikatuz, zerbait onhartzten zuen.

Gogoa ilun zuen bizkitartean, ezen bazagon orenak eta orenak, baso erdikal-bete beraren aitzinean. Gauzak etzituen probidenziak manatzen haren ustez, gogo historara erortzen ari zen, egunkariak etzituen gehiago irakurri nahi ere, eta Angeleterraren izenean berean orroaz hasten zen. Aldi batez oihukatu zuen, gaizki zerbitzatzen zuen mutil baten gatik:

- “Aski laido eztugua bada Atzerritarraren ganik!”

Khexaldi horietarik hara, ixil eta ilunik zagon, gogoan baitzuen “hutseginen etzuen ukaldi bat botiga guziaren leherr-arazteko”.

Hura gogamen horietan galdua zagolarik, Arnoux, mintzo berdin eta behako apur bat mozkorrarekin, hetan, bere ozartasunari esker, argitua zuen gertaldi ezin sinetsizko batzuen erraiten ari zen; eta Federikek (eta hori itxuraz zuten egite zenbaiti zagokokeen) sendi zuen haren ganako ixuri bat bezala. Ahulezia hortaz erasiatzen zuen bere burua, hastiatu behar ukanen zuela ordea aurkituz.

Arnoux deitoratzen zen haren aitzinean emaztearen omoreaz, burutia izaiteaz, zuzengabeko airuez. Lehen etzen horrelakoa.

- “Zure orde,” zion Federikek, “pensione bat egin nezoke, eta bakarrik bizi.”

Arnoux-ek jeus etzuen ihardesten; eta, ephe bat berantago, haren laudorioa hasten zuen. Ona zen, zerbitzu egina, adimendukoa, bertuteduna, eta, gorputzeko gaitasunetera iraganez, nasaiki agertzen zituen, ostatuetan bere thesorak erakusten dituzten jenden xoriburuakeriaren.

Behargabe handi batek khordokatu zuen.

Sartua zen, Konseilu zaintzalekide bezala, lurzuriko kompainia batean. Baina, erraiten zizakon guzian fidatuz, erakarpen hutsezkoak izenpetuak zituen eta onhartuak, egiaztatzerik gabe, khondulariak gezurrez eginak zituen urteko imitorioak. Kompainia, bada, lurrera joana zen, eta Arnoux, legez ogendun, kondenaturik izan berria, bertzeekin batean, damu-domainen bermegora, egiten baitzaukon nunbait han hoge mila liberaren galtzea, jujamenduko arrazoinez handitua.

Federikek hori egunkari batean ikasi zuen, eta Parabisu-ko karrikara laster egin zuen.

Anderearen gambaran hartu zuten. Goizeko askariaren ordua zen. Kafesne gatilu batzuek hartzen zuten sutondoko mahixka erronda. Espartin batzu utziak ziren tapizan, jantzi batzu jargietan. Arnoux-ek, galxoinetan eta ilezko soinekoan, begiak gorri zituen eta ileak harro; Uxen ttipia, beharrondoelen gatik, nigarrez ari zen, bere ogi xerra hortzikatzen zuen batean; arreba geldirik jaten ari zen; Arnoux Andereak, ohian baino apur bat hitsago, zerbitzatzten zituen hirurak.

- “He beraz,” erran zuen Arnoux-ek, hasperen gotor bat eginez, “badakizu!” Eta Federikek urrikizko jestu bat eginik: “Horra! Ene konfienciak galdu nau!”

Gero ixildu zen; eta hain zen aurdikia nun haskaria gibelerat igorri baitzuen. Arnoux Andereak begiak goititu zituen soigainekin batean. Hark eskua bekokira eman zuen.

- “Ororen buruan, eniz ogendun. Eztut neure buruari jeusez erasia egiterik. Zorigaitz bat da! Atherako gira! Ha! Alafe, hanbat gaixto!”

Eta opilño bati lotu zen, obedituz, bertzela ere, emaztearen othoitzer.

Arratsean, bakarrik auhaldu nahi ukan zuen, emaztearekin, gabinet berezi batean, Urrezko Etxean. Arnoux Andereak etzuen bihotzezko urrats hori ontsa hartu, gaitzitzuz ere emazte arin bat bezala arthatua izaiteaz; - alderantziz hori, Arnoux-en ganik, maitasunezko lekukotasun bat zelarik. Gero Arnoux, aspertzen baitzen, libertitzera Marexalsaren etxera joan zen.

Ordu arteo, ainitz gauza barkatuak zizazkon, jitez gizon gozoa zelakotz. Auzi horrek ezarri zuen jende gaizkituen lerroan. Bakartasun bat jarri zen haren etxe inguruan.

Federikek, berari buruzko ohorez, uste ukan zuen ehoiz baino gehiago ikusi behar zituela. Behereko egongia bat alokatu zuen Antzoki Italiarrean eta harat ereman zituen aste oroz. Unhadura ezin garhaitu bat, berdintasunik gabeko batasunetan, elgarri amor emaite guzietarik sortzen den eta bizia ezin jasana bilakatzen den une hartan ziren, bizkitartean. Arnoux Andereak indar egiten zuen ez sumintzeko, Arnoux iluntzen ari zen; eta bi izaite horien ikusteak zorigaitzean trixtatzen zuen Federik.

Andereak emana zaukon, konfiencian zuenaz geroz, Arnoux-en egitekoak zertan ziren jakiteko lana. Baina Federik ahalgetua zen, pena zuen haren emaztea gutziziatuz auhaltzean. Bazarraikan alta, bere buruari emanaz zaindu behar zuelako desenkusa, eta hari baliagarri izaiteko aldi bat gertatuko zela.

Dantzalditik zortzi egunen buruan, ikustaldi bat egina zaukon Dambreuse Jaunari. Dirulariak eskainia zauzkon bere ikaztegian hamar bat diru-balio; Federik etzen berriz hara itzulia. Deslauriers-ek eskutitzak izkiriartzen zauzkon; ihardetsi gabe uzten zituen. Pellerin-ek potretaren ikustera jin zadin errana zaukon; beti bazterrera uzten zuen. Amor eman zaukon alta Cizy-ri, ezpaitzuen Ronsanette-ren ezagun-arazteko bakean uzten.

Hunek biziki jendeki hartu zuen, baina lephora jauzi egin gabe, lehen bezala. Lagunak zorion ukan zuen emazte lizun baten etxean onhartua izateaz, eta oroz gainetik komedialari batekin solastatzeaz, Delmar hor baitzen.

Drama batek, hartan bilaun bat eginik Luis XIV-garrenaren erasiatzen ari eta aitzinetik 89-aren iragartzen, hain zuen agerian ezarria nun beti joko-aldi bera moldatzen baitzizakon; eta haren ofizioa, orai, erresuma orotako monarken laidoztatzea zen. Garagarno egile angeles, Charles I-ena ahapaldikatzen zuen; Salamankan ikasle, Filipe II-garrena madarikatzen; edo, aita sendikor, Pompadour-saren kontra sumintzen, ederrena zen! Haurreriak, ikusteko, antzoki-gibeletako athean igurikatzen zuen; eta haren biziak, egintzartetan saldua, marrazkitzen zuen bere ama xaharraren arthatzen, Ebanjelioaren irakurtzen, beharrean zirenen laguntzen, azkenean san Bixente Paul-goaren itxuran, Brutus eta Mirabeau-rekin nahasirik. “Gure Delmar” zioten. Bazuen misione bat, Krixto bilakatzen zen.

Horrek guziak lilluratua zuen Rosanette; eta Oudry aita ekhendua zuen, ezerez axolatu gabe, ezpaitzen gutiziari emana.

Arnoux, ezagutzen baitzuen, hortaz baliatua zen gastu gutitan atxikitzeke; gizon zaharra jina zen, eta artha hartua zuten, hirurek, elgarren artean gauzen ez gehiegi argitzeke. Gero, ustez eta bertzea igortzen zuen haren bakarrarendako, Arnoux-ek emaitza goititua zaukon. Baina galdeak berritzen ziren usutasun ezin argitu batekin, ezen bizi-modua gutiago gastukoa baitzeraman; saldua zuen ere bere kaxamirarano, zituen zor zaharrak ordaindu beharrez, zionaz; eta hark bazemon beti, xoratzen baitzuen, hartaz sobera baliatuz, urrikirik gabe. Hortakotz khonduek, paper timbredunek bazarioten etxean. Federikek sendi zuen gaitzaldi bat hurbil.

Egun batez, Arnoux Anderearen ikustera ethorri zen. Atheraia zen, Jauna lanean ari beherean, saldegian.

Alabaina, Arnoux, bere untzierien erdian, ezkondu gazte batzuen lilluratzerantz entseatzen zen, probinziako burjes batzu. Mintzo zizeen torneatzeaz, bertorneatzeaz, titakatuaz eta dirdiratuaz; bertzek, jeus entzuten etzutelako itxura ez nahiz ukan, baieztatzeko jestu batzu egiten zituzten eta erosten zuten.

Erosleak kampoan izan zirelarik, erran zuen emaztearekin ukana zuela, goizean, aharra ttipi bat. Gastuaz oharren baztertzeko, errana zuen Marexalsa etzuela gehiago ohaide.

- “Errana daukot ere zurea zela.”

Federik sumindua izan zen, baina erasiek sala zezaketen; ahopiatu zuen:

- “Ha! gaizki egin duzu, biziki gaizki!”

- “Zer egiten du?” erran zuen Arnoux-ek. “Haren maitale hartua izaiteko desohorea nun da? Hala niz ori, ni! Etzinitazkea hala izaitiaz loriatua?”

Andereak zerbait errana ote zuen? Federikek ihardetsi zuen berehala:

- “Ez! batere! alderantziz!”

- “He bada, beraz?”

- “Ba, egia da! ezta horrek jeus egiten.”

Arnoux-ek egin zuen berriz:

- “Zergatik etzira gehiago hara jiten?”

Federikek hitzeman zuen joanen zela.

- “Ha! Ahazten nuen! behar zinueke..., Rosanette-ez mintzatzean..., zerbait ene emazteari erran..., zer eztaikit, baina hatzemanen duzu... zerbait haren maitale zirela sinet-araz dezokeena. Hori zerbitzu bat bezala eskatzen dautzut, eztea?”

Mutiko gazteak, erantzun orotako, ihakin ezpaiko bat egin zuen. Gaitzerraite horrek galduko zuen. Arnoux Anderearen etxera joan zen arratsean berean, eta Arnoux-en aipua etzela egia zin egin zuen.

- “Ontsa egia?”

Zinez ari zela iduri zuen; eta, andereak hats handi bat hartua ukan zuenean, erran zaukon: “Sinesten zitut,” irriño eder batekin; gero burua behehituz, eta, hari behatu gabe:

- “Bertzela ere, ehork ezta zure gainean eskubiderik!”

Etzuen beraz ezer asmatzen, eta gutiesten zuen, hari leial izaiteko aski maita zezakeela uste etzuenaz geroz! Federikek, bertzearen ondoan egin entseguak ahatziz, baimen hori laidagarri aurkitzen zuen.

Gero, othoiztu zuen “emazte haren etxera” joan zadin zenbait aldiz, egia zer zen ikusteko apur bat.

Arnoux ethorri zen, eta, bortz minuta berantago, Rosanette-ren etxera ereman nahi ukan zuen.

Izanara ezin jasana bilakatzen ari zen.

Notariaren eskutiz batek hortarik bazterr-arazi zuen biharamunean igorri behar baitzauzkon hamabortz mila libera; eta, Deslauriers-en alderako axolagabea zuzendu nahiz, joan zizakon berehala berri on horren ikastera.

Abokata Hirur-Marien karrikan bizi zen, borzkarren estaian, korrale baten gainean. Gabinetak, barne ttipi lauzatu bat, hotza, eta paper hautsaran batez estalia, aphaindura nagusitako urrezko medaila bat zuen, doktoragoko saria, zurbeltzezko kadre batean sartua mirailaren ondoan. Zurgorritzko liburutegi batek bazaduzkan berina-pean ehun bat liburu, nunbait han. Bulego-mahiak, ardi-larrukiz estalia, hartzen zuen bizitegiaren erdi-gunea. Balusa muskerrekilako laur jargia zaharrek hartzen zituzten izkinak; eta ezpal batzu erretzen ari ziren khebidean, baitzen beti han zama bat phizteko prest xilintxa ukaldian. Konsulten ordua zen; abokatak bazuen lephoko xuri bat.

Hamabortz mila liberen berriak (etzagon gehiago haien beha, iduriz) atseginezko irri-erkats bat egin-arazi zaukon.

- “Ontsa duk, gaizoa, ontsa, biziki ontsa!”

Egurra sura egotzi zuen, berriz jarri zen, eta berehala Egunkariaz mintzatu. Egin behar zen lehenbiziko gauza, Hussonnet- ez gabetzea zen.

- “Buruzoro horrek akhitzen nik! Aburu baten zerbitzuko izaitez aldiz, zuzenena, ene ustez, eta azkarrena, batere ez ukaitea duk.”

Federik ustegabetua izan zen.

- “Baina dudarik eztuk! Ordu lizatekek Politikaz jakitaterekin artzeko. XVIII-garren mendeko zakarrak hasten ari zitukan, Rousseau-k, literaturegilek hor sartu ditielarik filantropia, poesia, eta bertze ixtorio batzu, katolikoan bozkario handieneko; bateratze naturala, bertzela ere, oraiko erreformalariak (phoroga dezakeat) guziek Erlisonean sinesten dienaz geroz. Baina, Poloniarendako mezak kantatzen baldin badituzue, dominikanoen Jainkoaren orde, burrego bat zena, erromantikoena ezartzen baduzue, tapizalari bat dena; eta azkenean, ezpaduzue Osoaz zuen arbasoek baino gogatzeko zabalagoa, monarkiak zilatuko du zuen molde errepublikarretan, eta zuen bonet gorria ezta nehoiz aphez xano bat baizik izanen! Bakarrik, presondegi geladunak hartuko dik torturaren

lekua, Erlisioneari laido egiteak sakrileioa, batasun europatarrak Alianza-Saindua; eta miresten den ordenu eder hortan, Luis XIV-garrenaren aroko phorroskez, Voltaire-ren ondarkinez, gisu imperialarekin gainetik eta konztituzione angeles zati batzuekin, ikusiko dira herriko konseiluak auzaphezer gaizki egitera indar egiten, konseilu jeneralak prefetari, gambarak erregeri, gazetak gobernuari, adminiztrazionea orori! Baina arima onak miraz daude “Code Civil” delakoaren aitzinean, lan bortxatua, nahi dena erran, izpiritu hertsia, tiraniko batekin; ezen legelariak, bere lana egin orde, ohiduraren arautzea dena, nahi ukan du gizartea moldatu Lycurgue batek bezala! Zergatik legeak trabatzen dik aita familiakoa testamendu egitean? Zergatik berdin eraikuntzen saltze bortxatua? Zergatik arlotekeria gaztigatzen elukeelarik gaizki bat ere izan behar! Eta badituk bertzeak! Ezagutzen ditiat! hortakotz eginen diat elaberri ttipi bat *Zuzenbideko gogamenaren ixtorioa* izenburuarekin, jostagarria izanen dukana! Baina badiat egarri bat izigarria! eta hik?”

Leihotik gurtu zen, eta athezainari oihu egin bi grogen bila joan zadin edandegira.

- “Laburpenez, ikusten ditiat hirur alderdi..., ez! hirur multzo, - batek ezpainik hunkitzen: badutenena, eztutenena, eta ukaitera indar egiten dutenena. Baina guziak bat dituk Larderiaren adorazione zozo batean! Behazunak: Mably-k gomendatzen dik folosofoer debeka dadin bere lanen argiratzea; Wronski Jaunak, lur-neurleak, baderitzok bere erdaran zensurari “espontanetasun espekulatiboaren errepresione kritikoa”; Aita Enfantin-ek Habsbourg-tarrak benedikatzen ditik “Alpen gainetik esku phizu bat emanik Italiaren zapatzeko”; Pierre Leroux-ek nahi dik mintzari baten entzutera bortxa zaitzaten, eta Louis Blanc Estatuko erlisione batera ixuria duk, hanbat dik menpekoez egin den jendalde hunek gobernamentuko errabia! Bat eztuk alta legezkoa denik, haien betiereko “prinzipioak” izanik ere. Baina, *prinzipio* hitzak erran nahi baitik *ethorkei*, behar duk beti iraultza betera jo, bortiztasunezko egintza batera, gauza iragankor batera. Horrela, gurearen erroa soberania nazionala duk, parlamentuko moldean entzunik, nahiz parlamentuak eztian hori onhartu nahi! Baina zertan jendalde baten soberania ote lizatekek zuzenbide jainkotarra baino sakratuago? Bata eta bertzea bi iduripen huts dituk! Metafisikatik aski, itxura hutsik ez gehiago! Karriken ikuzteko, dogma beharrik ez! Gizartea aurdikitzen dutala erranen die! Eta beraz, gero? gaitza nun lizatekek? Xuri duk, alabaina, hire gizartea.”

Federikek gauza ainitz ukanen zuen ihardesteko. Baina, Senecal-en theoriatarik urrun ikusten baitzuen, barkatzera azkarki ekharria zen. Aski ukan zizakon horrelako sistema batek orotan hastia-araziko zituela ihardestea.

- “Alderantziz, alderdi bakoitzari emana daukogunaz geroz auzokoaren hastiatzeko berme bat, guziak guri egonen dituk. Hortan hasiko hiz, hi ere, eta kritika gorenetik eginen daukuk!”

Jaukitu behar zizeen ohiko gogoeter, Akademiari, Eskola normalari, Konserbatorioari, Komedia-Frantzesari, erakundearen iduria bazuen orori. Hortarik zuten bere Agerkariari dotrina bilduma bat emanen. Gero, ontsa jarria izanen zenean, berrikaria bapatez egunkari bilakatuko zen; orduan jender lotuko ziren.

- “Eta errespetatuko gitie, segur izan hadi!”

Deslauriers bere amets zaharrera heltzen ari zen: berrikari idazle nagusigora, erran nahi da bertzen buru izaiteko zorion ezin erranera, haien artikuluetan erdi-erditik moztekora, hetarik manatzekora, ez onhartzekora. Begiak phindarka ari zizazkon begitakoen azpian, buruberotzen ari zen, baso ttipi batzu edanez, bat bertzearen ondotik, ohartu gabe.

- “Auhari bat eman beharko duk astean behin. Baitezpadakoa duk, hire irabaziaren erdiak joan behar balik ere! Ethorri nahiko die, bertzendako bilgune bat izanen duk, horetako esku-haga bat; eta, jendearen gogoia bi buruetarik erabiliz, literatura eta politika, sei ilabete gabe, ikusiko duk, Parisen lehenbiziko lerroa atxikiko diaguk.”

Federikek, haren entzutean, bazuen gaztetzen ari zelako sendimendu bat, gambara batean luzaz egon ondoan aire betera eremana den gizon batek bezala. Gar horrek hartzen ari zuen.

- “Bai, auher bat izana nuk, zozo bat, arrazoin duk!”

- “Ha azkenean!” egin zuen Deslauriers-ek; “berraurkitzen diak ene Federik!”

Eta, ukhomiloa matel-hezur azpian ezarriz:

- “Ha! oinazka-arazi nauk! berdin duk! hala ere maite haut.”

Zutik ziren eta elgarri beha, hunkiak bata eta bertzea, eta besarkatzera zaozin.

Emazte bonet bat agertu zen aitzin-gambarako alhazean.

- “Zerk ekhartzen hau?” erran zuen Deslauriers-ek.

Clemence Andereñoa zen, haren maitalea.

Ihardetsi zuen, etxe aitzinean halabeharrez iragaitean, etzaukola ihardoki ahal ukan haren ikusteko gutiziari; eta, elgarrekin janaldi ttipi baten egiteko, bixkotxa batzu ekhartzen zauzkon, mahi gainean ezarri zituenak.

- “Guardi eman ene paperrer!” egin zuen berriz saminki abokatak. “Bertzela ere heren aldia dun konsultadi orduetan jitea debekatzen daunatala.”

Andereak besarkatu nahi ukan zuen.

- “Ontsa! habil! abia hadi!”

Igortzen zuen, hark hasperen handi bat egin zuen.

- “Ha! aspertzen nun, azkenean!”

- “Maite baihaut!”

- “Eztinat maitatua izaita eskatzen, baina zerbitzatua!”

Hitz horrek, hain gogorra, Clemence-ren nigarrak gelditu zituen. Leiho aitzinean zutik eman zen, eta han zagon geldirik, bekokia berinari kontra.

Egonara horrek eta ixilak aspertzen zuten Deslauriers.

- “Aski ukanen dunalarik, hire karrosa manatuko dun, eztea hala!”

Jauzian itzuli zen.

- “Haizatzen nauk?”

- “Zinez!”

Gainean itzatu zauzkon bere begi handi urdinak, azken othoitz batendako iduriz, gero ilezko bizkarrekoaren bi puntak gurutzatu zituen, minuta bat oraino egon zen eta joan.

- “Berriz deitu bahar hukek,” erran zuen Federikek.

- “Hea bada!”

Eta, atheratzeko beharra baitzuen, Deslauriers sukaldera iragan zen, ikuztegia ere hura baitzen. Baziren lauzadan, bota pare baten ondoan, bazkari mehe baten ondarrak, eta zoko batean matalatz bat estalgi batekin lurrean biribilakatu zen.

- “Hunek erakusten dauk,” erran zuen, “markesta guti ukaiten dutala! Gabe errex egoiten duk, hoa! eta bertzerik gabe ere. Jeus gostatzen etzazkikanek dembora jaten dauie; dirua duk ere bertze molde batean; ezpainuk aberatsa! Eta oro hain dituk zozoak! hain zozoak! Elhaka haitekea emazte batekin, hi?”

Elgarretarik berexi ziren Zubiberrian.

- “Horrela, hitzemaña! gauza bihar ekharriko dautak, ukan orduko.”

Biharamunean, atzartzean, postatik ukan zuen hamabortz mila liberako bat Bankoaren gainean.

Paperxka horrek itxuratu zauzkon hamabortz zorro lodi diruz beteak; eta egin zuen horrelako diru-alde batekin zer egin zezakeen: lehenik karrosa hirur urtez atxiki, saltzeko orde sarri bortxatua izanen zen bezala, edo bi harmadura damaskinatu eder erosi Voltaire kaian ikusiak zituenak, gero mila gauza oraino, margazki, liburu, eta zenbat lore floka, Arnoux Anderearendako emaitzak! Oro, azkenean, egunkari batean hainbertze diruren galtzea baino hobe izanen zen! Deslauriers ausartegia iduritzen zizakon, bezperako sendimendugabekeriak hozten zuen haren aldera, eta Federik urrikitze horietara emaiten ari zen, ustegabetua izan zenean Arnoux sartzen ikusiz, - ohatzearen izkinan jarri baitzizakon, phizuki, jasan ezinean den gizon bat bezala.

- “Zer da bada?”

- “Galdua niz!”

Eman behar zituen, egun berean, Jn Beauminet, Santa-Ana karrikako notariaren bulegoan, hemezortzi mila libera, Vanneroy delako batek prestatuak.

- “Hondamen bat da ezin argitua! Bahidura bat emana naukon, gostuan ezarri behar zuena, bizkitartean! Baina manu batez mehaxatzen nau, arratsalde huntan ezpada ordaindua, sarri!”

- “Eta beraz?”

- “Beraz, biziki errex da! Ene etxea harr-araziko du. Lehenbiziko iragarkiak hondatzen nau, horra guzia! Ha! Norbait aurki baneza diru madarikatu horren aitzinatzeko, Vanneroy-ren lekua har lezake eta salbu ninzateke! Zoriz, etzinuke zuk?”

Mandata ohe-mahi gainean gelditua zen, liburu baten ondoan. Federikek hau hartu zuen eta gainean ezarri, ihardetsiz:

- “Jainkoa, ez, adixkide maitea!”

Baina Arnoux-i ezaren emaita etzizakon errex.

- “Nola, eztuzu nehor aurkitzen nahi dautzuna?...”

- “Nehor! eta gogoari emazu, hemendik zortzi egunen buruan, sartzeak ukanen ditutala! Zor zata behar bada... berrogei-ta hamar mila libera ilabetearen buruko!”

- “Etzinezazkea zor dautzuten delakoak aitzina dezautzuten othoitz?...”

- “Ha! baietz!”

- “Baina balio batzu badituzu, billetak?”

- “Jeus ez!”

- “Zer egin?” erran zuen Federikek.

- “Hortan berean nago,” egin zuen berriz Arnoux-ek.

Ixildu zen, eta bazabilan gambaran harat eta hunarat.

- “Ezta enetako, Jainkoa! baina haurrendako, ene emazte gaixoarendako!”

Gero, hitz guziak banakatuz:

- “Azkenean... azkar izanen niz..., hori guzia paketatuko dut..., eta fortuna bila joanen niz... norat eztakit!”

- “Ezin da!” egin zuen Federikek.

Arnoux-ek ihardetsi zuen itxura ezti batekin:

- “Nola nahi duzu Parisen bizi nadin, orai?”

Ixilune handi bat izan zen.

Federik erraiten hasi zen:

- “Noiz itzuliko dautazu diru hori?”

Ez batere bazuelakotz, etzuen! Baina deusek etzaukon debekatzen adixkide batzuen ikustea, urrats batzuen egitea. Eta mutila deitu zuen janzteko. Arnoux-ek eskertzen ari zuen.

- “Hemezortzi mila libera dituzu behar, eztea hala?”

- “Oi! hamaseirekin egon nindaikela! Ezen bi mila eta bortz ehun bederen eginen baititut, hirur mila ene zilharreriarekin, Vanneroy-k, bizkitartean, bihar arteo uzten badauta; eta, berriz ere diotzut, erran dezokezu, zin egin ere prestatzaleari, zortzi egun barne, behar bada bortz edo sei, dirua itzulia izanen dela. Bertzela ere, bahimendura berme da. Beraz, lanjerrik ezta, entzuten duzu?”

Federikek erran zuen entzuten zuela eta berehala jalgiko zela.

Etxean gelditu zen, Deslauriers madarikatuz, ezen hitza atxiki nahi zuen, eta aldi berean Arnoux-i zerbitzu eman.

- “Dambreuse Jaunari hel egin banezo? Baina dirua zein estakururekin galdegin? Nihauri dago, alderantziz, haren etxera eremaitea ikatzeko diru-balioendako! Ha! joan bedi bere diru-balioekin! Eztitut zor!”

Eta Federik hoilatzen zen bere gaintasun hortaz, Dambreuse Jaunari zerbitzu batendako eza emana ukan balauko bezala.

- “He bada,” egin zuen gero bere baitan, “alde hortarik galtze bat badagitanaz geroz ezen, hamabortz mila liberarekin, ehun mila irabaz nezazke! Batzuetan hori Molsan ikusten baita... Beraz, bati huts egiten

daukotanaz geroz, eniza libro?... Bertzela ere, Deslauriers-ek igurikatu baher balu! - Ez, ez, gaizki da, goazen!”

Erloiari behatu zaukon.

- “Ha! lehiaturik jeus ezta! ezta Bankoa bortz orenetan baizik hesten.”

Eta, laurak eta erditan, dirua hartua ukan zuelarik:

- “Debalde da, orai! Eztut aurkituko; arratsean joanen niz!” berari emanaz horrela deliberoz aldatzeko bidea, beti gelditzen baita konzenzian hartara ixuriak diren hutsezko arrazoinetarik zerbait; haien gibel gostua badatxika, edari gaixto batena bezala.

Karrika handietan ibili zen, eta ostatuan bakarrik auhaltu. Gero egintza bat entzun zuen Vaudeville-an, libertitzeko. Baina bankoko billetek trabatzen zuten, ebatsiak ukan balitu bezala. Etzen hek galdurik griñatua izanen.

Etxera sartzean, eskutitz bat aurkitu zuen, hitz hauekin:

“Zer berri?”

Emaztea eni juntatzen da, adixkide maitea, dugun esperanza, eta bertze...

Zure gomendio,”

Eta zirrimarra bat.

- “Emaztea! othoizten nau!”

Ordu berean Arnoux agertu zen diru lehiatua hatzema zuenez jakiteko.

- “Oizu, horra!” erran zuen Federikek.

Eta, hogeita laur oren berantago, Deslauriers-i ihardetsi zaukon:

- “Eztut deus ukan.”

Abokata berriz itzuli zen hirur egunez jarraikian. Notariari izkiriatzera hertsatzen zuen. Eskaini zuen ere Havre-ko bidaiaren egitea.

- “Ez! ezтик balio! joanen nuk!”

Astea bururaturik, Federikek herabeki galdegin zauzkon Arnoux jaunari hamabortz mila liberak.

Arnoux-ek biharamunera luzatu zuen, gero ondoko egunera. Federik atheratzera gaua erori-eta menturatzen zen, Deslauriers-ek hatzema izan beldurrez.

Arrats batez, norbaitek jo zuen Madalenako izkinan. Hura zen.

- “Banoak bila,” erran zuen.

Eta Deslauriers-ek lagundu zuen etxeko atherano, Poissonnière hiri-bazterrera.

- “Igurika nezak!”

Igurikatu zuen. Azkenean, berrogei-ta hirur minuten buruan, Federik Arnoux-ekin jalgi zen, eta kheinu bat egin zaukon oraino apur bat igurika zezan. Faianza saltzaleak eta haren lagunak igan zuten, besoz-beso, Hauteville karrika, gero Chabrol karrika hartu.

Gaua iluna zen, haize ezti baten buhadekin. Arnoux bazoan emeki, Komerzioko Galeriez mintzo zen batean: Saint-Denis karrika handitik Gazteluttora eremanen zuten bide estali lerro bat, mirazko dirujokoa, hartan sartzeko gutizia baitzuen; eta gelditzen zen noiztenka saldegien berinetan nesken begitarteari behatzeko, gero bere hitzaldia berriz hasiz.

Federikek entzuten zituen giblean Deslauriers-en urratsak, erasia batzu eta konzienjian joiten zaukoten ukaldi batzu bezala. Baina etzen galdearen egitera menturatzen, ahalge gaixtoz, eta debaldekoa izan zadin beldurrez. Bertzea hurbiltzen ari. Deliberoa hartu zuen.

Arnoux-ek, doinu biziki arin batekin, erran zuen, hartze zituenak ez ukanik, ezin zezazkeela itzul, orai, hamabortz mila liberak.

- “Beharrik eztuzu, uste dut?”

Ordu hartan, Deslauriers Federiki hurbildu zizakon, eta bazterrera eremanez:

- “Egia errak, badituk, ba ala ez?”

- “Beraz, ez!” erran zuen Federikek, “galdu ditiat!”

- “Ha! eta zertan?”

- “Jokoan!”

Deslauriers-ek etzuen hitzik ihardetsi, biziki aphalduz agur egin zuen, eta joan zen. Arnoux aldiaz baliatua zen zigarro baten phizteko tabakotegi batean. Itzuli zen mutiko gazte hori nor zen galdeginez.

- “Deus ez! adixkide bat!”

Gero, hirur minuta berantago, Rosanette-ren athe aitzinean:

- “Igan zaite bada,” erran zuen Arnoux-ek, “zure ikusteaz atsegin ukanen du. Nola ohildua ziren, orai!”

Aitzinean zen gauargi batek argitzen zuen; eta bere zigarroarekin hortz zurien artean eta zorioneko itxurarekin, zerbait bazuen ezin jasanezkoa.

- “Ha! erraiteko, goizean ene notaria izana da zurearen etxean, bahimendurako izkirio hortako. Emazteak dauta orhoit-arazi.”

- “Buruko emaztea!” egin zuen ohartu gabe Federikek.

- “Uste dut!”

Eta Arnoux-ek hasi zuen berriz haren laudorioa. Berdinik etzuen izpirituko, bihotzeko, ekonomiako; gaineratu zuen mintzo aphal batekin, begiak itzulikatuz:

- “Eta emaztearen gozputzeko!”

- “Goraintzi!” erran zuen Federikek.

Arnoux-ek jestu bat ukan zuen:

- “Ori! Zegatik?”

Eta, eskua haren aldera erdi luzaturik, ikertzen zuen, haren begitarteko haserreaz osoki balditua.

Federikek ihardetsi zuen idorki:

“Goraintzi!”

Breda karrika jautsi zuen dabilan harri batek bezala, Arnoux-en kontra erotua, ehoiz berriz etzuela ikusiko zin eginez, eta anderea ere, bihotza erdiratua, lastimatua. Igurikatzen zuen haustearen orde, horra nun bertzea, alderantziz, emaztearen maitatzen hasten zen eta osoki, ile punttarik arimako zolarano. Gizon horren arruntak Federik sumintzen zuen. Guziaren jabe zen beraz, hura! Berriz aurkitzen zuen neska haren athean; eta hauste baten ahalgea bazoakon ahal ezinaren errabiaren gainera. Bertzela ere, Arnoux-en zuzenak diruarendako bermegoak eskainiz ahalgetzen zuen; itho nahiko zuen; eta bihotzminaren gainetik bazuen konzienzian, lanho bat bezala, adixkidearendako kuraia gabea izana zelako sendimendua. Nigarrek hertsatzen zuten.

Deslauriers bazoan lasterrez Martiren karrikari beheiti, suminduraz gora gora sakreka; ezen haren lan xedea, aurdiki den harrizut bat bezala, goratasun izigarri batekoa baitzidurikon orai. Bazadukan ebatsirik izana zela, galtze handi bat jasana ukana balu bezala. Federikendako zuen adixkidetasuna hila zen, eta hortaz zorionean sendi zen; ordaintze bat zen! Herra batek hartu zuen aberatsen kontra. Senecal-en aburuetara eman zuen eta zerbitzatuko zituela hitzeman.

Arnoux, bitartean, jargia handi batean gozoki jarria, sutondoan, the gatilu baten usnatzen ari zen, Marexalsa belaunen gainean atxikiz.

Federik etzen gehiago haien etxera itzuli; eta, bere maitasun deitoragarritik libertitzeko, jin zizakon lehenbiziko gaia hartuz, deliberatu zuen *Berphixteko Ixtorio* baten egitea. Nahas-mahas metatu zituen humanixtak, filosofoak eta poetak, Estampen Gabinetera joaiten zen, Marc-Antoine-ren marrazkien ikustera; Machiavel-en entzuteko indar egiten zuen. Apurka apurka, laneko jabaldurak eztitu zuen. Bertzen

nortasunean murgilduz, berea ahatzi zuen, hori baita behar bada nor bereaz ez oinazkatua izaiteko molde bakarra.

Ohar hartzen ari zen egun batez, gostura, athea ideki zen eta mutilak iragarri zuen Arnoux Anderea.

Hura zen bada! bakarrik? Baina ez! ezen eskutik bazadukan Uxen ttipia, sehia gibeletik taulier xuritan. Jarri zen; eta, eztul egin ondoan:

- “Badu aspaldi etzirela etxera ethorri.”

Federikek desenkusarik ezpaitzuen aurkitzen, hark gaineratu zuen:

- “Ikustate bat da zure aldetik!”

Federikek egin zuen:

- “Zer ikustate?”

- “Arnoux-endako egina duzuna!” erran zuen.

Federikek jestu bat egin zuen erran nahi zuena: “Ontsa berdin zata! zuretako zen!”

Haurra igorri zuen sehiarekin saloinean jostatzerara. Bizpahirur hitz elgarri erran zituzten osagarriaz, gero solasa erori zen.

Zeta beltzaranezko zaia batez jantzia zen, Espainiako arno baten kolorekoa, balusa beltzezko maripulis batekin, marta-larrua bazterretan; larru horrek bazeman gainean eskuen emaitako gutizia, eta ile xerrenda luze ontsa leunduek ezpainak bereganatzen zituzten. Baina sendimendu batek nahasten zuen, eta, begiak athe aldera itzuliz:

- “Apur bat bero da, hemen!”

Federikek asmatu zuen haren behakoaren xede zuhurra:

- “Barkatu! bi atherdiak eztira hurbilduak baizik.”

- “Ha! egia da!”

Eta irriño bat egin zuen erran nahiz bezala: “Eniz jeusen beldur.”

Berehala galdegin zaukon zerk zuen ekhartzen.

- “Senarrak,” egin zuen berriz indarrekin, “zure etxera jitera ekharri nau, bera urrats huntara ezin menturatuz.”

- “Eta zergatik?”

- “Dambreuse Jauna ezagutzen duzu, eztea hala?”

- “Ba, doi bat!”

- “Ha! doi bat.”

Ixilik zagon.

- “Berdin da! Burura ezazu.”

Orduan, erran zuen Arnoux-ek etzituela bezperagoan ordaindu ahal ukanak bankolariaren izenean ezarriak ziren laur mila liberak, hek berari izenpe-araziak baitzauzkon. Urriki zuen haurren fortuna irriskuan

ezarririk. Baina oro desohorea baino hobe zen; eta, Dambreuse Jauna jaukitzetik gelditzen baldin bazen, laster ordainduko zen, segurki; ezen Chartres-en zuen etxe ttipi baten saltzera zoan.

- “Gaixo emaztea!” egin zuen ahapetik Federikek. - “Joanen niz! sinets nezazu.”

- “Eskerrak!”

Abiatzeko xutitu zen.

- “Oi! deus eztuzu oraino lehia-arazten zituenik!”

Xutik egon zen, tronaduratik dinlindan zagon gezi mongoldarrezko garhaikinari behatuz, liburutegiari, liburu-azaler, izkiriatzeko tresna guzier; lumak zaduzkan burdin-horizko untxiaren estalgia goititu zuen; haren aztalak egon ziren tapizako leku andana batean. Aldi batzuez ethorria zen Federiken etxera, baina beti Arnoux-ekin. Bakarrik gertatzen ziren, orai, - bakarrik, Federiken beraren etxean; - gertakari ohigabeko bat zen, abantzu zorion bat.

Baratze ttipia ikusi nahi ukan zuen; Federikek besoa eskaini zaukon bere etxalden erakusteko, hogeita hamar oin lur, etxez inguratuak, izkinetan zuhaxkez eta erdian taloin batez aphaindua.

Jorraileko lehen egunetan zen. Lilen orstoak muskertzen ari ziren jadanik, hats garbi bat bazoan airean, eta xoriño batzu tiutaka ari, bere kantua aldizkatuz karrosari baten aroztegiak bazegien harrabots urrunarekin.

Federik izan zen suko phala baten bila; eta elgarren sahetsean bazabiltzalarik, haurra ari zen bidexkan ondartz meta batzuen eraikitzen.

Arnoux Andereak etzuen uste geroago asmamen handikoa izanen zela, baina omore goxoa zuen. Arrebak, aldiz, bazuen jitez batzuetan gaitzitzen zuen idor bat.

- “Aldatuko da,” erran zuen Federikek. “Ezta nehoiz etsitu behar.”

Ihardetsi zuen:

- “Ezta nehoiz etsitu behar!”

Bere erranaldiaren ohargabeko errepika hori halako sustatze bat iduritu zizakon; arrosa bat moztu zuen, baratzeko bakarra.

- “Orhoitean duzua... arrosa floka bat, gau batez, karrosan?”

Apur bat gorritu zen; eta, urriki trufatzale baten doinuarekin:

- “Ha! ontsa gaztea nintzan!”

- “Eta hori,” egin zuen berriz ahapetik Federikek, “berdin izanen dea?”

Ihardetsi zuen, girtaina erhien artean itzulika-arazten zuen batean, ardatz bateko haria bezala:

- “Ez! Atxikiko dut!”

Sehia jestu batez deitu zuen, haurra besoan hartu baitzuen; gero, athe alhazean, karrikan, Arnoux Andereak lilia usaindu zuen, burua soingainera gurtuz, eta musua bezain eztiko so batekin.

Berriz gabinetera igana izan zenean, Federik egon zen jarria izana zen jargiari eta hunkiak zituen gauza guzietan beha. Harena zen zerbait bazabilkion inguruan. Haren han egoitearen pherekak bazirauen oraino.

- “Beraz hor izana da!” zion bere buruari.

Eta mugagabeko samurtasun baten uhainek gainditzen zuten.

Biharamunean, hameka orenetan, Dambreuse Jaunaren etxera ethorri zen. Jateko salan hartu zuten. Bankolaria askaltzen ari zen emaztearen aitzinean. Hunek iloba sahetsean zuen, eta bertze aldetik errientsa, Angeles bat, pikotaz azkarki titatua.

Dambreuse Jaunak bere adixkide gaztea haien artean jartzera gomiatu zuen, eta, hunen ezan:

- “Zer badagikezut? Errazu.”

Federiketik aithortu zuen, axolagabearena eginez, Arnoux delako batendako zerbaiten eskatzera heldu zela.

- “Ha! Ha! margazki saltzale ohia,” erran zuen bankolariak, hortz-hobiak agertzen zauzkon irri batekin, “bermea Oudry zuen, lehenago; samurto dira.”

Eta mahikoen ondoan ezarriak zizazkon eskutitz eta egunkarien irakurtzen hasi zen.

Bi mutil zerbitzatzen ari ziren, tauladan harrabotsik egin gabe; eta salaren goratasunak, berogailuen leunak, jakien ezartzeko moldeak, hirur athe handi tapizeriadunekin eta harbizi zurizko bi ithurriekin, eta mahiko oihalen izur gogorretarano, gozotasun aberats horrek guziak bazegien Federiken gogoan ezberdintasun handi bat Arnoux-en etxeko bertze askari batekin. Etzen Dambreuse Jaunaren moztera ausartzen.

Anderea zuen erazgozpenari ohartu zen.

- “Badakusazua artetan Martinon gure adixkidea?”

- “Arratsean jinen da,” erran zuen bizi-bizia nextato gazteak.

- “Ha! badakin” egin zauzkon izabak, behako hotz bat emanez.

Gero, mutiletarik bat beharrira gurturik:

- “Hire dendaria, haurra!... miss John!”

Eta errientsa, obediantea, itzali zen bere ikaslearekin.

Dambreuse Jaunak, kaderen higitzeaz nahasia, galdegin zuen zer zen.

- “Regimbart Anderea da.”

- “Ori! Regimbart! Izen hori ezagutzen dut. Horren izenpetzea aurkitua dut.”

Federik bere galdera jin zen azkenean; Arnoux-ek hartaz axolatzea merezi zuen; bazoan ere, agintzen betetzeko xede bakarreko, bere emaztearen etxe baten saltzera;

- “Biziki pollita dela diote,” erran zuen Dambreuse Andereak.

Bankolariak gaineratu zuen aire maltzur batekin:

- “Haien adixkide... mina zirea?”

Federikek, argiki ihardetsi gabe, erran zuen biziki eskertuko zuela gogoan hartzen balu...

- “Ontsa, laket baldin bazauzu, halabiz! igurikatuko dugu! Astia badut oraino. Ene bulegora jausten bagine, nahia duzua?”

Bazkaria bururatua zen; Dambreuse Anderea arinki gurtu zen, irriño bitxi bat eginez, aldi berean jendetasunez eta ironiaz betea. Federikek etzuen hortaz gogoetatzeko astirik ukan; ezen Dambreuse Jaunak, bakarrik izan zireneko:

- “Etzira zure diru-balioen bila jina.”

Eta, hura desenkusatzera utzi gabe:

- “Ontsa! Ontsa! zuzen da gauza apur bat hobeki ezagun dezazun.”

Zigarreta bat eskaini zaukon eta hasi zen.

Ikatz frantzesen orotako Batasuna egina zen; etzauden gehiago legezko erabakiaren beha baizik. Batzeak berak hausten zituen zaintzeko eta eskulaneko gastuak, emaitzak handitzen. Gainera, Batasunak gauza berri bat asmatzen zuen, bere landegiko irabazietan langilen sartzea zena. Eraikiko zezteen etxeak, bizitegi sanoak; azkenik bere langilen hornitzale bilakatzen zen, guzia egin-prezioan.

- “Eta irabaziko dute, jauna; horra egiazko aitzinatzea; hori da zinkurina errepublikar batzuer garhaipenez ihardestea! Gure konseiluan baditugu,” - iragarki bat athera zuen, - “Frantziako pare bat, Institutoko jakintsun bat, jeinueriako aitzindari goien erretretatu bat, izen ezagun batzu! Horrelako jendek segurtatzen dituzte kapital beldurtiak eta kapital adimendudunak deitzen!” Kompainiak beretako ukanen zituen Estatuko manatzeak, gero burdin-bideak, baphur untziera, gaza, burjesen kozineria. “Horrela, berotzen dugu, argitzen dugu, familia lañoenetako

sukaldetara sartzan gira. Baina saltzea, erranen dautazu, nola segurta dezakegu? Ezkubide gerizatzale batzuen bidez, jaun maitea, eta ukanen ditugu; guri dago! Ni, bertzela ere, zintzoki gerizapenaren aldekoa niz! oro baino lehen, Herria!” Buruzagi izendatua zuten, baina astia eskas zuen xehetasun batzuez artha hartzeko. “Idazlariekin apur bat samurtua niz, greka ahazia dut! Banuke norbaiten beharra..., ene gogoetak izkirioz eman ahal lezazkeena.” Eta bapatez: “Nahi duzua gizon hori izan, orotako segetariaren izenarekin?”

Federikek etzuen jakin zer ihardets.

- “He bada, zerk trabatzen zitu?”

Lana urte oroz diru-baliiodunendako erakarpen baten izkiriatzean mugatuko zizakon. Egunoroko harremanetan izanen zen gizon gotorrenekin. Langilen ondoan Kompainiaren ordezkaria izanez, hautaz adoratua izanen zen, naturalki, horrek ekharriko baitzuen, geroago, Konseilu jeneralerano joaitera, deputatugora.

Federiken beharriek joiten zuten. Onginahi hori nundik zetorren? Eskerretan urtu zen.

Baina etzuen behar, erran zuen dirulariak, nehoren meneko izan. Atherabide hoberena, diru-balio batzuen hartzea zen, “diru ezartze miragarria bertzela ere, zure kapitalak karguan segurtatzen baitzitu, zure karguak kapitala egiten dautzun bezala!”

- “Zenbatetara heltzen da hori, nunbait han?” erran zuen Federikek.

- “Jainkoa! nahiko duzunera; berrogei, hiruretan hoge mila liberetara, ene ustez.”

Diruketa hori hain den ttipiena zen Dambreuse Jaunarendako eta hunen burupea hain handia nun mutiko gaztea berehala deliberatu baitzen laboretxe baten saltzera. Onhartzen zuen. Dambreuse Jaunak egun hautarik batez hautatuko zuen elgarrekin hitzhartzea antolamenduen bururatzeko.

- “Beraz, Jacques Arnoux-i erran ahal dezaket...?”

- “Nahiko duzun guzia! Gaizo mutikoa! Nahiko duzun guzia!”

Federikek izkiriatu zauen Arnoux-tarrer gostuan egon zaiten, eta eskutitza ereman-arazi zaukon mutilari, ihardetsi baitzizakon:

- “Biziki ontsa!”

Egina zuen urratsak, bizkitartean, hobeki merezi zuen. Ikustaldi baten aiduru zagon, bederen eskutitz baten. Ikustaldirik etzuen ukan. Eskutizik etzen ethorri.

Ahatzia zutena ala xedatua? Arnoux Anderea aldi batez izana zenaz geroz, zerk zuen berriz jitetik trabatzen? Egina zaukon azpi-entzun edo aithormen mota hura etzena beraz abantail-nahizko joko bat baizik? “Nitaz trufatu direa? hura ere barne dea?” Halako ahalde batek, gutizia ukanik ere, trabatzen zuen haien etxera joaitetik.

Goiz batez (elgar ikustetik hirur astetan), Dambreuse Jaunak izkiriatu zaukon haren aiduru zagola egun hartan berean, oren baten buruko.

Bidenabar, Arnoux-tarrek gogoia berriz hartu zaukoten; eta, haien eginarari arrazoinik ez aurkituz, herstura batez hartua izan zen, aitzin-gogo ilun batez. Haren baztertzeke, karrosa motz bat deitu zuen eta bere burua Parabisu karrikara ereman-arazi.

Arnoux bidaian zen.

- “Eta Anderea?”

- “Baserrian, landegian!”

- “Jauna noiz itzultzen da?”

- “Bihar, huts egin gabe!”

Bakarrik aurkituko zuen; ordua zen. Zerbaitek manatzen zaukon konzienzian: “Hoa beraz!”

Baina Dambreuse Jauna? “Ori, hanbat gaixto! Eri nintzala erranen dut.” Garara laster egin zuen; gero, bagonean: “Gaizki egin dut, behar bada? Ha! bah! zer axola du!”

Eskun eta ezker, ibar musker batzu hedatzen ziren; treina bazoan; geldigunetako etxolak lerratzen ziren antzoki aphaindura batzu bezala, eta mekanikaren kheak ixurtzen zituen beti alde berera lanho lodi batzu ephe batez belarrean dantzan ari zirenak, eta gero ezeztatzen.

Federik, bere alxian bakarrik, horri so zagon, aspertzez, ezin egonaren soberakinak berak bademan nagitasun hartan galdua. Baina zama goititzeko batzu, saldegi batzu agertu ziren. Creil zen.

Hiriak, bi mendixken aldapan eraikia (hetarik lehena murrizta zen eta bigarrena oihan batez koronatu), elizaren dorrearekin, etxe ezberdin batzuekin eta bere harrizko zubiarekin, iduri zuen bazuela zerbait alai, laño eta on. Gabarra handi bat bazoan urari beheiti, hau haizeak jorik zalapastatzen baitzen; oilo batzu, galbarioaren oinean, ari ziren lastoan jaten; emazte bat iragan zen oihaleria busti bat buruan eremanez.

Zubiaren ondotik, irla batean aurkitu zen, ikusten baitziren eskunetik abadia baten ondarrak. Eihera bat alha zen, Oise-ko bigarren besoa zabaltasun osoan hetsiz, gainaldean duelarik landegia. Eraikuntza

horren gotorrek handizki ustegabetu zuen Federik. Errespetu gehiago ukan zuen Arnoux-endako. Hirur urrats urrunago, arteka bat hartu zuen, buruan burdin-sare batek hesten zuena.

Sartua zen. Etxezainsak hel egin zaukon oihukatuz:

- “Baimena baduzua?”

- “Zertako?”

- “Landegiaren ikusteko!”

Federikek, doinu bortitz batekin, erran zuen Arnoux Jaunaren ikustera heldu zela.

- “Zer da Arnoux Jauna?”

- “Baina buruzagia, nagusia, jabea, azkenean!”

- “Ez, jauna, hemen Lebœuf eta Milliet Jaunen landegia da!”

Emaztekoa irri solasez ari zatekeen. Langile batzu heldu ziren; bizpahirurer joan zizeen; ihardestea berdina ukan zuten.

Federik jalgi zen korraletik, gizon mozkor bat bezala haldamaldaka; eta itxura hain zozotua zuen nun, Haragindegiko zubian, piparen erretzen ari zen burjes batek galdegin baitzaukon zerbaiten bila zabilanez. Horrek bazagutzan Arnoux-en landegia. Motataire-en zen.

Federikek karrosa bat galdegin zuen, etzen garan baizik aurkitzen. Hara itzuli zen. Kalexa erdi-hautsi bat, zaldi zahar bat aitzinean harnesak urratuak eta hagetarik dilindan, bazagon, bakar-bakarrik, paketerietako bulegoaren aitzinean.

Mutiko tipi batek bere burua eskaini zuen “Pilon aita”-ren hatzemaiteko. Hamar minutaren buruan itzuli zen; Pilon aita bazkaltzen ari zen. Federik, gehiago ezin egonez, abiatu zen. Baina burdin-bide iragaiteko hexila hetsia zen. Bi treina-lerro joanak izan ziten igurikatu behar izan zen. Azkenean baserrira laster egin zuen.

Belarraren berdinak hartzen zuen billarteko tapiza neurrigabe baten itxura. Burdin zepa batzu lerrokatuak ziren, bidearen bi bazterretan, harri meta batzu bezala. Urrunxago, landegietako khebideak khetan ziren batzu bertzen ondoan. Aitzinean ageri zen, muno biribil baten gainean, dorre ttipi batzuekilako jauregi bat, elizaren laurkantoineko ezkila-dorrearekin. Harresi luze batzuek, azpian, marra ezberdin batzu egiten zituzten zuhatzen artean; eta, behere-beherean, hedatzen ziren herrixkako etxeak.

Estai bakar batekoak dira, badituzte hirur mail, zimetarik gabeko harriz eginak. Entzuten zen, artetan, epizier baten xilintxa. Urrats phizu

batzu sartzen ziren iztil beltzean, eta euri xehe bat ari zen, zeru hitsean mila marra eginez.

Federik jarraiki zizakon lauzadaren erdiguneari; gero aurkitu zuen ezkerretik, bide batera sartzean, zurezko arku handi bat bazadukana urrezko hitzez izkiriaturik: FAIANZAK.

Etzuen xederik ez ukanez hautatua Jacques Arnoux-ek Creil-go auzoa; bere landegia bertzeari (aspaldidanik aipatua) ahal bezain hurbil ezarriz, jendearen baitan sortzen zuen bere abantailetan zen nahasmen bat.

Eraikuntzaren zati nagusia phentzeari zehar doan ibaiaren bazterrean berean jarria zen. Jabearen etxea, baratze batez inguratua, ohargarri zen harri-mailetik, hetan indiaphiko batzu orratzak goiti zauden laur untziz aphaindua. Lurzuri meta batzu idortzen ari ziren atherbe batzuetan; bertze batzu bazauden airera, eta korralearen erdian Senecal, bere betiko maripulis urdin, gorriz horratuarekin.

Erakas-lagun ohiak aitzinatu zuen bere esku hotza.

- “Nagusiarendako heldu zira? Ezta hor.”

Federikek, ustegabetua, ihardetsi zuen zozoki:

- “Banakien.” Baina, berehala zuzenduz: “Arnoux Andereari behatzen daukon egiteko batendako da. Har nindezakea?”

- “Ha! hirur egun badu eztutala ikusia,” erran zuen Senecal-ek.

Eta zinkurina andana bat hasi zuen. Faianzalariaren xedeak onhartuz, uste ukana zuen Parisen egonen zela, eta ez baserri hortan ehortziko, adixkidetarik urrun, egunkaririk gabe. Berdin zen! Hortan gaindi joana zen! Baina Arnoux-ek etzuen iduri haren mereximenduz batere axolatzen zela. Gogoz hertsia zen bertzela ere, eta gibelkaria, nornahi bezain jakingabea. Edergintzako hobetzen bilatzeko orde, baliagarriago izanen zen gaz eta ikatzeko berogailuen sarr-araztea. Burjesa *beheiti* *joan*; Senecal-ek hitz hortan phizatu zuen. Hots, bere lana etzizakon laket; eta manatu zaukon Federiki haren fagoretan mintza zadin, irabaziak goiti zezozten.

- “Zaude gostuan!” erran zuen bertzeak.

Mailaldean ehor etzuen aurkitu. Lehen estaian, burua aitzinatu zuen barne huts batera; saloina zen. Hel egin zuen gora-gora. Etzizakon ihardetsi; kozinersa atheraia zatekeen, sehia ere; azkenean, bigarren estaira heldurik, athe bat ideki zuen. Arnoux Anderea bakarrik zen, harmairu mirailadun baten aitzinean. Gambarako arropa erdi-idekiaren gerrikoa hanketan luzara dilidan zagokon. Ilen alderdi oso batek

bazegikon uhain beltz bat eskuneko soingainean; eta bi besoak goitituak zituen, esku batez mottoa atxikiz, bertzeak ixkilima bat hartan sartzen ari zuelarik. Oihu bat egin zuen, eta itzali zen.

Gero berriz itzuli zen behar bezala jantzirik. Soinarak, begiek, zaiaren hotsak, orok Federik loriatu zuen. Musuz haren ez estaltzeko indar eginez zagon.

- “Barkamendu eskatzen dautzut,” erran zuen, “baina enidezakeen...”

Ukan zuen haren mozteko ausartzia:

- “Bizkitartean..., biziki ongi zinen..., arestian.”

Komplimendua aphur bat arrunta aurkitu zukeen, ezen matelak gorraxtu zizazkon. Laidoztatua zuela beldur ukan zuen. Hura berriz hasi zen:

- “Zer halabehar onez jina zira?”

Etzuen zer ihardets jakin, eta, irri erkax ttipi baten ondotik, gogoetatzeko astia eman baitzaukon:

- “Erraiten banautzun, sinetsiko ninduzuna?”

- “Zergatik ez?”

Federikek khondatu zuen ukana zuela, aitzineko gauan, amets laztagarri bat:

- “Amets egina dut azkarki eri zinela, hiltzera hurbil.”

- “Oi! ez ni ez ene senarra ezkira nehoiz eri!”

- “Eztut zutaz baizik amets egin,” erran zuen.

Itxura geldi batekin so egin zaukon.

- “Ametsak eztira beti gertatzen.”

Federikek ahopiatu zuen, hitzen bila ibiliz, eta jo zuen azkenik erranaldi luze batera arimen arteko egiteaz. Bazen indar bat, bi jende, urrunean gaindi ere, harremanetan ezar dezazkeena, zer sendi duten jakin-araz dezeetena eta elgarretaraz dezazkeena.

Entzuten zuen burua beheiturik, bere irriño ederraz erdi-irritan zen batean. Federikek begi zokotik so egiten zaukon, zorionekin, maitasuna librokiago erranez leku arrunt baten errextasunaren azpian. Lantegiaren erakustea eskaini zaukon; eta, hisitzen baitzen, onhartu zuen.

Lehenik jostagarri zerbaitekin libertitzeko, ikus-arazi zaukon mailaldea aphaintzen zuen erakustokia bezalako. Harresietan lotuak edo taulaxka batzuetan ezarriak ziren gauza bereziek bazematen Arnoux-en indarren lekukotasuna eta ukanak zituen gustu guziena. Xinatarren

burdingorri kolorea bilatu ondoan, egin nahi ukanak zituen maiorkinak, faenzak, etruskiarretik, orientekotik, berantago egin ziren hobetze batzu entseaturik azkenean. Ikusten ziren beraz, zerrendan, untzi gotor batzu mandarin xinatarrez estaliak, ophor urre-beltzaran dirdirakorrak, untzi izkirio arabarrez edertuak, eltze mokodun Berphizteko moldekoak, eta azieta zabal batzu bi jende irudiekin, odolarakoaz marrazkituak bezala, molde prezios eta arin batean. Orain iragarkietako hizkiak egiten zituen, arno etiketak; baina etzuen adimendua aski gora Edergintzarano heltzeko, ez eta aski burjesa irabaziari bakarrik behatzeko, hala nola nun, ehor askietsi gabe, hondatzen ari baitzen. Biak gauza horier beha zauden, Andere Martha iragan zenean.

- “Eztun bada ezagutzen?” erran zaukon amak.

- “Baietz!” egin zuen Federik agurtuz, so argi eta aierutsu, birjina baten soak iduri zuelarik ahapetik baziola: “Zertara heldu hiz hunara, hi?” eta mailer gora zoan, burua soingainean apur bat itzulirik.

Arnoux Andereak ereman zuen Federik korralera, eta gero argitu zuen doinu serio batekin lurra nola xehatzen diren, ikuzten, baheztatzen.

- “Beharrena, orhen moldatzea da.”

Eta sarr-arazi zuen dupa batzuek betetzen zuten barne batera, hetan bere gainean itzulika baitzabilan haxe zut bat beso batzuekin bazterretara. Federik dolu zuen haren eskaintzari eza ez emanik, arestian.

- “Nahastekariak dira,” erran zuen.

Hitza bitxia aurkitu zuen, eta haren ahoari gaizki emana bezala.

Uhal zabal batzu bazoazin tronadurako alde batetik bertzera, eta guzia higitzen zen molde ethengabe, beti berdinean, akhigarri batean.

Hortik jalgi ziren, eta lehenago baratzeke tresnen ezartzeko erabilirik izana zen etxola barreatu baten ondorengatik iragan.

- “Ezta gehiago baliatzen,” erran zuen Arnoux Andereak.

Ihardetsi zuen mintzo ikaratu batekin:

- “Zoriona atxik dezake!”

Su-pomparen harramantzak elheak estali zauzkon, eta moldatzeko landegian sartu ziren.

Gizon batzuek, mahi hertsu batean jarririk, aitzinean ezartzen zuten, dizka itzulkari baten gainean, orhe meta bat, esku ezkerrez barnea thorratzen zaukon, eskunaz gaina pherekatzen, eta ikusten ziren untzi batzu goiti jalgitzen, idekitzen diren lore batzu bezala.

Arnoux Andereak erakuts-arazi zituen lan zailenen egiteko moldegaiak.

Bertze barne batean, egiten ziren untzietako marra meheak, zintzurak, adarrak. Gaineko estaian, josturak ekhertzen ziren, eta igelsuz betetzen aitzinean egin lanek utziak zituzten zilo ttipiak.

Tauladura argal batzuetan, zokoetan, barnebiden erdian, orotan untzietak lerrokatuak zauden.

Federik aspertzen hasia zen.

- “Akitzen zitu behar bada?” erran zuen andereak.

Ikustaldia hor bururatua izan behar zadin beldurrez, egin zuen, alderantziz, alegia biziki gartsuarena. Dolu zuen ere ez industria horri osoki emana izaitez.

Hark ustegabetua iduritu zuen.

- “Segurki! zure ondoan bizitzen ahalko nintzan!”

Eta, haren soa bilatzen baitzuen, Arnoux Andereak, hortarik baztertzeko, hartu zituen bazter-mahi batzuen gainean orhe opil batzu, berrantolatze huts-eginetarik geldituak, talo moldean zapatu zituen, eta eskuaren hatza gainean ezarri.

- “Hori ereman dezaketa?” erran zuen Federikek.

- “Aski haurra zirea, Jainkoa!”

Ihardestera zoan. Senecal sartu zen.

Buruzagi-orde Jauna, alhazean berean, erreglamendu hauste bati ohartu zen. Landegiek behar zuten aste oroz ekhortuak izan; ebiakotza zen, eta, langilek deus ezpaitzuten egina, Senecal-ek erran zauen oren bat gehiago egon beharko zutela. “Hanbat gaixto zuendako!”

Bere tresnetara gurtu ziren, murmurikatu gabe; baina haserrea asmatzen zen bulharretako hatsaren idorrean. Etziren, bertzela ere, ereman errexak, guziak landegi handitik haizatuak izanik. Errepublikarrak gogorki gobernatzen zituen. Theorietako gizona izanez, gogoan etzituen gizaldeak baizik, eta jende berezia etzuen batere urriki.

Federikek, haren han izaitez aspertua, galdegin zaukon ahapetik Arnoux Andereari labeak etzatezkeenez ikusten ahal. Beherera jautsi ziren; eta anderea khaxak nola erabiltzen ziren erraiten ari zen, Senecal, jarraikia baitzizeen, bien artera ethorri zenean.

Erakusketa berak jarraiki zuen, sugai mota guzietan hedatu zen, labera sartzea, bero-neurtzekoak, labe-ahoak, orhe-estaltzekoak, dirdiratzekoak eta metalkiak, nasaiki emanez ximiako hitzak, kloraki,

sofreki, borax, ikhazki. Federikek etzuen ezer entzuten, eta minuta oroz Arnoux Anderearen gana itzultzen zen.

- “Eztaukozu behatzen,” erran zuen. “Senecal Jauna biziki argi da alta. Gauza horiek oro badazki nik baino biziki hobeki.”

Matematikariak, laudorio hortaz lausengatua, margo ezartzearen erakustea eskaini zuen. Federikek behatu zaukon antsiarekin Arnoux Andereari. Hau bere hartan egon zen, ez nahiz eta, behar bada, harekin bakarrik izan, ez hura utzi ere. Federikek besoa eskaini zaukon.

- “Ez! milesker! mailaldea hertsiegi da!”

Eta, goiti helduak izan zirenean, Senecal-ek ideki zuen emaztez betea zen barne bateko athea.

Bazabiltzaten pinzel, bottoila, maxkor, berinaki. Harlatxaren luzaran, harresiari kontra, lerroka zauden taula marrazkitu batzu; paper arinezko lits batzu airatzen ziren; eta burdinakizko berogailu batek ufatzen zuen usain bero tiribintinaz nahasi bat, higungarria.

Langilek bazituzten, abantzu guziek, soineko zikin batzu. Bati ohartzen zizakon bizkitartean, madras bat buruan eta beharrietako luze batzuekin. Aldi berean lerden eta gixen, bazituen Afrikatar baten begi zabal beltz eta ezpain gizenak. Bulhar nasaia jalgitzen zizakon athorraren azpian, hau zaiaren estekagailuaz gerrian lotua; eta ukondo bat mahian, bertzea dilindan, norapait beha zagon, baserrian urrunera. Haren ondoan bazauden botoila bat arno eta urdakitik.

Erreglamenduak landegian jatea debekatzen zuen, laneko garbitasunaren eta langilen osagarriaren axolaz.

Senecal-ek, eginbideko sendimenduz ala manatzeko beharrez, urrundik oihu egin zuen, kadre batean iragarki bat erakutsiz:

- “He! hantxet, Bordelesa! irakur ezadazu gora-gora 9-garren artikulua.”

- “Baietz, eta gero?”

- “Gero, andereñoa? Hirur libera isun duzu pagatuko!”

Bekoz beko so egin zaukon, ozarki.

- “Zer egiten du? Nagusiak, itzuliko denean, ekhenduko du, zure isuna! Ontsa axola dut zutaz! gizontto!”

Senecal-ek, bi eskuak bizkar giblean baitzabilan, zaintzale bat ikasteko sala batean bezala, irriño bat aski ukan zuen:

- “Artikulu 13, jazartze, hamar libera!”

Bordelesa berriz lanean hasi zen. Arnoux Andereak ikustatez jeus etzuen erraiten, baina bekainak izurtu zizazkon. Federikek murmurikatu zuen:

- “Ha! demokrata batendako, ontsa idorra zira!”

Bertzeak ihardetsi zuen erakasleki:

- “Ezta Demokrazia nor bederaka ahalgetu gabe artzea. Legearen azpian ororen neurri berdina da, lanaren banakatzea, ordenua!”

- “Ahazten duzu gizatasuna!” erran zuen Federikek.

Arnoux Andereak besoa hartu zaukon; Senecal, baimen ixil hortaz behar bada gaitzitua, joan zen.

Federikek neurrigabeko arintze bat senditu zen. Goizetik, aithortzeko aldiaren bila zabilan; ethorria zen orai. Iduri zizakon ere Arnoux Andereak bere baitarik egina zuen mogimenduak zer bait hitzemaiten zuela; eta galdegin zuen, zangoen berotzeko estakuru, haren gambarara igaitea. Baina, ondoan jarria izan zizakolarik, eragozpenean gertatu zen; hasteko arrazoinak huts egiten zaukon. Senecal jin zizakon, zorionez, gogora.

- “Jeus ez zozoagorik,” erran zuen, “gaztigu hori baino!”

Arnoux Andereak egin zuen:

- “Badira larderia baitezpadakoak!”

- “Nola, zu hain ona! Oi! hutsean niz! ezen paira-araztea laket duzu, batzuetan!”

- “Asmakariak eztitut entzuten, adixkidea.”

Eta so lardeak, hitzak baino ere gehiago, gelditu zuen. Federik jarraikitzaera deliberatua zen alta. Musset-en liburu bat bazen zoriz komodaren gainean. Orrialde batzu itzuli zituen, gero maitasunaz mintzatzen hasi zen, zituen etsipenez eta oldarraldiez.

Hori guzia, Arnoux Andereak zionaz, biziki gazki zen eta arin.

Mutiko gaztea ezaren emaite hortaz laidotua senditu zen; eta, kontra egiteko, aipatu zituen lekukotasunez egunkarietan ikusten diren bere buruaz egiteak, literaturako behazun handiak, Phaedra, Dido, Romeo, Desgrieux. Hondamenera zoan.

Suak khebidean etzuen gehiago erretzen, euriak azotatzen zuen berinetan. Arnoux Anderea bazagon higitu gabe, bi eskuak jargiaren besoetan ezarririk, bonetaren xingolak dilindan giza-lehoin baten xerrendak iduri; haren aurpegiaren orraze garbia hitsez marrazkitzen zen itzalaren erdian.

Bazuen haren belhaunetara erortzeko gutizia. Kraska bat entzuzen barnebidan. Etzen menturatu.

Trabatua zen, bertzela ere, halako beldur erlisioeko batez. Zaia hori, ilunarekin nahasiz, neurrigabea iduritzen zizakon, mugagabea, ezin goititua; eta horren gatik bereziki, gutizia bikuntzen zizakon. Baina, sobera edo ez aski egin beldurrak ezagutzeko ahal guzia ekhertzen zaukon.

- “Laket ezpanauko,” gogutzen zuen, “haiza nezala! Nitarik nahi badu, susta!”

Hasperen batekin erran zuen:

- “Beraz, eztuzu onhartzen maita dadin... emazte bat?”

Arnoux Andereak ihardetsi zuen:

- “Ezkontzeko denean, ezkontzen da; bertze batena denean, urruntzen.”

- “Horrela zoriona ezina da?”

- “Ez! Baina ezta behin ere gezurrean aurkitzen, griñetan eta urrikimenduan.”

- “Axolarik ez! bozkario goienez ordaindua baldin bada.”

- “Egintza gostakorregi da!”

Ironiarekin jazartu nahi ukan zuen.

- “Bertutea elizatekea beraz beldurreria baizik?”

- “Errazu gogo-argitasuna, izaitekotz. Eginbidea edo erlisioenea ahatz lezaketan emaztendako, zentzu xoilas aski da. Norberekoitasunak oinarri azkar bat egiten dauko zuhurtziari.”

- “Ha! zein aburu burjesak diren zureak!”

- “Baina andere handi izaiteaz hoilatzen dut neure burua!”

Ordu hartan, mutiko ttipia lasterrez ethorri zen.

- “Ama, heldu auhaltzera?”

- “Ba, sarri!”

Federik zutitu zen; aldi berean agertu zen Martha.

Ezin zaitekeen abiatzera delibera; eta, othoitzez bete-betea zen behako batekin:

- “Aipatzen dituzun emazte horiek biziki sendigaitzak dira beraz?”

- “Ez! baina behar denean gorrak.”

Zutik zagon, gambarako alhazean, bi haurrak sahetsetan. Federik gurtu zen hitzik erran gabe. Hark agurrari ihardetsi zuen ixilki.

Lehenik senditu zuena, balditze mugagabe bat izan zen. Zuen esperanza zenbat ezteusa zen sendi-arazteko ara horrek lehertzen zuen.

Leze baten zolara eroria den, sokorririk ukanen eztuela eta hil behar dela badakien gizon bat bezain galdua sendi zen.

Bazabilan bizkitartean, baina ezer ikusi gabe, nora zoan jakin gabe; harrietan joiten zuen; bidea huts egin zuen ere. Eskalapoin harrabots batek jo zuen haren beharri ondoan; langileak ziren burdinolhatik jalgitzen ari. Orduan bere baitaratu zen.

Urrunean burdinbideko gauargiek suzko lerro bat egiten zuten. Trein bat abiatzera zoanean heldu zen, bere burua bagon batera bultzatzera utzi zuen eta lokartu zen.

Oren bat berantago, karrika handietan, Pariseren arratsetako alaitasunak bidaia igorri zaukon iragan jadanik urrundu batera. Azkar izan nahi ukan zuen, eta bere bihotza arindu Arnoux Andereaz gaitzerranez hitz laidagarri batzuekin:

- “Zozo bat, pulinda bat, astaña bat, gogotik ekhen dezagun!”

Etxera sarturik, gabinetean aurkitu zuen zortzi orstoko eskutitz bat paper urdinez dirdiratu batean eta R. A. hizkiekin.

Adixkitasunezko erasia batzuekin hasten zen:

- “Zer bilakatzen zira, maitea? aspertzen ari niz.”

Baina izikirioa hain itsusia zen nun Federik guziaren lurrera botatzera baitzoan ikusi zuenean, azpi-hitzetako:

- “Zure beha nago bihar zaldi-lasterretara eremaiteko.”

Zer erran nahi zuen gomitatze horrek? Marexalsaren jukutria bat zena oraino? Baina ezta gizon beraz arrazoinik gabe bietan trufatzen; eta jakin-nahiaz harturik, eskutitza berriz irakurri zuen oharmenekin:

Hitz hauk berezi zituen: “Elgar ez aditu... bidez huts egina... uste zena galdu... Gu giren haur gaixoak!... Elgarretaratzen diren bi ibai iduri! eta bertze...”

Estilo hori neska arinaren ohikotik osoki bertzelakoa zen. Zer aldatua zen bada?

Orriak luzaz eskuetan atxiki zituen. Bazuten lirio usaina; eta bazen, hizkien moldatzeko eta lerroen arteko ezberdintasunean, halako jantzi-tako nahasmen bat barnez inharrosi zuena.

- “Zergatik eniz joanen?” egin zuen azkenean bere baitan. “Baina Arnoux Andereak balaki? Ha! Beki! Hobe! eta bekaitz bedi! horrek mendekatuko nau!”

IV

Marexalsa prest zagon eta haren aiduru.

- “Goxo da, hori!” erran zuen, bere begi pollitak, aldi berean xamur eta airosak haren gainean itzatzuz.

Euritakoaren korropiloa egina ukan zuenean, ohexkan jarri zen eta ixilik egon.

- “Abiatzen girea?” erran zuen Federikek.

Erloiari so egin zaukon.

- “Oi! ez! ez oren bat eta erdia baino lehen,” bere ezpaiari muga bat emana balauko bezala.

Azkenean, orenak jorik:

- “He beraz, *andiamo, caro mio!*”

Eta azken itzuli bat eman zauen iletako xerrender, Delfinari gomendioak egin.

- “Anderea auhaltzera itzultzen da?”

- “Zergatik bada? Elgarrekin auhalduko gira nunbait, Kafe Angelesean, nahiko duzun lekuan!”

Bi xakur ttipiak ehausiaka ari zizazkon inguruan.

- “Ereman daitezke, eztea hala?”

Federikek ereman zituen, berak, karrosarano. Alokatzeko berlina bat zen postetako bi zaldiekin eta postillun batekin; gibelego jarlekuan ezarria zuen bere mutila. Marexalsak Federiken artha horietaz askietsia iduritu zuen; gero, jarri orduko, galdegin zaukon Arnoux-en etxean izana zenez, berriki.

- “Ilabete bat geroztik ez,” erran zuen Federikek.

- “Nik, herenegun ikusia dut, egun ere jinen zen. Baina badu eragozpen mota guzietarik, oraino auzi bat, nik dakita zer. Zein gizon bitxia!”

- “Ba! biziki bitxia!”

Federikek gaineratu zuen itxura axolagabeko batekin:

- “Errazu bada, ikusten duzua beti... nola deritzozu bada?... kantari ohi hura..., Delmar?”

- “Ez! aski da.”

Horrela, hautsia zutela segur zen. Federikek esperanza ukan zuen.

Breda auzoa jautsi zuten urratsean; karririkak, igandekariaz, hutsak ziren, eta burjesen aurpegi batzu agertzen ziren leihoen gibelean. Karrosak lasterra hartu zuen; erroten azantzak itzul-arazten zituen

ibiltzaleak, estalgiaren larru behehituak dirdirutzen zuen, mutilak gerria goititzen zuen, eta bi xakur habaneseak elgarren ondoan iduri zuten marta-xurizko bi mahungako, kuxinen gainean ezarriak. Federikek bere burua uzten zuen azpi-uhalen leriara; Marexalsak burua itzultzen, eskun eta ezker, erdi-irriz.

Haren lasto nakaratzeko xapelak bazuen dentela beltzeko aphaindura bat. Burnusaren estalgi bazabilkion airean; eta iguzkitik gerizatzen zen, satin lilazko ekitako baten azpian, gainean pagoda bat bezala punttaduna.

- “Zer erhi ttipi maitagarriak!” erran zuen Federikek bertze eskua eztiki hartuz, ezkerre, ukaraiko urre batez aphaindua, gatinatto baten moldean. “Ori, pollita da; nundik duzu?”

- “O! Aspaldian badut,” erran zuen Marexalsak.

Mutiko gazteak jeus etzaukon ihardespén gezurrezko horri kontra-erran. Nahiago ukan zuen “aldiaz baliatu.” Eta, ukaraia beti atxikiz, ezpainez zapatu zuen, eskularruaren eta mahungaren artean.

- “Geldi zaite, ikusiko gituzte!”

- “Bah! zer egiten du horrek!”

Konkordiako plazatik landa, Konferenziako kaia hartu zuten eta Billy-koa, han ikusten baita alzifre bat baratze batean. Rosanette-ek uste zuen Libanoa Xinan zela; berak irri egin zuen jakin gabe hortaz eta Federik othoiztu lurraldetaz ikastaldiak eman zitzen. Gero, Trocadero-a eskunean utziz, Iena-ko zubia iragan zuten, eta gelditu ziren, azkenean, Champ-de-Mars delakoan, bertze karrosen ondoan, jadanik Zaldilasterlekuan lerrokatuak.

Soropil munoak jende xehez estaliak ziren. Ikuslari batzu ageri ziren Armadako Eskolako galerian; eta phizategitik kampak bi etxolak, barnean zituen bi galeriekin, eta Erregerenaren aitzineko hirugarren bat jendalde aphaindu batez beteak gertatzen ziren, erakusten zuena, egonaratik, ikustate bat orduan oraino berri zen libertimendu horrendako. Lasterretako behatzale aldeak, bereziagoa aro hartan, itxura gutiago arrunta zuen; oin-azpietakoen, balusazko lephokoen eta eskularru xurien dembora zen. Emaztek, margo argiz jantziak, bazituzten zaia ara luzeko batzu,, eta tauladen mailetan jarririk, lore multzo handi batzu itxuratzen zituzten, beltzez titatuak, han-hemenka, gizonen jantzi ilunekin. Baina behako guziak Bu-Maza Aljeriar aipatuaren gana itzultzen ziren, armadetako bi aitzindarien artean, galeria berezietarik batean. Jockey-Glub-ekoak bazaduzkan bakarrik gizon serio batzu.

Suharrenak behean ziren, laster-bideari hurbil, hau sokez lotuak ziren bi hesola lerroez zaindua; bidexka horrek bazegien arraultzarako inguru handian, koko saltzale batzuek higitzen zituzten bere kalakak, bertze batzuek lasterretako egitaraua saltzen, zigarroak oihukatzen, burrumba handi bat entzuten zen; hiriko zaintzaleak bazabiltzan harat eta hunat; zilintza batek, zenbakiz estalia zen zutabe batetik dilindan, jo zuen. Bortz zaldi agertu ziren, eta jendea galerietara sartu zen.

Bitartean, hedoi lodi batzu bere kizkurrez zubelen puntaren hunkitzera zoazin, aitzinean. Rosanette euriaren beldur zen.

- “Baditut euritakoak,” erran zuen Federikek, “eta libertitzeko behar den guzia,” gaineratu zuen khutxa idekiz, han baitzen janari eta edariz behar zena, zare batean.

- “Biba zu! elgar entzuten dugu!”

- “Eta hobeki ere entzunen, eztea hala?”

- “Balizateke!” egin zuen gorrituz.

Zaldizkoak, jaka zetazkoetan, zaldien lerrokatzera entseatzen ziren bi eskuez atxikitzen zituztela. Norbaitek ikurrina gorri bat behekitu zuen. Orduan, bortzak, khimen gainera gurtuz, abiatu ziren. Hastapenean meta bakar batean tinki egon ziren; laster luzatu zen, moztu; jaka horiarekilakoa, lehenbiziko itzuliaren erdian, erortzer zen; luzaz ezpaia izan zen Filly eta Tibi-ren artean; gero Tom Pouce buruan agertu zen; baina Clubstick, abiatzetik gibelean, batu zizeen eta lehenbizikoa heldu, Sir Charles bi luzatasunez garhaituz; ustebagetze bat izan zen; oihuka ari ziren; etxoletako taulak ikharatzen ziren oindikatzan azpian.

- “Jostatzen gira!” erran zuen Marexalsak. “Maite haut, gaixoa!”

Federikek etzuen gehiago bere zorionaz dudatu; Rosanette-ren azken hitz horrek baieztatzen zuen.

Haren ganik ehun bat urratsetan, “milord” motako karrosa motz batean, andere bat agertu zen. Athexkatik kampa gurtzen zen, gero bizi-bizia berriz barneratzen; hori aldi andana batez errepikatu zen. Federikek etzezakokeen begitartea ikus. Aieru batek hartu zuen, uste ukan zuen Arnoux Anderea zela. Ezin zen, alta! Zergatik jina izanen zen? Federik karrosatik jautsi zen, phizategian ibiltzeko estakuru.

- “Etzira biziki galanta!” erran zuen Rosanette-ek.

Jeus etzuen entzun eta aitzina joan zen. “Milord”-a, uhalak itzuliz, trostan abiatu zen.

Federik, ordu berean, Cizy-k ereman zuen.

- “Egun on, adixkide! nola zira? Hussonnet hantxetan da! Entzun nezazu bada?”

Federik-ek atheratzeko indar egiten zuen “milord”-era joaiteko. Marexalsa haren ondora itzul zadin kheinuz ari zen. Cisy ohartu zizakon, eta nahi zaukon baitezpada egun ona erran.

Amatxiren dolua bururatua zuenaz geroz, gogoan zuenera heltzen zen, *itxura baten* ukaitera. Barneko motz eskoziarra, jantzi laburra, oinetakoetan floka zabal batzu eta sartzeko karta xapel inguruko xingolan, deusek etzuen zinez huts egiten berak “chic”-a zeritzonean, “chic” angeles arako eta musketarietako bat. Champ-de-Mars delakoaz deitoratzen hasi zen, “truf” hastiagarri bat, gero Chantilly-ko lasterrez mintzatu eta han egiten ziren irri-jokoez, Xampañako arnotik hamabi baso edan zezazkeela gauerdiko hamabi ukaldietan zin egin zuen, Marexalsari jokatzera eskaini zaukon, bi xakur ttipiak eztiki pherekatuz; eta bertze ukondoaz athexkaren gainera, bere zozokerietan jarraitzen zuen, zaharoko sagarttoa ahoan, zangoak bazterturik, gerria zut. Federik, haren ondoan, pipatzen ari zen, “milord”-a zer bilakatua zen bilatzen zuen batean.

Zilintzak joa zuen, Cisy joan zen, Rosanette-ren atsegin handitan, biziki aspertzen baitzuen, zionaz.

Bigarren lehiaketak etzuen berezirik ezer ukan, herenak ere ez, gizon bat anda batzuetan ereman zela ezpada. Laurdena, hartan zortzi zaldiek irabazi nahi ukan baitzuten Hiriko saria, ohargarriagoa izan zen.

Galerietako ikusleak jarlekuen gainera iganak ziren. Bertzeak, karrosetan zutik, katalosak eskuan zaldizkoen harat-hunater beha zauden; ikusten ziren tita gorri, hori, zuri eta urdin batzu bezala joaiten jendealdea osoan luzatuz, Zaldilasterlekuko itzuliaren bazterra hartzen baitzuen. Urrundik, haien lasterrak etzuen handiegia iduri; Champ-de-Mars-ko bertze buruan iduri zuten ere emekiago zoazila, etzirela lerratuz bezala baizik aitzinatzen, zaldien sabelek lurra hunkitzen zutela zangoak plegatu ere gabe. Baina, berriz laster itzuliz, handitzen ziren; iragaitean haizea mozten zuten, lurra ikharatzen zen, harriak airatzen; aireak, zaldizkoen jaketan sartuz, bela batzu bezala higi-arazten zituen; zaharoen ukaldi handitan, bere kabalak azotatzen zituzten hesolara heltzeko, helburua zen. Zenbakiak ekhentzen ziren, bertze batzu goititzen; eta, esku-zarten erdian, zaldi irabazlea herrestatzen zen phizategirano, dena izerdiz estalia, belhaunak gogortuak, lephoa beheiti, zaldizkoa, zaltokian azken hatsetan bezala, sahetsak eskuekin atxikiz zagolarik.

Eztabadatze batek gibelatu zuen azken lasterra. Jendea, aspertzen ari baitzen, barreatu zen. Gizon multzo batzu elheketa zauden galerien behean. Solasak libroak ziren; munduko emazte batzu joan ziren, neska arinen auzoan izaitez gaitzituak.

Baziren ere dantzaldi publikoetako ezagun batzu, karrika handietako komedialarisak; - eta etziren ederrenak gizamen gehienik ukaiten zutenak. Georgine Aubert zaharra, bertsu emaile batek “prostituzioneko Luis XI-garrena” zeritzona, itsuski thindatua, eta noiztenka halako irri kurrinka iduriko bat igorritz, etzana gelditua zen bere kalean, marta-laruzko lephoko batekin negu minean bezala. Remoussot-eko Anderea, bere auziak modan ezarririk, karrosa ideki baten jarlekuan zagon tronu batean bezala Amerikano batzuekin; eta Thereza Bachelu-k, bere birjina gotiko itxurarekin, betetzen zuen bere hamabi zaia-hegalekin, taulier orde, arrosaz bete lilitegi batekilako karakol-karrosa baten barnea. Marexalsa loriadun horietaz bekaiztu zen; ohar zakizkion, jestu handi batzuen egiten hasi zen eta gora mintzatzen.

“Gentlemen” batzuek ezagutu zuten, eta urrundik agurtu. Ihardesten zauen, Federiki haien izenak erranez. Guziak konde ziren, bixkonde, duke ‘ta markes; eta Federik hampatzen zen, begi guziek errespetu bat erakusten baitzuten haren fortuna onarendako.

Cizy-k etzuen zorion gutiagoan iduri inguratzen zuten adineko gizonen erdian. Erdi-irriz zauden bere lephoko floken gainetik, hartaz trufan bezala; azkenean zaharrenaren eskuan topatu zuen eta Marexalsaren aldera aitzinatu zen.

Gibelki gizen zerra baten jaten ari zen, gose amikatuarena eginez; Federikek, obedienez, hark bezala egiten zuen, belhaunetan botoila bat arno atxikiz.

“Milord”-a berriz agertu zen, Arnoux Anderea! Ezin gehiago zuritu zen.

- “Emadak xampañatik!” erran zuen Rosanette-ek.

Eta, baso betea ahal bezenbat goitituz, oihukatu zuen:

- “Holho! hantxetan! emazte onestak, ene gerizatzalearen ezkontidea, ho!”

Irriak hasi ziren haren inguruan, “milord”-a itzali zen. Federikek zaiatik thiratzen zuen, khexatzera zoan. Baina Cizy hor zen, arestian bezalako egonara berean; eta, ozartasun gehiagorekin oraino, Rosanette auhaltzera gomitatu zuen arrats hartako bereko.

- “Ezin da!” ihardetsi zuen. “Bagoazi elgarrekin Kafe Angelesera”.

Federik, ezer entzun ezpalu bezala, ixil egon zen; eta Cizy-k Marexalsa utzi zuen itxura nahigabetu batekin.

Mintzo zizakolarik, eskuneko athexkari kontra, Hussonnet ezker aldetik ethorria zen, eta, Kafe Angeles hitzari lotuz :

- “Etxe pollita da! han ahamen bat jaten baginu, eztea?”

- “Nahiko duzun bezala,” erran zuen Federikek, karrosaren zokora eroria, ikusten baitzuen urrunean “milord”-a itzaltzen, gauza ezin zuzendu bat egina zela sendituz eta bere maitasun handia galdua zuela. Eta bertzea hor zuen, ondoan, maitasun alai eta arina! Baina, akhitua, kontrako gutiziez betea eta berak zer nahi zuen ere jakin gabe, neurrigabeko trixtezia bat sendi zuen, hiltzeko nahikaria bat.

Urrats eta mintzo azantz handi batek burua goiti-arazi zaukon; haur andana bat, lasterbideko sokak ixtapekatuz, heldu zen galerien ikustera; jendea bazoan. Euri xorta batzu erori ziren. Karrosen nahasmena handitu zen. Hussonnet galdua zuten.

- “Oizu, hobe!” erran zuen Federikek.

- “Nahiago bakarrik egon?” egin zuen berriz Marexalsak, eskua harenaren gainera emanaz.

Orduan iragan zizeen aitzinetik, burdin-gorri eta alzeiruzko dirdira batzuetan, laur zaldi eta laur errotekilako karrosa ezin ederrago bat, soineko balusa lits urrekilako bi zaldizkoek zeramatela “Daumont”-en aran. Dambreuse Anderea senarraren ondoan zen, Martinon aitzinean bertze jarlekuan; hirurek begitarteak ustegabetuak zituzten.

- “Ezagutu nautel!” erran zuen bere baitan Federikek.

Rosanette-ek gelditzea nahi zuen, bazoazinen hobeki ikusteko. Baina Arnoux Anderea berriz ager zaitekeen. Federikek oihu egin zaukon karrosazainari:

- “Habil bada! habil! aitzina!”

Eta berlina Champs-Elysées-tara abiatu zen bertze karrosen erdian, kalea, briska, wurt, tandem, tilbury, dog-cart, hetan langile bestalier batzu kantuz ari ziren larruzko erridauekilako tapizakari, aita familiako batzuek berek zuhurtziarekin bazeramatzaten “erdi-fortuna” izeneko karrosa zaldi bakunekoak. Jendez mukurru beteak ziren “victoria” batzuetan, mutiko zenbaitek, bertzen oinen gainean jarririk, bi zangoak uzten zituen kampora dilindan. Jarleku oihalez estaliekilako karrosa motz handi batzuek bazerabiltzaten lokartuak ziren andere zahar

batzu; edo “stopper” miragarri bat bazoan, kadera bat barnean, “dandy” baten jantzi beltza bezain laño eta aphain. Artean erauntsia bikuntzen ari zen. Euritakoak hartzen ziren, ekitakoak, soineko “mackintosh”-ak; elgarri urrundik oihu egiten zen: “Egun on! - Ontsa? - Ba! - Ez! - Sarri arteo!” eta begitarteak bazoazin itzal xinatarren laster batean. Federik eta Rosanette etziren elgarri mintzo, halako balditze bat sendi baitzuten ondoan ikusiz, ethengabe, errota horiek guziak itzulika.

Noiztenka, karrosa lerroak, lehia soberaz, oro batean gelditzen ziren. Orduan, batzu bertzen ondoan egoiten zen, eta elgarri beha. Taulatto harmaztatuen bazterretik, behako axolagabe batzu erortzen ziren jendearen gainera; begi batzuek gutiziaz beteak dirdiratzten zuten fiakren barnetik; gaitzesmenezko erdi-irri batzuek buru-antze urguluduner ihardesten; aho zabaldu batzuek miresmen zozo bat erraiten; eta, han edo hemen, ibilkari zenbaitek, biderearen erdian, gibelera jauzi egiten zuen karrosen artean lauhazka zoan eta hortik jalgitzera heltzen zen zaldizko baten huts egiteko. Gero guzia berriz abiatzen zen; karrosazainek uhalak joaitera uzten zituzten, bere azote luzeak behehitzen; zaldiek, zaintsu, gatinattoak inharrosiz, hauna inguruan egozten zuten; gibelalde eta harnes bustiak khetan zituzten, iguzkiak etzatean zeharkatzen zuen lambroan. Triunfako Arkuaren azpitik iraganez, gizonaren goratasunera argi gorrasta bat luzatzen zuen, erroten abatsak, athexken eskupekoak, thimoien muturrak, uhalen erhaztunak dirdira-arazten zituena; eta, ibilbide handiaren bi bazterretan, - hartan khimak, jantziak, jenden buruak uhainka zoazin ibai bat iduri, - zuhatzak oro euriz dirdiran zutitzen ziren, bi harresi musker bezala. Zeruko urdina, gainean, berriz agertzen zen guneka, satinaren eztitasun batzuekin.

Orduan, Federik egun jadanik urrundu batzuez orhoitu zen karrosa horietarik batean, emazte horietarik baten ondoan izaiteko zorion ezin errana gutiziatzen zuenean. Bazuen, zorion hori, eta etzuen hortako bazkario gehiago.

Euria azkenean gelditua zen. Jendeak, Mublezaindegiko zutaben artean gerizaturik, bazoazin. Ibilkari batzu, Erret-karrikan, karrika handiari buruz igaiten ari ziren. Atzerrietako Egitekoen hotel aitzinean, behatzale lerro bat mailetan gelditua zen.

Mainu-Xinatarren heinean, lauzada zilatu zelakotz, berlina emekiago joan zen. Soineko urr-kolore batekilako gizon bat bazoan oinbiderearen bazterrean. Ziliporta batek, erresorten azpitik jalgiz, bizkarra

estali zaukon. Gizona itzuli zen, erotua. Federik zuritu zen; ezagutua zuen Deslauriers.

Kafe Angeleseko atxean, karrosa igorri zuen. Rosanette aitzinean igana zizakon, bera korrasazainaren ordaintzen ari zelarik.

Mailaldean berriz aurkitu zuen, jaun batekin solasean. Federikek besotik hartu zuen. Baina, barnebiderearen erdian, bigarren jaun batek geldi-arazi zuen.

- “Hoa aitzina!” erran zuen, “heldu nuk!”

Eta gabinetean bakarrik sartu zen. Bi leiho idekietarik, jendeak ageri ziren bertze etxetako leihoetan, aitzinean. Leinuru zabal batzu ikharatzen ziren idortzen ari zen mundrunean, eta mañolia batek galeriaren hegian ezarria barnea usainontzen zuen. Usain horrek eta hoxturak zainak goxatu zauzkoten; bere burua ohexka gorriaren gainera erortzera utzi zuen, mirailaren azpian.

Marexalsa itzuli zen; eta, bekokian musu emanez:

- “Griñak badira, gaixo maitea?”

- “Behar bada!” ihardetsi zuen.

- “Ehiz bakarra, habil!” erran nahi zuela: “Ahatz ditzagun bakotxak gureak elgarrekilako zorionean!”

Gero lili-orsto bat ezpainen artean ezarri zuen, eta hari ausikitzaera eskaini. Jestu horrek, garaziaz eta gozotasun guri batez betea, Federik hunki zuen.

- “Zergatik penatzen nun?” erran zuen, Arnoux Anderea gogoan.

- “Nik, penatzen?”

Eta, zutik, haren aitzinean, behatzen zaukon, betileak elgarri hurbilduz eta bi eskuak soingainetan.

Federiken bertute guzia, gorromio guzia, hondagabeko bihozkabekeria batean murgildu ziren.

Berriz egin zuen:

- “Maitatu nahi enunaz geroz!” hura belhaunetara ekharriz.

Egitera uzten zuen; gerria bi besoez inguratzen zaukon; zetazko zaiaren kraxkatzeak sutan ezartzen zuen.

- “Nun dira?” egin zuen Hussonnet-en mintzoak barne-bidean.

Marexalsa bapatez xutitu zen, eta gabineteko bertze burura joan, bizkarra atxari itzuliz.

Ostreak galdegin zituen; eta mahiratu ziren.

Hussonnet etzen jostagarri izan. Egun oroz edozein gai motaz izkiriatuaren bortxaz, egunkari ainitz irakurriarenaz, eztabadatze ainitz

entzunaren eta lilluratzeko arrazoin kontrakoak erranarenaz, gauzen arau zuzenaren galtzera heldua zen, bere burua bere lehergailu ahulekin itsutuz. Bizi lehenago arin, baina orai neke baten eragozpenek bazadukaten betiereko ezin egon batean; eta ahal ezinak, berari aithortu nahi etzuenak, bekaizti eta sistakari egiten zuen. *Ozai* dantza ikusgarri batez, athermaldi gogor bat egin zuen dantzaren kontra, eta dantzaz beraz, Operaren kontra; gero, Operaz, Italiarren kontra, ordainduak, orai, jokari español alde batez, “Gaztelez aseak ezpagine bezala!” Federik gaitzitu izan zen Espainiarendako zuen amodio erromantikoan; eta, solasaren hausteko, Frantziako Kolegioko berriak galdegin zituen, handik haizatu berriak baitziren Edgar Quinet eta Mickiewicz. Baina Hussonnet, Maistre-ko Jaunaren mireslea, Larderiaren eta Izpituialitatearen alde mintzatu zen. Dudan emaiten zituen, bizkitartean, gauza hobekienik phoragatuak, ixtorioa ezeztatzen, eta gauza baiezkoenak ez onhartzen, “geometria” hitzean oihukatzerano: “Zer irri egitekoa geometria!” Hori guzia komedianten sino egitez artekaturik. Sainville zen bereziki haren gizona.

Elhe ezteus horiek nardatzen zuten Federik. Ezin egonezko higitze batean, hatzeman zuen, botaz, xakurretarik bat mahi azpian.

Biak itsuski ehausiaka hasi ziren.

- “Ereman-arazi behar zinituzke!” erran zuen bapatez.

Rosanette-ek etzuen ehoren baitan konfiaririk.

Orduan mutiko arinaren aldera itzuli zen.

- “Hea, Hussonnet, zuretik emazu!”

- “Oi! ba, maitea! Ontsa gixako lizateke!”

Hussonnet joan zen, gehiago othoiztu gabe.

Nola ordaintzen ote zizakon zerbitzu emaita hori? Federik etzen hori gogoan egon. Buruz buru izaiteaz bozkariatzen hasten ari zen ere, mutil bat sartu zenean.

- “Anderea, norbaitek galdegiten zitu!”

- “Nola! berriz ere?”

- “Ikusi behar dut alta!” erran zuen Rosanette-ek.

Federik hartaz egarri zen, beharretan. Joaite hori zimarku bat iduritzen zizakon, abantzu arrunkeria bat. Zer nahi zuen bada neska horrek? Arnoux Anderea laidoztatua ukaitea etzena bada aski? Hanbat gaixto horrendako, bertzela ere! Orai, emazte guziak hastiatzen zituen; nigarrek itho nahi zuten, maitasuna ezpaitzizakon ezagutua eta atsegin gosean enganatua baitzen.

Marexalsa berriz sartu zen, eta, Cisy aitzineratuz:

- “Jauna gomitatu dut. Ontsa egin dut, eztea hala?”

- “Nolaz ez bada! segurki!” Federikek, urkabera deramatenaren irriñoarekin, aitorensemea kheinu batez jartzera gomitatu zuen.

Marexalsa hasi zen kartaren irakurtzen, izen bitxietan geldituz.

- “Jaten baginu, berdin, Richelieu moldeko konixki biribilkatu bat, eta D’Orléans moldeko “pudding” bat?”

- “Oi! Orléans-tarrik ez!” egin zuen Cizy-k, legitimixta baitzen eta atheraldi on bat egina zuela uste.

- “Maite duzua turbot “à la Chambord” bat?” egin zuen berriz Rosanette-ek.

Ikustate horrek Federik gaitzitu zuen.

Marexalsa azkenean deliberatu zen: behiki lun xoil bat, xangurruak, onddo boilak, ananas enselada, banillarekilako hormakiak.

- “Gero ikusiko dugu. Zoaz beti. Ha! ahazten nuen! Ekharrazazu lukainka idor bat! baratzuririk gabea!”

Eta mutilari erraiten zaukon “gaztea”, basoa ganibetaz jaitzen zuen, ogiaren mamia tronadurara botatzen. Berehala Burgoñako arnotik edan nahi ukan zuen.

- “Ezta hartzen hastetik”, erran zuen Federikek.

Batzuetan egiten zen, bixkondeak zionaz.

- “He ez! nehoiz!”

- “Baietz, diotzut!”

- “Ha! ikusten duk!”

Erranaldi horren laguntzeko egin zuen soak erran nahi zuen: “Gizon aberatsa duk hori, entzun ezak!”

Artean, athea minuta oroz idekitzen zen, mutilak garrasiaka ari ziren, eta, ondoko gabinetean, norbait ari zen, piano madarikatu batean, balza bat jo eta jo. Gero zaldi-lasterrek ekharri zuten zaldiz ibiltzeko bi molde kontrakoetara. Cisy Baucher-en alde zen, Federik Aure-ko kondearen, Rosanette-ek soingainak goititu zituenean.

- “Aski, Jainkoa! hi baino ezagunagoa duk habil!”

Granada batean ausikika ari zen, ukondoa mahiaren gainean; gandelabreko ezkoak haren aitzinean haizera ikharatzen ziren; argi xuri horrek larruan emaiten zauzkon nakarazko leinuru batzu, betespalak arrosa-koloretzen, begietako borobila dirdira-arazten; fruituaren gorria ezpainenarekin nahasten zizakon, sudurraren hegal meheak higitzen; eta

zen guziak bazuen zerbait ozar, mozkor eta itho Federik sumintzen zuena, eta bizkitartean gutizia ero batzu bihotzera egozten zauzkona.

Gero andereak galdegin zuen, mintzo berdin batekin, norena zen laur errota eta jantzieria gaztena-kolorekilako hura.

- “Dambreuse kondesarena”, ihardetsi zuen Cisy-k.

- “Biziki aberatsak dira, eztea hala?”

- “Oi! biziki! nahiz Dambreuse Andereak, Boutron andereño bat baita, xoil-xoilki, prefet baten alaba, fortuna bien artekoa duen.”

Senarrak, aldiz, ondoriotasun andana bat bildu behar zuen; Cisy-k lerro lerro eman zituen; Dambreuse-tarrak ikusten zituen, haien ixtorioa bazakien.

Federik, hari gaizki egiteko, kontra erraitean hisitzen zizakon. Atxiki zuen Dambreuse Anderea “de Boutron” zela, bazion haren noblezia segurra zela.

- “Eztu axolarik! ontsa nahi nuke haren karroseria ukan!” erran zuen Marexalsak, bere jargian uzkailez.

Eta zaiaren mahungak, apur bat lerratuz, ager-arazi zaukon, ukaraiko bat hirur opalez aphaindua.

- “Ori! baina...”

Hirurek elgarri behatu zuten, eta gorritu ziren.

Athea erdi-ideki zen eztiki, xapel baten bazterra agertu, gero Hussonnet-en begitarte.

- “Barkatu, makurtzen bazituztet, maitaleak!”

Baina gelditu zen, Cisy ikusiz ustegabetua eta bere lekua hartua zaukola.

Bertze mahiko batzu ekharri ziren; eta gose amikatua baitzen, hartzen zituen nun nahi, auhariaren ondarretan, haragitik plateran, fruitu bat zarean, esku batez edaten, bertzeaz jatekoa hartzen, bere egitekoa kondatzen zuen batean. Bi xakurrak eremanak ziren. Etxean berririk jeus ez. Kozinersa soldado batekin aurkitua zuen, gezurra zena, eta bakarrik ohargarri izaiteko asmatua.

Marexalsak hartu zuen krakotik bere euritakoa. Federik xilintxara lehiatu zen mutilari urrundik oihu eginez:

- “Karrosa bat!”

- “Neurea badut”, erran zuen bizkondeak.

- “Baina, jauna!”

- “Alta, jauna!”

Eta elgarri begietara so zauden, biak zurituak, eskuak ikharan.

Azkenean Marexalsak hartu zuen Cisy-ren besoa, eta, erakutsiz mutiko arina mahian egonki:

- “Artha ezak bada! ithotzen ari duk. Enikek nahi ene uxakurrendako egina duenak hil-araz lezan!”

Athea berriz hetsi zen.

- “Eta beraz?”

- “Eta beraz, zer?”

- “Uste nuen...”

- “Zer zinuen uste?”

- “Etzireztea...?”

Erranaldia jestu batez osatu zuen.

- “He ez! nehoiz ere!”

Hussonnet etzen gehiago hisitu.

Helburu bat bazuen bere burua auhari hortara gomitatuz. Bere egunkaria, izena etzuen gehiago *Edergintza* baina *Farrandaria*, aitzin-hitz hunekin: “Kanoilariak, zuen harmetara!”, ezpaitzizakon batere joritzen, bazuen astekari batera aldatzeko nahikaria, edo bakarrik, edo Deslauriers-en laguntzarekin. Lehenagoko lan-xedea aipatu zuen, bere egitarau berria agertu.

Federikek, ezpaitzukeen zertaz ari zen aditzen, gauza ezpaiko batzuekin ihardetsi zuen. Hussonnet-ek hartu zuen ahurtara bat zigarro mahian, erran: “Goraintzi, gaizoa,” eta joan zen.

Federikek galdegin zuen khondua. Luzea zen; eta mutila, oihala besapean, diruaren aiduru zagon, Martinon-en iduriko gizon zurpail bat jin zizakonean:

- “Barkatu, khondatzean ahatzi da fiakra.”

- “Zein fiakra?”

- “Jaunak arestian hartu duena, xakur ttipiendako.”

Eta mutilaren begitarte luza zuen, mutiko gazte gaixoaz urriki ukan balu bezala. Federikek ukan zaukon mazelako baten emaiteko gutizia. Itzultzen zitzazkon hogeitazko liberak eskupeko eman zituen

- “Eskerrak, Enejauna!” erran zuen oihalarekilako gizonak; agur handi batekin.

Biharamuneko eguna Federikek bere haserrea eta aphaldua izaita gogoan iragan zuen. Bere burua erasiatzen zuen Cisy-ri mazelako bat ez emanik. Marexalsaz aldiz, berriz etzuela ikusiko zin egin zuen; neska ederrak etziren eskas; eta, emazte horien ukaiteko dirua behar zenaz geroz, Molsan jokatu zuen bere etxaldearen saria, aberastuko zen,

aberaskeriaz lehertuko zituen Marexalsa eta mundu guzia. Arratsa jinik, Arnoux Anderea ez gogoan ukanik ustegabetu zen.

- “Hobe! zer balio du?”

Biharamunagoan, zortzi orenetako, Pellerin ikustaldi egitera ethorri zizakon. Mubleriaz miresmenekin hasi zen, lausenguekin. Gero, bapatez:

- “Zaldi lasterretan zinen, igandean?”

- “Bai, ondikotz!”

Orduan, margolaria zaldi angelesen anatomiaz erasian ari izan zen, Géricault-en zaldiak laudatuz, Parthenon-goak. “Rosanette zurekin zen?” Eta haren laudorioa hasi zuen, trebeki.

Federiken hotzak ustegabetu zuen. Etzakien potretera nola jin.

Lehenbiziko xedea Titien baten egitea ukana zuen. Baina, apurka, modelaren koloratze aldakorra gustatua zizakon; eta zintzoki ari izana zen, margoa margoaren gainean metatuz eta argia argiaren. Rosanette loriatua izan zen hatsarrean; Delmar-ekin zituen hitz-hartzek lanaldiak moztuak zituzten, Pellerin-i utziz lilluratzeko behar zuen asti guzia. Gero, miresmena eztituz, bere buruarekin egona zen hea margotzen zuenak etzuenez handitasunetik eskas. Titien-enen berrikusten izana zen, urrun zela ohartua, hutsean zela onhartua zuen; eta xoilki itzulien berriz margotzen hasia zen. Gero nahi ukanak zituen, higatuz, ttipitu, hetan buruaren margoak zolakoeekin nahasi; eta aurpegiak itxura hobe hartua zuen, itzalek indarra; guziak azkarrago iduri zuen. Azkenean Marexalsa berriz itzulia zizakon; erasia egitera ausartua; edergileak, zuzen bezala, bere hartan jarraikia zuen. Anderearen zozoaz handizki sumindua izanik, arrazoin ukan zezakeela egina zuen bere baitan. Orduan hasia zen duden aldia, urdaileko mina jauz-arazten duten gogoetatze bortxatu, lo gabezia, sukar, nor beraren higundura; berriz hunkitze batzuen egiteko kuraia ukana zuen, baina bihotzik gabe eta lana gaixtoa zela sendituz.

Deitoratzen zen bakarrik Saloinean ez onhartua izanaz, ondotik Federik erasiatuz Marexalsaren potretaren ikustera ez jinik.

- “Ontsa trufatzen niz Marexalsaz!”

Aithormen horrek ausartu zuen.

- “Sinets zinezakea ihizi horrek eztuela gehiago nahi, orai?”

Erraiten etzuen, mila eskudo galdeginak zauzkola da. Baina, ordaindu behar zuenaz Marexalsa guti axolatua zen, eta, Arnoux-en ganik gauza baitezpadakoago batzu bildu nahiagoz, etzaukon hori aipatua ere.

- “Ori, eta Arnoux?” erran zuen Federikek.

Andereak haren gana igorri zuen berriz. Margazki saltzale ohiak etzuen potretaz axolarik batere.

- “Badio Rosanette-rena dela.”

- “Alabaina, harena da.”

- “Nola! hark nigorra zure gana!”

Bere lana hoberenatarik zela uste ukana balu, etzizakokeen hartaz baliatzea gogoratuko. Baina dirualde batek (eta alde gotorra) kritika ezeztatuko zuen, bera bere baitan azkartuko. Federikek, haren ganik utzia izaiteko, zenbat nahi zuen galdegin zaukon, jendetasunez.

Zenbataren arrazoin gabeak sumindua, ihardetsi zuen:

- “Ez, ha! ez!”

- “Haren maitalea zira alta, zuk manatua daukozu!”

- “Arartekoa izana niz, barkatu!”

- “Baina enagoke horrekin besoetan!”

Edergilea erotzen ari zen.

- “Ha! etzinitutan hoin diru gosea uste.”

- “Ez nik zu hoin zikoitza! Zerbitzari!”

Etzen joana baizik, Senecal agertu zenean.

Federikek, durduzatua, jestu khexu bat ukan zuen.

- “Zer da?”

Senecal-ek erran zuen bere ixtorioa.

- “Ebiakoitzean, bederatziak hirian, Arnoux Andereak ukan du Parisera deitzen zuen eskutitz bat; nehor ezpaitzen han, halabeharrez, karrosa baten bila Creil-era joaiteko, nahi ninduen nihaur hara igorri. Eza eman dut, ezpaita hori ene egitekoetan sartzen. Bera izan da, eta igande arratsean itzuli. Atzo goizean, Arnoux badator landegira. Bordelestsa deitoratu da. Bien artean zer duten eztakit, baina isuna guzien aitzinean ekhendu dauko. Elhe bizi batzu erran ditugu elgarri. Hots, khondua eman dauta, eta horra hemen!”

Gero, elheak berexiz:

- “Bertzela, eniz dolutzen, eginbidea bete dut. Hala ere zure gatik da.”

- “Nola?” egin zuen Federikek, Senecal-ek zilhatua etzuen bezalaxe beldurtuz.

Ezer etzuen asmatua, ezen egin zuen berriz:

- “Erran nahi dut, zu han izan ezpazine, zerbait hobe aurkituko nukeela.”

Federik halako dolutze batek hartu zuen.

- “Zertan zerbitzatzen ahal ziot, orai?”

Senecal-ek leku bat galdegiten zuen, edozein ofizio.

- “Hori errex da zuretako. Hanbat jende ezagutzen duzu, bertzen artean, Dambreuse Jauna, Deslauriers-ek errana dautanaz.

Deslauriers-ez orhoitze hori gozagaitz izan zizakon haren adixkideari. Etzen batere Dambreuse-tarren etxera itzultzeaz axolatua Champ-de-Mars-ean elgar aurkituaz geroz.

- “Eniz aski etxekotua norbaiten gomendatzeko.”

Demokratak ez hori hartu zuen hunkia izan gabe, eta, ixil ephe baten ondotik:

- “Hori guzia, segur niz, Bordelestsaren ganik heldu zata, eta ere zure Arnoux Anderearenetik.”

Zure horrek Federiken bihotzetik ekhendu zuen bazadukan nahikaria on gutia. Ikustatez, bizkitartean, segetariko gakora joan zen.

Senecal-ek gelditu zuen.

- “Eskerrak!”

Gero, bere nahigabeak ahartziz, aberriko gauzez mintzatu zen, Erregeren bestako nasaiki emanak ziren medailez, gobernuaren aldatzeaz, Drouinard eta Bénier-en egitekoez, aro hartako eskandalak, burjesen kontra oihukatu, eta iraultza bat iragarri zuen. Dilindan ezarria zen “crid” xaponiar batek begiak geldiarazi zauzkon. Hartu zuen, giderra entseatu, eta kanapearen gainera egotzi, itxura okaztatu batekin.

- “Goazen, goraintzi! Lorette-ko Andredona-Mariara joan behar dut.”

- “Ori! Zergatik?”

- “Godefroy Cavaignac-en urtaburuko zerbitzua da egun. Lanean hila da, hura! Baina guzia ezta bururatua!... Nork daki?”

Eta Senecal-ek eskua eman zuen, beldurtu gabe.

- “Behar bada nehoiz eztugu berriz elgar ikusiko! goraintzi!”

Goraintzi horrek, bieran errana, haren bekainen zimurtzeak nabalari behatzean, jasankortasunak eta doinu larriak oroz gainetik, amets egin-arazi zaukoten Federiki, eta laster gogotik joan zizazkon.

Aste berean Havre-ko notariak igorri zaukon etxaldearen saria, ehun eta hiruretan hogeita hamalaur mila libera. Bi zatitan eman zuen, lehenbizikoa Estatuaren gainean ezarri, eta bigarrena diru aldapeneko gizon baten etxera ereman Molsan jokatzeko.

Modako ostatueta jaten zuen, bazabilan antzokitean eta libertitzera entseatzen zen, Hussonnet-ek eskutitz bat igorri zaukonean, hartan baitzion zaldilasterren biharamuneko Marexalsak Cisy utzia zuela. Hortaz bozkariatu zen, mutiko arinak zertako jakin-arazten zaukon gertakari hori bilatu gabe.

Halabeharrak nahi ukan zuen Cisy batu zuela, hirur egun berantago. Aitorensemeak itxura ona atxiki zuen, eta auhaltzera gomitatu zuen ere heldu zen astezkeneko.

Federikek, egun hartako goizean, ukan zuen uxer baten hitza, hartan Charles-Jean-Baptiste Oudry Jaunak jakin-arazten baitzaukon auzitegiko jujamendu baten araura jabetua zela Jacques Arnoux jaunarena zen etxe batez, Belleville-en jarria zena, eta hogeita-hirur mila liberen ordaintzera zoala, saltzearen balioa. Baina jujamendu beraren ondorioz, etxeak gainean zituen bahimenenen balioak erostearena gaindituz, Federiki zor zizakona osoki galdua gertatzen zela.

Gaitz guzia hypotheketan izen-emaitea ez ordu zeno berritua ukaitetik heldu zen. Arnoux-ek urrats hori bere gain hartua zuen, eta gero ahatzia. Federik haren kontra sumindu zen, eta, haserrea iragana izan zenean:

- “Beraz, eta gero..., zer? horrek salba badezake, hobe! eniz hortako hilen! ahatz dezagun!”

Baina mahian bere paperreriak higituz, Hussonnet-en eskutitza hatzeman zuen, eta azpi-hitzari ohartu zen, lehen aldian ezpaitzuen ikusia. Mutiko arinak bortz mila libera galdegiten zituen, zuzen zuzena, egunkariko egitekoaren abiatzeko.

- “Ha! horrek aspertzen nau!”

Eta eza eman zuen bortizki hitz ezin laburrago batez. Horren ondotik, jantzi zen Etxe-Urrera joaiteko.

Cisy-k bere gomitak atzineratu zauzkon, errespetagarrietik hasiz, jaun lodi ile zuri bat:

- “Gilbert des Aulnays markesa, ene aitabitxia. Anselme de Forchambeaux Jauna,” erran zuen ondotik (mutiko gazte ile hori mehar bat zen, jadanik garsoildua); gero, ibilara lañoko berrogei urteko bat erakutsiz: “Josep Boffreu, ene gusia; eta huna ene erakasle ohia Vezou Jauna,” gizon erdi orgazain erdi semenarixta bat, bizarmotz lodi batzuekin mateletan eta maripulis luze batekin behean botoin bakar batekilakoa, bularretan lephoko oihal egiteko moldez.

Cisy norbaiten aiduru zagon oraino, Comaing-ko baroinaren “behar bada jinen dena, ezta segur”. Minuta oroz jalgitzen zen, khexu iduri; azkenean, zortzi orenetan, handizki argitua zen sala batera iragan ziren, gomitatuak zirenendako zabalegia, Cisy-k ospez hautatua, espesuki.

Zilhar urreztatuzko mahigaineko batek, lorez eta fruituz betea, hartzen zuen mahiaren erdigunea, zilharrezko plateraz estalia zena, ara frantzes zahararren araura; arbi-untzi batzuek, gazikeria eta espeziaz beteak, bazterki bat egiten zuten inguruan; arno gorra eta hormatuarekilako pitxar batzu bazauden han hemenka; borts baso goratasunez ezberdinak lerrokatuak ziren azieta bakoitzaren aitzinean zertako erabiltzen ziren jakina etzen gauza batzuekin, mila ahoko tresna antzedun; - eta baziren, lehen zerbitzu bakarreko: gaizkata buru bat xampanaz bustia, York-ko xingar bat tokai-ko arnoan, biligarroak gasnaz estalirik zirigartuak, galepher erreak, orhe-molsa “Béchamel” bat, epher zango gorriak kaxolan, eta, horren guziaren bi buruetan, onddo boilekin nahasiak ziren lur-sagar xirrixtatuak. Dilindakari batek eta gandelabre multzo batzuek barnea argitan ezartzen zuten, hau damas gorritz estalia. Laur mutil jantzi beltzetan bazauden larru aphainduzko jargien gibelean. Ikusgarri hortan, gomitak oihuz hasi ziren, erakaslea bereziki:

- “Gure *anfitrión*-ak, alafe, egiazko erokeriak egin ditu! Ederregi da!”

- “Hori?” erran zuen Cisy-ko bizkondeak, “zer da bada!”

Eta, lehenbiziko kullertarako:

- “Eta zu, ene “des Aulnays” gaiztoa, Erret-Palazioan izana zirena, *Aita eta Athezain*-en ikusten?”

- “Ontsa badakik astirik eztiatala!” ihardetsi zuen markesak.

Goizak zuhatz laborantzako ikastaldi batek hartuak zituen, arratsak laborarien Bilkurak, eta arratsaldeak lur lantzeko tresna landegietako ikaskuntza batzuek. Urteko hirur laurdenetan Saintonge-an biziz, hiri nagusiko bidaiez baliatzen zen bere jakitatearen hedatzeko; eta zuen hegal zabalekilako xapela, bazter-mahian ezarria, liburuxkaz betea zen.

Baina Cisy, Forchambeaux-ko Jaunak arnorik etzuela nahi ohartzuz :

- “Edazu bada, alajinkoa! Zure mutiko biziaren azken aphairuko, etzira azkarki ari!”

Hitz hortan, guziak gurtu ziren, goresten zen.

- “Eta andere gaztea,” erran zuen erakasleak, “loriagarria da, segur niz?”

- “Nolaz ez!” egin zuen Cisy-k. “Berdin da, ogenean da; hain da zozo, ezkontza!”

- “Arinki ari hiz, adixkidea!” ihardetsi zuen Des Aulnays-ek, nigar bat begian iragaiten ari zizakolarik, galdua zuen ezkontideaz orhoitzean.

Eta Forchambeaux-ek errepikatu zuen aldi andana batez jarraikian, irri erkatx batekin:

- “Zuhaur hortara jinen zira, hortara jinen zira!”

Cisy-k ezetz. Nahiago zuen libertitu, “erreienziako” izan. Gudu frantzesak ikasi nahi zuen, Zibitateko edandegi gaixtoetara ikustaldiz joateko, *Parisko Mixterio*-etako Rodolphe printzea bezala, sakelatik pipa bat athera zuen, zerbitzariak bortizki erabiliz, ezin gehiago edanez; eta, bere buruari aipamen onaren emateko, jateko guziak gutiesten zituen. Onddo boilak gibelera igorri zituen ere, eta erakasleak, milikatuz ari zizeelarik, erran zuen aphaleriaz:

- “Eztituzte zure amabitxi anderearen arraultze xuringo joak balio!”

Gero berriz solasean hasi zen lur-jakintzalari auzoarekin, hunek abantail ainitz aurkitzen baitzuen baserrian egoitean, bere alaben hazteko gustu laño batzuetan baizik ezpazen ere. Erakasleak aburu horiek goresten zituen eta lausengatzen zuen, ustez eta eragina bazuen ikaslearen baitan, nahi baitzuen segetetuki haren egitekoetako gizona izan.

Federik Cisy-rendako omere gaixtoz beterik ethorria zen; hunen zozotasunak eztitua zuen. Baina, jestuek, itxurak, zen guziak, Kafe Angeleseko auhariaz orhoit-araziz, gero eta gehiago aspertzen zuten; eta entzuten zituen Josep gusiak erdi ahapetik erraiten zituen ohar damugarriak, hau fortunarik gabeko mutiko on bat, ihizian gustu zuena, eta molsalaria. Cisy-k, irri solasez bezala “ohoina” deitu zuen aldi batzuez; gero, bapatez:

- “Ha! baroina!”

Orduan sartu zen hogeita hamar urteko putiko bat, zerbait latz bazuena begitartean, malgu soin-adarretan, xapela beharri gainean, eta lili bat botoin xiloan. Bizkondearen eredu betegina zen. Han haren ukaiteak xoratu zuen; eta, horrek sustatzen baitzuen, hitz-joko bat menturatu zuen ere, ezen erran zuen, basoilar edo “ilharretako” bat ekartzen ari zutelarik:

- “Huna La Bruyère-ren (edo “Ilharra”-ren) jitetako hoberena!”

Gero, Comaing-ko Jaunari galde andana bat egin zaukon han zirenek ezagutzen etzituzten jende batzuez; eta, gogoeta batez hartua bezala:

- “Errazu bada! nitaz axolatu zirea?”

Bertzeak soingainak goititu zituen.

- “Etzira adinean, haurra! Ezina da!”

Cisy-k othoiztua zuen bere glubean onharr-araz zezan. Baina baroinak, haren bere baitako amodioaz urrikitzuz agian:

- “Ha! Ahazten nuen! Mila goresmen, maitea, zure parioarendako!”

- “Zein pario?”

- “Arrats berean andere haren baitara joaiteaz egina duzuna, zaldilasterretan.”

Federikek azote ukaldi bat bezalakoa senditu zuen. Berehala eztitua izan zen, Cisy-ren aurpegi nahasia ikusiz.

Alabaina, Marexalsa, biharamuneko, urrikietaratua zen, Arnoux, bere lehenbiziko maitalea, bere gizona, egun berean ethorri zizakonean. Biek bizkondeari entzun-arazia zaukoten “jenatzen” zuela, eta haizatua izana zen, zeremonia gutirekin.

Ontsa entzuten etzuela iduritu zuen. Baroinak gehitu zuen:

- “Zer bilakatzen ari da, Arroxa gaizo hura?... baditua zango beti berdin pollitak?” hitz hortarik phorogatzuz minki ezagutzen zuela.

Federik agertze hortaz gaitzitua izan zen.

- “Ezta zer gorri,” egin zuen berriz baroinak; “egiteko on dena da!”

Cisy-k mihiaz klaskatu zuen.

- “Boh! ez hainbertze!”

- “Ha!”

- “Jainkoa, ba! Lehenik jeus ohigabekorik eztaukot, nik, hatzemaiten, eta ere berdinak nahitara biltzen dira, ezen azkenean... salgai da!”

- “Ez guziendako!” egin zuen saminki Federikek.

- “Bertzen berdina eztela uste du hunek!” ihardetsi zuen Cisy-k, “zer irri egitekoa!”

Eta irri bat mahian gaindi ibili zen.

Federikek sendi zuen bihotzaren joiteak ithotzen zuela. Bi baso ur edan zituen, bat bertzearen ondotik.

Baina baroinak Rosanette-ren orhoitzapena ona atxikia zuen;

- “Beti delako Arnoux batekin dea?”

- “Batere eztaikit;” erran zuen Cisy-k. “Eztut jaun hori ezagutzen!”

Aitzineratu zuen, hala ere, ohoina bezalako zerbait zela.

- “Geldi hortan!”

- “Bizkitartean, gauza segurra da! Auzi bat ere ukana du.”

- “Ezta egia!”

Federik Arnoux-en zaintzen hasi zen. Haren zuzentasunaz berme emaiten zen, hortan sinisterano, zifrak asmatuz, lekukotasunak. Bizkondea, gorromioz betea, eta bertzela ere edana, bere erranetan thematu zen, hala nola nun Federikek erran baitzaukon seriositasunekin:

- “Ene laidoztatzeko dea, jauna?”

Eta so egiten zaukon, begi ñiñiak zigarroa bezain sutsu.

- “Oi! ez batere! Uzten dautzut ere biziki ontsa den zerbait baduela: emaztea.”

- “Ezagutzen duzu?”

- “Nolaz ez! Sophie Arnoux, guziek hori ezagutzen dute!”

- “Badiozu?”

Cisy-k, zutitua baitzen, errepikatu zuen ahopiatuz:

- “Mundu guziak hori badaki!”

- “Ixil zaitel! Ezta zu haiekin ibiltzen zirenetarik!”

- “Hortaz lausengatzen niz!”

Federikek azieta begitartera egotzi zaukon.

Ximixta bezala mahiaren gainetik joan zen, bi botoila aurdikiz, kompota untzi bat hautsiz, eta, mahigainekoa hirur zati egiten zuela, bizkondea jo zuen sabelean.

Guziak jeiki ziren haren atxikitzeke. Zalapartaka ari zen, oihuka, halako ero-aldi batek hartua; Aulnays-ko Jaunak errepikatzen zuen:

- “Ezti zaitel! ezti! haur gaixoa!”

- “Baina izigarri da!” zion aho betez erakasleak.

Forchambeaux, murrua bezain zuri, ikaran zen; Josep karkailaka irriz; mutilek arnoa xahutzen zuten, phorroskak lurrean biltzen; eta baroina leihoaren hestera joan zen, ezen harramantza, karrosen hotsa izanik ere, karrika handitik entzuna izaiten ahal zen.

Jende guzia, azieta egotzia izan zelarik, aldi berean mintzo baitzen, etzen laido horren arrazoina aurkitu ahal izan, Arnoux-en gatik zenez, Arnoux Anderearen, Rosanette-ren ala bertze norbaiten. Segur zena,

Federiken abretasun ezin errana zen; etzuen den gutieneko urrikitzearen erakusterik aipatu nahi ukan ere.

Aulnays-ko Jauna eztitzera entseatu zizakon, Josep gusia berdin, erakaslea, Forchambeaux bera. Baroinak, bitartean, konsolatzen zuen Cisy, hau, zainetako ahultze batek hartua, nigarrez ari zelarik. Federik, alderantziz, gero eta haserreago zen; eta hortan egonen ziren, baroinak bururatzeko erran ezpalu:

- “Bizkondeak, jauna, bihar lekukoak etxera igorriko dauzkitzu.”
- “Zure orena?”
- “Eguerditan, nahi baduzu.”
- “Biziki ontsa, Jauna.”

Federikek, kemporaturik, hatsa bulhar betez hartu zuen. Bazuen aspaldi bihotza ezin atxikiz zagola. Askietsia zuen azkenean; gizatasunezko urgulu bat bezalakoa sendi zuen, burxoratzen zuten barneko indarren soberakin bat. Bi lekukoen beharretan zen. Gogoratu zizakon lehenbizikoa Regimbart izan zen; eta berehala abiatu zen Saint-Denis karrikako edandegi batera. Aitzindegia hetsia zen. Baina argi bat ageri zen berina batean, athe gainean. Ideki zen, eta hura sartu, hegatz-hegi azpian biziki behera gurtuz.

Ezko batek, sal-mahi izkinan, argitzen zuen barne huts-hutsa. Alketx guziak, zangoak airean, mahien gainean ezarriak ziren. Etxeko nagusi-andereak bere mutilarekin auhaltzen ari sukaldeko izkinan; - eta Regimbart, xapela buruan, haiekin jaten ari zen, mutila trabatuz ere, hau bortxatua baitzen ahamen bakoitzean, apur batez, bazterrera itzultzera. Federikek, gauza laburzki erranik, laguntza eskatu zaukon. Herritarrak etzuen lehenik ezer ihardetsi; begiak itzulikatzen zituen, gogoetan ari zela iduri, barnearen itzuli andana bat egin zuen, eta azkenean erran:

- “Ba, gogotik!”

Eta erdi-irri giza-ehaile batek arindu zuen, etsaia aitorenseme bat zela jakitearekin.

- “Atabalen soinuan ibil-araziko dugu, gostuan zaude! Lehenik... ezpatarekin...”

- “Baina behar bada”, ihardoki zuen Federikek, “eskubiderik eztut...”

- “Badiozut ezpata behar dela hautatu!” ihardetsi zuen bortizki Herritarrak. “Gudukatzen badakizua?”

- “Apur bat!”

- “Ha! apur bat! horra zertan diren guziak! Eta badute jaukitzeko errabia! Zer phorogatzen du, harmetako salak? Behazu: zaude aski urrun beti zure burua itzulika batzuen barnean hetsiz, eta utz! utz! Haizu da. Akhi ezazu! Gero emozu gainera, garbiki! Eta oroz gainetik jukutriarik ez, Fougère-ren arako ukaldirik ez! ez! bat-bi xoil batzu, gibelera egite batzu. Oizu, badakusazu?” ukaraia itzuliz zerrapo baten idekitzeko bezala.

- “Vauthier aita, emadazu zure makila! Ha! Hori aski da.”

Gazaren phizteko baliatzen zen ziria hatzeman zuen, beso ezkerra biribilkatu, eskuna plegatu, eta arte-murruari ukaldika hasi zen. Oinaz joiten zuen, berotzen zen, neke batzu aurkitzen balitu bezala egiten ere, oihukatzen zuen batean: “Hor hiza, orai? Hor hiza?” eta haren itzal gaitzekoa harresian ageri zen, tronadura hunkitzen zuela iduri zuen xapelarekin. Limonadariak erraiten zuen artetan: “Biba! biziki ontsa!” Hunen emazteak miresten zuen ere, nahiz hunkia zen; eta Theodore, soldado ohi bat, balditzez itzatua zagon, Regimbart Jaunaren miresle amorratua izanez, bertzela ere.

Biharamunean, goizik, Federikek laster egin zuen Dussardier-en saldegira. Barne lerro baten ondotik, oro oihalez beteak, tauleta batzu hartzen zituztela, edo mahi batzuetan zeharka hedatuak, zurezko borobil batzuek han edo hemen bazaduzkatela lephoko batzu, ikusi zuen halako gaiola burdin-sareztatu batean, errexistro batzuen erdian, zutik mahi gora batean izkiriatzan ari. Mutiko onak bere lana berehala utzi zuen.

Lekukoak eguerdi hirian ethorri ziren. Federikek, ikustatez, uste ukan zuen etzuela bilkuran izan behar.

Baroinak eta Josep Jaunak erran zuten desenkusa arinez askietsiak izanen zirela. Baina Regimbartek, erregela behin ere ez amor emaita baitzuen, eta Arnoux-en ohorea zaindu nahi (Federikek etzaukon bertze gauzarik aipatua), galdegin zuen bizkondeak desenkusak egin zitzan. Comaing-ko Jauna ozartasunaz sumindu zen. Herritarrak etzuen jeus entzun nahi ukan. Edozein baketze ezina bilakatuz, gudukatuko ziren.

Bertze nahigabe batzu sortu ziren; ezen harmen hautua, legez, laidoztatuarena, Cisy-rena zen. Baina Regimbart-ek erran nahi ukan zuen, desafiozko hitzaren igortzetik, laidoztatzalea bilakatzen zela. Lekukoak oihuz hasi zizazkon mazelako bat, bizkitartean, laidoetan bortitzena zela erranez. Herritarra hitzez eztabadan hasi zen, ukaldia etzela mazelakoa. Azkenean, armadakoer hel eginen zela deliberatu zen;

eta laur lekukoak athera ziren kaserna zenbaiteko aitzindarier aholku galdegitera.

Orsay-ko kaiakoan gelditu ziren. Comaing-ko Jauna bi kapitainetara joanik, erakutsi zauen eztabada zer zen.

Kapitainek etzuten hartan hitzik entzun, Herritarraren arte-erranaldiez nahasia zelakotz. Hots, jaun horier eman zaueten izkirioz ezartzeko aholkua; gero, deliberatuko zuten. Orduan, edandegi batera joan ziren; eta ere, gauzak ixilkiago egin nahiz, Cisy-ren orde H bat ezarri zen, eta Federiken orde K bat.

Gero kasernara itzuli ziren. Aitzindariak jalgiak ziren. Berriz agertu zirenean, erran zuten harmen hautua garbiki H-rena zela. Oro Cisy-ren etxera itzuli ziren. Regimbart eta Dussardier oinbidean gelditu.

Bizkondea, erabakia zer zen jakinez, hain nahasmendu handiaz hartua izan zen nun bietan errepika-arazi baitzuen; eta, Comaing-ko Jauna Regimbart-ek nahi zituenera jin zenean, murmurikatu zuen “bizkitartean”, ezpaitzen, bere baitan, horien onhartzetik urrun. Gero bere burua jargia batera erortzera utzi zuen, etzela gudukatuko erranez.

- “Zer? Nola?” erran zuen baroinak.

Orduan, Cisy elasturia nahasi batean hasi zen. Gudukatu nahi zuen “tromblon” batekin, hurbil-hurbildik, pixtola bakar batekin.

- “Edo arzenikatik ezarriko da baso batean, eta xotxetan atherako. Batzuetan egiten da; irakurria dut!”

Baroinak, jitez guti pairakorra, gogor egin zaukon.

- “Jaun horiek zure ihardestearen aiduru daude. Desohoragarri da, azkenean! Zein hartzen duzu? dakusagun! Ezpata dea?”

Bizkondeak “ba” ihardetsi zuen buru kheinu batez; eta biharamuneko hitzhartua izan zen, Maillot athean, zazpi orenetan zuzen.

Dussardier bere egitekoetara joan beharra izanez, Regimbart joan zen Federiki jakin-araztera.

Egun osoa berririk gabe utzia izana zen; ezin egona etzezakeen gehiago jasan.

- “Hobel!” egin zuen.

Herritarra haren egonaraz askietsia izan zen;

- “Desenkusak galdegiten zauzkuten, uste zinueka? Etzen jeus, hitz xoil bat! Baina hantxetan harat igorri ditut ederki. Egin behar nuen bezala, eztea hala?”

- “Dударik gabe,” erran zuen Federikek bertze lekuko baten hautatzea hobeki egina ukanen zuela gogatzten zuen batean.

Gero, bakarrik izan zenean, errepikatu zuen, aldi bat baino gehiagotan:

- “Gudukatuko niz. Ori, gudukatuko niz! Bitxi da!”

Eta, bere gambaran baitzabilan, mirailaren aitzinetik iragaitean hits zela ikusi zuen.

- “Beldur ninzatekea?”

Herstura izigarri batek hartu zuen han beldur izanen zelako gogoan.

- “Hila izaiten baninz, bizkitartean? Aita molde berean hila da. Bai, hila izanen niz!”

Eta, bapatean, ama ikusi zuen, zaia beltzean; iduri nahasi batzu buruan ibili zizazkon. Bere beldurreriaz sumindu zen. Zangartasun soberakin batek hartu zuen, egarri sarraskile batek. Batailun batek etzuen gibel-araziko. Sukar hori eziturik, senditu zen, zorionekin, ezin khordokagarri. Libertitzeko, Operara joan zen, dantza-ikusgarri bat emaiten baitzen han. Musika entzun zuen, andere dantzarier begia eman, eta baso bat “punch” edan, egintzartean. Baina, etxera sartzean, gabinetaren eta mublen ikusteak, hetan azken aldikotz gertatuko baitzen behar bada, ahuldura bat eman zaukon.

Baratzera jautsi zen. Izarrak argitan ziren; beha egon zizeen. Emazte batendako gudukatzeak handitzen zuen bere baitan, nobletzen. Gero gostuan etzatera joan zen.

Etzen berdin izan Cisy-rendako. Baroina joan eta, Josep moralaren goitizera entseatua zizakon, eta, bizkondea berdin hotz gelditzen baitzen:

- “Alta, gaizoa, hortan nahiago baldin baduk gelditu, erraitera banoakek.”

Cisy etzen “baietz” ihardestera menturatu, baina gusiari aiher izan zizakon zerbitzu hori aipatu gabe ez eginik.

Ophatu zuen Federik, gauaz, odol ukaldi batez hil zadin, edo jazarraldi bat gertatuz, biharamunean aski barrikatze izan zadin Boulogne-ko oihanaren ingurunen hesteko, edo gertakari batek lekukoetarik bati han izaita debeka zezon; ezen buruz-buruko guduak huts eginen zuen lekukorik gabe. Bazuen treina “express” batez nora nahi ihes egiteko gutizia. Medikuntzaren ez jakiteaz dolutu zen zerbaiten hartzeko, bizian lanjerrik eman gabe, hila zela sinets-araziko zuena. Serioski eri izaitearen gutiziatzerano heldu zen.

Aholku baten, laguntza baten ukaiteko, Des Aulnays-ko Jaunaren bila igorri zuen. Gizon ona Saintonge-ra itzulia zen, alabetarik bat ez ontsan zuela ikasten zaukon mezu baten ondotik. Hori ondorio gaixtokoa iduritu zizakon Cisy-ri. Zorionez Vezou Jauna, bere erakaslea, ikustera ethorri zizakon. Orduan golkoan zuena ixuri zuen.

- “Nola egin, Jainkoa! nola egin?”

- “Nik, zure orde, jaun kondea, merkatuko azkarretarik bat paga nezake hari zafraldi baten emaitako.”

- “Nundik heldu den balakike beti!” egin zuen berriz Cisy-k.

Eta, noiztenka, auhen bat egiten zuen; gero:

- “Baina buruz buru gudukatzea haizu dea?”

- “Basakeria ondar bat da! Zer nahi duzu!”

Balakatzeko estakuru, erakasleak bere burua auhaltzera gomitatu zuen. Ikasleak jeus etzaukon jan, eta, aphairu ondoan, itzuli baten egiteko beharra senditu zuen.

Eliza baten aitzinetik iragaitean erran zuen:

- “Sartzen bagine apur bat... ikusteko?”

Vezou Jaunak etzuen bertzerik galdegin, eta ur benedikatua eskaini zaukon ere.

Andredona-Mariaren ilabetea zen, lorek aldarea estaltzen zuten, kantu batzu entzuten ziren, organoak joiten zuen. Baina ezin zuen othoitzik egin, erlisionekeo ospek ehorzketetako gogoeta batzu emaiten baitzauzkoten; *De profundis*-etako burrumba batzu entzuten zituen.

- “Goazen! Eniz ontsa sendi!”

Gau osoa kartetan jokutzen ereman zuten. Bizkondea galtzera entseatu zen, zorigaitzari alde egiteko, Vezou Jauna hortaz baliatu baitzen. Azkenean, goizaldera, Cisy, ezindua baitzen, tapiza muskerraren gainera erori zen eta lo bat ukan zuen amets gozagaitzez betea.

Kuraia, alta, ahuleziaren menperatzeko nahikarian baldin badago, bizkondea bihoztun izan zen, ezen, bila heldu zizazkon lekukoen ikustean, bere indar guziez gogortu zen, urguluak sendi-arazten baitzaukon gibelatze batek galduko zuela. Comaing-ko Jaunak zuen itxura onaz goretsi zuen.

Baina, bidenabar, fiakraren leriak eta goizeko iguzkiaren beroak zainetara eman zaukoten. Gemena berriz eroria zizakon. Etzuen gehiago nun ziren ere argiki ikusten.

Baroina haren beldurraren handitzen jostatu zen, “gorputzaz” mintzatuz eta hirira haren sartzeko moldeaz, gordeka. Josepek ihardesten zuen; biak, gauza irriegangarri zela ustez, antolamenduaz segur ziren.

Cisy-k burua bularraren gainera utzia zuen; eztiki goititu zuen eta medikurik etzela hartu oharr-arazi.

- “Debalde da,” erran zuen baroinak.

- “Lanjerrik ezta, beraz?”

Josepek ihardetsi zuen doinu larri batekin:

- “Agian ez!”

Eta nehor etzen karrosan gehiago mintzatu.

Zazpi oren eta hamar minutetan, Maillot athera heldu ziren. Federik eta hunen lekukoak han ziren hirurak beltzez jantzirik. Regimbart-ek, lephoko flokaren orde, bazuen zurdazko lephoko bat tropako gizon batek bezala; bazadukan arrabit untzia bezalako bat, gertakari mota hortako berezia. Elgar agurtu zen hotzki. Gero guziak Boulogne-ko oihanean sartu ziren, Madrilgo bidetik, behar bezalako leku baten hatzemaiteko.

Regimbart-ek erran zaukon Federiki, haren eta Dussardier-en artean baitzoan:

- “Hea bada, eta lotsaño hori, zertan da? Zerbaiten beharra baldin baduzu, ez ahalgerik ukan, hori badazagut! Beldurra gizonaren jitekoa da.”

Gero, ahapetik:

- “Etzazula pipa, guritzen du!”

Federikek zigarroa egotzi zuen, trabatzen zuen ere, eta urratsa bermurik jarraiki zuen. Bizkondea gibeletik heldu zen, bi lekukoen besoak atxikiz.

Ibilkari bakar batzuek gurutzatzen zituzten. Zerua urdin zen, eta entzuten ziren, artetan, lapin batzu jauzika. Bidexka bateko bihurtunean, emazte bat madrsez jantzia gizon taulierdun batekin elheka ari zen, eta, ibilbide handian, itsas-gaztena ondoen azpian, mutil batzuek oihalezko soinekoetan bere zaldiak ibil-arazten zituzten. Cisy orhoitu zen zorionezko egunez, bere zaldi gorraiera iganik eta betaitzineko bakuna begian, kaleketako athexkan zoanean; orhoitzapen horiek herstura azkartzen zaukoten; egarri ezin jasan batek erretzen zuen; ulien zurrumurrua zainetako joitearekin nahasten zizakon; oinak ondartzan sartzen; bazela mugagabeko aro bat urratsean zoala bazidurikon.

Lekukoak ari ziren, gelditu gabe, begiaz bideko bi bazterren ikertzen. Gudariak hetan egon behar zuten bi lekuak marratu ziren. Gero Regimbart-ek ideki zuen bere untzia. Bazaduzkan, ardi larru gorritzko gosnadura baten gainean, laur ezpata xoragarri, erdian hutsune batekin, filigranaz aphaindu eskuko batzuekin. Argi arrai bat, orstoetan zehar, gainera erori zizeen; Cisy-ri iduritu zizakon zilharrezko suge bipera batzuek odol phutzu batean bezala dirdirutzen zutela.

Herritarrak luzetasun berekoak zirela ikus-arazi zuen; hirurgarrena beretako hartu zuen, gudukarien berexteko, beharrez. Comaing-ko Jaunak bazadukan makila bat. Ixil bat izan zen. Elgarri behatu zen. Begitarte guziek bazuten zerbait ohildu eta bortitz.

Federikek utziak zituen maripulisa eta barneko motxa. Josepek Cisy lagundu zuen berdin egiten; floka ekhendua izanik, medaila benedikatu bat ikusi zizakon lephoan. Horrek urrikizko irriño bat egin-arazi zaukon Regimbart-i.

Orduan, Comaing-ko Jauna (oraino Federiki gogoetatzeko ephe baten uzteko) estakuru batzuen phiztera entseatu zen. Eskularru baten janzteko eskubidea galdegin zuen, esku ezkeraz etsaiaren ezpataren hartzekoa; Regimbart-ek, lehiatua baitzen, etzuen eza eman. Azkenean baroinak, Federiki mintzatuz:

- “Guzia zure eskuetan da, Jauna! Desohorerik ezta hutsen aithortzean.”

Dussardier-ek jestuaz baieztatu zuen. Herritarra sumindu zen:

- “Uste duzua hemen girela ahate bipiltzeko, ala?... Begira!”

Gudariak bat bertzearen aitzinean ziren, lekukoak bi sahetsetan. Seinalea oihukatu zuen:

- “Goazen!”

Cisy izigarriki histu zen. Ezpata muturretik daldaran ari zizakon, zaldi zaharo bat bezala. Burua gibelerat erortzen zizakon, besoak baztertzan, bizkarraren gainera aurdiki zen, aldixartua. Josepek xutitu zuen; eta, sudurpera bottoila bat hurbilduz, azkarki inharrosten zuen. Bizkondeak begiak berriz ideki zituen, eta bapatez, ezpatara laster egin zuen ero batek bezala. Federikek berea atxikia zuen; eta haren aiduru zagon, begia geldirik, eskua gora.

- “Geldi, geldi! oihukatu zuen bidetik heldu zen mintzo batek, zaldi baten lauhazkaren harrabotsarekin batean; eta karrosa motz baten estalgiak adarrak hausten zituelarik! Gizon batek kaporat ukurturik oihal bat inharrosten zuen, eta beti oihuka: “Geldi, geldi!”

Comaing-ko Jaunak, ustez polizaren sartze bat zen, makila goititu zuen.

- “Burura ezazue bada! bizkondea odoletan da!”

- “Ni?” erran zuen Cisy-k.

Alabaina, erorikoan, esku ezkerreko behatza larrutua zuen.

- “Baina erortzean egina du,” gaineratu zuen Herritarrak.

Baroinak ez entzunarena egin zuen.

Arnoux-ek jauzi egina zuen karrosa motzetik.

- “Berantegi banator! Ez! Jainkoa lauda dadila!”

Federik beso betez harturik zadukan, eskuztatzen zuen, begitartea musuz estaltzen.

- “Badakit zergatik; zure adixkide zaharra zaindu nahi ukan duzu! Ontsa, hori, ontsa! Eztut behin ere ahatziko! Zein ona ziren! ha! haur maitea!”

Hari beha zagon, nigarretan, zorionez irri erkatsez ari zen batean. Baroina Josepen aldera itzuli zen.

- “Familiako besta ttipi huntan sobera girela uste dut. Bururatua da, eztea hala, jaunak? - Bizkondea, zure besoa oihalez ingura ezazu; oizu, horra ene lephokoa.” Gero, jestu manatzale batekin: “Goazen! gorromiorik ez! Hala behar da!”

Bi gudariak eskua elgarri tinkatu zuten, guriki. Bizkondea, Comaing-ko Jauna eta Josep itzali ziren alde batetik, eta Federik bertze aldetik joan zen bere adixkidekin.

Madril-go ostatua ezpaitzen urrun, Arnoux-ek hara joaitea eskaini zuen garagarno baso baten edatera.

- “Bazkal ere laiteke,” erran zuen Regimbart-ek.

Baina, Dussardier-k astirik ez ukanez, baratzean edari batekin gelditu ziren. Guziek sendi zuten zorionekin bururatzen denari jarraitzen zakon dohastasun hura. Herritarra, bizkitartean, gaitzitua zen gudua ordu onean moztua ukanik.

Arnoux horren jakinduru izana zen Compain izeneko, Regimbart-en adixkide baten bidez; eta bihotzeko olde batean, lasterrez ethorria zen egitera ez uzteko, uste baitzuen, bertzela ere, bere gatik egiten zela. Federik othoiztu zuen hortaz xehetasun zenbait eman zezon. Federikek, erakusten zaukon samurtasunaz hunkia, hark uste zuenaren azkartzeaz arrangura ukan zuen:

- “Othoi, eztezagun gehiago aipa!”

Arnoux-ek gupida hori biziki pollit aurkitu zuen. Gero, bere ohiko arintasunarekin, bertze gogoeta batera izaganez:

- “Zer da berri, Herritarra?”

Eta diru solasetan hasi ziren. Errexkiago artzeko, bertze mahi batera baztertu ziren ere ahapetik mintzatzera.

Federikek hitz hauk hartu zituen: “Izena emanen dautazu. - Ba! baina, zuk, erran gabe... - Azkenean hirur ehunetan ukana dut! - Eskupeko pollita, alafe!” Hots, ageri zen Arnoux gauza ainitzen orhatzen ari zela Herritarrarekin.

Federikek gogoan ukan zuen bere hamabortz mila liberez orhoitaraziko zuela. Baina berriki egina zuen urratsak erasiak debekatzen zituen, eztiak ere. Bertzela ere, akitua sendi zen. Lekua etzen egokia. Bertze egun batera utzi zuen.

Arnoux, zuhandor baten itzalean jarria, pipatzen ari zen irria ezpainetan. Begiak goititu zituen guziek baratzera bazematen gabinetetako athetara, eta erran horrara jina zela, lehen, ontsa usu.

- “Ez bakarrik, agian?” ihardetsi zuen Herritarrak.

- “Alajinkoa ez!”

- “Zer ihizia zu! Gizon ezkondua!”

- “Ontsia, eta zu bada!” egin zuen berriz Arnoux-ek; eta, erdi-irri barkatzera ekharri batekin: “Segur niz ere frikun horrek baduela nunbait han nexkatxak ukaiten dituen gambara bat!”

Herritarrak aithortu zuen egia zela, bekainetako goititze xoil batez. Orduan, bi jaun horiek agertu zituzten bere gostuak: Arnoux-ek hautesten zituen gaztetasuna, emazte langileak; Regimbart-ek “zinkulin-minkulinak” hastio eta oroz gainetik baiezkoari atxikia zen. Bururapena, faianza saltzaleak eman zuena, emazteak etzirela serioski hartu behar izan zen.

- “Bizkitartean, berea maite dik!” gogutzen zuen Federikek itzultzean; eta gizon zuzengabea zadukan. Buruz buruko gudu horren gatik aiher zizakon, bere burua harendako, arestian, irriskatu ukana balu bezala.

Baina esker onez zagon Dussardier-endako egina zuenaren gatik; komisak, othoizturik, handik laster ikustadi bat egin ahal ukan zaukon egun oroz.

Federikek liburu batzu prestatzen zauzkon: Thiers, Dulaure, Barante, Lamartine-ren *Les Girondins*. Mutiko gaizoak bildutasunekin

entzuten zuen eta haren aburuak onhartzen zituen nagusi batenak bezala.

Arrats batez guzia ohildua ethorri zen.

Goizean, karrika handian, hatsaren galtzeko lasterrean zoan gizon batek hartan joa zuen; eta, Senecal-en adixkidetzat ezagutua ukan zuenean, errana zaukon:

- “Orai hartua dute, banoa ihes!”

Egia hutsa zen. Dussardier-ek goiza berrietan iragana zuen. Senecal presondegian zen, politikako gaiztakeriaz ogendun bezala.

Nagusi-ordain baten semea, Lyon-en jaioa eta erakasletzat Chalier-en ikasle ohi bat ukanik, Parisera ethorri orduko, Familietako Gizartean onharr-arazia zuen bere burua; haren ohidurak ezagunak ziren; poliziak barrandatzen zuen. 1839-ko ostaroko jazarraldian gudukatua zuen eta, geroztik, bazagon itzalean, baina gero eta gehiago buru-berotuz, Alibaud-en aldeko amorratua, gizartearendako zituen erasiak jendeak erretatearendako zituenekin nahasiz, eta goiz oroz mundua, hamabortz egun edo ilabetea barne, aldatu zuen iraultza baten esperanza atzarriz. Azkenean, anaien nagitasunaz gohainditua, zituen ametser egiten zizezteen gibelatzez erotua eta aberriaz etsitua, ximikalari bezala su emaitako lehergailuen zimarkuan sartua zen; eta bolbora eremaiten hatzemana zuten, Montmartre-en erabiltzera zeramana, Errepublikaren jartzeko entsegu goienean.

Dussardier-ek etzuen Errepublika gutiago maite, erran nahi baitzuen, haren ustez, nor bere gain jartzea eta zorion orotakoa. Egun batez, - hamabortz urtetan, - Transnonain karrikan epizier baten saldegi aitzinean, soldadoak ikusiak zituen baioneta eskuan odolez gorritua, ile batzu zizpen zurari lotuak; ordutik harat, Gobernamentuak sumintzen zuen Bidegabearen itxura bizia bera bezala baitzen. Erahiltzaleak eta jandarmak apur bat nahasten zituen; salatari batek aita baten hiltzalea balio zuen haren ustez. Lurrean hedatua zen gaitz guzia, lañoki Botherearen gain emaiten zuen, eta hau baitezpadako, betiereko herra batez hastiatzen zuen, bihotz osoa hartzen zaukola eta sendimendua zorrozten. Senecal-en hitzaldi suharrek lilluratua zuten. Ogendun izan zadin ala ez, eta haren entsegua hastiagarria, etzuen axolarik! Larderiaren bitima zenaz geroz, zerbitzatu behar zen.

- “Parek kondenatuko dute, segurki! Gero presondegiko karrosa batean eremana izanen da, galeriano bat bezala, eta Mont-Saint-Michelen hetsiko dute, han Gobernamentuak hil-arazten baititu! Austen

erotua bilakatu da! Steuben-ek bereaz egin du! Barbes-en eremaiteko presondegi-zilo batera, zangoetarik thiratu dute, iletarik! Soina oinez lehertzen zaukoten, eta buruak jauzi egiten zaukon mailaldearen luzarako mail bakoitzean. Zer itsuskeria! gaixtaginak!”

Haserrearen hipek ithotzen zuten, eta bazabilan gambaran itzulika, herstura handi batez hartua iduri.

- “Zerbait egin behar lizateke, alta! Dakusagun! eztakit, nik! Liberatzera entseatzen baginako, he? Luxembourg-era eremanen dutenean, zaintzaletara jauzi egin daiteke, barnebidetan! Hamabi bat gizon deliberatuak, nun nahi iragaiten da.”

Hainbertze su bazen haren begietan nun Federik latzikaratu baitzen.

Senecal agertu zizakon zen baino handiago. Orhoitu zen haren oinazez, bizi idorraz; harendako Dussardier bezain suhar izan gabe, sendi zuen hala ere bere burua gogamen bati emaiten duen gizon orok phizten duen miresmena. Bazion bere baitan, lagundu ukan balu, etzela Senecal hortaratua izanen; eta bi adixkidek nekerekin bilatu zuten haren salbatzeko joko zenbait.

Etziren hartarano heldu ahal izan.

Federik ari zen berrikarietan zer gertatua zizakon bilatzen, eta hirur astez irakurtzeko gabinetetan ibili zen.

Egun batez, *Farrandaria*-ren aldiko batzu eskupera erori zizazkon. Artikulu nagusia, aldatu gabe, gizon aiphameneko baten aurdikitzeko egina zen. Heldu ziren gero munduko berriak, erran-merranak. Gero, Odeon-az, Carpentras hiriaz, arrain-hazteaz, eta bazirenean hiltzera kondenatuez trufatzen zen. Untzi handi baten hondamenak eman zuen urte batez irri-solasetako gaia. Hirurgarren lerro-zutabean, edergintzetako eskutitzalde batek bazematzan, gertakari edo aholku moldean, jostunen iragarki, arratseko besta khondu batzu, saltzetako berri, liburu azterketa, luma berarekin izkiriaturuz neurtitz bilduma batez ala bota pare batez. Zati serio bakarra antzoki ttipien kritika zen, hartan bizpahirur buruzagien gainera amorratuki erortzen baitzen; eta Edergintzaren abantailak aipatzen ziren Funambules-etako taulada aphainduen estakuru ala *Delassements*-etako andere maitale baten.

Federik horren guziaren botatzera zoan begiek aurkitu zaukotenean artikulu bat izenburu hunekin: *Hirur ibizien arteko oilanda bat*. Buruz buruko guduaren ixtorioa zen, molde bixi eta gordinean khondatua. Bere burua nekerik gabe ezagutu zuen, ezen irri-solas

huntarik erakutsia zen, usu errepikatzen zena: “Sens-ko ikastetxeko mutiko gazte bat eta *hartarik* beharrean dena.” Probinziar gaizo bat bezala emaiten zen ere, jaun handien artean bere bidearen egitera entseatzen zen lele guti ezagun bat. Bizkondeak aldiz, joko ederra zuen, lehenik auharian, han bortxatuz sartzen baitzen, gero parioan, andereñoa eremaiten zuenaz geroz, eta azkenik gudu lekuan, han aitorenseme agertzen baitzen. Federiken kuraia etzen baitezpada ezeztatua, baina entzun-arazten zen ararteko bat, *gerizatzailea* bera, ordu zuzen-zuzenean ethorria zela. Guzia erranaldi huntarik bururatzen zen, gaixtakeriaz betea zena behar bada:

“Nundik dator bien arteko samurtasuna? Mixterio! eta, Bazile-k dion bezala, nor debru enganatzen ote da hemen?”

Hussonnet-en mendekio bat zatekeen Federiken kontra, bortz mila liberak ez emanik.

Zer egin? Khondu galdegiten balauko, mutiko arinak zuri zela oihukatuko zuen, eta jeus etzuen irabaziko. Hoberena gauzaren ixilik irestea zen. Ehork, ororen buruan, etzuen *Farrandaria* irakurtzen.

Irakurtzeko gabinetetik jalgitzean, jendea ikusi zuen margazki saltzale baten saldegiko aitzinean. Emazte baten potretari beha zauden, azpian lerro hau hizki beltzez izkiriaturia zuena: “Rose-Annette Bron And.a, Federik Moreau Jaun Nogent-koarena da.”

Hura zen bada - edo nunbait han, - aitzinetik ikusia, bulharrak buluzirik, ileak laxo, eskuetan zadukala balusa gorrizko molsa bat, hegazterren batek, gibeletik, mokoia soingainera aitzinatzen zaukolarik, harresia bere luma handiez aireztatzeko baten moldean estaliz.

Pellerin-ek erakustaldi hori egin zuen pagatzera Federiken bortxatzeko, bera aipaturia zela ustez eta Paris guzia, haren alderdira jarriz, ezteuskeria hortaz mintzatuko zela.

Zimarku bat ote zen? Margolariak eta berrikariak joko elgarrekin moldatua zutena?

Guduak ezer etzuen baztertua. Irriegangarri bilakatzen ari zen, mundu guziak trufatzen zuen.

Hirur egun berantago, ekhain ondarrera, Ipharreko diru balioek hamabortz liberako goititze bat eginik, hogeita hamar liberaren irabazle gertatu zen. Fortunaren phereku horrek berriz konfianzian ezarri zuen. Bere baitan egin zuen etzuela nehoren beharrik, eragozpen guziak bere herabetik heldu zizazkola, zalantzan egoitetik. Marexalsarekin bortizki hasi behar zuen, Hussonnet-i lehenbiziko egunean eza eman, Pellerin-en

xedetan barne ez sartu; eta, jeusek etzuela trabatzen erakusteko, Dambreuse Anderearen etxera joan zen, hunen arrats ohiko batera.

Aitzin-gambararen erdian, Martinon, harekin batean heldu baitzen, itzuli zizakon.

- “Nola, hunara jiten hiz, hi?” haren ikusteaz itxura ustegabetu eta ere nahigabetu batekin.

- “Zergatik ez?”

Eta, horrelako aurkitzearen arrazoina bilatzen zuen batean Federik saloinean aitzinatu zen.

Argia ahul zen, izkinetan ezarriak ziren argizagiak izanik ere; ezen hirur leihoek, zabal-zabala idekirik, egiten baitzituzten leku berdinetan laurizkinetako itzal beltz zabal batzu. Loretegi batzuek, margazkien azpian, hartzen zituzten gizonaren heinerano harresiko arteak; eta zilharrezko duthe-untzi bat “samovar” batekin urrunean ageri zen, mirail batean. Mintzo zurrumurru ezti bat bazen. Oinetakoak entzuten ziren tapizan kraxkaktzen.

Ohartu zen jantzi beltz batzuer, gero mahi biribil bati argi-estali handi baten azpian, zazpi edo zortzi emazter udako soinekoetan, eta, urrunxago, Dambreuse Andereari jargia leriartzale batean. Haren zeta lila koloreko zaiak bazituen arraildurekilako besoak, handik baitzoazin musulina uhain batzu, oihalaren margo ezta haren ilenarekin ezkontzen zela; eta bazagon apur bat gibelera emana, oinaren puntta kuxina baten gainean, - ederlan araztasunez bete bat, lurlan goineneko lore bat bezain geldi.

Dambreuse Jauna eta agure ile zuri bat bazabiltzan saloinaren luzetasun guzian. Batzu solasean ari ziren ohexka ttipi batzuen hegian, han hemenka; bertzek, zutik, bazegiten erdigunean inguru bat.

Bozkatzez mintzo ziren, lege ontzez, azpi-ontzez, Grandin Jaunaren hitzaldiaz, Benoist Jaunaren ihadesteaz. Heren alderdia zinez urrunegi zoan! Erdi-ezkerrak hobekixago orhoitu behar zuen bere ethorkiaz! Minixterioak laido larriak ukanak zituen! Segurtasunean ezarri behar zuen gauza, alta, ondokorik ikusten etzizakola da. Hots, gauzak osoki 1834-an bezalakoak ziren.

Solas horiek Federik aspertzen baitzuten, emaztetera hurbildu zen. Martinon haien ondoan zagon, zutik, xapela besapean, begitartea hirur laurdenez, eta hain beharbezalako nun Sevres-ko porzelanaren iduria baitzuen. Hartu zuen mahi gainean utzia zen *Mundu bietako Agerkari* bat, *Imitazione* baten eta *Gothako urtekari* baten artean, eta poeta

aipatu bat gora-gora jujatu zuen, San-Frantses-eko bilkuretara joaiten zela erran, bere zintzurraz zinkurina egin, bunbuna bat artetan iretsiz; eta bitartean, musikaz ari zen, arina eginez. Zezilia Andereñoa, Dambreuse Anderearen iloba, ari baitzen beretako mahunga pare baten brodatzen, hari beha zagon, azpiz, bere begi urdin arinekin; eta miss John, sudur zapalarekilako errientsak, bere tapizeria ahatzia zuen; iduritu zuten biek baziotela bere baitan:

- “Zein ederra den!”

Dambreuse Anderea haren gana itzuli zen.

- “Emadazu bada ene aireztatzekoa, bazter-mahi hartan dena, han. Huts egiten duzu! bertzea!”

Zutitu zen; eta, hura itzultzen ari baitzen, elgar batu zuten saloinaren erdian, bekoz beko; zenbait hitz erran zauzkon, bizi-bizia, erasiak agian, begitarteko errankortasun burgoitik erran zaitekeenaz; Martinon erdi-irri egitera entseatzen zen; gero joan zen gizon serioen solasetan sartzera. Dambreuse Andereak berriz hartu zuen bere lekua, eta bere jargiaren besora gurtuz, erran zaukon Federiki:

- “Norbait ikusi dut, herenegun, zutaz mintzatu zatana, Cisy-ko Jauna; ezagutzen duzu, eztea hala?”

- “Ba... apur bat.”

Bapatean Dambreuse Andereak egin zuen:

- “Andere dukesa, ha! zer zorional!”

Eta athera buruz joan zen, andere ttipi xahar baten aitzinera, zeta gorri-ilunezko zaia bat bazuena eta gipurazko bonet bat, mihi luzekilakoa. Artois-ko kondearen lagun herritik urrun egon hetarik baten alaba eta Imperioko marexal 1830-an Frantziako pare egin baten alharguna, gorte zaharrari atxikia zen berriari bezenbat eta gauza ainitz ukan zezakeen. Zutik elheketa ari zirenak baztertu ziren, gero solasaldia berriz hartu zuten.

Orai, “pauperismo” delakoaz ari ziren, horren erakuspen guziak, jaun horiek ziotenaz, azkarki gehiegiak baitziren.

- “Bizkitartean,” ihardoki zuen Martinon-ek, “miseria bada, aithor dezagun! Baina erremedioa ezta ez Jakitatearen ez Botherearen menean. Huts-hutsa bakoitzari doakon gauza da. Behereko mailek nahiko dituztelarik bere bizioak utzi, beharrez liberatuko dira. Jendea biz moralera ekharriagoa, eta gutiago beharrean izanen da!”

Dambreuse Jaunak zionaz, on den jeusetara heltzerik etzen izanen kapitalaren ainitz soberatzerik gabe. Beraz, izan zaitekeen bide bakarra,

“san-simundarrek nahi zuten bezala (Jainkoa, onetik ere bazuten! bertzela ere, guzien aldera zuzen izan gaiten!), Aitzinamenduko egin behar denaren emaitza da, diot, fortuna publikoa handi dezaketenen eskuetara.” Batetik bertzera, industriako lanalde handiak hunki ziren, burdin-bideak, ikatza. Eta Dambreuse Jaunak, Federiki mintzatuz, erran zaukon ahapetik:

- “Etzira gure egiteko hartako ethorri.”

Federikek eman zuen eritasun baten estakurua; baina desenkusa zozoegia zela sendituz:

- “Bertzela ere, ene diruaren beharra ukan dut.”

- “Karrosa baten erosteko?” egin zuen berriz Dambreuse Andereak, ondotik zoakolarik, kikera bat duthe eskuan; eta minuta batez beha egon zizakon, burua soingainean apur bat itzulirik.

Rosanette-ren maitale zela uste zuen; aierua argia zen. Iduritu zizakon ere Federiki andere guziek urrundik behatzen zaukotela, murmurikatuz. Gogoan zer zuten hobeki ikusteko haietara hurbildu zen, berriz ere.

Mahiaren bertze aldean, Martinon, Zezilia Andereñoaren ondoan, bilduma baten orstoztatzen ari zen. Harri-marrak batzu ziren jantzi espagnolak erakusten zituztenak. Azpi-lerroak gora-gora irakurtzen zituen: “Sebillako emaztea. - Balenziako baratzegilea. - Pikari andaluziarra;” eta, aldi batez orrialdearen behererano jautsiz, jarraiki zuen hats berean: “Jacques Arnoux, argitarazlea. - Hire adixkide bat duk, ez?”

- “Egia duk,” erran zuen Federikek, haren itxuraz gaitzitia. Dambreuse Andereak egin zuen berriz:

- “Alabaina, ethorri zira, goiz batez..., etxe batendako, ene ustez...? bai, haren emaztearena zen etxe batendako.”

(Horrek erran nahi zuen: “Zure ohaidea da.”)

Federik beharrietarano gorritu zen; eta Dambreuse jaunak, ordu berean heldu baitzen, gaineratu zuen:

- “Iduri zinuen ere hetaz axola ainitz bazinuela.”

Azken hitz hauk Federik azkena khordokatu zuten. Nahasmendu horrek, ikusten baitzizakon, uste zuenaz, aieruak baieztatuko zituen Dambreuse Jaunak erran zaukonean hurbilagotik doinu larri batekin:

- “Etzirezte elgarrekin egitekoetan, agian?”

Buruaz higitze andana batekin ihardetsi zuen, kapitalixtaren xedea zer zen ikusi gabe, aholku bat eman nahi baitzaukon.

Bazuen joaiteko gutizia. Beldurtia agertzeko lotsak atxiki zuen. Mutil bat ari zen dutheko kikeren ekhentzen; Dambreuse Anderea solasean jantzi urdinarekilako embaxadore batekin; bi nexkato gaztek, bekokiak hurbilduz, elgarri erhaztun bat erakustarazten zuten; bertzek, jargietan inguru erdi batean emanak, higitzen zituzten eztiki bere begitarte xurpailak, adats beltz ala horiez inguratuak; ehor etzen Federikez axolatzen. Aztalak itzuli zituen; eta, harat-hunat luze batzuen ondotik, athera abantzu heldua zen, bazter-mahi baten ondotik iragaitean, gainean ikusi zaukonean, Xinako untzi baten eta zureriaren artean, berrikari bat bi plegutan ezarria. Apur batez hurbildu zen, eta hitz hau irakurri: *Farrandaria*.

Nork ekharria zuen? Cisy-k! Bertze nehork, ageri zen. Berdin zen, bertzela ere. Sinetsiko zuten, orok jadanik behar bada artikulu hura sinesten. Zergatik amorratze hori? Irkaitz ixil batek inguratzen zuen. Desertu batean galdua bezala sendi zen. Baina Martinon-en mintzoa jeiki zen:

- “Arnoux-en aipatzeaz, lehergailu su emailez salatuetan haren zerbitzuko baten izena irakurri dut, Senecal. Gurea dea?”

- “Hura bera,” erran zuen Federikek.

Martinon-ek errepikatu zuen, biziki gora oihukatuz;

- “Nola, gure Senecal! gure Senecal!”

Orduan, zimarkuaz galdekatu zuten; auzitegian zuen lekuak xehetasun batzu jakin-arazten ahal zauzkoten.

Etzuela aithortu zuen. Bertzela ere, gizona biziki guti ezagutzen zuen, bizpahirur aldiz ikusirik bakarrik, frikun aski gaixto batentzat zadukan ororen buruan. Federikek, sumindua, egin zuen:

- “Ez baterel! mutiko zuzen-zuzen bat da!”

- “Bizkitartean, jauna,” erran zuen jabe batek, “ezta zuzena izaiten zimarku egile denean!”

Hor ziren gizon gehienek zerbitzatuak zituzten, bederen, laur gobernamentu; eta Frantzia salduko zuten, edo gizaki osoa, bere fortunaren segurtatzeko, ez-ontsa, eragozpen baten baztertzeko, edo ere aphaltasun xoilez, indarraren adoratzeko jitezkoaz. Guziek aithortu zituzten politikako gaizkintzak ezin desenkusatuak. Beharretik sortzen zirener behar zen izaitekotz barkatu! Eta etzen huts egin aitzinera aita familiakoaren betiereko behazunaren emaita, betiko okinaren etxean betiko ogi zatiaren ebasten.

Adminiztratzale batek egin zuen bere baitarik:

- “Nik, jauna, anaia zimarku batean dela ikasten banu, sala nezake!”

Federikek aipatu zuen ihardokitzeko zuzenbidea; eta, Deslauriers-ek erranak zauzkon hitz batzuez orhoituz, izendatu zituen Desolmes, Blackstone, zuzenbiden legegaiak Angeleterran eta Konstituzioneko 91-garren artikulua. Zuzenbide horren izenean zen ere oihukatua Napoleonen erortzea; 1830-ean onhartua izana zen, eta Xartaren buruan izkiriatua.

- “Bertzela ere, soberanoak hitzharmena hausten duelarik, justiziak aurdik dadin nahi du.”

- “Baina higungarri da!” oihukatu zuen prefet baten emazteak.

Bertze guziak ixilik zauden, hein batean latzikaratuak, balen harrabotsa entzuna ukan balute bezala. Dambreuse Anderea bere jargian leriitzen ari zen, eta entzuten zuen irriño bat eginez.

Industrialari bat, “carbonaro” izana, entseatu zen Orléans-tarrak familia eder bat zirela erakustera; soberakeriak baziren, dudarik gabe...

- “Eta bada, orduan?”

- “Baina eztira erran behar, gaixo jauna! Bazinaki alderdi etsaiaren garrasia horiek guziak zenbat kalte diren egitekoendako!”

- “Egitekoez axolarik ez tut!” egin zuen Federikek.

Zahar horien usteltasunak sumintzen zuen; eta, heraberenak batzuetan hartzen dituen kuraia harek eremanik, jauki zituen aldi berean dirulariak, deputatuak, Gobernamentua, Errege, Arabiarrak zaindu, ainitz zozokeria erran. Batzuek sustatzen zuten irkaitzekin: “Zoaz bada! Zarraika!” bertze batzuek murmurikatzen zutenean: “Debrua! zer buru berotzea!” Azkenean, atheratzea egoki zela uzten ukan zuen; eta, bazoalarik, Dambreuse Jaunak erran zaukon, segetari lekuari aieru eginez:

- “Jeus ezta oraino egina! Baina lehia zaite!”

Eta Dambreuse Andreak:

- “Berehala arteo, eztea hala?”

Federikek uste ukan zuen haien goraintzia azken trufa bat zela. Etxe hortara nehoiz gehiago ez jitea deliberatua zuen, jende horiekin ez ibiltzea. Uste zuen gaitzituak zituela, munduak zein axolagabe zabala duen gogoan ezpaitzakien! Emazte horiek oroz ginetik sumintzen zuten. Bat etzen alde jarria zizakonik, ez behakoaz ere. Ez hunkiak ukanik aher zitzen. Dambreuse Andeari aldiz, aurkitzen zaukon zerbait goxakor eta aldi berean idor, nolakoa zen erraitea debekatzen

zuen. Maitale bat bazuena? Zein maitale? Embaxadorea zena ala bertze bat? Martinon, behar bada? Ezin zen! Bizkitartean, halako bekaizkeria bat sendi zuen hunen aldera, eta harenera ezin argituzko gogo gaixto bat.

Dussardier, arrats hartan ohian bezala ethorria, Federiken aiduru zagon. Hunek bihotza phizu zuen; arindu zuen eta zituen arrangurek, nahiz ez argiak ez entzun errexak, komis ona trixtatu zuten; bakartasunaz deitoratu zen ere. Dussardier-ek, apur bat zalantzatuz, eskaini zuen Deslauriers-en baitara joaitea.

Federik, abokataren izenean, hunen berrikusteko behar ezin azkarrago batez hartua izan zen. Gogoko bakartasuna handia zuen, eta Dussardier-en kompainia ez aski. Gauzak bere nahitara antola zitzan ihardetsi zaukon.

Deslauriers-ek ere, elgarren arteko samurgoaz geroztik, bizian zerbait eskas zuela sendi zuen. Urrats hain bihotzekoer amor eman zauen nekerik gabe.

Biek elgar besarkatu zuten, eta gero ezpaiko gauza batzuez solasean hasi ziren.

Deslauriers-en erdi-ixilak hunki zuen Federik; eta, ordaintzea bezalako zerbaiten egiteko, biharamunean erran zaukon hamabortz mila liberak nola galduak zituen, hastapenean harendako zituela aithortu gabe. Nahigabe horrek, arrazoin emaiten baitzaukon Arnoux-ez zituen aitzin gogoetetan, gorromioa osoki ezeztatu zaukon, eta lehengo hitzemaite hura etzuen gehiago aipatu.

Federikek, haren ixilaz enganatua, uste ukan zuen ahatzia zuela. Zenbait egun berantago, galdegin zaukon bere diruan berriz sartzeko biderik etzenez.

Aitzineko bahimenak eztabada zaitezkeen, Arnoux-ri jauki gauza bahituen saltzale bezala, hunen emazteari ere bere etxean.

- “Ez! Ez! ez hari!” egin zuen Federikek; eta, abokat mutil ohiaren galder amor emanaz, egia aithortu zuen. Deslauriers segur izan zen etzuela osoki erraiten, ikustatez behar bada... Konfiencia eskas horrek gaitzitu zuen.

Lehen bezain hurbil ziren, bizkitartean, eta ere hainbertze atsegin zuten elgarrekin gertatzeaz nun Dussardier-en han iziteak trabatzen baitzituen. Norapait hitzhartuak izaiteko estakuru, apurka apurka hartaz arinduak izaitera heldu ziren. Gizon batzu badira ezpaitute bertzen artean ararteko izaitiaz bertze egitekorik; iragaiten dira zubi batzu bezala, eta urrunago joaiten da.

Federikek jeus etzaukon lehengo adixkieari gordetzen. Ikatzen gauza erran zaukon, Dambreuse Jaunak eskainia zaukonarekin. Abokata ametsetan hasi zen.

- “Bitxi duk! behar lizatekek leku hortako zuzenbidean aski azkar den norbait!”

- “Baina laguntzen ahal nindukek”, egin zuen berriz Federikek.

- “Bai..., to..., segurki.”

Aste berean erakutsi zaukon amaren eskutitz bat.

Moreau Andereak bere burua salatzen zuen Roque Jauna gaizki jujaturik, hunek emanak baitzituen bere eginaraz argitasun askieskarriak. Gero haren fortuna aipatzen zuen, eta, berantagoko, Luixarekin ezkontza baten egiteko ahalaz.

- “Elizatekek behar bada zozo!” erran zuen Deslauriers-ek.

Federikek hori urrunera igorri zuen; Roque aita, bertzela ere, frikun zahar bat zen. Etzuen horrek axolarik, abokatak zionaz.

Uztail azkenean, ezin argituzko jauste batek Ipharreko dirubalioak eror-arazi zituen. Federikek etzituen bereak salduak; aldi bakar hiruretan hoge mila libera galdu zituen. Irabaziak hein batean ttipituak gertatzen zizazkon. Behar zuen edo gastua neurtu, edo ofizio bat hartu, edo ezkontza eder bat egin.

Orduan, Deslauriers-ek Roque Andereñoa aipatu zaukon. Jeusek etzuen trabatzen bera apur bat gauzen ikustera joaitetik. Federikek akidura zerbait sendi zuen; probinziak eta amaren etxeak atsedean bat ekharriko zukoten. Abiatu zen.

Nogent-eko karrikan ikusteak, ilargitara igan zituenak, orhoitzapen zahar batzuetara ereman zuen; eta halako herstura bat sendi zuen, bidaia luze batzuen ondotik itzultzen direnek bezala.

Lehengo ohituak oro amaren etxean ziren: Gamblin, Heudras eta Chambrion Jaunak, Lebrun familia, “Auger andereño horiek”; gainera, Roque aita, eta, Moreau Anderearen aitzinean, Luixa Andereñoa. Emaztetua zen, orai. Jeiki zen, oihu bat eginez. Guziak higitu ziren. Hura geldirik egona zen, zutik; eta mahi gainean ziren zilharrezko laur argiek xurailtasuna handitzen zukoten. Berriz jokoan hasi zelarik, eskua ikharan zuen. Hunkimen hori neurrigabeki gustatu zizakon Federiki, urgulua eri baitzuen; erran zuen bere baitan: “Maitatuko nun, hik!” eta, ordurano jasanak zituen nahigaben ordaina hartuz, Paristarraren egiten hasi zen, lehoinaren, antzokietako berriak eman zituen, jende handien

arteko gertakariak erakarri, berrikari ttipietan bildurik, eta bere herritarrak, azkenean, lilluratu.

Biharamunean, Moreau Anderea Luixaren gaitasunetan hedatu zen; gero mintzatu ukanen zituen oihan guziez, etxaldez. Roque Jaunaren fortuna gaitzekoa zen.

Dambreuse Jaunarendako intresean diru ezartzeak eginez bildua zuen; ezen hipotekako berme onak eman zezazketen jende behartuer maileguak egiten zauezteen, horrek ezartzen baitzuen gainerako eta komisione batzuen galdegiteko heinean. Kapitalak, arthoski zaintze bati esker, etzuen ezer irriskatzen. Bertzela ere, Roque aita etzen ehoiz zalantzan egoiten bahitze baten aitzinean; gero ontasun bahituak merke erosten zituen, eta Dambreuse Jaunak, dirua horrela sartzen ikusiz, egitekoak biziki ontsa eginak zirela aurkitzen zuen.

Baina legez haratagoko jukutria horrek bere eskupekoari buruz gaizki ezartzen zuen. Jeus etzen eman etzezakonik. Haren othoitzetan zuen Federik hain ongi hartua.

Alabaina, Roque aitak handi-nahi bat bazadukan arimaren zolan. Alaba nahi zuen kondesa izan zadin; eta, hortara heltzeko, haurraren zoriona jokoan ezarri gabe, etzuen Federikez bertze mutiko gazterik ezagutzen.

Dambreuse Jaunaren geriza-pean, ukan-araziko zizakon aitasoren lerro hori, Moreau Anderea Fouvens-ko konde baten alaba izanez, jendakian, bertzela ere, Xampañako etxe handienekin, Lavernadetarrekin, Etrigny-tarrekin. Moreau-tarrendako aldiz, harridazki gothiko batek, Villeneuve-l'Archevêque-ko eiheren ondoan, aipatzen zuen Jacob Moreau bat, 1596-an berreraikiak zituena; eta horren semearen hil-harria, errege Luis XIV-garrenaren aroan ezkutari zena, San-Nikolas kaperan ikusten zen.

Hoinbertze aipamen ohoragarriek lilluratzen zuten Roque Jauna, mutil ohi baten semea. Konde korona jiten ezpazen, bertze zerbaitekin konsolatuko zen; ezen Federeik deputatugora hel zaitekeen Dambreuse Jauna paregora goititua izanen zenean, eta orduan egitekoetan lagun zezakeen, hornimenduak ukan, abantail batzu utz. Mutiko gaztea gustatzen zizakon, bereaz. Azkenean suhitzat nahi zuen, aspaldi danik, ideia hori buruan hartua zuen, eta etzizakon handitzen baizik.

Orai elizara joaiten zen; - eta Moreau Anderea bildua zuen, oroz gainetik, tituluaren esperanzaz. Hau ihardespen argi baten emaitetik begiratua zen bizkitartean.

Beraz, zortzi egun berantago, agintzarik batere ez hartua izanik ere, Federik Luixa Andereñoaren “gizongei” bezala emaiten zen; eta Roque aitak, arrangura gutikoa, elgarrekin uzten zituen zenbait aldiz.

V

Deslauriers-ek eremana zuen Federiken etxetik ordaintzako egintzaren kopia, ahal osoak emaiten zauzkon molde zuzeneko manamendu batekin; baina, bere bortz estaiak iganak ukan zituenean, eta bakarrik izan zenean, bere gabinet trixtearen erdian, ardi-larruzko bere jargian, paper timbredunaren ikusteak gohainditu zuen.

Gauza horietaz akitua zen, eta hogeita hamabi soseko ostatuez, onibuseko bidaiez, bere miseriaz, egiten zituen indarrez. Paperreria batzu hartu zituen; ondoan baziren bertze batzu, ikatz kompainiako erreklamak minen zerrendarekin eta zadukatenaren xehetasunekin, Federikek hori guzia utzia baitzaukon zer aburu zuen jakiteko.

Gogoeta bat jin zizakon: Dambreuse Jaunaren etxera agertzea eta segetari lekuaren galdegitea. Leku hori, segur, etzoan diru-balio andana bat erosi gabe. Xede horren erotasuna aithortu zuen eta bere baitan erran:

- “Oi! Ez! gaizki lizatekek!”

Orduan, hamabortz mila liberen berriz ukaiteko nola egin bilatu zuen. Horrelako dirualde bat jeus etzen Federikendako! Baina ukan balu, berak, zer bermagailua! Eta gabinet mutil ohia sumindu zen bertzearen fortuna handia zelakotz.

- “Urrikalgarriki erabiltzen du. Norberekoi bat da. He! ontsa axolatzen niz haren hamabortz mila liberez!”

Maileguz zergatik emanak zituen? Arnoux Anderearen begi ederrendako. Ohaidea zuela Deslauriers etzen hortaz dudan. “Horra dirua hartako baliatzen den bertze gauza bat!” Herrazko gogamen batzuek hartu zuten.

Gero, Federikez beraz gogoetatu zen. Beti abantzu emazte batek bezalako lilluramendua sortua zuen haren baitan; eta laster miresterano heldu zen berak ezin ukan zezakeen ondorio on horren gatik.

Bizkitartean, nahikaria etzena egintza guzietako osagailu nagusia? eta, harekin orotan irabazle denaz geroz...

- “Ha! bitxi lizateke!”

Baina zimarku hortaz ahalgetu zen, eta, ephe bat berantago:

- “Bah! beldur ote niz?”

Arnoux Anderea (hartaz mintzatzea entzun bortxaz) ohibageki marrazkitua izaitera heldua zen haren gogoan. Maitasun horren iraupenak khorropilo batek bezala khexatzen zuen. Haren garraztasun apur bat teatrokoa iduriak aspertzen zuen orai. Bertzela ere, munduko emazteak (edo hala zela uste zuenak) lilluratzen zuen ezagutzen etzituen mila atseginen itxura eta laburpenak bezala. Beharrea izanez, aberaskeria molde agerianean gutiziatzen zuen.

- “Ororen buruan, gaitzi balaiteke ere, hanbat gaixto! Gaizkiegi ari izana da ene aldera ni enetik jenatua izaiteko! Deusek eztauta haren ohaidea dela segurtatzen! Ez errana daut. Beraz, libro niz!”

Urrats horren egiteko gutziak etzuen gehiago utzi. Bere indarren phorogatzera zen egin nahi zuena; - hala nola nun egun batez, bapatean, bere botak berak bernizatu baitzituen, eskularru zuriak erosi, eta abiatu zen, Federiken lekua hartuz eta hura zela abantzu ustez, aldi berean mendekioa eta sendimendua, hark bezala egitea eta ozarreria bazituen gogoaren aldatze bitxi batean.

Iragarr-arazi zuen “Deslauriers dotorra”.

Arnoux Anderea ustegabetua izan zen, medikurik ezpaitzuen galdeginik.

- “Ha! Mila desenkusa! zuzenbideko dotorra. Moreau Jaunaren dretxoendako heldu niz.”

Izen horrek anderea nahasten zuela iduritu zizakon.

- “Hobe!” gogatu zuen bulego-mutil ohiak; “hura onhartu nahi ukan duenaz geroz, nahiko nau ni ere!” maitale bat senar bat baino errexago ordaintzen delako ideia arruntaz bere burua sustatuz.

Anderearen aurkitzeko atsegina ukana zuen, aldi batez, Palazioan; eguna ere erran zuen. Hoinbertzeko orhoitak ustegabetu zuen Arnoux Anderea. Berriz hasi zen doinu ezti-ezti batekin:

- “Ukanak dituzu jadanik... eragozpen batzu... zure egitekoetan!”

Deus etzuen ihardetsi; egia zen, beraz.

Deslauriers gauza batzuez eta bertzez mintzatzaren hasi zen, bere bizilekuaz, landegiaz; gero, medailun batzuer ohartuz, mirailaren bazterretan:

- “Ha! familiako potret batzu, agian?”

Emazte zahar batenak begia atxiki zaukon, Arnoux Anderearen ama.

- “Hauteko jende baten itxura du, begitartez hegotarra.”

Eta, Chartres-koa zelako ihardespenean:

- “Chartres, hiri pollita.”

Goretsi zituen katedrala eta urdakiak; gero, potretera itzuliz, Arnoux Andereakin egiteak aurkitu zauzkon, eta zeharka lausenguetan ari zizakon. Etzuen hori gaizki hartu. Konfiexian jarri zen eta Arnoux aspalditik ezagutzen zuela erran zuen .

- “Mutiko on bat da! baina irriskuan jartzen da! Hipoteka ixtorio hortako, behazenez, ezin da xoxokeriarik asma...”

- “Bai! badakit...”, erran zuen andereak, soingainen goititze batekin.

Orduan, orotako gauzetara jautsiz, urrikitu zituen “senarrek fortuna xahutzen daueten emazte gaixoak...”

- “Baina, jauna, harena da; nik jeus eztut!”

Berdin zen. Nehork etzakien... Esperienzia bazuen jende bat baliagarri zatekeen. Laguntza eskaintzak egin zituen, bere mereximenduak goretsi; eta bekora behatzen zaukon, dirdiratzen zuten begitakoen azpitik.

Hura halako lasun batek hartzen ari zuen; baina, bapatez:

- “Gauza dakusagun, othoi!”

Paperraldea agertu zuen.

- “Hau Federiken manu-botherea da. Horrelako paper batekin manamendua eginen duen uxer baten eskuetan, jeus ezta errex: hogeita laur oren barne...” (Anderea sorgorrik zagon, bertzea jokoz aldatu zen.) “Nik, bertzela ere, eztakusat zerk deraman diru horren galdegitera; ezen azkenean ezpaitu beharrik batere!”

- “Nola! Moreau Jauna aski ona izana da...”

- “Ho! baietz!”

Eta Deslauriers haren laudorioetan hasi zen, gero gaitzerraitera jin, emeki emeki, ahazkor, bere baitako, zikoitz bezala emanaz.

- “Zure adixkidea zela uste nuen, jauna!”

- “Eztu horrek dituen hutsen ikustea debekatzen. Horrela, ontsa guti ezagutzen du..., nola nerrake? sendimendu...”

Arnoux Anderea kahier gotor baten horstoen itzultzen ari zen. Moztu zuen hitz baten erran-nahiaren galdegiteko.

Haren soin gainera gurtu zen, eta hain hurbil, nun matela doi-doia hunki baitzaukon. Anderea gorritu zen; gorridura horrek Deslauriers sutan ezarri zuen; eskuan musu eman zaukon amikatuki.

- “Zer ari zira, jauna!”

Eta, harresiaren kontra zutik, bazadukan geldirik, bere begi beltz handi suminduen azpian.

- “Entzun nezazu! Maite zaitut!”

Irri karkaila batean hasi zen, irri zorrotz bat, etsigarria, lazkarria.

Deslauriers-ek senditu zuen haserreak ithotzen zuela. Bere buruaren jabe egon zen; eta, garazia eskatzen zuen garhaitu baten itxurarekin:

- “Ha! Huts egiten duzu! Enindoake, ni, hura bezala...”

- “Nortaz ari zira?”

- “Federikez!”

- “He! Moreau Jaunaz guti khexu niz, errana dautzut!”

- “Oi! barkatu!... barkatu!...”

Gero, mintzo zorrotz batekin, eta erranaldiak herresta-araziz:

- “Uste nuen ere hartaz aski axola zinuela atseginekin jakiteko...”

Anderea hits-hitsa bilakatu zen. Bulego-mutil ohiak gaineratu zuen:

- “Ezkontzera doa.”

- “Hura!”

- “Ilabete bat barne, Roque Andereño, Dambreuse Jaunaren eskupeko gizonaren alabarekin. Nogent-era joana da ere, hortako bakarrik.”

Andereak eskua bihotzera eman zuen, ukaldi handi batek jorik bezala; baina bapatez xilintxari lotu zen. Deslauriers-ek etzuen haiza zezaten igurikatu. Anderea itzuli zenean, joana zen.

Arnoux Anderea apur bat hats-bahitua zen. Leihora hurbildu zen hats hartzeko.

Karrikako bertze aldean, oinbidean, paketatzale bat mahunga has khutxa baten itzaten ari zen. Fiakra batzu bazoazin. Berinak hetsi zituen eta berriz jartzera jin zen. Auzoko etxe gorek iguzkia itzaliz, argi hotz bat sartzen zen bizitegira. Haurrak atheraiak ziren, inguruan ezer etzen higitzen. Deserturatze handi bat bezala zen.

- “Ezkonduko da! ba ahal dea!”

Eta zainetako ikhara batek hartu zuen.

- “Hau zergatik? maite ote dut?”

Gero, bapatez:

- “Baina ba, maite dut!... maite!...”

Bazidurikon zerbait barnatura jausten ari zela, mugarik etzuenera. Erloiak jo zituen hirurak. Soinuaren daldarer ixiltzen beha egon zen. Eta bazagon bere jargiaren hegian, begi ñiñikak geldi, eta beti irriño batean.

Arratsalde berean, ordu berean, Federik eta Luixa Andereñoa bazabiltzan Roque Jaunak irlako bertze buruan zuen baratzean. Katalina zaharrak zaintzen zituen, urrundik; elgarren sahetsean zoazin, eta Federikek bazion:

- “Orhoit zirea baserrira eremaiten zinindutanean?”

- “Zein ona zinen enetako!” ihardetsi zuen. Ondartzarekin bixkotxa egiten laguntzen ninduzun, ureztatzeakoaren betetzen, leria ibil-arazten!”

- “Zure pampinak, erregina eta markesten izenak baitzituzten, zer bilakatuak dirade?”

- “Ori, batere eztaikit!”

- “Eta Moricaud zure xakur ehausiaria?”

- “Itho da, gaixo maitea!”

- “Eta *Don Kixotea*, marrazkiak elgarrekin margoztatzen baikinazkon?”

- “Badut oraino!”

Orhoit-arazi zauzkon lehen komunionekeo egunak, eta zein pollita zen bezperetan, bere mantalin xuri eta zirio handiarekin, guziak lerroan zoazilarik aldare aitzinean, eta ezkilak joiten ari.

Orhoitzapen horiek, iduriz, guti xoragarriak ziren Roque Andereñoarendako; jeus etzuen ihardesteko aurkitu; eta ephe bat berantago:

- “Gaixtoa! eni berririk aldi bakar bat ere ez emanik!”

Federikek bere lan ainitzez ihardetsi zuen.

- “Zer ari zira bada?”

Galdeaz eragozpenean izan zen, eta gero politikaren ikasten ari zela erran zuen.

- “Ha!”

Eta, gehiagokorik galdegin gabe:

- “Horrek hartzen zitu, baina ni!...”

Orduan, nexkatoak bere biziaren agorra khondatu zaukon, ikusteko nehor ez ukanez, den gutieneko atseginik ez, den gutieneko libertimendurik! Zaldiz igaitea opatzen zuen.

- “Bikariak dio nexkato gazte batendako eragozkarri dela; eztirenez zozo, beharbezalakotasunak! Lehen, nahi nuen guziaren egitera uzten ninduten; orai, jeus ez!”

- “Aitak maite zitu, bizkitartean!”

- “Ba; baina...”

Hasperen bat egin zuen, erran nahi zuena: “Ezta hori ene zorioneko aski.”

Gero, ixil bat izan zen. Etzuten oinen azpian ondartzaren kraxka baizik entzuten hur zirripa baten zurrumurruarekin; ezen Zekuana, Nogent-ko gainaldean, bi besoetan moztua da. Eiherak itzul-arazten dituenak ixurtzen du gune hortan bere uhainen soberakina, beherago ibaiaren sail nagusiarekin batzera joateko; eta, zubietarik heldu delarik, ohartzen da, eskun bertze bazterrean, etxe xuri bat gaineko aldean duen soropilezko muga bati. Ezker, phentzean, badira zuharrak, eta eskualdea, aitzinean, ibaiaren bigurgune batek mugatua da; miraila bezain zabal zen; mamutxa handi batzu ur geldian lerratzen ziren. Seska eta ihi multzo batzu bazituen han hemenka bazterretan; mota guzietako landare hor berean jinek bazituzten botoin urre batzu idekiak, mulko hori batzu dilindan, lore gorri batzuen khiloak zut, nun nahi zirrizta musker batzu eginez. Erreka bazterreko ur-geldi inguru batean igebelar batzu zabaltzen ziren; eta otso-zepo batzu gordetzen zituen sarats zahar lerro bat zen, irlaren alde hortarik, baratzearen zaintzale guzia.

Haratago, barnean, lau harresi arbelezko estalgidunek hesten zuten baratzekarien gunea, hartan taloinek, berriki iraulirik, leku beltzaran batzu egiten zituztela; alkatxofak, ilharrak, ziazerbak, phastenagarrak eta tomateak aldizkatzen baitziren azparragotze baterano, luma floka bat iduri zuena.

Alhor hori guzia, “Directoire”-ko aroan, *erokeria* deitzen zen bat izana zen. Zuhatzak, ordutik, neurrigabeen handituak ziren. Aihenzuria nahasten zen hesi-zukaxketan, bidexkak goroldioz estaliak ziren, nun nahi laharra nasaiki. Gizairudi zati batzuek uzten zuten igelsua belarpean phorroskatzen. Ibiltzean oinak burdin-harizko lan batzuen ondarretan hartzen ziren. Etxolatik etziren beherean paper urdinezko lits batzuekilako bi gambara baizik gelditzen. Etxaitzinean moda italiarreko trilla bat luzatzen zen, hartan, adarailuzko zutabe batzuen gainean, ziri-sare batek mahatsondo bat jasaiten zuela.

Biak azpi hortara jin ziren, eta, argia orstailen arte ezberdinetarik sartzen baitzen, Federikek, Luixari bazterretik mintzatzean, bazakusan orstoen itzala haren begitartean.

Bazuen bere ile gorrietan, mottoan, orratz bat esmeralda itxuratzen zuen berinakizko borobil batekin bururatua; eta oinetan, doluan izana gatik (hain zen lañoa haren gustu gaixtoa), lastozko xapinak satin gorraxtez aphainduak, bitxikeria arrunta, behar bada feria zenbaitetan erosiak.

Federik ohartu zizeen, eta erkaitzez komplimendu egiten zaukon.

- “Etzaitela nitaz trufa!” egin zuen.

Gero, hari osoan behatuz, feldro hautsaranezko xapeletik zetazko galtzerdietarano:

- “Zein aphaina ziren!”

Ondotik, irakurtzeko liburuak izenda zitzon othoiztu zuen. Batzu egin zituen; eta erran zuen:

- “Oi! zein jakintsuna ziren!”

Ttipi-ttipian, erlisionearen garbitasuna eta aldi berean behar baten indarra duten haurzaroko maitasun hetarik batez harturik izana zen. Federik laguna izana zizakon, anaia, nagusia, izpiritua libertitua zaukona, bihotza jo-arazia eta nahigabean haren golkora ixuria xoratasun gorde eta jarraiki bat. Gero gaitzaldi larri batean utzia zuen, ama hila baizik ez eta, bi etsipenak elgarrekin nahasten zirenean. Federiken ez hor izaiteak handizki goititua zuen haren gogoan; halako korona urre batekin itzultzen zizakon, eta bere burua uzten zuen lañoki haren ikusteko zorionera.

Biziko lehen aldikotz, Federikek sendi zuen maitatua zela; eta atsegin berri horrek, sendimendu gozagarriak gainditzen etzituena, bazemon barneko hantura bat; hala nola nun bi besoak zabaldu baitzituena, burua gibelerara emanez.

Ordu berean lanho lodi bat bazoan zeruan.

- “Paris aldera doa,” erran zuen Luixak; “jarraiki nahi zinaukoke, eztea hala?”

- “Ni! zergatik?”

Eta, hura so zorrotz batez mihatuz:

- “Badukezu han... (hitza bilatu zuen), atxikimendu zenbait.”

- “He! atxikimendurik eztut!”

- “Ontsa segur?”

- “Baina bai, andereñoa, ontsa segur!”

Urte bat baino gutiagotan, nexkato gaztearen baitan aldatze ohigabeko bat gertatua zen Federik ustegabetzen zuena. Ixil ephe baten ondotik, gaineratu zuen:

- “Hika mintzatu behar ginuke, lehenago bezala: nahi duzua?”
- “Ez.”
- “Zergatik?”
- “Zeren!”

Federik hisitzen zen. Nexkatoak ihardetsi zuen, burua behekituz:

- “Eniz menturatzen!”

Baratze burura helduak ziren, Livon-aren ondartzara. Federik, haurkeriaz, uraren gainetik harri baten lerra-arazten hasi zen. Hark jar zadin manatu zaukon. Obeditu zuen; gero, ur zurrutari so eginez erran:

- “Niagara bezala da!”

Herri urrunduez mintzatzera jin zen eta bidaia luzez. Eginen zituela gogatzu nexkatoa loriatzen zuen. Etzuen jeusen beldurrik ukanen, ez ekaitzen, ez lehoinen.

Bat bertzearen ondoan jarririk, aitzinean ondartzara ahurtaraka biltzen zuten, gero eskuetan lerra-arazten, solasean ari ziren batean; - eta ibarretarik heldu zen haize beroak ekhartzen zezteen ufaka belar-xut usain batzu, untzixka batetik, ur-athe gibelean, jalgitzen zen usainarekin batean. Iguzkiak zurruta joiten zuen; ura hetan iragaiten zen harresi ttipiko harri berdaatsek iduri zuten zilharrezko gaza bat beti joanki. Haun lerro luze bat jalgitzen zizakon oinean, neurkadan. Horrek egiten zituen heraki, zirimola, mila kontrako uhain, eremu zabal bakar batean nahasiz bururatzen zirenak.

Luixak murmurikatu zuen arrainen bizia gutiziatzen zuela.

- “Hain goxo baitateke barne hortan ihalozkatzea, nahitara, orotan pherekatua senditzea.”

Eta ikaratzen zen, atseginezko goxatasun bateko mogimenduekin.

Baina mintzo batek oihera egin zuen:

- “Nun hiz?”
- “Sehiak deitzen zitu,” erran zuen Federikek.
- “Ongi! Ongi!”

Luixa etzen higitzen.

- “Khexatuko da,” egin zuen hark berriz.

- “Berdin zata! eta bertzela ere...” Roque andereñoak entzun-arazten zuela, jestu batez, bere menean zadukala.

Zutitu zen alta, gero buruko minez deitoratu. Eta, borda zahar baten aitzinetik zoazilarik, ziri zamaz betea:

- “Azpian jartzen bagine, *xaalik?*”

Federikek herrialdeko hitz hori entzuten ezpalu bezala egin zuen, eta ere atzentoaz khitzikatu zuen. Apurka apurka, aho izkinak zimurto zizazkon andereari, ezpainak zimikatzen zituen; baztertu zen muttur egiteko.

Federik ondora joan zizakon, gaitzik etzaukola egin nahi ukan zin eginez eta ainitz maite zuela.

- “Egia dea?” egin zuen, begitarte guzia, apur bat uderrez titatua, argitzen zaukon irriño batekin hari so eginez.

Federikek etzuen sendimendu bihoztun horri, gaztetasun frexko horri ihardoki ahal ukan, eta berriz egin zuen:

- “Zergatik erranen nauzkinan gezurrak?... dudatzen duna... ala?” ezkerreko besoa gerri inguruan ezarriz.

Oihu bat, urzo urruna bezain ezta, jalgi zizakon zintzurretik; burua gibelerara utzi zuen, aldixartzera zoan, Federikek atxiki zuen. Eta bere zuzentasunak eman arrangurak debaldekoak izan ziren. Bere burua eskaintzen zuen neskasoaren aitzinean, beldur batek hartua zuen. Urrats zenbaiten egiten lagundu zuen, eztiki. Hizkuntzazko pherekuak geldituak zituen eta gehiago ez nahiz ezpaiko gauza batzu baizik erran, Nogent-ko jendez mintzo zizakon.

Bapatez, nexkatoak gibelerara igorri zuen, eta, doinu samin batekin:

- “Ene eremaiteko kuraiarik ehuke!”

Federik geldi-geldia egon zen handizki balditua denaren itxurarekin. Hura nigarrez hipaka eman zen, eta burua bere bulharrean sartuz:

- “Bizitzen ahal nuka hi gabe!”

Eztitzera entseatzen zizakon. Hark ezarri zauzkon bi besoak soingainetan aitzinetik hobeki ikusteko, eta, bere ñiñika musker, heze abantzu bortitz batekoak harenen gainean itzatuz:

- “Nahi duka ene senarra izan?”

- “Baina...,” egin zuen Federikek, ihardespen bat bilatuz. “Zergatik ez... Eztinat gehiagokorik eskatzen.”

Ordu hartan Roque Jaunaren kaxketa agertu zen lila baten gibelean.

Bere “adixkide gaztea” ereman zuen bi egunez ingurunetan bidaia ttipi baten egitera, bere etxaldetan; eta Federikek, itzuli zenean, amaren etxean hirur eskutitz aurkitu zituen.

Lehenbizikoa Dambreuse Jaunaren hitz bat zen ondoko astearteko auhaltzera gomitatzen zuena. Zertako ikustate hori? Bere atheraldia barkatua zaukoten beraz?

Bigarrena Rosanette-rena zen. Bere bizia harendako irriskaturik eskertzen zuen; Federikek etzuen lekenik zer erran nahi zuen ikusi; azkenean, itzuli-mitzuli anitzekin, othoizten zuen, haren jendetasunean fidatuz, belhaunikaturik, zion, behar gorrian baitzen, eta ogia eskatzen den bezala, bortz ehun liberako laguntza ttipi bat. Emaitera berehala deliberatu zen.

Heren eskutitzak, Deslauriers-en ganik, haren ordaintzeko manua aipatzen zuen eta luzea zen, ez argia. Abokata etzen oraino deusetara deliberatua. Eragozpenean ez jartzeko aholkua emaiten zaukon: “Itzul hadin debalde duk!” hortan zapatuz ere, hisi bitxi batekin.

Federik aieru mota guzietan nahasi zen, eta ukan zuen hara itzultzeko gutizia; bereak zituen egitekoen gobernatzeko ausartzia hortaz sumindua zen.

Bertzela ere, karrika handietako bihotz-minak hartzen ari zuen; eta amak hanbat zuen hertsatzen, Roque Jauna hain ontsa zabilkion inguruan eta Luixa Andereñok hain zuen azkarki maite, nun ezpaitzagokeen gehiago zer nahi zuen erran gabe. Bere baitan sartzeko beharra bazuen, urrunean gauzak hobeki jujatuko zituen.

Bidairen estakurutako, ixtorio bat asmatu zuen; eta abiatu zen, guzier erranez eta berak ere sinetsiz laster itzuliko zela.

VI

Parisera itzultzeak etzaukon atseginik eman; arratsa zen, agorri ondarrean, karrika handiak hutsa iduri zuen, ibilkariak bazoazin begitarteak mokhor; han hemenka mundrun berotzeko bat khetan zen, etxe ainitzek leihoak osoki hetsiak zituzten; etxera heldu zen; erridauak errautsez estaliak ziren; eta, bakarrik auhaltzean, Federik utzia zelako sendimendu bitxi batek hartu zuen; orduan gogoratu zizakon Roque Andereñoa.

Ezkontzeko ideia etzizakon gehiago bitxiegia iduritzen. Bidaiak eginen zituzten, Italiara joanen ziren, Orientera! Eta ikusten zuen mendixka baten gainean, eskualdeari beha, edo haren besoa atxikiz Firenzako galeria batean, margazkien aitzinean gelditzen. Zer zoriona lizatekeen nexkatoño on haren ikustea Edergintzaren eta Naturaren ospe miragarrietara idekitzen! Bere ingurumenetik atherarik, ephe gutiz, lagun xoragarri bat bilakatuko zen. Roque Jaunaren fortunaz gutizian zen Federik, bertzela ere. Bizkitartean, horrelako delibero batek nardatzen zuen, ahulezia batek, aphaltze batek bezala.

Baina ontsa deliberatua zen (zer nahi gerta zadin) bizi-moldez aldatzera, ez gehiago bihotzaren uztera maitasun ondorio gabeko batzuetan galtzen, eta ere zalantzan zagon Luixak galdegina zaukonaren egiteko. Hau zen Jacques Arnoux-en etxean, harendako, gizon beltz batzu itxuratzen zituzten kolore orotako bi gizairudien erostea, Troyesko prefetegian ziren bezalakoak. Egilearen marka bazakien, eta bertzerik ez nahi. Federik beldur zen, *haien* etxera joaiten baldin bazen, berriz ere bere maitasun zaharrera eroriko zela.

Gogoeta horiek arratsalde osoan atxiki zuten; eta etzatera zoan emazte bat sartu zenean.

- “Ni niz,” erran zuen irriz Vatnaz Andereñoak. “Rosanette-ren galdez heldu niz.”

Baketuak ziren beraz?

- “Gure Jainkoa, bai! Eniz gaixtoa, ontsa badakizu. Gainera, nexkato gaixoa... Zuri erraiteko luzegi lizateke.”

Hots, Marexalsak ikusi nahi zuen, ihardespen baten beha zagon, haren eskutitza Paristik Nogent-era ibilia izanik. Vatnaz Andereñoak zertaz zen etzakien. Orduan, Federikek Marexalsaren berri galdegin zuen.

Gizon biziki aberats batekin zen, orai, Errusiar bat, Tzernoukoff printzea, hunek Champ-de-Mars-ko zaldi lasterretan ikusia baitzuen, aitzineko udan.

- “Badira hirur karrosa, igaiteko zaldi, jantzieria, “groom” moda angelesean, baserriko etxe, Italiarretan egongia bat, mila gauza oraino. Horra, maitea.”

Eta Vatnaz-sak, fortunaz aldatze hortan zerbait irabazia ukana balu bezala, alaiago iduri zuen, zorion betean. Eskularruak ekhendu zituen eta gambaran mubleak eta edergailu ttipiak ikertu. Bere prezio zuzena emaiten zauen, zaharki saltzale batek bezala. Aholku galdegitera

joan behar zizakon merkeagotan ukaiteko; eta zuen gustu onaz goersten zuen:

- “Ha! hori pollita da, ezin hobeki! Ideia horiendako ezta zu baizik.”

Gero, ohetegi buruan athe bat ikusiz:

- “Hortik dira emazteñoak jalgi-arazten, ez?”

Eta, adixkideki, bidarra hartu zaukon. Ikharatu zen haren esku luze, aldi berean mehe ‘ta eztiak hunkitzean. Ukarairen inguruan bazuen dentelazko zerrenda bat eta, zaia muskerraren papoan, josturazko lan bat, uzarda batek bezala. Tula beltzezko xapelak, bazterrak beheiti, bekokia apur bat gordetzen zaukon; azpitik begiak dirdiran zituen; “patxuli” usain bat bazoan haren ile xerrendetarik; mahixka baten gainean ezarri olio-argiak, antzokiko taulada bazterra bezala beheretik argituz, matel-hezurra kamporatzen zaukon; - eta bapatez, gerrian panthera baten izurdurak zituen emazte itsusi horren aitzinean, Federikek senditu zuen gaitzeko gutizia bat, atsegin abre bateko gura.

Hark erran zaukon mintzo leundu batekin, bere xehe-molsatik laur kantoineko hirur paper atheraz:

- “Hau hartuko dautazu!”

Hirur leku ziren Delmar-endako emaiten zen ikusgarri bateko.

- “Nola! hura?”

- “Segurki!”

Vatnaz Andereñoak, gehiagokorik argitu gabe, gaineratu zuen ehoiz baino gehiago maite zuela. Komedialaria, zionaz, behin betikotz “aro hartako lehenbizikoen” lerroan ezartzen zen. Eta etzuen hau edo hori itxuratzen antzokian, baina Frantziaren jeinua bera, Jendaldea! “Arima gizatarra” zuen; bazakien “Edergintzako aphezgoa zer zen”! Federikek, laudorio horietaz liberatua izaiteko, eman zaukon hirur lekuen dirua.

- “Han aipa dezazun ezta balio! - Zein beranta den, Jainkoa! Utzi behar zitut. Ha! helbidea ahazten nuen: Grange-Batelière karrika da, 14-a.”

Eta, alhazean:

- “Goraintzi, gizon maitatua!”

- “Nortaz maitatua,” galdegin zuen bere baitan Federikek. “Zein jende bitxia!”

Eta berriz orhoitu zen Dussardier-ek, egun batez, hartaz erran zaukola: “Ho! ezta gauza handia!” ixtorio guti ohoragarri batzuer aieruz bezala.

Biharamunean, Marexalsaren etxera joan zen. Etxe berri batean bizi zen, itzalkariak karrikara aitzinatzen zizazkona. Mailalde bakoitzean bazen mirail bat murruan, leihoen aitzinean baserri moldeko loretegi bat, mail guzien luzean oihalezko tapiza; eta, kampotik heldu zenean, mailaldeko hoxturak atsedean emaiten zuen.

Mutil bat zen idekitzera jin zena, barneko motx gorri batekilako morroin bat. Aitzin-gambaran, jarlekuan, emazte bat eta bi gizon, hornitzaleak iduriz, igurika zauden, minixtro baten atharian bezala. Ezkerretik jateko salako atheak, erdi idekirik, ikustera usten zituen botoila huts batzu alasen gainean, mahi-oihalak kaderen bizkarrean; eta hein berdinean bazoan galeria bat, hartan makila urre kolore batzuek baitzadukaten arroso adarkatu bat. Beherean, korroilan, bi mutiko, besoak hasik, ari ziren haur-karrosa baten thorratzen. Haien mintzoa harano igaiten zen, harri batean joiten zen karatoxa baten harrabots artekatuarekin.

Mutila berriz jin zen. “Andereak Jauna hartuko zuen”; eta bigarren aitzin-gambara bat iragan-arazi zaukon, gero saloin handi bat, brokatela horiz aphaindua, izkinetan tronaduran elgarretaratzen ziren bihurtika batzuekin eta dilindako argiaren kable moldeko adarkiez jarraikiak iduri zutenekin. Besta egina zatekeen aitzineko gauan. Zigarro hautsa gelditua zen bazter-mahien gainean.

Azkenean, berina kolorezko batzuek gaizki argitzen zuten halako saloin ttipi batera sartu zen. Zurezko hirusta batzuek aphaintzen zuten athen gainaldea; baranda baten gibelean, hirur matalatz gorrindolek ohexka egiten zuten, eta gainean platinazko “narghile” baten tuta utzia zen. Khebideak, mirail orde, bazuen taulada bat piramidan, bere tauletan bazerakutsala bitxikeria andana oso bat: zilharrezko sakeloren zahar, Bohemiako addarki, harrieriazko kortxet, jadazko botoin, esmail, xinakeria, zilhar urreztatuzko xaparekilako birjina bizantinar bat; hori guzia urtzen zen ilunabar urreztatu batean, tapizaren margo urdinaranarekin, alketxen leinuru nakaratuekin, larru gaztena-kolorez eztaliak ziren murruen hori-gorriarekin. Izkinetan, oinarri batzuen gainean, burdin-horizko untzi batzuek bazaduzkaten airea phizutzen zuten lili mulko batzu.

Rosanette agertu zen, satin arrosa-kolorezko maripulis bat soinean, eta kaxamira xurizko galtza batzuekin, piastrazko lephokoa, eta xano gorri bat jazmin adar batez inguratua buruan.

Federikek ustegabetzezko mogimendu bat egin zuen; gero “delako gauza” ekhartzen zuela erran, bankoko billeta aitzinera emanaz.

Andereak azkarki balditurik behatu zaukon; eta, Federikek beti billeta eskuan baitzuen, nun ezar jakin gabe:

- “Harrazu bada!”

Hartu zuen; gero, ohexkaren gainera egotzirik:

- “Ontsa gixakoa zira.”

Bellevue-n lur baten pagatzeko zen, urtekal ordaintzen baitzuen. Hoinbertzeko axolagabeak Federik gaitzitu zuen. Baina hobe! horrek iraganaz mendekatzen zuen.

- “Jar zaitel!” erran zuen. “Hor, hurbilago.” Eta doinu larri batekin: “Lehenik, eskertu behar zitut, maitea, bizia enetako irriskaturik.”

- “Oi! jeus ezta!”

- “Nola, biziki eder, izaitekotz!”

Eta Marexalsak erakutsi zaukon esker on eragozpengarri bat; ezen uste zukeen Arnoux-endako bakar-bakarrik gudukatua zela, hunek, gauza bera asmatuz, ezpaitzaukokeen erraiteko beharrari ihardokia.

- “Nitaz trufatzen da, behar bada,” egiten zuen Federikek.

Egitekorik gehiago etzuen, eta, hitz-hartua zelako estakurua emanaz, zutitu zen.

- “Ez ez! Zaude!”

Berriz jarri zen, eta jantziaz goretsi zuen.

Ihardetsi zuen, ahidurazko itxura batekin:

- “Printzeak nau hunela maite! Eta behar dira horrelako tresnak pipatu,” gaineratu zuen Rosanette-k, narghile-a erakutsiz. “Jasta bagineza? nahi duzua?”

Sua ekharri zen; burdin-gorria nekez phizten baitzen, ezin egonez putinka hasi zen. Gero ahultze batek hartu zuen; eta bazagon ohexkaren gainean geldi-geldia, kuxina bat galtzar-pean, soina apur bat bihurtua, belhaun bat plegaturik, bertze zangoa luze-luzea. Larru gorrizko suge luzea, lurrean erhaztunak eginez, besoan inguratzen zizakon. Ambarazko mokoia ezpainetan ezarria zuen eta Federiki beha zagon, begiez klixkatuz, khearen lanho bihurdukatuen artetik. Hats hartzean ura gargara-arazten zuen, eta artetan bazion murmurikatuz:

- “Pollit gaixo hori! maite gaixo hori!”

Solasaldi gozagarri baten aurkitzeko indar egiten zuen Federikek; Vatnaz-sa berriz gogoratu zizakon.

Biziki aphaina iduritu zizakola erran zuen.

- “Nolaz ez!” egin zuen Marexalsak. “Ene ukaitez ontsa zorionean sendi da, hura!” hitz bat gehiago erran gabe, hanbat ziren zuhur elgarretaz mintzatzean.

Biek sendi zuten bortxa bat, erazgozpen bat. Alabaina, haren arrazoina bera zela uste zuen guduak lausengatua zuen Rosanette-ren urgulua. Gero azkarki ustegabeturik izana zen egintzaz baliazera Federikek laster egin etzuelakotz; eta, berriz jitera bortxatzeko, bortz ehun mila liberaren behar hori asmatua zuen. Nola zatekeen ordainez hark etzuela maitasun apur bat eskatzen! Miresten zuen berezitasun arraro bat zen, eta bihotzeko olde batean, erran zaukon:

- “Nahi duzua jin gurekin itsas-mainuetara?”

- “Nor hori, *gu?*”

- “Ni eta ene xoria; gusi batentzat harr-araziko zitut, komedia zaharretan bezala.”

- “Esker mila!”

- “Eta beraz, orduan, bizitegi bat hartuko duzu gurearen ondoan.”

Gizon aberats baten ganik gordetzeko ideiak aphaltzen zuen.

- “Ez! ezin da hori!”

Rosanette itzuli zen, begian nigar batekin. Federik ohartu zizakon; eta, hartaz axola zuela erakusteko, zorion zuela erran zuen hura ikusiz, azkenean, hein ezin hobe batean.

Soingain goititze bat egin zuen. Zerk zuen bada lastimatzen? Etzutela maite ote zatekeen?

- “Ho! ni, beti maite naute!”

Gaieratu zuen:

- “Jakiteko gelditzen da zer moldez.”

“Beroak ithotzen zuela” deitoratuz, Marexalsak soinekoa ekhendu zuen; eta, gerrian zetazko athorraz bertze jantzirik gabe, burua soingainera makurtzen zaukon, esklabo baten itxura sustagarri batekin.

Berekoitasun gutiago gogatuko gizon batek etzuen buruari emanen Bizkondea, Compaing-ko Jauna edo bertze bat sar zaitekeela ustegabea. Baina Federik gehiegi izana zen behako horietan beretan hatzemaña aphaltze berri baten jasaiteko.

Marexalsak nahi ukan zituen haren ezagutzak, jostagailuak jakin; heldu zen ere haren egitekoen berri ukaitera, diru prestatzearen

eskaintzera, beharrik baldin bazuen. Federikek, gehiago ezin egonean xapela hartu zuen.

- “Goazen, maitea, atsegin ainitz han; ikus arteo!”

Begiak zabaldu zituen, gero, doinu idor batekin:

- “Ikus arteo!”

Saloin horitik iragan zen berriz eta bigarren aitzin-gambaratik. Bazen mahiaren gainean, bisitako kartaz betea zen untzi baten eta izkiriagailu baten artean, zilharrezko untxi zizelkatu bat. Arnoux Anderearen hura! Orduan, berazte bat senditu zuen, eta aldi berean profanatze bateko eskandala bezalako zerbait. Bazuen hartara eskuaren emaiteko gutizia. Ikusia izaitearen beldur izan zen, eta joan.

Federikek bertutea ukan zuen. Etzen Arnoux-en etxera itzuli.

Mutila igorri zuen bi beltzen eroatera, behar ziren gomendio guziak emanik; eta khutxa, arratsean berean, Nogent-era joan zen. Biharamunean, Deslauriers-en etxera zoanean, Vivienne karriko eta karrika handiko bihurgunean, Arnoux Anderea aitzinean agertu zizakon, bekoz beko.

Lehenik gibelera urrats egiter zuten; gero, erdi-irri ber bat jin zizeen ezpainetara, eta hurbildu ziren. Minuta batez etziren bat ez bertzea mintzatu.

Iguzkiak inguratzen zuen; - eta haren arraultzarako begitartea, bekain luzeak, zaia zeta urzo papo-arakoa, burukoaren izkinan zuen briolet floka, oro miragarriki ederra iduritu zizakon. Mugagabeko goxotasun batek bazarion haren begi ederretarik; eta, ahopiatuz, ustegabeka, lehenbiziko hitzak jinik:

- “Nola da Arnoux?” erran zuen Federikek.

- “Eskertzen zitut!”

- “Eta haurrak?”

- “Biziki ontsa dira!”

- “Ha!... Ha!... Zer eguraldia dugun, eztea hala?”

- “Miragarria, hala da!”

- “Komisione egiten ari zira?”

- “Ba.”

Eta burua emeki gurtuz:

- “Goraintzi!”

Eskua etzaukon aitzineratua, sendimenduzko hitz bakar bat ez errana, ez haren etxera joaitera gomitatua ere! etzuen alta aurkitze hori

gertakari ederrenean trukatuko; eta horren eztitasuna gogoan alha zuen bideari bazarraikan batean.

Deslauriers-ek, hura ikusiz ustegabetua, bere griña gorde zuen - ezen esperanza zenbait bazadukan hisirekin oraino Arnoux Anderearen aldera; eta Federiki izkiriaturia zaukon han egon zadin, bere urratsetan biziki libroago izaiteko.

Erran zuen bizkitartean haren etxean izana zela, haien kontratuak partaliengoak ekhartzen zuenez jakiteko; orduan, anderearen kontra hel egin zaitekeen; “eta begitarte bat bitxia ukana dik hire ezkontza ikasi daukotanean.”

- “To! zer ixtorioa!”

- “Behar zian, hire kapitalen beharretan hintzala erakusteko! Jende axolagebeko batek etzian hartu dikan ahuldura bezalako hura ukanen.”

- “Zinez?”

- “Ha! putikoa, hire burua salatzen duk! Errak egia, bada!”

Gaitzeko beldurtze batek bete zuen Arnoux Anderearen maitalea.

- “Baina ez!... egiazki!... Hitzemaitean deat!”

Ezeztatze guri horiek Deslauriers-ek uste zuena osoki egiaztatu zuten. Komplimenduak egin zauzkon, “xehetasunak” galdegin. Federikek etzituen eman, eta asmatzeko gutiziari ihardoki zuen ere.

Bahimenari buruz, jeus egin etzezan erran zaukon. Deslauriers-ek huts egiten zuela ihardetsi zuen, eta ere bortitz izan zen bere erasietan.

Nehoz baino ilunago zen bertzela ere, gaitzerraileago eta khexakorrago. Urte baten buruan, ezpazizakon zoria aldatzen, Ameriketara abiatuko zen edo bere buruaz egingen zuen. Azkenean hain erotua iduri zuen ororen kontra eta erradikaltasun hain osokoa nun Federik ezpaitzen egon ahal izan erran gabe:

- “Horra nun hizan Senecal bezala.”

Deslauriers-ek, hitz hortan, ikasi zaukon Sainte-Pélagie-ko presondegitik jalgia zela, inkestak phorogu aski ez emanik, agian, auzira eremaiteko.

Liberatze hortako bozkarioan, Dussardier-ek nahi ukan zuen “punch bat eskaini”, eta Federik othoiztu zuen “han izan zadin”, jakin-araziz ordea Hussonnet-ekin izanen zela, hau ezin hobea izana baitzen Senecal-endako.

Alabaina, *Farrandaria* egitekoetako gabinet batekin jarria zen, bere iragarkietan ezarririk: “Mahastietako khondutegia. - Erreklamen etxea. - Berraurkitze eta berri emaiteko bulegoa, eta bertze.” Baina mutiko arina

industria horrek literaturako aipamenean kalte ekhar zezon beldur zen, eta matematikalaria hartua zuen khonduen egiteko. Lekua bien artekoa bazen ere, Senecal, hori gabe, gosez hila izanen zen. Federikek ez nahiz komis ona trixtatu, gomita onhartu zuen.

Dussardier-ek, hirur egun aitzinetik, bere hegaztegipeko lauzada gorria berak ziratu zuen, jargia inharrosia eta khebidea garbitua, hartan ikusten baitzen borobil baten azpian harzurizko erloi bat harri-nigar baten eta koko baten artean. Bi gandelabreak eta ezko-argia ezpaitziren aski, etxezainari bi zuzi hartuak zauzkon; eta bortz argi horiek phiztuak zauden komodaren gainean, hau hirur mahi-oihalez estalia, garbikiago atxik zitzaten makaronak, bixkotxak, opilño bat, eta hamabi garagarno botoila. Bertze aldean, paper hori batez estali murraren kontra, zurgorrizko liburutegi ttipi batek bazaduzkan Lachambeaudie-ren *Alegiak*, *Parisko mixterioak*, Norvins-en *Napoleon*, - eta, ohetegiaren erdian, erdi-irriz zagon, palizandrazko kadre batean, Beranger-en begitarte!

Gomitak (Deslauriers eta Senecal-ek bertzalde) hauk ziren: botikari berriki izendatu bat, baina jartzeko behar zen dirurik etzuen, haren etxeko mutiko gazte bat, arno saltzale bat, etxegile bat eta asuranzetan ari zen jaun bat. Regimbart etzen ethorri ahal izana. Hortaz dolu ukan zuten.

Federik adixkidantzazko sendimendu ainitzekin hartu zuten, orok baitzakiten Dussardier-en ganik Dambreuse Jaunaren etxean nola mintzatua zen. Senecal-ek eskua eskaini zaukon bakarrik, itxura serio batekin.

Khebidearen ondoan zutik zagon. Bertzeak, jarririk eta pipa ezpainetan, hari beha zauden ororen boz emateaz mintzo, horren ondorioa Demokraziaren irabaztea izanen baitzen, eta Ebanjelioko erakaspenen jartzea. Bertzela ere, ordua hurbiltzen ari zen; banko erreformatzaleak probinzietan hedatzen ari ziren; Piemont-a, Neapoliz, Toskana...

- "Egia da," erran zuen Deslauriers-ek, hitza hari garbiki moztuz, "gehiago eztezake iraun!"

Eta orduko izanararen marrazki baten egiten hasi zen.

Holanda utzia ginuen Luis-Filiperen ezagutzearen ukaiteko Angeleterraren ganik; eta Angeleterrarekilako antolamendu aipatu hori, galdua zen, ezkontza españolen gatik! Suizan, Guizot Jauna, Austriarraren gibeletik, 1815-ko antolamenduen alde zen. Alemaniak

bere Zollverein-arekin trabak antolatzen ari zauzkun. Orienteko gaia dilindan gelditua zen.

- “Constantin duke-handiak Aumale-ko Jaunari emaitzak igortzen dauzkolakotz ezta Errusiaz segur izaiteko arrazoina. Barneko egitekoetan aldiz, ehoiz ezta hoinbertze itsukeria, hoinbertze zozokeriarik ikusi! Orotan, azkenean, hitz ezagunaren araura, jeus! jeus! jeus! Eta, hoinbertze ahalgetzekoren aitzinean,” jarraiki zuen abokatak ukomiloak hanketan ezarriz, “badiote askietsiak direla!”

Bozaldi aipatu bati egin aieru horrek esku zartak eman-arazi zituen. Dussardier-ek ideki zuen garagarno botoila bat; haunak ziliportatu zituen erridauak, etzen hortaz axolatu; pipa betetzen ari zen, opilaren hausten, eskaintzen, aldi bat baino gehiagotan jautsirik “punch”-a heldu zenez ikusteko, eta buru-berotzeak etzuen berandu, orok sumindura bera baitzuten Botherearen kontra. Bortitza zen, bidegabearen herraz bertze arrazoinik gabe; eta arrangura zuzenekin nahasten zituzten erasia zozoenak.

Botikaria deitoratu zen gure untzieriaren izanara urrikalgarriaz. Asuranzetako artekariak etzituen Soult marexalaren bi zaintzaleak jasaiten. Deslauriers-ek salatu zituen jesuistak, Lille-en jarriak baitziren berriki, publikoki. Senecal-ek ezin gehiago hastio zuen Cousin Jauna; ezen hautuz artzeak, segurtamenaren hartzeko arrazoinetik ikasiz, norberekoitasuna hedatzen zuen, elgarrekilakoa hausten; arno saltzaleak, gai horietan gauza guti entzunez, oharr-arazi zuen gora-gora itsuskeria ainitz ahazten zuela:

- “Ipharreko burdin-bideko erret-bagonak lauretan hogeit mila libera balio dituzke! Nork pagatuko du?”

- “Ba, nork pagatuko?” egin zuen berriz salerospeneko artekariak, diru hori haren sakelan hartua izana baliz bezain erotua.

Jarraiki ziren Molsako lakoinen alderako eta funtzionarien usteltasunaz gaitzerraiteak. Gorago igan behar zen, Senecal-en ustez, eta salatu, lehen lehenik, printzeak, Erreienziako bizi-moldeak berphizten baitzituzten.

- “Eztituzue ikusi, azkenik, Montpensier-ko dukearen adixkideak Vincennes-tik itzultzen, mozkorrak iduriz, eta bere kantuez San-Antonio-ko hiri-bazterreko langilen okaztatzen?”

- “Oihukatu da ere: Ohoinak behera!” erran zuen botikarioak. “Han nintzan! Oihu egin dut!”

- “Hobe! azkenean Jendaldea atzartzen ari da Teste-Cubières-en auziaz geroztik.”

- “Eni, auzi horrek bihotzmina eman dauta,” erran zuen Dussardier-ek, “egiazko soldado bat desohoratzen duelakotz!”

- “Badakizue,” jarraiki zuen Senecal-ek, “zer den aurkitu Praslingo dukesaren etxean...?”

Baina ostiko batek athea ideki zuen. Hussonnet sartu zen.

- “Agur, enejaunak!” egin zuen ohe gainean jarriz.

Haren artikulua etzen batere aipatu, eginik dolu baitzuen bertzela ere, Marexalsak erasia gorriak eginik.

Ikusi berria zuen, Dumas-en antzokian, *Etxegorriko Zalduna*, eta “nardagarri zizakon.”

Horrelako aburuak demokratak ustegabetu zituen, - drama horrek, entzutera uzten zuenetik, gertakarien aro-ingurunetarik gehiago, haien sendimendu biziak lausengatzen baitzituen. Oihuz hasi ziren. Senecal-ek, bururatzeko, galdegin zuen antzertiak Demokrazia zerbitzatzen zuenez.

- “Bai..., behar bada; baina badu estilo bat...”

- “Eta zer, hori ontsa ona da, bada; estiloa zer da? gogamena da!”

Eta, Federik mintzatzera utzi gabe:

- “Banion, beraz, Praslin-en gertakarian...”

Hussonnet-ek moztu zuen.

- “Ha! horra oraino terrenta bat, hori! Enauenez okaztatzen!”

- “Eta zutaz bertze batzu!” ihardetsi zuen Deslauriers-ek. “Eztitu bortz egunkari baino gutiago harr-arazi! Entzun ezatazue ohar hau.”

Eta, bere karneta atherarik, irakurri zuen:

- “Jasan ukanak ditugu, errepublika hoberena jarriz geroztik, kazetaritzako hamabi ehun hogeita bederatzi auzi, hortik ondorioztatu baitira idazlendako: hirur mila, ehun eta berrogeita bat urte presondegi, zazpi miliun, ehun eta hamar mila eta bortz ehun libera isunen diru ttipiarekin. - Polliki da, ez?”

Guziak saminki irrikarkaratu ziren. Federikek, bertzeak bezain suhartua, egin zuen berriz:

- “*Bakezko Demokraziak* badu auzi bat elaberri aldikatuarendako, *Emazten Zatia* izenburukoal!”

- “Goazen! ontsa!” erran zuen Hussonnet-ek. “Emazten zati gurea debekatzen badaukute!”

- “Baina zer ezta debekatua?” egin zuen Deslauriers-ek. “Luxembourg-ean pipatzea debekatua da, Pio IX-garrenaren himnoa debekatua da!”

- “Eta irarkarien aphairea debekatzen da!” ahozkatu zuen mintzo lodi batek.

Etxegilearena zen, ohetegiko itzalean gordea, eta ordurano ixilik egona. Gaineratu zuen kondenaturik izana zela, aitzineko astean, Erregeren laidoztatzez, Rouget izeneko bat.

- “Rouget ziphil-gorritua da!” erran zuen Hussonnet-ek.

Atheraldi hori hain behar ez bezalakoa iduritu zizakon Senecal-i nun erasiatu baitzuen “hiriko etxeko jauzikaria, Dumouriez saltzalearen adixkidea” zaintzen zuelakotz.

- “Nik? alderantziz!”

Luis-Filipe phizu aurkitzen zuen, “zainlari nazional”, izan zaitekeen bezain epizier eta gotoinezko xano! Eta, eskua bihotzean ezarriz, mutiko arinak errepikatu zituen erranaldi ospedunak: - “Atsegin berri batekin dut beti... - Nazionalitate polonesa ezta galduko... - Gure lan handiak jarraikiko dira... - Dirua emadazue ene familia ttipiarendako...” Guziak irri handitan ari ziren, putiko hauta zela erranez, izpirituz betea; bozkarioa bikundu zen limonadari batek zekarren “punch” gatiluaren ikustean.

Alkoholaren suek eta zirioenek bizitegia laster berotu zuten; eta hegaztegipeko argiak, korroilan harat, argitzen zuen aitzinean hegaztegi baten izkina, gauan beltzik zutitzen zen khebide baten tutarekin. Azkarki gora mintzo ziren, oro batean; maripulisak utzirik, mubleak jaitzen zituzten, basoak koskatzen.

Hussonnet-ek egin zuen:

- “Igan-arazkitzue andere handiak, Nesle-ko Dorre bat izan dadin, herriko moldean, eta “rembrandt-tar”, alajinkoa!”

Eta botikarioak, punch-aren itzultzen ari zela gelditu gabe, hasi zuen bular betez:

Barrokian baditut bi idi

Bi idi handi kopeta zuri...

Senecal-ek eskua aho aitzinean ezarri zaukon; desordenua etzuen maite; eta alokariak bere berinetan agertzen ari ziren, Dussardier-en bizitegian egiten zen harramantza ohigabeko hortaz ustegabetuak.

Mutiko gaizoa zorionean zen, eta erran zuen horrek lehenagoko besta ttipiak orhoit-arazten zauzkola, Napoleon kaian; batzu etziren hor alta, horrela “Pellerin...”

- “Gabe egon daiteke,” egin zuen Federikek.

Eta Deslauriers-ek galdegin zuen Martinon-en berri.

- “Zer bilakatzen ari da, Jaun ohargarri hura?”

Berehala Federik, haren aldera zuen gogo gaixtoa ixuriz, jaukitu zizakon haren izpirituari, jiteari, aphantasun alegiazkoari, zen guziari. Zinez laborari helduaren erakuskaia zen! Aristokrazia berriak, burjesiak etzuen zaharra balio, noblezia. Hori zion, eta demokratek esku-zartatzen zuten, - hura hortakoa izana baliz bezala eta hek bertzearekin ibiliak. Hartaz loriatuak izan ziren. Botikarioak gomparatu zuen ere Alton-Shée-ko Jaunari, hunek, nahiz Frantziako pare, Jendearen alderdia zaintzen baitzuen.

Abiatzeko ordu zen. Guziak berexi ziren esku tinkatze handi batzuekin; Dussardier-ek, amultsutasunez, Federik eta Deslauriers lagundu zituen. Karrikan izan zireneko, abokatak gogoetatzeko itxura hartu zuen, eta, ixil ephe baten ondotik:

- “Pellerin-i biziki aiher hako, beraz?”

Federikek etzuen bere gorromioa gorde.

Margolariak, bizkitartean, margazki aipatu hura erakus-lekutik ekhendua zuen. Etzen ezteuskeria batzuekako samurtu behar! Etsai baten egiteak zer balio zuen?

- “Omore aldi batera utzi dik bere burua, desenkusagarri dena sos bat eztikan gizon baten baitan. Hori ezin entzun dezakek, hik!”

Eta, Deslauriers bere etxera igan eta, komisak etzuen Federik utzi: sustatu zuen ere potretaren erostera. Alabaina, Pellerin-ek, haren lotsatzeaz etsiturik, bertzeak bilduak zituen, haier esker, gauza eros zezan.

Deslauriers-ek ere berriz aipatu zuen, hisitu zen. Edergileak nahi zuena arrazoinean zen.

- “Segur nuk, bortz ehun liberarekin, behar bada...”

- “Ha! emazkik! to, horra,” erran zuen Federikek.

Arratsean berean, marrazkia ekharria izan zen. Lehen aldian baino ere higungarriago iduritu zizakon. Margo-erdiak eta itzalak berunduak ziren usuegi berriz hunkiaren bortxaz, eta ilunduak iduri zuten argien araura, hauk dirdiran gelditurik han hemenka, gaizki emaiten baitzuten guziari behatuz.

Federik hura ordaindua ukanaz mendekatu zen, saminki gaitzerranez. Deslauriers-ek erranean sinetsi zuen eta haren eginara onhartu, ezen bazuen beti buruzagi izanen zen batasun baten moldatzeko nahikaria; gizon batzu bozten dira gozagaitz zezteen gauza batzu bere adixkider egin-araziz.

Bizkitartean, Federik etzen Dambreuse-tarren etxera itzulia. Diruak huts egiten zaukon. Argi emaitak etzuten burutzerik ukanen; deliberatzeko zalantzan zagon. Arrazoin zuena behar bada? Segurrik jeus etzen orai, ikatzetako gauza ez bertze bat baino gehiago; mundu hori utzi behar zen; azkenik, Deslauriers-ek egintza hortarik baztertu zuen. Hau, herra ukanaren bortxaz bertutera itzultzen ari zen; eta Federik nahiago zuen bien artekotasun batean ikusi. Horrela, haren heinean zagon, eta harekin gogo batasun minagoan.

Roque Andereñoaren komisionea biziki gaizki egina izana zen. Aitak hori izkiriatu zuen, behar ziren argitasun guziak emanek, eta eskutitza hitz hautarik bururatzen zuen: “Beltz baten nekearen zuri emaiteko irriskutan.”

Federiketik etzezakeen Arnoux-tarren etxera itzultzeaz bertzerik egin. Saldegirat igan zen, eta etzuen ehor ikusi. Sal-erospeneko etxea hondatzera baitzoan, langilek nagusiaren axolagabe bera zuten.

Faianzeriaz estalia zen taulada luzearen sahetsetik joan zen, bizitegiaren erdia buru batetik bertzera hartzen baitzuen; gero, zolara heldurik, khondu-mahiaren aitzinean, urratsa azkartu zuen bere buruaren entzun-arazteko.

Athe-oihala goititu zen, Arnoux Anderea agertu.

- “Nola, zu hemen! zu!”

- “Bai” ahopiatu zuen, apur bat nahasia. “Bilatzen nuen...”

Haren mokanesa ikusi zuen izkiriatzekoaren gainean, eta asmatu senarraren baitara jautsia zatekeela zerbaiten jakiteko, goganbehar baten argitzeko.

- “Baina... zerbaiten beharretan zira agian?” erran zuen.

- “Deus bat, anderea.”

- “Komis hauk ezin jasanak dira! beti joaiten.”

Etziren erasiatu behar. Alderantziz, gertaldiaz goresten zen.

Irkaitzekin so egin zaukon.

- “Eta beraz, ezkontza hori?”

- “Zein ezkontza?”

- “Zurea!”

- “Ni? Ez behin ere!”

Andereak sinesten etzuelako jestu bat egin zuen.

- “Hala baliz ere, ororen buruan? Bien artekora joiten da, amestu den ederrenaren etsipenez!”

- “Zure amets guziak etziren, alta, hain... xuriak!”

- “Zer erran nahi duzu?”

- “Zaldi-lasterretan bazinabilalarik... jende batzuekin!”

Federikek Marexalsa madarikatu zuen. Orhoitzapen bat jin zizakon:

- “Baina zuhaurek zinautan, lehenago, ikus nezan othoiztu, Arnoux-en abantailetan!”

Ihardetsi zuen burua higituz:

- “Eta hortaz baliatzen zira libertitzeko.”

- “Jainkoa! ahatz ditzagun zozokeria horiek oro!”

- “Zuzen da, ezkontzen zirenaz geroz!”

Eta bazatxikan hasperen bat, ezpainak ausikiz. Orduan, Federikek egin zuen:

- “Baina berriz diotzut ezetz! Sinets dezakezua, ni, ditutan adimenduko beharrekin, ohidurekin, banindoakeela probinzian ehorztera karta jokoan artzeko, hargin batzuer guardia emaiteko, ete eskalapoinekin ibiltzeko! Zer xedetan, orduan? Errana dautzute anderea aberatsa dela, eztea hala? Ha! ontsa trufatzen niz diruaz! Ederra den guzia, samurra den guzia, lilluragarri den guzia, jende itxurako parabisu molde bat gutziatu ondoan, eta azkenean, ametsetako hori aurkitua dutanean, ikuspén horrek bertze guziak itzaltzen dauztalarik...”

Eta hari burua bi eskuetan hartuz, hasi zizakon betespaletan musu emaiten, errepikatuz:

- “Ez! Ez! Ez! ehoiz eniz ezkonduko! ehoiz! ehoiz!”

Phereku horiek onhartzen zituen, ustegabeak eta xoratzeak balditua.

Saldegiko atheak mailaldean jo zuen. Jauzi bat egin zuen; eta bazagon eskua luzaturik, ixil zadin hari manatzeko bezala. Urrats batzu hurbildu ziren. Gero norbaitek kampotik erran zuen:

- “Anderea hor da?”

- “Aitzina!”

Arnoux Andereak ukondoa khondu-mahian ezarria zuen eta luma bat erhien artean itzulikatzen, eztiki, liburuzainak athe-oihala ideki zuenean.

- “Anderea, badut zure agurtzeko ohore handia. Zerbitzua, eztea hala, prest izanen da? segur izan nizateke?”

Etzuen ihardetsi. Baina elgar entzute ixil horrek aurpegia sutan ezarri zaukon ezkontza hauste bateko gorridura guziekin.

Biharamunean Federik haren etxera itzuli zen, onhartua izan; eta, bere abantailetan aitzinatzeko, berehala, aitzin-solasik gabe, Champ-de-Mars-ko aurkitzeaz bere buruaren xuritzetik hasi. Halabeharrak bakarrik zuen emazte harekin gerta-arazia. Pollita zela onhartuz ere (egia etzena), nola gogoia atxik ahal zezokeen, minuta batez ere, bertze bat maite zuenaz geroz!

- “Ontsa badakizu, errana dautzut.”

Arnoux Andereak burua behehitu zuen.

- “Zuk hori erranik gaitzitu niz.”

- “Zergatik?”

- “Orai ikustate xoilenek nahi dute gehiago ikus etzindezatan!”

Federikek bere maitasunaren onestasuna goraki erran zuen. Iragana geroaren berme zen; bere baitan hitzeman zuen biziak etzaukola nahasiko, etzuela bere zinkurinez burxoratuko.

- “Baina, atzo, bihotza gainditzen zizatan.”

- “Eztugu gehiago ordu hura buruan ukan behar, ene adixkidea!”

Bizkitartean, gaitza nun lizatake bi jende gaixoek bere bihotz-mina elgarretaratzen balute?

- “Ezen etzira ere zorionean! Oi! ezagutzen zitut, ehor eztuzu zure maitasun eta atxikimendu beharrer ihardets dezakeenik; nahiko duzun guzia eginen dut! Etzitut laidoztatuko!... zin egiten dut.”

Belhauriko erori zen, nahigabea, barneko zama phizuegi baten azpian.

- “Xuti zaitel!” erran zuen, “nahi dut!”

Eta erran zaukon lardeki, obeditzen ezpazuen, ehoiz gehiago etzuela ikusiko.

- “Ha! hortan desafiatzen zitut bada!” egin zuen berriz Federikek. “Zer egiteko dut munduan? Bertzeak egin ahal ari dira aberasteko, aiphameneko, botherearendako! Nik, kargurik eztut, ene egiteko bakarra zu zira, ene fortuna guzia, ene biziko, ene gogoetetako erdigunea! Zu gabe enaie bizi zeruko airea gabe baino gehiago! Eztuzua senditzen ene arimaren hatsa zurearenera igaiten, eta elgarrekin urtu behar dutela, eta hortaz hiltzen ari nizala?”

Arnoux Anderea soin guziaz ikharatzen hasi zen.

- “Oil zoaz! othoi!”

Haren begitarteko itxura lastimatuak geldi-arazi zuen. Gero urrats bat egin zuen. Baina hark gibelera egiten zuen, bi eskuak elgarretaratuz.

- “Utz nezazu! Jainkoaz! othoi!”

Eta hainbertze zuen maite Federikek, nun athera baitzen.

Laster, bere buruaren kontra haserreak hartu zuen, zozo bat zela aithortu, eta, hogeita laur oren berantago, berriz itzuli zen.

Anderea etzen han. Mailartean egon zen, haserrez eta suminduraz burxoratua. Arnoux agertu zen, eta ikasi zaukon emaztea, goizean berean, joana zela Auteuil-en alokatzen zuten baserriko etxe ttipi batean jartzera, ezpaitziren gehiago Saint-Cloud-koaren jabe.

- “Haren burutaldietarik bat da oraino! Orogen buruan, ontsa baldin bazako! eta eni ere bertzela; hobe! Elgarrekin auhaltzen girea gaur?”

Federikek eman zuen egiteko lehiatu baten estakurua, eta Auteuil-era laster egin zuen.

Arnoux Anderea bozkariozko oihu bat egin zuen. Orduan, Federikek zuen gorromio guzia ezeztatu zen.

Etzen bere maitasunaz batere mintzatu. Hari konfienxiaren emaiteko, neurrian egoitea handiegitu zuen ere; eta, berriz jiten ahal zenez galdegin zuenean, ihardetsi zuen: “Baina segurki”, eskua eskainiz, abantzu berehala gibeleratu zuena.

Federikek, ordutik, ikustaldiak gehitu zituen. Karrosazainari eskupeko gotorrak hitzemaiten zauzkon. Baina zaldiaren urriak khexatzen zuen, jausten zen; gero, hatsa galdua, onibuz batera igaiten; eta zenbat erdainurekin ikertzen zituen aitzinean jarriak ziren jenden begitarteak, haren etxera etzoazinenak!

Haren etxea urrundik ezagutzen zuen hegaztegiko taulak, alde bakar batean, estaltzen zituen gaitzeko ahuntzorsto batetik; halako etxola suizatar bat zen gorriz margoztatua, kampakoko galeria batekin. Baratzean baziren hirur itsas-gaztenondo zahar, eta erdian, munoxka baten gainean, lastozko ekitako bat zuhatz-ondo batek zadukana. Harresietako arbelaren azpian, mahatsondo lodi gaizki lotu bat dilindan zagon lekuka, estekagailu usteldu bat bezala. Burdin-sareko xilintxak, thiratzeko apur bat gogorra, bere soinua luzatzen zuen, eta norbaiten jitea beti luze zen. Aldi oroz, herstura bat sendi zuen, halako beldur bat.

Gero entzuten zituen, ondartzan, sehiaren xapinak klaxkatzen; edo Arnoux Anderea bera zen agertzen. Egun batez Federik haren

bizkarrerano ethorri zen, kokorikatua baitzagon, soropilean, briolet baten biltzen.

Alabaren omoreak bortxatua zuen komentu batean ezartzera. Mutikoak arratsaldea ikastetxe batean zeraman, Arnoux-ek bazkari luze batzu egiten zituen Erret-Palazioan, Regimbartekin eta Compain adixkidearekin. Han etzezazkeen okhaztagarri nehork ustegabez hatzeman.

Ontsa onhartua zen etzutela bat bertzeaz jabetu behar. Hitzharmen horrek, lanjerretik segurtatzen baitzituen, solastatzeak errexten zezteen.

Hark Federiki erran zauzkon lehenago Chartres-en, amaren etxean, ukana zuen bizia; erlisionekeo deboziona hamabi urte inguruan; gero musikako erotasuna, gaurano kantuz ari zenean, bere gambara ttipian, handik ageri baitziren hiriko harresiak. Hunek hari kondatu ikastetxeko bihotz-ilundurak, eta bere zeru poetikoan emazte begitarte bat nola argitan agertzen zizakon, hala nola nun ikusi zuen lehen aldian ezagutua baitzuen.

Solas horiek etzituzten, ohian, elgarrekin gertatuak ziren urteak baizik hartzen. Federikek orhoit-arazten zuen xehetasun ezteus batzuez, holako orduan ukana zuen zaia baten margoaz, egun batez nor ethorri zizeen, bertze aldi batez zer zuen errana; eta ihardesten zuen loria osoan:

- “Ba, orhoitzen niz!”

Gostuak, aburuak berdinak zituzten. Usu bertzea entzuten zuenak egiten zuen:

- “Nik ere!”

Gero Probidenziaz deithoratze ezin mugatu batzu ziren:

- “Zergatik eztu zoriak nahi ukan! Elgar aurkitu ukan baginu!...”

- “Ha! gazteagoa izan baninz!” egiten zuen hark hasperen batekin.

- “Ez! ni, apur bat zaharragoa.”

Eta asmatzen zuten bizi bat osoki maitasunari emana, bakartasun handienen betetzeko aski emankorra, zituzten bozkario guziak gaindituko zituena, miseriak oro desafiatuko, hartan orenak ezeztatuko zirena elgarren arteko solastatze ethengabea, eta izarren dirdira bezalako zerbait distiratzale eta gora ukanen zuena.

Abantzu beti aire betera zauden mailen gainaldean; larrazkenak horitu zuhatzen kukulak aitzinean biribiltzen zizezteen, ez oro berdin, zeru xurailaren bazterrerano; edo bazoazin ibilbidearen bururano, muble orotako oihal hautsaranezko kanape bat zuen etxola batera. Mirailan

baziren tita beltz batzu; harresiek bazarioten mutzi usain bat; - eta hor zauden, elgarretaz elheketa, bertzetaz, zer nahitaz, xoramenekin. Batzuetan, iguzkiaren arraiek, leiho-sarean barna, hedatzen zituzten gainetik lauzadarano lira baten zurdak, errauts ilhaun batzu itzulikatzen zirela marra argitu horietan. Hura horien hausten jostatzen zen, eskuaz; - Federikek hartzen zaukon, eztiki; eta bazagon zainen gurutzatzeari beha, larruaren itxurari, erhien moldeari. Haren erhi bakoitza, Federikendako, gauza bat baino gehiago zen, abantzu norbait.

Eskularruak eman zauzkon, ondoko astean mokanesa. Bazeritzon “Federik”, hunek “Maria”, izen hori adoratzeko baitzuen, bereziki egina, zionaz, xoramenduan hasperenez erraiteko, iduri baitzuen bazaduzkala isensuzko lanhoak, arrosa ihaurdurak.

Ikustaldi egunen jartzera aitzinetik heldu ziren; eta, hala beharrez bezala jaigitzen zela, bazaoan, bidean, Federiken aitzinera.

Hunen maitasunaren sustatzeko ezer etzuen egiten, zorion handiek erakusten duten axolagabe hartan galdua. Urtaro oso hartan, zeta beltzaranezko gambarako arropa bat ukan zuen, balusa berdina bazterretan, soineko zabala eta haren egonara gurier eta begitarte serioari ontsa emana. Bertzela ere, emazten agorrilera hunkitzen zuen, aldi berean gogoetatzeko eta samurtasunezko aroa, orduan hasten ari den adinera heltzeak behakoa gar barnatuago batez margoztatzen baitu, bihotzaren indarra biziaren ezagutzarekin nahasten denean, eta, idekitzeko azken aldietan, izaite osoa aberastasunez gainditzen baita ederraren beteginean. Ehoiz etzuen eztitasun gehiago, urrikalmendu gehiago ukanik. Huts eginen etzuela segurrean, bere burua uzten zuen bere griñekin irabazia zuen dretxoa zela uste zuen sendimendura. Izanara hori hain zen on, bertzela ere, eta hain berri! Zer leze hondagabea Arnoux-en arruntasunaren eta Federiken adorazioen artean!

Hau ikharan zagon irabazia uste zuen guzia hitz batez gal beldurrean, bere buruari erranez gertaldi bat berriz hatzeman daitekeela baina ez zozokeria bat. Nahi zuen hark bere burua eman zezan, baina ez berak hartu. Hark maite zuelako segurtasunak goxatzen zuen jabetzearen aitzin-gostu batek bezala, eta ere haren baitako gustagarriak bihotza hunkitzen zaukon sensuak baino gehiago. Dohastasun ezin mugatu bat zen, halako burxoratze bat zorion osoa izan zaitekeela ere ahazten baitzuen. Haren ganik urrun, gutizia erotu batzuek hartzen zuten.

Laster izan ziren haien solasetan ixil arte handi batzu. Batzuetan, halako sesuaren ahalge batek gorri-arazten zituen bat bertzearen

aitzinean. Maitasunaren gordetzeko egiten zituzten guziek agerian emaiten zuten; hura azkarrago, eta haien arak neurtuago. Horrelako gezurrean bizitzearekin, sendikortasuna sumindu zizeen. Atseginekin goxatzen ziren orsto hezen usainaz, iguzki-haizeaz oinazetan ziren, bazituzten arrazoin gabeko khexu batzu, aitzin-beldur ilun batzu; urrats baten harrabotsak, zureriako kraska batek emaiten zezteen ogendun izan balire bezalako laztak; leze batera bultzatuak sendi ziren, ekaitz aro batek inguratuak; eta, Federik arranguratzera baldin bazoan, hark bere burua zuen salatzen:

- “Bai! gaizki ari niz! neska aphaindu baten itxura dut! gehiago etzaitela jin bada!”

Orduan Federikek berriz zin egiten zuen, - eta hark aldi oroz atseginekin entzuten zuen.

Parisera itzultzeak eta urthatseko trabek apur bat hautsi zituzten haien ikustaldiak. Federik hara itzuli zenean, bazuen, ibileretan, atrebituagoko zerbait. Hura minuta oroz manu emaitera jalgitzen zen, eta hartzen zituen, Federikek othoiztua ukanik ere, ikustera heldu zitazkon burjes guziak. Orduan emaiten ziren solasaldi batzuetara Leotade-ek, Guizot Jaunaz, Aitasainduaz, Palermako jazarraldiaz eta XII-garren arrondizamenduko aphairuaz, hunek goganbehar batzu sortzen baitzituen. Federik arintzen zen Botherearen kontra erasiatuz; ezen, Deslauriers-ek bezala, orotako iraultze bat agiantzatzen zuen, hain zen orai mingartua. Arnoux Anderea ere, bere aldetik, gogo-iluntzen ari zen.

Senarrak, zorakerietan barreatuz, landegiko emazte bat hartua zuen eta ordaintzen, Bordelesa zeritzoten hura. Arnoux Andereak berak ikasi zaukon Federiki. Hunek nahi zuen hortik arrazoin bat athera “huts egiten zizakonaz geroz”.

- “Oi! eniz hortako biziki nahasten!” erran zuen.

Hitz horrek etxekotasuna azkartzen zauetela iduritu zizakon. Arnoux zerbaitez jelosten ote zen?

- “Ez! ez orai!”

Federiki erran zaukon arrats batez buruz buru utziak zituela, gero itzulia zela, athe gibeletik entzuten egona, eta, biak baliogabeko gauza batzuez mintzo baitziren, bizi zela, geroztik, segurtasun osoan.

- “Arrazoinekin, eztea hala?” erran zuen saminki Federikek.

- “Bai, dudarik gabel!”

Hobeki egina ukanen zuen ezpalu horrelako hitz bat irriskatu.

Egun batez, hara jitea ohi zuen orduan etzen etxean gertatu. Trahitze bat bezala izan zen Federikendako.

Gero khexatu zen ikusiz ekhartzen zituen liliak beti baso bat uretan ezarriak.

- “Nun nahi duzu bada ezar ditzatan?”

- “O! ez hor! bertzela ere, zure bihotzaren gainean baino gutiago hotzean dira.”

Ondoko egun batez, erasiatu zuen bezperan Italianoen antzokian izanik, hari jakin-arazi gabe. Bertze batzuek ikusia zuten, miretsia, maitatua behar bada; Federik aieru horier lotzen zizeen bakar-bakarrik hari erasia egiteko, haren khexa-arazteko; ezen hastiatzen hasia zen, eta sendi zituen oinazetan hark ere barne izan behar zuen, bederen!

Arratsalde batez (otsail erditara), biziki hunkia hatzeman zuen. Uxen zintzurreko minez khexu zen. Medikiak jeus etzela erran zuen alta, marranta gotor bat, gripa. Federik ustegabetua izan zen haurraren itxura burxoratuaz. Ama segurtatu zuen hala ere, behazunetako emanaz haren adineko haur andana bat aipatu eritasun berdinak ukanak zituztenak eta laster sendatuak.

- “Zinez?”

- “Baina ba, segurki!”

- “O! zein ona ziren!”

Eta Federiki eskua hartu zaukon. Hunek berean tinkatu zuen.

- “Utzatzu!”

- “Zer axola du, konsolatzaleari eskaintzen daukozunaz geroz!... Gauza horiendako sinesten nauzu bada, eta nitaz dudatzen duzu... ene maitasunaz mintzo nizazunean!”

- “Eztut dudatzen, adixkide gaixoa!”

- “Zergatik mesfidanza hori, gaizki egiteko gai den ezteus bat baninz bezala...”

- “O! ez!...”

- “Lekukotasun bat baldin banu bederen!...”

- “Zein lekukotasun?”

- “Datorren lehenbizikoari eman laitekeena, zuk nihauri emana dautazuna.”

Eta orhoit-arazi zaukon aldi batez elgarrekin atheraiak zirela, neguko ilunabar batez, lambroa bazen aro bat. Hori guzia ontsa urrun zen, orai! Zerk zaukon bada debekatzen bere buruaren erakustea haren

besoan jende guziaren aitzinean, berak beldurrik ukan gabe, eta hark gibel-asmurik gabe, inguruan nardagarririk nehor ukan gabe?

- “Biz hala!” erran zuen, Federik balditu zuen deliberamenduzko kuraia batekin.

Baina hunek berehala egin zuen:

- “Nahi duzua Tronchet karrikaren eta Ferme-koaren izkinan igurika zaitzatan?”

- “Jainkoa! adixkidea!...” ahopiatu zuen Arnoux Andereak.

Gogoetatzeko astirik utzi gabe, Federikek gaineratu zuen:

- “Heldu den asteartean, uste dut?”

- “Asteartean?”

- “Ba, biak eta biak et’ erdi artean!”

- “Han izanen niz!”

Eta begitartea itzuli zuen, ahalgezko mogimendu batean; Federikek ezpainak ezarri zauzkon garondoan.

- “Ho! ezta hori ontsa,” erran zuen. “Dolu-araz nindezazuke.”

Federik baztertu zen, emazten higikortasun ohikoaren beldurrean. Gero, alhazean, murmurikatu zuen, eztiki, gauza hitzhartu bat bezala:

- “Astearte arteo!”

Hark begiak behehitu zituen gauza lañoki onhartuz bezala.

Federikek bazuen asmu bat.

Uste zuen, euriari edo iguzkiari esker, athe baten azpian geldiaraziko zuela, eta behin athearen azpiratuz geroz, etxera sartuko zela. Nekea behar bezalako baten hatzemaitea zen.

Bila abiatu zen beraz, eta, Tronchet karrikaren erditsutan, urrundik irakurri zuen, iragarki batean, *Bizitegi mubleztatuak*.

Mutilak, xedea zer zuen ikusiz, erakutsi zauzkon berehala, estai-artean, gambara bat eta gabinet bat bi atherekin. Federikek hartu zuen ilabete batendako eta aitzinetik ordaindu.

Gero hirur saldegietara joan zen usain-oneria arraroenaren eroatera; gipura falsu zati bat hatzeman zuen gotoin gorrizko oin-estaldi itsusiaren orde ezartzeko, satin urdinezko xapin pare bat hautatu; ausartegi agertzeko beldur hutsak neurtu zuen eroste horietan; ekharri zituen: - eta sakramendu sainduaren aldareak egiten dituztenak baino debozione gehiagorekin, mubleak lekuz aldatu zituen, erridauak berak izurtu, khebidean ilhartzeak ezarri, komodaren gainean brioletak; gambara nahiko zuen urrez lauazadatu. “Bihar da,” zion bere buruari, “ba, bihar! eniz ametsetan ari.” Eta sendi zuen bihotza ukaldi handika joiten

esperanza ero hortan; gero, oro prest izan zenean, giltza sakelan ereman zuen, zoriona, hor lo zatzana, hegaldatzen ahal izana baliz bezala.

Amaren eskutitz bat bazuen etxean.

“Hemen ez izaite luze hori zergatik? Hire egin-moldea irriegangarri agertzen ari duk. Onhartzen diat, neurri batean, ezkontza horren aitzinean zalantzan egona hizala hastapenean; bizkitartean gogoeta egik!”

Eta gauzak xeheki emaiten zituen: berrogei-ta bortz mila libera arranda. Bertzela ere, “solasean zen”; eta Roque Jauna ihardespen garbi baten beha zagon. Andere gazteaz aldiz, haren egonara zinez eragozpengarria zen. “Biziki maite hau.”

Federikek eskutitza utzi zuen bururatu gabe, eta bertze bat ideki, Deslauriers-en hitz bat:

“Gaizoa,

Madaria ondua duk. Hitzemana dukanaren araura, hire beha gaudek. Bihar goizaldera biltzen gituk, Pantheon-go plazan. Soufflot kafean sar hadi. Karrikaratzea baino lehen mintzatu behar haut.”

- “Oi! ezagutzen ditut, horien karrikaratzeak. Esker mila! Hitzarmen goxoago bat badiat.”

Eta, biharamunean, hameketako, Federik jalgia zen. Antolamenduer azken behako bat eman nahi zauen; eta gero, nork daki, halabehar zenbaiten gatik, aitzinean izan zaitekeen? Tronchet karrikara heltzean, oihukatze handi bat entzun zuen Madalenako gibelean; eta ikusi zituen plazaren zolan, ezkerretik, jende batzu taulierrekin eta burjes batzu.

Alabaina, egunkarietan agertu aithormen batek ekharr-araziak zituen gune hortara aphairu erreformixtako izena emana zuten guziak. Minixterioak, abantzu berehala, debekatzen zuen erabaki bat iragartua zuen. Bezpera arratsean, alderdi kontrako deputatuek amor emana zuten; baina herritarrak, buruzagien delibero hori ezpaitzuten ezagutzen, hitzartu lekura ethorriak ziren, ikus-nahi andana handi bat gibeletik. Ikastetxetako mezulari alde bat joana zen orduan berean Odilon Barrot-en etxera. Orai Atzerrietako Egitekoetan zen; eta jendeak etzakien aphairia eginen zenez, Gobernamentuak bere mehatxua beteko zuenez, zaintzale nazionalak agertuko zirenez. Khexu zen Deputatuen aldera Botherearenera bezenbat. Jendaldea gero eta gehiago handitzen ari zen, airean bapatez *Marseillaise*-aren errepikak jo zuenean.

Ikaslen multzoa zen ethortzen ari. Urratsean heldu ziren, bi lerrotan, ordenu onean, itxura haserre, eskuak hutsik, eta orok artetan oihukatuz:

- “Gora Erreforma! lurrera Guizot!”

Federiken adixkideak hor ziren, segurki. Ikusiko zuten eta eremanen. Arcade-ko karrikara gerizatu zen bizi-bizia..

Ikaslek bietan egina ukan zutenean Madalenako itzulia, Kondordiako plazara buruz jautsi ziren. Jendez betea zen; eta jendalde metatuak iduri zuen, urrundik, zalantzatzen ziren buruxka beltzezko landa bat.

Ordu berean, armadako soldado andana bat guduko moldean lerrokatu zen, elizaren ezkerretik.

Jende multzoak geldituak ziren, bizkitartean. Bururatzeko, poliziako gizon batzuek burjes jantzitan hartzen zituzten jazartuenak eta poliziategira eremaiten, bortizki. Federik, sumindua izana gatik, ixil-ixila egon zen; bertzeekin batean hartua izaiten ahal zen, eta Arnoux Anderea huts eginen zuen.

Ephe guti berantago, agertu ziren hiriko zaintzalen kaskak. Inguruan joka ari ziren, sabreko zabalaz ukaldika. Zaldi bat erori zen; hari sokorri emaitera laster egin zen, eta, zalduna zaltokian izan zeneko, orok ihes egin zuten.

Orduan, ixil handi bat izan zen. Eurixka, mundruna bustia zuena, etzen gehiago ari. Hedoi batzu bazoazin, mendebal haizeak eztiki eremanak.

Federik hasi zen Tronchet karrikan ibiltzen, aitzinera eta gibelera behatuz.

Bi orenak azkenean jo zuten.

“Ha! orai da!” egin zuen bere baitan, “etxetik jalgitzen ari da, hurbiltzen;” eta, minuta bat berantago: “Jiteko astia ukanen zuen.” Hirur orenetarano, jabalik egoitera entseatu zen. “Ez, eztu beranta; pairamen apur bat!”

Eta, zer egin ez jakinez, ziren saldegi bakarrer beha zagon: liburu saltzale bat, zelagin bat, dolu-jantzi egile bat. Laster jakin zituen liburuen izen guziak, harneseriak, oihalak. Saltzaleak, ethengabe joaiten eta jiten ikusiaren bortxaz, ustegabetuak izan ziren lehenik, gero izituak, eta aitzindegiak hetsi zituzten.

Anderea zerbaitek trabatzen zukeen, agian, eta hortaz dolu zukeen ere. Baina zer bozkarioa sarri! - Ezen ethorriko zen, hori segur!

“Hitzemana dauta bada!” Bizkitartean, ezin jasanezko herstura batek hartzen ari zuen.

Arrazoingabeko mogimendu batez, hotelean sartu zen, han izana ahal baliz bezala. Ordu hartan berean, karrikan heldu zen behar bada. Hara jauzi egin zuen. Nehor ez! Eta berriz hasi zen oinbidean ibiltzen.

Ikertzen zituen lauzaden artekak, ithaxuretako mokoak, gabargiak, athe gainetako zenbakiak. Den gauza ttipienak lagun bilakatzen zizazkon, edo izaitekotz irkaitzekin ikusle; eta etxetako aitzinalde berdinak urrikgaitz iduri zizazkon. Oinak hoztuak zituen. Lehertzez urtzen ari zela sendi zuen. Urratsen joiteak buru-munak inharrosten zauzkon.

Sakel-orenean laurak ikusi zituenean, burxoratze bat bezala senditu zuen, lazta bat. Neurtitz erraitera entseatu zen, zer nahiren karkulatzer, ixtorio baten asmatzera. Ezin zen! Arnoux Anderearen itxuraz hartua zen. Haren aitzinera laster egiteko gutizia zuen. Baina ez huts egiteko zein bide har?

Komisionari baten gana joan zen, eta eskuan bortz libera ezarririk Parabisuko karrikara joan zadin othoiztu zuen, Jacques Arnoux-en etxera, athezainari “Anderea etxean zenez” galdegitera. Gero La Ferme eta Tronchet karriketako izkinan zutik eman zen, aldi berean bietan ikusteko moldez. Urrunera ikusten zuenean, karrika handian, meta ilun batzu lerratzen ziren. Berexten zuen batzuetan dragon baten kukurusta, emazte xapel bat; eta begiak harmatzen zituen *haren* ezagutzeko. Musar bat, untzi batean, erakusten zuen haur philtzarrez jantzi batek elemosina eskatu zaukon irriño batekin.

Balusazko maripulisarekilako gizona berriz agertu zen. “Athezainak etzuen atheratzen ikusia.” Zerk ote zadukan? Eri baldin bazen, erranen zuen! Norbaiten ikustaldia zena? Ez onhartzea baino jeus etzen errexago. Bekokian jo zuen.

- “Ha! Zozoa nizanez! Jazarraldia da!” Arrazoin horrek arindu zuen. Gero, bapatez: “Baina haren auzoaldea geldi da.” Eta duda izigarri batek hartu zuen. “Jiten ezpaliz? hitzeman ezpazuen ene urruntzeko baizik? Ez! ez!” Trabatzen zukeena, halabehar ohigabeko bat zatekeen, aitzinera ikustea orori hutsegin-arazten daukon gertakari hetarik bat. Hori izan baliz, izkiriaturko zuen. Eta hoteleko mutila igorri zuen etxera, Rumfort karrikara, eskutizik etzenetz ikusteko.

Eskutzizik etzen ekharririk. Berri gabe horrek segurtatu zuen.

Eskuan behatu gabe hartu diru xehetarik, ibilkarien begitartetik, zaldien margotik, seinale batzu hartzen zituen; eta alde etzituenean, ez sinesteko indar egiten zuen. Arnoux Anderearen kontra hartzen zuten eroaldietan, ahapetik laidoztatzen zuen. Gero aldixartzeranoko ahuldurak ziren, eta bapatez esperanzazko jauzte batzu. Agertzera zoan. Hor zuen, bizkarraren gibelean. Itzultzen zen: jeus! Aldi batez, ohartu zizakon, hogeita hamar urrats ingurutan, soinara bereko emazte bati, zaia berarekin. Haren aldera joan zen: etzen hura! Bortz orenek jo zuten! bortzak eta erdiek! seiek! Gaza phizten ari zen. Arnoux Anderea etzen ethorria.

Hunek amets egina zuen, aitzineko gauan, Tronchet karrikako oinbidean zela aspaldi danik. Argi etzen zerbaiten beha zagon, hala ere zerbait gotorren, eta, zergatik jakin gabe, ikusia izaitearen beldur zen. Baina zakur txar madarikatu bat, haren kontra amorratua, zaia hegalari ausikika ari zizakon. Hirituz itzultzen zen eta beti azkarrago ehausiaka. Arnoux Anderea atzarri zen. Zakurraren ehausiak jarrikitzen zuen. Beharria eman zuen. Semearen gambaratik heldu zen. Hara laster egin zuen ortutsik. Haurra bera zen eztulka ari. Eskuak sutan zituen, aurpegia gorri eta mintzoa bitxiki erlats. Hatsaren traba handitzen ari zen minutaz minuta. Argirano igurikatu zuen, estalgiaren gainera gurtua, hari beha.

Zortzi orenetan, zaintzale nazionalen atabalaria jin zen Arnoux-i erraitera lagunak haren aiduru zaudela. Bizi-bizia jantzi zen eta joan, berehala medikuaren, Colot Jaunaren etxera zoala erranez. Hamar orenetan, Colot Jauna ez ethorriarik, gelaria hara igorri zuen. Medikua bidaiari zen, baserrian, eta ordaintzen zuen mutiko gaztea bere itzulietara joana.

Uxenek burua bazterrera zadukan, buhurdiakoaren gainean, beti bekainak zimurtuz, sudur ziloak zabalduz; begitarte ttipi gaixoa mihiseak baino hitsago bilakatzen ari zizakon; eta zintzurretik zoakon hats hartze bakoitzak egiten zuen xixtu bat, gero eta laburrago, idorra eta burdina joz bezalakoa. Eztulak iduri zuen kartoinezko zakurrer ehausiak egin-arazten dezteen mekanika gaixto haien harrabotsa.

Arnoux Anderea lazta batek hartu zuen. Xilintxetara jauzi egin zuen, heiagoraka, oihuz:

- “Mediku bat! mediku bat!”

Hamar minuta berantago ethorri zen jaun zahar bat lephoko xuri eta mateletako bizar hautsaranekin, ontsa moztuak. Galde ainitz egin zuen eri gaztearen ohidurez, adinaz eta jiteaz, gero zintzurra mihatu,

burua bizkar gibelean ezarri eta ordonanza bat izkiriatu. Gizon zahar horren itxura gostukoa hastiagarri zen. Balsamiatzale baten itxura zuen. Andereak jo nahiko zuen. Arrastirian itzuliko zela erran zuen.

Laster eztul-aldi laztagarriak berriz hasi ziren. Batzuetan, haurra bapatez goititzen zen. Ikharatze batzuek inharrosten zauzkoten bularrak, eta, hats hartzetan, sabela hertsitzen zizakon lasterka ibilia izana baliz bezala. Gero berriz erortzen zen burua gibelera eta ahoa zabal-zabala. Artha ezin handigoekin, Arnoux Anderea entseatzen zizakon ipekakuana ziropa bottoiletakoaren edan-araztera, kermesarekilako edari bat. Baina kullera gibelera igortzen zuen, mintzo ahul batez intziraka. Iduri zuen hitzak ufatzen zituela.

Noiztenka, ordonanza berriz irakurtzen zuen. Ezarriak ziren oharrek izitzen zuten; botikarioak huts egina zuen behar bada! Bere ahalgabeak etsitzen zuen. Colot Jaunaren ikaslea ethorri zen.

Ibilara lañoekilako mutiko gazte bat zen, berria bere ofizioan, eta zer sendi zuen gorde etzuen. Lehenik dudan egon zen, behar etzen zerbait erran beldurrez, eta azkenean horma zati batzuen ezartzea manatu zuen. Horma hatzemaiteak luzaz iraun zuen. Bazaduzkan zahagia lehertu zen. Untzia aldatu behar izan zen. Nahiagabe horrek aldi berri bat eman-arazi zuen laztagarriagoa.

Haurra hasi zen lephoko oihalen urratzen, ithotzen zuen traba ekhendu nahi ukan balu bezala, eta murrua aztaparkatzen zuen, ohatzeko erridauer lotzen, hats hartzeko berma gune bat hatzeman nahiz. Begitartea urdinaran zuen orai, eta soin guziak, izerdi hotz batez bustia, mehatzen ari zela iduri zuen. Begi galduak amari lotzen zituen lazta batekin. Besoak lepho ingurura emaiten zauzkon, han dilindan jartzen zen itxura etsitu batekin; eta hura ari zen, hipak baztertuz, elhe samur batzu ahopiatuz:

- “Baietz, maitea, aingerua, ene thesora!”

Gero, jabalaldi batzu jiten ziren.

Jostagailu batzuen bila joan zen, polixinel bat, iduri bilduma bat, eta ohe gainean hedatu zituen, haurraren libertitzeko. Kantatzera entseatu zen ere.

Lehenago erraiten zaukon kantu bat hasi zuen, troxatzean tapizeriazko kadera ttipi hortan berean leriitzen zuenean. Baina soin guzian hotzikaratu zen, haize ukaldi baten azpian ura bezala; begiak atheratzen zizazkon: hilen zela uste ukan zuen, eta ez ikusteko itzuli zen.

Ephe bat berantago so egiteko indarra ukan zuen. Bizi zen oraino. Orenak orenen ondotik zoazin, phizu, ilun, luze, etsigarri; eta etzituen minutak khondatzen agonia horren aitzinatzearekin batean baizik. Bularreko inharrosaldiek haurra aitzinera bultzatzen zuten hausteko bezala; azkenean, goiti igorri zuen paperrezko hodi bat iduri zuen zerbait bitxi. Zer zen? Sabeleko zati zenbait igorria zuela asmatu zuen. Baina iduri zuen hatsa zabal, berdin hartzen zuela. Ontsatzearen iduripen horrek bertze guziak baino gehiago izitu zuen; harritua zagon, besoak dilindan, begiak geldi, Colot Jauna ethorri zenean. Haurra, haren ustez, salbu zen.

Etzuen lehenik hartu, eta erranaldia errepika-arazi zuen. Etzena medikuen konsolamendu berezi hetarik bat? Medikua joan zen itxuraz gostuan. Orduan, bihotza estekan zadukoten sokak deseginak izan balire bezala izan zen.

- “Salbu! Ba ahal dea!”

Bapatez Federik gogoratu zizakon molde argi eta azkar batean. Probidenziaren abisu bat zen. Baina Jaunak, bere urrikalmenduan, etzuen osoki gaztigatu nahi ukana! Zenbat dolutu beharko zuen, gero, maitasun hortan irauten bazuen! Semea laidoztatuko zaukoten bere gatik; eta Arnoux Andereak ikusi zuen mutiko gaztetua, buruz buruko gudu batean zauritua, andetan ekharria, hiltzera abian. Jauzi batez, kadera ttipian belaurikatu zen; eta bere indar guziez, arima hergoretara igorritz, Jainkoari eskaini zaukon, ukana zuen lehenbiziko maitasun azkar horren, ahultasun bakar horren sakrifikatzean.

Federik etxera itzulia zen. Bere jargian zagon, haren madarikatzeko indarrrik ere gabe. Lo bitxi batek hartu zuen; eta, amets gaixto baten artetik, euria ari zela entzun zuen, beti han zela ustez, oinbidean.

Biharamunean, azken ahulezia batean, komisionari bat igorri zun Arnoux Anderearen etxera.

Saboiarrak komisionea ez eginik, edo hark sobera erraiteko bazuelakotz hitz batez argitasun emaiteko, ihardespen bera ekharria izan zen. Ozartasuna azkarregia zen! Urguluzko haserre batek hartu zuen. Uko egin zuen haren gutizia bakar bat ere etzuela gehiago ukanen; eta, ekaitz batek deraman orstalde bat bezala, maitasuna ezeztatu zen. Hortan arintze bat senditu zuen, bozkario pairakor bat, gero egintza bortitzen behar bat; eta nora nahi abiatu zen, karrieketan hara.

Hiri-bazterretako gizon batzu bazoazin, eskopetak eskuan, sabre zahar batzu, batzu bonet gorri batzuekin, eta guziak *La Marseillaise* edo *Les Girondins* kantatuz. Han hemenka, zaintzale nazional bat lehian zoan bere herriko etxera heltzeko. Atabal batzuek, urrunean, joiten zuten. Dona-Marteko atean gudua zen. Bazen airean zerbait deliberatu eta gudukari. Federik bazoan aitzina. Hiri handiko nahasmenak aiosten zuen.

Frascati-ko heinean, Marexalsaren leihoak ikusi zituen; gogoeta ero bat jin zizakon, gaztetasunaren ondorio bat. Karrika handia zeharkatu zuen.

Athe handiaren hesten ari ziren; eta Delfina gelariak, gainean izkiriartzen ari zelarik ikatz batekin: “Harmak emanak,” erran zaukon bizi-bizia:

- “Ha! Anderea izanara ederrean da! Goizean haizatua du laidoztatzen ari zizakon athezaina. Uste du orotan ebasten ariko direla! Beldurrak hila da! are gehiago Jauna joana baita!”

- “Zein Jaun?”

- “Printzea!”

Federik aitzin-gambaran sartu zen. Marexalsa agertu zen, zaiazpikoan, ileak bizkarrera, nahasia.

- “Ha! eskerrak! salbatzera heldu hata! bigarren aldia! ehoiz eztuk ordaintzea galdegiten, hik”

- “Mila barkamendu!” erran zuen Federikek, hari gerria bi eskuetan hartuz.

- “Nola? zer ari hiz!” ahopiatu zuen Marexalsak, ara horietaz aldi berean ustegabetua eta alaitua.

Ihardetsi zuen:

- “Modan nun, erreformatzen ari.” Marexalsak bere burua utzi zuen ohexkaren gainera erortzera, eta irriz jarraitzen zuen haren musuen azpian.

Arratsaldea iragan zuten, leihotik, karrikan jendeari beha. Gero auhaltzera ereman zuen “Trois-Frères-Provençaux”-etara. Aphairua luze izan zen, hautekoa. Oinez itzuli ziren, karrosa eskasez.

Gobernua aldatua zelako berrian, Paris bertzelakaturia zen ere. Jende guzia bozkariotan zen; ibiltzaleak ibilki ziren, eta estaia bakoitzean girisailu batzuek egun argiz bezala argitzen zuten. Soldadoak bazoazin berriz bere kasernetara, ezinduak, itxura trixte. Agurtzen ziren, oihukatuz : “Gora armadakoak!” Ihardetsi gabe jarraitzen zuten. Zaintzale

nazionaletan, aldiz, atzindariak, suhartasunez gorrituak, sabrea goititzen zuten oihuka: “Gora erreforma!” eta hitz horrek, aldi oroz, bi maitaleak irriz has-arazten zituen. Federik irri solasetan ari zen, biziki alai.

Duphot karrikatik, karrika handietara heldu ziren. Veneziako eskuargi batzuek, etxetan dilindan ezarriak, suzko xingola batzu egiten zituzten. Haien azpian zinaurrite nahasi bat higitzen zen; itzal horren ilunean, guneka, baioneten zuriak dirdiratzten zuen. Harramantza handi bat entzuten zen. Jendea sobera tinki zen, zuzen itzultzea ezina; eta Caumartin karrikara sartzen ari ziren, bapatez, haien gibelean, urratzen den zeta oihal handi baten tarrasta bezalako harrabots batek jo zuenean. Capucines karrika handiko eskopetatzea zen.

- “Ha! burjes zenbaiten hausten ari dira,” erran zuen Federikek khexatu gabe, ezen badira gertaldi batzu hetan gutienik bortitza den gizona bertzetarik hain urrundua baita nun gizalde osoa hiltzen ikus bailezake bihotz pilpira bat ukan gabe.

Marexalsa, haren besoari tinki lotua, hortzak klaskatuz ari zen. Erran zuen hogeit hamar urrats gehiagoren egiteko indarrik etzuela. Orduan, herraren zorrotasun batean, bere baitan Arnoux Anderearen hobeki laidoztatzeko, Federikek ereman zuen Tronchet karrikako hotelerano, bertzearendako antolatua zuen bizitegira.

Liliak etziren zimelduak. Gipura ohean hedatua zen. Xapin ttipiak harmairutik athera zituen. Rosanette-ek artha horiek biziki goxagarri aurkitu zituen.

Oren bat inguruan, burrumba urrun batek iratzarri zuen; eta ikusi zuen Federik hipaka ari, burua buhurdikoan sartua.

- “Zer duk bada, gaixo maitea?”

- “Zorion gehiegia”, erran zuen Federikek. “Sobera dembora bazinan hire nahitan nindunala!”

ZATI HERENA

I

Eskopetatze baten harrabotsak lotik bapatean athera zuen; eta, Rosanette-ek othoizturik ere, Federikek, baitezpada, zer gertatzen zen ikustera joan nahi ukan zuen. Champs-Elysées-en jausten ari zen, tiroak handik abiatuak baitziren. Saint-Honoré karrikako izkinan, gizon batzu taulierrekin ondotik joan zizazkon oihukatuz:

- “Ez! ez horrara! Erret-Palaziora!”

Federik jarraiki zizeen. Assomption-go burdin-sareak ekhendua ziren. Urrunago hirur lauzaki ikusi zituen bidearen erdian, barrikada baten hastapena, agian, gero botoilaki batzu, eta burdin-hari meta batzu zaldizkoeriaren trabatzeko; bapatez karrikaxka batetik mutiko gazte handi hits bat jauziz jalgi zenean, ile beltzak airera soingainetan, oihal tita kolorezkodun batean hartuak. Bazadukan soldado eskopeta luze bat, eta xapinen puntan lasterka zoan, ametsetarik dabilan baten itxurarekin eta tigre bat bezain zalu. Artetan, tiro bat entzuten zen.

Bezpera arratsean, orga batean Capucines-etako karrika handikoetan bildu bortz gorputzen ikusteak aldatuak zituen jendearen gogoetak; eta, Teilerietan aitzindari ordainak batzu bertzer jarraikitzen ari ziren bitartean, eta Molé Jauna gabinet berri baten moldatzetik ez itzultzen, Thiers Jauna bertze baten moldatzera entseatzen ari zelarik, Errege zimardikan, zalantzan, gero Bugeaud-ri bazemola orotako manamendua baina baliazera ez utziz, jazarraldia, beso bakar batek eremana bezala, handizki antolatzen ari zen. Elhea bizi eta bortitz zuten gizon batzu ari ziren karrika izkinetan jendaldeari hitzaldi emaiten; bertze batzu elizetan hil-zeiniak jo eta jo; beruna urtzen zen, kartuxak itzulikatuz egiten; karrika handietako zuhatzak, gernutegiak, alkiak, burdin-sareak, gaz mokoak, oro errotik ekhendua izan zen, aurdikia; Paris, goizean, barrikadaz estalia zen. Ihardokitzeak etzuen iraun; orotan zaintzale nazionalak arteko jartzen ziren; - hala nola nun zortzi orenetan, jendeak, nahi ala ez, baitzituen bortz kaserna, abantzu herriko-etxe guziak, guduko gune baliagarri segurrenak. Bere baitarik, inharrosaldirik gabe, erretatea ezeztatze laster batean urtzen ari zen; eta Ur-Gazteluko polizategiari lotzen zizakon orai berrogei-ta hamar presonerren liberatzeko, nahiz etziren han.

Federik plazara sartzean gelditu zen, nahi ala ez. Multzo harmadun batzuek betetzen zuten. Armadako kompainia batzuek bazaduzkaten San-Thomas eta Fromanteau karrikak. Gaitzeko barrikada batek hesten zuen Valois-ko karrika. Gainaldean zalantzatzen zizakon khea apur bat baztertu zen: han gizon batzu lasterka zoazin jestu handi batzu eginez; itzali ziren; gero tirokatzea berriz hasi zen. Polizategiak ihardesten zuen, barnean ehor etzelarik alta ageri; leihoak, haritzezko taulekin zainduak, zirrito batzuez zilatuak ziren; eta eraikuntza bere bi estaiekin, bi hegalekin, batean ithurria eta erdian athe ttipia, zuriz titatzen hasia zen bala ukaldien azpian. Hirur mailekilako athe-harria hutsa zagon.

Federiken ondoan, gizon bat bonet greka batekin eta ilezko maripulisaren gainetik kartuxa-untzi bat, erasian ari zen madras bat buruan zuen emazte batekin. Hunek bazion:

- “Baina itzul hadi bada! itzul hadi!”

- “Utz nezan gostura!” ihardesten zaukon senarrak. “Egongia hihaurek zaintzen ahal dun. Herritarra, galdegiten dautzut, zuzen dea? Ene eginbidea betea dut orotan, 1830-ean, 32-an, 34-an, 39-an! Egun, gudukatzen ari dira! gudukatu behar dinat! - Habil!”

Eta athezaintsak haren erasier amor eman zuen azkenean eta ondoan zuten zaintzale nazional batener, berrogei urtekoa, begitarte gozo-gaizoa bizar inguru hori batez aphaindua zuena. Harma karga eta tira ari zen, Federikekin solastatzen zen batean, jazarraldiaren erdian baratzegile bat bere baratzean bezain gostuan. Mutiko philtzarrez jantzi batek lausengatzen zuen bolbora ahuntxa batzuen ukaiteko, bere eskopeta baliatu nahiz, ihiziko karabina eder bat, “jaun batek” emana zaukona.

- “Harrak ene bizkarrean,” erran zuen burjesak, “eta itzal hadi! hire burua hil-araziko duk!”

Atabalek oldarraldia joiten zuten. Oihu mehe batzu, irabazte osoko “biba” batzu entzuten ziren. Ethengabeko zurrumilo batek higi-arazten zuen jende multzoa. Federik, bi jende meta gaitzekoen artean hartua, etzen higitzen, begiak itzatuak bertzela ere eta ezin gehiago jostatuz. Erortzen ziren zaurituek, lurrean hedatuak ziren hilek etzuten egiazko zaurituen itxura, egiazko hilena. Iduri zizakon ikusgarri bati beha zagola.

Uhain horren erdian, buruen gainetik, agure bat ikusi zen beltzez jantzia zaldi zuri baten gainean, zaltoki balusazkoarekin. Esku batez,

bazadukan aldaxka berde bat, bertzeaz paper bat, eta biak inharrosten zituen hisirekin. Azkenean, entzuna izanen zela etsituz, gibelera joan zen.

Armadako soldadoeria itzalia zen eta hirikoak zauden bakarrik polizategiaren zain. Beldurgabe uhain bat athe-harrira oldartu zen; erori ziren, bertze batzu ethorri; eta atheak, burdin-zirien ukaldi azpian khordokatua, joiten zuen; hirikoek etzuten amor emaiten. Baina belarrez mukurru betea zen kalea bat, eta gaitzeko zuzi bat bezala sutan, harresiaren ondora herrestatua izan zen. Berehala ekharri ziren egur zamak, lastoa, untzi bat alkohola. Sua harrietan goiti igan zen; etxea alde orotarik khe emaiten hasi zen sumendi batean bezala; eta gar zabal batzu, gain-gainean, zabalzako galeria-zangoen artetik, bazoazin ziztu-harrabotsetan. Erret-Palazioko lehen estaia zaintzale nazionalak betea zuten. Plazako leiho guzietarik, tiroak ari ziren; balek xixtu egiten zuten; ithurri zilatu ura odolarekin nahasten zen, lurrean putzuak eginez; iztilean jantzi batzuetan lerratzen zen, xako, harma batzuetan; Federikek senditu zuen oinaren azpian zerbait guri: sarjent baten eskua zen, hura bizkarreko hautsaranetan, begitartea ur-errekan etzana. Jendaldearen multzo berri batzu heldu ziren beti gudukariak polizategira bultzatuz. Tirokatzea tinkiagotzen ari zen. Arno saltzaleak idekiak ziren; hara joaiten zen artetan pipa baten erretzera, baso baten edatera, gero berriz gudura itzultzen. Zakur galdu bat uhuriaka ari zen. Irri egin-arazten zuen.

Federik khordokatua izan zen gizon baten joiteaz, soingainera erori baitzizakon, bala bat gerruntzetan, azken hatsa emanez. Ukaldi hortan, behar bada haren kontra igorria, erotua senditu zen; eta aitzinera jauziz abian zen, zaintzale nazional batek gelditu zuenean:

- “Eztu balio! Errege joan berria da! Ha! sinesten ezpanauzu, zoaz ikustera!”

Hitz horrek Federik eztitu zuen. Carrousel-go plaza itxuraz bakean zen. Nantes-ko hotela zutik zagon beti bakarrik; eta etxeak gibelean, Louvre-ko gopoila aitzinean, zurezko galeria luzea eskunetik bihurrikatuz erakuslarien etxoletarano, ithoak bezala ziren aire hautsaraneko margoan, hartan urrungo murmurikatze batzu lanhoarekin nahasten bezala baitziren, - plazaren bertze hegian, argi gordin batek, hedoi uradura batetik Teilerietako aitzinaldera eroriz, leiho guziak zuriz agerr-arazten zituelarik. Bazen Carrousel-go Arkuaren azpian zabal zabala zaldi bat hila. Burdin-saren gibelean, borz-pasei jendeko multzo

batzu elheka ari ziren. Jauregiko atheak idekiak ziren, mutilek alazean sartzera uzten zuten.

Beherean, sala ttipi batean, kafe-esne gatilu batzu zerbitzatuak ziren. Ikus-nahietarik zenbait mahian jarri ziren irri solasetan; bertzeak zutik zauden, eta, horien artean karrosazain bat. Bi eskuez hartu zuen azukre errautsez betea zen untzi bat, behako khexu bat eman eskun eta ezker, eta jaten hasi zen amikatuki, sudurra untziaren lephora sartuz. Mailalde handiaren beherean, gizon bat ari zen errexixtro batean bere izenaren izkiriartzen. Federikek ezagutu zuen gibeletik.

- “Ori, Hussonnet!”

- “Baina ba,” ihardetsi zuen mutiko arinak. “Gortera sartzen ari niz. Horra joko jostagarri bat, eza?”

Eta Marexalen salara heldu ziren. Aipameneko horien potretak, Bugeaud-ena salbu sabelean zilatua baitzen, guziak oso ziren. Hor ziren bere sabreari lotuak, kanoi baten bermagailua gibelean, eta gertaldiari gaizki emanak ziren egonara izigarri batzuekin. Erloi gotor batek oren bat eta hogeita minuta emaiten zituen.

Bapatez *Marseillaise*-ak jo zuen. Hussonnet eta Federikek laster egin zuten barandara. Populua zen. Mailaldera laster egin zuen, buru hasak, kaskak, bonet gorriak, baionetak eta soingainak uhain burxoragarri batzuetan inharrosten zituela hain lardeki nun jendeak itzaltzen baitziren beti goiti zoan zinaurri meta higikor horren barnean, gau-egun berdinetako itsasaldi batek gibel-arazten duen ibai bat iduri, orro luze batekin, olde ezin atxiki baten indar-pean. Gainera heldurik, hedatu zen, eta kantua gelditu.

Etziren gehiago oinetako guzien urratsak baizik entzuten, mintzoen zalapastarekin. Jendalde lañoak beha egoitea aski zuen. Baina, noiztenka, hertsiegian zen ukondo batek berina bat hausten zuen; edo untzi bat, gizairudi ttipi bat bazter-mahi batetik lerratzen zen, lurrerano. Zureria tinkatuek krask egiten zuten. Begitarte guziak gorri ziren, izerdia zariotela xorta larri batzuetan; Hussonnet-ek ohar hau egin zuen:

- “Gizandiek eztute usain ona!”

- “Ha! nardagarria zira,” egin zuen berriz Federikek.

Eta berek nahi gabean bultzatuak, sartu ziren tronaduratik balusa gorrizko pabellun bat hedatzen zen barne batera. Azpian, tronuaren gainean, jarria zagon bizar beltz batekilako langile xume bat, athorra erdi idekia, itxuraz irrikor eta zimino bat bezain zozo. Bertze batzuek mailak igaiten zituzten haren lekuan jartzeko.

- “Zer mithoa!” erran zuen Hussonnet-ek. “Horra populua errege!”

Jargia besoen puntan eremana izan zen, eta sala guzia iragan zuen zalantzatuz.

- “Alajinkoa! nola leriutzen den! Estatuaren untzia itsaso ekaiztun batean binbilika dabila! Dantzan ari denez! dantzan ari!”

Leiho baten ondora hurbildua zuten, eta, xixtuen erdian, egotzi zuten;

- “Gaizoa!” erran zuen Hussonnet-ek baratzera erortzen ikustean, han berriz berehala hartu baitzuten Bastillarano ibilia izaiteko, eta han errea.

Orduan bozkario erotu bat jauzi zen, tronuaren orde mugarik etzuen bozkario bateko ethorkizuna agertua baliz bezala; eta jendeak, mendekioz baino gehiago bere jabetasunaren baieztatzeke, urratu eta hautsi zituen mirailak eta erridauak, dilindako argiak, zuziak, mahiak, kaderak, alketxak, muble guziak, marrazki bilduma batzuetarano, tapizeriazko zare batzuetarano. Irabazle zenaz geroz, etzena jostatu behar? Zirtzilak erkaitzez jantzi ziren dentela eta kaxamirekin. Urrezko lits batzu bihurdikatu ziren taulierren mahungetan, auztruca lumazko xapelek aphaindu zituzten arotzen buruak, Ohorezko legionekeko xingolek gerrikoak egin zituzten emagalduekiko. Bakoitzak bazegien bere burukaldia; batzu jantzan ari ziren, bertze batzu edaten. Erreginareneko gambaran, emazte batek ileak pomadaz gantzutzen zituen; haizolbe baten gibelean bi jokari kartetan ari ziren; Hussonnet-ek erakutsi zaukon Federiki gizon bat piparen erretzen ukondoak galeria bati emanik; eta erotasunak bere harramantza bikuntzen zuen porzelana hautsiez eta krixtalkiez, joiten baitzuten, jauzika, harmonika baten lamek bezala.

Gero erokeria ilundu zen. Ikus-nahikaria gordin itsusi batek miharazi zituen gabinet guziak, zoko guziak, tiranta guziak ideki. Galeriano batzuek besoak sartu zituzten printzesen ohatzean, eta gainean ihaloskatzen ziren, hek bortxatu ez ahalaren ordaintzez. Bertze batzu, begitarte ilunago batzuekin, bazabiltzan ixil-ixila, zerbait ebatsi nahiz; baina jendaldea ainitzegi zen. Athe idekietarik, etzen ikusten, bizitegietakoko lerroan hara, jendearen meta iluna baizik urrierien artean, errauts lanho baten azpian. Bular guziak hats-hantuak ziren; beroa gero eta gehiago ithogarri bilakatzen ari zen; bi adixkideak, hats-bahitu beldurrez, athera ziren.

Aitzin-gambaran, jantzi meta baten gainean zutik, bazagon karriketako neska bat, Libertatearen gizairudia eginez -, geldi-geldia, begiak zabal-zabala, laztagarri.

Hirur urrats eginak zituzten karrikan, hiriko zaintzale multzo bat bizkarrekoekin aitzineratu zizeenean, eta, poliziako bonetak ekhenduz, eta burhezur apur bat garsoilduak aldi berean agertuz, jendea azkarki behituz agurtu zuten. Errespetu erakuste hortan, irabazle philtzardunak harrotu ziren. Hussonnet eta Federik etziren egon, hek ere, halako atsegin bat senditu gabe.

Suhartasun batek sustatzen zituen. Erret-Palaziora itzuli ziren. Fromanteau karrikako aitzinean, soldado gorputz batzu lasto zama baten gainean metatuak zituzten. Ondotik iragan ziren sorgor, burgoi ere itxura ona emaiten zutela senditzeaz.

Palazioa jendez mukurru zen. Barneko korralean, baziren zazpi su garretan. Leihoetarik egozten ziren piano, komoda eta erloi. Sutetako pompa batzuek ura igortzen zuten hegaztegiatarano. Gaixtagin batzu entseatzen ziren bere sabrekin tuten moztera. Federikek galdegin zaukon politeknikalari bati arteko jar zadin. Politeknikalariak etzuen hark errana hartu, zozoa iduri zuen, bertzela ere. Inguruan, bi galerietan, jende xoilak, lekuen jabe, mozkorreria itsusi bati emaiten ari zen. Arnoak bazarion errekek eginez, oinak bustitzen zituen, gizon tzar batzuek edaten zuten botoilakietan, eta orroaz ari ziren halda-maldaka.

- “Athera gaiten hortik,” erran zuen Hussonnet-ek, “jendalde horrek okhaztatzen nau.”

Orléans-ko galeriaren luzatasun guzian, zaurituak zatzaten lurrean matalatz batzuen gainean, estalgitako balusa gorri-bizizko erridau batzuekin; eta auzoko burjestsa ttipi batzuek ekhartzen zezteeten salda eta oihalaria.

- “Hala ere!” erran zuen Federikek, “eni, jendea ezin miragarriago zata.”

Ezkaratz handia jende erotu zirimola batek betetzen zuen, gizon batzuek nahi zuten gaineko estaietara igan ororen haustearen bururatzeko; zaintzale nazional batzuek mailetan haien atxikitze indar bazegiten. Beldurgabe gehienekoa ihiztarietako bat zen, buru has, ilea zut-zuta, harmen atxikitze larrueria xehakaturia. Athorrak hantura bat egiten zaukon galtzen eta soinekoaren artean, bertzen artean zalapartaka ari zen gemenekin. Hussonnet-ek, begia zorrotz baitzuen, urrundik ezagutu zuen Arnoux.

Gero Teilerietako baratzera joan ziren gostuan hats hartzera. Alki batean jarri ziren, eta zenbait minutaz egon betespalak hetsirik, hainbertzetarano burxoratuak nun ezpaitzuten mintzatzeko indarrik ere. Ibiltzaleak, haien inguruan, elgarretaritzen ziren. Orléans-ko dukesa erreientsa izendatua zen; oro egina zen; eta bururatze lasterrer jarrikitzen zeen gozatasun hura sendi zen, jauregiko hegaztegipe guzietan mutil batzu agertu zirenean bere soineko jantzierien urratzen ari. Baratzera botatzen zituzten, uko egiten zutela erakusteko. Jendeak uhukatu zituen. Itzali ziren.

Federik eta Hussonnet ohartu ziren putiko handi bati zuhatzen artean bizi-bizia joanki, eskopeta bat soingainean. Kartuxa untzi batek gerrian tinkatzen zaukon soineko gorria, mokanes bat bekokian inguratzen zizakon kasketaren azpian. Burua itzuli zuen. Dussardier zen; eta, haien besoetara jauziz:

- “Ha! zer zoriona, lagun gaizoak!” bertzerik erran ahal ukan gabe, hain zen bozkarioz eta akiduraz hats-hantua.

Bazen berrogei-ta zortzi oren zutik zela. Auzo-Latineko barrikadetan lan egina zuen, Rambuteau karrikan gudukatua, hirur dragon salbatuak, Teilerietan sartua Dunoyer-ren multzoarekin, gero Gambarara joana, azkenik Hiriko Etxera.

- “Handik nator! guzia ontsa doa! jendea irabazle da! langileak eta burjesak besarka! Ha! ikusi dutana bazinakite! zer jende onak! zein eder zen!”

Eta, hek harmarik etzutela ohartu gabe:

- “Zuen hemen hatzemaiteaz ontsa segur nintzan! Gogor izan da ephe batez, eztu axolarik!”

Odol xorta batek bazarion matelan, eta, bertze bien galdetan:

- “Ho! ezteuz! baioneta batek hunkia!”

- “Arthatu behar zinueke, bizkitartean.”

- “Ba! azkarra niz! zer egiten du? Errepublika oihukatua da! zoriona izanen da orai! Ene aitzinean solasean ari ziren gazetalari batzuek arestian bazioten Polonia eta Italia bere gain ezarriko zirela! Gehiago ez erregerik! entzuten duzue! Lur osoa libro! lur osoa libro!”

Eta, so bakar batez eskualde guzia hartzen zuela, besoak baztertu zituen egonara irabazle batean. Baina gizon lerro luze bat bazoan zabalzan lasterka.

- “Ha! jinkua! ahazten nuen! Gazteluak hartuak dira. Joan behar dut! goraintzi.”

Itzuli zen haier oihu egiteko, eskopeta goitituz:

- “Gora Errepublika!”

Jauregiko khebidetarik, bazoazin phindarrak bazeramatzaten khe beltz baten gaitzeko zirimolak. Ezkilen joiteak emaiten zituen, urrunean, marraka galdu batzu bezalakoak. Eskun eta ezker, orotan, irabazleak ari ziren bere harmen husten. Federikek, nahiz etzen gerlaria, senditu zuen bere odol galesa jauzten. Atseginekin hartzen zuen ekaitz airea, bolbora usainez betea; eta bitartean hotz-ikaratzen zen maitasun neurrigabeko baten, orotako eta ororen gaineko beratasun baten ufen azpian, gizalde osoaren bihotzak haren bularretan jo ukana balu bezala.

Hussonnet-ek erran zuen, aharrausiaka:

- “Ordu lizateke, behar bada, jendealder erakaspen emaitera joaiteko!”

Federik jarraiki zizakon berrikariko bulegora, Molsako plazan; eta han hasi zen gertatuak zirenen izkiriartzen estilo lirikoan Troyes-ko egunkariarendako, zati egiazko bat, - izenpetu zuena. Gero elgarrekin auhaldu ziren ostatuxka batean. Hussonnet-ek gogoia alha zuen; Iraultzako bitxikeriek harenak gaintitzen zituzten.

Kafearen ondotik, Hiriko Etxera joan zirenean, berrien jakiteko, Hussonnet-en jite arinak gaina berriz hartua zuen. Bazoan barrikaden gainetik, basahuntz bat bezala, eta zaintzaler abertzaletasunezko irri-solas batzuekin ihardesten zauen.

Entzun zuten, zuzien argira, Gobernamendu anartekoa oihukatzen. Azkenean, eguerditan, Federik, akiduraz ezindua, etxera joan zen.

- “He bada,” erran zaukon buluzten ari zuen mutilari, “askietsia hiza?”

- “Ba jauna, agian! Baina maite eztutana, neurkadan doan jende hori da!”

Biharamunean, atzartzean, Federiki Deslauriers gogoratu zizakon. Haren etxera laster egin zuen. Abokata joan berria zen, probinzian komisari izendatua izanik. Bezperako arrastirian Ledru-Rollin-en ondorano heldua zen, eta, Eskolen izenean hura setiatuz, kargu bat ekhendua zaukon, misione bat. Bertzela ere, zion athezainak, ondoko asteen izkiriatu behar zuen, bere helbidearen emaiteko.

Eta gero, Federik Marexalsaren ikustera joan zen. Saminki hartu zuen, utzia izanik aiher baitzizakon. Gorromioa ezeztatu zen baketzeaz errepikatu zauzkon segurtamenetan. Oro gelditua zen orai, beldur

izaiteko arrazoinik ez; besarkatzen zuen; eta hura Errepublikaren alde jarri zen, - jadanik egina zuen bezala Parisko Arxapezpiku Enejaunak, eta lehia gartsu miragarri batekin eginen baitzuten Legegizoneriak, Estatuko Konseiluak, Institutoak, Frantziako Marexalek, Changarnier-ek, Falloux-ko Jaunak, bonapartixta guziek, legitimixta guziek, eta orleanixta andana gaitzeko batek.

Erretatearen erortea hain bapatekoa izana zen nun, lehenbiziko balditzea iragan eta, oraino bizi izaiteaz ustegabetze bat bezala izan baitzen burjesen baitan. Ohoin zenbaiten erahiltze laburzki eginak, auzirik gabe eskopetaturik, gauza biziki zuzena iduritu zuen. Errepikatu zen, ilabete batez, Lamartine-ren erranaldia bandera gorriaz, “ezpaitzuen Champ-de-Mars-ko itzulia baizik egina, hirur koloretakoak aldiz”, eta bertze; eta oro haren itzalera bildu ziren, alderdi bakoitzak etzuelarik hirur koloretarik berea baizik ikusten - eta bere buruari ontsa hitzemanetz, azkarrena izanen zen bezain laster, bertze biak moztuko zituela.

Eginbeharrak geldituak baitziren, khexuak eta ikusteko gurak jende guzia etxetik athera-arazten zuten. Jantzietako axolagabeak arintzen zuen gizarte mailen ezberdina, herra gordetzen zen, esperanzak erakusten, jendaldea ezttasunez betea zen. Zuzenbide irabazi bateko urguluak argitzen zuen begitarte guzietan. Baziren ihauterietako alaitasuna, kampamenduetako ibilarak; ezer etzen izan Pariseren itxura baino jostagarriago, lehenbiziko egunetan.

Federikek Marexalsa besoan hartzen zuen; eta bazabiltzan elgarrekin karriketetan. Hura libertitzen zen botoin zilo guziak aphaintzen zituzten arrosañoez, leiho guzietan dilindan ziren ikurrinez, harresietan ezarriak ziren iragarki margo orotakoez, eta egozten zuen han hemenka sos zenbait zaurituen arkilera, kadera batean ezarria, bidearen erdian. Gero marrazki trufari batzuen aitzinean zen, erakusten baitzuten Luis-Filipe bixkotxegile, jauzkari, zakur, itxain. Baina Caussidière-ren gizonak, bere sabrearekin eta xarparekin, apur bat izitzen zuten. Bertze batzuetan, Libertateko zuhatz bat zen landatzen. Jaun aphezak zeremonian barne ziren, Errepublika benedikatuz, urrezko galoinekilako zerbitzari batzu inguruan; eta hori jendeari biziki ontsa zizakon. Ikusgarri usuena zer nahitako deputatzena zen, Hiriko Etxera zerbaiten eskatzera joanki, - ezen ofizio bakoitza, industria bakoitza Gobernamentuaren ganik bere nahigabe guzien bururapen osoaren aiduru zagon. Batzu, egia erran,

haren gana zoazin aholku emaitera, edo gorestera, edo xoil-xoilki ikustaldi ttipi baten egitera, eta mekanikaren alhan ikustera.

Ephailaren erditsutara, Arcole-ko zubiaren iragaiten ari zelarik, Rosanette-rendako zerbait egin behar ukanez Auzo Latinean, Federikek ikusi zuen xapel bitxi eta bizar luze batzuekilako gizaki lerro bat aitzinera heldu. Buruan eta atabal bat joz bazoan beltz bat, margolaritegietako modela ohia, eta ikurrina zeraman gizona, hartan airera irakurtzen baitzen idazki hau: “Edergile margolariak,” Pellerin bera zen.

Federiki kheinu bat egin zaukon igurika zezan, eta bortz minuta berantago berriz agertu zen, astia baitzuen, Gobernamentuak ordu hartan harri pikatzaleak hartzen zituelakotz. Bazoan bere lankidekin Edergintzako Forum baten egitearen galdegitera, halako Molsa bat hartan Ezthetikaren abantailez eztabadatuko baitzen; lan ezin hobeak eginen ziren langilek bere jeinua elgarrekin ezarriko zutenaz geroz. Paris, ephe guti barne, gaitzeko eraikuntzez estalia izanen zen; hark aphainduko zituen; Errepublikaren iduri bat hasia zuen ere. Lagunetarik bat bila jin zizakon, ezen aztaletan zituzten hegaztineriako salerospeneko deputatuak.

- “Zer zozokeria!” murmurikatu zuen mintzo batek jendetan. “Beti ezteuskeriak! Azkarrik jeus ez!”

Regimbart zen. Etzuen Federik agurtu, baina aldiuz baliatu zen bere samintasunaren ixurtzeko.

Herritarrak egunak karrketan ibilki emaiten zituen, muxtatxari thiraka, begiak itzulikatuz, berri ilun batzu ikasiz eta hedatuz; bi erranaldi baizik etzituen: “Guardimazue, gaindituak izanen gira!” edo : “Baina, debrientxoa! Errepublikaren ebasten ari dira!” Orotaz khexu zen, eta bereziki ezkinituelakotz berriz gure “muga naturalak” hartuak. Lamartine-ren izenak berak soingainak goiti-arazten zauzkon. Etzuen Ledru-Rollin “egin behar zeneko aski gai” hatzemaiten, Dupont (de l’Eure) frikun zahar bat zela zion, Albert zozo bat, Louis Blanc “utopixta” bat, Blanqui gizon biziki lanjerosa; eta, Federikek galdegin zaukonean zer egina ukan beharko zen, ihardetsi zuen hari besoa errausterano tinkatuz:

- “Rhin-a hartu, diozut, Rhin-a hartu! gizona!”

Gero gibeleratzaletasuna salatu zuen.

Zer zen erakusten ari zuen. Neully eta Suresne-ko jauregietako ebaskeria, Batignolles-ko sutea, Lyon-go nahasmenak, soberakeria guziak, estakuru guziak, handiegitzen ziren orai, gaineratuz oraino

Ledru-Rollin-en mezua, Bankoko billeten balio bortxatua, arranda hiruretan hogei liberetara jautsia, azkenean, bidegabe gehienetako, azken ukalditako, itsuskeria ororen berrhapienetako, berrogei-ta bortz zentimetako zerga! - Eta, horren guziaren gainetik, bazen oraino Zozialixmoa! Nahiz teoria horiek, antzara joko bezain berriak, berrogei urtez geroz aski eztabadatuak izanak ziren liburutegien betetzeko, burjesak laztatu zituzten, aireko harri erauntsi batek bezala; eta suminduak izan ziren, gogamen berri orok gogamena delakotz phizten duen herraren bertutez, hastiatze hortarik beretik egiten duelarik berantago ospe, eta horren gatik dituen etsaiak beti hura baino beherago gelditzen baitira, hanbat baldin bada ere berenaz bien artekoa.

Orduan, jendearen errespetuetan Jabegoa Erlisionearen heinerano igan zen eta Jainkoarekin urtu. Egiten zizazkon jaukitzeak sakrileio iduritu ziren, abantzu gizajaletasun. Behin ere izan ziren lege eztiak izanik ere, 93-ko mamuka berriz agertu zen, eta gillotinaren marrazak jo zuen Errepublika hitzaren silaba guzietan; - horrek etzuelarik, zuen ahultasunaren gatik, haren gutiestea debekatzen. Frantzia, nagusirik etzuela sendituz, ohiltzez oihuka hasi zen, makilarik gabeko itsu bat bezala, sehia galdua duen ñiñi bat bezala.

Frantzes guzietarik, azkarkienik ikharan zena, Dambreuse Jauna zen. Gauzen izanara berriak fortuna mehatxatzen zaukon, baina oroz gainetik ikasia zuena aurdikitzen. Sistima hoin ona, errege hoin zuhurra! izan zaitekea! Lurrak erori behar zuen! Biharamunean berean, hirur mutil utzi zituen, zaldiak saldu, karriketara atheratzeko xapel guri bat erosi, bizarraren uzteko ere gogoa ukan; eta etxean zagon, burua beheiti, saminki iretsiz egunkarietako ideia harener etsaienak, eta hain ilun bilakatua nun Flocon-en pipaz egiten ziren irri solasek ezpaitzuten hari irriño bakar baten egin-arazteko indarririk.

Azken erreinuaren aldeko bezala, jendea Xampañan zituen ontasuner mendeka zadin beldur zen, Federikek Troyes-ko egunkariendako moldatua zuen artikulua eskuetara jin zizakonean. Uste ukan zuen orduan adixkide gaztea phizu handiko norbait zela eta, zerbitza ezpazezakeen ere, zain zezakeela bederen; hala nola nun goiz batez Dambreuse Jauna haren etxera joan baitzen, Martinon lagun.

Ikustaldi horrek etzuen bertze helbururik, erran zuen, apur bat haren ikustea eta solastatzea baizik. Oro har, gertatuez bozkariatzen zen, eta gogotik onhartzen zuen “gure ikurburu ezin ederragoa: *Libertate, Berdintasun, Anaiatasun*, beti errepublikarra izanik, funtsean”.

Ministerioarekin bozkaten baldin bazuen, bertze gobernamentuan, haren erorte ezin hutseginarekin lehiatzeko zen. Sumindu zen ere Guizot Jaunaren kontra, “saski pollitean sartuak baikitu, derragun!” Aldiz, handizki miresten zuen Lamartine, hau agertua baitzen “loriagarri, hitz emaiten dautzut, erran zuenean, bandera gorriaz...”

- “Ba! badakit,” erran zuen Federikek.

Horren ondotik, aithortu zuen langilendako zuen gogo ona.

- “Ezen azkenean, guti ala aski, oro langileak baigira!” Eta alderdigabetasuna bazeraman Proudhon-ek arrazoina bazuela ezagutzerano. “Oi! arrazoina ainitz! debrua!” Gero, gogo goien baten atxikimendu gabearekin, han Pellerin-en potreta ikusia zuen margazki erakusketaz mintzatu zen. Gauza berezia zela aurkitzen zuen, ongi hunkia.

Martinon-ek hitz horiek oro laguntzen zituen baieztatzeke ohar batzuez; hark ere uste zuen behar zela “Errepublikaren alde garbiki jarri”, eta aipatu zuen bere aita laboraria, baserritarra eginez, jende xoileko gizona. Laster Bilzarre nazionalako bozkatzek aipatu ziren, eta La Fortelle-ko arrondizamenduko deputatu-gaiak. Kontrako alderdikoak hautatua izaitzeko zoririk etzuen.

- “Haren lekua hartu behar zinue!” erran zuen Dambreuse Jaunak.

Federikek ezetz.

- “He! zertako bada?” ezen ukanen zituen eskunaz haratagokoen bozak, zituen aburuak ikusiz, konserbadorenak, bere familiaren gatik. “Eta behar bada ere,” gaineratu zuen dirulariak erdi-irri batekin, apur bat “ene eraginari esker”.

Federikek oharr-arazi zuen etzakiela nola egin. Jeus etzen errexago, Aube-ko abertzaler bere burua gomenda-araziz hiri nagusiko glub baten bidez. Irakurri beharko zen, ez egun oroz ikusten ziren bezalako aithormen bat, baina ekhai erakuste bat serioa.

- “Ekharratazu hori; leku hartan zer behar den badakit! Eta, berriz ere badiozut, herriari, guri deneri, nihauri zerbitzu handiak eman ahalko dauzkiguzu.”

Horrelako aro aldietan, elgar lagundu behar zen, eta, Federik zerbaiten beharretan baldin bazen, bera, edo adixkideak...

- “Oi! esker mila, jaun maitea!”

- “Ordaintzekotan, erran gabe doa!”

Bankolaria gizon ona zen, segurki. Federik etzen egon ahal izan haren aholkuaz gogoetatu gabe; eta berehala, halako burxoratze batek lilluratu zuen.

Konbenzione-ko itxura handiak begien aitzinean iragan zizazkon. Iduritu zizakon goizalde miragarri bat jeikitzaera zoala. Erroma, Viena, Berlin jazarralditan ziren; Europa osoa nahasmenean zen. Olde hortara jauzi egiteko ordua zen, lehia-araztekoa behar bada; eta deputatuek, omen, erabiliko zuten jantziak gustatua zen. Jadanik, bere burua ikusten zuen barneko motx bazter itzuliekilako eta hirur koloreko gerrikoarekin; eta hazteria hori, lillura hori hain azkartu zizakon nun Dussardier-i aipatu baitzaukon.

Mutiko gaizoaren suhartasuna etzen ahultzen.

- “Baina ba, segurki! Zoaz!”

Federikek, hala ere, aholku galdegin zaukon Deslauriers-i. Komisaria bere probinzian tratatzen zuen kontrako alderdi zozoak handitua zuen haren liberaltasuna. Berehala igorri zauzkon sustagai bortitz batzu.

Bizkitartean, Federikek bazuen jende gehiagoz baieztatua izaiteko beharra; eta gauza Rosanette-ri erran zaukon, Vatnaz Andereñoa han zen egun batez.

Mutxurdin paristar hetarik zen, arrats guzietz, bere ikastaldiak emanak dituztelarik, edo marrazki ttipi batzuen, idazki ahul batzuen saltzera entseatu direlarik, etxera sartzen baitira zaia hegalak iztilduak, auharia egiten baitute, bakar-bakarrik jaten, eta gero, oinak berogailu ttipi baten gainean, girisailu zikin baten argitara, maitsun batez amets egiten, familia batez, fortunaz, huts egiten dauen guziaz. Hortakotz ere, bertze ainitzek bezala, Iraultzan agurtua zuten mendekatzeko aroa; - eta zozialixmoaren alde mintzo zen orotan amorratuki.

Langile xumearen liberatzea ezin zatekeen, Vatnaz-sak zionaz, emaztea liberatuz baizik. Kargu guzietara onhartua izan zadin nahi zuen, aitatasuna bilatua izan zadin, bertze lege bat, “ezkontza” ekhendua, edo bederen “adimendu gehiagorekin legeztatua”. Orduan, emazte frantzes bakoitzak gizon frantzes bat esposatu beharko zuen edo agure bat berekin hartu. Amañoek eta emaginek beharko zuten Estatuak ordaindu ofizialari izan; jujarialde bat izan beharko zen emazten lanen ikertzeko, argiratzale bereziak emaztendako, teknika guzietako ikastetxe bat emaztendako, zaintzaleria nazional bat emaztendako, oro emaztendako! Eta, Gobernamenduak haien zuzenbidea ezagutzen etzuenenez geroz,

behar zuten indarra indarrarekin garhaitu. Hamar mila herritarsek, eskopeta on batzuekin, ikhara-araz zezaketen Hiriko Etxea!

Federiken deputagoarako izen emaita bere ideien alde iduritu zizakon. Sustatu zuen, ethorkizunean loria erakutsiz. Rosanette bozkariatu zen Gambaran mintzatuko zen gizon baten ukaitez.

- “Eta emanen daukate, behar bada, kargu on bat.”

Federik, ahulezia guzietako gizona, erotasun orotakoaz hartua izan zen. Hitzaldi bat izkiriatu zuen, eta Dambreuse Jaunari ikus-araztera joan zen.

Hesten ari zen athe handiaren harrabotsean, erridau bat ideki zen leiho baten gibelean; han emazte bat agertu zen. Federikek etzuen ezagutzeko astirik ukan; baina, aitzin-gambaran, margazki batek gelditu zuen, Pellerin-en margazkia, kadera batean ezarria, bertze norapait ereman artean iduriz.

Errepublika erakusten zuen, edo Aitzinamendua, edo Zibilizazionea, Jesu-Kristoren itxura-pean bazeramala lokomotiba bat, hunek zeharkatzen baitzuen oihan oso bat. Federikek, minuta batez beha egon eta, egin zuen:

- “Zer zozokeria itsusia!”

- “Eztea bada hala?” erran zuen Dambreuse Jaunak, hitz hortan ethorria eta uste baitzuen aipatzen zuela, ez margazkia, baina goersten zuen dotrina. Martinon ordu berean ethorri zen. Gabinetera iragan ziren; eta Federik sakelatik paper baten atheratzen ari zen, Zezilia Andereñoak, bapatean sartuz, aire laño batekin erran zuenean:

- “Izaba hemen dea?”

- “Ontsa badakin ezetz,” ihardetsi zuen bankolariak. “Eztu axolarik! etxean bezala egizu, andereñoa.”

- “Oi! eskerrak! banoa.”

Hura jalgi orduko, Martinon-ek iduri ukan zuen bere mokanesaren bila zabilala.

- “Maripulisean utzia dut, desenkusa nezazue!”

- “Ontsa!” erran zuen Dambreuse Jaunak.

Ageri zen, etzuen joko horrek enganatzen, eta alde zela iduri zuen ere. Zergatik? Baina Martinon laster agertu zen, eta Federikek hasi zuen bere hitzaldia. Bigarren orrialdeko, ahalgegarri bezala erakusten baitzituen diruko abantailak, bankolariak sinoa egin zuen. Gero, erreformatara jinez, Federikek galdegiten zuen sal-erospeneko libertatea.

- “Nola...? baina barkatu!”

Bertzeak etzuen entzuten, eta jarraiki zuen. Arrandaren gainean zerga galdegiten zuen, arauka handituz doan zerga, eta jendearendako erakaskuntza, edergintzetako sustatze zabalenak.

- “Erresumak eman baleza Delacroix eta Hugo bezalako gizon batzuek ehun mila libera arranda, gaitza nun lizateke?”

Guzia mail gorenendako aholku batzuek bururatzen zen;

- “Etzazuela ezer bazterrera atxik, oi aberatsak! emazue! emazue!” Gelditu zen, eta zutik egon. Bi entzuleak, jarririk, etziren mintzatzen; Martinon-ek begiak zabaltzen zituen, Dambreuse Jauna hits-hitsa zen. Azkenean zenbat hunkia zen erdi-irri samin batekin gordez:

- “Betegina da, zure hitzaldia!” Eta moldea ainitz laudatu zuen, barneaz mintzatzerik ez ukan nahiz.

Bizitasun horrek mutiko gazte baketi baten ganik izitzen zuen, oroz gainetik zerbaiten seinale bezala. Martinon segurtatzera entseatu zizakon. Alderdi konserbadoreak, ephe guti barne, ordaina hartuko zuen, segurki; hiri batzuetan anarteko gobernamentuaren komisariak haizatuak izanak ziren; bozkatzeak etziren jorrailaren 23-ko baizik ezarriak, astia bazen; hots, Dambreuse Jaunak behar zuen, berak, Aube-an presentatu; eta, ordutik, Martinon-ek etzuen gehiago utzi, haren segetari bilakatu zen eta seme baten arthez inguratu zuen.

Federik bere buruaz biziki askietsia heldu zen Rosanette-ren etxera. Delmar han zen, eta ikasi zaukon “deliberatuki” deputatu-gai jartzen zela Zekuana-ko bozketan. “Populuari” ari zizakon iragarki batean eta hartan hi-ka mintzatuz, jokariak espantu egiten zuen “hura” aditzen zuelakotz, eta, hura salbatu beharrez, “bere burua Edergintzako gurutzeratua ukanik”, hala nola nun hura bera baitzen gorpuztua, haren itxura gorena; - ustez eta bazuela zinez jenden gainean gaitzeko eragina, ber-berak, berantago, minixtro bulego batean, jazarraldi bat hautsiko zuela aitzinatzerano; eta, erabiliko zituen bidez, ihardeste hau egin zuen:

- “Etzaiztela beldur izan! Neure burua erakutsiko dauet!”

Federikek, gaitzitzeko, bere deputatu-gaitasuna ikasi zaukon. Komedia-laria, deputatukide beharrak probintzia baizik begian etzuanaz geroz, haren zerbitzari aithortu zen eta glubetan bidatzea eskaini zaukon.

Guzien ikusten izan ziren, edo abantzu guzien, gorri eta urdin, haserreti eta baketi, gogor eta ezazol, mixtiko eta edale, hetan erregen erahiltzea erabakitzen zirenen, epizierren ohoinkeriak salatzen zirenen; eta, orotan, alokariak jabeak madarikatzen zituzten, taulierra jantziari lotzen zen, eta aberatsak ari ziren behartuen kontra zimardikan. Batzuek

ordain-sariak nahi zituzten poliziarien martir ohiak izanik, bertzek dirua eskatzen zuten asmakuntza batzuen erabiltzeko, edo “phalanstère” delako elgartasunetako xedeak ziren, kantonamenduetako saldegi batzuen langaiak, zorion publikorako sistimak; - gero, han edo hemen, zozokeriazko hedoi horien artetik izpirituko ximixta bat, helegiteak, ziliporta batzu bezain bapatekoak, zuzenbidea sakre batean bildua, eta elhearen loreak zirtzil baten ahoan, sabre baten uhala athorrik gabeko bulhar hasean trebes zadukala. Batzuetan ere bazen jaun bat, aitoren- seme ibilara lañokoa, jende xumearen elhe batzuen erraiten, eta eskuak ikuziak etzituena babekilakoak ager-arazi nahiz. Abertzale batek ezagutzen zuen, bertutedunenek kitzikatzen; athera zen errabia gogoan. Behar zen beti, alegia zuhurtziaz, abokatez gaitzerran, eta ahal bezain usu itzuli hautarik eman: “etxeari nork bere harria ekharri, - gizarteko egitekoa, - landegia.”

Delmar-ek etzuen hitzaren hartzeko aldirik huts egiten; eta, etzuelarik erraiteko gehiago deus hatzemaiten, atherabidea ukabila hankan zutik emaita zuen, bertze besoa barneko motxean, eta bazterrez itzuliz, bapatean, bere buruaren ontsa erakusteko moldez. Orduan, esku zarta batzuek joiten zuten, Vatnaz Andereñoarenak salaren zolan.

Federik, hitzlariak ahul izanik ere, etzen menturatzen. Jende horiek oro iduritzen zizazkon edo sobera ezjakinak edo sobera etsai.

Baina Dussardier bila abiatu zen, eta ikasi zaukon bazela, Jondoni-Jakobe karrikan, glub bat *Adimenduaren gluba* izenarekin. Horrelako izen batek esperanza ona emaiten zuen. Bertzela ere, adixkideak ekharriko zituen.

Bere “punch”-era gomitatuak zituenak ekharri zituen: liburuzaina, arno saltzalea, etxegintzalaria; Pellerin bera jina zen, Hussonnet behar bada jinen; eta oinbidean, athe aitzinean, Regimbart bazagon bi gizonekin, lehena bere Compain leiala, gizon tipito bat, pikotaz titatua, begiak gorri; eta bigarrena, halaho beltz-zimino bat, ilea izigarri nasai, eta ezagutzen zuena bakarrik “Barzelonako abertzale bat” zelakotz.

Bidexka batetik iragan ziren, gero barne handi batera eremanak izan, zurgintzako erabilia iduriz, eta murre oraino berriek igelsu usaina bazutena. Laur argiek, birazka bi aldetan ezarriak, gozagaizki argitzen zuten. Taulada batean, zolan, bulego-mahi bat bazen xilintxa batekin, azpian taulada egiten zuen mahi bat, eta bi bazterretan bertze bi aphilagoak, segetariendako. Alkiak betetzen zituen entzuleria egina zen ikasle zahartu, zaintzale, argiratu etziren letretako gizon batzuek.

Lepho urinduekilako maripulis lerro horietan, ikusten zen lekuka emazte baten boneta edo langile baten taulierra. Salaren zola langilez betea zen ere, horrara lanik ez ukanez jinak, edo hitzlariek sarr-araziak zituztenak berer esku-zarten eman-arazteko.

Federikek axola hartu zuen Dussardier eta Regimbart-en artean jartzeko, azken hunek, jarri orduko, bi eskuak makilaren gainean ezarri baitzituen, bidarra eskuen gainean, eta betespalak hetsi, salaren bertze buruan Delmar, zutik, bilzarrearen gorenean zagolarik.

Buruzagiaren bulego-mahian, Senecal agertu zen.

Ustegabe hori, gogatua zuen komis gaizoak, Federiki gustatuko zizakon. Gaizki hartu zuen.

Jendaldeak adei handi bat erakusten zaukon bere buruzagiari. Otsailaren 25-ean lanaren antolamendua berehala nahi ukana zutenetarik zen; biharamunean, Pradoan, Hiriko Etxeari jaukitzearen alde mintzatua zen; eta, jende bakoitza bere modelean arautzen baitzen, batek Saint-Just eginez, bertzeak Danton, bertze batek Marat, hura entseatzen zen Blanqui-ren idurikoa izaitera, hunek Robespierre-rena izan nahi zuelarik. Eskularru beltzek eta ile zutek itxura gogor bat bazemoten, ezin gehiago behar bezalakoa.

Bilkura ideki zuen gizonaren eta herritarraren Zuzenbiden aithormenarekin, ohikoa zen fedezko egintza. Gero mintzo bizkor batek kantatu zituen Béranger-en *Jendearen orhoitzapenak*.

Bertze mintzo batzu entzun ziren.

- “Ez! ez! ez hori!”

- “*Kaxketa!*” hasi ziren orroaz, zolan, abertzaleak.

Eta khoroan kantatu zuten egun hartako olerkia:

Kaxketa hunen aitzinean xapelak beheiti,

Langilearen aitzinean eman belhauriko!

Buruzagiaren hitz batean, entzuleria ixildu zen. Segeretarietarik batek eskutitzak ideki zituen.

- “Gazte batzuek jakin-arazten dute arrats oroz Pantheon-aren aitzinean erretzen dutela *Bilzarre nazionala*-ren aldiko bat, eta abertzale guziak sustatzen dituzte haien behazunari jarraikitsera.”

- “Biba! onhartua!” ihardetsi zuen jendeak.

- “Jean-Jacques Langreneux herritarrak, irargarkariak, Dauphine karrikan, nahi luke orhoit-harri bat eraik ladin berolizko martiren orhoitzapenetan.”

- “Michel-Evariste-Népomucène Vincent, erakasle ohiak, agiantzatzen du demokrazia europatarrak hizkuntza batua hauta dezan. Hizkuntza hil batez balia laiteke, hala nola behazenez latin hobetua.”

- “Ez! latinik ez!” egin zuen etxegileak.

- “Zergatik ez!” egin zuen berriz ikasketetako nagusi batek.

Eta bi jaun horiek eztabadatzea eskaini zuten, hortan bertze batzu sartu baitziren, bakoitzak hitz bat botatuz lilluratzeko, eta laster hain aspergarri bilakatu zena nun ainitz joan baitziren.

Baina agure ttipi batek, bekoki biziki goraren azpian begitako musker batzu bazaduzkala, mintzatzea galdegin zuen lehiatua zen mezu baten emaitako.

Idazki bat zen zergen banakatzeaz. Zenbakiak bazarioten, bururatzerik etzuen! Ezin egona agertu zen lehenik murmurikatzetan, solastatzetan; jeusek etzuen nahasten. Gero xixtuz hasi ziren, hel egiten zen “Azor” bati; Senecal-ek publikoa erasiatu zuen; hitzlaria aitzina zoan mekanika bat bezala. Behar izan zen, ixil-arazteko, ukondotik hartu. Gizon zaharrak amets batetik atheratzen zela iduritu zuen, eta, bere begitakoak gostura goitituz:

- “Barkatu! herritarrak! barkatu! Banoa! mila desenkusa!”

Irakurtze horren ondorio gaixtoak Federik nahasi zuen. Bere hitzaldia sakelan zuen, baina hor berean asmatzea hobe izanzen zen.

Azkenean, buruzagiak jakin-arazi zuen egiteko gotorrera iraganen zirela, bozkatzeko gaira. Zerrenda errepublikar handiak etziren eztabadatu. Bizkitartean, *Adimenduaren glubak* zuzenbidea bazuen, bertze batek bezala, zerrenda baten egiteko; “Hiriko Etxeko paxa Jauner laket ezpazee ere”, eta jendearen mezulari izaitea galdegin nahi duten herritarrek bere lekukotasunak eman zezazketen.

- “Zoaz bada!” erran zuen Dussardier-ek.

Sotanan zen gizon batek, ileak kixkurtuak, begitartea phindarretan, eskua jadanik goitituta zuen. Erran zuen, murdukatuz, izena Ducretot zuela, aphez eta laborantzalaria, *Ongailuez* izeneko liburu baten egilea. Laborantzako bilkura batera igorri zen.

Gero abertzale taulier zuridun bat igan zen tauladara. Hau jende xumetarik zen, soigainez zabal, begitarte lodi bat biziki ezta eta ile beltz luze batzu. Bilzarreari behatu zaukon so abantzu atseginkoi batekin, burua gibelerara eman, eta azkenean, besoak zabalduz:

- “Ducretot gibelerat igorri duzue, oi anaiak! eta ontsa egin, baina ezta erlisione gabez, ezen oro erlisionekoak baigira.”

Batzuek entzuten zuten ahoa zabalik, gatixima ikasleak iduri, egonara lilluratu batzuekin.

- “Ezta ere apheza delakotz, ezen, gu ere, aphezak baigira! Langilea aphez da, zozialixmoaren sortzalea hala zen bezala, gu ororen Nagusia, Jesu-Kristo!”

Ordua ethorria zen Jainkoaren erreinuaren hasteko. Ebanjelioak bazeraman zuzen-zuzena 93-ra! Esklabotasunaren aurdikitzearen ondotik, langile xumetasunaren aurdikitzea. Herraren adina ukana zen, hasiko zen maitasunarena.

- “Girixtinotasuna da eraikuntza berriaren harri-giltza eta zimendua...”

- “Gutaz trufan ari zirea?” egin zuen alkohola saltzaleak. “Zerk eman dauta hunelako aphezkoia!”

Mozte horrek eskandala handi bat egin zuen. Abantzu oro alkien gainera igan ziren, eta ukabila luzatua, orro bazegiten: “Jainkogabea! arixtokrata! zirtzila!” buruzagiaren xilintxak ethengabe joiten ari zuelarik eta oihuak errepikatzen: “Ordenua! ordenua!”. Baina, izitu gabe, eta jin baino lehen hartuak zituen “hirur kafez” lagundua bertzela ere, ari zen bertzen artean zalapartaka.

- “Nola, ni! arixtokrata? Goazen bada!”

Argi emaitera onhartua azkenean, erran zuen aphezekin etzela ehoiz gostuan izaiterik, eta, arestian “ekonomiak” aipatuak zirenaz geroz, gaitzeko bat zatekeela elizen ekhentzea, ziborio sailduen, eta azkenik zeremonieria guzien.

Norbaitek ihardoki zuen urrun zoala erranez.

- “Bai! urrun! Baina, untzi bat ustegabeen ekaitzak hartua delarik...”

Gomparaketaren bururatzea igurikatu gabe, bertze batek ihardetsi zaukon:

- “Zurekin bat! baina ukaldi bakar batez aurdikitzea da, oharmenik gabeko hargin batek...”

- “Harginak laidoztatzen dituzu!” egin zuen orroaz igelsuz estalia zen herritar batek; eta, laidoztatua zelako ustean hisituz, sakrea zarion, bere alxia tinkatuz. Kampan haren ezartzeko etziren hirur gizon sobera izan.

Bitartean langilea beti tauladan zagon. Bi segetariiek jauts zadin erran zaukoten. Egiten zizakon bidegabeaz goraki mintzatu zen.

- “Eztautazue oihu egitea debekatuko: gure Frantzia maiteari amodio betierekoa! amodio betierekoa ere Errepublikari!”

- “Herritarrak!” erran zuen orduan Compain-ek: “herritarrak!”

Eta, “Herritarrak” oihukatuaren bortxaz, ixil apur bat ukanik, bere bi esku gorriak, moztuak iduri, mahiaren gainean ezarri zituen, soina aitzinera eman, eta begiez klixkatuz:

- “Uste dut gehiago leku eman behar lizatekeela aretxe buruari”.

Oro ixilik zauden, ustez eta gaizki entzuna:

- “Bai! aretxe burua!”

Hirur ehun irriek batean jo zuten. Tronadura ikharatu zen. Bozkarioaz uzkaikiak ziren aurpegi horien guzien aitzinean, Compain-ek gibelera egiten zen. Berriz hasi zen doinu erotu batean:

- “Nola! eztuzue aretxe burua ezagutzen!”

Irria gorenera igan zen, erotasun batera. Gerriari lotuak zauden. Batzu ere lurrera erortzen ziren, alkien azpira. Compain, ezin jasanean, Regimbart-en ondora gerizatu zen eta berekin ereman nahi zuen.

- “Ez! banago bururano!” erran zuen Herritarrak.

Ihardespen horrek delibera-arazi zuen Federik; eta, eskun eta ezker adixkideak bilatzen baitzituen lagundua izaiteko, ikusi zuen, aitzinean, Pellerin tauladan. Edergileak goratik hartu zuen jendearekin.

- “Apur bat jakin nahi nuke hortan guzian Edergintza nun den! Nik, margazki bat egina dut...”

- “Eztugu margazkiez axolarik!” erran zuen bortizki gizon mehar batek, matel- hezurretan hatz gorri batzu bazituena.

Pellerin moztea izaitiaz khexatu zen.

Baina bertzeak, tragediako doinu batekin:

- “Gobernamenduak elituzkea ekhendu behar ukanak, erabaki batez, prostituzioea eta miseria?”

Eta, hitz horrek berehala ezarr-arazirik jendearen fagoretan, hiri handietako ustelkeriaren kontra oihu egin zuen.

- “Ahalge ‘ta desohore! Burjesak hatzeman behar litzateke Etxe Urretik atheratzean eta aurepegira thu egin! Ezpalu, bederen, Gobernamenduak zirtzilkeria laguntzen! Baina hiri-mugako langilek badute gure alaba eta arriben aldera ausartasun bat...”

- “Jostagarri da!”

- “Kampora!”

- “Gure ganik zergak hartzen dira lizunkeriaren ordaintzeko! Horrela, komedialarien sari azkarrek...”

- “Eni!” egin zuen Delmar-ek.

Tauladara jauzi egin zuen, jende guzia baztertu, egonara bat hartu; eta, salatze hoin gezak gaitzesten zituela erranez, komedialariak zuen eginbide zibilizatzailean hedatu zen. Antzokia zenaz geroz erresumako erakaskuntzaren susta-lekua, boza antzokiko erreformarendako emaiten zuen; eta, hasteko, gehiago buruzagirik ez, abantail berezirik ez!

- “Bai! ez edozein motakorik!”

Komedialariaren jokoak jendaldea berotzen ari zuen, eta xede jazarle batzu bertzeekin nahasten ziren.

- “Ez gehiago akademiarik! ez Institutorik!”

- “Ez misionerik!”

- “Ez bakalorearik!”

- “Unibersitateko gradoak lurrera!”

- “Begira ditzagun”, erran zuen Senecal-ek, “baina ororen bozkatzear emanak izan bedite, Populuarenaz, egiazko juje bakarra baita!”

Baliagarriena, bertzela ere, etzen hori. Behar zen lehenik galga aberatsen burutik iragan-arazi! Eta erakutsi zituen bere tronadura urreztatuen azpian gaizkiginez lephorano betetzen, behardunek aldiz, bere hegaztegi-petan gosez oinazkatuak, bertute guziak bazituztelarik. Esku zartak hain azkar bilakatu ziren nun gelditu baitzen. Minuta zenbaitez egon zen betespalak hetsirik, burua gibelera eta phizten zuen haserre hortaz leriaria bezala.

Gero, berriz mintzatzen hasi zen molde dogmatiko batean, legeak bezain azkarrak ziren erranaldi batzuekin. Estatuak behar zuen Bankoaz eta Asuranez jabetu. Ondoriotasunak ekhenduak izanen ziren. Khutxa zozial bat ezarria izanen zen langilendako. Bertze erabaki ainitz on izanen ziren geroko. Horiek, oraiko, baziren aski; eta, berriz bozketara itzuliz:

- “Behar ditugu herritar garbiak, gizon osoki berriak! Badea norbait?”

Federik jeiki zen. Baieztatze-zorrozur bat izan zen haren adixkidek egina. Baina Senecal, Fouquier-Thinville-ren arako begitarte bat hartuz, galdeka hasi zizakon bere deituraz, izenaz, aitzinekoez, biziak eta bizi-moldez.

Federikek laburzki ihardesten zaukon ezpainak ausikiz. Senecal-ek galdegin zuen norbaitek deputatu-gai izaite horrendako trabarik bazakusanez.

- “Ez! Ez!”

Baina, hark, bazakusan. Guziak gurtu ziren beharriak idekiz. Deputatu-gai izan nahi zuen herritarrak etzuen emana batzorde demokratiko bati hitzeman zaukon dirutalde zenbait. Gainera, otsailaren 22-an, nahiz aski abisatua izanik, Pantheon-go hitz-harmena huts egina zuen.

- “Teilerietan zela zin egiten dut!” egin zuen Dussardier-ek.

- “Zin egin dezakezua Pantheon-ean zela?”

Dussardier burua beheiti zagon. Federik ixilik; adixkidek, gaitzituak, khexurekin behatzen zaukoten.

- “Bederen”, egin zuen berriz Senecal-ek, “norbait ezagutzen duzua zure aburuez berme izanen zaukunik?”

- “Ni!” egin zuen Dussardier-ek.

- “Oi! ezta aski! bertze norbait!”

Federik Pellerin-en gana itzuli zen. Erdergileak ihardetsi zaukon jestu andana batekin erran nahi baitzuten:

- “Ha! gaizoa, baztertua naute! Debrua! Zer nahi duzu!”

Orduan Federikek ukondoaz Regimbart hunki zuen.

- “Ba! egia! ordu da! banoa!”

Eta Regimbart tauladara igan zen; gero, jarraikia zizakon Española erakutsiz:

- “Onhar ezazue, herritarrak, Barzelonako herritar bat aitzinera dezazuetan!”

Abertzaleak egin zuen agur handi bat, bere begi zilharrak mekanika batek bezala itzulikatu, eta, eskua bihotzaren gainean:

- “*Ciudadanos! mucho aprecio el honor que me dispensais, y si grande es vuestra bondad mayor es vuestra atencion.*”

- “Hitza galdegiten dut!” oihukatu zuen Federikek.

- “*Desde que se proclamo la constitucion de Cadiz, ese pacto fundamental de las libertades españolas, hasta la ultima revolucion, nuestra patria cuenta numerosos y heroicos martires.*”

Federikek berriz ere bere burua entzun-arazi nahi ukan zuen:

- “Baina, herritarrak!...”

Españolak bazarraikan:

- “*El martes proximo tendra lugar en la iglesia de la Magdalena un servicio funebre.*”

- “Arrazoin gabe da azkenean! nehork eztu entzuten!”

Ohar horrek jendea sumindu zuen:

- “Athera! athera!”

- “Nor? ni?” galdegin zuen Federikek.

- “Zuhaur!” erran zuen Senecal-ek maiestaterekin. “Athera zaitte!”

Atheratzeko jeiki zen; eta Iberiarraren mintzoa gibeletik zoakon:

- *“Y todos los españoles desearian ver alli reunidas las diputaciones de los clubs y de la milicia nacional. Una oracion funebre en honor de la libertad española y del mundu entero, sera pronunciado por un miembro del clero de Paris en la sala Bonne Nouvelle. Honor al pueblo frances, que llamaria yo el primero pueblo del mundo, sino fuese ciudadano de otra nacion!”*

- “Arixto!” garrasiatu zuen gaixtagin batek, Federiki ukabila erakutsiz korralera abian zelarik, sumindua.

Bere burua zerbitzu egin nahiaz erasiatu zuen, gogoratu gabe eginak zizazkon salatzeak egiak zirela, ororen buruan. Zer ideia gaixtoa deputatu-gai izaite hori! Baina zer arstoak, zer zozoak! Bere burua gizon horiekin erkidatzen zuen, eta horien zozokeriaz arintzen bere urguluko zauria.

Gero ukan zuen Rosanette-ren ikusteko beharra. Hoinbertze itsuskeria eta hantukerien ondotik, haren goxatasuna atsedean bat izanzen zen. Bizkitartean, Federik sartu zenean etzaukon galde bat ere egin.

Sutondoan zagon, zaia baten horraduraren barreatzen ari. Lan horrek ustegabetu zuen.

- “Ori? Zer ari hiz?”

- “Ikusten duk,” erran zuen idorki. “Ene philden antolatzen! Hire errepublika duk.”

- “Zergatik *ene* Errepublika?”

- “Enea, behar bada?”

Eta bi ilabetez geroz Frantzian gertatzen zen guziaz erasian hasi zizakon, iraultza eginik salatuz, jendearen hondatzeaz ogendun zela, aberatsek Paris uzten ari zutela, eta berantago ospitale batean hilen zela.

- “Errex mintzo hiz hi, hire arrandekin! Baina, gauza doan bezala, eztituk luzaz ukanen, hire arrandak.”

- “Badateken,” erran zuen Federikek, “zerbitzu emaile hoberenak ditun beti ahatziak; eta, nor berak ezpalu konzienzia alde, haiekin zerbait egiten den abrek abantailik ez nahi ukaitetik higun lezaketen!”

Rosanette-rek so egin zaukon, betileak hurbildurik.

- “He? Zer? Zer abantail ez nahi ukaite? Jauna ezta nahi duenera heldu, iduriz? Hobe! horrek abertzaletasunezko emaitza egiten ikasiko dauk! Ho! gezurrik ez erran! Badakiat hirur ehun libera emanak

dezteekala, bere burua ordain-arazten baitik, Errepublikak! He beraz, harekin josta hadi, gizontto!”

Zozokeria erauntsi horren azpian, Federik bazoan ustegabetzetik nahigabe phizuago batera.

Gambarako zokora baztertua zen. Hara jin zizakon.

- “Dakusagun! doi bat arrazoinka hadi! Erresuma batean etxe batean bezala, nagusia behar duk; bertzela, bakoitzak zarea giderretik dantza-arazten dik. Lehenik, jende guziak badakik Ledru-Rollin zorrez estalia dela! Lamartine aldiz, nola nahi duk poeta batek politika entzun dezakan? Ha! burua higi ahal dezakek eta bertzek baino izpiritu gehiago badukala uste ukan, egia duk alta! Baina hi beti estakuruka; hitz bat ezin erran hirekin! Horra behazenez Fournier-Fontaine, Saint-Roch-eko saldegietakoa: badakika zenbaten beharretan dukan? Zortzi ehun mila liberaren! Eta Gomer, aitzin hortako paketatzalea, bertze errepublikar bat hori, pintzetak emaztearen buruan hausten zitian, eta hanbat belarmin badik edanik nun eritegi batean ezarriko baitie. Holakoak dituk denak, errepublikarrak! Ehunean hogeita bortzeko Errepublika! Ha ba! egik espantu!”

Federik joan zen. Neska horren zozoak, bapatez agertuz mintzaira arruntenean, okaztaten zuen. Berriz apur bar abertzale bilakatua senditu zen ere.

Rosanette-ren omore gaixtoa etzen handitu baizik. Vatnaz Andereñoaren suhartasunak haserretzen zuen. Ustez bazuela misione bat, hunek bazuen elhasturian artzeko, gatixima egiteko errabia, eta, gauza horietan bere adixkidea baino azkarrago, arrazoineraz lehertzen zuen.

Egun batez, Hussonnet-en kontra osoki sumindua ethorri zen, txarkeria batzuen egitera ausartatua baitzen, emazten gluban. Rosanette haren alde jarri zen, erranez berak gizon jantzi batzuek ezarriko zituela “guzier berearen erraitera, eta azoteaz emaitera” joaiteko. Federik ordu berean sartzen ari zen.

- “Hara laguntzen nauk, eztea hala?”

Eta, hura han izanik ere, aharratu ziren, batek eginez burjestsarena, bertzeak filosofarena.

Emazteak, Rosanette-ek zionaz, bakarrik maitasuneko eginak ziren edo haurren hazteko, menaia baten atxikitzeke.

Vatnaz Andereñoaren ustez, emazteak behar zuen Estatuan bere lekua ukan. Lehenago, Galestsek legeak egiten zituzten, Angeles-

Satsonek ere, Huronen emazteak Konseiluan barne ziren. Zibilizatzeko lana ororena zen. Emazte guziek behar zuten hartara ari izan, eta ezarri azkenean norberekoitasunaren orde anaiatasuna, berexotasunaren orde elgartasuna, zatikatzearen orde kultura handia.

- “Goazen, ontsa! kulturaren zerbait badakin hik, orai!”

- “Zergatik ez? Bertzela ere, gizaldez dun gaia, haren ethorkizunaz!”

- “Eman hiharenari!”

- “Ene egitekoa dun!”

Khexatzen ari ziren. Federik arteko jarri zizeen. Vatnaz-sa berotzen ari zen, eta heldu zen ere komunismoaren alde jartzera.

- “Zer zozokeria!” erran zuen Rosanette-ek. “Nehoz ere eginen ahalko duna?”

Bertzeak lekukotzat aipatu zituen Ezeniarrek, Morabiako anaiak, Paraguaiko Jesuistak, Pingons-tarren familia, Thiers-ko ondoan Auverñan; eta, jestu ainitzetan ari baitzen, sakel oreneko gatina lotu zizakon dilindako girgilerietan zuen urrezko ahari ttipi bati.

Bapatez, Rosanette izigarriki zuritu zen.

Vatnaz Andereñoa ari zen bere phuxkilaren liberatzen.

- “Ehadila hoinbertze akhi,” erran zuen Rosanette-ek; “orai, hire aburu politikakoak badazkinat.”

- “Zer?” egin zuen berriz Vatnaz-sak, birjina bat bezala gorriturik.

- “Ho! Ho! Entzuten nun!”

Federikek etzuen egiten. Haien artean, ageri zen, zerbait baitezpadako gertatua zen, eta zozialismoa baino minagokoa.

- “Eta hori hala baliz ere,” ihardetsi zuen Vatnaz-sak, izitu gabe zutituz. “Mailegu bat dun, maitea, zorra zorrari!”

- “Jinkoa, neureak ez tinak ukatzen! Zenbait mila liberendako, egiteko handia! Mailegatzen dinat bederen; ez ehor ebasten!”

Vatnaz Andereñoak irri egiteko indar egin zuen.

- “Oi! eskua sura eman nezaken.”

- “Guardi eman! Erretzeko aski idorra dun.”

Atsoak esku eskuna aitzineratu zaukon, eta, goititua atxikiz hari bekoz beko:

- “Baina hire adixkidetan baditun bere gostuko aurkitzen ditinenak!”

- “Andaluziarrak, orduan? gaztañetetako?”

- “Zirtzila!”

Marexalsak egin zuen agur handi bat.

- “Loriagarriagorik ezta!”

Vatnaz-sak etzuen ihardetsi. Izerdi xorta batzu agertu zizazkon pholsuetan. Begiak tapizan itzaten zituen. Hats bahitua zen. Azkenean, athera joan zen, eta bizkorki jo-arazten zuela:

- “Gau on! Ene berriak ukanen dituzue!”

- “Atseginekin!” erran zuen Rosanette-ek.

Egina zuen indarrak hautsi zuen. Ohexkaren gainera erori zen, dena ikharan, laido batzu ahopiatuz, nigarretan. Vatnaz-saren mehatxu horrek zuena oinazkatzen? Baina ez! ontsa irriegiten zaukon! Oro har, bertzeak dirua zor zaukon, behar bada. Urrezko aharia zen, emaitza bat; eta, nigarren artetik, Delmar-en izena utzi zuen. Beraz, komedianta maite zuen!

- “Orduan, zergatik hartu nau?” egin zuen bere baitan Federikek. “Nundik dator hura itzuli dela? Hunek zergatik nau atxikitzen? Zer erran nahi du horrek guziak?”

Rosanette-ren hipa ttipiek jarraikitzen zuten. Beti ohexkaren hegian zen, sahetsaz etzana, eskuneko matela bi eskuen gainean, - eta jende hain beratza, sendimendu gabetua eta minberatua iduri zuen nun hurbildu baitzizakon, bekokian musu emaitera, eztiki.

Orduan, hark samurtasunezko segurtamenak egin zauzkon; printzea orai joana zen, libro izanen ziren. Baina ordu hartan beharrean gertatzen zen. “Ikusia duk hihaurek joan den egunean, ene horradura zaharretan ari nintzalarik.” Karroseriarik ez orai! Eta etzen guzia; tapizierak mehatxatzen zuen gambarako eta saloin handiko mublen berriz hartzeaz. Zer egin etzakien.

Federikek ihardetsi nahi ukan zuen: “Ez hadila khexa, ordainduko dinat!” Baina andereak gezurra erran zezakeen. Ikusiak jakinduru egina zuen. Xoilki konsolamendu emaiterekin gelditu zen.

Rosanette-ren beldurak etziren arrazoin gabeak; mubleak itzuli behar izan ziren eta Drouot karrikako bizitegi ederra utzi. Bertze bat hartu zuen, Poissonnière karrika handian, laurgarrean. Lehenagoko saloin ttipiko bitxikeriak aski izan ziren hirur barner itxura aphain baten emaiteko. Itzalkari xinatarrak ukan ziren, zabalzan oihal-etxe bat, saloian jokoko tapiza bat oraino berri-berria, zeta gorraxtazko alkixka batzuekin. Federik nasaiki sartua zen erospen horietan; etxe bat azkenean beretako duen ezkondu berri baten bozkarioa sendi zuen;

emazte bat berea; eta, hor izaitea biziki laket baitzizakon, etzatera heldu zen abantzu gau guziez.

Goiz batez, aitzin-gambaratik jalgitzen ari zelarik, ikusi zuen heren estaian, mailetan, igaiten ari zen zaintzale nazional baten xakoa. Norat zoan? Federikek igurikatu zuen. Gizona beti goiti ari zen, burua apur bat beheiturik: begiak goititu zituen. Arnoux jauna zen. Izanara argi zen. Aldi berean gorritu ziren, eragozpen beraz hartuak.

Arnoux lehena izan zen atherabide baten hatzemaiten.

- “Hobeki da, eztea hala?” Rosanette eri izanez, berrien ukaiteko jina baliz bezala.

Federik idekitze hortaz baliatu zen.

- “Bai, segurki! Bederen sehiak hala erran dauta,” entzun-arazi nahiz etzela hartua izana.

Gero bekoz-beko egon ziren, zer egin jakin gabe, batak eta bertzeak, eta elgarri beha. Batek etzuen bertzeak baino lehen abiatu nahi. Arnoux-ek, aldi hortan ere, gauza hautsi zuen:

- “Ha! bah! berantago jinen niz! Norat joan nahi duzu? Laguntzen zitut!”

Eta, karrikan izan zirenean, ohian bezain naturalki mintzatu zen. Etzukeen, agian, jitea bekaizkorra, edo gizon onegia zen gaitzitua izaiteko.

Bertzela ere aberriak goganbehartzen zuen. Etzuen orai zaintzale jantzia gehiago uzten. Ephailaren 29-an, *La Presse* egunkariko bulegoak zainduak zituen. Jendea Gambarara sartu zenean kuraia erakutsia zuen, eta Amiens-en zaintzaleria nazionalari eskaini zen aphauruan izana zen.

Hussonnet, beti harekin zerbitzuan, nor nahi baino gehiago baliatzen zen haren xahakoaz eta zigarretez; baina, jitez errespetu gabea, hari kontra egitea laket zuen, erabakien estilo moldegaitzaz gaitzerranez, Luxembourg-ko bilkurez, emazten ausartasunaz, tiroliarrez, guziaz, Laborantzako karrorano, idi orde zaldiez eremana eta nexkato gazte itsusi batzuez lagundua. Arnoux-ek, aldiz, Botherea zaintzen zuen eta alderdi guzien elgarretaratzeaz amets egiten. Bizkitartean, haren egitekoak gaizki itzultzen ari ziren. Hortaz etzen hein batean baizik khexu.

Federiken eta Marexalsaren adixkidantzak etzuen trixtatua; ezen horren jakiteak utzi zaukon (konzienzian) printzea joanez geroz emaiten etzaukon pensionearen ekhentzeko baimena. Gertaldietako nahigaben estakurua eman zuen, intzira ainitz egin, eta Rosanette-ek bihotza handi

ukan zuen. Orduan Arnoux Jauna bihotzeko maitaria bezala senditu zen, - horrek haren estimuan goititzen baitzuen, eta gaztetzen. Federikek Marexalsa ordaintzen zuela ez dudatuz, uste zuen berak “joko pollit bat” egiten zuela, hortaz gordetzera ere heldu zen, eta lekua libro uzten zaukon elgarrekin gertatzen zirenean.

Uzitze horrek Federik gaitzitzen zuen; eta partida zuenaren ikustatea gehiegi luzatua zen murrিকা bat iduri zizazkon. Baina, khexatuz, bertzearen gana itzultzeko zori guzia ekhenduko zaukon bere buruari, eta hartaz mintzatzearen entzuteko bide bakarra zen ere. Faianzeria saltzaleak, ohi zuen bezala, edo, behar bada maltzurreriaz, hortaz gogotik orhoit-arazten zuen soilasaldietan, eta galdegiten zaukon ere zergatik etzen gehiago haren ikustera jiten.

Federikek, estakuru guziak agorturik, erran zuen Arnoux Anderearen etxean izana zela aldi andana batez, debaldetan. Arnoux hortaz segur gelditu zen, ezen ainitzetan balditzen baitzen haren aitzinean elgarren adixkidearen ez han izaitiaz; eta hark beti ihardesten zaukon ikustaldia huts egina zuela; hala nola nun bi gezur horiek, batak bertzea salatu orde, elgar baieztatzen baitzuten.

Mutiko gaztearen eztitasunak eta bairan zadukalako bozkarioak egiten zuten Arnoux-ek maitatzenago zuela. Etxekotasuna bazeraman azken mugetarano, ez erdainuz, baina konfienxiaz. Egun batez, izkiriatu zaukon egiteko lehiatu batek probinziara joan-arazten zuela hogei-ta laur orenendako; haren orde zaintzea har zezan othoizten zuen. Federik etzizakon ez erraitera menturatu, eta Carrousel-go zaindegira joan zen.

Jasan behar ukan zuen zaintzale nazionalen lagungoa! eta, burdinaki garbitzale bat salbu, itsuski edaten zuen gizon maltzurra, oro zituzten kartuxa-untziak baino zozoago iduritu zizazkon. Solas baitezpadakoa gerriko bateko larruerien ordaintzeaz izan zen. Bertze batzu sumintzen ziren landegi nazionalen kontra. Bazioten: “Nora goaz?” Galde hori ukana zuenak ihardesten zuen begiak zabalduz, leze baten hegian bezala: “Nora goaz?” Orduan ausartago batek egiten zuen: “Eztezake gehiago iraun! Bururatu behar da!” Eta, solas berak errepikatuz arratserano, Federik hilgarriki aspertu zen.

Ustegabea handia ukan zuen, ikusi zuenean, hamekak hirian, Arnoux agertzen, erran baitzuen, berehala, liberatzera lasterrez heldu zizakola, egiteko zuena bururaturik.

Egitekorik etzuen ukana. Hori asmatua zen hogei-ta laur orenen emaiteko, bakarrik, Rosanette-rekin. Baina Arnoux gaizoak bere buruaz

gehiagi uste ukana zuen, hala nola nun, unaduran, dolutze batek hartua baitzuen. Federiken eskertzera heldu zen eta auhariaren eskaintzera.

- “Milesker! eniz gose! eztut ohea baizik galdatzen!”

- “Arrazoin bat gehiago elgarrekin auhaltzeko, sarri! Zein guria ziren! Ezta etxera sartzen orai! Berantegi da! Lanjeros lizateke!”

Federikek, aldi hortan ere, amor eman zuen. Ezpaitzauden hura ikus beha, zaintzale lagunek besta egin zaukoten Arnoux-i, gehienik garbitzaleak. Orok maite zuten; baina hain zen mutiko ona nun Hussonneten ez han izaiteaz urrikitu baitzen. Baina bazuen minuta batez begiaren hesteko beharra, ez gehiago.

- “Ene ondoan eman zaite,” erran zaukon Federiki, bere kampamenduko ohean etzaten zen aldi berean, bere larrueriak ekhendu gabe. “Atzar!” oihukatze baten beldurrez, erregelamendua izana gatik, eskopeta atxiki zuen ere; gero hitz batzu ahopiatu: “Ene maitea! ene aingeruñoa!” eta lokartzean etzuen luzatu.

Mintzo zirenak ixildu ziren; eta apurka zaindegian ixil handi bat egin zen. Federik, kukusoez jaukitua, inguruan so zagon. Harresiak, horiz thindatua, bazuen goratasunaren erditan taula luze bat hartan zorroek tontor lerro bat egiten baitzuten, azpian aldiz, berun koloreko eskopetak batzu bertzen ondoan zut zaudela; gorronga batzu entzuten ziren, zaintzale nazionalek eginak, hauen sabelen itxura apur bat ageri zelarik, ilunean. Botoila huts batek eta azieta batzuek betetzen zuten berogailuaren gaina. Hirur lastozko kaderek inguratzen zuten mahia, hartan karta joko bat zabaldua zen. Atabal batek, alkiaren erditan, uhala dilindan utzia zuen. Aire beroak, athetik jinez, girisailua khetan ezarrarazten zuen. Arnoux lo zagon, bi besoak zabalik; eta eskopeta ondoaz beherera apur bat zeharka ezarria baitzen, kanoiaren ahoa galtzarpera heldu zizakon. Federikek ikusi zuen eta izitu zen.

- “Baina ez! hutsean niz! deusen beldur izaiterik ezta! Hiltzen baliz alta...”

Eta, berehala, bururatzerik etzuten marrazki batzu iragan ziren. Bere burua ikusi zuen *Harekin*, gauaz, posta-karrosa batean; gero ibai bazterrean udako gau batez, eta argi baten leinuruen azpian, etxean, bien etxean. Gelditzen zen ere menaiako gastu batzuetan, etxeko eginbeharretan, zoriona jadanik ikusten zuela, eskuztatzen; - eta, horren ukaiteko, eskopetako xakurra goiti zadin behar izanen zen bakarrik! Oin-erhiaren punttaz zapa zaitekeen; tiroa joanen zen, halabeharra izanen zen, jeus gehiago!

Federik gogoeta hortan hedatu zen, lanean ari den antzertilari bat bezala. Bapatez, egintzara heltzetik etzela urrun iduritu zizakon, eta bera hortan barne izanen zela, bazuela horren gutizia; orduan beldur handi batek hartu zuen. Herstura horren erdian, atsegin bat sendi zuen, eta hartan gero eta gehiago sartzen ari zen, laztarekin ikusiz arrangurak ezeztatzen; bere ametseriako erotasunean, gainerateko mundu guzia urtzen zen; eta bere burua etzuen sendi bulharretako thinkatze ezin jasan batetik baizik.

- “Arno xuritik hartzen duguia?” erran zuen atzartzen ari zen garbitzaleak.

Arnoux lurrera jauzi zen; eta arno xuria edanik, nahi ukan zuen Federiken zain-aldia hartu.

Gero askaltzera ereman zuen Chartres-ko karrikara, Parly-ren etxera; eta, biligardatzeko beharretan baitzen, manatu zituen bi haragi zerbitzu, otharrain bat, arraultze-moleta bat erhumarekin, ensalada bat eta bertze, guzia “sauternes” 1819-ko batez eta “romanée” 42-ko batez bustirik, khonduan hartu gabe xampanña deserteko, eta edariak.

Federiketik etzaukon batere kontra egin. Etzen gostuan, bertzeak aurki ahal ukanak balezazko bezala aurpegian, gogoan zuenaren hatzak.

Bi ukondoak mahi hegian, eta biziki behera gurturik, Arnoux-ek, bere soaz akitzen zuela, asmatzen ari zituenak erraiten zauzkon.

Bazuen Ipharreko burdin-bideko lur-garraiari guzien alokan hartzeko gutizia han lur-sagar ereiteko, eta karrika handietan gaitzeko kabalkada baten moldatzekoa, han “aroko aipatuena” agertuko baitziren. Leiho guziak alokatuko zituen, horrek, hirur libera ingurutan bakoitza, diru pollit bat emanen baitzuen. Hots, guzia bere gain hartuz, fortunarako ukaldi handi baten amesten ari zen. Moralekoa zen, alta, soberakeriak salatzen zituen, bizi molde gaixtoa, bere “aita gaixoa” aipatzen, eta, arrats oroz, zion, konzienziako etsamina egiten, bere arima Jainkoari eskaini baino lehen.

- “Curaçao xorta bat, ala ez?”

- “Nahi baduzu.”

Errepublikari zoakonaz, gauzak antolatuko ziren; azkenean, munduko gizon zoridunena zela zion; eta, bera ohartu gabe, Rosanette-ren mereximenduen goraiatzaren hasi zen, bere emaztearekin erkidatzen zuela ere. Bertze zer bait zen! Hoin ixter ederrik etzaitkeen asma.

- “Zure osagarriari!”

Federikek harekin edan zuen. Ontsa egiteko, soberaxko edana zuen; bertzela, iguzkiak itsutzen zuen; eta Vivienne karrikan goiti elgarrekin joan zirenean, bien soingainekoek elgar jaiten zuten anaiatasunekin.

Etxera sartu eta, Federikek zazpi orenetarano lo egin zuen. Gero, Marexalsaren etxera joan zen. Norbaitekin jalgia zen. Arnoux-ekin behar bada? Zer egin ez jakinez, ibilaldia jarraiki zuen karrika handirano, baina Dona-Marteko athea baino urrunago joan ahal gabe, hainbertze jende bazelakotz.

Miseriak bere gain uzten zituen langile ainitz eta ainitz; eta horrara heldu ziren, arrats oroz, elgarren ikusteko agian, eta seinale baten aiduru. Multzokatzearen kontrako legea izana gatik, *etsipenezko glub* horiek izigarriki hedatzen ari ziren; eta burjes ainitz bazoan hetara egun oroz, ausartasunez ala modaz.

Bapatez, Federikek ikusi zuen, hirur urratsetan, Dambreuse Jauna Martinon-ekin; burua itzuli zuen, ezen Dambreuse Jaunak bere burua deputatu izenda-arazirik, aiher zizakon. Baina kapitalixtak gelditu zuen.

- “Hitz bat, jaun maitea! Argitasunak eman behar dauzkitzut.”

- “Eztut eskatzen.”

- “Othoi! entzun nezazu.”

Etzen batere ogendun. Othoiztua zuten, bortxatua molde zerbaitez. Martinon-ek, berehala, haren hitzak baieztatu zituen; Nogenttar batzu etxera igorriak izanak zizazkon.

- “Bertzela ere libro nintzala uste ukana dut, etzinuenaz geroz...”

Oinbidean jendearen mogimendu batek Dambreuse Jauna baztertzerantz bortxatu zuen. Minuta bat berantago, berriz agertu zen, Martinon-ni baziola:

- “Egiazko zerbitzu bat da, hori! Eztuzu dolutzerik ukanen...”

Hirurak eman ziren bizkarrez saldegi bati, errexkiago mintzatzeko.

Artetan oihukatzen zen: “Gora Napoleon! Biba Barbes! lurrera Marie!” Jendalde elementia biziki gora mintzo zen; - eta mintzo horiek guziek, etxe aitzinetan joz, bazegiten portu batean uhainen harrabots ethengabeak bezala. Artetan, ixiltzen ziren; orduan *La Marseillaise* entzuten zen. Athe handien azpian, ibilara mixteriozko gizon batzuek eskaintzen zituzten eztenarekilako makilak. Batzuetan, bi gizonek, bat bertzearen aitzinetik iragaitean, begiaz elgarri kheinu egiten zuten, eta zalu urruntzen ziren. Behatzale multzo batzuek bazaduzkaten oinbideak;

andana tinki bat higitzen zen lauzadan. Polizako gizon lerro oso batzu, arteketarik jalgiz, bertze batzuetan itzaltzen ziren. Bandera gorri ttipi batzuek, han hemenka, su garrak iduri zuten; karrosazainek, bere alkiaren gainetik, jestu handi batzu egiten zituzten, eta gero joaiten ziren. Harat-hunat bat zen, ikusgarri bat, den bitxienetarik.

- “Horrek guziak,” erran zuen Martinon-ek, “Zezilia Andereñoa zenbat jostatuko zuen !”

- “Ene emazteak, ontsa badakizu, iloba gurekin jin dadin eztu maite,” egin zuen berriz irriño batekin Dambreuse Jaunak.

Etzen ezagunen. Bazen hirur ilabete oihukatzen zuela: “Gora Errepublika!” eta boza emana zuen ere Orléans-tarren bahitzeari. Baina amor emaitak bururatu behar zuten. Erotua zen sakelan mazo baten eremaiterano.

Martinon-ek bazuen bat, hark ere. Lege-gizoneria ez gehiago ezin bahigarria izanez, Auzitegitik baztertua zen, hala nola nun bortiztasunean Dambreuse Jauna gainditzen baitzuen.

Bankolariak bereziki hastio zuen Lamartine (Ledru-Rollin-en alde izana baitzen), eta harekin Pierre Leroux, Proudhon, Considérant, Lamennais, buru berotu guziak, zozialixta guziak.

- “Ezen azkenean, zer dute nahi? Hiri-mugako zerga haragiarendako ekhendua da eta gorputzez jabetzea; orai, bahimenezko banko bateko xedetan ari dira; joan den egunean banko nazionala zen! eta horra buxetea langilendako bortz miliun! Baina beharrik burura heldua da, Falloux-ko Jaunari esker! Bidaia on! joan bedite!”

Alabaina, landegi nazionaletako ehun eta hogeita hamar mila gizon nola haz ez jakinez, lan publikoetako minixtroak izenpetua zuen, egun hartan berean, erabaki bat hemezortzi eta hogeita urte arteko herritar guziak soldado bezala zerbitzu hartzera gomitatzen zituenak, edo probinzietara abiatzera, lur iraultzera.

Hautu horrek suminduak zituen, Errepublika aurdiki nahi zela uste baitzuten. Hiri-nagusitik urrun bizitzeak herritik bahitze batek bezenbat lastimatzen zituen; bere buruak ikusten zituzten sukarrekin hiltzen ari, eskualde ohil batzuetan. Ainitzendako, bertzela ere, lan beratz batzuetan ohituak, laborantzak aphaltze bat iduri zuen; baira bat zen azkenean, trufa bat, hitzeman guzien ukatze argi bat. Ihardokitzen baldin bazuten, indarkeria baliatua izanen zen; etzuten hortaz dudatzen eta horren aitzintzeari ari ziren.

Bederatziak inguruan, Bastillan eta Gazteluttoan moldatuak ziren jende multzoak karrika handira gibelatu ziren. Saint-Denis-ko atletik Dona-Martekora, etzen gehiago gaitzeko zinaurrite bat baizik, meta urdin ilun, abantzu beltz bakar batean. Arteka ikusten ziren gizonak bazituzten orok begi sutu batzu, larrua hits, begitarteak gosez mehatuak, bidegabearekin oldartuak. Bitartean, hedoiak metatzen ari ziren; zeru ortzitsuak jendaldearen eletrika berotuz, bazabiltzan inguruka, ezin deliberatuak, uhain baten zalantzatze zabalean; eta barne hetan sendi zen indar neurrigabeko bat, eta gauza xoil baten gemena bezalako. Gero guziak oihuka hasi ziren: “Lampiuinak! lampiuinak!” Leiho batzu argirik gabe zauden; harri batzu igorri ziren berinetara. Dambreuse Jaunak uste ukan zuen joaitea zuhur zela. Bi mutiko gaztek lagundu zuten.

Hondamen handiak ikusten zituen aitzinetik. Jendeak, berriz ere, Gambara har zezakeen; eta, gauza hortaz, erran zuen nola ostaroko 15-ean hila izanen zen, zaintzale nazional baten laguntza gabe.

- “Baina zure adixkidea da, ahazten nuen! zure adixkidea, faianza egilea, Jacques Arnoux!” Jazarraldiko jendek ithotzen ari zuten; herritar on hark besoetan hartua zuen eta bazterrean ezarria. Eta beraz, geroztik, halako adixkidantza bat egina zuten. - “Elgarrekin auhaldu beharko da arrats hautarik batez, eta, usu ikusten duzunaz geroz, biziki maite dutala segurta ezakozu. Hauteko gizona da, belztua, ene ustez; eta izpiritua badu, ihiziak! Ene goresmenak berriz ere! eta gau on!...”

Federik, Dambreuse Jauna utzi eta, Marexalsaren baitara itzuli zen; eta, aire biziki ilun batekin, erran zaukon behar zuela haren eta Arnoux-en artean hautatu. Ihardetsi zuen eztiki izpirik etzuela entzuten “horrelako erran-merranetan”, Arnoux etzuela maite, eta hartaz axolarik batere ez. Federikek bazuen Pariseren uzteko egarria. Hark etzuen burukeria hori baztertu, eta Fontainebleau-ra abiatu ziren biharamunean berean.

Hartu zuten hotela bertzetarik berexten zen korrare erdian zuen ur zirripa zalapastari batetik. Gambaretako atheak barne-bide batera idekitzen ziren, komentuetan bezala. Eman zauetena handia zen, muble onekilakoa, oihal indianaz estalia, eta ixila, bidaiariak bekan izanez. Etxen luzera, burjes astidun batzu bazoazin; gero, leihoen azpian, iluntxera, haur batzuek marra-joko aldi bat egin zuten; - eta sosegu horrek, Parisko nahasmenaren ondotik, ustegabetze bat emaiten zauen, bakeratze bat.

Goizean goizik, jauregiaren ikustera zoazin. Burdin-hesitik sartzen ari zirelarik, aitzina osoan ikusi zaukoten, hegaztegi zutekilako bortz etxekiekin eta zaldi-ferra moldeko mailaldearekin korralearen zolan idekitzen, bi etxe zati aphasago batzu bazterrean eskun eta ezker. Lauzetako goroldioak adarailuen margo horailarekin nahasten ziren urrundik; eta palazio osoak, harmairu zahar bat bezala herdoil kolorekoa, bazuen zerbait erregetiar eta soraio, halako armadetako handitasun trixte bat.

Azkenean mutil bat agertu zen, giltzalde bat eskuan. Erakutsi zezteen lehenik erreginen bizitegiak, Aitasainduaren othoiztegia, François Lehenaren galeria, Emperadoreak tronuaren uztea hartan izenpetu zuen zurgorritzko mahi ttipia, eta, Oreinen galeria zaharra mozten zuten barnetarik batean, Kriztinak Monaldeschi hil-arazi zuen lekua. Rosanette-ek ixtorio hori ohartuki entzun zuen; gero, Federiken gana itzuliz:

- “Jelosiaz zen, agian? Guardi emak hihauri!”

Ondotik, Konseiluko sala iragan zuten, Luis XIII-garren saloina. Leiho gorek, erridauik gabe, argi xuri bat emaiten zuten; errautsak arinki histen zituen heskailuen atxikitzeoak, bazter-mahien zango burdingorritzkoa; oihal lodizko mihise batzuek gordetzen zituzten orotan jargiak; athe gainetan ikusten ziren Luis XV-garrenaren aroko ihizitaldiak, eta han hemenka, tapizeria batzuek erakusten zituzten Olimpiako jainkoak, Psyke ala Aletzandren guduak.

Mirailen aitzinetik iragaitean, Rosanette minuta batez gelditzen zen ile xerrenden leuntzeko.

Dorre-nagusiko gortearen eta Jondoni-Satordi kaperaren ondotik, bestetako salara heldu ziren.

Lilluratuak izan ziren tronaduraren ederraz, zortzi aldetako zatietan banakatua, urre ‘ta zilharrez aphaindua, joia bat baino zizelkatuagoa, eta harresiak estaltzen zituzten margazkien nasaitasunaz, gaitzeko khebidetik, hartan ilargi adar eta gezi-untziek inguratzen baitituzte Frantziako harmak, musikarien tauladarano, bertze buruan eraikia, salaren zabaltasunean. Hamar leiho arkudunak zabal-zabala idekiak ziren; iguzkiak dirdiratzen zituen margazkiak, zeru urdinak luzatzen zuen mugarik gabe uztaietako itsas-margo iluna; eta, oihanen zolatik, hetako gain alphodunek hedoi-hertzea betetzen baitzuten, iduri zen bazetorrela bolizko adarrek igortzen zuten “halali”-en oiharzuna, eta mithologiako dantzaldiena, ninfa eta basa-jainkoetan aldatuak ziren

printzesa eta jaunak orstailpean biltzen zituztenean, - jakitate xoiliko aroa, sendimendu bortitzetako eta edergintza aberatseneko aroa, gogo gorena munduaren eremaita Hesperidetako amets batera zelarik, eta erregen ohaideak izarrekin batzen zirenean. Omen handiko horietan ederrenek bere burua margazki-arazia zuen, eskunean, Diana Ihiztariaren itxuran, eta Diana Ifernukoarenean ere, bere botherearen erakusteko, agian, hil-hobitik haraindirano. Itxura horiek orok aipamena baieztatzen daukote; eta zerbait harenetik gelditzen da hor, badirauen argi bat.

Federik aro horietako gutizia ezin erran batez hartua izan zen. Horren baztertzeko, Rosanette-ri maiteki behatzen hasi zen, emazte hori izanen nahi etzuenetz ziola.

- “Zein emazte?”

- “Poitiers-ko Diana!”

Errepikatu zuen:

- “Poitiers-ko Diana, Henri II-garrenaren ohaidea.”

“Ha!” ttipi bat egin zuen. Guzia hori izan zen.

Haren ixilak erakusten zuen ezer etzakiela, etzuela hartzen, hainbertzetarano nun hari ontsa egin nahiz Federikek erran baitzaukon:

- “Asperten hiz, behar bada?”

- “Ez, ez, baterel!”

Eta, bidarra goititurik, behako axolagabe bat inguruan erabiliz, Rosanette-rek hitz hau utzi zuen:

- “Oroitzapenak ekhartzen ditu!”

Bizkitartean, indar bat senditzen zen haren begitartean, errespetatzeko xede bat; eta, itxura serio horrek pollitago egiten baitzuen, Federikek desenkusatu zuen.

Arrain latzen aintzirak hobeki jostatu zuen. Oren laurden batez, ogi phuxkak urera bota zituen arrainen ikusteko jauzi egiten.

Federik ondoan jarria zizakon, ezkien azpian. Gogoan zituen harresi horietan ibiliak ziren jende handi guziak: Charles-Quint, Henri IV-garrena, Valois-tarrak, Betiri Handia, Jean-Jacques Rousseau eta antzokian “lehenbiziko egongietako andere nigar egile ederrak”, Voltaire, Napoleon, Pie VII-garrena, Luis-Filipe; iduri zuen hil inharrosle horiek inguruan ukondo ukondo zituela; horrelako iduri nahasketak burxoratzen zuen, gustagarri zizakolarik alta.

Azkenean baratzerantz jautsi ziren.

Laur kantoineko luze hedatu bat zen, begi ukaldi bakar batez ikustera uzten zituela bidexka zabal horiak, soropilak laur kantoin,

ezpelen xingolak, aginen piramidak, landare aphaltak eta taloin hertsia batzu, hetan lore batzuek han hemenka titak egiten baitituzte lur hautsaranean. Baratze buruan, bada parke bat, ur-eremu luze bat badoakola hedadura osoan.

Erregen jauregiek badute bere baitan trixtetasun berezi bat, hetan bizi ziren jende gutien araura dituzten neurri handiegieri lotua datekeena, hainbertze soinualdien ondotik ustegabetuz aurkitzen zeen ixilari, aberastasun geldituari, bere zaharretik leinuen iheskorra erakusten baitu, eta gauza ororen betiereko ezteusa; - eta menden bafada hori, aldi berean zurrungarria eta gorputz balsamatu baten usaina bezain hilgarria, sendiarazten da buru lañoenatarano ere. Rosanette aharrausia eta aharrausia ari zen. Hotelera itzuli ziren.

Bazkal-ondoan, karrosa estalgi gabe bat ekharri zaueten. Fontainebleau-tik jalgi ziren biribilgune zabal batetik, gero urratsean bide ondartsu bati gora leher ttipi batzuekilako oihan batera igan. Zuhatzak handiagotu ziren; eta karrosazainak, artean, bazion: “Huna Anaia Siamarrak, Pharamond-a, Erregeren-Floka...”, leku aipatuetarik bat ahatzi gabe, batzuetan ere geldituz haien mirets-arazteko.

Franchard-eko zuhaztitan sartu ziren. Karrosa linak bezala lerratzen zen soropilean; ikusten etziren urtzo batzu urrungan ari ziren; bapatean, ostatu mutil bat agertu zen, eta jautsi ziren mahi biribil batzu baziren baratze bateko hesi ondora. Gero, ezkerrean utziz komentu barreatu baten harresiak, harroka handi batzuen gainetik ibili ziren, eta laster heldu ibar hertsia baten zolara.

Estalia zen, alde batetik, harri eta orre elgarrekin nahasi batzuez, bertzetik aldiz, lur abantzu buluzia makurtzen baita ibarraren ahurrerano, hor, ilhardoien margoetan, bidexka batek marra xurail bat egiten du; eta urrunean ikustean da mendi bizkar zabaldu bat, gibeletik telegrafa baten dorrearekin.

Oren-erdi bat berantago, berriz ere oina lurrera eman zuten Aspremont-eko hegietara igaiteko.

Bidea badoa leher zapalen artean alde batera eta bertzera harroka izkin zorrotz batzuen azpitik; oihanaren zoko horrek guziak badu zerbait itho, apur bat ohil eta gogoko bilgarri. Ermitak gogoratzen ditu, adarren artean suzko gurutze bat badakarten orein handien lagunak, aita baten irriñoekin hartzen zituztela Frantziako errege onak, haien harpeko aitzinean belhauriko. Arrexina usain on batek betetzen zuen aire beroa,

erro batzu lurraren axalean guruzatzen ziren zain batzu bezala. Rosanette-ek hetan behaztopatzen zuen, etsitua zen, nigarrez hasi nahi.

Baina, gain-gainean, bozkarioa itzuli zizakon, abarrezko hegaztegi baten azpian aurkituz halako edandegi bat, han saltzen baitira zurezko zizelkadura batzu. Limonada botoila bat edan zuen, gorostizko makila bat erosi; eta, ordokitik ikusten den eskualdeari begi ukaldi bat eman gabe, Gaitxaginen-Harpean sartu zen, zuzi bat bazeraman mutiko bat aitzinean.

Karroza haien aiduru zagon Bas-Bréau-en.

Margolari bat taulier urdinetan lanean ari zen haritz baten oinean, margo untzia belhaunen gainean. Burua goititu zuen eta haier iragaiten so egin.

Chailly-ko maldaren erditan, hedoi batek, bapatez zilatuz, estalgia ezarr-arazi zauen. Euria abantzu berehala gelditu zen; eta karriketako lauzadek iguzki-pean dirdiratzten zuten hirira sartu zirenean.

Bidaiari batzuek, berriki jinak, ikasi zaueten izigarriko gudualdi batek Paris odolztatzen zuela. Rosanette eta haren maitalea etziren ustegabetuak izan. Gero guziak joan ziren, hotela berriz bakean gelditu zen, gaza iraungitu, eta lokartu ziren korraleko ur zirriparen zurrumurruan.

Biharamunean, Gorge-au-Loup, Mare-aux-Fées, Marlotte delakoen ikustera joan ziren; ondoko egunean, berriz hasi ziren, nora nahi joanez, karrosazainaren nahitara, nun ziren galdegin gabe, eta usu leku aipatuez axolarik ere etzuten.

Hain ontsa aurkitzen ziren bere karroza zaharrean, jargia bat bezain aphala eta oihal marradun histu batez estalia! Isaka sasiz beteak bazoazkieten begien aitzinean, joaite ezti eta jarraiki batean. Arrai zuri batzuek iratze gorak zeharkatzen zituzten gezi batzuek bezala; batzuetan, bide bat, gehiago baliatzen etzena, aitzineratzen zizeen, zuzen-zuzena; eta hetan belar batzu zutik zauden guneka zalantzatuz. Bidegurutzen erdian, gurutze batek bere laur besoak luzatzen zituen; bertze leku batzuetan, hesola batzu makurtuak zauden zuhartz eihartuak iduri, eta bidexka bihurrikatuek, horstapean galtzen zirenak, hetan ibiltzeko gura emaiten zuten; ordu berean, zaldia itzultzen zen, hetara joaiten ziren, iztilean sartzen zen; urrunago, errota-hatz barnatuen bazterrean goroldioa jina zen.

Bertzetarik urrun zirela uste zuten, ontsa bakarrik. Baina bapatez ihizizain bat baziragan bere eskopetarekin, edo emazte multzo bat phildetan, bizkarrean zeramaztela herrestatuz egur zama luze batzu.

Karrosa gelditzen zenean, ixil osoa zen; bakarrik, zaldiaren hatsa zen timoietan entzuten, edo zori tiuta bat biziki ahul, errepikatzen.

Argiak, oihanburua argituz leku batzuetan, barneak itzalean uzten zituen; edo, halako ilunabar batek eztiturik hurbilean, urrunean hedatzen zituen alphor ubel batzu, argi zuri bat. Egunaren erditan, iguzkiak, orstail zabaletara zuzenean eroriz, ziliportatzen zituen, adarren punttan zilharrezko xorta batzu dilindatzen, soropila hatz horailez marratzen, orsto eihar metetara urrezko tita batzu egozten; burua gibelera emanez, zerua ikusten zen, zuhatz gainen artetik. Batzuek, neurrigabeki gora, bazituzten patriarka eta emperadoreen itxurak, edo, puntatik elgar hunkiz, bere zur luzekin triunfako arkuak bezalakoak egiten; bertze batzuek, azpitik saheska jinak, baziduriten erortzera zoatzin zutabeak.

Lerro zut elementia horrek idekitzera egiten zuen. Orduan gaitzeko uhain musker batzu hedatzen ziren konkorr ezberdinak eginez haranen eremurano, bertze mendixka batzuen bizkarra hara aitzinatzen zelarik ibar horien gainetik, oro galtzen zirela azkenean zurailtasun ezin erran batean.

Zutik, bat bertzearen ondoan, aldeko muno baten gainean, sendi zuten, haizeaz hats hartzen zuten batean, ariman sartzen bizi libroago baten urgulua bezalako zerbait, indarretako soberakin batekin, arrazoin gabeko bozkario batekin.

Zuhutzen ezberdintasunak bazegien ikusgarri aldakor bat. Phagoek, azala zuri eta leun, bere koronak elgarrekin nahasten zituzten; leizarrek guriki makurtzen bere adar urdin-ilunak; buzuntzen thustetan, burdin-horia iduriko gorostiak latz-harrotzen ziren; gero heldu zen urki mehe lerro bat, itxura erromantiko batzuetan makurtuak; eta leherrek, organo tutak bezain berdinean, ethengabe leriatur, iduri zuten kantuz ari. Baziren haritz latz batzu, gaitzekoak, bihurtzaten zirenak, lurretik indarka goititzen, elgarri besarka lotzen, eta, bere ondoetan azkar, jende soingainak iduri, elgarri beso buluziez etsipenezko deiadarrak igortzen, izigarriko mehatxuak, Titanoen multzo bat bezala bere haserrean geldituak. Phizuagoko zerbait, ahuldura sukartsu bat bazabilan phutzuen gainetik, bere uren azala lahar-berroen artean agertuz; hetara otsoak edatera heldu diren hegietako goroldioak sofre kolore dituzte, sorginen urratsaz bezala erreak, eta igelen karranka ethengabeak ihardesten du

inguruka dabiltzan belatxenari. Gero, argigune batzu zeharkatzen zituzten, han edo hemen landare gazte zenbaitekin. Burdina hots batek, ukaldi usu andana batek joiten zuen: harrigile multzo bat zen, mendixka baten mazelan harrokari joka. Bazen gero eta gehiago, eskualde guzia betetzen baitzuten azkenean, etxe batzu bezala laur kantoin, lauzak bezain zabal, mailka, batzu bertzen gainera, elgarrekin nahasiz, hiri hondatu zenbaiten ondar ezin-ezagun eta gaitzeko batzu iduri. Baina haien nahasmenaren erotasunak berak asma-arazten zituen izaitekotz sumendi batzu, uholde batzu, ezagunak eztiren hondamen handienak. Federikek zion munduaren hastapenetik hor zirela eta azkenerano hor geldituko. Rosanette-ek burua itzultzen zuen, “erotuko zutela” erranez, eta bazaon ilhartze moztera. Hauen lore ttipi ubelek, batzu bertzen ondoan tinki, taloinxka ezberdin batzu egiten zituzten, eta azpitik errausten zizeen lurak lits beltz batzu bezala ezartzen zituen mikaz titatuak ziren ondartzen bazterrean.

Guzia ondartzaz zen mendixka baren erditara heldu ziren. Gaina, urrats hatzik gabea, izurdura berdin batzuez marratua zuen; han hemenka, itsaso baten ohatze agortuaren gainera lur-buru batzu iduri, harroka batzu zutitzen ziren ihizi itxura bezalako batzuetan, apho-harmatuak burua aitzineratuz, herrestatzen diren itsasotso, itsas-zaldi eta hartz. Nehor ez. Harrabotsik ez. Ondartzek, iguzkiak jorik, itsutzen zuten; - eta bapatez, argiaren daldaratze hortan, ihiziek higitzen iduri ukan zuten. Lasterrez gibelera egin zuten, burxoratzeari ihes eginez, abantzu laztatuak.

Oihanaren serioak hartzen ari zituzten; eta ixilik bazeramatzaten oren osoak, hetan, bere burua utziz erresorten leriartzeari, zurrunduak bezala baitzauden xoramen geldi batean. Besoa Rosanette-ren gerrian emanik, Federikek mintzatzen entzuten zuen xorien gurguriarekin batean, begi ukaldi batez estalgiko mahats beltzer eta orren pikorrer behatuz, haren buruko oihalaren izurrer, hedoien kizkurtzeari; eta, haren gana gurtzen zenean, haren larruko hoxtura landaren usain handiarekin nahasten zen. Orotaz jostatzen ziren: elgarri erakusten zituzten, gauza bitxi bat bezala, sapparretan dilindan zauden ainharben hariak, zilo batzu urez beteak harrien artean, urtxintx bat adarretan, jarraikitzen zitzezteen bi pimpirina hegaldaka; edo, hetarik hogeit urratsetan, zuhatzen azpian, orein-ume bat bazoan, gostuan, molde noble eta ezti batean, ume bat sahetsean. Rosanette-ek ondolik laster egin nahiko zaukon besarkatzeko.

Aldi batez ontsa izitu zen gizon batek, bapatean aitzineratuz, untzi batean hirur bipera erakutsi zauzkonean. Federiken kontra bizi-bizia jauzi egin zuen; - hau bozkariatu zen ahultasun hortaz eta bera haren zaintzeko aski azkar izaiteaz.

Arrats hartan, ostatu batean auhaldu ziren, Zequanaren bazterrean. Mahia leiho ondoan zen, Rosanette Federiken aitzinean; eta bazagon haren sudur mehe xuriari beha, ezpain goiti itzulier, begi argier, ile xerrenda gaztain-kolore harroer, arraultzarako begitarte pollitari. Zeta arin xurailezko zaia lotzen zizakon soingain apur bat erorietan; eta, bere mahunga ttipi berdinetarik jalgiz, haren eskuek mozten zuten, edatera emaiten, mahi-oihalaren gainean aitzineratuz. Oilasko bat zerbitzatu zizeen, laur alderdiak zabaldurik, aingirak arno-saltsan lurrezko untzi batean, arno latz bat, ogia gogorregi, ganibet markestu batzu. Horrek guziak atsegina handitzen zauen, lilluramena. Uste zuten bidaiia baten erdian zirela, Italian, ezkondu berri.

Berriz abiatu baino lehen, ur hegiaren luzean ibiltzera joan ziren.

Zeru urdin ezta, gopoila bat bezain biribildua, luhertzean oihanetako ozken gainera zagon. Aitzinean, phentzearen buruan, ezkiladorre bat bazen herrixka batean; eta, urrunago, ezkerretik, etxe baten hegaztegiak une gorri bat bazegien ibaian, hau iduriz geldi-geldia bere bihurgune guzien luzetasun osoan. Ihi batzu makurtzen ziren alta, eta urak arinki inharrosten zituen bazterrean saren atxikitzeke landatu hagak; baziren hor zumezko zare handi bat, bizpahirur xalupa zahar. Ostatuaren ondoan, lastozko xapel batekilako nextato bat ari zen phutzutik ur untzi atheratzen; - goititzen ziren aldi oroz, Federikek atsegin ezin erran batekin entzuten zuen gatinaren kurrinka.

Biziko azken egunetaranoko zoriona bazuela etzuen dudatzen, hain zizakon naturala iduritzen, bere biziarekin eta emazte horrekin bat egina. Behar hatek bazeraman hari gauza amultsu batzuen erraitera. Elhe goxo batzuekin ihardesten zauen, soingainean eskuz joite ttipi batzuekin, ustagabetez Federik loriatzen zuen eztitasunarekin. Azkenean edertasun berri-berri bat aurkitzen zaukon, inguruneko gauzen leinurua baizik etzena behar bada, ezpalauko bederen horien indar gordeak ager-arazia.

Baserriaren erdian atsedean hartzen zaudenean, burua haren belhaunen gainean etzarten zuen, iguzkitakoaren itzalean: - edo, biak sabela lurrera belarraren erdian etzanak, bazauden bat bertzearen aitzinean, elgarri so, begien zolara behatuz, elgarrez egarri, eta beti asetzen, eta gero, betespalak hetsirik, gehiago mintzatu gabe.

Batzuetan, urrunean atabal burrumba batzu entzuten zituzten. Harmetara deitzea zen joiten ari Pariseren zaintzera joaiteko.

- “Ha! ori! jazarraldia!” zion Federikek urriki gaitzesle batekin, nahasmen hori guzia ezteusa iduzi baitzizakon haien maitasunaren eta betiereko naturalezaren ondoan.

Eta zernahitaz mintzo ziren, biziki ontsa ezagutzen zituzten gauza batzuez, hetaz axolarik batere etzuten jendez, mila haurkeriez. Rosanette ari zizakon bere gelariaz eta ile-mozleaz. Egun batez, adina usgabatarik salatu zuen: hogeita bederatzi urte; zahartzen ari zen.

Eta aldi bat baino gehiagotan, berak nahi ukan gabe, bere biziko xehetasun batzu ikasi zauzkon. Saldegi batean “andereño” izana zen, bidaia bat Angeleterrara egina, komedialari izaiteko ikaskuntzak hasirik ukanak; hori guzia batetik bertzerako iraganbiderik gabe, eta Federikek etzezokeen batasun jarraikirik eman. Luzeago mintzatu zen platana baten azpian zauden egun batez, phentze baten sahetsean. Beherean, bide bazterrean, nexkato ttipi batek errautsean ortutsik, behi bat alharazten zuen. Ikusi zitueneko, elemosina eskatzera jin zizeen; eta, esku batez bazatxikala bere zaiazpiko zintzildua, ari zen bertzeaz burua, bi begi miragarriez distiran, Luis XIV-garren aroko perruka batek bezala inguratzen zaukoten ile beltzetan hazka.

- “Ontsa pollita izanen da geroago” erran zuen Federikek.

- “Zer zoria dukeen amarik ezpadu!” egin zuen Rosanette-ek.

- “Badantzut? nola?”

- “Baina ba; ni, enea ukan ezpanu...”

Hasperen bat egin zuen, eta bere haurzaroaz mintzatzen hasi zen. Aitamak Lyon-go Croix-Rousse-ko zetaginetarik zituen. Aita laguntzen zuen. Gizagaizoa ezindua ar zaitekeen, emazteak erasiatzen zuen eta guzia saltzen edatera joaiteko. Rosanette-ek ikusten zuen haien gambara, ehundegiak leihoen ondoan luzera lerrokatuak, eltzea berogailuaren gainean, ohea zur-gorritz thindatua, aitzinean harmairu bat, eta hamabortz urtetarano han etzana zen zoko iluna. Azkenean jaun bat ethorria zen, gizon lodi bat, begitartea ezel zur kolore, debozionario ara batzuekin, beltzez jantzia. Ama eta hura elgarrekin solastatu ziren hala nola nun, hirur egun berantago... Rosanette gelditu zen, eta, behako gordin eta saminez bete batekin:

- “Egina zen!”

Gero, Federiken jestuari ihardetsiz:

- “Gizona ezkondua baitzen (etxean bere burua gaizki ikus-araz beldur izanen zen), ostaler gabinet batera ereman ninduten, eta zorionean izanen ninzala errana zautaten, emaitza eder bat ukanen nuela.

“Athean berean, oharra hartu dautan lehenbiziko gauza, zilhar urreztatuzko gandelabrea zen, bi azieta ezarriak ziren mahi baten gainean. Tronadurako miraila batean ageri ziren, eta harresietako oihaleria zeta urdinezkoek bizitegi osoa ohetegi baten idurikoa egiten zuten. Ustebegabetze batek hartu nau. Hartzen duk, ehoiz ezer ikusi eztikan jende gaixo bat! Lilluratua izana gatik beldur nindian. Banian joaiteko gutizia. Egon nuk alta.

“Zen jar-leku bakarra ohexka bat zen mahiaren ondoan. Ene azpian guriki zapatu da; berogailuaren ahoak, tapizan, hats bero bat igortzen zautan, eta hor nindagon jeus hartu gabe. Zutik zagon mutilak jatera sustatu nau. Baso handi bat arno ixuri dauta berehala; burua itzulika ari zizatan, leihoa ideki nahi ukan dut, erran dauta: - “Ez, andereñoa, debekatua da.” Utzi nau. Mahia ezagutzen enituen gauza andana batez estalia zen. Jeus etzata on induritu. Orduan erreximeta untzi batera jo dut, eta beti aiduru nindagon. Eztakitan zerbaitek jitea trabatzen zaukon. Biziki berant zen, gauerd bederen, ezindua nintzan; hobeki etzateko buhurdikoetarik bat baztertuz, halako bilduma bat aurkitzen dut, kahier bat: marrazki lizun batzu ziren... Gainean lo nindagon, sartu denean.”

Burua behe titu zuen, gogoetan egonez.

Haien inguruan orstoen zurrumurrua zen, belar nahasien artean kukulore bat leriitzen, argiak zariola soropilera ithurri batetik bezala; eta ixila arteka moztua zen ikusten etzen behi baten alha errepikatuaz.

Rosanette lurrean gune bati beha zagon, hirur urratsetan, soa itzatusa, sudur bazterrak daldaran, bere baitan sartua. Federikek eskua hartu zaukon.

- “Zenbat pairatu dudan, gaixo maitea!”

- “Bai,” erran zuen, “hik uste baino gehiago!... Eneaz egin nahi ukaiterano; uretik athera nie.”

- “Nola?”

- “Ha! utz dezagun hori!... Maite haut, zorian nuk! besarka nezak.” Eta ekhendu zituen, bapana, zaia zolan lotuak zizazkon zirixkak.

Federikek gogoan zuen oroz gainetik errana etzuen. Miseriatik zein mailetan gaindi aterara ote zen? Ikasia zuena zein maitaleri zor ote zaukon? Zer gertatua zen haren bizian Federik etxera lehen aldikotz

joana zizakon egunerano ? Azkenik aithortua zuenak galdeak debekatzen zituen. Galdegin zaukon, bakarrik, Arnoux-en ezagutza nola egina zuen.

- “Vatnaz-saren bitartez.”

- “Ez hauta hi ikusi, aldi batez, Erret-Palazioan, haiekin biekin?”

Eguna zuzen erran zuen. Rosanette-ek indar bat egin zuen.

- “Ba, egia da!... Enindian alai aro hartan!”

Baina Arnoux ezin hobea izana zen. Federikek etzuen hortaz dudatzen; bizkitartean, adixkide hori gizon bitxia zen, hutsez betea; hortaz orhoit-arazteko artha hartu zuen. Hark ere hori egia zela zion.

- “Axolarik ez!... Hala ere maite da, ihizi hura!”

- “Oraino ere?” erran zuen Federikek.

Gorritzen hasi zen, erdi irri, erdi samur.

- “Ez bada! Ixtorio zaharra da. Ezer ezteat gordetzen. Hala baliz ere, alta, harekin, ezta berdin! Bertzela ere ehaut maitagarri aurkitzen hire bitimarendako.”

- “Ene bitima?”

Rosanette-ek bidarra hartu zaukon.

- “Dударik gabel!”

Eta, amañoen moldean zizaka:

- “Ezkira beti phereztu izana! Haren emaztearekin buba egina dugu!”

- “Nik! bizian behinere ez!”

Rosanette-ek irriño bat egin zuen. Federik irriño hortaz gaitzitu zen, axola gabea erakusten baitzuen, uste ukan zuenaz. Baina berriz egin zuen eztiki, eta gezurra eskatzen duten behako hetarik batekin:

- “Ontsa segur?”

- “Osoki!”

Federikek zin egin zuen ehoiz etzuela Arnoux Anderea gogoan ukana, bertze batez sobera amatua zelakotz.

- “Nortaz bada?”

- “Baina zutaz, ederr-ederra!”

- “Ha! Ehaizala nitaz trufa! Aspertzen nauk!”

Ixtorio baten, maitasun bizi baten asmatzea zuhur iduritu zizakon. Xehetasun berezi batzu aurkitu zituen. Jende hark, bertzela ere, nahigabe ainitz ekharria zaukon.

- “Zinez, zoririk eztuk!” erran zuen Rosanette-ek.

- “Ho! Ho! behar bada!” egin zuen entzun-arazi nahiz zorion andana bat ukana zuela, bere buruaz aipamen hobe baten emaiteko,

Rosanette-ek maitale guziak aithortzen etzituen bezala haren ganik estimatuagoa izaiteko; - ezen, segetu minenen erraitan, badira beti gibel-asmuak, behargabeko ahalgez, ikustatez, urrikiz. Aurkitzen dira, bertzearen baitan edo norberaren, urrunago aitzinatzea debekatzen duten erroitzak edo iztiluneak; senditzen da, bertzela ere, elizatela entzuna izanen; zuzen-zuzena edozeren erraita neke da; batasun osoak hortako dira bekan.

Marexalsa gaixoak hoberik etzuen ehoiz ezagaturik. Usu, Federiki beha zagonean, nigarrak jiten zizazkon, gero begiak goititzen zituen, edo hedoi-ertzera so egiten zuen, goizalde handi zenbait ikusia ukana balu bezala, zorion mugabekoetarako ethorkizun bat. Azkenean, egun batez, meza baten erran-arazteko gutizia bazuela aithortu zuen, “gure maitasunari zoriona ekhar dezon”.

Nundik heldu zen bada hoin luzaz ihardokia zaukola? Berak batere etzakien. Galdea aldi bat baino gehiagotan errepikatu zuen; eta besoetan tinkatuz ihardosten zaukon:

- “Hi sobera maita beldur bainindukan, maitea!”

Igande goizean, Federikek irakurri zuen egunkari batean, zaurituen zerrenda batean, Dussardier-en izena. Oihu bat egin zuen, eta, paperra Rosanette-ri erakutsiz, berehala abiatuko zela erran.

- “Zeren egiteko?”

- “Baina haren ikusteko, arthatzeko!”

- “Asmatzen diat enukala bakarrik utziko?”

- “Haugi enekin.”

- “Ha! horrelako aharra baten erdira sar naitekeela! Milesker!”

- “Bizkitartean, eztezakenat...”

- “Taratata! Eritegietan erizaina eskas baliz bezala! Eta gero, zer ikusteko zian ere, hark? Bakoitza beretako!”

Federik norberekoitasun hortaz sumindua izan zen; eta bere burua erasiatu zuen ez han izanez, bertzen artean. Aberriaren zorigaitzendako hoinbertze axolagabek bazuen zerbait ttipi eta burjes. Maitasuna bapatez gaizkintza bat bezain phizu senditu zuen. Elgarri mutur egon ziren oren batez.

Gero Rosanette-ek igurika zezan othoi-othoiztu zuen, bere burua lanjerrean ez ezar.

- “Halabeharrez hiltzen bahindute!”

- “He! ene eginbidea baizik ez tinat egina ukanen!”

Rosanette-ek jauzi bat egin zuen. Lehenik, zuen eginbidea haren maitatzea zen. Ezpaitzukeen gehiago haren gutziarik! Horrek itxurarik etzuen! Zer ideia, gure Jinkoa!

Federikek jo zuen khonduaren ukaiteko. Baina Parisera itzultzea etzen errex. Leloir mezutzalen karrosa joan berria zen, Bourbonnais-ko karrosa handia etzen gauaz berant baizik iraganen, eta behar bada betea, nehork etzakien. Xehetasun horien galdez ainitz dembora galdua ukan zuenean, postako karrosaren hartzea gogoratu zizakon. Postako nagusiak etzaukon zaldirik eman nahi ukan, Federikek posaporturik ez ukanez. Azkenean, kalexa bat alokatu zuen (ibil-araziak zituen hura bera) eta Salerospeneko Hotelera heldu ziren, Melunen, bortz orenak inguruan.

Merkatuko plaza harma zamaz betea zen. Prefetak zaintzale nazionaler debekatua zauen Parisera joaitea. Haren departamendukoak etzirenek bidea jarraiki nahi zuten. Oihuka ari ziren. Ostatua harramantzaz betea zen.

Rosanette-ek, izialdurak hartua, erran zuen urrunago etzela joanen, eta han gelditzeko berriz othoi-othoiztu zuen. Ostaler senar-emazteak harekin batu ziren. Auhaltzen ari zen gizon gaizo bat barne sartu zen, gudualdia hemendik gutitan bururatua izanen zela erranez; bertzela ere, eginbidea bete behar zen. Orduan Marexalsak hipak berrhetu zituen. Federik sumindua zen. Molsa eman zaukon, lasterrez besarkatu, eta itzali zen.

Corbeil-era heldu eta, garan, ikasi zaukoten jazartuek lekuka burdin-bidea moztua zutela, eta karrosazainak etzuen urrunago ereman nahi ukan; zaldiak, zion, “ezinduak” ziren.

Gerizatzeko, alta, Federikek ukan zuen karrosa-motz txar bat, hunek, hiruretan hogeit liberetan, eskupekoa gabe, Italiako hiri-mugarano eremaitea onhartu baitzaukon. Baina, mugatik ehun urratsetan, bidariak jauts-arazi zuen eta gibelera itzuli zen. Federik bidean zoan, bapatez zainlari batek baoineta trebes ezarri zaukonean. Laur gizonek hartu zuten garrasiaka:

- “Hetarik da! Guardi eman! Miha ezazue! Gaixtagina! Zirtzila!”

Eta harritzea hain handi ukan zuen nun bere burua utzi baitzuen hiri-mugako postara herrestatzera, Gobelins-etako eta Hospitaleko Karrika handiak eta Godefroy eta Mouffetard karrikak elgarretaratzen diren inguru-gunean berean.

Laur barrikadek egiten zituzten, laur biden buruan, lauzazko gaitzeko ezponda batzu; zuzi batzu zirrintzan ari ziren han hemenka;

airean errautsa izana gatik ere, armadako oinezko eta zaintzale nazional batzuer ohartu zen, oro begitartea beltz, jantziak zantzail, soa galdua. Lekuaz jabetu berriak ziren, gizon batzu eskopetaz hilik; haserreak baziraueten oraino. Federikek erran zauen Fontainebleau-tik heldu zela Bellefond karrikan bizi zen lagun zauritu baten laguntzera; nehork etzuen lehenik sinetsi ukan nahi; eskuak ikertu zizazkon, beharria ere usaindu bolbora usainik etzuela segurtatzeko.

Bizkitartean, gauza bera errepikatuaren bortxaz, kapitain bati sinets-arazi zaukon, bi eskopetalarier manatu baitzauen Landaretegiko poliziategira ereman zezaten.

Hospitaleko karrika handian jautsi ziren. Haize azkar batek ufatzen zuen. Berriz bizkortu zuen.

Gero Zaldi-Merkatuko karrikatik inguru egin zuten. Landaretegiak, eskunean, bazegien meta handi beltz bat, ezkerretik aldiz “La Pitié” hospitaleko aitzin osoak, leiho guziak argitan, sute batean bezala garretan iduri zelarik, eta itzal batzu bazoazin lasterka berinetan.

Federiken bi gizonak joan ziren. Bertze batek lagundu zuen Eskola Politeknikarano.

Saint-Victor karrika ilun-iluna zen, gaz moko bat ere gabe ez eta argi bat etxetan? Hamar minutetarik hamar minutetara entzuten zen:

- “Zainlariak! guardi eman!” Eta oiho hori, ixilaren erdian igorria, luzaz entzuten zen harri bat lezera erortzen denean bezala.

Batzuetan, urrats phizu batzuen joitea hurbiltzen zen. Bederen ehun gizoneko soldado multzo bat zen; murmurika, harma kilixkatze ahul batzu bazoazin meta ilun hortarik; eta, leriartze neurkadatu batean urrunduz, gauarekin nahasten zen.

Bidekurutzen erdian, bazen dragon bat zaldiz, geldi-geldia. Noiztenka, mezulari bat baziragan lauhazka, gero berriz ixila zen. Kanoi batzu bazoazin urrunean burrumba ilun lazkarri bat lauzadan eginez; bihotza biltzen zen ohikoetarik hain ezberdinak ziren harrabots horietan. Iduri zuten ere ixila zabalagotzen zuten, handia zelarik, osoa, ixil ilun bat. Taulier zuriekilako gizon batzu soldadoetara joaiten ziren, haier hitz bat erraiten, eta ametsetako izaite batzu bezala itzaltzen.

Eskola politeknikako polizategia jendez gainditua zen. Emazte batzuek alharzea trabatzen zuten, bere seme edo senarraren ikustea eskatuz. Pantheon-era igortzen ziren gorputz bildoki bilakatua baitzen, - eta etzuten Federik entzun nahi. Hisitu zen, Dussardier adixkidea haren beha zagola zin eginez, hiltzera zoala. Kaporal bat eman zizakon

azkenean, Jondoni-Jakobe karrika burura eremaiteko, XII-garren hirialdeko etxera.

Pantheon-go plaza lastoan etzanak zauden soldadoz betea zen. Goizaldea. Gau-kampamenduetako suak iraungitzen ari.

Jazarraldiak utziak zituen auzoalde hortan izigarriko hatzak. Karriken zola, buru batetik bertzera, ezberdinki konkortua zen. Barrikada barreatuen gainean, gelditzen ziren onibuzak, gazaren tutak, orga errotak; phutzu ttipi beltz batzu, guneka, odolezkoak zatezkeen. Etxeak balez zilokatuak ziren, eta zureria agerian zuten igelsu jauziaren azpian. Leiho-sare batzu, itze bati lotuak, philda batzu bezala dilindan zauden. Mailaldeak aurdikiak izanik, athe batzu hutsera idekiak. Barnean gambarak ikusten ziren bere paper zintzilikatuekin, gauza balioko batzu han geldituak, batzuetan. Federik ohartu zen erloi bati, perruket baten ziriari, grabaki batzuer.

Hirialdeko etxean sartu zenean, zaintzale nazionalak gelditu gabe mintzo ziren Brea-ko eta Negrier-ko hilez, Charbonnel deputatuaz, Parisko arxapezpikuaz. Bazioten Aumale-ko dukea Boulogne-en lurreratua zela, Barbes-ek Vincennes-tik ihes egina zuela, artilleria bazetorrela Bourges-tik eta probinzietako laguntzak alde orotarik heldu. Hirurak inguruan, norbaitek berri onak ekharri zituen; jazarraldiaren mezulari batzu Gambarako buruzagiarekin ziren.

Orduan, bozkariatu ziren; eta, oraino hamabi libera baitzituen, Federikek ekharr-arazi zituen arno botoila batzu, ustez eta horrela bere buruaren liberatzea lehi-araziko zuela. Bapatez, eskopetaldi bat entzun uste ukan zen. Edatea gelditu zen; ezezagunari begi aierutsu batzuekin behatu zizakon: Henri V-garrena izan zaitekeen.

Ogenik batere ez ukaiteko, XI-garren hirialdeko etxera ereman zuten, handik jalgitzeko baimena ezpaitzizakon eman goizeko bederatziak arteo.

Laster egin zuen Voltaire kairano. Leiho ideki batean, gizon zahar bat athorra has nigarrez ari zen, begiak zerura goititurik. Zequana bazoan bakean. Zerua urdin-urdina zen; Teilerietako zuhatzetan, xoriak kantuz ari.

Federik Carrousel-aren iragaiten ari zen anda batzu joaiten ikusi zituenean. Postazainek, berehala, harmen eskaintza egin zuten, eta aitzindariak erran zuen eskua xakora goitituz: “Ohore kuraiak zorigabeari!” Hitz hori abantzu beharrezkoa zen; erraiten zuenak beti

handizki hunkia iduri zuen. Jende erotu multzo batek laguntzen zituen andak, oihukatuz:

- “Mendekatuko zituztegu! mendekatuko zituztegu!”

Karrosak bazabiltzan karrika handietan eta emazteak athe aitzinetan lotura oihal egiten ari ziren. Bizkitartean jazarraldia garhaitua zen edo nunbait han; Cavaignac-en deiak, duela guti argiratuak, iragartzen zuen. Vivienne karrika gainaldean, zaintzale ibilkari alde bat agertu zen. Orduan, burjesak gartsuki oihuz hasi ziren; xapelak goititzen zituzten, eskuz zartatzen, dantzatzen, besarkatu nahi zituzten, edatera eskaini, - anderek egotzi loreak erortzen ziren galerietarik.

Azkenean, hamar orenetan, kanoiak burrumbatzen zuenean San-Antonio-ko hiri bazterraz jabetzeko, Federik Dussardier-en etxera heldu zen. Bere hegaztegi-pean aurkitu zuen, bizkarrez etzana eta lo. Ondoko barnetik emazte bat jalgi zen ixil-ixila, Vatnaz Andereñoa.

Federik bazterrera ereman zuen, eta ikasi zaukon Dussardier-ek zauria nola ukana zuen.

Ebiakoitzean, barrikada baten gainean, Lafayette karrikan, hirur koloreko banderaz inguratua zen mutiko tipi bat zaintzale nazionaler oihuka ari zizeen: “Zuen anaietara tiratuko duzuea?” Aitzinatzen ari baitziren, Federikek bere eskopeta lurrera egotzia zuen, bertzeak bazterturik, barrikadara jauzi egin, eta oinetako ukaldi batez jazarlea aurdikia bandera hartuz. Herexetan hatzemana zuten, izterra burdingorri ziri batez zilatua. Zauria garbian ezarri behar izana zen, ekhaia atheraia. Vatnaz Andereñoa arratsean berean ethorria zen, eta, geroztik, etzuen uzten.

Adimenekin antolatzen zituen loturendako behar ziren guziak, edaten laguntzen zuen, zituen gutizia ttipiener behatzen, bazabilan uli bat baino arinago, begi amultsu batzuekin so egiten zaukola.

Federikek, bi astez, etzuen goiz oroz jitea huts egin; Vatnaz-saren arthaz mintzo zen egun batez, Dussardier-ek soingainak goititu zituen.

- “Ez ez! Abantail-nahiz da!”

- “Uste duk?”

Berriz egin zuen: “Segur nuk!” gehiagoko argirik eman nahi ukan gabe.

Ikustatez mukurru egiten zaukon hetan haren egintza ederra goraiipatzen zen egunkarien ekhartzerano. Goresmen horiek iduriz aspertzen zuten. Federiki aithortu zaukon ere konzienzian zuen eragozpena.

Bertze alderdian jarri beharko zukeen behar bada, taulierdunekin; ezen atxikiak etziren gauza andanak hitzemanak zitzezteen azkenean. Irabazlek Errepublika hastiatzen zuten; eta gero, hoin ziren bortitz izanak haien aldera! Hutsean ziren, dudarik gabe, ez osoki, alta; eta mutiko ona zuzenbideari gudu egina ahal zaukolako gogoeta horrek oinazkatzen zuen.

Senecal-ek, Teilerietan hetsia, ur bazterreko zabalza-pean, etzuen herstura horietarik.

Baziren hor bederatzi ehun gizon, satsukerian metatuak, nahas-mahas, bolboraz eta odol idortuz belztuak, sukarrez daldaran, errabiaz oihuka; eta bertzen erdian hiltzen zirenak etziren ekhentzen. Batzuetan, tiro baten bapateko harrabotsean, uste zuten eskopetatuko zituztela; orduan, harresien ondora lasterrez joaiten ziren, gero berriz bere lekuetara erortzen, oinazeaz hanbat zozotuak nun uste baitzuten amets gaixto batean bizi zirela, eroaldi batean.

Gangatik dilindan zagon argiak bazuen odol orbain baten itxura; eta airean bazabiltzan gar ttipi berde eta hori batzu, hobiko lurhatsek emanak. Izurriten beldurrean, komisione bat izendatua izan zen. Lehenbiziko mailetan beretan, buruzagiak gibelera egin zuen, gorotzen eta hilen usainak laztaturik. Presonerrak zirrito batera hurbiltzen zirenean, aldiko ziren zaintzale nazionalak - burdin-saren khordokatzero ez uzteko - baioneta ukaldiak sartzen zezteeten, nora nahi, metara.

Orotara, urrikigabeak izan ziren. Gudukatua etzutenek nahi zuten bere burua erakutsi. Beldurraren gaindikatzeko bat zen. Aldi berean mendekatzen zen egunkariez, glubez, jende-biltzez, dotrinez, eta hirur ilabatez geroz aspertzen zuen guziaz; eta, garhaiturik ere, berdintasuna (zaintzen zutenen gaztiguko bezala etsai zituenen trufako) triunfan agertzen zen, abre oso batzuen berdintasun bat; itsuskeria odoltsuetako hein berdin bat; ezen abantail-nahiaren bortizkeria eroa beharraren ametseriako neurrira heldu zen, aitoren-semeriak ukan zituen zirtzileriaren haserreak, eta gotoinezko boneta etzen bonet gorria baino higungarriago agertu. Jendearen arrazoina nahasia zen naturalezako uzkaillaldi handien ondotik bezala. Izpiritua bazuten batzu bere biziko zozo gelditu ziren.

Roque aita biziki bihoztun bilakatua zen, abantzu ausart. 26-an Parisera ethorriarik Nogentarrekin, hauekin batean itzultzeko orde, Teilerietan kampuak ziren zaintzale nazionaleri batzera joana zen; biziki askietsia izan zen ur bazterreko zabaltzaren aitzinean zain ezarria

izanaz. Bederen, hortik, begien azpian zaduzkan, gaixtagin hek! Haien galtzeaz atsegin zuen, haien zikinduraz, eta laidoz hek oihukatu gabe etzagokeen.

Batek, ile hori luzekilako mutiko gazte-gazte bat, begitartea zirritoko zirien artean eman zuen ogia eskatuz. Roque Jaunak ixil zadin manatu zaukon. Baina mutiko gazteak errepikatzen zuen mintzo deitoragarri batekin:

- “Ogia!”

- “Baduta, nik!”

Bertze presoner batzu agertu ziren zirritoan, bere bizar laztuekin, begi ñiñikak sutan, guziak elgarri zunkatuz eta oihu garrasietan:

- “Ogia!”

- “To! horra!” erran zuen Roque aitak, eskopeta tiroa joaitera utziz.

Gaitzeko orro bat izan zen, eta gero, deus ez. Ziloaren bazterrean zerbait zuri gelditua zen.

Horren ondotik, Roque Jauna etxera itzuli zen; ezen bazuen, Dona-Marte karrikan, hartan azpia beretako atxikia zuen etxe bat; eta jazarraldiak etxe aitzinari egin damuek etzuten guti egina haren erotzeko. Iduritu zizakon, berrikustean, gaitza handiegitua zuela. Arestiko egintzak eztitzen zuen, ordaintze batek bezala.

Alabak berak zaukon athea ideki. Aitari erran zaukon, berehala, haren han ez izaute luzegiak khexu ezarria zuela; zorigaitzeko zerbaiten beldur izana zen, zauri baten.

Haur maitasun horren lekukotasunak beraztu zuen Roque aita. Estonatu zen hura Katalina gabe abiaturik.

- “Komisione baten egitera igorria dut,” ihardetsi zuen Luixak.

Eta xehetasunak galdegin zauzkon osagarriaz, gauza batzuez eta bertzez; gero, itxura ezpaiko batekin, galdegin zaukon hea, halabeharrez, Federik etzuen aurkitua.

- “Ez! batere ez!”

Bidaia bakarrik harendako zuen egina. Norbait barne-bidean ibili zen.

- “Ha! barkatu...”

Eta itzali zen.

Katalinak etzuen Federik aurkitua. Bazen egun andana bat etzela han, eta haren adixkide mina, Deslauriers Jauna, probinzian bizi zen orai.

Luixa berriz agertu zen, guzia ikharan, mintzatu ahal izan gabe.

- “Zer dun? zer dun bada?” egin zuen aitak.

Jeus etzela kheinu bat egin zuen, eta barneko indar handi batekin berriz bere baitaratu zen.

Etxe aitzinean zen jateko egileak ekharri zuen salda. Baina Roque aitak inharrosaldi bortitzegia jasana zuen. “Etzezakeen irets”, eta desertean halako aldixartze bat ukan zuen. Berehala mediku baten bila igorri zen, edateko erremedio bat manatu baitzuen. Gero, ohean izan zenean, ahal zen bezenbat estalgi nahi ukan zuen, izerditan jartzeko. Hasperenka ari zen, intziraka.

- “Eskerrak, ene Katalin ona! - Musu emon hire aita gaixoari, ñimiñoa! Ha! iraultza horiek!”

Eta, alaba harendako oinazkatuz eriturik erasian ari baitzizakon, ihardetsi zuen:

- “Bai! arrazoin dun! Baina ni baino azkarrago baita! Sendikorregi bainun!”

II

Dambreuse Anderea, bere saloin ttipian, ilobaren eta *miss John*-en artean, Roque Jaunaren entzuten zagon, hau soldadogoko akhiduren erraiten.

Ezpainer ausikika ari zen, iduri oinazetan.

- “Ho! jeus ezta! joanen da!”

Eta, itxura goxagarri batekin:

- “Zure ezagunetarik bat ukanen dugu auhaltzeko, Moreau Jauna.”

Luixak ikhara bat ukan zuen.

- “Gero adixkide min zenbait bakarrik, Cisy-ko Alfred, bertze batzuen artean.”

Eta espantu egin zuen haren arez, begitarteaz, eta oroz gainetik, bizi-moldez.

Uste zuen baino gutiago gezurrean zen Dambreuse Anderea: bizkondea ezkontzeaz ametsetan zen. Martinon-i errana zaukon, gaineratuz Zezilia Andereñoari gustatzeaz segur zela eta burasoek onhartuko zutela.

Horrelako segetu baten erraitera menturatzeko, doteaz xehetasun abantailgarriak bazituzkeen. Martinon-ek uste zuen bada Zezilia Dambreuse Jaunaren alaba naturala zela; eta nola-nahika haren eskuaren galdatzea, iduriz, gauza biziki ausarta izan zaitekeen. Ausartzia horrek bazituen bere irriskuak; hortakotz Martinon, orai arteo, urrunegi ez joateko moldez ari izana zen; bertzela ere, etzakien izaba nola bazter. Cisy-ren hitzak deliberatu zuen; eta galdea diruzainari egina zaukon, eta hunek, trabarik hortan ez ikusiz, Dambreuse Andereari jakin-arazia.

Cisy agertu zen. Anderea jeiki zen, erranez:

- “Ahazten gituzu... Zezilia, *shake hands!*”

Ordu berean, Federik sartzen ari zen.

- “Ha! azkenean! berraurkitzen zitugu!” egin zuen Roque aitak. “Zure etxean hirur aldiz izana niz, Luixarekin, aste huntan!”

Federik arthoski huts eginak zituen. Egunak oro lagun zauritu baten ondoan iragaiten zituelako estakurua eman zuen. Aspaldidanik, bertzela ere, gauza andana batek hartua zadukaten; eta zer erran behar zuen bila zabilan. Zorionez, gomitak ethorri ziren: lehenik Grémonville-ko Paul Jauna, dantzaldian xixtez ikusia zuen embaxadorea, gero Fumichon, arrats batez haren konserbatixmo amorratuak gaitzitua zuen industrialari hura; Montreuil-Nantua-ko dukesa zakarra jarraitzen zizeen.

Baina bi mintzo entzun ziren aitzin-gambaran.

- “Hortaz segur niz,” zion batak.

- “Andere eder maitea! andere eder maitea!” ihardesten zuen bertzeak, “othoi, ezti zait!”

Nonancourt-ko Jauna zen, eder zahartu bat, *col-cream* pomada delakoan balsamatua iduri, eta Larsillois-ko Anderea, Luis-Filiperen prefet baten ezkontidea. Ezin gehiago ikharan zagon, entzuna baitzuen, arestian, karrika-organo batean, jazarlen arteko seinalea zen polka bat. Burjes ainitzek bazituzten horrelako asmamenak; uste zen gizon batzuek, katatombetan, Saint-Germain-go hiri-bazterra jauz-araziko zutela; zurrumurru batzu bazoazin sotoetarik; leihoetan gauza aierugarri batzu egiten ziren.

Orok ahal zutena egin zuten bizkitartean Larsillois-ko Anderearen eztitzeko. Ordenua berriz jarria zen. Jeusen beldur izaiterik gehiago ez. “Cavaignac-ek salbatuak gitu!” Jazarraldiko itsuskeriak ezpalire aski izan bezala, handiegitzen ziren. Hogeita hirur mila galeriano eginik izanak ziren zozialixten aldean, - ez gutiago!

Batere etzen dudatzen janariak pozoindatuak zirela, soldado ibilkariak bi taulen artean segatuak, eta banderek bazituztela ohointza, sutea eskatzen zuten idazkiak.

- “Eta zerbait gehiago!” gaineratu zuen prefetsa ohiak.

- “Ha! maitea!” erran zuen ahalgez Dambreuse Andereak, begi ukaldi batez hirur nextato gazteak erakutsiz.

Dambreuse Jauna bere gabinetetik jalgi zen Martinonekin. Andereak burua itzuli zuen, eta aitzinatzen ari zen Pellerin-en agurrer ihardetsi. Edergilea harresier beha zagon itxura khexu batekin. Bankolariak bazterrera ereman zuen, eta entzun-arazi zaukon behar ukana lukeela, ordu hartan, bere margazki iraultzalaria gorde.

- “Agian ba!” erran zuen Pellerin-ek, *Adimeneran Glub*-an ez onhartua izanik aburuak aldatuak baitzizazkon.

Dambreuse Jaunak biziki jendeki erran zuen artetik bertze lan batzu manatuko zauzkola.

- “Baina barkatu!... - Ha! Adixkide maitea! zer zoriona!”

Arnoux Jaun-Andereak Federiken aitzinean ziren.

Burxoratze bat bezala ukan zuen. Rosanette-ek, soldadoendako zuen bere miresmenarekin, arratsalde guzian aspertua zuen.

Mahi-nagusia jin zen Anderea zerbitzatua zela erraitera. Behako batez, bizkondeari manatu zaukon Zeziliaren besoa har zezan, apha-aphala erranez Martinon-i: “Ezteusa!” eta jateko salara iragan ziren.

Ananas baten orsto muskerren azpian, mahi-oihalaren erdian, urre-arrain bat luzera zagon, muturra orkatz azpi batera eta buztanaz karamarralde bat hunkitzen zuela. Phiko, gaitzeko gerezi, madari eta mahats (laborantza paristarreko emaitza lehenak) goiti zoazin piramidan porzelana zaharrezko zare batzuetan; lore mulko bat, arteka, ezarria zen zilharrerria argien erdian; zeta xurizko itzalkariek, leiho antzinetan jautsiak, bizitegia argi ezti batez betetzen zuten; hetan hormakiak baziren bi ithurriez hoxtua zen; eta zerbitzua mutil handi galtza laburrekilako batzuek bazegiten. Horrek guziak hobea iduri zuen iragan egunetan senditua zenaren ondotik. Berriz sartzen zen gal beldurra ukana zen gauzen gozamenean; eta Nonancourt-ek eman zuen ororen sendimendua erranez:

- “Ha! Errepublikar Jaunek emanen daukute agian auhaltzeko baimena!”

- “Bere anaiatasuna gatik ere!” gaineratu zuen izpirituekin Roque aitak.

Bi ohoragarri horiek Dambreuse Anderearen eskun eta ezker ziren, hunen aitzinean Dambreuse Jauna, ondoan embaxadorea zuen Larsillois-ko Anderearen, eta ukondoak Fumichon-i zen dukesa zaharraren artean. Gero heldu ziren margolaria, faianza zaltzalea, Luixa Andereñoa; eta Martinon-i esker, lekua hartua baitzaukon Zeziliaren ondoan jartzeko, Federik Arnoux Anderearen sahetsean zen.

Bazuen ile arinezko zaia beltz bat, urrezko uztai bat ukaraian, eta haren etxean auhaldua zen lehenbiziko egunean bezala, zerbait gorri iletan, fuxia aldaxka bat mottoan bihurturik.

- “Horra aspaldi eztugula elgar ikusi!”

- “Ha!” ihardetsi zuen hotz-hotza.

Berriz hasi zen mintzoan galdearen ozarra arintzen zuen ezintasun batekin:

- “Nitaz axolatu zirela batzuetan?”

- “Zergatik behar nuke axolatu?”

Federik hitz hortaz gaitzitu izan zen.

- “Arrazoin dukezu, ororen buruan.”

Baina, errana berriz berehala zuzenduz, zin egin zuen egun bat ere etzuela emana orhoitzapen hartaz errautsia izan gabe.

- “Hitzik ere eztut sinesten, jauna.”

- “Bizkitartean, maite zitutala badakizu!”

Arnoux Andereak etzuen ihardetsi.

- “Maite zitutala badakizu.”

Hura beti ixilik.

- “He beraz, habil!” egin zuen bere baitan Federikek.

Eta, begiak goitituz, ohartu zen, bertze mahi buruan, Roque Andereñoari.

Guzia berdez janzteak aphaiz zela uste ukana zuen, ile gorriekin itsuski gaizki emaiten zaukon kolorea. Gerriko begia goregi zen, lepho-xerrak zurruntzen zuen; aphaizdura guti horrek zerbait egin zuteen Federikek emana zaukon agur hotzean. Urrundik huni beha zagon, ikus-nahiarekin; eta Arnoux-ek, haren ondoan, galankeria nasai eman zezokeen, ezin zauzkon hirur hitz athera, hala nola nun, gustatzeaz etsiturik, solasaldiari beha jarri baitzen. Luxembourg-ko ananasezko ahiez zen orai.

Louis Blanc-ek, Fumichon-ek zionaz, hotel bat bazuen San-Domingo karrikan, eta etzuen langiler alokatu nahi.

- “Nik, bitxi aurkitzen dutana,” erran zuen Nonancourt-ek, “Ledru-Rollin da Koronako eremuetan ihizin!”

- “Hogei mila libera zor ditu urregin bati!” gaineratu zuen Cisy-k; “eta badiote ere...”

Dambreuse Andereak geldi-arazi zuen.

- “Ha! zein itsusi den politikako buru-berotzea! Mutiko gazte bat, faa! Artha har ezazu izaitekotz zure ondoko andereaz!”

Gero, jende seriosek jaukitu zituzten egunkariak.

Arnoux-ek zaindu nahi ukan zituen; Federik hortan sartu zen, bertzeak iduriko salerospeneko etxe batzu zirela erranez. Hetako izkiriartzaleak, orotara, zozo batzu ziren, edo jostakin batzu; bazadukan ezagutzen zituela, eta erkaitzekin gudukatzen zituen bere adixkidearen sendimendu onak. Arnoux Andereak etzuen hartaz mendekatzeko zela ikusten.

Bitartean, bizkondea ari zen gogoia oinazkatua Zezilia Andereñoaren irabazteko. Lehenik, edergile baten gostuak zabaldu zituen, pitxerren moldeaz eta ganibeten zizelkaduraz gaitzerranez. Gero bere zalditegiak mintzatu zen, jostunaz eta athorragileaz; azkenean, erlisionekeo gaiari lotu zen eta hatzeman zuen eginbide guziak betetzen zituela entzun-arazteko bidea.

Martinon hobeki ari zen. Doinu berdin batean, eta beti hari so eginez, andereak zuen begitarteko xori orrazea goraiatzaren zuen, ile hori geza, esku laburregiak. Nexkato gazte itsusia loriatzen zen eztikeria erauntsi horren azpian.

Ezer etzaitkeen entzun, oro biziki gora mintzo baitziren. Roque Jaunak nahi zuen Frantziaren gobernatzeko “burdinazko beso bat”. Nonancourt-en dolu ukan zuen ere politikako gauzetan urkabea ekhendua izaiteaz. Oro metan erahil behar ziren, gaixtagin hek!

- “Beldurti batzu dira ere,” erran zuen Fumichon-ek. “Barrikaden gibelean jartzean eztakusat kuraiarik!”

- “Batetik bertzera, erraguzu bada zertan den Dussardier!” erran zuen Dambreuse Jaunak Federiken gana itzuliz.

Komis gaizoa gizandi zen orai, Salesse, Jeanson anaiak, Péquillet emaztea eta bertze batzu bezala.

Federikek, bietan galdegin-arazi gabe, adixkidearen ixtorioa khondatu zuen; halako ohore bat bezala ukan zuen hortarik.

Jin ziren, biziki naturalki, kuraiko egintza batzuen erraitera. Embaxadorearen ustez, herioaren aitzinera joatea etzen neke, buruzburu gudukatzen direnak lekuko.

- “Bizkondeari galdegin daiteke,” erran zuen Martinon-ek.

Bizkondea gorri-gorria bilakatu zen.

Gomitak hari so zauden; eta Luixak, bertzeak baino ustegabetuagoa, murmurikatu zuen:

- “Zer da bada?”

- “Federiken aitzinean *gurtu* da”, egin zuen Arnoux-ek.

- “Zerbait badakizu, andereñoa?” galdegin zuen berehala Nonancourt-ek; eta haren ihardespena erran zaukon Dambreuse Andereari, hau, apur bat aitzinatuz, Federiki beha jarri baitzen.

Martinon etzen egon Zeziliaren galden igurika. Ikasi zaukon gauza hori ezin aipa zaitekeen norbaiten gatik gertatua zela. Nexkato gazteak bere kaderan apur bat gibelera egin zuen, atsegale horren hunkitzetik ihes egiteko bezala.

Solasaldia berriz hasia zen. Bordeleko arno handiak bazabiltzan, jendea bizkortzen ari zen; Pellerin iraultzari aiher zizakon, erakustoki espagnolaren gatik, behin betikotz galdua. Gehienik lastimatzen zuena hori zen, margolari bezala. Hitz hortan, Roque Jaunak hel egin zaukon.

- “Etzinitazkea margazki biziki ohargarri baten egilea?”

- “Behar bada! Zein?”

- “Erakusten du andere bat soineko... alafe!... apur bat... arinean, molsa batekin eta gibelean hegazterren bat.”

Federik bere aldian gorri-belztu zen. Pellerin-ek alegia ez entzunarena bazegien.

- “Bizkitartean, zuk egina da ba! Ezen azpian zure izena izkiriatura da, eta lerro bat kadrean Moreau Jaunarena dela diona.”

Roque aita-alabek haren etxean igurikatzen zuten egun batez, Marexalsaren potreta ikusia zuten. Gizon zaharrak “margazki gotiko” batentzat hartua zuen ere.

- “Ez!” erran zuen bortizki Pellerin-ek; “emazte potreta bat da.”

Martinon-ek gaineratu zuen:

- “Bizi-bizia den emazte batena! Eztea hala, Cisy?”

- “He! batere eztakit.”

- “Uste nuen ezagutzen zinuela. Baina penatzen zituenaz geroz, mila barkamendu!”

Cisy-k begiak beheitu zituen, bere eragozpenetik erakutsiz potret horren ariara urrikaltzeko zen zerbait egina zuela. Federiken aldetik, modela etzaitkeen izan haren ohaidea baizik. Berehala sinesten diren gauza haietarik bat izan zen, eta bilzarreko begitartek argiki erakusten zuten.

- “Zer gezurrak erraiten zauztan!” erran zuen bere baitan Arnoux Andereak.

- “Hortako nau beraz utzia!” gogatu zuen Luixak.

Federikek uste zuen bi ixtorio horiek gaizki ezar zezaketela; eta baratzean izan zirenean, Martinon erasiatu zuen.

Zezilia Andereñoaren maitaleak sudurrera irri egin zaukon:

- “He! ez batere! zerbitzu emanen dauk! Hoa aitzina!”

Zer erran nahi zuen! Bertzela ere, zergatik haren ohiduren hanbat kontrakoa zen ongi-nahi hori? Deus argitu gabe, zolara buruz joan zen, andereak han jarriak baitziren. Gizonak zutik zauden, eta Pellerin, haien erdian, bere aburuen emaiten. Edergintzendako hoberena, erretate ontsa arautu bat zen. Aro berriek okaztatzen zuten, “zaintzaleria nazionalaren gatik baizik ezpaliz ere”; erdi-aroaren dolutan zen, Luis XIV-garrenaren; Roque Jaunak aburu horiendako goretsi zuen, aithortuz ere edergilez zituen aitzin-gogo guziak aurdikitzen zauzkotela. Baina abantzu berehala urrundu zen, Fumichon-en mintzoak ereman-arazirik. Arnoux bi zozialixmo badirela erakustera entseatzen ari zen, bat ona eta bertzea gaitza. Industrialariak etzauen ezberdintasunik ikusten, jabegoaren aipatzean berean haserrez burxoratzen zen.

- “Naturalezan izkiriatura den zuzenbidea da! Haurrak bere jostaigailuer atxikiak dira; jendalde guziak ene aburuko dira; lehoina bera, mintza ahal baladi, jabe aithor laiteke! Horrela, ni, jaunak, hamabortz mila libera kapitalekin hasia niz! Hogeita hamar urtez, badakizuea, beti zuzen goizeko laur orenetan jeikitzen nintzan! Bortz mila debriuen nekea ukana dut ene fortunaren egiten! Eta erakutsi nahiko zata eztela enea, enizala ene diruaren jabe, eta azkenean, jabegoa ohointza dela!”

- “Baina Proudhon-ek...”

- “Emadazu bakea, zure Proudhon-ekin! Hemen baliz, uste dut itho nezakeela!”

Ithoko zuen. Edarien ondotik bereziki, Fumichon-ek bere burua etzuen ezagutzen; eta haren begitarte gorribelztua obus bat bezala leher egiteko heinean zen.

- “Egun on, Arnoux,” erran zuen Hussonnet-ek, soropilean zaluzalua iragaitean.

Dambreuse Jaunari ekhartzen zaukon *Herensugea* izeneko liburuxka baten lehen orstoa, mutiko arinak bilkura gibeleratzale baten alderdia hartua baitzuen, eta bankolariak horrela aitzineratu zauen.

Hussonnet-ek jostatu zituen, lehenik erranez bilgor saltzalek hirur ehun eta lauretan hogeita hamabi haur ordaintzen zituztela arrats oroz oihukatzeke: “Lampiunak! Lampiunak!”, gero 89-ko ideiez trufatuz, beltzen liberatzeaz, ezkerreko mintzalariez; *Zubur-gizon barrikada baten gainean* egiterano ere menturatu zen, behar bada bekaizkeria xoil baten ondorioz ontsa auhalduek ziren burjes horien kontra. Jaukizarre hori etzen biziki gustatu. Begitarteak luzatu zizezteen.

Etzen irri egiteko ordua, bertzela ere; Nonancourt-ek hala zion Affre Enejaunaren eta Brea jeneralaren heriotzeaz orhoit-araziz. Beti orhoit-arazten ziren; arrazoinetako baliatzen. Roque Jaunak erran zuen Arxapezpikuaren hiltzeaz: “orotan zen gauza ezin ederragoa”; Fumichon-ek “palma” armadakoari emaiten zaukon; eta, bi heriotze horietaz lañoki deitoratzeko orde, eztabadatu zen azkarragoko sumindura sustatu behar zuena zein zen jakiteko. Bigarren erkidatze bat egin zen, Lamoricière eta Cavaignac-en artekoa, Dambreuse Jaunak Cavaignac goraiapatuz eta Nonancourt-ek Lamoricière. Han zirenetarik nehork, Arnoux-ek salbu etzituen lanean ikusi ahal ukanak. Etzuten orok gutiago eman haien egintzez jujamendu bat ezin ukatua. Federik gibelerat egona zen, harmarik ez hartu ukanik. Embaxadorea eta Dambreuse Jaunak baieztatzezko kheinu bat egin zaukoten. Alabaina, jazarraldiari gudu egina ukaitea, Errepublikaren zaintzea izana zen. Ondorioak, onhargarria izanagatik, azkartzen zuen; eta, orai garhaituez arinduak zirenaz geroz, irabazlez berdin izan nahi zen.

Baratzera orduko, Dambreuse Andereak, Cisy berekin hartuz, bere trebetasun gabeaz erasiatua zuen; Martinon-en ikustean, igorri zuen, gero jakin nahi ukan zuen iloba ukanen zuenaren ganik bizkondeaz eginak zituen irri-solasen arrazoina.

- “Ezta arrazoinik batere.”

- “Eta hori guzia Moreau Jaunaren aipameneko bezala! Zertako?”

- “Deusetako. Federik mutiko xarmanta da. Biziki maite dut.”

- “Eta nik ere! Betor! Bila zoaz!”

Bizpahirur elhe ohikoen ondotik, hasi zen arinki bere gomiten gaitzesten, hori Federiken ezartzea bertzeak baino gorago baitzen.

Hunek etzuen huts egin bertze emaztez apur bat gaitzerraita, hari komplimendu egiteko molde trebea. Baina noiztenka uzten zuen, jenden hartzeko arratsa zen, andere batzu heldu ziren; gero bere lekura itzultzen zen, eta jarlekuen ezar-molde ustegabekoak uzten zituen bertzetarik ez entzunak izaitera.

Anderea jostagura agertu zen, baina serio, apur bat trixte baina arrazoineko. Orduko griñek etzuten hainbertze axolatzen; sendimendu mota oso bat bazen gutiago iragankorra. Poetez deitoratzen zen egia aldatzen dutelakotz, gero begiak zerura goititu zituen, hari izar baten izena galdatuz.

Zuhatzetan ezarriak ziren bizpahirur lanterna xinatar; haizeak higitzen ziten, arrai koloreko batzu zaia xurian ikharatzen zizazkon. Bazagon, ohi zuen bezala, bere jargian apur bat gibelera, aitzinean alketx batekin; satin beltzezko oski baten puntta ikusten zen; eta Dambreuse Andereak, artetan, elhe bat gorago igortzen zuen, batzuetan ere irri bat.

Garazia horiek etziren Martinon-erano heltzen, Zeziliarekin zer eginean baitzen; baina Roque nexkatora bazoazin, Arnoux Anderearekin solasean. Bakarra zen emazte horietan, arak erdainurik gabeak iduri zituenak. Haren ondoan jartzera jina zen; gero, mintzatzeko behar bati amor emanez:

- “Eztea hala ontsa mintzo dela, Federik Moreau?”
- “Ezagutzen duzu?”
- “Oi! biziki! Auzo gira, ttipi-ttipian josta-arazi nau.”

Arnoux Andereak igorri zaukon behako luze bat erran nahi zuena: “Eztuzu maite, bederen?”

Nexkato gaztearenak ihardetsi zuen nahasterik gabe: “Bai!”

- “Usu badakusazu beraz?”
- “Ho! ez! bakarrik bere amaren etxera badatorrenean! Horra hamar ilabete eztela ethorri! Zuzenago izaita hitzemanen zuen alta.”
- “Gizonek hitzemanak eztira sobera sinetsi behar, haurra.”
- “Baina enau enganatua, ni!”

Luixa ikharatu zen: “Zerbait hitzemanen ote lauko, emazte huni?” eta begitartea mesfindanza eta herraz tinkatua zuen.

Arnoux Anderea hortaz abantzu izitu zen; errana zuenaz dolu zuen. Gero, biak ixildu ziren.

Federik aitzinean baitzuten, jartzeko plegari batean, hari beha zauden, bat oneski, begi bazterraz, bertzea agerian, ahoa idekirik, hala nola nun Dambreuse Andereak erran baitzaukon:

- “Itzul zaite bada, ikus zaitzan!”
- “Nork?”
- “Baina Roque Jaunaren alabak!”

Probinziar gazte horren maitasunaz trufa arin bat egin zaukon. Hark ezetz zion, irri egitera entseatuz.

- “Sineskarri dea! galdatzen dautzut! Horrelako itxuxi bat!”

Bizkitartean, handieriazko atsegin neurrigabe bat sendi zuen. Bertze arrats batez orhoit zen, hartarik bihotza osoki aphaldurik jalgia zen hartaz; eta hatsa zabalduz hartzen zuen; hor bere egiazko ingurumenean sendi zen, abantzu bere etxean, hori oro, Dambreuse-ko hotela barne, berea ukana balu bezala. Anderek inguru erdi bat egiten zuten haren entzuten; eta, distiratzeko, ezkontza-haustearen berriz ezartzearen alde mintzatu zen, errexa izan behar baitzuen mugarik gabe elgarretarik berexete eta berriz elagarretaratzeranokoan, nahiko zen bezenbat. Oihu egin zuten; bertze batzu murmurikan ari ziren; mintzo ukaldi ttipi batzu entzuten ziren itzalean, ihamihiz estalia zen harresiaren oinean. Oilo alegeratu batzuen karaka bezala zen; eta hark bere teoria zabaltzen zuen, ondorio onaz segur izaiteak bademan ausartasun harekin. Mutil batek orstailpera ekharri zuen hormakiz estalia zen platera bat. Jaunak hara hurbildu ziren. Solasa preso hartzez zuten.

Orduan, Federik bizkondeaz mendekatu zen, sinest-araziz behar bada legitimixta bezala auziratuko zutela. Bertzeak ihardesten zuen etzela bere gambaratik higitua; kontra-erraileak zori gaixtoak metatu zauzkon; Dambreuse eta Gémonville-ko Jaunak berak jostatzen ziren. Gero Federiki komplimentuak egin zauzkoten, aldi berean bere ahalak etzituelakotz ordenuaren zaintzeko baliatzen dolutuz; eta esku-tinkatzea bihotzetik egin zauzkoten; hemendik harat haien baitan khonda zezakeen. Azkenean, jende guzia bazoalarik, bizkondea biziki behera gurtu zen Zeziliaren aitzinean:

- “Andereñoa, zuri gauonaren agiantzatzeaz ontsa ohore dut.”

Doinu idor batekin ihardetsi zuen:

- “Gauon!” Baina irriño bat igorri zaukon Martinon-i.

Roque aitak, Arnoux-ekin zuen solasaldiaren jarraikitzeke, etxera eremaitea eskaini zaukon “eta anderea ere”, bidea bera baitzuten. Luixa eta Federik aitzinean zoazin. Luixak besoa hartua zaukon; eta, bertzetarik apur bat urrun izan zenean:

- “Ha! azkenean! azkenean! Eztutanez arrats guzian aski pairatu! Emazte horiek zein gaixtoak diren! Zer handieriazko aireak!”

Federikek haien alderdia hartu nahi ukan zuen.

- “Lehenik, sartzean mintzatzen ahal hintzatan, urte bat baituk ehizala hunara ethorria!”

- “Eztun urterik,” erran zuen Federikek, xehetasun hortan bederen haren zuzentzeaz zoridun, bertzen baztertzeke.

- “Biz hala! Dembora luze iduritu zatak, horra guzia! Baina auhari higungarri huntan, nitaz ahalge hintzala sinets zaitekean! Ha! ikusten diat, gustatzeko behar denik eztiat, hek bezala.”

- “Hutsean hiz,” erran zuen Federikek.

- “Zinez! Bat eztukala maite zin egik!”

Zin egin zuen.

- “Et ni nuk bakarrik maite dukana?”

- “Alabaina!”

Segurtamen horrek Luixa alegeratu zuen. Nahi ukanen zuen karriketan galdu, gau osoan elgarrekin ibiltzeko.

- “Hain nindian han griñatua! Etzitian barrikadez baizik mintzo! Ikusten hindutan bizkarrez lurrera erortzen, odolez estalia! Hire ama errumatisimekin ohatua zian. Ezer etzakikan. Ixilik egon behar nian! Gehiago enindagokan! Orduan, hartu diat Katalina.”

Eta khondatu zaukon nola abiatua zen, bide guzia egina, eta aitari erran gezurra.

- “Bi egunen buruan berriz eremaiten nik. Haugi bihar arratsean, ustegabeen bezala, eta balia hadi enekin ezkontzearen eskatzeko.”

Ehoiz etzen Federik ezkontzetik urrunago izana. Bertzela ere, Roque Andereñoa jende aski irrieginarri bat iduritzen zizakon. Zer ezberdintasuna Dambreuse Anderea bezalako emazte batekin! Ontsa bertzelako ethorkizun bat ukan behar zuen! Hortaz orai segur zen; etzen beraz hoin delibero larrira, bihotz oldar batean, hitzemanen abiatzeko ordu. Orai gogoan argi behar zen; - eta Arnoux Anderea berrikusia zuen ere. Bizkitartean Luixaren zintzoaz tratatua zen. Ihardetsi zuen:

- “Gogoan ontsa hartu duna urrats hori?”

- “Nola!” egin zuen, ustegabez eta suminduraz balditua.

Hark erran zuen eskuharki ezkontzea erokeria bat lizatekeela.

- “Horrela, nitarik eztuk nahi?”

- “Baina eztun entzuten!”

Eta elhasturi biziki nahasi batean abiatu zen, hari entzun-arazi nahiz gogamen baitezpadako batzuek bazadukatela, burutzerik ezin emaneko egitekoak bazituela, fortuna bera irriskutan zuela (Luixak

guzia moztzen zuen, hitz garbi batez), azkenean politikako gertaldiak traba zirela. Beraz, arrazoinekoena ephe batez igurikatzea zela. Gauzak antolatuko ziren, agian; bederen, esperanza hortan zen; eta, arrazoin gehiagorik ez aurkituz, alegia bi oren hartan Dussardier-en etxean behar izanaz bapatez orhoitzen baliz bezala egin zuen.

Gero, bertzeak agurturik, Hauteville karrikan barna sartu zen, Gymnase-aren itzulia egin zuen, karrika handira berriz itzuli, eta lasterka Rosanette-ren laur estaiak igan.

Arnoux Jaun-Anderek utzi zituzten Roque aita-alabak Saint-Denis karrikara sartzean. Hitzik erran gabe itzuli ziren; gizona, atxikia zuen elhasturiaz ezindua; eta anderea, akhidura handi bat sendi baitzuen; haren soingainera bermatuz ere. Arrats hartan sendimendu zuzenak erakutsiak zituen gizon bakarra zen. Haren aldera urrikiz betea sendi zen. Hark, bizkitartean, gorromio apur bat bazadukan Federiken kontra.

- “Ikusi duna zer begitarte zuen, potretaz ari izan direlarik? Haren maitale dela erraiten naunanean? Enindunan sinetsi nahi!”

- “Oi! ba, hutsean nintzan!”

Arnoux, irabazte hortaz askietsia, hisitu zen.

- “Joka nezaken ere, arestian, haren gana joaiteko utzi gituela! Orai haren etxean dun, hoa! Gaua han eremaiten din.”

Arnoux Andereak xartexak biziki apha! jautsiak zituen.

- “Baina ikharan hiz!”

- “Hoztua bainuk,” egin zuen.

Aita lokartua izan zeneko, Luixa Katalinaren gambaran sartu zen, eta, soigainetik inharrosten zuela:

- “Aika!... laster! lasterrago! eta hoa fiakra baten ekhartzera.”

Katalinak ihardetsi zaukon gehiago etzela oren hartan.

- “Hihaurek eremanen nun, orduan!”

- “Nora?”

- “Federiken etxera!”

- “Ba ote! Zergatik?”

Hari mintzatzeko zen. Ezin zezakeen igurika. Berehala ikusi behar zuen.

- “Uste duzua! Etxe batera joaita horrela, gau minean! Bertzela ere, orai, lo da!”

- “Iratzarriko dinat!”

- “Baina hori eztoako andereño bati!”

- “Enun andereño bat! Haren emaztea nun! Maite dinat! Goazen, ezarran lephokoa.”

Katalina, ohe bazterrean zutik, gogoetan ari zen. Azkenean erran zuen:

- “Ez! eztut nahi!”

- “Ongi bada, ago! Ni, banoan!”

Luixa suge bat bezala lerratu zen mailaldean. Katalinak gibeletik laster egin zaukon, mailaldean batu zuen. Erasan zituenak debalde izan ziren; eta jarraiki zizakon, mantar-motxa estekatzen zuen batean. Bidea biziki luze iduritu zizakon. Bere zango zaharrez deitoratu zen.

- “Ezpaitut, nik, zu eremaiten zituen hura, alabaina!”

Gero bihotz-berazten zen.

- “Gaixo maitea! Eztun oraino hire Kattina bezalakorik, badakusan!”

Artetan, arrangura batzuek berriz hartzen zuten.

- “Ha! Gauza pollita egin-arazten dautazu! Aita atzartzen baliz! Jainko Jauna! Agian ezta zorigaitz bat gertatuko!”

Variétés-etako antzokiaren aitzinean, zaintzale nazional alde batek gelditu zituen. Luixak erran zuen berehala sehiarekin Rumfort karrikara mediku baten bila zoala. Joaitera utzi ziren.

Madalenako izkinan, bigarren zaintzale alde bat aurkitu zuten, eta, Luixak argibide bera emanik, herritarretarik batek egin zuen:

- “Bederatzi ilabeteko eritasun bateko dea, ene gattuñoa?”

- “Gougibaud!” oihukatu zuen kapitainak, “elhe txarrik ez lerroetan! - Andereak zoazte aitzina!”

Manua izanik ere, elhe arinek jarraiki zuten:

- “Atsegin ainitz!”

- “Ene errespetuak medikuari!”

- “Guardi emazu otsoari!”

- “Irri egitea maite dute,” erran zuen gora-gora Katalinak. “Gazte da!”

Azkenean, Federiken etxera heldu ziren. Luixak xilintxa thiratu zuen indarrekin, aldi bat baino gehiagotan. Athea erdi-ideki zen eta etxezainak ihardetsi zaukon haren galdeari:

- “Ez!”

- “Baina etzana dateke?”

- “Ezetz diotzut! Horra hirur ilabete hurbil eztela etxean etzaten!”

Eta egongiako berina ttipia berriz garbiki erori zen, gillotina bat bezala. Ilunbean zauden uztaiaren azpian. Mintzo haserretu batek oihu egin zauen:

- “Jalgi zaitezte bada!”

Athea berriz ideki zen, jalgi ziren.

Luixak behar ukan zuen zedarrri batean jarri; eta nigar egin zuen, burua eskuetan, nasaiki, bihotz guziaz. Argitzen ari zen, orga batzu iragaiten ari.

Katalinak atxikiz ekharri zuen, musu emanaz, berak ikasitik hartu mota orotako hitzekin. Etzen maitale baten gatik hoinbertze min ukan behar. Horrek huts egiten bazuen, bertze batzu aurkituko zituen.

III

Rosanette-ren suhertasuna zaintzale ibilkarien aldera eztitua izan zenean, ehoiz baino goxagarriago bilakatu zen berriz, eta Federikek hartu zuen emeki emeki haren etxean bizitzeko ohidura.

Egunaren hoberena, goiza zabalzan zen. Lihozko zaia luzean eta xapinetan orthutsik, Federiken inguruan harat-hunara zabilan, bere xorien kaiola garbitzen zuen, arrain gorrier ura emaiten, eta suko phala batekin lurrez betea zen khuxa bat lantzen, handik goiti baitzoan harresia aphaintzen zuen kaputxina-lorekilako ziri-sare bat. Gero, ukondoak galeriari, elgarrekin zauden karroser, ibiltzaler beha, eta iguzkira berotzen, arratseko zer egin xedatzen. Federik joaiten zen, bi orenendako gehien-gehienik; gero, bazoazin edozein antzokira, taulada aitzineko egongietara; eta Rosanette-ek, lore floka gotor bat eskuetan, musikariak entzuten zituen, Federik, beharrira gurturik, ixtorio alai edo galant erraiten ari zizakolarik. Bertze batzuetan, kalexa bat hartzen zuten Boulogne-ko oihanera eremaiteko; han berant ibiltzen ziren, gauaren erditarano. Azkenean, itzultzen ziren Triunfako Arku eta ethorbide handian gaindi, airea hartuz, izarrak buru gainean, eta, ikusten zen guzian, gaza mokoak oro lerroan perla dirdiratzalezko hari bikun bat bezala.

Federikek beti igurikatzen zuen jalgi behar zutenean; biziki luze zen bidar inguruan burukoaren bi xingolen ezartzen; eta berari erdi-irriz zagon, mirailarekilako harmairuaren atzinean. Gero besoa Federikenaren

inguruan emaiten zuen, eta haren ondoan bere buruari so egitera bortxatzen zuen:

- “Ontsa emaiten dugu hunela, biak ondo-ondoan! Ha! Maite gaixoa, jan hezaket!”

Rosanette-ren gauza zen orai, haren ontasuna. Horrengatik aurpegia beti argitan zuen, aldi berean araz amultsuago iduri zuenean, itxuretan biribilago; eta, zer moldez erran ahal ukan gabe, bertzelakatur aurkitzen zuen bizkitartean.

Egun batez, ikasi zaukon, berri biziki handi bat bezala, Arnoux jaunak oihal xuri saldegi bat egin berria zaukolar bere landegiko emazte langile ohi bati; arrats oroz hara jiten zen, “ainitz xahutzen, aitzineko asteen berean, palizandrazko mubleztatze bat emana zaukon”.

- “Nola dakin hori?” erran zuen Federikek.

- “Ho! segur nuk!”

Delfinak, haren manuer jarraikiz, berriak hartuak zituen. Arnoux maite zuen beraz hartaz hain azkarki axolatzeko! Federikek etzuen hau baizik ihardetsi:

- “Horrek zer egiten daun?”

Rosanette galde hortaz ustegabetua iduritu zen.

- “Baina zirtzilak dirua zor dauta! Emagaldur batzuen ordainduz atxikitzen ikustea eztea higungarri!”

Gero, herra irabazle baten itxurarekin:

- “Bertzela ere, anderea hartaz polliki trufatzen da! Baditu bertze hirur laguntto. Hobe! eta jan beza azken arditerano, gozagarri izanen zata!”

Arnoux-ek, alabaina, bere burua Bordelestsari biphiltzera uzten zaukon, zaharraroko maitasunen urrikalmenduarekin.

Landegia gehiago etzoakon ontsa; egiteko guziak izanara dolugarritan zituen; hala nola nun, berriz hek errexean ezarri nahiz, gogoratu baitzizakon lehenik kantu emaiteko kafe baten ezartzea, aberritasunezko kanturik baizik hartan eginen etzena; minixtroak diru laguntza emanez, etxe hori bilakatuko zen aldi berean ideien hedatzeko gune eta irabazi egiteko ithurri. Gobernamentuaren xedeak aldatuak izanik, gauza ezina zen. Orai, armadako xapeldegi bat amesten zuen. Hasteko diruak huts egiten zaukon.

Etxeko gauzetan etzuen zori gehiago. Arnoux Anderea etzen harekin hain ezti, batzuetan ere apur bar idor zen. Alaba beti aitaren alde jartzen zen. Horrek elgar ez entzutea handitzen zuen. Ainitzetan,

Arnoux goizetik abiatzen zen, eguna bazeraman itzuli handi batzuetan burxoratzeko, gero baserriko ostatu batean auhaltzen zen, bere burua gogoetetara joaiten utziz.

Federiken ez han izaite luzatuak ohiduretan nahasten zuen. Beraz, arratsalde batez, agertu zen, lehen bezala itzul zadin othoi-othoiztu zuen, eta Federiken hitzemaitea ukan.

Hau etzen Arnoux Anderearen etxera itzultzera menturatzen. Bazirudikon trahitua zuela. Baina eginara hori ontsa beldurtia zen. Desenkusatzerik etzuen eginik. Hortaratu beharko zen alta azkenean! eta, arratsalde batez, hara abiatu zen.

Euria ari baitzen, Jouffroy iraganbidera sartu berria zen, saldegi aitzinetako argira, gizon tipi lodi kaxketadun bat jin zizakolarik. Federiketik etzuen Compain-en ezagutzen lanik ukan, glubean erran zuenak hanbat irri egin-arazia zuen mintzatzale hura. Zuaben bonet gorri batekilako gizon baten besoan bermatzen zen, hau gaineko ezpain biziki luze batekin, larrua iranja bezain hori, matel-hezurra bixar batez estalia, eta hari beha zagona begi handi batzuekin, miraz dirdiran.

Compain, iduriz, hartaz loriatua zen, ezen erran zuen:

- “Putiko hau aitzineratzen dautzut! Ene adixkidetako botagin bat da, abertzale bat! Zerbait hartzen duguia?”

Federiketik eskerrak emanik, berehala oihukatu zen Rateau-ren proposamenaz, arixtokraten jukutria bat. Bururatzeko, 93-a berriz hasi behar zen! Gero, Regimbart-en berriak galdegin zituen eta bertze zenbaitenak, hala nola Masselin, Sanson, Lecornu, Maréchal, eta Deslauriers delako batenak ere, berriki Troyes-en hatzemanak zituzten karabinen egitekoan barne hartua.

Hori oro berri zen Federikendako. Compain-ek gehiagokorik etzakien. Utzi zuen erranez:

- “Laster arteo, eztea hala, zeren barne zira?”

- “Zertan?”

- “Aretxe buruan?”

- “Zein aretze buru?”

- “Ha! jostakina!” egin zuen Compain-ek, hari sabelean zafla bat emanaz.

Eta bi terrorixtak kafe batean barna sartu ziren.

Hamar minuta berantago, Federiketik etzuen gehiago Deslauriers gogoan. Parabisu karrikako oinbidean zen, etxe baten aitzinean; eta

bigarren estaiara so zagon, erridau batzuen gibelean, girisailu baten argiari.

Azkenean, mailaldea igan zuen.

- “Arnoux hor dea?”

Gerlariak ihardetsi zuen:

- “Ez! baina sar zaite hala ere.”

Eta, bapatean athe bat idekiz:

- “Anderea, Moreau Jauna da!”

Jeiki zen, lepho ingurukoa baino xuriago. Ikharan zen.

- “Zerk dakart ohorea... ikustaldi... hoin ustegabeko batena?”

- “Jeusek! Adixkide zahar batzuen ikusteko atseginak!”

Eta, jartzen ari zen batean:

- “Arnoux on hura nola da?”

- “Beteginki! Jalgia da.”

- “Ha! badantzut! beti arratsetako ohidura zahar hek; libertimendu apur bat!”

- “Zergatik ez? Karkuletako egun oso baten ondotik, buruak atsedenaren beharra badu!”

Senarraz espantu egin zuen ere, langile bezala. Laudorio horrek Federik khexatzen zuen; eta, haren belhaunetan erakutsiz mihise beltz zati bat, bazter urdin batzuekin:

- “Zer badagizu hor?”

- “Alabarendako antolatzen ari dutan soineko motz bat.”

- “Alaba, eztut ikusten, nun da bada?”

- “Ikastetxe batean,” egin zuen berriz Arnoux Andereak.

Nigarrak begira jin zizazkon; atxikitzen zituen, orratz bat zalu erabiliz. Hark egoiteko molde hartua zuen *L'Illustration*-en aldiko bat, mahian, haren ondoan.

- “Cham-en marrazki trufari hauk biziki jostagarri dira, eztea hala?”

- “Ba.”

Gero ixil egon ziren.

Bapatez zirimola batek inharrosi zituen berinak.

- “Zer aroa!” erran zuen Federikek.

- “Alabaina, euri laztagarri hunekin jitea ontsa gixako da zure aldetik!”

- “Oi! ni, eniz axolatzen! eniz berek hitzeman lekuetara joaitetik euriak traba dezazkeen hetarik!”

- “Zein hitzeman leku?” galdegin zuen lañoki.

- “Etzirea orhoitzen?”

Hotz-ikhara batek hartu zuen, eta burua behekitu.

Eskua eztiki besoa ezarri zaukon.

- “Hitzemaiten dautzut ontsa oinazka-arazia nauzula!”

Hark egin zuen berriz, mintzoan halako auhen batekin:

- “Baina haurrendako beldur nintzan!”

Uxen ttiptaren eritasuna erran zaukon eta egun hartako herstura guziak.

- “Eskerrak! eskerrak! Eztut gehiago dudarik! maite zitut beti bezala!”

- “Ez bada! ezta egia!”

- “Zergatik?”

Hotz-hotza so egin zaukon.

- “Bertzea ahazten duzu! Zaldi lasterretan ibiltzen zinuen hura! Haren potreta baduzun emaztea, zure ohaidea!”

- “Beraz, ba!” egin zuen Federikek. “Jeus eztut ukatzen! Esteus bat niz! entzun nezazu!” Hartua bazuen, etsipenez zen, bere buruaz egiten den bezala. Bertzela ere, zorigaitz ainitz ekharria zaukon, bere ahaltzeaz haren baitan mendekatzeko. “Zer gaztigua! Eztuzu entzuten?”

Arnoux Andereak bere begitarte ederra itzuli zuen, eskua Federiki emanaz; eta begiak hetsi zituzten, leriarte ezti eta mugagabe bat bezalakoa zen xoramen batean barna hartuak. Gero elgarri beha egon ziren, bekoz beko, bat bertzearen ondoan.

- “Sinets ahal zinezakeena etzinitutala maite?”

Mintzo aphas, pherekuz bete batekin ihardetsi zuen:

- “Ez! guzia gatik ere, bihotzaren zolan sendi nuen ezin zela eta egun batez gure arteko traba ezeztatuko zela!”

- “Nik ere! eta zure ikusteko beharretan nintzan, hiltzeranokoa!”

- “Aldi batez,” egin zuen berriz hark, “Erret-Palazioan zure ondotik iragan niz!”

- “Zinez?”

Eta Federikek erran zaukon Dambreuse-tarren etxean berraurkituz ukana zuen zoriona.

- “Baina zenbat hastio zinitutan arratsean, handik atheratzean!”

- “Gaixo mutikoa!”

- “Hain da ene bizia trixte!”

- “Eta enea!... Griñak baizik ezpalire, khexuak, aphaldua izaiteak, ezkontide eta ama bezala jasaiten ditutan guziak, hil behar denaz geroz, enindaiteke deitora; beltza dena, ene bakartasuna da, nehor ere gabe...”

- “Baina hemen niz, ni!”

- “Oi! ba!”

Samurtasunezko hipa batek goiti-arazia zuen. Besoak baztertu zituen, eta elgar besarkatu zuten zutik, musu luze batean.

Tauladan kraxka bat egin zen. Ondoan bazuten emazte bat, Rosanette. Arnoux Andereak nor zen ezagutua zuen: begiez, ustegabe ‘ta suminduraz beteak, zabal-zabalduak, ikertzen zuen. Azkenean Rosanette-ek erran zuen:

- “Arnoux Jaunari mintzatzera heldu niz, egitekoez.”

- “Ezta hemen, ikusten duzu.”

- “Ha! egia da!” egin zuen berriz Marexalsak, “zure sehiak arrazoin zuen! Mila desenkusa!”

Eta, Federiken aldera itzuliz:

- “Hemen hiz, hi?”

“Hi” horrek, haren aitzinean emana, Arnoux Anderea gorri-arazi zuen, mazelako batek begitarte betean bezala.

- “Ezta hemen, berriz ere diozut!”

Orduan, Marexalsak, hara eta hunara so baitzagon, erran zuen gostuan:

- “Sartzen girea? Fiakra bat badiat beherean.”

Alegia ez entzunarena egiten zuen.

- “Goazen, haugi!”

- “Ha! ba! aldi ona da! Zoaz! Zoaz!” erran zuen Arnoux Andereak.

Athera ziren. Hura mailalde bazterrera gurtu zen joaiten haien ikusteko; eta irri zorrotz, erdiragarri bat gainera erori zizeen, mailalde gainetik. Federikek Rosanette fiakrara bultzatu zuen, bekoz beko jarri zizakon, eta, bide ososan, etzuen hitzik erran.

Itsuskeria horrek bera laidoztatzen zuen, eta bera zen egin-arazlea. Sendi zituen aldi berean aphaltze lehergarri hortako ahalgea, eta bere zorion galduaren urrikia; ukaitera zoalarik azkenean, behin betikotz ezina bilakatua zen! - eta bertze horren hutsez, neska horren, emagaldu horren. Itho nahiko zuen; hatsa bahitua zuen. Etxera sarturik, xapela muble baten gainera egotzi zuen, lephokoa bortizki ekhendu.

- “Ha! gauza pollit bat egina dun, aithor ezan!”

Aitzinean zut-zuta eman zizakon.

- “Ba, eta gero? gaitza nun da?”

- “Nola! Barrandatzen nun?”

- “Ene hutsa dea? Zertako hoa libertitzera emazte onesten etxera?”

- “Hala ere! Laidozta ditzanan ez tinat nahi.”

- “Zertan diat laidoztatu?”

Ihardestekorik jeus etzuen ukan; eta, doinu herratiago batekin:

- “Baina bertze aldian Champ-de-Mars-ean...”

- “Ha! azperten gituk hire ohikoekin!”

- “Ezteusa!”

Ukabila goititu zuen.

- “Enezakala hil! haur beharretan nuk!”

Federik gibelatu zen.

- “Gezurra dun!”

- “Baina beha ezatak!”

Argi bat hartu zuen, eta, bere begitartea erakutsiz:

- “Ezagutzen hiza?”

Orbain ttipi hori batzuek larrua titatzen zaukoten, eta bereziki loditua zuen. Federikek etzuen ageri zena ukatu. Leihoaren idekitzera joan zen, urrats zenbait zehar-nabar egin eta bere burua jargia batera erortzera utzi zuen.

Gertakari hori helgaitz bat zen, lehenik elgarretarik berextea gibelatzen zuena, - eta gero zituen xede guziak nahasten. Aita zelako gogoeta, bertzela ere, irriegin-araztekoa iduritzen zizakon, ezin onhargarria. Baina zergatik? Marexalsaren orde baldin...? Eta ametsean hain barna sartu zen, nun halako lillura bat ukan baitzuen. Bazakusan hor, tapizaren gainean, nexka ttipi bat. Arnoux Anderearen egitea bazuen, berea ere, apur bat; - beltxaran eta xuri, begi beltz batzuekin, bekain handi batzu, ile kuxkulatuetan xingola arrosa-kolore bat! (Oi! nola maitatuko zuen!) Eta bazidurikon haren mintzoa entzuten zuela: “Aita! aita!”

Rosanette, buluzi eta, hurbildu zizakon, betespaletan nigar bati ohartu, eta bekokian musu eman zaukon, seriestasunekin. Federik zutitu zen, erranez:

- “Alajinkoa! Ezta hilen, haur txar hori!”

Orduan, hura luzaz mintzatu zen. Mutikoa izanen zen, segurki! Federik izena emanen zizakon. Troxadura hasi behar zen; - eta, hura

hanbateko zorionean ikusiz, Federik urrikitu zen. Ezpaitzuen, orai, haserrerik batere sendi, arestian egina zuen urratsaren arrazoina jakin nahi ukan zuen.

Vatnaz Andereñoak zaukon igorria, egun hortan berean, aspaldidanik ordaindua etzela aithortua zen paper bat; eta Arnoux-en etxera laster egina zuen diruaren ukaiteko.

- “Dirua emanen naunan!” erran zuen Federikek.

- “Errexago zian han neurea zenaren hartzea, eta bertzeari bere mila liberen itzultzea.”

- “Zor daukonan guzia dea bederen?”

Ihardetsi zuen:

- “Segurki!”

Biharamunean, arratseko bederatzietan (athezainak errana zuen orena), Federik Vatnaz Andereñoaren etxera joan zen.

Aitzin-gambaran metatuak ziren mubletan jo zuen. Baina mintzo eta musika harrabots batek bidatzen zuen. Athe bat ideki zuen eta *raout* baten erdian gertatu zen. Zutik, andere begitakoekilako batek joiten zuen pianoaren aitzinean, Delmar, apezpiku bat bezain serio, prostituzioneran kontrako poesia gizatar baten erraiten ari zen; eta haren mintzo luthoa bazoan, soinu multzo joek lagundurik. Emazte lerro batek hartzen zuen harresia, gehienak margo ilunetan jantziak, athorra lephokorik eta mahunga-burukorik gabe. Borzpasei gizon, guziak gogoetatzaleak, baziren han edo hemen, kadera batzuetan. Bazen, jargia batean, alegialari ohi bat, okhitua; - eta bi girisailuen urrin kharmina jokoko mahia betetzen zuten gatiluetako xokoletaren usainarekin nahasten zen.

Vatnaz Andereñoa, lephoko orienteko bat gerri inguruan, khebidearen izkina batean zagon. Dussardier bertze buruan zen, hari bekoz; zuen lekuaz apur bat eragozpenean iduri zuen. Bertzela ere, ingurune edergintzako horrek herabetzen zuen.

Vatnaz-sak Delmar-ekilakoa bururatua zuena? ez, behar bada. Bizkitartean, komis onaz bekaizti iduri zuen; eta, Federikek hari hitz baten erraita eskaturik, haiekin biekin bere gambarara iragaiteko kheinu egin zaukon. Mila liberak emanak izan zirenean, galdegin zituen, gainera, intresak.

- “Eztu balio!” erran zuen Dussardier-ek.

- “Ixil hadi bada!”

Gizon hoin bihoztunaren beldurreria hori gozagarri izan zizakon Federiki bereari arrazoin emaitako estakuru bezala. Billeta gibelera ekharri zuen, eta etzuen gehiago nehoiz aipatu Arnoux Anderearen etxean gertatua zen behargabea. Baina, orduetik, Marexalsaren hutsuneak agertu zizazkon.

Gostu gaixto ezin aldatu bat bazuen, auherreria ezin argitu bat, salbaiaren jakingabea, Desrogis medikua biziki aipatutzat edukitzerano; eta etxean horren ukaiteaz, bere ezkontidearekin, burgoi zen, “jende ezkonduak” zirelakotz. Molde jakinduru batekin manatzen zuen Irma Andereñoaren biziko gauzetan, mintzo mehe batekilako jende ttipi gaixo bat, gerizatze “jaun biziki ontsa zen bat” bazuena, aduanetako ofiziale ohia, karta jokoetan biziki azkarra; Rosanette-ek “ene photzoloa” erraiten zaukon. Federikek etzezazkeen jasan, ere, hitz zozo batzuen errepikatzeak, hala nola: “tirrit! Chaillot-era! ezta nehoiz jakin ahal izan”, eta bertze; eta hisituz ari zen eskularru zuri zahar batzuekin goizetan puxkiler errauts ekhentzen! Sumindua zen bereziki sehiaren aldera zituen arez, - saria beti gibelatua baitzizakon, eta hunek dirua mailegatzen baitzaukon ere. Khonduak egiten zituzten egunean aharratzen ziren bi arrainketarisa bezala, gero besarkatuz bakeak egiten ziren. Buruzburukoa trixte bilakatzen ari zen. Arintze bat izan zizakon Federiki, Dambreuse Anderearen arratsaldeak berriz hasi zirenean.

Horrek, bederen, jostatzen zuen! Bazazkien munduko jukutriak, embaxadoren aldatzeak, dendarien langileria; eta, leku arrunt batzuek erraitera uzten baldin bazituen, molde hain ohikoan zen nun erranaldia adei baten edo trufa batendako har baitzaitekeen. Mintzo ziren hogeit jenden erdian behar zen ikusi, bat ez ahatziz, nahi zituen ihardespenak eman-araziz, lanjerosak baztertuz! Gauza xoilenek, hark erranik, segetuzkoak baziduriten; haren erdi-irri den ttipienak amets egin-arazten zuen; haren goxoa, azkenik, ohian zerabilan usain on hautekoa bezala, batzuna zen eta ezin errana. Federikek, haren ondoan, aldi oroz senditzen zuen aurkitze berri bateko atsegina; eta bizkitartean, beti bere gogo berdinean edireiten zuen, ur garbietako dirdiratzea bezalakoan. Baina zergatik zituen ilobaren alderako arak hain hotzak? Igortzen zauzkon, artetan, behako bitxi batzuek.

Solasa haren ezkontzaz izan zen orduko, Dambreuse Jaunari aitzineratua zaukon “haur maitearen” osagarria, eta Balaruc-eko mainuetara eramana zuen berehala. Handik itzultzean, estakuru berri batzuek sortuak ziren: mutiko gazteak etzuen lerroa azki gora, maitasun

handi horrek etzuen seriosa iduri, igurikatzean etzen irriskurik batere. Martinon-ek ihardetsia zuen igurikatuko zuela. Ezin hobeki egin zuen. Federik goretsi zuen. Gehiago ere egin: hari eman Dambreuse Andereari gustatzeko bidez behar ziren xehetasunak, entzutera utziz ere bazazkiela, ilobaren ganik, izabaren sendimenduak.

Dambreuse Jaunak aldiz, bekaizkeria erakustetik urrun, adixkide gaztea ikustatez inguratzen zuen, gauza batzuetan aholku galdegiten, haren geroaz axolatzen zen ere, hala nola nun egun batez, solasa Roque aitaz zelarik, beharrira erran baitzaukon, doinu maltzur batekin:

- “Ontsa egin duzu.”

Eta Zezilia, miss John, mutilak, athezaina, bat etzen, etxe hortan, harekin goxagarri etzenik. Arrats oroz jiten zen, Rosanette utziz. Hau ama izan beharrak serioten zuen, apur bat trixtatzen ere, griña batzuek oinazkatua ukana balute bezala. Galde guzietan, ihardesten zuen:

- “Huts egiten duk! Ontsa nuk!”

Bazituen bortz paper lehenago aitzinetik ordainduak; eta, Federiki erraitera ez menturaturik, berriz itzulia zen Arnoux-en etxera, hunek hitz emana baitzaukon, izkirioz, Languedoc-eko hirien argitzean gazarekin (miragarriko egintza!) ukanen zituen irabazien herena, hitz hortaz balia etzadin erranez diru aitzinatzen bilkura baino lehen; bilzarrea astez aste gibelatua zen.

Bitartean, Marexalsa diru beharretan zen. Federiki eskatu baino lehen hilen zen. Horrek maitasuna uhertuko zauen. Etxeko gastuak Federikek bere gain hartzen zituen; baina ilabeteka alokatua zen karrosa ttipi batek eta bertze beharordu baitezpadako batzuek Dambreuse-tarren etxean bazabilanaz geroztik debekatzen zaukoten ohaidearendako gehiagoren egitea. Bizpahirur aldiz, ohi gabeko ordu batzuetan sartzean, iduritu zizakon gizon bizkar batzuen ikustea ahetan hara itzaltzen; eta anderea usu jalgitzen zen nora zoan erran nahi ukan gabe. Federik etzen gauza horien ziltzera entseatu. Egun hautarik batez, behin betiko deliberoa hartuko zuen. Amets bazegien bertze bizi batez, jostagarriagoa izanen zena eta nobleagoa. Hortara heltzeko gogoak barkakor egiten zuen Dambreuse-ko hotelaren aldera.

Poitiers-ko karrikako bizitegiaren osagailu bat zen, baina etxez etxe. Han ediren zituen M. A. handia, B. omenekoa, C. gogo barnatua, Z. mintzalea, Y. ospeduna, erdigune ezkerreko mintzo handi zahartuak, eskuneko zaldun ibilkariak, erdi zuzeneko buruzagiak, komediako gizagaizo betierekoak. Balditua izan zen haien mintzaera hastiagarriaz,

ttipikeriez, gorromioez, gogo zuzengabeaz, - Konztituzioneari boza emana zuten jende horiek oro haren aurdikitza egin ahala ari; - eta bazuten jestu, aithormenak ager-araziz, gaitzerranak, jende batzuen biziak; Fumichon-ena Hussonnet-ek eginik nagusi-lan bat izan zen. Nonancourt baserrietan aburu hedatzeari ari zen, Grémonville-ko Jauna aphezeriaren sustatzen, Martinon burjeseria gaztearen biltzen. Bakoitza ari zen, bere ahale arau, Cisy bera ere. Gauza serioak gogoan baitzituen orai, karrosa motzean zabilan, egunak irauten zueno, alderdiarendako.

Dambreuse Jaunak, aro-neurtzale batek bezala, bazeman beti azken aldamera. Etzen Lamartine aipatzen, hark jende xoileneko gizon baten hitz hau errepikatu gabe: “Liratik aski!” Cavaignac etzen gehiago, haren begietan, traidore bat baizik. Presidenta, hirur urtez miretsia zuena, haren estimuan jausten ari zen (ezpaitzaukon “behar zen gemena” aurkitzen); eta, beti salbatzale baten beharretan baitzen, haren esker ona, Konserbatorioko gertakiaz geroz, Changarnier-i zoakon: “Jainkoari eskerrak, Changarnier-ek..., Agian Changarnier-ek..., Oi! ezta jeusez beldurtzekorik Changarnier hor deno...”

Goraipatzen zen oroz gainetik Thiers Jauna Zozialixmoaren kontra egin zuen liburuaren gatik, hartan idazle bezenbat gogoetatzale agertua baitzen. Irri ainitz egiten zen Pierre Leroux-ez, deputatuen gambaran emaiten baitzituen filosofoen aipamenak. “Falanstère”-etako buztanaz jostatzen zen. *Ideien feria*-ra esku-zartatzera bazoan; eta egileak erkidatzen ziren Aristofane-rekin. Federik han izan zen, bertzeak bezala.

Politikako elhasturiak eta janari onak moralitatea zurruntzen zaukoten. Zenbat ere artekoak iduritzen baitzizazkon jende horiek, burgoitzen zen horien ezagutzeaz eta gutzizatzen zuen bere baitan burjeseriaren adeia. Dambreuse Anderea bezalako ohaide batek goratuko zuen.

Behar zen guziaren egiten hasi zen.

Hura zen lekuan gertatzen zen ibilaldietan, antzokiko egongian haren agurtzera joatea etzuen huts egiten; eta, elizara joanen zen orenak baitzazkien, zutabe baten giblean emaiten zen egonara erromantiko batean. Gauza berezi batzuez jakinduru izaiteko, musikaldi bateko xehetasunetako, liburu edo agerkari mailegatzeko, paper ttipi batzuen elgarri emaita zen ethen gabe. Arratseko ikustaldiaz bertzalde, bertze bat egiten zuen batzuetan egun ondarrera; eta bozkarioa handitzen

zizakon iragaiten zenean bat bertzearen ondotik athe handian, korralean, aitzin-gambaran, bi saloinetan gaindi; azkenean, haren saloin ttipira heltzen zen, hil-hobi bat bezain ixila, ohetegi bat bezain ephela, muble gosnatuetan joiten baitzen han hemenka zauden mota orotako gauzen erdian: oihaldegi, haizolbe, lakaz, ezkatatz, boliz, harnabarrezko baso eta platera, phuxkileria kharioak, usu berrituak. Baziren ere xoilak: Etretateko hirur ugarrri paper zapagailutako, Frisonne-ko bonet bat haizolbe xinatar batetik dilindan; gauza horiek oro elgarrekin batzen ziren alta; hartua izaiten zen ere guziaren nobletasunaz, behar bada tronaduraren goratasunarekin zer ikus bazuen gauza, athe-oihalen handitasun aberatsarekin eta zetazko lits luzekin, alketxen ziri urreztatuetarik dilindan.

Anderea abantzu beti jargia ttipi batean zen, leiho-artearen hartzen zuen landare-untziaren ondoan. “Pouf” gotor errotadun baten hegian jarriarik, Federikek igortzen zauzkon ahal zituen komplimendu arautuenak; eta hark behatzen zauzkon burua apur bat bazterrera, irriño bat ahoan.

Olerki zati batzu irakurtzen zauzkon, bere arima guzia hetan ezarriz hura hunkitu nahian, eta bere buruaren mirets-arazteko. Gelditzen zuen ohar kitzikari batekin edo xehetasun zerbait emanez; eta haien solasa bazoan aldi oroz betiereko gaira, Maitasunera! Elgarri galdez zauden hea zerk egiten zuen, emaztek gizonek baino hobeki sendi zuten, zertan zuten hortako ezberdintasuna. Federikek indar egiten zuen bere aburuaren emaitako baztertuz aldi berean gordinkeria eta gezatasuna. Halako gudu bat sortzen zen, noiz gozagarria, noiz ere aspergarria.

Federikek etzuen sendi haren ondoan Arnoux Anderearen gana bere izaite guziaz zeraman xoramendu hura. Ez eta ere Rosanette-ek emana zauzkon nahasmen alai hura. Baina gutiziatzen zuen ohigabekoa eta nekea den gauza bat bezala, noblea zelakotz, aberatsa, debota, - ustez eta bazituen sendimenduko berezitasun batzu, bere dentelak bezain arraroak, larruan asturu batzuekin eta galdukerian herabeak.

Maitasun zaharraz baliatu zen. Erran zauzkon, hark gogoratua ukana balauko bezala, Arnoux Andereak lehenago sendi-arazia zauzkon guzia, ahuldurak, lotsak, ametsak. Guzia hartzen zuen gauza horietara jarria zen jende batek bezala, argiki arbuiatu gabe ezer etzuelarik bizkitartean uzten; eta etzen haren biltzera heltzen Martinon ezkontzera baino gehiago. Ilobaren maitalearen baztertzeke, andereak diruaz

gutiziatua bezala salatu zuen, eta horren phorogatzeari galdegin zaukon ere senarrari. Dambreuse Jaunak erran zaukon beraz mutiko gazteari Zezilia, aitama behartu batzuen umezurtza izanez, dote “esperanzarik” batere gabe zela.

Martinon-ek, hori egia zela ez sinetsiz, edo uko egiteko aitzinatuegia izanez, edo jende zozoek dituzten hisitze eta jeinuzko egintzak diren hetarik batez, ihardetsi zuen berak ondoriotasunez zituen hamabortz mila libera arrandak aski ukanen zituztela. Uste etzen abantailnahi gabe horrek hunki zuen bankolaria. Zergabiltzale bermego bat hitzeman zauen, lekuaren ukaitera aginduz; eta, 1850-eko ostaroan, Martinon Zezilia Andereñoarekin ezkondu zen. Etzen dantzaldirik izan. Eta arratsean berean gazteak Italiara abiatu ziren. Federik, biharamunean, Dambreuse Andereari ikustaldi baten egitera ethorri zen. Ohian baino hitsago iduritu zizakon. Saminki kontra erran zaukon balio gabeko bizpahirur gauzetan. Bertzela ere, gizon guziak norberekoi batzu ziren.

Baziren alta zerbitzatzera ekharriak, zion Federikek, bera baizik ezpaliz ere.

- “Ha! bah! bertzeak bezala!”

Betespalak gorri zituen andereak; nigarretan zen. Gero, irriño baten egitera indar eginez:

- “Desenkusa nezazu! Ogendun niz! Jin zatan gogoeta trixte bat da!”

Hark etzuen hortan ezer entzuten.

- “Berdin da! uste nuen baino gutiago azkar da”, egin zuen bere baitan.

Baso ur baten ukaiteko jo zuen, hurrupa bat edan, berriz igorri, eta gero ezin gaizkiago zerbitzatzeko zutela deitoratu zen. Haren jostatzeko, Federikek bere burua mutiletako eskaini zuen, azieten ezartzeko, mubler errauts ekhartzeko, sartzen zirenen iragartzeko gai zela erranez, azkenean gelari izaiteko edo “mutil ihiztari”, nahiz moda ordukotz joana zen. Nahiko zuen karrosa gibelean egon oilar lumazko xapel batekin.

- “Eta oinez zenbat maiestarekin jarraikiko nintzazun, besoan xakurño bat eremanez!”

- “Alegera zira”, erran zuen Dambreuse Andereak.

Gauza guzien hartzea serioski, egin zuen hark berriz, etzena erokeria bat? Bazen aski nahigabe nor berak hetarik moldatu gabe.

Jeusek etzuen oinaze baten ukaitea merexi. Dambreuse Andereak bekainak goititu zituen, halako baieztatze bateko aran.

Sendimenduetako berdintasun horrek Federik ausartzia gehiagora bultzatu zuen. Lehenagoko behargabek argitzen zaukoten, orai, gogoia. Jarraiki zuen:

- “Gure aitasoak hobeki bizi ziren. Zergatik ez utz eremaiten gituen oldera?” Maitasuna etzen, ooren buruan, bereaz hainbertze balio zuen gauza.

- “Baina imorala da, hor diozuna!”

Berriz kanape ttipian emana zen. Federik bazterrean jarri zen, haren zangoen ondoan.

- “Gezurra diotala eztuzua ikusten! Ezen, emazter gustatzeko, erakutsi behar dira edo irriegile baten axolagabea, edo tragedia bateko bortiztasunak! Maite ditugula diotegunean, xoilki, gutaz trufatzen dira! Eni, hetan jostatzen diren itzuli hantuak egiazko maitasunaren zikintzea ikuritzen zazta; hala nola nun batek ezpaitaki nola erran, oroz gainetik... izpiritu ainitz badutenen aitzinean.”

Hark so egiten zaukon betileak erdi hetsirik. Mintzoa aphaltzen zuen, haren begitartera gurtuz.

- “Ba! izitzen nauzu! Laido badagizut, behar bada?... Barkatu!... Enuen hori guzia erran nahi! Eniz ogendun! Hain zira ederra!”

Dambreuse Andereak begiak hetsi zituen, eta Federik irabazte hoin errexaz ustegabetua izan zen. Baratzean eztiki ikharatzen ziren zuhatz handiak etziren gehiago higitu. Hedoi geldi batzuek zerua zafla luze gorritz marratzen zuten, eta izan zen gauza ooren dilindan egoite bat bezala. Orduan, horrelako arrats batzu, ixil berdin batzuekin, gogoratu zizazkon, nahasiki. Nun ote zen?...

Belhauriko eman zen, eskua hartu zaukon, eta betiereko maitasunaz zin egin. Gero, abiatzera zoala, kheinu batez berriz deitu zuen eta erran apha-aphala:

- “Zaugi auhaltzera! Bakarrik izanen gira!”

Federiki bazidurikon, mailaldean jaustean, bertze gizon bat bilakatua zela, landaretegi berotuetako ephel usainonduak inguratzen zuela, ezkontza-hauste patrizianoetako eta jukutria goienetako eskualdera sartzen ari zela behin betikotz. Hor lehenbiziko lekuaren atxikitze, hori bezalako emazte bat aski zen. Botherez eta egintzaz, iduriz, amikatua, eta handizki zerbitzatu zuen gizon arteko batekin ezkondua, bere buruaren bidatzeko bazuena norbait azkarren gutizia? Ezin eginik

jeus etzen orai! Federik sendi zen zaldiz berrehun lekoaren egiteko gai, gau andana batez jarraikian lan egiteko, akhitu gabe; bihotza urguluz gainditzen zizakon.

Oinbidean, haren aitzinean, gizon bat bazoan maripulis zahar bat soinean, burua beheiti, eta itxura hanbatetarano lehertuarekin nun Federik itzuli baitzen, hari behatzeko. Deslauriers zen. Zalantzan zagon. Federik lephora jauzi zizakon.

- “Ha! gaizo mutikoa! nola! hi!”

Etxera ereman zuen, galde ainitz aldi berean eginez.

Ledru-Rollin-en komisario ohiak khondatu zituen ukanak zituen nahigabeak. Konserbadorer anaiatasuna pheredikatzen baitzuen eta legen errespetua zozialixter, batzuek tirokatua zuten, bertzek urkatzeko soka bat ekharria. Ekhainaren ondotik, bapatez kargutik haizatua zuten. Zimarku batera joa zuen, Troyes-en hartuak izanak ziren harmenera. Liberetua zuten, lekukotasun eskasez. Gero, egintzetako bilkurak Londredera igorria zuen, han anaiekin mazelakoka ari izana baitzen, aphairu baten erdian. Parisera itzulirik...

- “Zergatik ehiz etxera jin?”

- “Ehoiz ehintzan han! Hire “suisak” bazitian ara mixteriozko batzu, enakian zer gogoari eman; eta gero enian garhaiturik agertu nahi.”

Joa zuen Demokraziako athetan, bere burua eskainiz haren zerbitzatzeko, lumaz, elheaz, urratsez; orotan gibelera igorria zuten; etzuten hartan konfienxiarik; salduak zituen ukaraiko orena, liburuak, oihaleria.

- “Hobe zian Belleville-ko untzi zaharretan leher egitea, Senecal-ekin!”

Federikek, bere lephokoaren antolatzen ari zelarik, etzuen berri hortaz biziki hunkia iduritu.

- “Ha! bortxaz ereman die, Senecal on hura!”

Deslauriers-ek ihardetsi zuen, harresieten behakoa ibiliz itxura gutziatu batekin:

- “Eztie orok hire zoria!”

- “Desenkusa nezak,” erran zuen Federikek, aieruari ohartu gabe, “baina hirian auhaltzen nuk. Jatera eginen daukate; mana ezak nahi dukana! Harrak ere ene ohea.”

Hoin bihotz on osoaren aitzinean, Deslauriers-en samindura ezeztatu zen.

- “Hire ohea? Baina... trabatuko hindian!”

- “Baina ez! Baditiak bertzeak!”

- “Ha! biziki ontsa,” egin zuen abokatak irri eginez. “Nun auhaltzen hiz bada?”

- “Dambreuse Anderearen etxean.”

- “Ez ote... lizatekek...?”

- “Sobera jakin nahi duk,” erran zuen Federikek irriño batekin, uste hori baieztatzen zuena.

Gero, erloiari so eginik, berriz jarri zen.

- “Horrela duk! ezтик etsitu behar, jende xoilaren zaintzale zaharra!”

- “Othoi othoi! bertze batzuek egin bezate!”

Abokatak hastio zituen langileak, egona zen probinzian haien ganik oinazkatua izanik, ikatza egiten den herri bat. Mina-zilho bakoitzak gobernu anarteko bat izendatua zuen manuak emaiten zauzkona.

- “Bertzela ere, eginara loriagarria ukana die orotan: Lyon-en, Lille-en, Havre-en, Parisen! Ezen, atzerriko gauzak debekatu nahi lituzketen egilek bezala, jaun horiek nahi zitean langile angelesak, alemanak, belgak eta saboiarrak bahituak izan ziten! Dien adimenaz aldiz, zertan baliatu die, Erretate berrituan, delako lagundia aipatu hura? 1830-an, zaintzaleria nazionalean sartu dituk, hartaz nagusitzeko gogo ona ukan ere gabe! 48-ko biharamunean berean, eztituka langile batasun bereziak berriz agertu? Galdegiten ziteztean ere bere deputatu bereziak, haiendako baizik mintzatuko etzitukanak! Beterrabako deputatuak beterrabaz baizik axolatzen eztitukan bezala! - Ha! badiat jauntto horietaz aski, aldizka gurtzen ala Roberpierre-en urbakearen aitzinean, ala Emperadorean botenean, ala Luis-Filiperen euritakoarenean, ogia muturrera botatzen daukonaren zerbitzari betiereko! Talleyrand-en eta Mirabeau-ren diru gosez beti gaitzerraiten die; baina behereko komisionariak aberria sal lezakek bi sosetan, komisionearen ordaintzea hirur liberetan hitzemaiten balaukote! Ha! zer hutsa, gurea! Sua behar ginian phiztu Europako laur izkinetan!”

Federikek ihardetsi zaukon:

- “Phindarrak huts egiten zian! Etzinezten burjes ttipi batzu baizik eta, zuetan hobenerak, espantuzko jakintsun batzu! Langileak aldiz, deitoratzen ahal dituk; ezen, gobernuko gastuetarik baztertua izana dukan miliuna ezpada, eta lausengueria aphalenarekin emana dauezuena, ez tuzue haiendako elherik baizik egin! Liburuxka nagusiaren eskuetan dagok, eta lansariduna (justiziaren aitzinean ere) haren azpikoa gelditzen

duk, dion hitza sinetsia eztenaz geroz. Azkenik, Errepublika zahartua iduritzen zatak. Nor dakik? Aitzinatzea, behar bada, eztezakek arixtokrazia batek baizik egin edo gizon batek! Lehen urratsa beti gainetik heldu duk! Jendea adingabea duk, nahi dutena erranik ere!”

- “Egia duk behar bada,” erran zuen Deslauriers-ek.

Federiken arau, herritarretako multzo handiena etzen gose atsedenez baizik (Dambreuse-ko hotela baliagarri izana zizakon), eta zori guziak konserbadoren alde ziren. Alderdi hori, alta, gizon berri eskasean zen.

- “Presenta bahindaite, segur nuk...”

Etzuen bururatu. Deslauriers-ek aditu zuen, eta bi eskuak bekokira eman zituen; gero, bapatez:

- “Baina hi? Jeusek ez dauk debekatzen? Zergatik ehindaik izan deputatu?” Hautatze bikun baten ondorioz, deputatugai baten lekua hutsa zen Aude-ean. Dambreuse Jauna, Lege-bilzarreko hautatua izanik, bertze herrialde bateko zen. “Nahi duka ene gain har dezatan?” Ezagutzen zuen ainitz ostaler, errient, mediku, bulego-mutil eta haien nagusi. “Bertzela ere, laborarier nahi dena sinets-arazten zeek!”

Federiketik sendi zuen bere handi-nahia berphizten ari.

Deslauriers-ek gaineratu zuen:

- “Behar huke enetako leku bat aurkitu Parisen.”

- “Oi! eztuk neke izanen, Dambreuse Jaunaren bidez.”

- “Ikatzaz ari baiginitukan,” egin zuen berriz abokatak, “zer bilakatzen ari duk haren batzorde handia? Mota hortako lan nat nitek behar! - eta haiendako baliagarri nintzatekek, neure libertatea aldi berean atxikiz.”

Federiketik hitzeman zaukon hirur egun barne bankolariaren etxera eremanen zuela.

Dambreuse Anderearekin buruz-buru egin zuen aphaireta hauteko gauza izan zen. Erdi-irriz zagon Federiken aitzinean, mahiaren bertze aldean, zare bateko loren gainetik, dilindako girisailuaren argitara; eta, leihoa idekia baitzen, izar batzu ikusten ziren. Apur bat solastatu ziren, bere buruaz mesfidan, iduriz; baina, mutilek bizkarra itzultzen zuten orduko, elgarri musu bat igortzen zuten, ezpainen punttatik. Deputatugai izaiteko gogoia erran zuen. Hark onhartu zuen, Dambreuse Jaunari hortara lan egin-araziko zukola hitzeman ez ere.

Arratsean, adixkide batzu ethorri ziren andereari goresmen eta urriki erraitera: hain trixte zatekeen iloba gehiago ez ukanez? Biziki ontsa

egina zuten bertzela, ezkondu berriek, bidaiari abiaturik; geroago, eragozpenak, haurrak jiten dira! Baina etzen Italia uste zen bezalako. Gero, lilluratzeko adinean ziren! eta ezkontegunek guzia edertzen zuten! Gelditu ziren azkenak Grémonville-ko Jauna eta Federik izan ziren. Embaxadoreak etzuen joan nahi. Azkenean, gauerditan, zutitu zen. Dambreuse Andereak kheinu egin zaukon Federiki harekin abia zadin, eta obeditze hortaz eskertu zuen esku zapatze batez, bertze guzia baino goxoagoa.

Marexalsak bozkariozko oihu bat egin zuen berriz haren ikustean. Bortz orenak geroz igurikatzen zuen. Desenkusetako Deslauriers-en abantailetan urrats baitezpadako baten estakurua eman zuen. Begitartean bazuen irabaziaren itxura bat, argi bat, Rosanette hortaz burxoratua izan baitzen.

- “Hain ontsa bademakan hire soineko beltzaren gatik duk behar bada; baina ehaut behin ere hoin eder aurkitu! Zein eder hizan!”

Samurtasunezko olde batean, bere buruari hitzeman zaukon etzela gehiago bertze nehorena izanen, zer gerta baladi ere, miseriaz leher egin behar balu ere!

Begi pollit bustiak maitasun hain azkarraz phindarretan zituen nun Federikek bere belhaunetara ekharr-arazi baitzuen bere buruari erranez: “Zer zirtzila badagitan!” eta bere bihurreriaz hoilatuz.

IV

Dambreuse Jaunak, Deslauriers etxera joan zizakonean, bere ikatzetako xede handiaren berphiztea gogoan zuen. Baina kompainia guzien batera biltze hori gaizki ikusia zen; jabe bakar izaiteaz oihu egiten zen, gaitzeko kapitalak, molde hortako landegietan, behar ukanak ezpalire bezala.

Deslauriers-ek, bereziki irakurri berriak ukanik Gobet-en liburua eta Chappe Jaunaren artikuluak *Minetako Egunkari*-an, gaia beteginki bazakien. Erakustera eman zuen 1810-eko legeak zuzenbide ezin aldatua ezartzen zuela landegia ukana zuenarendako. Bertzela ere, itxura demokratiko bat emaiten ahal zizakon egintzari: ikaztegi-tako bilzarren debekatzea elgarretartzeko gogoari berari jaukitzea zen.

Dambreuse Jaunak ohar batzu utzi zauzkon orhoikarri labur baten izkiriatzeko. Lanaren ordaintzeari zoakonaz, hitzeman zituenak hanbat hobeak izan ziren nun xehetasun gabeak baitziren.

Deslauriers Federiken etxera itzuli zen eta bilkuraren berria ekharri zaukon. Gainera, Dambreuse Anderea ikusia zuen mailalde beherean, bera jalgitzen ari zelarik.

- “Komplimenduak egiten dauzkiat, debrientxo!”

Gero bozkatzeaz mintzatu ziren. Bazen zerbait asmatu beharra.

Hirur egun berantago, Deslauriers berriz agertu zen berrikariendako orrialde izkiriatu batekin eskutitz laño bat zena, hartan Dambreuse Jaunak onhartzten baitzuen haien adixkidea deputatugai izan zadin. Konserbadore batek zurkaizturik eta gorri batek lagundurik, ontsa heldu behar zuen. Nolaz zuen kapitalixtak horrelako ameskeria bat izenpetzen? Abokata, den gutienenko eragozpenik gabe, berainik, Dambreuse Andereari erakustera izana zen, hunek, biziki ona aurkituz, bertze guzia bere gain hartua baitzuen.

Urrats horrek Federik ustegabetu zuen. Onhartu zuen alta; gero, Deslauriers Roque aitarekin mintzatzen hasten ari baitzen, Luixaren aldera zertan zen erran zaukon.

- “Nahi dukana erreek, ene egitekoak uherrean direla; antolatuko ditiat; igurikatzeko aski gazte duk!”

Deslauriers joan zen; eta Federikek bere burua gizon biziki azkar batendako zadukan. Sendi zuen, bertzela ere, asebate bat, orotako askieste bat. Emazte aberats batekin izaiteko bozkarioa etzaukon edozein nahigabek andeatzen; sendimendua ingurunearekin batean zen. Bizia, orai, ezti zen alde orotarik.

Hautekoena, behar bada, Dambreuse Anderearen ikustea zen, bere saloinean, jende batzuen erdian. Haren eginaren beharbezalakotasunak bertze egon-molde batzuez amets egin-arazten zaukon; hark hitz hotz batzu erraiten zituen bitartean, Federikek gogoan zituen maitasunezko hitz ahopiatuak; haren bertuteari eman errespetu guziek gozatten zuten bere gana itzultzen zizakon gizamen batek bezala; eta oihi egiteko gutizia batzu bazituen: “Baina badazagut zuek baino hobeki! Ene da!”

Haien arteko atxikimenduak etzuen gauza ezagun, onhartu batera joaiten luzatu. Dambreuse Andereak, negu guzian, Federik mundura herrestatu zuen.

Abantzu beti hura baino lehenago ethortzen zen; eta gero sartzen ikusten zuen, besoak hasik, perla batzu iletan. Alharzean gelditzen zen (athe-bazterrak inguratzen zuen, kadre batek bezala), eta bazuen dudazko jestu arin bat, betespalak klixkatuz, hura han zenez ikusteko. Federik bere karrosan eremaiten zuen; euriak berinak joiten zituen; ibiltzaleak, itzal batzu iduri, iztilean higitzen ziren; eta, elgarren kontra tinkan, bazakusaten hori guzia nahasiki, gogo berdin batean gutietsiz. Estakuru bat edo bertzearekin, oren on bat egoiten zen oraino haren gambaran.

Aspertzez zuen, oroz gainerik, Dambreuse Andereak amor emana. Baina azken atheka hori etzen galtzera uztekoa. Maitasun handi bat nahi zuen, eta hasi zen lausenguz eta pherekaz Federiken gaindikatzeko.

Loreak igortzen zauzkon; egin zaukon tapizeriazko kadera bat; zigarro atxikitzekeo bat eman zaukon, izkiriatzeko untzi bat, egunorotako mila gauza ttipi, hartaz gogatzeko bertze egitekorik ukan etzezan. Ikustate horiek loriatu zuten hastean Federik, eta laster gauza osoki lañoak iduritu zizazkon.

Anderea fiakra batera igaiten zen, iragan-bide batean gibelera igortzen zuen, eta bera bertze aldetik jalgitzen; gero, harresien luzera lerratuz, aurpegia oihal bikun batez gordea, bazoan Federikek, goaitan, han besoa bizi-bizia hartzen zaukon eta bere etxera bazeraman karrigarano. Bi mutilak ibiltzera joanak ziren, athezaina bere egitekoetan; andereak inguruetara behatzen zuen; etzen beldurtzekorik batere! eta bahitu batek aberria ikusiz bezalako hasperen bat egiten zuen. Zoriak ausartu zituen. Elgarretaratzeak gehitu ziren. Arrats batez ere, bapatez agertu zen dantzaldietako soineko handitan. Ustegabeko horiek lanjerosak izan zaitezkeen; Federikek erasiatu zuen zuhurtzia gabe hortaz; etzizakon gustatu, bertzela ere. Papoko idekiak gehiegi agertzen zaukon zuen bulhar mehea.

Bere buruari gordea zuena aithortu behar ukan zuen orduan, sentsuetako lilluragabea. Etzuen suhartasun handiak bazituenarena gutiago egin; baina, horien senditzeko, behar zuen Rosanette-ren edo Arnoux Anderearen itxura gogoratu.

Sendimenduko huts horrek burua osoki libroan uztean zaukon, eta bazuen ehoiz baino gehiago munduan lerro gora bateko handi-nahia. Oina horrelako mail batean zuenaz geroz, gutiena hortaz baliatzea zen.

Urtarril erditsutara, goiz batez, Senecal bulegora zartu zizakon; eta Federiken ustegabetzezko oihuan, ihardetsia zaukon Deslauriers-en segeretari zela. Ezkutitz bat bazekarren ere. Bazituen berri onak, eta zuen axolagabeaz erasiak: hara jin behar zen.

Deputatu beharrak erran zuen biharamunean berean abiatuko zela.

Senecal-ek etzuen deputatugaigo hortaz abururik eman. Bere buruaz mintzatu zen, eta erresumako egitekoez.

Ziren bezain deitoragarriak izanik ere, bozkariatzen zuten; ezen komunixmora ari baitzen. Lehenik, Adminiztrazioneak hartara bazeraman berainik, bazirenez geroz, egun oroz, Gobernamentuak berak manatzen zituen gauza gehiago. Jabegoari zoakonaz, 48-ko Konstituzioneak etzuen, zen ahula izana gatik, abantail publikoaren izenean batere gupida ukana, Estatuak har zezakeen, orai, behar zuela iduri zizakon guzia. Senecal Larderiaren alde mintzatu zen; eta Federikek ikusi zuen haren erranetan berak Deslauriers-i erran hitzen handiegitzea. Errepublikarrak oihi egin zuen jenden gogo eskasaren kontra.

- “Robespierre-ek, jende gutiaren zuzenbidea zainduz, Luis XVI-garrena Konbenzione nazionalaren aitzinera ereman zuen, eta jendaldea aldi berean salbatu. Gauzen bururapenak legezko bilakatzen ditu. Diktatura baitezpadakoa da batzuetan. Biba tirania, tiranoak ongia badagien ber!”

Solasaldia luzea ukan zuten, eta, abiatzen ari zelarik, Senecal-ek aithortu zuen (hori zen, behar bada, ikustaldiaren helburua) Deslauriers biziki khexu zela Dambreuse Jaunaren ixilaz.

Baina Dambreuse Jauna eri zen. Federikek ikusten zuen egun guziez, eta etxekotua izaiteak haren ondora onhar-arazten zuen.

Changarnier jeneralaren baztertzeak ezin gehiago hunkia zuen kapitalixta. Arratsean berean, bulharreko bero handi batez hartua izan zen, etzanik ezin egoneko hertsadura batekin. Itxainek berehalako hobetze bat ekharri zuten. Eztul idorra ezeztatu zen, hats-hartzea eztiago bilakatu; eta, zortzi egun berantago, salda baten irestean erran zuen:

- “Ha! hobeki niz! Baina bidaia handia egiter dut!”

- “Ez ni gabe!” egin zuen Dambreuse Andereak, hitz horrekin etzun-araziz etzela haren ondotik bizi ahal izanen.

Ihardesteko orde, haren eta maitalearen gainera eman zuen irriño bitxi bat, hartan baitziren aldi berean onharmena, urrikalmendua, ironia, eta ere halako puntta bat, azpi-entzun abantzu alai bat.

Ferekikek nahi ukan zuen Nogent-era abiatu, Dambreuse Andereak etzuen onhartu; eta bere puskak aldizka egiten zituen eta desegiten, eritasunaren aldamenen araura.

Bapatez, Dambreuse Jaunak odola ahotik igorri zuen nasaiki. “Jakitateko printzek”, aholku haier galdeginik, ezer berririk etzuten deliberatu. Zangoak hantzen zizazkon, ahultasuna handitzen. Aldi bat baino gehiagotan erakutsia zuen Zeziliaren ikusteko gutizia, Frantziako bertze buruan baitzen, bere senarrarekin, ilabete hartan zerga biltzale izendatua. Espesuki manatu zuen ekharr-araz zezaten. Dambreuse Andereak hirur eskutiz izkiriatu zituen, eta hari erakutsi.

Seroraren baitan ere fidatu gabe, etzuen minuta batez uzten, etzen etzaten ere. Etxezainaren ondoan izena emaiten zuten jendek haren berriak galdegiten zituzten miresmenekin; eta ibiltzaleak errespetuz hartuak ziren karrikan ihaurtua zen lasto ainitza ikusiz, leihoen azpian.

Otsailaren 12-an, bortz orenetan, odol-aurdikitze izigarri bat agertu zen. Mediku zaintzaleak erran zuen lanjerra. Aphez baten bila laster egin zen.

Girisailuek, muble batzuetan gordeak, gambara ezberdinki argitzen zuten. Federik eta Dambreuse Anderea, ohatzearen oinetan, hiltzera zoanari beha zauden. Leiho-arte batean, apheza eta medikua solasean ziren erdi ahapetik; serora, belhauriko, othoitz murdukatzen.

Azkenean, khorroka bat entzun zen. Eskuak hozten ari ziren, aurpegia histen hasia. Batzuetan, gaitzeko hats-hartze bat egiten zuen; gero eta bakanago bilakatu ziren; bizpahirur hitz nahasi utzi zituen; hasperen ttipi bat egin zuen begiak itzulikatzen zizazkon batean, eta burua bazterrera erori zen buhurdiakoaren gainera.

Oro, minuta batez, geldi-geldia egon ziren.

Dambreuse Anderea hurbildu zen; eta, bortxarik gabe, eginbidearen lañotasunarekin, begiak hetsi zauzkon.

Gero bi besoak baztertu zituen, gerria bihurtuz etsipen ethengabeko baten hersturan, eta bizitegitik jalgi zen, medikuari eta serorari bermatuz. Oren laurden bat berantago, Federik haren gambarara igan zen.

Usain ezin erran bat sendi zen han, betetzen zuten gauza hautukoen ondorioa. Ohearen erdian, zaia belz bat hedatua zen, oin-estali arrosa-kolorekoaren gainetik.

Dambreuse Anderea khebideko zokoan zen, zutik. Urriki bortizik bazuela asmatu gabe, apur bat trixte zela uste zuen Federikek; eta, doluzko mintzo batekin:

- “Sofritzen duzu?”

- “Nik? Ez, batere.”

Itzultzen ari baitzen, zaia ikusi zuen, ikertu; gero erran zaukon ez axolatzeko.

- “Pipa ezak, nahi baduk! Ene etxean hiz!”

Eta, hasperen handi batekin:

- “Ha! Maria Birjina! zer leku hustea!”

Federik hitzaz ustegabetua izan zen. Berriz egin zuen hari eskuan musu emanaz:

- “Libro ginen, alta!”

Maitatzeko errextasunari aieru horrek Dambreuse Anderea laidoztatzen zuela iduritu zuen. “He! eztazkik zer zerbitzuak emaiten nauzkokan, ez eta zer hersturetan bizi izana nizan!”

- “Nola?”

- “Baina ba! segurtasun bat zena ondoan beti baxtart haren ukaitea, etxera bortz urte ezkontzaren ondoan ekharria, eta, ni gabe, segurki, zozokeria zenbaitetara eremanen zuena?”

Orduan, bere egitekoak argitu zituen. Ontasun berexkuntzan ezkonduak ziren. Ondoriotasunez bazituen hirur ehun mila libera arranda. Dambreuse Jaunak, kontratuan, segurtatuak zauzkon, haren ondotik bizitzen bazen, hamabortz mila arranda hotelaren jabegoarekin. Baina, ephe guti berantago, testamendu bat egina zuen hartan fortuna guzia uzten baitzaukon; eta estimatzen zuen, orai jakin zaitekeen bezenbatean, hirur miliunez goiti.

Federikek begi handi batzu ideki zituen.

- “Balio zen, eztea hala? Hortara ari izana niz, bertzela ere! Zaintzen nuena nihauren ontasuna zen; Zeziliak biphilduko ninduen, zuzengabez.”

- “Zergatik ezta aitaren ikustera jin?” erran zuen Federikek.

Galde hortan, Dambreuse Anderea beha jarri zizakon; gero, doinu idor batekin:

- “Eztakit batere! Bihotz eskasez, agian! Ho! ezagutzen dut! Eztu ere eneganik ardit bat ukanen!”

Etzen biziki trabagarri, ezkontzaz geroz bederen.

- “Ha! ezkontza!” egin zuen irri erkats batekin Dambreuse Andreak.

Eta bere buruari aiher zizakon nexka txar hura sobera ontsa arthaturik, bekaiztia baitzen, abantail-nahia, azpikaria. “Aitaren huts guziak!” Eta senarraz gero eta gehiago gaitzerraiten ari zen. Ehor ez falsutasun hoin barnatudunik, bertzela urriki gabea, harria bezain idorra, “gizon gaixto bat, gizon gaixto bat!”

Hutsera erortzen dira, jende zuhurrenak ere. Dambreuse Andreak hor bat egin zuen, herraren gainditze hortan. Federik, haren aitzinean, jargia handi batean, gogoetan ari zen, gaitzitua.

Anderea zutitu zen, haren belhaunetan eztiki jarri.

- “Hi hiz bakarrik ona! Ehut hi baizik maite!”

Hari behatuz, bihotza beraztu zizakon, zainetako olde batek nigarrak begietara ekharri zauzkon, eta murmurikatu zuen:

- “Nahi duka enekin ezkondu?”

Lehenik Federikek uste ukan zuen etzuela ontsa entzuna. Aberastasun horrek burxoratzen zuen. Hark errepikatu zuen gorago:

- “Nahi duka enekin ezkondu?”

Azkenean, erran zuen, irriño bat eginez:

- “Dudatzen duzu?”

Gero herabe batek hartu zuen eta, zenduari halako ordaintze baten egiteko, berak haren beilatzea eskaini. Baina, sendimendu debot hortaz ahalge baitzen, gaineratu zuen doinu arin batekin:

- “Hobe lizateke behar bada.”

- “Bai, badateke,” erran zuen hark, “mutilen gatik!”

Ohea ohetegitik osoki atherarik izana zen. Serora oinean zen; eta buruan bazagon aphez bat, bertze bat, gizon handi mehar bat, itxuraz espñola eta buru-beroa. Ohe-mahiaren gainean, oihal xuri batez estalia, hirur ezko-argi phiztuak ziren.

Federikek hartu zuen kadera bat, eta hilari behatu.

Aurpegia lastoa bezain hori zuen; haun odoldu apur bat ageri zen ahoaren izkinetan. Lephoko bat bazuen buruaren inguruan, ilezko barneko motx bat, eta zilharrezko gurutze bat bulharrean, beso gurutzatuen artean.

Bururatu zen, nahasmenduz beterik izana zen bizi hori! Zenbat laster etzuen egin ukana bulegoetan, zenbakirik lerrokatua, egitekorik eskuztatua, erakarpenik entzuna! Zenbat elhe zuri, erdi-irri, gurtze! Ezen goraiatuak zituen Napoleon, Kosakak, Luis XVIII-garrena, 1830-a,

langileak, gobernu molde guziak, Botherea halako amodioz maitatuz nun pagatuko baitzuen bere buruaren saltzeko.

Baina uzten zituen Fortelle-ko jauregialdea, hirur landegi Pikardian, Crancé-ko oihana Yonne-an, etxalde bat Orléans aldean, diruzko balio gaitzekoak.

Federikek egin zuen horrela haren fortunaren errepikapena; eta berea ukanen zuen, alta! Lehenik gogoan ukan zituen “zer erranen zuten”, amarendako eskaintza bat, geroko zaldieriak, hartaz etxezaina egina nahi zuen familiako karrosazain zahar bat. Mutilen jantziera etzen berdina izanen, erran gabe zoan. Laneko bulegotzat saloin handia hartuko zuen. Jeusek etzuen debekatzen, hirur harresi aurdikiz, bigarren estaian, margazki galeria baten ukaitea. Bazen ahala, behar bada, behean mainuetako sala turko baten moldatzeko.

Aphezak orduan zintzaturik, edo serorak suaren antolatzen, asmamen horiek bapatez mozten zituen. Baina gauzek baieztatzen zituzten; hila beti hor zen; eta begi ñiñikek, nahiz ilunbe liskatu batzuetan ithoak, bazuten erran-nahi bitxi, ezin jasan bat. Federikek uste zuen hartaz jujamendua bezalako bat ikusten zauela, eta abantzu ogendun zela sendi zuen, ehoiz ezpaitzuen gizon hortaz deitoratzerik ukana, baina, alderantziz... “zer bada! frikun zahar bat!” eta hurbilagotik behatzen zaukon, bere buruaren bermatzeko, gogoz oihu egiten zaukola:

- “Baina, zer? Nik hila hauta?”

Bitartean, apheza ofizioaren irakurtzen ari zen; serora, geldigeldia, lo zagon; hirur ezko-argien mitxak luzatzen ari.

Entzun zen, bi orenez, Merkatu estalietara zoazin orgen burrumba iluna. Berinak zuritu ziren, fiakra bat iragan zen, gero arstama andana baten urratsak lauzadan joanki, eta mailu ukaldi batzu, saltzale ibilkari batzuen oihuak, trompeta soinu batzu; oro jadanik nahasten zen atzartzen ari den Pariseren mintzo handian.

Federik egitekoetara abiatu zen. Lehenik herriko etxera joan zen hil-mezuarendako; gero, heriotzetako medikuak ageri bat emana ukan zuenean, berriz herriko etxera itzuli zen familiak zein hil-herri hautatzen zuen erraitera, eta ehorzketa egilekin akomeatzeko.

Ofizialeak erakutsi zituen marrazki bat eta egitarau bat, bat ehorzketa lerro guziak emaiten zituena, bertzea aphainduren xehetasun guziak. Nahi zena karro galeriadun bat ala gandorrekilakoa, zaldiak trezekin, mutilek kukurustak, hizki handiak ala erredola, hilketako argiak,

gizon bat ohoren ekharle, eta zenbat karrosa? Federik esku-zabal izan zen; Dambreuse Andereak nahi zuen deusetako gupidarik ez ukaitea.

Gero, elizara joan zen.

Ahokuetako bikaria hasi zen ehorzketetako zeremoniez baliatzeaz erasian; horrela ohorezko gauzetako ofiziarria zinez debaldekoa zen; hobe zen ezko-argi ainitz! Musikaz ondu meza ixil bateko hitz-hartu zen. Federikek ezarria zena izenpetu zuen, gastu guziena batean ordaintzeko eginbeharrarekin.

Gero joan zen Hiriko Etxera lurraren erosteko. Bi metra luze eta bat zabalekoaren ukaiteak bortz ehun libera balio zituen. Mende Erdiko zena ala betiereko?

- “Ho! betiereko!” erran zuen Federikek.

Gauza seriosean hartzen zuen, ahal zuen guzia egiten. Hoteleko korralean, harbizilari batek igurikatzen zuen aitzin-khonduen erakusteko eta hil-hobi greka, egiptiar, mairu moldeko batzuekin; baina etxeko arkitektoa jadanik hortaz solastatua zen Anderearekin; eta, mahi gainean, ezkaratzean, bazen mota orotako paper matalatzen garbitzeaz, gambaren xahutzeaz, balsamatzeko molde bereziez.

Auhaldu eta, Federik jostunaren etxera berriz itzuli zen mutilen doluko; eta azken laster bat egin behar ukan zuen, ezen kastorrezko eskularruak manatuak zituen, eta filusazkoak ziren egokiak.

Biharamunean ethorri zenean, hamar orenetan, saloin handia jendez betetzen ari zen, eta abantzu guziek, trixteki elgarretaratzean, bazioten:

- “Nik ikusia baitut oraino duela ilabete bat! Jainkoa! gu guziena zoria da!”

- “Bai; baina badagigun ahal den bezain berant izan dadin!”

Orduan, askiestezko irri ttipi bat egiten zen, eta hasten zen ere gertakariarekin ezer ikustekorik etzuten elgarrizketa batzuetan. Azkenean, zeremonietako nagusiak, jantzi beltzean eta galtza laburretan Frantziako modan, bizkarrekoarekin, mahungetan “nigarlariak” dioten oihal xuriek, sahetsean ezpata motza eta hirur adarretako xapela besapean, erran zituen, agurra eginez, ohiko hitzak:

- “Jaunak, nahiko duzuenean.”

Abiatu ziren.

Lore merkatu eguna zen Madalenako plazan. Aroa argi eta ezti; eta haize arinak, oihalezko etxolak apur bat inharrosten zituela, hantzen zuen, bazterretan, atarian lotua zen gaitzeko mihise beltza. Dambreuse

Jaunaren eskudoa, balusazko laur kantoineko batean ezarria, hirur lekuetan errepikatua zen. Bazekarren *beltzez ezkerreko beso ezpatadun batekin, ubakila hetsirik, eskularrua zilharrez*, konde koronarekin, eta hitz hunekin: *bide orotarik*.

Garraiariek mailalde gainerano igan zuten khutxa phizua, eta sartu ziren.

Sei kaperak, inguru-erdia eta kaderak beltzez oihalezatuak ziren. Khuxaren lekuak khoroaren behean bazegien, bere xirio handiekin, argi horizko gune bakar bat. Bi izkinetan, gandelabre batzuetan, alkohola su batzu erretzen ari ziren.

Jende gotorrenek lekua aldare-aitzinean hartu zuten, bertzek elizerdian; eta ofizioa hasi zen.

Bakar batzu ezpada, guzien erlisioneko jakingabea hain handia zen nun zeremonietako nagusiak, noiztenka, kheinu egiten baitzauen zutitzeko, belhaunikatzeko, berriz jartzeko. Organoa eta bi kontrabasa kantariekin aldizkatzen ziren; ixil artetan, aphezaren murumurika entzuten zen aldarean; gero berriz hasten ziren musika eta kantuak.

Argi hits bat erortzen zen hirur gopoiletarik; baina athe idekiak igortzen zuen buru hasak joiten zituen argi zuri uhain bat bezala; eta, barnearen goratasun erditan, itzal bat bazabilan, dilindakoen zainak eta xapitelen orstaila aphaintzen zuten urren leinuruaz nahasia.

Federik, libertitzeko, *Dies ira*-aren entzuten egon zen; han zirener behatzen zuen, Madalenaren bizia erakusten duten margazki goregien ikusteko indar eginez. Beharrik, Pellerin ondoan jartzera jin zizakon, eta berehala hasi zuen, harresi margazkituez, hitzaldi luze bat. Ezkilak jo zuen. Elizatik athera ziren.

Hil-karrosa, dilindako mihise ‘ta gandor luze batzuez aphaindua, Pèrre-Lachaise-ra buruz abiatu zen, khima trezatuak, buruan gandorrek bazituzten laur zaldiek eremana, estalgi zabal zilharrez brodatu batzuek oinetarano inguratzen zituztela. Zaldizainak, ezkutari moldeko botekin, bazuen hirur adarrekilako xapel bat oihal beltz luze bat dilindan. Kordoinen atxikitzeke baziren laur gizon: deputatuen Gambarako kargudun bat, Aude-ko Konseilu jeneraleko lagun bat, ikatzetako ordezkari bat, - eta Fumichon, adixkide bezala. Hilaren kalea eta hamabi doluko karrosa heldu ziren ondotik. Gomitek, gibelean, karrika handiaren erdigunea betetzen zuten.

Horren guziaren ikusteko, ibilkariak gelditzen ziren; emazte batzu, haur ttipia besoetan, kadera batzuetara igaiten; eta ostatuetan garagarno

edaten ari ziren jende batzu leihoetara agertzen, billart buztan bat eskuetan.

Bidea luze zen; eta, - zeremonietako aphairetan bezala, hetan lehenik herabe izaiten baita, eta gero errex mintzatzan, - ororen egonara laster harrotu zen. Etzen mintzo Gambarak Printze-Presidentaren sari goititzeari emana zaukon ezaz baizik. Piscatory Jauna garratzegi agertua zen, Montalembert “miragarri, ohi bezala”, eta Chambolle, Pidoux, Creton jaunek, azkenik bilkura guziak jarraiki behar ukana laukoten, behar bada, Quentin-Bauchard eta Dufour Jaunen aburuari.

Solasaldi horiek jarraiki ziren Roquette-ko karrikan, saldegiak bazterretan, ezpaita hetan berina kolorezko gatina eta erhaztun beltz marrazki eta hizki urrez estalirik baizik ikusten, - horrek eman-arazten baitaue harri-nigarrez bete harpe eta faianza saldegi batzuen iduria. Baina, hilherriko burdin-sarearen aitzinean, berehala, guziak ixildu ziren.

Hilhobiak zuhatzen artean ageri ziren, zutabe hautsi, piramida, templo, harri-zabal, harri-zut, burdin-horizko athekilako hobi etrusko. Zenbaitetan ikusten ziren halako saloin ttipi heriotzetakoak, jargia baserritar eta plegatzale batzuekin. Armiarma sareak dilindan zauden philda batzu bezala hauts-untzietako gatina ttipietan; eta errautsak estaltzen zituen satinezko xingola flokak eta gurutzeak. Orotan, galeria zangoen artean, hil-hobien gainean, untziak, loreak, dizka beltz batzu urrezko hizkiez edertuak, igelsuzko gizairudi ttipiak: mutiko eta nexkato ttipi edo aingeruño batzu letoinezko hari batetik airean dilindan: andana batek badu ere zingazko estalgi bat gainetik. Berinazko hari beltz, zuri eta urdinezko estekagailu gaitzeko batzu jausten dira harri zutituetarik lauzetako oinerano, luze-luzea bihurtuz, boa-suge batzu bezala. Iguzkiak, gainera eroriz, diridira-arazten zituen zur beltzezko gurutzen artean; - eta hil-karrosa bazoan aitzina bide handietan hara, hiriko karridak bezala lauzatuak direnak. Noiztenka, ardatzek klaskatzen zuten. Emazte batzu belhauriko, zaia belarrean herrestan, hiler mintzo ziren eztiki. Khe-adar ttipi zurail batzu bazaozin aginetako orstailetik. Eskaintza utzi batzu ziren, erretzen ziren ondarkin.

Dambreuse Jaunaren hobia Manuel eta Benjamin Constant-en auzoan zen. Lurra jausten da, gune hortan, malda zut bat eginez. Azpian ikusten dira zuhartz musker batzuen kaskoak; urrunago, su-pompa batzuetako khe-bideak, gero hiri handi osoa.

Federikek, hitzaldiak erraiten ari ziren bitartean, eskualdea miretsi ahal ukan zuen.

Lehenbizikoa deputatuen Gambararen izenean izan zen, bigarrena Aube-ko Konseilu jeneralarenean, herena, Saône-et-Loire-ko Ikatzetako batzordearenean, laugarrena, Yonne-ko Laborari batzordearenean; eta bertze bat egin zen, Batzorde filantropikoaren izenean. Azkenean, abiatzen ari ziren, arrotz bat hasi zenean seigarren baten irakurtzen, Amiens-ko zaharkin-saltzale Batzordearen izenean.

Eta oro aldiuz baliatu ziren Zozialismoaren kontra oihukatzeke, Dambreuse Jauna haren bitima hila baitzen. Anarkiaren ikusteak eta ordenuarendako egiten zuenak zauzkoten egunak laburtu. Goraiatu ziren haren argiak, zuzentasuna, esku-zabala eta ere ixila jendearen ordezkari bezala, ezen, hitzlaria ezpazen, bazituen aldiz gaitasun azkarrak, mila aldiz hautagarriagoak, eta bertze... erran behar diren hitz guziekin: “- goizegiko heriotzea, - betiereko doluminak, - bertze aberria, - goraintzi, edo izaitekotz ez, ikus arteol!”

Lurra, harriekin nahasirik, berriz erori zen; eta gehiago etzen munduan aipatuko ere.

Hartaz mintzatu zen oraino apur bat hilherrietarik jaustean; eta estimu emaitako etzen jenatzen. Hussonnet-ek, ehorzketaz berrikarietan khondu eman behar baitzuen, berriz eman zituen ere, irri-solasetan, hitzaldi guziak; - ezen ororen buruan Dambreuse gizagaizoa azken erreinuko *mahipekolari* hautukoenetarik bat izana zen. Gero ahokiko karrosek burjesak bere egitekoetera ereman zituzten, zeremonia etzen luzegi izana; hortaz elgar goersten zen.

Federik, akitua, etxera joan zen.

Biharamunean Dambreuse hotelera agertu zenean, jakin-arazi zizakon Anderea behean lanean ari zela, bulegoan. Kartoinak, tirantak nahas-mahas idekiak ziren, khonduetako liburuak eskun eta ezker botatuak; paperreria biribildu bat, “Berriz eskuratze etsituak” izenburuarekin, lurrera utzia zen; Federik hartan erortzer zen eta bildu zuen. Dambreuse Anderea etzen abantzu ageri jargia handian ehortzia.

- “Zer bada? Nun zira? zer da?”

Jauzi batez zutitu zen.

- “Zer den? Hondatua nizala, hondatua! badantzuk?”

Adolphe Langlois Jaunak, notariak, bere bulegora joan-arazia zuen, eta senarrak ezkondu baino lehen izkiriatu testamendu bat erakutsia zaukon. Guzia Zeziliari uzten zaukon; eta bertze testamendua galdua zen. Federik biziki hits bilakatu zen. Gaizki mihatua zuen behar bada?

- “Baina beha ezak bada!” erran zuen Dambreuse Andereak, bizitegia erakutsiz.

Bi diru-khutxa zabalik zauden, aizkora ukaldika lehertuak, eta izkiriatzeko mahia itzulia zuen, harmairuak mihatuak, lastaiak inharrosiak, bapatean oiher bat eginez, laster egin zuenean untzi ttipi burdin-horizko zerrapo batekilakoa ikusia zuen izkina batera; ideki zuen, jeus ez!

- “Ha! ezteusa! Nik hainbertze arthatu dutalarik!”

Gero nigar hipetan hasi zen.

- “Bertze nunbait da, behar bada?” erran zuen Federikek.

- “Baina ez! hor zen! untzi hortan! Berriki ikusia dut! Errea da! segur niz!”

Egun batez, eritasunaren hastapenean, Dambreuse Jauna izenpetze batzuen emaitera jautsia zen.

- “Ukaldia orduan egina ukanen duke!”

Eta bere jargiara erori zen, ezindua. Ama bat doluminetan ohako huts baten ondoan ezta Dambreuse Anderea diru-kutxa idekien aitzinean baino deitoragarriago. Azkenean, haren oinazeak - arrazoina aphala izana gatik - hain barnatua iduri zuen nun Federik haren konsolatzera entseatu baitzen etzela ororen buruan miseriara hertsatua erranez.

- “Miseria duk, fortuna handi bat eman eztezakeatanaz geroz!”

Etzuen gehiago hogeita hamar mila libera arranda baizik, hotela barne hartu gabe, hemezortzi edo hogeita mila balio zituena, behar bada.

Nahiz hori nasaitasuna zen Federikendako, etzuen gutiago hala ere nahigabe bat senditzen. Goraintzi ametser eta eremana ukanen zuen bizi handi guziari! Ohoreak bortxatzen zuen Dambreuse Anderearekin ezkontzera. Minuta batez gogoetan egon zen; gero, doinu samur batekin:

- “Bederen anderea ukanen dut!”

Federiken besoetara jauzi zen; eta hunek bulharraren kontra tinkatu zuen, beraren miresmen apur bat hartan bazen beratasun batekin. Dambreuse Andereak, nigarrrik gehiago ixuri gabe, begitartea goititu zuen, zorionez dena argitan, eta hari eskua hartuz:

- “Ha! eztiat ehoiz hitaz dudatu! Horren baha nindagokan!”

Egintza eder batendako zadukanaren segurtasun aitzinatu hori etzizakon mutiko gazteari gustatu.

Gero hark bere gambarara ereman zuen, eta egin gogo zutenaz ari izan ziren. Federikek behar zuen orai bere buruaren aitzina-arazteaz gogatu. Deputatugai izaiteko aholku miragarriak eman zauzkon ere.

Lehenbiziko gauza ekonomia politikakoaz bizpahirur erranaldien jakitea zen. Egiteko berezi bat hartu behar zen, hala nola garañotegiak, orhoikarri labur batzu izkiriatu leku zenbaiteko abantailetan zen gai batez, beti ukan bere eskuko posta edo tabako bulego batzu, zerbitzu ttipi andana bat eman. Dambreuse Jauna hortan egiazko modela izana zen. Horrela, aldi batez, bere karro alkiduna, adixkidez betea, zapatagin baten saldegi aitzinean geldi-arazia zuen, hamabi oinetako pare hartuak bere gomitendako, eta, beretako, bota ezin itsusiago batzu - ukana baitzuen ere hamabortz egunez haien erabiltzeko kurraia handia. Bertze batzu erran zituen, eta garazia, gaztetasun eta izpirituko bizitasun berri batekin.

Federikek berehala Nogent-era bidaia baten egiteko ukan zuen gogoan onhartu zuen. Goraintziak xamurrak ukan zituzten; gero, alharzean, oraino aldi bat murmurikatu zuen: `

- “Maite nuk, eztea hala?”

- “Betiereko!” ihardetsi zuen.

Mezulari bat etxean haren aiduru zagon lapitzezko hitz batekin, Rosanette haur ukan berria zela jakin-arazten baitzaukon. Hanbat egiteko ukana zuen, zenbait egun hetan, nun ezpaitzuen gehiago hura gogoan. Etxe berezi batean jarria zen, Chaillot-en.

Federikek hartu zuen fiakra bat eta abiatu zen.

Marbeuf karrikako izikinan, taula batean irakurri zuen hizki larriz: - “Osasun eta haur ukaiteko etxea, Alessandri Andereak atxikia, lerro leheneko emagina, Amategiko ikasle ohia, liburu batzuen egilea, eta bertze.” Gero, karrikaren erdian, athean, bien arteko athe ttipi bat, iragarkiak berriz bazion (“haur ukaite” hitza errepikatu gabe) “Alessandri Anderearen osasun etxea,” bere titulu guziekin.

Federikek mailu ukaldi bat jo zuen.

Gelari batek, sehiaren idurikoa, sarr-arazi zuen saloinera, zurgorritzko mahi batez aphaindua, balusa gorri-bizizko jargia batzuez, eta borobil-peko erloi batez.

Abantzu berehala, Anderea agertu zen. Berrogei urteko beltzaran handi bat zen, gerria mehe, begiak eder, jendearekin nola egin bazakiena. Federiki ikasi zaukon amaren librantza zorizkoa, eta hunen gambarara igan-arazi zuen.

Rosanette irriño ezin erran batean hasi zen; eta, ithotzen zuten maitasunaren uhainek gainditua bezala, erran zuen mintzo aphen batekin:

- “Mutikoa, hor, hor!” ohako bat erakutsiz bere ondoan dilindan.

Federikek erridauak baztertu zituen, eta ikusi, xatarren artean, zerbait gorri horail, ezin gehiago zimur, usain gaixto bat zuena eta marrakan ari;

- “Besarka ezak!”

Higunduraren gordetzeko ihardetsi zuen:

- “Baina min egin beldur niz!”

- “Ez! Ez!”

Orduan bere haurrari musu eman zaukon, ezpainen punttatik.

- “Zenbat hire egite dikan!”

Eta, bere bi beso ahulez, Rosanette lephotik dilindan jarri zizakon, Federikek behin ere ikusia etzuen sendimenduetako ixuri batekin.

Dambreuse Andereaz orhoitu zen. Bere burua itsuskeria batez bezala erasiatu zuen jende gaixo hori utzirik, maite ’ta pena baitzuen bere jiteko zintzotasun osoan. Egun batzu eman zituen arratserano haren ondoan.

Rosanette zorionean aurkitzen zen etxe ixil hortan; etxaitzineko leihoak beti hetsirik zauden ere; gambarak, oihal persiar argiz estalia, bazeman baratze handi batera; Alessandri Andereak, zuen huts bakarra mediku aipatuak ezagun minak zituela erraitea baitzen, arthaz inguratzen zuen; lagunak, abantzu oro probinziako andereño batzu, azkarki azperten ziren, ikustera jiten zizeen nehor ez ukanez; Rosanette gutzizatzen zutela ohartu zen, eta Federiki erran zaukon urgoiki. Aphen mintzatu behar zen, bizkitartean; arte-murruak mehe ziren eta jende guzia aiduru zagon, pianoek bazegiten harrabots jarraikia izanik ere.

Behar zen alta Nogent-era abiatu, Federikek Deslauriers-en eskutitz bat ukan zuenean.

Bi deputatugai berri agertzen ziren, bat konserbadorea, bertzea gorria; heren batek, nor nahi izanik ere, zoririk etzuen. Federiken ogena zen; ordu ona joaitera utzia zuen, goizago jin beharko zuen, higitu. “Laborantzako egunetan ehiz ikusia izana ere!” Abokatak erasiatzen zuen berrikariekin harremanik batere etzuelakotz. “Ha! lehenago ene aholkuer jarraiki izan bahindee! Gurea den berrikari bat baginu!” Hortan hisitzen zen. Bertzela ere, boza hari emanen zaukoten jende ainitzek, Dambreuse Jaunaren ikustatez, utziko zuten orai. Deslauriers horietarik

zen. Kapitalixtaren ganik gehiago jeusen ez igurikatzeotan, harek itzalean hartua zuena uzten zuen.

Federikek eskutitza ereman zaukon Dambreuse Andereari.

- “Ehiz beraz Nogent-en izana?” erran zuen.

- “Zertako?”

- “Deslauriers ikusia diatalakotz duela hirur egun.”

Senarraren heriotzea jakinik, abokata itzulia zen ikatzetako oharren ekhartzera eta egitekoetako gizon bezala bere zerbitzuen eskaintzera. Hori bitxi iduritu zizakon Federiki; eta adixkidea, han, zer ari zen?

Dambreuse Andereak jakin nahi ukan zuen elgar utziz geroztik zer eginga zuen.

- “Eri egona niz,” ihardetsi zuen.

- “Behar hindatan jakin-arazi, bederen.”

- “Ho! etzuen balio.” Bertzela ere, egin-behar andana bat ukana zuen, hitzhartze batzu, ikustaldi.

Ordutik bizi bikun bat ereman zuen, Marexalsaren etxean etzanez zintzoki gauaz eta arratsaldea Dambreuse Anderearen etxean iraganez, hala nola nun doi-doia gelditzen baitzizakon, egunaren erditan, oren bat libertate.

Haurra baserrian zen, Andilly-n. Aste oroz ikustera joaiten zizakon.

Amañoaren etxea herrixkako gain batean zen, urtegia bezain iluneko korrale ttipi baten zolan, lurrean lastoarekin, han-hemenka oiloak, baratzekarietako orga bat atherbean. Rosanette bere ñiñiari musu eta musu hasten zen; eta, halako burxoratze batek harturik, bazoan hara eta hunara, ahuntzaren deiztera entseatuz, ogi loditik janez, ongarriaren usaina hartuz, hartarik apur bat bere mokanesean ezarri nahiz.

Gero ibilaldi handi batzu egiten zituzten; hura mindegizainen etxetara sartzen zen, harresietarik kampora dinlindan zauden lila adarrak mozten zituen, oihi egiten: “Arri, arstoko!” karro bat zeramaten arstoer, burdin-sare ondoan gelditzen baratze ederren barnera beha; edo haurra amañoak hartzen zuen, intzaurrondo baten itzalean ezartzen zen, eta bi emaztek orenak eta orenak emaiten zituzten xoxokeria nardagarri batzuen erraiten.

Federik, haien ondoan, aldapetako mahasti taloiner beha zagon, lekuka zuhatz baten orstailarekin, bidexka erraustuer xingola hautsaran batzu iduri, muskerrean etxek hedatzen zituztela tita xuri eta gorri batzu;

eta, zenbait aldiz, treina baten khea luzatzen zen errara orstailez estali mendixken oinean, punta airera zoakon auztruka luma gaitzeko bat bezala.

Gero begiak semearen gainera erortzen zizazkon. Itxuratzen zuen mutiko gazte, hartaz lagun bat eginen zuen; baina behar bada zozo bat izanen zen, segurraz zorigaitzeko bat. Beti legez kampoko sortzearen azpian izanen zen; hobe ukanen zuen ez sortzea, eta Federikek murmurikatzen zuen: “Gaixo haurra!” bihotza ezin argituzko tristezia batez hantua.

Ainitzetan, azken abiatzea huts egiten zuten. Orduan, Dambreuse Andereak axolagabe hortaz erasiatzen zuen. Ixtorio bat emaiten zaukon.

Bat asmatu behar zen ere Rosanette-rendako. Etzuen hartzen zertan zeramatzan arrats guziak; eta, etxera igortzen zizakonean, ehoiz etzen han! Egun batez, han zelarik, biak abantzu aldi berean agertu ziren. Marexalsa athera-arazi zuen eta Dambreuse Anderea gorde, ama ethorriko zizakola erranez.

Laster gezur horiek jostatu zuten; bati errepikatzen zaukon bertzeari egin zina, lore floka berdinak igortzen zezteen, aldi berean izikiriartzen, gero biak elgarrekin gomparatzen; - bazen hirugarren bat beti gogoan zuena. Hunen ukan ezinak xuritzen zuen bere zimarkuez, atsegina phizten zaukotelarik, aldikitzeak ekharriz; eta gehiago zuen bietarik edozein enganatua, hunek are gehiago zuen maite, haien amodioak elgar berotuak izan balire bezala eta, halako zein gehiagoka batean, batak bertzea ahatz-arazi nahi ukan balauko bezala.

- “Mirets ezak ene konfienxial!” erran zaukon egun batez Dambreuse Andereak paper bat idekiz hartan jakin-arazten baitzizakon Moreau Jauna ezkondurik bezala bizi zela delako Rose Bron batekin. “Zaldi lasterretako anderea dea, ote?”

- “Zer arrazoin gabea!” egin zuen. “Utz nezan ikustera.”

Eskutitza, hizki erromatarrez izkiriartua, etzen izenpetua. Dambreuse Andereak, hastapenean, ohaide hori onhartua zuen, bere hutsa gordetzen baitzaukon. Baina, maitasuna azkarragotuz, hauts zezan nahi ukana zuen, gauza aspaldidanik egina, Federikek zionaz; eta, segurantzak emanak ukan zituenean, andereak ihardetsi zuen, begiez klixkatuz ezten bat musulina azpian bezalako behako bat dirdiran:

- “Ba eta, bertzea?”

- “Zein bertze?”

- “Faianzalariaren emaztea!”

Soingainak erdainuz goititu zituen. Hura etzen hisitu.

Baina, ilabete bat berantago, ohorez eta leialtasunez ari zirelarik, eta Federikek bereaz (artetik, eta zer gerta ere) espantu bazegielarik, erran zaukon:

- “Egia da, zintzo hiz, ehiz gehiago hara joaiten.”

Federikek, Marexalsa baitzuen gogoan, ahopiatu zuen:

- “Nora bada?”

- “Arnoux Anderearen etxera.”

Othoi-othoiztu zuen xehetasun hori nundik zuen erran zezon. Bigarren dendariaren ganik zen, Regimbart Anderearen ganik.

Horrela, haren bizia bazakien, eta bereaz ezer etzaukon erranik!

Bizkitartean, aurkitua zuen haren ikuztegian jaun muxtatx luzedun baten itxura ttipia; lehenago bere buruaz egina zuen baten ixtorio nahasi bat errana zaukoten hura bera zena? Baina, etzen gehiagokorik jakiteko biderik batera! Zer balio zuen, bertzela ere? Emazten bihotzak segetuekilako muble ttipi hek bezala dira, batzu bertzetan hartuak diren tiranta ttipiz beteak; nekea hartzen da, azkazalak hausten dira, eta zolan hatzemaiten da lore eihartu zenbait, errauts izpi bat - edo hutsa! Eta behar bada sobera jakitearen beldur izan zen.

Hark gomiter eza eman-arazten zaukon, bere sahetsean atxikitzen zuen, gal beldur zen; eta, egun oroz handiago zen batasun hori izanik ere, bapatean leze batzu agertzen ziren haien artean, gauza ezteus batzuen aipatzean, norbaitez, ederlan batez estimu emaitan.

Bazuen pianoaren joiteko ara bat, zuzena eta idorra. Zuen sineskeriak (Dambreuse Anderak uste zuen arimak izarretara herriz aldatzen zirela) etzaukon diru-khutzaren miragarriki atxikitzea debekatzen. Sehier goratik egiten zauen; begiak idorrik gelditzen zizazkon behartuen philden aitzinean. Berekoitasun laño bat ageri zen haren ohiko erranaldietan: “Hortaz zer axola dut? ontsa ona ninzateke! beharrean niza!” eta mila egintza ttipi ezin erranetan, hastiagarriak. Athe gibeletan entzuten egonen zen; kofesariari gezurrez ari zizakokeen. Nagusi izaiteko gogoz, nahi ukan zuen Federikek igandetan elizara lagun zezan. Obeditu zuen, eta liburua ereman.

Batzuek nahi zuten Imperioa, bertzek Orléans-tarrak, bertzek Chambord-eko kondea; baina guziak bat ziren herrialder bothere gehiago emaitan, eta hortako bide batzu aitzineratuak ziren, hauk bezala: Paris karrika handi andana batean moztu hetan herrixka batzuen ezartzeko, gobernamentuaren egoitza Versailles-era ereman, ikastetxeak

ezar Bourges-en, liburutegiak ekhendu, guzia eman armadako jeneralen eskura; - eta baserriak gorai patzen ziren, gizon eskolagabeak baitzuen jitez bertzek baino zentzu gehiago! Herrak nasai ziren! lehen maileko errienten eta arno saltzalen kontrako herra, filosofiako ikaskuntzen kontrakoa, ixtorioko ikastaldiena, elaberriena, barneko motx gorriena, bizar luzena, bere gaintasun ororena, norberak bere baitarik hasi nahiko zuen guziarena; ezen behar zen “larderiako gogoia goititu”; behar zuen nor nahiren izenean, nundik bazetorren ere, manatu, Indarra, Larderia zen ber! Konserbadoreak orai Senecal bezala mintzo ziren. Federikek etzuen gehiago komprenitzen; ohaide ukana zuenaren etxean aurkitzen zituen berriz solas berak, gizon berek erranak!

Neska arinen saloinak (duten phizua ordutik dute hartu) eremu bat ziren ez aldeko ez kontrakoa, hetan alde orotako gibelatzaleak batzen baitziren. Hussonnet-ek, aro hartako aipatuenen belzteari ari baitzen (gauza ona Ordenuaren berriz jartzeko), eman-arazi zaukon Rosanette-ri, bertze batek bezala bere arratsalden ukaiteko gutizia; hetaz khondu emanen zuen; eta ekharri zuen lehenik gizon serio bat, Fumichon; gero agertu ziren Nonancourt, Grémonville-ko Jauna, Larsillois-koa, prefet ohia, eta Cizy, orai lur-jakintzalari baitzen, bretoin behereko eta nehoiz baino girixtinoago.

Heldu ziren, gainera, Marexalsaren maitale ohi batzu, hala nola Comaing-ko baroina, Jumilhac-ko kondea et bertze zenbait; haien ara libroek Federik gaitzitu zuten.

Nagusi bezala jartzeko, etxeko bizi-modua handitu zuen. Orduan, mutil ttipi bat hartu zen, bizitegiz aldatu, eta muble berriak ukan ziren. Gastu horiek baliagarri ziren eginen zuen ezkontza etzela bere fortunari gaizkiegi emana ager-arazteko. Izigarriki ttipitzen ari zizakon ere: - Rosanette-ek etzuen hortan guzian ezer entzuten!

Burejestsia mailez jautsia, etxeko biziak loriatzen zuen, barne baketsu ttipi batek. Bizkitartean, “egun baten” ukaiteaz askietsia zen; bazion: “delako emazte horiek” bera bezalakoez mintzatzean; “mundu handiko andere” izan nahi zuen, hala zela uste ere. Federiki galdegin zaukon etzezan gehiago saloinean pipa, mehe jan-araztera entseatu zizakon, behar bezalakotasunez.

Bere jokoa, azkenean, gezurtatzen zuen, ezen serio bilakatzen ari zen, eta ere, etzan baino lehen, gogo-ilundura apur bat erakusten zuen, alzifreak ostatu athetan izaiten diren bezala.

Horren arrazoina aurkitu zuen Federikek: ezkontzeaz ametsetan zen, - hura ere! Federik hortaz sumindua izan zen. Bertzela ere, Arnoux Anderearen etxean egin zuen agertzeaz orhoit zen, eta gero gorromio atxikiko zaukon egina zuen ihardokitze luzeaz.

Etzuen gutiago bilatzen nor ziren ukanak zituen maitaleak. Hark guziak ukatzen zituen. Halako bekaizkeria batek hartu zuen. Ukanak zituen emaitzez khexatu zen, ukaiten zituenez; - eta, haren nortasunak berak gero eta gehiago aspertzen zuen arau, sentsuetako gutizia gogor eta abre batek bazeraman haren gana, minuta bateko lilluramenak, herran bururatzen zirenak.

Haren elheak, mintzoa, irriñoa, oro higun bilakatu zizakon, oroz gainetik behakoak, emazte begi beti eta beti garbi eta xoxo hura. Hartaz hainbertzetarano nardatua gertatzen zen zenbait aldiz, nun hiltzen ikusiko baitzuen hunkia izan gabe. Baina nola khexa? Eztitasun etsigarri batekoa zen.

Deslauriers berriz agertu zen, eta Nogent-eko egonaldia argitu zuen abokat-ordain baten bulegoaz tratuan ari zela erranez. Federik bozkariatu zen haren ikusteaz; etzen nor nahi! Bere batzorde-kide ezarri zuen.

Noiztenka abokata haien etxean auhaltzen zen, eta, eztabada ttipi batzu sortzen zirenean, beti Rosanette-ren alderdiko agertzen, hala nola nun aldi batez Federikek erran baitzaukon:

- “He! harekin etzan hadi jostagarri bazaik!” hanbat zuen nahi hartarik arinduko luen halabehar bat.

Ekhainaren erditsutara, Rosanette-ek ukan zuen manamendu bat hartan Athanase Gautherot jn. uxerrak manatzen baitzaukon ordain zitzan andereño Clémence Vatnaz-i zor zauzkon laur mila libera; bertzela, biharamunean bahitzera jinen zizakola.

Alabaina, lehenago izenpetuak zituen laur billetetarik, bat bakarrik ordaindua izana zen; - geroztik ukana ahal zukeen dirua bertze behar batzuetara joanik.

Arnoux-en etxera laster egin zuen. Saint-Germain herri-bazterrean bizi zen, eta athezainak karrika etzakien. Adixkide batzuen etxera joan zen, nehor ez aurkitu, eta sartu zen etsitua. Ezer etzaukon Federiki erran nahi ukan, gertakari berri horrek ezkontzako behargabea ekhar zezon ikharan.

Biharamun goizean, Jn. Athanas Gautherot agertu zen, aldean bi lagunekin, bat hits, pitotxaren iduriko begitarte batekin, itxura gutziak

jana, bertzea lephoko falsa eta oinpeko biziki thiratu batzu soinean, zeta beltzeko erhiko batekin bigarreanean; - eta biak itsuski zikinak, lephoko urindu batzuekin, maripuliseko mahungak laburregi.

Haien nagusia, gizon eder-eder bat, hasi zen aldiz bere egiteko penagarriaz desenkusatzuz, bizitegiari so egiten zuen aldi berean, “gauza pollitez betea, hitzemaiten dut!” Gaineratu zuen “bahi eztaitezkeenaz bertzalde”. Haren jestu batean, bi uxer-lagunak itzali ziren.

Orduan, komplimentuak bikundu zizazkon. Sinets zaitekeena jende hoin... loriagarri batek etzuela adixkide seriozik! Justiziako larderiak saltze bat egiazko zorigaitza zen! Ehoiz ezta gero bere baitaratzen. Izitzera entseatu zen; gero, hunkia zela ikusiz, bapatez alegia aita baten doinua hartu zuen. Mundua ezagutzen zuen, andere horiekin guziekin zer ikus ukana zuen; eta, haien izena emanaz, murruetan kadreak ikertzen zituen. Arnoux gaizoaren margazki zahar batzu ziren, Sombaz-en marrazki hastapen, Burieux-en margazki arin, Dittmer-en hirur eskualde. Rosanette-ek balioa etzakien, erran gabe doa. Jn. Gautherot haren gana itzuli zen:

- “Oizu! Mutiko on bat nizala zuri erakusteko, badagigun gauza bat: utz ezaztazu Dittmer horiek, eta guzia ordaintzen dut. Bagirea?”

Ordu hortan, Federik, Delfinak aitzin-gambaran jakinduru ezarririk eta berak bi lagunak ikusirik, sartzen da xapela buruan, itxura bortitz batekin. Jn. Gautherot-ek hartu zuen berriz bere seriosa; eta, athea idekirik gelditua baitzen:

- “Goazen, jaunak, izkiria ezazue! Bigarren barnean, baderragu: haritezko mahi bat, bere bi luzagailuekin, bi alhase...”

Federikek geldi-arazi zuen, bahitzearen urruntzeko biderik etzenez galdeginez.

- “Ho! bai segurki! Mubleak nork ordainduak ditu?”

- “Nik.”

- “Beraz, galde bat molda ezazu; astia aitzinean ukanen duzu bederen;”

Jn. Gautherot-ek bere izkirioak laster bururatu zituen, eta, prozaduran, Bron Andereñoari manamendua berriz egin, eta joan zen.

Federikek etzuen erasia bakar bat egin. Beha zagon, tapizan, uxerren oinetakoek utziak zituzten iztil hatzer; eta, bere buruari mintzo bezala:

- “Beharko da dirua bilatu!”

- “Ha! Jainkoa, zein zozoa nizan!” erran zuen Marexalsak.

Tiranta bat mihatu zuen, eskutitz bat hartu, eta bizi-bizia joan, Languedoc-ko Argitzetako Batzordera, bere diru-balioen aldatzearen ukaiteko.

Oren bat berantago itzuli zen. Diru-balioak bertze bati salduak ziren! Komisak ihardetsia zaukon paperra ikertuz, Arnoux-ek egina zuen hitzemaitea: “Hitz horrek etzitu batere jabe egiten. Eztu Kompainiak holakorik ezagutzen.” Hots, gibelera igorria zuen, hats bahitua zen; eta Federikek joan behar zuen ordu berean Arnoux-en etxera gauzaren argitzeko.

Baina Arnoux Andereak uste ukanen zuen, behar bada, bere hipoteka galduko hamabortz mila liberen bertze moldez ukaitera heldu zela; eta galde horren egitea bere ohaidearen maitale izana zen gizon bati itsusi iduritzen zizakon. Artebide bat hautatuz, Dambreuse hotelera joan zen Regimbart Anderearen helbidearen hartzera, hunen etxera komisionari bat igorri zuen, eta horrela jakin orai Herritarra hara joaiten zen ostatua.

Kafe ttipi bat zen Bastillako plazan, han baitzagon egun osoa, eskuneko izkina batean, zolan, etxearen zati bat izana balitz baino gehiago higitu gabe.

Iraganik jarraikian kikera-erditik, grogatik, arnoberotik eta ere ur gorritutik, garagarnora itzulia zen berriz; eta oren-erditik oren-erdira hitz hau erortzera uzten zuen: “Bock!” elhea baitezpadakoenera hertsiturik. Federikek galdegin zaukon Arnoux batzuetan ikusten zuenez.

- “Ez!”

- “Ori, zergatik?”

- “Zozo bat!”

Politikak, behar bada, berexten zituen, eta Federikek uste ukan zuen Compain-en berri galdegin behar zuela;

- “Zer abrea!” erran zuen Regimbart-ek.

- “Nola bada?”

- “Haren aretxe burua!”

- “Ha! aretxe burua zer den ikas ezatazu!”

Regimbartek ukan zuen urrikizko irriño bat.

- “Zozokeria batzu!”

Federikek, ixil luze baten ondotik, egin zuen berriz:

- “Bizitegiz aldatu da beraz?”

- “Nor?”

- “Arnoux!”

- “Bai: Fleurus-ko karrikan!”
- “Zeintan?”
- “Jesuisten etxera joaiten niza ni!”
- “Nola, jesuisten!”

Herritarrak ihardetsi zuen, erotua:

- “Ezagun-arazia daukotan aberritar baten diruarekin, urde hura arrosario saltzale jarri da!”
- “Ba ote!”
- “Ikustera zoaz!”

Egiagorik jeus etzen; Arnoux, odol ukaldi batek ahuldua, erlisionera bihurtua zen; bertzela ere, “beti erlisioneko zola bat atxikia zuen” eta, jitezkoa zuen merkatzalekeria eta lañotasun nahasketarekin, aldi berean salbamenduaren eta fortunaren egitekotan, erlisioneko gauzen sal-erospenari emana zen.

Federikek etzuen haren etxearen aurkitzen nekerik ukan, iragarkiak baitzion: “*Edergintza gothikoak*. - Erlisioneko zeremonien berritzea.- Elizako aphaindura. - Margo guzietako zizelkadura. - Errege magoen isensu, eta bertze.”

Berinategiaren bi aldetan bazauden bi zurezko gizairudi, urrez, gorritz eta urdinez nabartuak; jondoni Johane Batixta bat bere ardi larruarekin, eta santa Jenofeva bat, taulierrean arrosekin eta besapean khilo bat; gero igelsuzko multzo batzu; serora bat nexkato ttipi bati erakasten, ama bat ohako baten ondoan belhauriko, hirur mutiko ikasle mahi sainduaren aitzinean. Pollitena halako etxola bat zen Eguberriko barroki barnea erakusten zuena astoarekin, idiarekin eta Jesus haurra lastoan etzana, egiazko lastoan. Tauladen gainetik beherera, ikusten ziren medaila batzu hamabika, mota orotako arrosario, ur benedikatu untzi maskor moldean eta elizako aipatuenen potretak, hauen artean agerian baitziren Affre Enejauna eta Aita-Saindua, biak irriño batekin.

Arnoux, bere khondu-mahian, burua beheiti erdi-lo zagon. Izigarriki zahartua zen, bazuen ere pholsuen inguruan handitsu gorrastazko korona bat, eta iguzkiak joiten zituen urrezko gurutzen leinurua gainera erortzen zizakon.

Federik, erorpen horren aitzinean, urrikiz hartua izan zen. Marexalsaren gatik, deliberatu zen alta; eta aitzinera zoan; saldegiaren zolan, Arnoux Anderea agertu zen; orduan, Federikek aztalak itzuli zituen.

- “Eztut hatzeman,” erran zuen sartzean.

Eta errepikatu ahal ukan zuen izkiriaturko zaukola, berehala, Havre-ko notariari diruaren ukaiteko, Rosanette sumindu zen. Ehoiz etzen hoin gizon ahulik ikusi, hoin nagirik; hura mila gabeziaren jasaiten ari zelarik, bertze batzu errexean zauden.

Federik Arnoux Andere gaixoa gogoan zagon, haren bizitegiaren artekotasun urrikgarria itxuratzen zuela. Bulego segetarian jarria zen; eta, Rosanette-ren mintzo saminak jarraitzen baitzuen:

- "Ha! jaingoaz, ixil hadi!"

- "Haien alde jarriko hiza, ote?"

- "Eta, bai!" egin zuen, "nundik dun amorratze hori?"

- "Baina hik, zergatik eztuk nahi ordain dezaten? Hire maite ohiari atsegabe eman beldurrez, aithor ezak!"

Erloiarekin burutik emaitako gutizia ukan zuen; elheak huts egin zaukon. Ixildu zen. Rosanette-ek, gambaran gaindi bazabilan batean, gaineratu zuen:

- "Auzi bat igorriko dakeat, hire Arnoux-i. Ho! eztiat hire beharrik!" eta, ezpainak zimurtuz: "Aholku galdeginen diat."

Hirur egun berantago, Delfina bapatez sartu zen.

- "Anderea, anderea, bada hor gizon bat kola untzi batekin izitzen bainu."

Rosanette sukaldera joan zen, eta gizon txar bat ikusi zuen, aurpegia pikotaz titatua, beso bat hebaindua, erdi mozkorra eta murdukatzen ari.

Jn. Gautheroten iragarki ezartzalea zen. Bahitzearen gibel-araztea ez onhartua izanik, saltzeak, zuzenki, jarraitzen zuen.

Mailaldea igan ukanaren nekearendako, baso ttipi bat eskatu zuen lehenik; - gero bertze fagore baten eskez egon zen, erran nahi da ikusgarriko billet batzu, ustez eta Anderea komedialari bat zen. Gero minuta batzu eman zituen begiez kheinu ezin komprenitu batzuen egiten; azkenean, erran zuen, berrogei soretan, behean athe ondoan jadanik ezarria zen iragarkiaren izkinak urratuko zituela. Hartan Rosanette bere izenaz deitua zen, ohigabeko gogorkeria Vatnaz-saren herra guzia ezagun-arazten zuena.

Sendimendukoia izana zen lehenago, eta ere, bihotzeko nahigabe batean, Béranger-i izkiriaturko zaukon haren ganik aholku baten ukaiteko. Baina biziko erauntsien azpian mingartua zen, ari izanik, aldizka, pianoko ikastaldi emaiten, ostatu mahi baten buru, modako berrikarietan lanean, bizitegi berralokatzen, emazte arinen ondoan dentela saltzen, -

hor ezagutuek jende ainitzi zerbitzu eman-arazi baitzaukoten, bertze batzuen artean Arnoux-i. Aitzinean sal-erospeneko etxe batean lan egin zuen.

Han emazte langiler saria emaiten zauen; eta baziren bakoitzarendako bi liburu, hetarik bat beti eskuan baitzadukan. Dussardier, zerbitzu emaiteko Hortense Balin izeneko batena atxikitzen baitzuen, khutxara agertu zen egun batez Vatnaz Andereñoak neskato horren kondua bazekarren orduan, 1.682 libera, khutxariak ordaindu zauzkonak. Baina, bezperan berean, Dussardier-ek etzituen ezarriak Baslin-saren liburuan 1.082 libera baizik. Liburua berriz galdegin zuen zerbait estakuru-pean; gero, ohointza ixtorio hori ehortzi nahiz, erran zaukon galdua zuela. Langilesak haren gezurra lañoki errepikatu zaukon Vatnaz Andereñoari; hau, segurraren jakiteko, axolagabez bezala, komis onarekin mintzatu zen. Ihardetsi zaukon bakarrik: “Errea dut.” Hura etxetik joan zen ephe guti ondotik, liburua suntsitua zela sinetsi gabe eta Dussardier-ek bazadukala gogoan.

Zauritua zela jakitean, haren etxera laster egin zuen, liburu horren berriz hartzeko xedetan. Gero, ezer ez aurkiturik, ikerraldi zorrotzenak eginik ere, errespetuz hartua izana zen, eta laster amodioz, mutiko hoin leial, hoin ezti, hoin bihoztun eta hoin azkarrarendako! Horrelako zoriona, zuen adinean, ustegabekoa zen. Gainera jauzi zizakon haur-jale baten gosearekin: - eta bazterrera utziak zituen literatura, zozialixmoa, “dotrina konsolagarri eta utopia emankorrak”, *Emaztearen menpekotasun gabetzeaz* egiten zuen ikaskuntza, oro, Delmar bera ere; azkenik Dussardier-i eskaini zaukon harekin ezkontzea.

Nahiz ohaidea zuen, etzuen batere maite. Bertzela ere, etzuen haren ohointza ahatzia. Gero anderea aberatsegi zen. Eza eman zaukon. Hark orduan erran zauzkon, nigarrez, eginak zituen ametsak: biek jantzi egiteko saldegi bat ukan zezaten. Hasteko behar zen dirua bazuen, laur mila liberaz handituko zena ondoko astean; eta khondatau zituen Marexalsaren kontra egiten zituen jaukitzeak.

Dussardier hortaz griñatu zen, bere adixkidearen gatik. Orhoit zen zaintzalen postan eskaini zigarro-untziaz, Napoleon kaiako arratsez, hanbat solasaldi onez, mailegatu liburuez, Federiken mila gozatasunez. Vatnaz-sa gibelera egin zezan othoiztu zuen.

Bere oneziaz trufatu zuen, Rosanette-ren kontra hastiatze ezin entzun bat erakutsiz; etzen fortunaren nahitan, ere, berantago bere karrosarekin haren lehertzeko baizik.

Belzkeriazko leze horiek izitu zuten Dussardier; eta, saltzeko eguna zuzen jakin zuenean, athera zen. Biharamun goizean berean, Federiken etxera sartzen zen eragozpeneko itxura batekin.

- “Desenkusak egin behar daukitzut.”

- “Zertaz bada?”

- “Eskergabe batendako hartzen naukezu, ni bainiz haren...”

Ahopiatuz ari zen. “Oi! Gehiago eztut ikusiko, eniz haren gaizkidea izanen!” Eta, bertzeak guzia ustegabetua behatzen baitzaukon: “Eztirea, hirur egun barne, zure lagunaren mubleak salduko?”

- “Nork erran dautzu hori?”

- “Berak, Vatnaz-sak! Baina zu laidozta beldur niz...”

- “Ezin da, adixkidea!”

- “Ha! egia da, hain zira ona!”

Eta aitzineratu zaukon, esku herabetu batez, larruzko molsa ttipi bat.

Laur mila libera ziren, baztertua zuen diru guzia.

- “Nola! Ha! ez! - ez!...”

- “Gaitzituko zinindutala banakien ba,” ihardetsi zuen Dussardier-ek, nigar bat begi bazterrean.

Federikek eskua tinkatu zaukon; eta mutiko onak egin zuen berriz mintzo trixte batekin:

- “Onharzkizu! Egidazu atsegin hori! Hainbertzetarano niz etsitua! Eztea guzia egina, bertzela ere. - Uste ukana nuen, iraultza ethorri denean, zorionean izanen ginela. Orhoit zirea zein eder zen! hatsa zein ontsa hartzen zen! Baina horra nehoiz baino gaizkiago eroriak girela.”

Eta, begiak lurrean itzatzuz:

- “Orai, gure Errepublika hiltzen ari daukute, bertzea hila duten bezala, Erromakoa! eta Venezia gaizoa, Polonia gaizoa, Hungaria gaizoa! Zer itsuskeriak! Lehenik, libertateko zuhatzak aurdiki dira, gero boz emaiteko zuzenbidea hertsitu, glubak hetsi, zenzura berriz ezarri eta erakaskuntza aphezen eskuetara utzi, Inkizizionea ezarri arteo. Zergatik ez? Konserbadore batzuek Kosakak agiantzatzen daukute bada! Berrikariak kondenatzen dira hiltzeko penaren kontra ari direnean, Paris baionetez lephorano betea da, hamasei departamendu setiotan; - eta amniztia berriz ere gibelatua!”

Bekokia bi eskuetan hartu zuen; gero, besoak zabalduz ezinbertze handi batean bezala:

- “Nahi baliz, bizkitartean. Gogo oneko bagine, elgar entzun laiteke! Baina ez! Langilek eztute burjesek baino gehiago balio, ikusazu! Elbœuf-en, berriki, sute batean bere laguntza eztute eman nahi ukan. Ezteus batzuek gibelatzalea diote Barbès-i! Jendeaz trufatzeko, nahi dute presidenziara izendatu Nadaud, hargin bat, ikusazu bada! Eta ezta bertze biderik! ez erremediorik! Mundu guzia gure kontra da! - Eztut, nik, gaitzik ehoiz egin; eta, bizkitartean, badut gainean phizu bat bezala. Ero bilakatuko niz, jarraikitzen bada. Neure buruaren hil-arazteko gutizia dut. Badiotzut diru horren beharrik eztutala! Itzuliko dautazu, alajinkoa! prestatzen dautzut.”

Federikek, beharrak hertsaturik, laur mila liberak hartu zituen azkenean. Horrela, Vatnaz-saren aldetik, etzuten khexatzekorik.

Baina Rosanette-ek Arnoux-en kontrako auzia laster galdu zuen, eta, hisikeriaz, dei egin nahi ukan.

Deslauriers etsitzen zen hari gogoan harr-arazi nahiz Arnoux-en hitzemaitea etzela ez emaitza bat ez uzte zuzen bat; etzuen entzun ere nahi, legea bidegabekoa zela aurkituz; emazte bat zelakotz zen, gizonek elgar laguntzen zuten! azkenean, alta haren aholkuer jarraiki zizeen.

Abokata hain guti zen etxean jenatzen nun, aldi batzuez, Senecal auhaltzera ekharri baitzuen. Axolagabe hori etzizakon Federiki gustatu, dirua aitzinatzen baitzaukon, bere jostunari hura jantz-arazten ere; eta hark bere soineko zaharrak emaiten zauzkon zozialixtari, hunen bizipideak ezpaitziren ezagunak.

Rosanette lagundu nahiko zuen, bizkitartean. Lurzuri Kompainiako (Arnoux hogeita hamar mila liberetara kondena-arazia zuen landegi hura) hamabi diru-balio erakusten zauzkon egun batez, erran zaukon:

- “Baina hori ezta zuzena! miragarri!”

Andereak bazuen hartze zituenendako auziz Arnoux-i jaukitzeko zuzenbidea. Phorogatuko zuen lehenik Kompainiaren gain zen guziaren ordaintzerako barne zela, berak zor zituenak ororen zor bezala aithortuak zituenaz geroz, eta azkenik, Batzordearen balio batzu baztertuak.

- “Horrek guziak sal-erospeneko Legarreko artikulua 586 eta 587-etan ogendun egiten du; eta hatzemanen dugu, segur izan zaite, andere pollita.”

Rosanette lephora jauzi zizakon. Biharamunean gomendatu zaukon bere nagusi ohiari, auzi hori bere gain ezpaitzezakeen har,

Nogent-en baitzuen zer egin; Senecal-ek izkiriaturko zaukon, lehia baldin bazen.

Bulego baten erosteko zituen solasak estakuru bat ziren. Dembora Roque Jaunaren etxean zeraman, han hasia baitzen, ez bakarrik adixkideaz laudorio emaiten, baina ere hark bezala egiten ibilaran eta mintzatzeko moldean: - horrek ukana baitzaukon Luixaren konfianzia, aitarena ukaiten zuelarik Ledru-Rollin-en kontra eroki mintzatuz.

Federik itzultzen ezpaldin bazen, mundu handian zabilalaketzen; eta apurka Deslauriers-ek jakin-arazi zauen norbait maite zuela, haur bat ukanki, andere arin bat ordaintzen.

Luixaren etsipena neurrigabekoa izan zen, Moreau Anderearen sumintzea ez gutiago azkarra. Semea bazakusan leze nahasi baten zolara itzulika jausten, beharbezalakotasunaz zuen erlisionean gaitzitua zen eta hortaz desohore berezi bat bezala sendi zuen, bapatez aurpegia aldatu zizakolarik. Federikez egiten zizazkon galdetan, ihardesten zuen itxura maltzur batekin:

- “Biziki ontsa da, eskerrak.”

Dambreuse Anderearekilako ezkontza bazakien.

Eginen zen ordua hautatua zen; eta Federikek bilatzen zuen ere Rosanette-ri nola irets-araziko zaukon.

Larrazken erditara, hunek lurzuriko diru-balioen auzia irabazi zuen; Federikek jakin zuen haren atxean Senecal aurkituz, auzialditik jalgitzen ari baitzen.

Arnoux Jauna ohointza guzietako gaizkide aithortua izana zen; eta erakasle-lagun ohiak hortaz hainbertze bozkariatzen zela iduri zuen, nun Federikek ezpaitzuen urrunago joaitera utzi, Rosanette-ri berriaren jakin-araztea bere gain hartze zuela erranez. Hunen etxera sartu zen begitartea haserre.

- “He beraz, nahi duna badun!”

Baina, hitz horier ohartu gabe:

- “Behazak bada!”

Haurra erakutsi zaukon ohako batean etzana, sutondoan. Hain gaizki aurkitua zuen goizean amañoaren etxean, nun Parisera ekharria baitzuen.

Zango-besoak izigarriki mehatuak zituen eta ezpainak tita zuri batzuez estaliak, ahoaren barnean esne zia batzu bezala egiten zituztelarik.

- “Zer erran du medikuak,”

- “Ha! medikuak! Badio bidaiak handitu daukola bere... nik dakita *-ite*-kilako hitz bat... azkenean ahoeria duela. ezagutzen duka hori?”

Federikek zalantzan egon gabe ihardetsi zuen: “Segurki”, jeus etzela gaineratuz.

Baina, arrastirian, haurraren itxura ahulduaz eta tita urdinaran, mutzidura iduri horien hedatzeaz izitua izan zen, biziak, gorputz ttipi hortarik joanez, utzia ezpalu bezala hartan landareak heldu ziren ekhai bat baizik. Eskuak hotzak zituen; gehiago etzezakeen edan, orai; eta amañoak, athezainak nun nahi hartua zuen bertze bat, errepikatzen zuen:

- “Ontsa aphas iduritzen zata, ontsa aphas!”

Rosanette gau guzia zutik egon zen.

Goizean Federiken bila joan zen.

- “Ikustera haugi bada. Gehiago eztut higitzen.”

Alabaina, hila zen. Hartu zuen, inharrosi, besarka tinkatzen zuen izen eztienekin deituz, musuz eta hipaz estaltzen, itzulikatuz, galdua, bere ileak thiratuz, oihi eginez: - eta ohexkaren bazterrera erortzera utzi zuen bere burua, han baitzagon ahoa idekia, begi geldietarik nigar uhain bat bazariola. Gero zurrundura batek hartu zuen, eta bizitegian guzia geldi bilakatu zen. Mubleak aurdikiak ziren. Bizpahirur oihal lurrean utziak. Sei orenek jo zuten. Argi ttipia hil zen.

Federikek, orori beha, abantzu ametsetan zela uste zuen. Bihotza hersturaz tinkan zuen. Iduri zizakon heriotze hori etzela hastapen bat baizik, eta ondotik zorigaitz gotorrigo bat ethortzera zoala.

Bapatez Rosanette-ek erran zuen mintzo samur batekin:

- “Atxikiko dugu, eztea hala?”

Bazuen haurraren balsamatzeko nahikaria. Horren kontrako arrazoin ainitz bazen. Hoberena, Federiken ustez, hoin haur gaztetan gauza ezin egin zela. Potret bat hobe zen. Rosanette-ek ideia hori onhartu zuen. Federikek hitz bat izkiriatu zaukon Pellerin-i, eta Delfinak lasterrez ereman zaukon.

Pellerin berehala ethorri zen, lehia horrekin egin zuenaren orhoitzapen oro ezabatu nahiz. Lehenik erran zuen:

- “Gaixo aingeruñoa! Ha! Jainkoa, zer zorigaitza!”

Baina, apurka apurka (edergileak haren baitan irabaziz), aithortu zuen ezer etzaitkeela egin begi beltz-horituekin, aurpegi zurpailduarekin, egiazko gauza hil bat zela, antze ainitz beharko zela; eta murmurikatzen zuen:

- “Ho! ezta errex, ezta errex!”
- “Agian iduria izanen da”, egin zuen berriz Rosanette-ek.
- “He! iduri izaitezaz eztut axolarik batere! Lurrera Egiantza!

Izpiritua da margotzen! Utz nezazue! Zer zaitkeen neure baitan asmatzera entseatuko niz.”

Gogoetan egon zen, bekokia ezkerreko eskuan, ukondoa eskunean; gero, bapatez:

- “Ha! Ideia bat! thindu arin bat! thindu-erdi margoztatu batzuekin, abantzu zabalera ezarririk, moldatze eder bat ukan daiteke, bazterretan bakarrik.”

Gelaria igorri zuen bere untziaren bila; gero, kadera bat oinen azpian eta bertze bat sahetsean, marra handi batzuen ezartzen hasi zen, moldeari jarraikiz ari izan baliz bezala. Goraipatzen zituen Corrège-ren Jondoni-Johane ttipiak, Velazquez-en Arroza infanta, Reynolds-en larru esne iduriak, Lawrence-ren jendetasuna, eta oroz gainetik lady Glower-en altzoan dagon haur ile luzeduna.

- “Bertzela ere, ihiziño horiek baino jeus maitagarriagorik aurki daitekea! Ezin ederragoaren itxura zuzena (Raphaël-ek bere birjinekin phorokatua du), ez ote da ama bat haurrarekin?”

Rosanette, hats-bahitua baitzen, athera zen; eta Pellerin-ek berehala:

- “Eta bada, Arnoux!... badakizu zer gertatzen den?”
- “Ez! Zer?”
- “Horrela bururatu behar zuen, bertzela ere!”
- “Zer bada?”
- “Orai behar bada ezarria da... Barkatu!”

Edergilea zutitu zen gorputz ttipiari apur bat buruaren goititzeko.

- “Bazinion...” egin zuen berriz Federikek.

Eta Pellerinek, bere neurrien hartzeko begiez klixkatzen zuen batean:

- “Banion Arnoux gure adixkidea behar bada, orai, hetsirik ezarria dutela!”

Gero, doinu askietsi batekin:

- “Behazu apur bat! Hori dea?”
- “Bai, biziki ontsa! Baina Arnoux?”

Pellerin-ek marra egitekoa utzi zuen.

- “Hartua uste dutanaren araura, Mignot delako batek auziratua du, Regimbart-en adixkide mina, buru on bat, hori eztea? Zer zozoa! Jakizu egun batez...”

- “He! ezkira Regimbart-ez ari!”

- “Egia! Beraz. Arnoux-ek, barda, hamabi mila libera hatzeman behar zituen, edo, galdua zen.”

- “Ho! handitua dute behar bada,” erran zuen Federikek.

- “Ez den gutienik! Gauza larri iduritzen zata, biziki larri!”

Rosanette, orduan, agertu zen begien azpiak gorrituak, thindatuak bezain sutu. Kartoinaren ondoan eman zen, eta so egin zaukon. Pellerin-ek kheinu egin zuen haren gatik ixil zagola. Baina Federikek horri ohartu gabe:

- “Baina eztezaket sinets...”

- “Berriz ere diotzut atzo aurkitua dutala,” erran zuen edergileak, “arratsaldeko zazpietan, Jacob karrikan. Bere pasaportarekin zen, zer gerta ere; eta Havre-en untzi baten hartzeaz mintzo zen, bera eta bere “smala” guzia.”

- “Nola! Emaztearekin?”

- “Dударik gabe! Aita familiako onegia da bakarrik bizitzeko.”

- “Eta hortaz segur zira!...”

- “Alajinkoa! Nun nahi duzu hamabi mila libera aurkituak ukan ditzan?”

Federikek egin zituen gambaran bizpahirur itzuli. Hats-hantua zen, ezpainak ausikiz ari, gero xapela hartu zuen.

- “Norat hoa bada?” erran zuen Rosanette-ek.

Etzuen ihardetsi, eta joan zen.

V

Hamabi mila libera behar ziren, edo etzuen gehiago Arnoux Anderea ikusiko; eta, orai arteo ezin garhaituzko esperanza bat gelditua zizakon. Etzaukona bihotzeko mamia bezala egiten, biziaren zola bera? Minuta zenbaitez oinbidean halda-maldaka egon zen, hersturaz jana, alta bertzearen etxean ez gehiago izaiteaz zorionean.

Dirua nun ukan? Federikek berainik bazakien berehala ukaitea zein neke zen, nahi dena gostaz ere. Jende bakar batek lagun zezakeen,

Dambreuse Andereak. Begiratzten zuen beti segeretukoan bankoko billet andana bat. Haren etxera joan zen; eta, doinu ausart batekin:

- “Badituna hamabi mila libera eni prestatzeko?”

- “Zertako?”

Bertze norbaiten segeretua zen. Hark ezagutu nahi zuen. Etzuen amor eman. Biak hisitzen ziren. Azkenean, deus etzuela emanen erran zuen, zertako zen jakin baino lehen. Federik gorri-gorria bilakatu zen. Bere lagun batek ohointza bat egina zuen. Diruak itzulia ukan behar zuen egun berean.

- “Nola diok? Haren izena? Baina, haren izena?”

- “Dussardier!”

Belhauriko erori zizakon, jeus etzezan erran othoi-othoiztuz.

- “Zer gogo duk nitaz?” egin zuen berriz Dambreuse Andereak. “Ogendun hizala iduri duk. Uzkik bada hire itxura tragikoak! To, horra! eta on dagikala!”

Arnoux-en etxera laster egin zuen. Saltzalea etzen bere saldegian. Baina beti Parabisu karrikan bizi zen, bi bizitegi baitzituen.

Parabisu karrikan, athezainak zin egin zuen Arnoux etzela bezperatik han; Andereaz aldiz, etzen jeusen erraitera menturatzen; eta Federikek, mailaldea zimizta bezala iganik, beharria zerrapoari kontra tinkatu zuen. Azkenean, ideki zen. Andereak Jaunarekin joana zen. Sehiak etzakien noiz itzuliko ziren; saria ordaindua zizakon; bera ere bazoan.

Bapatez athe kraska bat entzun zen.

- “Baina bada norbait?”

- “Ho! ez, jauna! Haizea da.”

Orduan, gibelera joan zen. Hala ere, hoin joaite lasterrak bazuen ezin argituzko zerbait.

Regimbart-ek, Mignot-en adixkide mina izanez, lagun zezakeen behar bada? Eta Federikek bere burua haren etxera ereman-arazi zuen, Montmartre-ra, Emperadorearen karrikan.

Etxeak bazuen baratsetto bat bazterrean, guneka burdina zati batzuek osatzen zuten sare batez hetsia. Hirur mailetakoa athe-harri batek edertzen zuen etxaitzina; eta oinbidetik iragaitean, behereko bi barneak ikusten ziren, lehena saloin bat baitzen muble guzien gainean zaia batzuekin, eta bigarrena Regimbart Anderearen langile josleak han zauden landegia.

Guziak segur ziren Jaunak egiteko handiak bazituela, ezagun handiak, gizon osoki marraz goitiko bat zela. Artebidea iragaiten

zuelarik, bazter goitituekilako xapel batekin, begitarte luze serio eta maripulis muskerrarekin, bere lanetik gelditzen ziren. Bertzela ere, etzuen haier hitz sustagarri zenbaiten erraitea nehoiz huts egiten, erran zahar moldeko ikustate batena; - eta berantago, bere etxetan, zorigaitzean gertatzen ziren, eredu bezala hura hartua baitzuten.

Batek etzuen bizkitartean Regimbart Andereak bezain maite, jende ttipi adimeneko bat, senarra bere ofizioaz bizi-arazten zuena.

Moreau Jaunak bere izena emana ukan zueneko, lasterrez hartzera jin zizakon, sehien ganik ikasirik Dambreuse Anderearendako zer zen. Senarra “orduan berean sartua zen”; eta Federikek, jarraikitzen zizakon batean, miretsi zuen bizitegiaren ordenua eta han zen oihal ziratu andana nasaia. Gero minuta zenbaitez igurikatu zuen, halako bulego batean, Herritarra gogoetatzeko hara baztertzen baitzen.

Haren ongi-ethorria ohian baino gutiago murrizta izan zen.

Arnoux-en ixtorioa erran zuen. Faianza egile ohiak erasiatua zuen Mignot, abertzale bat, *Siècle* egunkariko ehun diru-balioen jabea, hari erakutsiz behar zirela, ikuspegi demokratikoan, horren buruzagitza eta idazleria aldatu; eta, diru-baliodunen bilzarre hurbilean bere aburuari irabaz-arazteko estakuru, berrogei-ta hamar diru-balio galdeginak zauzkon, adixkide segur batzuer eman-araziko zauezteela erranez, hauk haren boza lagunduko baitzuten; Mignot-ek etzuen buruperik batere ukanen, nehorekin etzen samurtuko; gero, ondorio onera heldurik, adminiztrazionean leku on bat ukan-araziko zaukon, bortz edo sei mila liberakoa bederen. Diru-balioak emanak izanak ziren. Baina Arnoux-ek, berehala, salduak zituen; eta, diruarekin, erlisionekeo gauza saltzale batekin partaliengoan jarria zen. Hortan, Mignot-ek oihu, Arnoux-ek luzamen; azkenik, herritarrak ohointzaz auziratze batez mehatxatua zuen, bere diru-balioak edo hein bereko dirua ezpazituen itzultzen: berrogei-ta hamar mila libera.

Federikek etsitua iduritu zuen.

- “Ezta hori guzia,” erran zuen Herritarrak. “Mignot, gizon ona baita, laurdenera jautsi da. Bertzeak hitzemaite berri, erran gabe doa jukutria berri. Hots, herenegun goizean, Mignot-ek erran dauko biphilki itzul dezazkon, hoge-ta laur oren barne, bertzeak bertze, hamabi mila liberak.

- “Baina baditut!” erran zuen Federikek.

Herritarra emeki itzuli zen:

- “Jostakina!”

- “Barkatu! Sakelan ditut. Ekhartzen nituen.”

- “Nola ari ziren, zu! Debrientxo! Bertzela ere, ezta gehiago ordu; auzian ezarria da, eta Arnoux joana.”

- “Bakarrik?”

- “Ez! emaztearekin. Havre-ko garan aurkituak izanak dira.”

Federik izigarriki zuritu zen. Regimbart Andereak aldixartuko zela uste ukan zuen. Atxiki zuen, indarra ukan zuen ere gertaldiaz bizpahirur galderen egiteko. Regimbart hortaz trixtatzen zen, hori guzia kaltegarri baitzen Demokraziarendako. Arnoux beti gobernurik eta ordenurik gabea izana zen.

- “Egiazko zoriburu bat! Ezkoa bi buruetarik erretzen zuen! “Kotillunak” galdu du! Eztut hura urriki, baina haren emazte gaixoa!” ezen Herritarrak emazten bertuteak miresten zituen, eta Arnoux Anderea handizki estimatzen. “Eztuke guti pairatu!”

Federik atxikimendu hortaz esker on ukan zaukon; eta, haren ganik zerbitzu bat ukana balu bezala, eskua suharki tinkatu.

- “Behar ziren guziak eginak dituka?” erran zaukon Rosanette-ek berriz ikustean.

Etzuen kuraiarik ukana, zuen ihardetsi, eta nora nahi ibilia zen, karriketan, burxoratzeko.

Zortzi orenetan, jateko salara iragan ziren; baina bata bertzearen aitzinean ixilik egon, artetan hasperen luze bat egiten zutela eta azieta gibelera uzten. Federik aguardientetik edan zuen. Guzia andeatua sendi zen, lehertua, jeuseratua, akidura handi bat ezpada bertzerik ezer gogoan ukan gabe.

Rosanette potretaren bila joan zen. Gorriak, horiak, muskerrak eta urdin-ilunak bortizki elgar joiten zuten, eta gauza ezin itsusiago bat egiten, abantzu irri egitekoa.

Bertzela ere, hil ttipia, ezin ezagutua zen orai. Ezpainen margo ubelduak handitzen zaukon larruaren zuria; sudur hegalak meheago zituen oraino, begiak sartuago; eta burua oihal zeta urdin batean etzana zuen, kamelia, larrazkeneko arrosa eta briolet lore-orsto batzuen artean; gelariaren ideia bat zen; biek horrela antolatua zuten, debotki. Khebideak, gipurako estalgi batekin ezarria, bazaduzkan zilhar urreztatuzko argi batzu ezpel benedikatu aldaxkez artekatuak; izkinetan, bi untzietan, pastilla batzu erretzen ari ziren; horrek guziak egiten zuen ohakoarekin halako aldare bat bezala; eta Federik Dambreuse Jaunaren beilatzeaz orhoitu zen.

Oren laurden oroz, nunbait han, Rosanette-ek erridauak baztertzen zituen haurrari beha egoiteko. Bazakusan, zenbait ilabeteren buruko, urratsean abiatzen, berantago ikastetxeko korralearen erdian, marretan jostatzen; gero hogei urtetan, mutiko gazte; eta iduri horiek guziek, berak asmatzen zituenak, egiten zauzkoten galduak ukanen zituen bertze hainbertze seme, - bihotzminaren soberakinak amatasuna gehitzen baitzaukon.

Federik, bertze jargian geldi-geldia, Arnoux Anderea gogoan zagon.

Burdinbidean zatekeen, begitarte bagon baten berinari, eta gibelera, Paris aldera ihes egiten zuen baserriari beha, edo bapor-untzi bateko zubian, lehen aldian ikusia zuen bezala; baina hau bazoan gelditu gabe handik jalgiko etzen herri batzuetara. Gero bazakusan ostatu bateko gambaran, lurrean mala batzuekin, murruetako paperra zintzilakatua, athea haizera ikharan. Eta gero? zer bilakatuko zen? Errientsa, kompainiako andere, gelari behar bada? Miseriako halabehar guzien menean zen. Zer zori ukanen zuen ez jakite horrek oinazkatzen zuen. Etzuen ihes egitera utzi behar edo behar zuen haren gibeletik abiatu. Etzena haren egiazko senarra? Eta, nehoiz etzuela berriz aurkituko gogoari eman ez, zinez guzia bururatua zela, itzultzerik gabe galdua zuela, bere izaite guziaren urradura bat bezala sendi zuen; goizetik atxikiak zituen nigarrak gainditu ziren.

Rosanette ohartu zizeen.

- “Ha! nigarrez ari hiz! Griña baduk?”

- “Bai! bai! badinat!...”

Federikek besoetan tinkatu zuen, eta biak besarkatuak hipaka ari izan ziren.

Dambreuse Anderea ere nigarrez ari zen, bere ohean etzanik, ahuspez emana, burua eskuetan.

Olympe Regimbart-ek, kolorezko lehenbiziko zaiaren entseatzera jinik, errana zuen Federiken ikustaldia, eta ere bazituela hamabi mila libera eskuan Arnoux Jaunarendako.

Beraz diru hori, haren dirua, bertzearen joaitera ez uzteko zen, bere ohaidearen atxikitzeke!

Lehenik errabia aldi bat ukan zuen: mutil bat bezala haizatuko zuela deliberatu zuen. Nigar nasai batzuek eztitu zuten. Guziaren gordetzea hobe zen, deusik erran gabe.

Federikek, biharamunean, hamabi mila liberak itzuli zituen.

Atxik zitzan othoiztu zuen, beharrez, bere adixkidearendako, eta jaun hortaz ainitz galdekatu. Nork zuen bada horrelako konfientzia haustera bultzatua? Emazte batek, agian! Emaztek gaizki guzietara eremaiten baitute.

Doinu trufari horrek Federik ustegabetu zuen. Gaitzerranaz handizki ogendun sendi zen. Segurtatzen zuena, Dambreuse Andereak egia etzezakeela jakin zen.

Hau hortan hisi-hisitu zen, bizkitartean; ezen, biharamunagoan, haren lagunttoaren berriak galdegin zauzkon oraino, gero bertze batenak, Deslauriers-enak.

- “Gizon segurra dea eta adimendukoa?”

Federikek goraiatu zuen.

- “Othoitz-ezak egun hautarik batez etxera jin dadin; haren aholkua nahi nikek egiteko batez.”

Paperreria biribilkatu bat aurkitua zuen Arnoux-en billet osoki aithortu batzu bazaduzkanak, hetan Arnoux Andereak bere izena ezarria baitzuen. Horiendako zen Federik aldi batez Dambreuse Jaunaren etxera bazkari ordutan ethorria; eta, nahiz etzen kapilatixta haien ordain-arazteko urrunago joan nahi izana, salerospenetako Auzitegiari eman-arazia zaukon, ez bakarrik Arnoux-en kondenatzea, baina emaztearena ere, hunek jakin gabe, senarrak ezpaitzuen erran behar zaukola uste ukana.

Harma bat zen, hori! Etzuen Dambreuse Andereak dudatzen. Baina notariak emanen zaukon behar bada deusen ez egiteko aholkua; ezezagun norbait nahiago zuen; eta putiko handi hartaz orhoitua zen, bere begitarte ozarrarekin, zerbitzu emaitea eskainia zaukona.

Federikak mezua eman zaukon lañoki.

Abokata loriatua izan hoin andere handiarekin harremanetan ezarria izaitez.

Lasterrez ethorri zen.

Andereak jakin-arazi zaukon ondoriotasuna ilobarendako zela, Martinon senar-emaztekin hoberenean egin nahiz, ordainduko zezteen hartze horien garbian ezartzeko arrazoin bat gehiago.

Deslauriers-ek hartu zuen azpi hortan bazela mixterio zenbait; billeter beha ametsetan ari zen. Arnoux Anderearen izenak, berak izkiritua baitzuen, begien aitzinean ezarri zauzkon haren itxura eta ukana zuen laidoa. Mendekioa bera heldu zenez geroz, zergatik ez har?

Eman zaukon beraz Dambreuse Andereari ondoriotasunean barne ziren hartze etsituen antxeretan sal-arazteko aholkua. Eskuko gizon batek azpiz berrerosiko zituen eta jaukitzeak eginen. Gizon horren hatzemaitea bere gain hartzen zuen.

Hazaro azkenera, Federikek, Arnoux Anderearen karrikan iragaitean, begiak leihoetara goititu zituen, eta iragarki bat athe ondoan ikusi, hartan baitzen hizki larriz:

“Mubleria aberats baten saltzea, badituena sukaldeko untzeria, soineko eta mahiko oihal, athorra, dentela, zaiazpiko, galtza, Frantziako eta Indiako kaxamira, Erard-en pianoa, Berpizteko bi khuxa, Veneziako mirail, Xinako eta Japoniako eltzei.”

- “Haien mubleria da!” egin zuen bere baitan Federikek; eta athezainak aieru horietan baieztatu zuen.

Sal-arazten zuena nor zen, etzakien. Baina Jn Berthelot preziazaleak argitasunak emanen zituen behar bada.

Ofizariak etzuen erran nahi ukan, hastapenean, zein hartzedunek zuen saltzea egin-arazten; Federik hisitu zen. Senecal jaun bat zen, egitekoetako gizon bat; eta Jn Berthelot-ek ikustatea ereman zuen ere *Iragarki ttipi*-etako bere berrikariaren uzterano.

Federikek, Rosanette-ren etxera heltzean, mahira egotzi zuen idekirik.

- “Irakur ezan bada!”

- “Baina, zer?” erran zuen, begitarte hain ezazolarekin nun Federik sumindua izan baitzen.

- “Ha! erran ehizala ogendun!”

- “Eztiat entzuten.”

- “Hik duna Arnoux Anderea sal-arazten?”

Iragarria zena berrirakurri zuen.

- “Haren izena nun duk?”

- “He! haren mubleria dun! Nik baino hobeki badakin!”

- “Zer axola diat hortaz?” erran zuen Rosanette-ek soingainak goitituz.

- “Zer axola duna? Baina mendekatzen hiz, horra dena! Hire gaixtakerien jarraitzea dun! Eztuna laidoztaturik ukana haren etxerano joanez! Hi, neska ezteus bat. Emazte sailduena, xoragarriena eta hoberena! Zergatik ari hiz amorratuki haren hondatzen?”

- “Huts egiten duk, erraiten daukat!”

- “Goazen bada! Ezpahu bezala Senecal aitzineko ezarria!”

- “Zer zozokeria!”

Orduan, erotze batek ereman zuen.

- “Gezurra dun! gezurra! ezteusa. Hartaz bekaizti hiz! Badun haren senarren kontrako kondenamendu bat! Senecal jadanik hire egitekoetan sarturik izana dun! Arnoux hastiatzen din, zuen bien herrak elgarri lotuak ditun. Ikusi dinat haren bozkarioa lurzuriko auzia irabazi dunalarik. Ukatuko duna, hori?”

- “Hitzemaiten daukat...”

- “Oi! ezagutzen dinat, hire hitzemaitea!”

Eta Federikek orhoit-arazi zauzkon ukan maitaleak bere izenatarik, xehetasun berezi batzuekin. Rosanette-ek, zuri-zuria bilakatuz, gibelera egiten zuen.

- “Horrek ustegabetzen hau! Begiak hesten nitinalakoan itsu nintzala uste huen. Oraikoan, badinat aski. Hire motako emazte baten azpikeriendako eztun hiltzen. Itsusiegiak bilakatzen ditunanean, bazterrera egiten dun; horien gaztigatzea norberaren zikintzea lizatekeen!”

Hura besoak bihurtuz ari zen.

- “Jainkoa, zerk du bada horrela aldatu?”

- “Hihaurez bertze nehork!”

- “Eta hori guzia Arnoux Anderearendako!”... egin zuen Rosanette-ek nigarrez.

Federikek berriz hotz-hotzik:

- “Ehoiz eztinat hura baizik maitatu!”

Laido hortan, nigarrak gelditu zizazkon.

- “Horrek zer gustu ona dukan erakusten dik! Jende adinera heldu bat, larruz errekaliza kolore, gerriz lodi, begiak soto zirritoak bezain handi, eta hek bezala hutsak! Laket zaukanaz geroz, habil haren gana!”

- “Horren beha nindagonan! Eskerrak!”

Rosanette geldi-geldia egon zen, ohigabeko ara horietaz balditua. Athea berriz hestera utzi zuen ere; gero, jauzi batez, aitzin-gambaran berriz hatzeman zuen, eta, besoez inguratuz:

- “Baina eroa hiz! eroa hiz! eztuk arrazoinik! maite haut!”
Othoizten zuen: “Jainkoa, gure haur ttipiaren izenean!”

- “Aithor ezan jokoa hik egina dela!” erran zuen Federikek.

Goraki erran zuen etzuela ogenik.

- “Eztun aithortu nahi?”

- “Ez!”

- “Beraz, goraintzi! eta betikotz!”

- “Entzun nezak!”

Federik berriz itzuli zen.

- “Hobeki ezagutzen baldin banindun, bahakike deliberatu dutana ezin aldatua dela!”

- “Ho! Ho! Ho! itzuliko hata!”

- “Ez behin ere!”

Athea bortizki jo-arazi zuen.

Rosanette-ek izkiriatu zaukon Deslauriers-i berehala haren beharretan zela.

Bortz egun berantago ethorri zen, arrats batez; eta, hautsia zutela errana ukan zaukolarik:

- “Hori baizik eztea! Zorigaitz ederra!”

Hark uste ukana zuen lehenik Federik itzul-arazi ahalko zaukola; baina, orai, guzia galdua zen. Ikasia zuen, athezainaren ganik, Dambreuse Anderearekilako ezkontza hurbila.

Deslauriers-ek morala egin zaukon, bere burua erakutsi zuen ere bereziki alai, jostakin; eta, biziki beranta baitzen, gauaren iragaitea jargia batean eskatu zuen. Gero, biharamun goizean, Nogent-era itzuli zen, aitzinetik hari erranez berriz noiz elgar ikusiko zuten etzakiela; hemendik ephe gutiz, bizian aldamen handia ukanen zuen behar bada.

Hura itzuli eta bi orenen buruan, hiria nahasmenean zen. Bazioten Federik Jaunak Dambreuse Anderea esposatuko zuela. Azkenean, Augier hirur andereñoak Moreau Anderearen etxera joan ziren, berri hori urgulurekin baieztatu baitzuen. Roque aita hortaz eritu zen; Luixa hetsirik egon. Berria ibili zen ere erotua zela.

Bizkitartean, Federikek bere bihotz-mina etzezakeen gorde. Dambreuse Andereak, hortarik baztertzeko behar bada, bikunduz arthatzen zuen. Arratsalde oroz, bere karrosan ibiltzen zuen; eta, Molsako plazan zehar zoazin aldi batez, preziatzalen hotelera sartu nahi ukan zuen, jostatzeke.

Negilaren lehena zen, Arnoux Anderearen gauzen saltzea egin behar zen eguna bera. Federik hortaz orhoitu zen, eta sendi zuen higundura agertuz, leku hori ezin jasana zela erran zuen, jendetzearen eta harrabotsaren gatik. Hark nahi zuen bakarrik begi ukaldi bat eman. Karrosa motza gelditu zen. Jarraiki behar izan zen bada.

Korranean ikusten ziren untzirik gabeko ikuztegi, zare zahar, porzelana hautsi, botoila huts, matalatz; eta taulierr edo maripulis zikin

batzuekilako gizon batzu, errautsez urdinduak, begitartea zikin, batzu sokazko zorro batzu soingainean, multzoka elheketa zauden edo elgarri helez harramantza batean.

Federikek aitzineratu zituen urrunago joaiteko ziren nekeak.

- “Ha! bah!”

Eta mailaldea igan zuten.

Lehenbiziko salan, eskun, jaun batzu, bilduma bat eskuan, margazki batzuer beha zauden; bertze batean, Xinako harma batzu saltzen ziren; Dambreuse Andereak jautsi nahi ukan zuen. Athe gainetako zenbakier behatzen zuen, eta barnebidetako bururano ereman zuen, jendez mukurru zen barne batera.

Federikek ezagutu zituen berehala *Edergintza Industrial*-eko bi tauladak, jostelaneko mahia, haren muble guziak! Zokoan metatuak, handitasunaren araura lerrokatuak, ezponda zabal bat egiten zuten zolatik leihotarano; eta, barnearen bertze aldetan, tapizak eta erridauak dilindan zauden harresien luzara. Baziren, azpian, mail batzu erdi-lo zauden gizon zahar batzuek bazaduzkatenak. Ezkerretik, halako khondumahi bat bazen, hartan preziazaleak, lephoko zuriarekin, mailu ttipi bat arinki goititzen baitzuen. Mutiko gazte bat, haren ondoan, izkiriartzen ari zen; eta, beherago, zutik, putiko azkar batek, erdi komis ibilkari erdi kontra-marka saltzale, mubleak oihukatzen baitzituen. Hirur mutilek ekhartzen zituzten mahi baten gainera, bazterrean baitzituen, lerroan jarriak, zaharki saltzale eta emazte bersaltzale batzu. Jendea bazabilan horien gibelean.

Federik sartu zenean, zaiazpikoak, lephokoak, mokanesak eta athorretarano eskuz esku ibiliak ziren, itzuliak; zenbait adiz, urrunera botatzen ziren, eta bapatez airea zuri batzuek zeharkatzen zuten. Gero, zaia batzu saldu ziren, gero luma hautsirik erortzen zizakon xapeletarik bat, gero larrueriak, hirur botina pare; - eta errelika horien banakatzea, nahasiki aurkitzen baitzauen haren soinadarren moldea, sarraski bat iduritzen zizakon, ikusi balitu bezala bele batzu haren gorputzaren xehakatzen. Salako aireak, dena hatsez kargatua, higuntzen zuen. Dambreuse Andereak bottoila bat eskaini zaukon; biziki jostatzen zela zion.

Etzateko gambarako mubleak erakutsi ziren.

Jn. Berthelot-ek prezioak iragartzen zituen; oihukariak, berehala, indarrekin errepikatzen; eta hirur komisariak igurikatzen zuten gostuan mailu ukaldia, gero gauza bazeramaten ondoko barne batera. Horrela

itzali ziren, batzu bertzen ondotik, kameliez ihautua zen tapiza urdin handia haren oin pollitek hunkitzen baitzuten Federiken gana heldu zenean, bakarrik zirenean hau haren aitzinean beti hartan jartzen zen tapizeriazko jargia ttipia; bi khebide aitzinekoak, bolia eztiagotua baitzuten haren eskuen hunkitzeaz; balusazko harilgo bat oraino izkilimak inguruan. Gauza horiekin bihotzeko zati batzu bezala zizazkon joaiten ari; eta mintzo beren berdintasunak, jestu berenak akiduraz zurruntzen zuen, losun hilkor batean urtzen.

Zeta batek kraxkatu zaukon beharrira; Rosanette-ek hunkitzen zuen. Bihotzmina iraganik, hortaz baliatzea gogoratua zizakon. Bertzearen ikusteko heldu zen, perlazko botoinekilako satin xurizko barneko motxean, zaia hegaldun batekin, eskularruak tinki, itxura garhaile.

Federik haserrez zuritu zen. Hark ondoan zuen emazteari so egin zaukon.

Dambreuse Andereak ezagutua zuen; eta, minuta batez, elgarri gain-behera beha egon ziren, arthoski, hutsa, narraioa nun zen hatzemaiteko, - bata behar bada bertzearen gaztetasunaz bekaizti, eta hau gaitzitua etsaiaren itxura ezin hobeaz, lañotasun arixtokratikoaz.

Azkenean, Dambreuse Andereak burua itzuli zuen, ozartasunezko erdi-irri ezin erran batekin.

Oihukariak idekia zuen piano bat, - haren pianoa! Zutik zagolarik, gama bat jo zuen esku eskunaz, eta tresna hamabi ehun liberetan iragarri, gero milatara jautsi, zortzi ehunetera, zazpi ehunetara.

Dambreuse Anderea, doinu eroxka batekin, tresna txarraz trufatzen zen.

Zaharki eroslen aitzinean ezarri zen medailunak eta izkin eta heskailu zilharrezkoak zituen khutxaño ttipi bat, Federikek Choiseul-go karrikako lehenbiziko auharian ikusia zuen hura bera, gero Rosanette-ren etxean izana zena, berriz Arnoux Anderearenera itzulia; usu, elgarrekilako solasaldietan, begiek hartan joiten zaukoten; zituen orhoitzapen maitatuener lotua zen, eta arima beraztasunez urtzen ari zizakon, Dambreuse Andereak bapatez erran zuenean:

- “Ori! erosiko dut.”

- “Baina ohargarririk jeus eztu”, egin zuen hark.

Biziki pollita aurkitzen zuen, aldiz; eta oihukariak lanaren arraroa gorai patzen zuen:

- “Berphizteko joia bat! Zortzi ehun libera, Jaunak! Abantzu osoa zilharrezkoa! Espainiako xuri apur batekin, distiratuko du!”

Eta, hura jende artean aitzinatzen baitzen:

- “Zer ideia bitxia!” erran zuen Federikek.

- “Gaitzitzen zitu?”

- “Ez! Baina puxkila horrekin zer egin daiteke?”

- “Nork daki? maitasunezko eskutitz batzu ezarri, behar bada?”

Behako bat ukan zuen aierua osoki argitzen zuena.

- “Hiler bere segetuen ez ekhentzeko arrazoin bat gehiago.”

- “Enuen anderea hain hila zela uzte.” Berriz egin zuen hitzak bereziz: “Zortzi ehun eta lauretan hogeita libera!”

- “Egiten duzuna ezta ontsa”, murmurikatu zuen Federikek.

Hura irriz ari zen.

- “Baina, adixkide maitea, eskatzen dautzutan lehenbiziko gauza da.”

- “Baina etzira senar maitagarria izanen, badakizu?”

Norbaitek antxera azkartua zuen; hark eskua goititu zuen:

- “Bederatzi ehun libera!”

- “Bederatzi ehun libera!” errepikatu zuen Jn. Berthelot-ek.

- “Bederatzi ehun eta hamar... hamabortz... hogeita... hogeita hamar!” garrasiatzen zuen oihukariak, behakoa han zirenen gainean zerabilan batean, burua ukaldika higituz.

- “Erakuts ezatazu emaztea arraizoinekoa dutala”, erran zuen Federikek.

Eztiki athe aldera ereman zuen.

Preziatzalea atzina ari zen:

- “Goazen, goazen, jaunak, bederatzi ehun eta hogeita hamar! Ehun eta hogeita hamarretan badea erosle?”

Dambreuse Anderea, alhazera heldua baitzen, gelditu zen: eta, mintzo gora batez:

- “Mila libera!”

Jendean ikhara bat izan zen, ixil bat.

- “Mila libera, jaunak, mila libera! Nehork ezti bertzetik, ikusia? mila libera - Utzia!”

Bolizko mailuak jo zuen.

Hark bere karta eman-arazi zuen, khutxañoa eman zizakon. Mahunga-pean sartu zuen.

Federikek hotz handi bat senditu zuen bihotzean barna.

Dambreuse Andereak etzaukon besoa utzia; eta karrigarano etzizakon begitartera so egitera menturatu, karrosak han igurikatzen baitzuen.

Hara jauzi zen ihes egiten duen ohoin bat bezala, eta, jarria izan zenean, Federiken gana itzuli zen. Hunek xapela eskuan zadukan.

- “Etzira igaiten?”

- “Ez, Anderea!”

Eta, hotzik agurtzen zuela, athexka hetsi zuen, gero karrosazainari abia zadin kheinu egin.

Lehenik ukan zuen bozkariozko eta beregaintasun berrirabaziko sendimendu bat. Burgoi zen Arnoux Anderea mendekatua ukanik fortuna bat harendako utziz; gero bere egintzaz ustegabetua izan zen, eta mugagabeko akidura batek lehertu zuen.

Biharamun goizean, mutilak ikasi zauzkon berriak. Setio-legea erabakia zen, Bilzarre nazionala barreatua, eta deputatu andana bat Mazas-era igorria. Politikako gauzek etzuten axolatu, hanbat zen bere egitekoez hartua.

Saltzale batzuer izkiriatu zauen ezkontzari buruzko erosketa batzuen uzteko, hau jukutria apur bat itsusia iduritzen baitzizakon orai; eta Dambreuse Anderea hastiatzen zuen aphalkeria bat egina ukaiter baitzuen haren gatik. Marexalsa ahazten zizakon, etzen Arnoux Andereaz beraz axolatzen, gogoan ezpaitzuen bere burua baizik, amets hondatuetan galdua, eritua, bihotzminez eta etsipenez betea; eta, hartan hainbertze oinazkaturik izana zen ingurune hutsalaren hastioz, nahi ukan zituen belarreko hoxtura, probinziako atsedena, bizi logale bat han iaioa zen hegaztegiaren itzalean, bihotz laño batzuen artean. Astezken arratsean, azkenean, jalgi zen.

Jende multzo ainitz bazauden karrika handian. Noiztenka, soldado alde batek barreatzen zituen; haren gibelean berriz moldatzen ziren. Libroki mintzo ziren, armadaren kontra trufa eta laido oihukatzen zuten, gehiagokorik ezer gabe.

- “Nola! eztea gudukatuko?” erran zaukon Federikek langile bati.

Taulierrarekilako gizonak ihardetsi zaukon:

- “Burjesendako hiltzeko ezkira aski zozoak! Akomea beite!”

Eta jaun batek marmarikatu zuen, hiribaztertarrari zeharka so eginez:

- “Zozialixta gaixtaginak! Guziak suntsitzen ahal balire, aldi huntan?”

Federikek jeus etzuen entzuten hoinbertzeko gorromio eta zozokerian. Parisez zuen higundura handitu zizakon; eta, biharamunagoan, Nogent-era abiatu zen lehenbiziko treinan.

Etxeak laster itzali ziren, baserria zabaldu zen. Bere bagonean bakarrik eta oinak jarlekuan ezarririk, gogoan bazerabiltzan azken egunetako gertaldiak, iragan bizi guzia.

Berriz Luixaz orhoitu zen.

- “Maite ninduen, hark! Zorion hori ez hartuz huts egin dut... Bah! gogotik utz dezagun!”

Eta, bortz minuta berantago:

- “Lañoa zen, baserritar bat, abantzu basa, baina hain ona!”

Nogent-era buruz zoan arau, hura hurbiltzen ari zizakon. Sourdun-go phentzeak iragan zirenean, ikusi zuen lehen bezala zuharren artean, putzu bazterretan ihi mozten; heltzen ari ziren; jautsi zen.

Gero ukondoak zubian emanik egon zen, iguzki zen egun batez han ibiliak ziren irlaren eta baratzearen ikusteko; - eta bidaiak eta aireak eman burxoratzean, berriki sendituak zituenetarik atxikia zuen ahultasunean, egin zuen bere baitan:

- “Behar bada jalgia da; aitzinera joaiten banindako!”

San-Laurenzeko ezkilak joiten zuen; baziren plazan, elizaren aitzinean, jende behartu multzo bat eta kalexa bat, herriko bakarra (ezteietako erabiltzen zena), bapatez, athari-pean, lephoko zuriekilako burjes uhain baten erdian, bi ezkondu berri agertu zirenean.

Lilluratua zela uste ukan zuen. Baina ez! Hura zen bada, Luixa! - ile gorrietarik aztaletara jausten zizakon mantalina xuri baten azpian; eta hura zen ere, Deslauriers! - soineko urdin zilharrez aphaindu batekin, prefet jantzi bat. Zergatik bada?

Federik etxe baten izkinan gorde zen, jende aldearen iragaitera uzteko.

Ahalgetua, garhaitua, lehertua, berriz burdinbidera buruz joan zen, eta Parisera itzuli.

Fiakrako karrosazainak ikasi zaukon barrikadak eraikiak zireka Ur-Gaztelutik Gymnase-rano, eta Dona-Marteko hiribazterretik hartu zuen. Probenzako karrika izkinan, Federikek oina lurreratu zuen karrika handietara buruz joaiteko.

Bortz orenak ziren, eurixka ari zen. Burjes batzuek bazadukaten oinbidea Operako aldetik. Etxeak aitzinean hetsiak ziren. Nehor ez leihoetan. Karrika handiaren zabal guzian, dragon batzu bazoazin

lauhazka, joan ahala, zaldien gainera gurturik, sabrea eskuan; eta haien kasketako khimak, eta gibeletik goititzen zizezteen bizkarreko zuri handiak bazoazin, haizera lanhoan bihurdikatzen ziren gaza mokoetako argiaren aitzinetik. Jendea haier beha zagon, ixil, laztatua.

Zaldieriaren olden artetik, hiriko zaintzale multzo batzu agertzen ziren, jendearen gibel-arazteko karriketara.

Baina, Tortoni-ko mailen ganean, gizon bat - Dussardier - bere gorputz-ara goratik ohargarri, bazagon gizairudi bat baino gehiago higitu gabe.

Aitzinean zoazin zaintzaletarik batek, hirur adarretako xapela begien gainera, ezpataz mehatxatu zuen.

Bertzea, orduan, urrats batez aitzineratuz, oihuz hasi zen:

- “Gora Errepublika!”

Bizkarraren gainera erori zen, besoak gurutzean.

Lastazko orro bat jalgi zen jendaldetik. Zaintzaleak bere soaz inguru bat egin zuen itzulian; eta Federikek, balditua, ezagutu zuen Senecal.

VI

Bidaietan ibili zen.

Ezagutu zituen untzi handietako gogo-ilundura, etxe-oihal azpiko atzartze hotzak, eskualdetako eta eraikuntza hondatueta burxoratzea, atxikimendu hautsietako samindura.

Berriz itzuli zen.

Mundua berrikusi zuen, eta oraino bertze maitasun batzu ezagutu. Baina lehenbizikoaren orhoitzapen ethengabeak gezak bilakatzen zauzkon; eta gutziaren bortitza, senditzearen lore hura bera galdua zuen. Izpirituko handi-nahiak ere ttipituak zitzazkon. Urteak iragan ziren; jasaiten zituen adimeneko auherreria eta bihotzeko geldia.

1867-ko ephailaren erditsutan, iluntzera, bere gabinetean bakarrik zagolarik, emazte bat sartu zen.

- “Arnoux Anderea!”

- “Federik!”

Hark eskuetarik hartu zuen, eztiki leiho aldera ereman, eta Federiki beha zagon errepikatuz:

- “Hura da! Hura da beraz!”

Ilunabarreko erdi itzalean, etzituen haren begiak baizik ikusten, begitartea gordetzen zaukon dentela beltzezko burukoaren azpian.

Khebide bazterrean ezarria ukan zuenean balusa gorri-ilunezko molsa ttipi bat, jarri zen. Biak elgarri mintzatu ahal gabe egon ziren, irriño batekin.

Azkenean, galde ainitz egin zaukon bere biziaz eta senarraz.

Bretaniako zoko batean egoiten ziren, xuhurki bizitzeko eta zorren ordaintzeko. Arnoux-ek, abantzu beti eri, gizon zahar bat iduri zuen orai. Alaba Bordelen ezkondua zizakon, eta semea Mostaganem-en soldado. Gero burua goititu zuen:

- “Baina berriz ikusten zitut! Zorion dut!”

Haien behargabea jakinez etxera laster egina zuela erraitea etzuen huts egin.

- “Banakien!”

- “Nola?”

Korrarean ikusia zuen, eta gordea zen.

- “Zergatik?”

Orduan, mintzoa ikaran, eta hitzen artean hutsune handi batzuekin:

- “Beldur nintzan! Ba... zure beldur... eta ene!”

Aithormen horrek eman zaukon Federiki atseginez hartua izaite bat bezala. Bihotzak ukaldi handiz joiten zaukon. Hura berriz hasi zen:

- “Desenkusa nezazu ez lehenago jinik.” Eta molsa ttipi gorri palma urrez estalia erakutsiz: - “Zuretako brodatua dut, espesuki. Badaduka diru alde hura, Belleville-ko lurren balioak ordaindu behar zuena.”

Federikek emaitzaz eskertu zuen, hortako abiaturik erasiatuz.

- “Ez! Eniz hortako ethorria! Ikustaldi hau egin nahi nuen, eta gero itzuliko niz... hara.”

Mintzatu zizakon egoiten zen lekuaz.

Etxe aphalt bat zen, estaia bakar batekin, gaitzeko ezpelez betea zen baratze batekin eta bi gaztenondo lerrokoekilako ibilbide bat, handik itsasoa ikusten zen mendixkaren gainerano baitzoan.

- “Jartzera hara joaiten niz, alki batera, izendatua dutana: Federik alka.”

Gero mubler behatzen hasi zen, puxkiler, kadrer, amikatuki, bere gogoan eremaitekotan. Marexalsaren potreta erridau batez erdi gordea

zen. Baina zuri eta urre kolorek, ilunbearen erdian ageri baitziren, hara ereman-arazi zuten.

- “Emazte hau ezagutzen dut, iduriz?”

- “Ezin da!” erran zuen Federikek. “Italiako margazki zahar bat da.”

Haren besoan karriketan itzuli baten egiteko gutizia bazuela aithortu zuen.

Athera ziren.

Saldegietako argiak, artetan, ager-arazten zuen haren begitarteko orraze xuraila; gero itzalak hartzen zuen berriz; eta, karrosen erdian, bazoazin bere baitarik baztertuak izan gabe, ezer entzun gabe, baserrian elgarrekin dabiltzanak bezala, orsto zimelduzko ohatze baten gainean.

Elgarri erran zituzten lehengo egunak, *Edergintza industrial*-eko auhariak, Arnoux-en bitxikeriak, lephoko falsuko puntten thiratzeko zuen ara, muxtatxetan kozmetika lehertzekoa, bertze gauza batzu bereziagoak eta barnatuagoak. Zer xoramena ukana zuen lehen aldian, kantatzen entzun zuenean! Zein eder zen, bere besta egunean, Saint-Cloud-en! Orhoit-arazi zauzkon Auteuil-go baratze ttipia, arratsalde batzu antzokian, karrika handian elgar aurkitze bat, sehi izanak, emazte beltza.

Federiken orhoitzapenez ustegabetzen zen. Bizkitartean, erran zaukon:

- “Batzuetan, zure elheak heldu zazta urrungo oiharzun bat bezala, haizeak badakarren ezquila baten soinua bezala; eta badidurit hor zirela, liburuetan maitasunaz diren zati batzu irakurtzen ditutalarik.”

- “Hetan soberakeriaz erasiatzen den guzia, sendi-arazia dautazu,” erran zuen Federikek. “Charlotte-ren ogi-xerrek higuntzen eztituzten Werther-ak komprenitzen ditut.”

- “Gaixo adixkide maitea!”

Hasperen handi bat egin zuen; eta, ixil luze baten ondotik:

- “Axolarik eztu, elgar ontsa maitatu dugu.”

- “Elgarrenak izan gabe, alta!”

- “Hobe da behar bada,” egin zuen berriz.

- “Ez! Ez! Zer zoriona ukanen ginuen!”

- “Oi! uste dut, zurea bezalako maitasun batekin!”

Eta ontsa azkarra izan behar zuen berexte hoin luzearen ondotik irauteko!

Federikek galdegin zaukon hori nola jakina zuen.

- “Eskularruaren eta mahungaren artean musu egin zinautan arrats batez izan da. Orduan egin dut: “Baina maite nau... maite.” Hortaz segurtatzeko beldur nintzan, bizkitartean. Atxikitzen zinuen neurria hain zen loriagarri nun hartaz gozatzen bainintzan gizamen nahigabeko eta jarraiki batez bezala.”

Federik etzen jeusetaz urrikitu. Lehenagoko oinazeak ordainduak zitzazkon.

Sartu zirenean, Arnoux Andereak ekhendu zuen xapela. Girisailuak, bazter-mahi batean ezarria, haren ile zuriak argira eman zituen. Bulhar betean ukaldi bat bezala izan zen.

Nahigabe horren gordetzeko, lurrean eman zen haren balhaunetan, eta eskuak hartzen zauzkola, elhe amultsu erraiten hasi zizakon:

- “Zuk, zure jestu ttipienek iduri zautaten bazutela munduan ohigabeko balio bat. Ene bihotza, errautsa iduri, zure hatzetan airatzen zen. Udako gau bateko ilargi xuriak bezala egiten zinautan, oro usain on, itzal ezti, xuri eta mugagabea denean; eta haragiaren eta arimaren goxatasunak bazauden errepikatzen nuen zure izenaren barnean, neure ezpainetan musu emaitera entseatzen nindakolarik. Hartarik hara ezer enuen asmatzen. Arnoux Anderea zen, zinen bezala, bere bi haurrekin, samur, serio, lillurutzerano ederra, eta hain ona! Iduri horrek bertze guziak ezabatzen zituen. Hori gogoan nuena, ere! beti neure baitan barna banadukanaz geroz zure mintzoaren musika eta zure begietako dirdira.”

Loriarekin onhartzen zituen gehiago etzen emaztearendako ziren adorazione horiek. Federikek, bere elhekin xoratuz, erraiten zuenan sinesten zuen. Arnoux Anderea, bizkarra argiari itzulirik, haren gana gurtzen zen. Bekokian sendi zuen haren hatsaren phereka, eta jantzien artetik gorputz osoa hunkitzen bezala zaukola. Eskuak tinkatu zituzten; haren botinaren punta zaiaren azpian apur bat aitzinatzen zen, eta erran zaukon abantzu aldixartzera zoala:

- “Zure oinaren ikusteak nahasten nau.”

Ahalgezko indar batek hura zuti-arazi zuen. Gero, geldirik, lotarik dabilanaren doinu berezi batekin:

- “Ene adinean! hura! Federik!... Ehoiz ezta bat ni bezala maitatua izana denik! Ez, ez! gazte izaiteak zer balio du? Ontsa irri egiten dut! gutiesten ditut, hunara datozen emazteak oro!”

- “Oi! ezta ainitz jiten!” egin zuen hari gustatzeko.

Begitartea argitu zizakon, eta ezkonduko zenez jakin nahi ukan zuen.

Ezetz zin egin zuen.

- “Ontsa segur? zergatik?”

- “Zuregatik”, erran zuen Federikek hura besoetan tinkatuz.

Hor egoiten zen, gerriaz gibelera, ahoa erdi idekia, begiak goititurik. Bapatez, gibelera igorri zuen etsipenezko itxura batekin; eta, ihardets zezon othoizten baitzuen, erran zaukon burua beheitiuz:

- “Zoriona eman nahiko nautzun.”

Federikek ukan zuen Arnoux Anderea bere buruaren eskaintzera ethorria zelako aierua; eta nehoiz baino gutizia azkar, erotu, errabiatuago batez hartua zen berriz. Bizkitartean, ezin erranezko zerbait sendi zuen, higundura bat, eta abantzu ahaidekeriaren lazta bat bezala. Bertze lotsa batek gelditu zuen, berantago narda ukaitearenak. Bertzela ere, zer eragozpena izanen zen! - eta aldi berean zuhurtziaz eta bere idealaren ez itsusteko, aztalen gainean itzuli zen, eta zigarreta baten egiten hasi.

Hark behatzen zaukon, miresmenekin.

- “Zein polliki ari ziren! Ezta zu baizik. Ezta zu baizik.”

Hamaiketik jo zuten.

- “Jadanik!” erran zuen; “laurdenean, banoake.”

Berriz jarri zen; baina erloiari beha zagon, eta hura aitzina bazabilan pipatuz. Etzuten biek elgarri erraiteko gehiago jeus aurkitzen. Ordu bat bada, berextetan, maite dena ezpaita gehiago gurekin.

Azkenean, orratzak hogeita bortz minutak iraganik, xapela xingoletarik hartu zuen, emeki.

- “Goraintzi, adixkidea, adixkide maitea! Etzitut berriz ehoiz ikusiko! Ene emazte urrats azkena zen. Etzitu ene arimak utziko. Zeruko benedizione guziak badaudela zurekin.”

Eta bekokian musu eman zaukon ama batek bezala.

Baina zerbaiten bila zabilala iduri ukan zuen, eta aixturak galdegin zauzkon.

Orrazea ekhendu zuen; ile zuri guziak erori zizazkon.

Moztu zuen, bortizki, errotik, xerlo luze bat.

- “Atxik izkizu! goraintzi!”

Jalgia izan zenean, Federikek leihoa ideki zuen, Arnoux Andereak, oinbidean, aitzineratzeko jestu bat egin zaukon baziragan fiakra bati. Barnera igan zen eta karrosa itzali.

Eta guzia hori izan zen.

VII

Negu hortako hastapen inguruan, Federik eta Deslauriers supazter xokoan solasean ari ziren, aldi bat gehiago baketurik, beti elgarrataratzen eta maita-arazten zituen jitearen halabeharraz.

Batak argitu zuen laburzki nola hautsia zuen Dambreuse Anderearekin, hau Angeles batekin berrezkondua baitzen.

Bertzeak, Roque Andereñoarekin nola ezkondua zen aipatu gabe, erran zuen emazteak, egun batez, kantari batekin ihes egina zaukola. Irrigarri izaitiaz apur bat xuritzeko, gobernamentuarendako gartsutasun gehiegi erakustera aitzinatua zuen. Kargutik ekhendua zuten. Izana zen, ondotik, Aljerian kolonia moldatzeko buruzagi, paxa baten segetari, egunkari baten buruan, iragartzetako artekari, azkenik industriako kompainia baten auzietako gizon izaiteko.

Federik aldiz, bere fortunaren hiruretarik biak xahuturik, burjes ttipi bizi zen.

Gero, elgarri galdegin zuten bere adixkiden berri.

Martinon senatore zen orai.

Hussonnet-ek bazuen kargu handi bat, hartan antzoki eta berrikari guziak eskupean baitzituen.

Cisy, erlisioneari emana eta zortzi haurren aita, bere arbasoen jauregian bizi zen.

Pellerin, “fourierixmoan” sartua izanik, homeopathian, mahi itzulikarietan, edergintza gothikoan eta margolaritza gizatarrean, argazkilari bilakatua zen; eta Parisko harresi guzietan erakutsia ikusten zen, jantzi beltzean soin ttipi-ttipi eta buru handi batekin.

- “Eta Senecal hire adixkide mina?” galdegin zuen Federikek.

- “Itzalia! Eztakiat! Eta hik, hire maitasun handia, Arnoux Anderea?”

- “Erroman datekek bere semearekin, soldado ihiztarietako ordezkaria.”

- “Eta haren senarra?”

- “Joan den urtean hila.”

Gero bekokian joz:

- “Hortan berean, joan den egun batez, saldegi batean, aurkitu diat Marexalsa on hura, semetako hartua dikan mutiko ttipi batekin.

Delako Oudry Jaun baten ganik alargundua duk, eta orai biziki loditua, itsuski. Zer erortea. Lehenago gerriz hain mehe zialarik.”

Deslauriers-ek etzuen gorde haren etsipenaz baliatua zela bera hortaz segurtatzeko.

- “Hihaurek baimena emana hautan bezala, bertzela ere.”

Aithormen hori Arnoux Anderearen ondoan entseatua zuenaz bazadukan ixilaren ordainaldi bat zen. Federikek barkatu zaukon, ondorio onik ukana etzuenaz geroz.

Nahiz horren jakiteaz apur bat gaitzitia, jeus etzuen erakustera eman; Marexalsaz orhoitzeak ekharri zuen Vatnaz-sarena.

Deslauriers-ek etzuen ehoiz ikusia, Arnoux-en etxera jiten ziren bertze ainitz bezala; baina biziki ontsa orhoit zen Regimbart-ez.

- “Bizi dea oraino?”

- “Doi-doia. Arrats oroz, erregularki, Grammont-ko karrikatik Montmartre-korano, ostatuen aitzinean herrestan badoak, ahuldua, makurtua, hustua, mamu egina.”

- “Ba eta, Compain?”

Federikek egin zuen bozkariozko oihu bat, eta Gobernamendu anartekoaren prefet ohia othoiztu aretxe buruaren mixterioa ikas zezon.

- “Angeleterratik ekharria duk. Erregetiarrek urtarrilaren 30-ean egiten zitean zeremoniaz ihakin egiteko, nehoren azpiko nahi etzutenek urtekal aphairu bat jarri zitean, hartan aretxe buruak jaten baitziren, arno gorritik aretxe burhezurretan edaten Stuart-tarren suntsitzeari dringatuz. Berolizen ondotik, terrorixta batzuek batasun berdin-berdin bat moldatu zuten, horrek erakusten baitu zozokeria emankor dela.”

- “Politikaz ontsa eztitua hizala iduritzen zatak!”

- “Adinaren ondorioa”, erran zuen abokatak.

Eta bere biziak eman zituzten laburpenez.

Biek huts egina zuten, maitasunaz amets egina zuenak, eta bothereaz egina zuenak. Arrazoina zer zen?

- “Marra zuzen baten eskasa duk behar bada”, erran zuen Federikek.

- “Hiretako, badatekek. Nik, alderantziz, zuzenegi izaiteaz diat huts egin, bigarren maileko mila gauzari, oro baino azkarragoak, behatu gabe. Arrazoin soberaz ari nindian, eta hi sendimenduarenaz.”

Gero, salatu zituzten halabeharra, gertaldiak, iaioak ziren aroa.

Federikek egin zuen berriz:

- “Etzian hori lehenago bilakatuko ginela uste ginikana, Filosofiaren ixtorio kritikalarri bat egin nahi huenean, eta nik, Nogent-*ez* elhaberri erdiaroko handi bat, gaia Froissard-en baitan aurkitua bainikan: *Fénestranges-ko Brokars jaunak eta Troyes-ko apezpikuak nola zuten Ambrecicourt-eko Eustache jauna jaukitu*. Orhoit hiza?”

Eta, bere gaztaroa lurpetik atheraz, erranaldi oroz, bazioten elgarri:

- “Orhoit hiza?”

Berrikusten zituzten ikastetxeko korrarea, kapera, elhategia, zaintzale eta ikasle batzuen itxurak, Angelmarre izeneko bat, Versailles-ekoa, bere oinazpikoak bota zahar batzuetan mozten baitzituen, Mirbal Jauna bere bazter-bizar gorriekin, marrazki zuzen eta marrazki handiko bi erakasleak, Varaut eta Suriret, beti aharran, eta Poloniarra, Copernic-en herritarra, bere borobil sistema kartoinekoarekin, haren ikastaldia jandegiko aphairu batekin ordaindu zen izar ikerle ibilkaria, - gero ibilaldi batean izigarriko mozkorraldi bat, erre zituzten lehenbiziko pipak, sarien banakatzeak, lanartetako bozkarioa.

1837-koetan ziren izanak Turkesaren etxean.

Horrela izendatzen zen egiazki Zoraide Turc izeneko emazte bat; eta jende ainitzek uste zuten mahometanoa zela, Turkesa, horrek handitzen baitzuen haren etxeko poesia, ur bazterrean jarria, hiriko harresien gibelean; uda minean ere, itzala bazen haren etxe inguruan, leiho baten gainean arrain gorriekilako bokal batek ezagun-arazten baitzuen gaude-lore untzi baten ondoan. Andereño batzuek, mantarmotz xurietan, matel hezurretan thindua eta beharrietako luze batzuekin, berinetan joiten zuten norbait iragaiten zenean, eta, arratsean, athermalhazean mintzo lodi batekin eztiki kantatzen.

Galtzeko leku horrek bazegien herrialde guzian ametsetako aipamen bat. Itzuli batzuekin erraiten zen: “Dakizun leku hura, - delako karrika bat, - Zubietako behean.” Ingurunetako laborarisak ikaran zauden bere senarrendako, bujestsak beldurtzen zituen sehien gatik, Jaun prefet-ordainaren kozinersa han ustegabetarik ikusia zelakotz; eta, erran gabe doa, mutiko gazte-gazten gogamen segetetukoa zen.

Igande batez, bada, jendea bezperetan zelarrik, Federik eta Deslauriers-ek ileak aitzinetik kuxkula-arazirik, lore floka batzu bildu zituzten Moreau Anderearen baratzean, gero landetako athetarik jalgi ziren, eta, mahastietan inguru handi bat eginik, Arraintzategitik itzuli

ziren eta Turkesaren etxera gordeka sartu, beti bere floka handiak eskuan.

Federikek berea eskaini zuen, maitale batek bere ezkongaiari bezala. Baina ari zen beroak, ez ezagunaren lotsak, halako urriki batek, eta hoinbertze emazteren, begi ukaldi bakar batez, ikusteko atseginak berak, hanbat zuten hunki nun biziki hits bilakatu baitzen eta han baitzagon aitzinatu gabe, hitzik erran gabe. Hek guziak irriz, haren eragozpenaz alaituak; usten eta trufatzen zuten, ihes egin zuen; eta, dirua Federikek baitzuen, Deslauriers jarraiki behar izan zizakon.

Jalgitzen ikusi ziren. Hirur urte ondotik ahatzia etzen ixtorio bat izan zen.

Elgarri luze-luzean erran zuten, bakoitzak bertzearen orhoitzapenak osatuz ; eta, bururatua ukan zutenean:

- “Ukana diagun hoberena hori duk!” erran zuen Federikek.

- “Bai, badatekek! Ukana diagun hoberena hori duk!” erran zuen Deslauriers-ek.

*
* *
*

Postface du traducteur

Une œuvre littéraire, de vers ou de prose, dans sa langue d'origine ou en traduction, étant une production linguistique avant tout, et quelle que soit la place que peut y tenir aussi le visuel, mise en page, alinéas et paragraphes, strophes, calligrammes ou autres figures d'impression, c'est d'être entendue qui lui donne sa vraie nature d'œuvre d'art et son existence pleine et entière. Les écrivains le savent mieux que quiconque: exemples parmi mille autres en littérature française, Jean-Jacques Rousseau enjoignant à son éditeur de supprimer une simple lettre ajoutée à son manuscrit parce qu'elle en "gâte l'harmonie", et bien sûr Gustave Flaubert lui-même. Flaubert, dit-on, avait près de sa maison de Croisset en Normandie son "gueuloir", où il pouvait essayer à haute voix le rythme et la sonorité de ses phrases. En passant du français au basque, langue radicalement différente, aussi bien pour les structures phonomorphologiques, la morpho-syntaxe nominale et verbale, l'ordre des mots dans la phrase, que pour le lexique fondamental dans sa presque intégralité - la part des emprunts latino-romans, adaptés à la phonétique basque en général, étant au contraire considérable dans le lexique général -, le texte de *L'Éducation sentimentale* sera forcément devenu, à très peu près (la plupart des noms de lieux et de personnes, des titres) vraiment méconnaissable, à la vue certes, mais bien davantage encore à l'oreille.

Le lecteur basque qui voudra aborder cette traduction du roman de Flaubert, l'un des plus élaborés sans aucun doute produits par le XIXe siècle, y retrouvera une langue bien plus proche, sinon pour l'orthographe largement régularisée déjà par Oyhénart (1657) et définitivement à l'aube du XXe siècle, de celle des "classiques" du domaine dialectal dit pas simplification "navarro-labourdin littéraire", qui ont nom Dechepare (1545), Liçarrague (1571), Axular (1643), Oyhénart (1657), Etcheberry (1712), que de ce qui se lit et s'entend le plus couramment aujourd'hui, y compris dans les lieux d'enseignement. Les différences correspondent souvent à des particularités dialectales très localisées, quoique de longue tradition, auxquelles aucun Basque ne peut, quel que soit son domaine dialectal d'origine, échapper, tant du moins qu'il garde le contact avec la pratique populaire heureusement encore très vivante en bien des endroits. Elles ne sont pas de nature, au demeurant, à gêner réellement la compréhension d'ensemble et de détail pour tout lecteur averti et tant soit peu familier de cette langue littéraire

dite avec raison “classique”, parce que, arrivée à un certain point d’élaboration expressive et stylistique, elle n’a cessé d’être pour les meilleurs écrivains, en basque comme dans les autres langues ayant un passé d’écrit littéraire, un point de référence constant.

Pour le lexique, dont la base et le cadre restent à très peu près celui du domaine dialectal compris au sens large du fameux dictionnaire de Lhande, le choix, quand il était possible c’est-à-dire presque toujours, est allé vers les termes spécifiques au basque, de préférence non empruntés (et c’est sans doute là où la langue littéraire choisie s’éloigne le plus des grands prosateurs anciens, Liçarrague et Axular par exemple, et aussi de pratiques actuelles extrêmement banalisées); et dans le cas des emprunts, vers ceux qui ont été le mieux adaptés au système phonomorphologique du basque historique aujourd’hui très bien connu. Il n’y pas lieu de s’attarder ici sur le détail de ces faits exposés ailleurs dans un ouvrage précédent à visée didactique.

Pour les formes verbales, en particulier les auxiliaires, toute confusion a été systématiquement évitée entre les formes parfois mélangées par l’usage entre transitifs et intransitifs, ou entre auxiliaires et autres (*dio* est toujours “il dit” etc.). Mais, contrairement à ce qui s’est passé en domaine “navarro-labourdin” depuis le temps des “classiques” cités, on ne s’est pas privé de restituer des formes de conjugaison non auxiliées de quelques-uns des verbes les plus courants, que les dialectes d’outre Pyrénées, comme l’on sait, ont su mieux conserver. Il en va tout autrement pour le complément du nom verbal, qui est en basque l’équivalent approximatif de l’infinitif latino-roman, mais véritable substantif (suffixé en *-te* ou *-tze*) déclinable et déterminable à volonté. Son complément déterminatif (“complément de nom”) n’est pas et ne peut être en basque, langue “ergative”, un “accusatif”: il est ou bien simplement antéposé et juxtaposé s’il est indéterminé, comme dans toute séquence nominale, ou bien au génitif en *-(r)en* s’il est déterminé singulier et pluriel. Cette structure typique du basque a été largement battue en brèche, comme bien d’autres, par le calque du modèle roman, depuis longtemps dans les dialectes ibériques occidentaux (les chansons biscayennes archaïques l’ont encore assez souvent, mais il n’est plus que très exceptionnel dans la langue “savante” du texte nouvellement découvert de Juan Perez de Lazarraga dans la seconde moitié du XVIe siècle; mais le roncalais, dialecte navarrais le plus oriental, en usait encore à la fin du XIXe siècle), et aujourd’hui même chez les nouveaux

locuteurs du domaine navarro-labourdin, alors que les anciens, surtout les moins “instruits”, étaient et sont encore parfaitement incapables de l’éviter.

Dans l’écriture ont été conservées quand il n’y avait pas d’équivoque, et selon le principe hugolien que l’écrivain - et le traducteur l’est aussi à sa manière - est tenu de “scruter les étymologies”, des formes anciennes autrefois générales pour quelques mots courants: *hirur* “trois”, *laur* “quatre” qui expliquent que leurs dérivés soient *heren* “tiers”, *laurden* “quart”, ou d’autres qui ont leur incidence phonétique, formes aujourd’hui très en retrait mais autrefois pan-dialectales, et qu’une bonne politique linguistique devrait sinon imposer (chaque locuteur comme chaque écrivain est “seul maître de sa langue”, à la seule condition de la savoir suffisamment bien), du moins favoriser et recommander, pourvu qu’elles soient encore vivantes dans l’un des domaines dialectaux: telles les séries étymologiques à groupe consonantique *-rtʒ-* comme *bertʒe* “autre”, *bortʒ* “cinq”, *ortʒegun*, *ortʒirale* “jeudi, vendredi”. Toutes ces formes et ces mots participent de la nature même de la langue dans sa très longue histoire, lui conférant une bonne part de sa personnalité, et sont par là des éléments inestimables de ce qui fait sa richesse et sa valeur.

Et puisque reparaît ainsi l’importance accordée au fait sonore, c’est très délibérément qu’on a été choisies des graphies qui, tout en restant très conformes à celles de la tradition “classique” indiquée, donnent au texte, l’orthographe du basque étant à très peu près “phonétique” (chaque signe représentant toujours le même phonème, comme en latin ou en espagnol, et à l’inverse de l’anglais ou du français), cette chose si essentielle: sa “couleur” sonore. Parmi les traits principaux qui, là aussi, peuvent différer des usages actuels les plus courants, il y a ceux-ci:

préfixation complète des assertifs négatifs (comme on le fait partout pour les positifs et les subordonnants), avec toutes leurs conséquences phonétiques: *eztut* “je ne l’ai pas” comme *enuen* “je ne l’avais pas” (1545 *enuyen*);

élimination de tous les doubles *-ee-* introduits assez récemment malgré leur parfaite inutilité dans les noms déclinés: *-ae-* du génitif pluriel de *gauzæen* “des choses” etc. s’étant partout réduit depuis longtemps à *-e-*, il n’y a aucune raison que la double voyelle *-ee-* soit artificiellement “rétablie” dans l’écriture, et encore moins dans la

prononciation, faisant entendre d'étranges "bêlements" chez les nouveaux locuteurs (1545 *Emazten fabore*); on l'a conservée seulement dans les formes verbales, soit auxiliaires (réduction de suites vocaliques complexes), soit éventuelles: le verbe "pivot de la phrase", et même en basque "résumé de la phrase", apparaîtra ainsi clairement, dans sa place, le plus souvent finale, totalement imprévue en général par rapport au texte français d'origine;

préférence accordée, en particulier dans les mots d'emprunts, aux sifflantes fricatives après consonnes non seulement plus légères à la lecture mais aussi plus douces (le jésuite Larramendi vantait au début du XVIIIe siècle la "suavité" de sa langue) à l'oreille (1545 *esperanza*); et dans le même ordre maintien de la séquence "nasale + occlusive bilabiales" partout où elle est étymologique même si les écrivains basques - pas toujours les latins non plus - n'y ont pas été toujours très attentifs (1545 *enplegatu, imprimitu*).

Mais c'est un autre fait, l'aspiration, à la fois encore très vivante chez les anciens locuteurs du domaine dialectal de référence, et pratiquement éliminée notamment à l'initiale (alors même que l'extension de la langue anglaise, par exemple, l'impose partout) chez les jeunes et dans l'enseignement, sauf en partie... pour l'orthographe, qui fournit les plus visibles des particularités d'écriture et signale aussi, pour qui sait "aspirer", un élément essentiel de la nature sonore de la langue. Azkue notait avec raison que la consonne *n* était, pour son rôle morpho-syntaxique, "l'élément vital" de la langue basque. Il ne pouvait en dire autant de l'aspiration, non seulement parce que, hors de son utilité dans le lexique, elle n'a presque aucun rôle grammatical (préfixe verbal de tutoiement), mais aussi qu'elle avait pratiquement disparu dans les dialectes ibériques dès la fin du Moyen Age. La régularité de l'aspiration, ou simple à l'initiale et à l'intervocalique, ou dans les occlusives et apicales aspirées, où c'était sans doute partout l'une des caractéristiques fortes de la langue au vu des témoignages écrits du X^e au XII^e siècle, a été assez relative selon les temps et les lieux. Elle n'en est pas moins l'une des principales originalités phonétiques du basque par rapport aux langues voisines, aussi bien en aspiration simple initiale ou intervocalique, que dans les consonnes aspirées, occlusives sourdes *th*, *kh*, *ph*, ou apicales *lh*, *nh*, *rh*. Elle a été conservée ou éventuellement rétablie, sans excès (il suffit de comparer aux entrées du dictionnaire cité de Lhande), mais avec régularité dans un certain nombre de mots

lorsque l'étymologie l'impose (*hazaro* "novembre" sur *haz̃i* "semence", *hatz̃eman* "attrapé" sur *hatz̃* "doigt, patte"; *phago* "hêtre", *aphez̃* "prêtre", réalisant *f* ou *bb* du latin inconnu du basque ancien), ou l'usage dialectal constant (*orboit* "souvenir, mémoire"), en particulier dans les mots courts (*athe* "porte", *elhe* "parole", *ephe* "délai"). Elle a une grande utilité aussi bien dans les paronymes (*ala*, *alba*, *bala* sont des mots distincts, comme *othe* "ajonc", *ote* "est-ce que?" etc.), que pour l'expressivité (*phitz̃* "allumer, rallumer, ressusciter" par rapport à *biz̃i* "vie, vivant"), quoique la consonne aspirée n'apparaisse pas ou très peu au-delà de la seconde syllabe et dans les mots longs. De ce fait l'aspiration, sous toutes ces formes, est constituante du style.

*

Le roman de Flaubert entre dans la catégorie des "romans de formation": son titre principal *L'Education sentimentale*, annonce un récit des expériences amoureuses (d'où le titre basque *Maitasunaren ikasten*) du personnage principal, Frédéric Moreau. Il comporte aussi un sous-titre qui élargit le thème sentimental, en le généralisant, à l'ensemble des expériences d'une vie (*Histoire d'un jeune homme*), tout en l'inscrivant, abstraitement mais formellement, dans l'histoire. Cette histoire, c'est celle de la France politique du milieu du XIXe siècle vécue dans son centre actif: Paris et la région parisienne. Elle est très précisément datée, année par année, parfois au jour le jour, soit explicitement, soit aussi implicitement. Il n'est donc pas inutile pour la lecture du texte, d'en rappeler brièvement les étapes, qui vont de la fin (1840-1848) de la monarchie parlementaire de Louis-Philippe d'Orléans, descendant du fameux Régent neveu de Louis XIV (régent de 1715 à 1723), ou "monarchie de juillet", au coup d'Etat du 2 décembre 1851 qui établit le Second Empire.

Le 15 septembre 1840, Frédéric Moreau, fils de la bonne société provinciale, tout nouveau bachelier âgé de 18 ans (né donc en 1822, tout comme Gustave Flaubert), rencontre sur un bateau le ramenant chez lui à Nogent-sur-Seine, Madame Arnoux, jeune mère de famille accompagnée de sa famille, dont il tombe immédiatement amoureux, et le restera, en vain, jusqu'à la fin. Les aventures personnelles de Frédéric s'articulent avec les événements publics: projet de "réforme" du régime électoral censitaire (1841), affaire du *Stabat* de Rossini (1842), guerres coloniales en Afrique du nord (1844), "mariages espagnols" de la famille royale (1846), révolution et sac des Tuileries (février 1848) auquel assiste

Frédéric Moreau, établissement de la IIe République, journées de juin et répression de Cavaignac après les émeutes de mai la même année, pendant que Frédéric Moreau est à Fontainebleau avec Rosanette “la Maréchale”. Au coup d’Etat du 2 décembre 1851, Frédéric, qui vient de mettre fin à son projet de mariage avec la brillante veuve de l’ex-comte et banquier Dambreuse, quitte Paris pour Nogent, pour y revenir dès le 4 et assister à la répression des partisans de la république.

A ce temps historique, où s’inscrit l’aventure romanesque proprement dite, Flaubert ajoute les deux brefs chapitres VI et VII de la 3ème partie du roman, qui en font l’épilogue. Après 16 ans d’une vie banale de petit rentier résumée en quelques lignes, “vers la fin de mars 1867”, Frédéric reçoit la dernière visite du grand amour raté, quoique silencieusement partagé, de sa vie, Mme Arnoux maintenant vieillie. Et à la fin de l’année, “au commencement de cet hiver”, il se retrouve avec son camarade de toujours, ancien avocat et préfet sous la République, Deslauriers, tous deux résumant “au coin du feu” leurs vies différemment et également décevantes, et revenant avec émotion à leur commune adolescence nogentaise avec la visite, inopérante déjà, à la maison mal famée de Zoraïde “la Turque”.

Bien des traits rattachent le roman et son héros à l’auteur lui-même: Flaubert était encore plus jeune que Frédéric quand il s’enflamma pour Mme Elisa Schlésinger bien plus âgée, femme d’un éditeur de musique (il édita des œuvres de Beethoven et eut un procès justement sur le *Stabat* de Rossini), comme Frédéric pour Mme Arnoux, femme malheureuse d’un éditeur d’art très adonné, trop, “au cotillon”, aussi sympathique et généreux qu’aventurier en affaires. Mais c’est bien davantage l’esprit et les mentalités, romantisme compris, d’une époque que le roman veut évoquer, et le type d’aventures parisiennes dont un “jeune homme” assez doué mais de caractère passablement inconstant pouvait meubler sa vie de désœuvré: le grand amour impossible de Mme Arnoux est compensé, médiocrement malgré les bons moments, par la vie commune avec Rose-Annette Bron la demi-mondaine entretenue, pendant que se trame la conquête de la riche Mme Dambreuse, et se réalise enfin, mais sans parvenir jusqu’au mariage entrevu.

Il se pourrait pourtant que, tout autant ou même plus que l’aventure “sentimentale” du héros romanesque, ce soit le tableau historique et politique, si proche encore du nôtre, sinon dans les faits, du

moins dans les idées et les discours, les formules et les slogans même,
qui donne au roman de Flaubert une part essentielle de sa modernité.

Jean-Baptiste ORPUSTAN

novembre 2005

Aurkibidea

Zati lehena	or. 2
Zati bigarrena	or. 94
Zati herena	or. 268
Postface du traducteur	or. 401

